

# Ekonomia globala Gizarte globalerako oinarri berriak

MIKEL ZURBANO IRIZAR (koord.)





# EKONOMIA GLOBALA. GIZARTE GLOBALERAKO OINARRI BERRIAK

Mikel Zurbano Irizar (koord.)

Egileak: Efren Areskurrinaga Mirandona (EHU)  
Eduardo Bidaurrezaga Aurre (EHU)  
Alfonso Dubois Migoya (EHU)  
Helena Franco Ibarzabal (EHU)  
Yolanda Jubeto Ruiz (EHU)  
Mertxe Larrañaga Sarriegi (EHU)  
Jon Larrañaga Agirrezabal (EHU)  
Elena Martinez Tola (EHU)  
Antxon Mendizabal Etxabe (EHU)  
Mikel Zurbano Irizar (EHU)

Udako Euskal **Unibertsitatea**  
Bilbo, 2010



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

«Liburu hau Hezkuntza, Unibertsitate eta  
Ikerketa Sailaren laguntzaz argitaratu da»

© Udako Euskal Unibertsitatea

© Mikel Zurbano Irizar (arg.)

ISBN: 978-84-8438-292-8

Lege-gordailua: BI-2033-2010

Inprimategia: CUATROAS, Bilbo

Azalaren diseinua: Iñigo Ordozgoiti

Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546 Faxa. 944793039

Helbide elektronikoa: [argitalpenak@ueu.org](mailto:argitalpenak@ueu.org)

[www.ueu.org](http://www.ueu.org)

Elkar Banaketa: Igerabide, 88 DONOSTIA

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright-jabeen baimenik gabe.

# Aurkibidea

SARRERA .....	11
1. HERRIALDEEN SAILKAPENAK: INDIZE EKONOMIKOAK ETA MUNDUKO EKONOMIAREN ERRADIOGRAFIA, <i>Elena Martinez Tola</i>	17
1.1. Munduko biztanleria .....	17
1.2. Oinarrizko kontzeptuak eta adierazle ekonomiko eta sozialak .....	19
1.2.1. Barne-produktu gordina .....	19
1.2.2. Nazioarteko alderaketak .....	23
1.2.3. Beste adierazle sozioekonomiko batzuk .....	25
1.3. Herrialdeak sailkatzeko ohiko ikuspegia .....	26
1.3.1. Herrialde taldeak .....	26
1.3.2. Munduko Bankuaren ikuspegia .....	27
1.4. Nazio Batuen Garapen Programa (NBGP) eta giza garapenarekin lotutako adierazleak .....	29
1.4.1. Giza garapenaren kontzeptua .....	29
1.4.2. Giza garapenaren neurketa .....	30
1.4.3. Giza garapenarekin lotutako adierazleak: pobrezia eta genero- desberdintasuna .....	35
1.5. Milurtekoko Garapen Helburuak .....	37
2. MUNDUKO EKONOMIAREN GLOBALIZAZIOA, <i>Mikel Zurbano Irizar</i> .....	43
2.1. Globalizazioa: kontzeptuaren hastapenak .....	43
2.1.1. Globalizazioa kapitalismoaren dinamikan .....	43
2.1.2. Nazioartekotze-prozesua kapitalismoaren historian .....	46
2.1.3. Globalizazioaren inguruko ezbaia .....	47
2.2. Globalizazioaren dimentsioak .....	52
2.2.1. Ekonomiaren globalizazioa .....	53
2.2.1.1. Finantza-merkatuen globalizazioa .....	54
2.2.1.2. Merkataritzaren hedakuntza eta liberalizazioa .....	56
2.2.1.3. Jarduera produktiboaren nazioartekotzea .....	57
2.2.2. Globalizazio teknozientifikoa .....	59
2.2.3. Kulturua-uniformizazio globalaren auzia .....	62
2.2.4. Krisi ekologiko globala .....	63

2.3. Kudeaketa sozioekonomikoa kapitalismo globalean: keynesiar erregulaziotik neoliberalismora . . . . .	65
2.4. Globalizazioaren eragile nagusiak: ETNak eta estatu liberala . . . . .	69
2.5. Globalizazioaren krisi orokorra . . . . .	71
<b>3. NAZIOARTEKO MERKATARITZA: ERREALITATEA, OINARRIAK ETA INSTITUZIOAK, <i>Mikel Zurbano Irizar</i> . . . . .</b>	<b>77</b>
3.1. Nazioarteko merkataritzaren bilakaera eta errealitatea . . . . .	77
3.1.1. Merkataritza-interdependentziaren igoera . . . . .	77
3.1.2. Manufakturen eta zerbitzuen merkataritzaren hedapena . . . . .	82
3.1.3. Merkataritzaren kontzentrazioa eta polarizazioa . . . . .	84
3.2. Nazioarteko merkataritzaren oinarriak . . . . .	89
3.2.1. Nazioarteko merkataritzaren teoriak . . . . .	89
3.2.2. Merkataritza-politiken orientazio orokorra . . . . .	92
3.3. Merkataritzaren gobernantza: Munduko Merkataritza Erakundea . . . . .	95
3.3.1. GATTetik MMEra . . . . .	95
3.3.2. Munduko Merkataritza Erakundearen egitura eta funtzioak . . . . .	99
3.3.3. MME eta liberalizazio asimetrikoa . . . . .	102
<b>4. NAZIOARTEKO MONETA- ETA FINANTZA-HARREMANAK, <i>Mertxe Larrañaga Sarriegi</i> . . . . .</b>	<b>111</b>
4.1. Oinarrizko kontzeptuak: dirua eta nazioarteko diru-fluxuak . . . . .	111
4.2. Kanbio-tasak eta kanbio-erregimenak . . . . .	113
4.2.1. Truke-tasa nominalak eta errealak . . . . .	113
4.2.2. Kanbio-erregimenak: kanbio finkoak eta malguak . . . . .	114
4.3. Nazioarteko Diru Sistema: Bretton Woods-etik flotaziora . . . . .	116
4.4. Nazioarteko Finantza Instituzioak . . . . .	119
4.4.1. Nazioarteko Diru Funtza . . . . .	119
4.4.2. Munduko Bankua . . . . .	121
4.5. Merkatu finantzarioak . . . . .	124
4.6. Finantzen globalizazioa . . . . .	131
4.7. Krisi finantzarioak . . . . .	133
4.7.1. Kanpo-zorraren krisia: 1980ko hamarkadako krisia . . . . .	134
4.7.2. Kanbio-krisia: Asiako krisia . . . . .	135
4.7.3. Banku-krisia: Atzeraldi Handia . . . . .	136
<b>5. GLOBALIZAZIOAREN DIMENTSIO TEKNOLOGIKOA, <i>Antxon Mendizabal Etxabe</i> . . . . .</b>	<b>141</b>
5.1. XX. mendeko iraultza zientifikoa . . . . .	141
5.2. Teknologiaren iraultza . . . . .	142
5.3. Bost iraultza teknologikoak . . . . .	143

5.4. Mikroelektronikaren iraultza . . . . .	145
5.4.1. Serie ezberdin eta laburrak . . . . .	145
5.4.2. Kudeaketarako oinarri berriak . . . . .	145
5.4.3. Lanaren antolaketa . . . . .	146
5.4.4. Enpresa globala. . . . .	146
5.4.5. Lan-kontratua . . . . .	147
5.4.6. Gizarte malgua . . . . .	148
5.4.7. Internet . . . . .	149
5.5. Bioteknologia. . . . .	149
5.5.1. Merkantilizazio-prozesua . . . . .	150
5.5.2. Bioaniztasunaren kolonizazioa . . . . .	151
5.5.3. TRIPS . . . . .	152
5.5.4. Korporazio handiak . . . . .	152
5.5.5. TRIPSEk Hegoaldeko herrietan izandako hedapena. . . . .	153
5.6. Nanoteknologiak . . . . .	153
5.6.1. Ahalmenak . . . . .	154
5.6.2. Arriskuak . . . . .	155
5.6.3. Nanoteknologiak eta AEB . . . . .	156
6. ENPRESA TRANSAZIONALAK: EKONOMIA-ERAGILE	
GLOBALAK, <i>Helena Franco Ibarzabal eta Mikel Zurbano Irizar</i> . . . . .	159
6.1. ETNak eta atzerriko inbertsio zuzena: kontzeptuarekiko hurbilketa . . . . .	159
6.1.1. Kapitalen internazionalizazioa . . . . .	159
6.1.2. Kontzeptuaren eta definizioaren inguruan . . . . .	160
6.1.3. Enpresa transnacionalen ezaugarri nagusiak . . . . .	162
6.1.4. ETNen garrantzia neurtzeko adierazleak . . . . .	165
6.1.4.1. Atzerriko inbertsio zuzenari buruzko datuak . . . . .	165
6.1.4.2. ETNek jarduera ekonomikoan duten garrantzia	
neurtzen . . . . .	166
6.2. ETNen hedapena eta produkzioaren internazionalizazioa . . . . .	167
6.3. AIZren jokabidearen arrazoiak eta teoriak . . . . .	176
6.3.1. Azalpen neoklasikoa: errentagarritasunak gidatutako kapital-	
mugimenduak . . . . .	176
6.3.2. ETNei buruzko teoriaren hastapenak: merkatuko	
inperfekzioak . . . . .	177
6.3.3. Ildo berriari sakonduz: Dunning-en teoria eklektikoa. . . . .	179
6.3.4. Teoria osagarri batzuk . . . . .	181
6.4. ETNak nazioarteko ekonomiaren eragile globalak . . . . .	182
6.5. ETNen kokapen-estrategiak. . . . .	186
6.6. ETNen jardueren ondorio ekonomikoak . . . . .	191

7. GARAPEN-BIDEKO EKONOMIAK, <i>Yolanda Jubeto Ruiz eta</i> <i>Efren Areskurrinaga Mirandona</i> . . . . .	197
7.1. Garapenaren inguruko kezka: sorrera eta bilakaera. . . . .	198
7.1.1. Kolonizazio-prozesuen bukaera . . . . .	199
7.1.2. II. Mundu Gerraren osteko testuingurua. . . . .	200
7.1.3. Hirugarren Munduko kontzeptuaren sorrera eta bilakaera . . . . .	200
7.1.4. Nazio Batuen instituzioen papera: MB, NDF, CEPAL, UNCTAD, NBPG. . . . .	201
7.2. Garapenari eta azpigarapenari buruzko azalpen teorikoak . . . . .	205
7.2.1. Paradigma estrukturalistatik mendekotasun-eskolara. . . . .	205
7.2.2. Modernizazio-teoriak eta kapitalismoaren ibilbidea. . . . .	208
7.2.3. 1970eko hamarkada: krisia, ideia berriak eta aldaketarako garai aproposa. . . . .	212
7.2.4. Giza garapena . . . . .	214
7.2.5. Giza garapen iraunkorra . . . . .	217
7.3. Garapena lortzeko estrategiak . . . . .	218
7.3.1. Nekazaritzaetik industrializaziorantz . . . . .	218
7.3.2. Pobrezia gainditzeko estrategiak . . . . .	221
7.3.2.1. Munduko Bankuaren strategiaren bilakaera . . . . .	222
7.3.2.2. Nazioa Batuen Garapen Programaren estrategia . . . . .	224
7.4. Gaur egungo erronka nagusiak . . . . .	224
8. INTEGRAZIO EKONOMIKORAKO EKIMENAK: GARAPENERAKO TRESNAK?, <i>Eduardo Bidaurratzaga Aurre</i> . . . . .	229
8.1. Hurbilpena teoriaren aldetik: kontzeptua, korronteak eta helburua. . . . .	230
8.1.1. Kontzeptua . . . . .	230
8.1.2. Korronteak . . . . .	232
8.1.2.1. Korronte ortodoxoa eta haren erabilgarritasuna . . . . .	233
8.1.2.2. Korronte alternatiboen zailtasunak eta mugak . . . . .	236
8.1.3. Helburua . . . . .	238
8.2. Tokian tokiko esperientziak. . . . .	240
8.2.1. Aurrekariak eta lehenengo esperientziak . . . . .	240
8.2.2. Europa. . . . .	241
8.2.3. Amerika . . . . .	243
8.2.4. Asia eta Ozeano Barea . . . . .	246
8.2.5. Afrika . . . . .	248
8.2.6. Azken joerak eta ekimenak. . . . .	252
8.3. Globalizaziorantz ala erregionalismorantz? . . . . .	255
8.4. Garapenerako bidean integrazio-ekimenen eskutik? . . . . .	257



9. GLOBALIZAZIOAREN DIMENTSIO SOZIALA,	
<i>Alfonso Dubois Migoya</i> (Itzulpena: Jon Larrañaga Agirrezabal) . . . . .	263
9.1. Pobrezia eta desberdintasunak, gaur egungo eztabaida . . . . .	263
9.2. Errenta-desberdintasunak . . . . .	265
9.2.1. Konbergentzia edo dibergentzia: eztabaidarako gaia . . . . .	265
9.2.2. Desberdintasun globalaren kontzeptuak . . . . .	266
9.2.3. Errenta-desberdintasunei buruz dauden datuen berrikusketa . . . . .	268
9.2.4. Genero-desberdintasunak . . . . .	270
9.2.5. Aberastasunaren desberdintasunak . . . . .	272
9.2.6. Miseriaren kluba . . . . .	274
9.3. Mundu-pobrezia . . . . .	275
9.3.1. Proposamen gainartzailea eta dominantea . . . . .	275
9.3.2. Pobreziaren bilakaera . . . . .	278
9.4. Giza segurtasuna . . . . .	283
9.5. Justizia globala . . . . .	286
9.5.1. Gailentzen ari den gizarte globala . . . . .	286
9.5.2. Arazoaren egoera . . . . .	287
9.5.3. Ekitate-helburuak proposatzeko erresistentziak . . . . .	288
9.5.4. Birbanaketa globalerako egungo zutabeak . . . . .	290
9.5.4.1. Rawls eta justizia globala . . . . .	291
9.5.4.2. Konpentsazio historikoa . . . . .	292
9.5.4.3. Kosmopolitismoa . . . . .	293
9.5.5. Justizia globala . . . . .	295
10. AKRONIMOAK . . . . .	299



## Sarrera

Ekonomiaren nazioartekotze-prozesua ez da fenomeno berria. Kapitalismoaren berezko ezaugarria den nazio-merkatuak eta mugak gainditzeko joera berebiziko dinamika indartsua ezagutzen ari da azkenaldian. 1970eko hamarkadan eztanda egin zuen kapitalismoaren krisia gainditzeko asmoz indarrean ipinitako liberalismoaren oldeak globalizazioaren itxura hartu du. Merkatuen desarauketak, enpresa publikoen pribatizazioek, estatuaren esku-hartzearen murrizketak, austeritate- eta doikuntza-politika zorrotzek... paradigma liberalaren aplikazio unibertsalaren bidez globalizazioaren mugak eta kontraesanak mahaigaineratu dituzte. Azken hogeita hamar urteetan azpimarratu den kontraesana da gaur egungo krisiaren irtenbidea oztopatzen duen elementu nagusietariko bat: ekonomiaren eta kapitalaren metaketaren dimentsio globala —merkatu eta eragile globalak tarteko— ez dator bat erregulazio-esparruarekin, zeina nazioko edo estatuko esparrura mugatzen baita. Bitasun horrekin ekonomiaren eragile pribatu nagusiek, enpresa eta finantza-erakunde transnasionalek, eskuak libre dituzte beren errentagarritasuna muga eta oztoporik gabe gehitzeko, ez baitute estatuen kontrola ekiditeko eragozpenik. Horrela eragile pribatuek beren etekin-mailari eusteko *dumping* ekologikoa eta soziala erabiltzen dute era sistematiko batez estatuen eragin gabeziak hori errazten duela ahazteke.

Testu hau idaztean inoiz baino gordinago nozitzen ari gara liberalismo globalaren garaiko gehiegikerien ondorengo krisia. Nazioarteko finantza-sistemako liberalizazioa eta desarauketa muturrera eramanez eta gero, finantza-erakundeek beren botere-maila erabiliz finantza-merkatu globalak leherrarazi egin dituzte. AEBetako *subprime* hipoteketan jatorria duen finantza-krisia ekonomia osora hedatu zen berehala eta metaketa-ereduaren krisi orokorra bizkortu eta hedatu du. Ekonomia produktiboaren krisia, kapitalismoaren ohiko gainproduktzio-krisia da. Gaur egungo ahalmen produktiboaren erabilera % 70-75 ingurukoa izanik —aspaldiko apalena— krisiaren larritasuna bistakoa da. Haatik, egoera honi aurre egiteko neurriak ahulak eta koordinaziorik gabekoak dira eta batik bat finantza-sistemako eragile handien mesederako izaten ari dira. Erakunde horiek erreskate-planen bidez jaso dituzten finantza-baliabide publikoak, aldiz, ez dira banku arteko ohiko funtzioa betetzen ari eta oso eskasak dira inbertsio produktibora heltzen diren banketxeen mailegu-lerroak. Krisi-garaian finantza-erakundeek gero eta gutxiago jotzen dute burtsetara, hauen arrisku-maila eta errentagarritasun apala saiheste aldera. Ostera, beren eragiketa uherren eragin kaltegarrienak estali dituzten

neurrian baliabide publiko horiek estatuen zorraren gaineko tituluetara jo dute epe laburreko errentagarritasun errazaren bila. Finantza-krisiaren testuinguruan burtsetako negozioa alboratu egiten dute eta ziurragoa den zor publikoaren merkatura jotzen dute finantza-erakundeek. Hauek laguntzeko estatuen zor publikoa —krisi-garaiko egonkortzaile automatikoen eraginez handitzen dena— are gehiago handitu da eta, paradoxikoki, erakunde horiek berek erosten dituzte zor publiko hori finantzatzeko estatuek interes garaiagoan jaulkitzen dituzten tituluak. Baina zor publikoaren eskaria hainbeste handitzen denez, interes-tasa gutxituz doa. Eta horri buelta emateko eta negozioa biribiltzeko finantza-erakundeen menpe dauden rating-etxeek —beren kalifikazioak tarteko— estatuen gainean (Europako estatu «periferiko» gainean batez ere) presioa egiten dute «herrialdearen arriskuaren» maila handituz zor publikoaren tituluen interes-tasa gehituz. Banketxeen etekinak errazteaz gain, bide batez, ohiko helburu gehigarri bat ere lortzen dute: hersturaplanak orokortu eta lan-merkatua areago malgutu zein ongizate-estatuaren baldintzak uzkurto egiten dituzte. Hauxe da lerro hauek idazten ari garenean bideratzen ari den krisiaren azken gertakizun larria, zalantzarik gabe atzeraldia areagotuko duena eta muturrean krisiaren irtenbidea urrundu baino egingo ez duena. Nazioarteko ekonomiaren eraikuntza jakin baten ondorioz disparekotasunak eta ezegonkortasuna eguneroko errealitatearen parte dira. 2010eko hamarkadaren hasierako ekonomia-larrialdia aspaldiko gogorrena da eta azaldutako iturburu finantzarioa eta garapen orokorra du, alabaina nazioarteko ekonomiaren egonkortasunik eza finantzaz harago ere sumatzen da. Herrien arteko disparekotasunak eta, oro har, errenta-ezberdintasunak, gobernantza globalaren defizita eta bidegabekeria, garapen-eredu kutsagarri eta jasangaitzak eragindako klima-aldaketa, pobrezia hedapena eta oinarritzko beharrak asetzeko zailtasunak, etab. nahikoa larriak dira nazioarteko ekonomiaren estutasun eta zailtasunak biderkatzeko.

Horrenbestez, kapitalismo globalaren mugak bistara ekartzea dugu xedetzat liburu honetan eta, nahiz beste muga larriak ere egon badauden, finantza-arloko muga da 2010eko lehen erdian bistara etortzen den muga nabarmenena. Izan ere, Europar Batasuneko hainbat herrialde «periferiko» helburutzat hartu ditu finantza-kapital globalak eraso espekulatzailer indartsu bezain ezegonkortzailearen bidea erabilia. Horretarako, euroaren eraikuntzaren berezko mugei probetxua atara diete eta finantza-merkatuetako gardentasunik eta informaziorik eza beren onerako erabili dute finantza-eragileek. Nolanahi ere, jokabide erasokor hau ez da berria kapitalismo finantzarioaren historia garaikidean. 1980ko hamarkadan garapen-bideko herrialdeen zor publikoaren finantza-arazo larria lehertu zen, finantza-merkatuetako muturreko liberalizazioa gauzatu zen hamarkadan bertan alegia. Europatik irten gabe, beste bitarteko batzuk erabiliz Europako Diru Sistemaren aurkako erasoari ekin zioten 1992an. Hain zuzen, Italiak, Espainiako estatuak eta Erresuma Batuak beren txanponak debalatu behar izan zituzten finantza-eragileen eragiketa espekulatzailer tarteko. Baina, hori segida amaigabe baten urrats bat baino ez da. Besteak beste, honako herri hauetan bizi izan dute azken 20 urteotan finantza-krisien

eragina: Mexikon 1994an, Asiako hego-ekialdean 1997-1998 aldian, Brasil eta Errusian 1998an, Turkian 2000n, 2001-2002 urtealdian Argentinan, teknologia berrien burbuila AEBetan 2001ean... eta azkenekoz atzeraldi handi globala. Finantza-krisien segidak erakusten du finantza-arloko egonkortasunik eza ez dela salbuespena, baizik eta berezko jokabide gisa hartu behar dela kapitalismoaren globalizazio liberalaren testuinguruan. Liburuaren 4. gaien ekonomia globalaren finantzazioaren fenomenoak aztertuko dugu eta gaurko kapitalismo globalaren funtsezko osagaia dela ondorioztatuko dugu.

Finantza-eremuko krisialdia globalizazioaren erritmoa eta izaera ere eraldatzen ari da eragin duen krisi orokorraren astinduekin. Munduko ordena geoekonomikoa bera ere bestelako itxura hartzen ari da. Globalizazioarekin herrialdeen ekonomia-dinamika berrituak munduko argazkia aldarazi du. Horrek, herrialdeen sailkapenean zenbait kategoria mahai gainera ekarri ditu eta herrialdeen arteko botere-banaketa eragin du. Egungo atzeraldi handi globalaren aurrean irtenbideak eraikitzeke garaian neurrien koordinazioa eta lankidetzaz-jarduerak ezinbestekoa izanik, funtsezkoa izaten ari da, esate baterako, duela gutxi azaleratu den herrialde emergenteen papera G20 taldearen barnean. Azken hamarkadetan munduko gobernantzaren ahuleziari erantzuteko munduko politika makroekonomikoen koordinaziorako G7 taldeak hartutako ardura zabaldu egin zen krisiaren ez-tandarekin. Bestalde, globalizazioaren ondorioz handitzen ari diren munduko disparekotasunak gutxien garatutako herrialdeen kalterako dira hein handi batean. Herrialde taldeen kategoria hauek eta beste batzuk ere hamarkada honetan finkatu dira eta horien azterketarako oinarriak ipintzen dira lehen kapituluak. Horretarako, lehen-dabizi indize demografiko, sozial eta ekonomiko ezagunen gainean arreta ipintzen dugu. Oinarri honekin herrialdeen sailkapenaren ohiko ikuspegia aurkezten da eta, batik bat, Munduko Bankuak egiten duena azpimarratzen dugu. Honekin alderatuz, Nazio Batuen Garapen Programaren giza garapenari buruzko txostena aurkezten da eta giza garapenaren kontzeptura ere hurbiltzen gara. Abiapuntu horretatik giza garapenaren indizea eraikitzen dugu, zeinak errotik aldatu egin baititu herrialdeen egoera soziala eta ekonomikoa ebaluatzeke filosofia eta irizpideak.

Arestian aipatu dugun bezala, 1980ko hamarkadaren trantsizio-aldian globalizazioaren aldearen habeak ezarri ziren; batez ere paradigma ideologiko eta politikoa aldatu ziren eta eredu keynesiar eta fordistaren helburu, tresna eta hastapenak neoliberalismoak ordeztu zituen. Ekonomiako esku-hartzea murriztearekin batera, estatuek merkatuetako desarauketa ez ezik merkatuen izaera globala ere piztu zuten. Merkatu globalen eta eragile ekonomiko transnazionalen ahalmena eta eragina handituz joan da geroztik eta, aldiz, ekonomiaren arloan estatuen funtzioak eta esku hartzeke ahalmena murriztuz. Bigarren gaiak globalizazioaren kontzeptua bera aztertzeke aukera ematen du, berritik eskaintzen duena bereizteke eta bere inguruan sortu zen ez-baiak terminoaren edukira hobeto hurbiltzeke aukerari bide emanda. Kapitalismoaren egungo metaketa-eredua izendatzeke erabiltzen dugun terminoa

dimentsio anitzekoa dela egiaztatuko da jatorrizko dimentsio ekonomikotik harago baitoa eta hainbat arlotara hedatzen da. Globalizazioaren eraikuntzaren hastapen eta irizpideek liberalismotik edaten dutelarik, eragile pribatuen gaineko kontrol-ga-beziak ahalbidetu du finantza-eragileen gehiegikeriek krisi larriaren itxura hartzea.

Ekonomia-globalizazioaren eremu zehatzak aztertzen dira hurrengo kapituluetan. Hirugarrenean, nazioarteko merkataritzaren analisi orokorra egiten da. Nazioarteko ondasun eta zerbitzuen esportazio eta inportazioek izandako hazkunde esanguratsua aztertuko dugu. Merkataritza-fluxuak oso kontzentratuta daude herrialde gutxi batzuetan eta horrek globalizazioak duen izaera disparekoaren lehen argazkia eskaintzen du. Merkataritzaren osagaien garrantziaren aldaketak industria-gaien eta zerbitzuen alde egiten du. Horrekin guztiarekin, egiaztatuko dugu lanaren nazioarteko zatiketan edo nazioarteko espezializazio produktiboan aldaketak gertatzen ari direla, nahiz eta jokabide berria funtsean herri gutxi batzuen ardura den. Merkataritzaren eremuko arkitektura instituzionalaren azterketari ere ekiten diogu, Munduko Merkataritza Erakundearen bilakaerari erreparatuta. Erakundetze-prozesu hau nazioarteko eszenatokian salbuespena da; izan ere, munduko gobernantzaren ahuleziaren testuinguruan MMEren sorrera instituzionala berrikuntza da bere zigor-mekanismoa tarteko dela gehienbat. Haatik, merkataritzaren arloko liberalizazioa asimetrikoa da oso eta aukera urriak eskaintzen dizkie garapen-bideko herriei beren politika autonomoak indarrean jartzeko eta merkataritza-polarizazioari amaiera emateko.

Nazioarteko moneta- eta finantza-harremanak aztertzen dira laugarren gailan. Finantza-arloko liberalizazioaren sakontasunak finantza-merkatuen muturreko globalizazioa ahalbidetu du. II. Mundu Gerraren ostean Bretton Woods-en eraiki zen moneta- eta finantza-sistemaren eraikuntzaren ondotik, 1970eko hamarkadako haren hondamendiak ezegonkortasuna eta gorabehera ugari ekarri zituen finantza-arloan. Hurrengo hamarkadan gailendu zen liberalismoak eta finantza-merkatu eta produktu berrien hedapen bizkorrak arindu zuten globalizazio finantzarioaren etorrera. Finantza-arloko konplexutasunak eta dimentsio erraldoiak ekonomiaren finantzarizaziorako bidea erraztu zuten eta aipatutako atzeraldi handi globalaren leherketaren baldintzak ipintzen lagundu zuten hein berean.

Ezagutzaren ekonomia da produkzio-sistema eraberrituan gailendu den paradigma produktiboa. Paradigma horren erdigunean zientzia, teknologia eta berrikuntzak daude, nahiz hura kontzeptu zabalagoa den. Zientzia, teknologia eta berrikuntzen sistemak, bertako aldaketak eta produkzio-sistema berrian duten txertatzeko erak dira bosgarren kapituluaren mugarriak. Iraultza teknologikoen ibilbidea errepasatu ondoren, hainbat arlotako berrikuntzen gaineko analisisa gauzatu da, batik bat mikroelektronika, bioteknologia eta nanoteknologiaren arloan. Alabaina, arlo horietako berrikuntzek maila mikro zein makroekonomikoan dituzten eraginaren azarnak plazaratuko dira, hala nola enpresaren antolaketa-erak,

lan-erregimenak, gizarteak... pairatzen dituzten aldaketak. Teknologiaren apropiazioak dimentsio sozial nabarmena duela ezin da alboan utzi ezta horrek herrialdeen garapenerako aukeretan eragin disparekoak dituela ere.

Enpresa transnazionalak dira seigarren kapituluko protagonistak. Beren hazkundearen eta jokabidearen arrastoak ulertzeko beharrezkoak diren tresna analitikoak eta kontzeptualak aurkeztu eta erabiliko ditugu eragile global hauen dinamika berriak azaltzeko. Eragile hauek indarberritu egin dira globalizazioaren testuinguruan, haren norabidea bera ere baldintzatzeraino. Beraz, ez da harritzekoa hauen errealitatea aztertzerakoan ekonomia globalaren ezaugarriekin bat etortzea: enpresa transnazionalen inbertsio-fluxuen munduko polarizazioa herrialde gutxi batzuetan, enpresa transnazionalen ahalmenak bultzatu ditu merkatu globalen oligopolizazioa, teknologia eta berrikuntzen apropiazio eta erabilera disparekoa, estatuen kontrol-mekanismoak saihesteko eta politikak baldintzatzeko ahalmena, etab. Analisi orokorrerako nahitaezkoa da enpresa transnazionalen inguruan egin diren ekarpen teorikoen berrikusketa gauzatzea, teoria eta korrante gehienek ikuspegia partziala eta mugatua dela ahazteke. Azken hausnarketa eskainiko diogu enpresa transnazionalen jarduerak dituen ondorio ekonomiko argien aipamenari, eta hauen arteko garrantzitsuenak dira, besteak beste, inbertsioaren kalitatea eta lurraldean duen eragina, estatuen politikan duen ahalmena eta eragin sozialaren nolakoa.

Ekonomia-globalizazioaren prozesuaren ondorioz aldatu egin da garapen ekonomiko eta sozialari buruzko adiera zein herrialdeetako garapen-mailaren errealitatea eta egoera. Hain zuzen, zazpigarren kapituluko helburua garapen-bideko herrialdeen bilakaeraren azterketa egitea da eta horretarako beharrezko baliabide teorikoak zein bitartekoak aurkeztea. Garapen eta azpigarapenaren inguruko ekarpen teorikoak eta nazioarteko erakunde multilateralek —Nazio Batuetakoek, batez ere— jorratutako irizpideak eta garapenerako estrategiak aztertuko dira. Bestalde, garapenerako tresna nagusi batzuk plazaratuko ditugu, hala nola industrializazioarako estrategia garrantzitsuenak eta pobrezia aurre egiteko estrategia nabarmenenak. Garapenaren inguruko kontzeptua berriratzekoan giza garapenaren ekarpena lehen mailakoa da, garapenaren hasierako dimentsio aldebakarrekoari aniztasuna eskaini diolako gizartearen premiak eta beharrak ekonomiaren aurretik ipinita.

Nazioarteko fluxu ekonomikoen hedapena da globalizazio neoliberalaren erakusle behinena, horren kausa eta ondorio dena aldi berean. Alabaina, eskualdeko integrazio ekonomikoek ere tamainako bulkada eman diote ekonomiaren nazioartekotzeari. Herrialde batzuek beren ingurukoekin eraikitako integrazio ekonomikorako akordioek globalizazioaren parez pareko bidea egin dute eta elkar hartuta doazen bi kontzeptu ditugu. Nazioartekotzea sakontzen duten bi bide hauek kontrajarriak diren ala osagarriak diren eztabaidagai dago eta horretan hausnarketa egiten da zortzigarren gaian. Bertan, ekonomi integrazio-prozesuetako oinarriak

eta teoriak gainbegiratu egiten ditugu eta kontinenteen mailako integrazio-prozesu formalen berrikusketa orokorrean ere pausatzen gara. Eskualdeko integrazio-prozesu hauen konplexutasuna bistakoa da eta errealtate anitzi erantzuteko saioa dago horien atzean. Izan ere, ezin dira parametro berdinen arabera ebaluatu, demagun, Europako integrazioen esperientziak edo Afrikakoak. Horregatik, baliabide eta tresna teoriko berriak aurkezten dira hemen bestelako errealtate integratzaileen analisia modu egokian gauzatzeko. Finean, prozesu hauen zabaltasuna ikusita integrazioek garapena sustatzeko bidean duten ahalmena eta eskaintzen dituzten baliabideen inguruko hausnarketa gauzatzen da.

Azkeneko gaian globalizazioaren izaera dimentsio anitzekora itzultzen gara, gehienbat globalizazio ekonomikoaren bidea zabal eta sakon urratu eta gero. Kapitulu guztietan zehar orain arteko ekonomia-globalizazio liberalaren mugak eta defizitak azalera eraman ditugu. Beste gabezia batzuk ez ditugu aztertu arrazoi ugari tarteko. Alabaina, kapitulu honetan liburuaren xedearekin bat eginez globalizazioaren dimentsio plurala berreskuratzen dugu bigarren kapituluko globalizazioaren oinarriak aintzat hartuta. NDF, Munduko Bankua edo Nazio Batuak bezalako erakunde multilateralek berek ere gero eta maizago barne hartzen dituzten globalizazioaren ekonomiaz bestelako hainbat eraginek garapenaren kontzeptu eta teoriaren inguruan egindako ekarpen berritzaile eta sozialagoarekin bat egiten dute. Globalizazioaren dimentsio sozialak eta ekologikoak diziplinarteko ikuspegi akademikoari koherentzia eskaintzen diote eta belaunaldi arteko zein baitako ekitatearen helburuari hauspoa.

Nolanahi ere, globalizazioak errenten disparekotasuna areagotu eta pobrezia-ziaren murrizketarako aukerak gutxitu egin ditu. Pobrezia eta desberdintasunaren kontzeptuen inguruko berrikusketa egitean hauek birsortzearen aldeko hautua egiten da, batez ere Milurteko Garapenaren Helburuen porrotaren aurrean. Horrenbestez, sozietate globala bidezkoagoa izateko errenta-birbanaketarako mekanismoak aktibatu eta indartu beharko dira, baita hura irudikatzeko justizia globalaren asmoa balio berrien gainean zedarritu ere. Nazioarteko instituzio demokratikoen eraikitako gobernatza global berriaren eraikuntza justizia globalaren esparrua osatzera dator. Finean, ekonomia globala bestelakoa —bidezkoa eta berdina— izango bada, sozietate globala kontzeptu teorikoa izatetik berau egikaritzeko urratsa ematera pasatzea nahitaezkoa da gaur egungo merkatukrazia gainditze aldera.

Mikel Zurbano Irizar  
Bilbo, 2010eko maiatza



# 1. Herrialdeen sailkapenak: indize ekonomikoak eta munduko ekonomiaren erradiografia

*Elena Martinez Tola*

Edozein analisi ekonomiko egiteko adierazle ekonomiko bakoitzaren atzean dagoen kontzeptua, dagokion interpretazioa eta horiei buruzko informazio-iturriak ezagutzea komenigarria da. Lehenengo kapitulu honetan munduko ekonomiaren arloan gehien erabiltzen diren adierazleen aurkezpena egiten da: horien ezaugarriak zein esanahia aztertzen dira. Era berean, iturri desberdinetako informazioan oinarritutako adibide praktikoak ere azaltzen dira, munduko ekonomiaren esparruan gertatzen diren alderaketen lehenengo hurbilketa gisa.

## **1.1. MUNDUKO BIZTANLERIA**

Munduko ekonomiaren analisia egiten hasi aurretik komeni da lurraldeen araberrako biztanleriaren banaketa aztertzea. Nazio Batuetako demografoen arabera, munduko biztanleriak 6 mila milioiak gainditu zituen 1999ko urrian eta horrek lau aldiz gehitu dela XX. mendean esan nahi du. 2009. urtean 6.829 milioi ingurukoa da munduko biztanleria eta 2050. urterako proiektzioak aurreikusten duenez, 9 mila milioitik gorakoa izango da.

1.1. taulan agertzen diren zifrek populazioaren banaketa oso desorekatua dela azaltzen dute. Datu orokorreki dagokienez, garatutako herrialdeetako populazioa munduaren % 18,1ekoa da eta garapen-bideko herrialdeetako, % 81,9koa. Azken talde horretan gutxien garatutako herrialdeak (GGH) bereizten dira. Gaur egun 49 herrialdek osatzen dute Nazio Batuen Erakundeak horrela izendatutako taldea, eta horietan 835,5 milioi pertsona bizi dira 2009. urteko datuen arabera. Zerrenda horretan sartzen diren herrialdeek hiru urterik behin berrikusten diren baldintzak bete behar dituzte: i) diru-sarrera apalak izatea, ii) giza baliabide ahulak edukitzea, iii) dibertsifikazio ekonomikoaren maila baxua aurkeztea. Lehengo baldintzari dagokionez, herrialdeak 800 dolar edo gutxiagoko biztanleko BPG izan behar du.

Nazio Batuen bereizketa geografikoari jarraituz, Asian munduko biztanleriaren % 60,3 kontzentratzen da (4.121,1 milioi pertsona) eta Afrikan, % 14,8. Indian eta Txinan munduko populazioaren % 37,2 bizi da eta, horrexegatik, munduko

ekonomiaren analisiak egiteko orduan herrialde horietako joerak kontuan hartzea ezinbestekoa da.

2050. urterako proiektzioak ere datu esanguratsuak eskaintzen dizkigu. Munduko populazioaren 2009-2050 urte bitarteko hazkundera % 33,97koa izango da, baina bilakaera hori batez ere garapen-bideko herrialdeetan gauzatzen da, garatutako herrialdeen hazkundera oso txikia izanik (% 3,39). Gauzak horrela, 2050. urterako munduko populazioaren % 86,1 garapen-bideko herrialdeetan biziko da eta GGHetan, % 18,3. Lurraldeei begiraturaz, Afrikako hazkundera oso nabarmena da: populazioa bikoiztu eta ia 2 mila milioi biztanle izatera helduko da (1.998,5 milioi pertsona).

### 1.1. taula. Munduko biztanleria, 2009. urtean eta 2050. urterako proiektzioak.

	2009		2050	
	milioi	%	milioi	%
Garatutako herrialdeak	1.233,4	18,1	1.275,2	13,9
Garapen-bideko herrialdeak	5.596,1	81,9	7.875,0	86,1
<i>Gutxi garatutako herrialdeak</i>	<i>835,5</i>	<i>12,2</i>	<i>1.672,4</i>	<i>18,3</i>
<b>Guztira</b>	<b>6.829,4</b>	<b>100,0</b>	<b>9.150,0</b>	<b>100,0</b>
Afrika	1.009,9	14,8	1.998,5	21,8
Asia	4.121,1	60,3	5.231,5	57,2
<i>India</i>	<i>1.198,0</i>	<i>17,5</i>	<i>1.613,8</i>	<i>17,6</i>
<i>Txina</i>	<i>1.345,8</i>	<i>19,7</i>	<i>1.417,0</i>	<i>15,5</i>
Europa	732,2	10,7	691,1	7,6
Latinoamerika eta Karibe	582,4	8,5	729,2	8,0
Ipar Amerika	348,4	5,1	448,5	4,9
Ozeania	35,4	0,5	51,3	0,6
<b>Guztira</b>	<b>6.829,4</b>	<b>100,0</b>	<b>9.150,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Populazio Gaietarako Nazio Batuen Funtsa (UNFPA).

Adinaren arabeko populazioaren egitura ere oso desberdina da lurraldearen arabera (1.2. taula). 15 eta 64 urte bitartean dauden pertsonen proportzioa oso antzekoa da eskualde guztietan, nahiz eta Afrikan txikiagoa izan bestekin alderatuta. Afrikan 15 urtetik beherako populazioaren proportzioa bereziki altua da (% 41,2) eta 65 urtetik gorako proportzioa izugarri txikia: % 3,4. Bestetik, Europan alderantzizko egoera daukagu: 15 urtetik beherako proportzioa bereziki txikia (% 15,7) eta 65 urtetik gorako proportzioa oso altua, populazioaren % 16 izanik.

1.2. taulan agertzen da beste datu interesgarri bat: sexuen arteko ratioa zenbait lurraldetan. Pentsatu ohi denaren kontra, mundu-mailan gizonak dira gehien-go, 101,5 gizon 100 emakumeko dago-eta (populazioaren % 50,39). Alabaina, eskualde guztietan emakumeak dira gehien-go, Asian izan ezik. Europan ratorik txikiena aurkitzen dugu, 100 emakumeko 92,8 gizon daude; baina Asian egoera kontrakoa da: 100 emakumeko 104,8 gizon. Errealitate horren arrazoia emakumezkoek jasaten duten mota askotako diskriminazioa da.

**1.2. taula. Adinaren araberako populazioa.**

	Adina (%)			Gizonezkoak / Emakumezkoak (%)
	-15	15-64	+65	
Afrika	41,2	55,4	3,4	99,2
Asia	29,5	64,2	6,4	104,8
Europa	15,7	68,3	16,0	92,8
Latinoamerika eta Karibe	29,5	64,2	6,4	97,4
Ipar Amerika	20,3	67,3	12,4	97,0
Ozeania	24,7	65,0	10,4	99,9
Guztira	28,0	64,6	7,4	101,5

Iturria: *Demographic Yearbook 2006*. Nazio Batuen Erakundea.

## **1.2. OINARRIZKO KONTZEPTUAK ETA ADIERAZLE EKONOMIKO ETA SOZIALAK**

### **1.2.1. Barne-produktu gordina (BPG)**

Orain arte ekonomia baten jarduera produktiboa neurtzeko erabili ohi den adierazle nagusia barne-produktu gordina (BPG) da. Honek herrialde batean, denbora-tarte jakin baterako (normalean urtebeterako), produkzio-unitate egoiliarren produkzio-jardueraren azken emaitza adierazten du. Zentzu horretan, herrialdeetako ekonomiaren tamaina islatzen du.

Adierazle honek amaierako ondasun eta zerbitzuak baino ez ditu barneratzen; hau da, ez du jasotzen bitarteko ondasun eta zerbitzuen baliorik, balio hori amaierako ondasun eta zerbitzuen prezioan barneratuta dagoelako. Bestetik, herrialde baten mugen barnean egoitza duten produkzio-faktoreek eginiko produkzioa neurtzen du, kapitalaren jabetza aintzat hartu gabe. Adibidez, AEBetan dagoen enpresa japoniar bateko produkzioa AEBetako BPGn jasotzen da, nahiz eta enpresa horren kapitala AEBetako ez izan.

Urte zehatz bateko BPG kalkulatzeko, urte horretako prezioak erabiltzen dira eta, horrela, BPG nominala edo prezio korranteetan lortzen da. Adierazle honetan prezioen igoerak eragin zuzena du, eta BPG nominalaren handitzea posible da amaierako ondasun eta zerbitzuen produkzioa zabaldu gabe. Prezioen gorakadaren eragina saihesteko horrekin lotutako beste adierazle bat kalkulatu ohi da: BPG erreala edo prezio konstanteetan.

BPG errealak urte bakoitzean ekoitzitako ondasun eta zerbitzuen kuantitateak oinarrizko edo erreferentziatzko urte bateko prezioetan baloratzen ditu. Horrela, herrialde bateko denboran zehar izandako benetako jarduera ekonomikoaren bilakaera ezagutzeko BPG erreala kontsideratu behar da.

Aurreko bi adierazleekin posible da kalkulatzeko BPGaren deflaktatzailea, denboran zehar ekonomiaren prezioen batez besteko aldaketa neurtzeko, eta ondorengo formularen bidez lortzen da:

$$\text{BPGaren deflaktatzailea} : \frac{\text{BPG nominala}}{\text{BPG erreala}} \times 100$$

BPG errealaren erreferentziazko urtean BPG nominala eta erreala berdinak izango dira eta urte horretako BPGren deflaktatzailea 100 izango da. 1.3. taulan Italiako datuak agertzen dira, adibide gisa.

**1.3. taula. Italiako BPG nominala, erreala eta BPGaren deflaktatzailea.**

	BPG nominala (mila milioi euro)	BPG erreala (1990eko prezioetan)	Urtez urteko hazkunde-tasa (%)*	BPGren deflaktatzailea
2004	1.391,5	852,2	-	163,3
2005	1.429,4	857,8	0,7	166,6
2006	1.485,3	875,3	2,0	169,7
2007	1.544,9	889,0	1,6	173,8
2008	1.572,2	879,7	-1,0	178,7

\* BPG errealaren hazkunde-tasa =  $(\text{BPG}_t - \text{BPG}_{t-1}) / \text{BPG}_{t-1} * 100$

Iturria: *National Accounts Main Aggregates Database*. Nazio Batuen Erakundea.

BPG oinarriztat hartuz nazio-produktu gordina (NPG) lor daiteke, zeinak jabego nazionalako produkzio-faktoreek denboraldi zehatz batean produzitutako ondasun eta zerbitzuen merkatu-balioa adierazten duen. Kasu honetan, produkzio-faktoreen jabetza aintzat hartzen da eta herrialde baten mugen barnean nahiz mugetatik kanpo produkzio-faktore nazionalak ekoizitakoa barneratzen du NPGk.

BPGrekin lotutako beste adierazle bat biztanleko BPG da. Ekonomia baten batez besteko errenta-maila adierazteko erabiltzen da eta BPG herrialdearen populazioaren artean zatituz kalkulatu da. Beraz, biztanleko BPGk biztanle bakoitzari batez beste dagokion aberastasun-maila adierazten du, baina errentaren banaketaren inguruan ez du ezer esaten. Herrialdeen garapen sozioekonomikoaren adierazle gisa eta nazioarteko alderaketak eta sailkapenak egiteko erabili ohi da, baina gero eta kritika gehiago jasotzen ari da. Biztanleko BPGk garapenaren ikuspuntu ekonomikoa besterik ez du barneratzen, baina beste ezaugarri batzuk ere funtsezkoak dira biztanleriaren bizi-baldintzak eta ongizatea kontsideratzean. Horrexegatik, azken hamarkadetan beste adierazle batzuk sortu dira herrialdeen garapen-maila neurtzen saiatu nahian, besteak beste, osasun-, hezkuntza- eta errenta-adierazleak barneratzen dituen Giza Garapenaren Indizea.

BPGk jarduera ekonomikoaren adierazle bezala ere hutsune nabarmenak aurkezten ditu eta hurrengo paragrafoetan esanguratsuenak azaltzen dira:

1. Hasteko, BPGk amaierako ondasun eta zerbitzu guztien balioa barneratzen du, produkzio horien ezaugarriak edo azken erabilera bereizi gabe. Adibidez, BPGk berdin kontabilizatzen ditu hezkuntza-arloan egindako gastua eta armak erosteko gastua, nahiz eta bi gastu horiek ongizatean duten eragina oso desberdina izan.
2. BPG fluxu-aldagaia denez (denbora-tarte jakin batean ekoizitakoa kontabilizatzen du baina ez aurrekoan ekoizitakoa), aurrerapen ekonomikoaren eta herrialdeen aberastasunarekin lotutako hainbat aldagai baztertzen ditu. Adibidez, herrialde baten baliabide naturalak oso garrantzitsuak dira ongizatearen ikuspuntutik baina BPGk ez ditu kontuan hartzen. Zentzu horretan, baliabide naturalen galerak ez du eraginik BPGn eta, adibidez, basoen sute batek ondorio positiboak ekar ditzake BPGren ikuspegitik: suteak itzaltzeko gastuak kontabilizatzen ditu baina ez basoen galera. Era berean, herrialdeetako eredu ekonomikoak ez ditu bereizten eta, horrela, jarduera kutsatzaileak eta ez-kutsatzaileak berdin tratatzen ditu, ingurumenean dituzten ondorioak jasotzen ez dituelako.
3. Merkatutik pasatzen diren amaierako ondasun eta zerbitzuak besterik ez du kontabilizatzen eta, horrexegatik, ongizatean eragin oso handia duten merkatutik kanpo eginiko hainbat jarduera alboratzen ditu. Herrialde pobreenetan jarduera ekonomiko garrantzitsuenetarikoa biziraupenerako nezakaritza da, hots, familiakideen beharrak asetzeko nekazaritza-produkzioa. Jarduera hau funtsezkoa da herrialde horietako ekonomian baina merkatutik pasatzen ez denez, BPGk ez du behar bezala tratatzen. Bestetik, BPGk ezin du ezkutuko edo «lurrazpiko» ekonomiarekin (legalki deklaritzen ez diren jarduerak) lotutako ekarpenik jaso, nahiz eta herrialde guztietan ekonomiaren zati handi bat adierazten duen.
4. Etxe partikularretan soilik egiten diren jarduerak, batez ere emakumezkoek egindakoak, ikusezinak dira BPGrentzat. Emakumezkoek betidanik bete izan dituzten ordaindu gabeko lanak familiakide eta gizartearen ongizaterako funtsezkoak dira, baina BPGk ez ditu aintzat hartzen. Gauzak horrela, errekonozimendurik gabeko lana daukagu gaur egun ere, etxeetan ordaindu gabeko lanaren baztertze hau emakumezkoek ekonomian eta gizartean egiten duten ekarpenaren gutxiespena delarik, eta, honekin lotuta, generodesberdintasuna mantentzeko beste era bat.

Amaitzeko, BPGk zenbaki zehatzaren itxura dauka baina bere kalkuluan erabiltzen diren tekniken bidez balio hurbila besterik ezin da lortu. Horrela, garatutako herrialdeetan akatsak % 10 ingurukoak izatea ohikoa da, baina garapen-bidean dauden herrialdeetan akats horiek askoz handiagoak izatera ailegatzen dira. BPG merkatuko jardueraren neurri eskasa dela onartzea ez da zaila, baina gizartean eta ekonomian azken urteotan aldaketek arazoak areagotu dituzte. Aitzitik, aurrerapen teknikoek dauzkagun neurketak hobetzeko aukera ematen digute.

Ildo horretan, 2008. urtean Frantziako gobernuburuak Gizarte Aurrerapen eta Garapen Ekonomikoaren Neurketari buruzko Batzordea antolatu zuen, eta Joseph Stiglitz eta Amartya Sen izan dira presidentea eta kontseilaria hurrenez hurren. Batzorde horren helburu nagusiak ondokoak izan dira: i) gizarte-aurrerapena eta emaitza ekonomikoak neurtzeko orduan BPGk aurkezten dituen mugak aztertzea; ii) neurketarekin lotutako arazoak berraztertzea; iii) gizarte-aurrerapenaren adierazle egokiagoak lortzeko beharrezkoak izan daitezkeen datu gehigarriak identifikatzea; iv) neurketa-tresna berrien bideragarritasunaren ebaluazioa; v) eta datu estatistikoaren aurkezpen egokiari buruzko eztabaida.

Batzordeak aspalditik ongizatearen eta garapenaren ohiko adierazleei egin zaizkien kritikak identifikatu, laburtu eta aztertu izan ditu eta hiru lan-taldetan banatu du bere jarduera: i) BPGren neurketarekin lotutako ohiko gaiak; ii) bizi-kalitatea; eta iii) iraunkortasuna. Horien artean, batzordeak argitaratu duen 2009ko txostenaren mezu eta gomendio garrantzitsuenak hurrengo paragrafoetan laburtzen dira:

i. BPGren neurketarekin lotutako ohiko gaiak:

- i.1. Orain arte izan dugun jarduera ekonomikoa neurtzeko sistema doitu beharra dago, ekonomia modernoaren bilakaerak dituen egiturazko aldaketak hobeto islatu ahal izateko. Hainbat herrialde eta sektoretan emandako «produkzioaren» hazkundera kalitatearen hobekuntzetan oinarritu da, eta ez kantitatearen hazkunderetan. Hala ere, aldaketa kualitatiboak kontabilizatzea oso erronka handia da, baina, era berean, benetako diru-sarrerak eta kontsumoa neurtzeko funtsezkoa.
- i.2. Gastu publikoa oso garrantzitsua da gure ekonomietan eta biztanleriaren bizi-kalitatean oso eragin positiboa duelako, batez ere banakako zerbitzuek dutena (hezkuntza, osasun-zerbitzuak, eta abar). Normalean, zerbitzu publikoak neurtzeko horiek ekoizteko gastuak (adibidez, mediku kopurua) kontabilizatzen dira, benetan ekoiztutako emaitzen ordez (emandako prestazio medikoen kopurua, adibidez). Arlo honetan, kalitatean gauzatzen diren aurrerapenak aintzat hartzea are zailagoa izaten da. Edozein kasutan, emaitza ekonomikoaren eta bizi-mailen neurketa egokia lortzeko, sektore publikoaren jardueraren neurketa-arazoa konpontzea inportantea da oso.

ii. Bizi-kalitatea: estatistika-sistemek biztanleriaren ongizatearen neurketari arreta handiagoa eman behar diote, jarduera ekonomikoaren neurketari baino. Honi buruzko gomendioak:

1. Ongizate materialaren ebaluazioaren testuinguruan produkzioa barik, diru-sarrerak eta kontsumoa aintzat hartzea.
2. Etxeetan oinarritutako ikuspegia nabarmentzea. Ekonomia orokorraren bilakaera ezagutzea garrantzitsua da, baina etxeetako diru-sarrerak eta

kontsumoa identifikatzeak herritarren bizi-mailaren bilakaerari jarraitzea ahalbidetzen du.

3. Diru-sarrerak eta kontsumoarekin batera ondarea kontuan hartzea.
4. Aberastasunaren, kontsumoaren eta diru-sarreraren banaketari garrantzi handiagoa ematea.
5. Diru-sarreraren adierazleak zabaltzea, merkatuko ez diren jarduerak barneratuz.
6. Osasun-, hezkuntza-, norberaren jarduera- eta ingurumen-baldintzei buruzko estatistikak hobetzea komenigarria da, bizi-kalitatea ondo neurtu ahal izateko. Ahalegin gehigarria ere beharrezkoa da adierazleek behar den bezala barnera dezaten hainbat gai: giza harremanak, bititza politikoan herritarren parte-hartzea eta segurtasunik eza.
7. Bizi-kalitatearen adierazleek desberdintasunen ebaluazio zehatza eta orokorra eman beharko lituzkete.
8. Pertsonen bizi-kalitateak dituen alde desberdinen arteko harremanak baloratzeko inkestak diseinatu beharko liriateke.
9. Estatistikako institutuek bizi-kalitatearen dimentsio desberdinak lotzeko beharrezko informazioa eskaini beharko lukete eta, horrela, hainbat indize garatzea posible litzateke.
10. Ongizate objektiboaren zein subjektiboaren neurketek bizi-kalitateari buruzko funtsezko informazioa eskaintzen dute. Hala ere, estatistikako institutuek nork bere bizitzaren, bere esperientzien eta bere lehentasunen ebaluazioa ezagutzeko galderak sartu beharko lituzkete euren inkestetan.

iii. Iraunkortasunari buruzko gomendioak:

11. Ondo zehaztutako adierazle-multzoa behar du iraunkortasunaren balorazioak. Iraunkortasuna neurtu ahal izateko, etorkizuneko ongizaterako garrantzitsuak diren eragileen kantitateetan gertatzen diren aldaketei buruzko informazioa eskura izan beharko genuke (baliabide naturalak ez ezik, giza kapitala, gizarte-kapitala eta kapital fisikoa ere bai).
12. Iraunkortasunarekin lotutako ingurumen-aldeek jarraipen berezia behar dute, arretaz aukeratutako adierazle fisikoen multzo baten bidez. Zein puntutaraino ingurumeneko mehatxu-maila arriskutsu batera hurbiltzen garen argi eta garbi adierazi beharko luke horietako batek (klima-aldaketa edo arrantza-baliabideen higadura, adibidez).

### ***1.2.2. Nazioarteko alderaketak***

Herrialde bakoitzak bere BPG kalkulatzeko moneta nazionala erabiltzen du. Hala ere, nazioarteko eraldaketak egin ahal izateko, edo mundu osorako kalkuluak egiteko, diru komunera bihurtu behar dira. Ohiko modua herrialde bakoitzaren

adierazle honen balioa AEBetako dolarretara bihurtzea izan da, horretarako, merkaturako kanbio-tasak erabili ohi dira. Askotan erabiltzen den metodo honek arazo inportante bat dauka: kanbio-tasek ezin dute herrialdeetako erosteko ahalmenaren parekotasuna islatu, herrialde bakoitzeko prezio-maila desberdina ez dutelako kontuan hartzen.

Aurreko paragrafoan aipatutako arazoa saihesteko xedearekin Erosteko Ahalmenaren Parekotasunaren (EAP) metodoa gomendatzen da. Bigarren metodo hau hainbat herrialdeetako prezioen gainean egindako azterketa sakonean oinarritzen da eta herrialdeen bizi-mailaren konparazioak egiteko egokiagoa den akordioa dago. Ekonomia-leriek eta nazioarteko erakundeek gero eta gehiago erabiltzen dute eta EAPren zifrek batzuetan «nazioarteko dolar» izena ere hartu ohi dute.

EAP bihurteta-koefizientea kalkulatzeko ondasun eta zerbitzu berdintsuak dituen saskiaren prezioa kalkulatzeko da herrialde bakoitzean; moneta berean ebaluatzen da, normalean AEBetako dolarretan eta, horrela, bi egoera desberdin aurki ditzakegu (1.4. taula ikusi):

- i. Herrialde batek AEBetako prezio-maila baino txikiagoa duenenan (EAP bihurteta-koefizientea 1 baino handiagoa). Kasu honetan, bere per capita errenta EAPtan handiagoa izango da kanbio-tasen arabera baino. Adibidez, Txinako prezio-maila AEBetako baino nabarmen baxuagoa da eta, hori dela medio, Txinako per capita errenta EAPtan handiagoa da, dolar korrontetean baino.
- ii. Herrialde batek AEBetako prezio-maila baino handiagoa duenenan (EAP bihurteta-koefizientea 1 baino txikiagoa). Kasu honetan, bere per capita errenta EAPtan txikiagoa izango da kanbio-tasen arabera baino. Adibidez, Japoniako prezio-maila AEBetako baino altuagoa da, beraz, Japoniako per capita errenta EAPtan txikiagoa da dolar korrontetean baino.

AEB erreferentziatzeko herrialdea denez, dagokion EAP bihurteta-koefizientea 1 da, bere BPG dolar arruntetan eta EAP dolarretan berdina delako.

#### 1.4. taula. Hainbat herrialdeetako BPG dolar korrontetean eta EAP dolarretan, 2008.

Herrialdea	BPG* (dolarretan) (1)	BPG* (EAPtan) (2)	EAP bihurteta-koef. (2)/(1)
AEB	14,204.322	14,204.322	1,0
Etiopia	26.487	70.069	2,6
India	1,217.490	3,388.473	2,7
Japonia	4,909.272	4,354.550	0,9
Mozambike	9.735	18.63	1,9
Suedia	480.021	344.712	0,7
Txina	4,326.187	7,903.235	1,8

(\*) AEBko milioika dolarretan.

Iturria: Munduko Bankuaren datu-basea.



### ***1.2.3. Beste adierazle sozioekonomiko batzuk***

Atal hau amaitzeko analisi ekonomikoaren ardatza pertsonak direla azpimarratzea merezi du eta hainbat adierazle eta kontzeptu demografiko gogoratzea komenigarria da: biztanleriaren jaiotza- eta heriotza-tasak, hazkunde begetatiboa, bizi-itxaropena jaiotzean edota migrazio-saldoa, besteak beste. Era berean, pertsonen jarduera ekonomikoaren ikuspuntutik garrantzitsuak diren zenbait adierazle azaltzen dira: jarduera-tasa, enplegu-tasa eta langabezia-tasa, hain zuzen ere.

Aurreko adierazleen definizioak:

- **Jaiotza-tasa gordina:** leku eta urte zehatz batean, jaiotza kopuruaren eta urte horretako batez besteko biztanleriaren arteko erlazioa. Oro har, milakotan adierazten da (%).
- **Heriotza-tasa gordina:** leku eta urte zehatz batean, heriotza kopuruaren eta urte horretako batez besteko biztanleriaren arteko erlazioa. Oro har, milakotan adierazten da (%).
- **Populazioaren hazkunde begetatiboa:** biztanleria kopuruaren gorakada edo beherakada, hau da, hildakoen eta bizirik jaiotakoen arteko aldearen ondorioa. Ehunekotan adierazten da (%).
- **Bizi-itxaropena jaiotzean:** herrialde bateko biztanleak batez beste bizi diren urte kopurua. Hau da, belaunaldi bateko pertsona bat, batez beste, biziko litzatekeen urte kopurua.
- **Migrazio-saldoa:** geografia-eremu jakin batean migrazio-arrazoiengatik izandako sarreren eta irteeren arteko diferentzia. Saldo horrek zeinu positiboa izateak esan nahi du irteerak baino gehiago izan direla sarrerak, eta alderantzizkoa esan nahi du negatiboak. Migrazio garbia ere esaten zaio, inoiz, kontzeptu honi.
- **Jarduera-tasa:** biztanleria aktiboaren (enplegatuen gehi langabezia dauzkanak) parte den talde bateko kideen proportzioa. Ehunekotan adierazten da eta, oro har, 16 urteko eta gehiagoko biztanleriari buruz kalkulatzen da.
- **Enplegu-tasa:** enplegua duten talde bateko kide aktiboen proportzioa. Ehunekotan adierazten da. Oro har, 16 urteko eta gehiagoko biztanleriari buruz kalkulatzen da.
- **Langabezia-tasa:** langabezia dauzkan talde bateko kide aktiboen proportzioa. Ehunekotan adierazten da. Oro har, 16 urteko eta gehiagoko biztanleriari buruz kalkulatzen da.

### **1.3. HERRIALDEAK SAILKATZEKO OHIKO IKUSPEGIA**

#### **1.3.1. Herrialde taldeak**

Munduko ekonomiaren arazoan analisiak nazio-estatuaren ekonomiak aintzat hartu behar ditu baina, era berean, elkarrekiko mendekotasunen prozesu eta eskualde-azarpenak aztertzeke beste errealitate handiago batzuk kontsideratu beharra dago, zeinek ezaugarri komunetako nazio-estatuak lotzen dituzten.

Irizpide geografikoak munduko herrialde guztiak hainbat eskualdetan banatzen ditu. Nazioarteko erakundeek irizpide geografiko desberdinak erabiltzen dituzte eta, horrexegatik, ematen dituzten datu agregatuak arreta handiarekin aztertu behar dira: batzuetan eskualde bat izen berberarekin agertzen da bi erakunde desberdinen sailkapenean, baina baneratzten duen herrialde sorta desberdina da.

Irizpide ekonomikoari dagokionez, Nazio Batuen sailkapenik orokorrenak hiru taldetan sailkatzen ditu munduko herrialde guztiak: herrialde garatuak, garapen-bideko herrialdeak eta merkatu-ekonomiarako trantsizioa burutu dutenak. Oro har, lehenengoek Ekonomiako Lankidetzaz eta Garapenerako Erakundea (ELGE) osatzen dutela esan daiteke eta munduko 30 herrialde «aberatsak» edota «industrializatuak» dira: AEB, Kanada, Japonia, Europar Batasuneko herrialde gehienak, Suitza, Norvegia, Islandia, Australia, Zeelanda Berria, Hego Korea, Turkia eta Mexiko. Merkatu-ekonomiarako trantsizioa egin dutenak lehen planifikazio zentralerako ekonomiak ziren baina azken urteotan euren sistema ekonomikoa eraldatu dute, haien artean Errusiako Federakuntza. Azkenik, garapen-bideko herrialdeak munduko herrialde gehienak dira: Afrika, Latinoamerika eta Asiako herrialdeak, Japonia izan ezik. Irizpide horri jarraituz, Iparralde ekonomikoa, Hegoalde ekonomikoa eta Ekialdeko herrialdeak bereiztea ere posible da. Hegoalde ekonomikoen herrialdeak oso heterogeneoak dira eta, haien artean, Asiako Industrializazio Berriko Herrialdeak (IBH) dauzkagu. Horiek azken lau hamarkadetan industrializazio-prozesua bete dute eta gaur egun Hegoaldeko herrialderik garatuena dira: Hego Korea, Hong Kong, Taiwan eta Singapur.

Hala ere, erakunde batzuek (Nazioarteko Diru Funtsa, Munduko Bankua edo Munduko Merkataritza Erakundea, besteak beste) ez dute Nazio Batuen sailkapen berbera aukeratzen eta, askotan, sailkapen orokor horretan bi talde besterik ez dute bereizten: herrialde garatuak eta garapen-bideko herrialdeak (Ekialdeko herrialdeak bi horien artean banatuz). Gainera, erakunde horiek urtero argitaratzen dituzten txostenetan talde bakoitzean dauden herrialdeak aldatzen dituzte denboran zehar; beraz, datu agregatuaren analisia egin baino lehen talde bakoitzari dagokion edukia baieztatu beharra dago. Adibidez, Nazioarteko Diru Funtsak datuak aurkezteko orduan gero eta gehiago aipatzen den beste talde bat bereizten du: «herrialde emergenteak». Talde hori osatzen duten herrialdeen zerrenda ez dago zehaztuta eta urte batetik bestera alda daiteke; nolana ere, sistema finantzarioan

oinarritutako hazkunde ekonomiko nabarmena duten garapen-bideko herrialdeak izaten dira.

Herrialde «emergente»en artean beste talde bat bereiztea posible da: BRIC (Brasil, Errusia, India eta Txina) izenekoa. Lau herrialde horiek munduko populazioaren ia erdia ordezkatzten dute eta azken urteotan izan duten hazkunde ekonomikoak eta nazioarteko merkataritzan parte-hartzeak oso erakargarri bihurtzen dituzte nazioarteko inbertsioen ikuspegitik. Horiek etorkizuneko munduaren potentzia ekonomiko berriak izatea oso litekeena da.

Hegoaldeko herrialde batzuen azken urteotako bilakaera ekonomiko positiboak orain arte ezagutu den nazioarteko ordena ekonomikoa zalantzan jarri du. Munduko zortzi herrialde industrializatuen eta boteretsuenek osatzen dute G-8 taldea: AEB, Kanada, Japonia, Italia, Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, eta Errusia. Europar Batasuneko ordezkariak batek ere bileretan parte hartzen du. Hasiera batean G-7 taldea zuen izena eta 1998. urtean Errusia sartu zen, gaurko G-8 taldea eratuz. Talde horren ibilbidea 70eko hamarkadan hasi zen eta petrolioaren krisiaren garaian bere garrantzia nabarmendu egin zuen. Urtero biltzen dira nazioarteko ekonomia gobernatzeko irizpideak eztabaidatzeko eta haiek hartzen dituzten erabakiek munduko herrialde guztietan daukate eragina. Hegoaldeko herrialdeek nazioarteko ekonomiari buruzko gaietako erabakiak hartzen diren prozesuan parte hartzeko eskubidea aldarrikatu dute aspaldi eta, horrela, G-20 taldea sortu da. 1999. urtean 20 herrialdeetako finantza ministroek eta Banku Zentraletako gobernadoreek osatu zuten G-20 taldea, herrialde industrializatuak eta garapen-bidean dauden herrialdeak nazioarteko ekonomiaren gaiak elkarrekin eztabaidatzeko xedearekin. 1990eko hamarkadaren amaierako krisi finantzarioak garapen-bideko herrialde garrantzitsuenen zeregina nazioarteko ekonomiaren gobernantzan nahikoa ez zela bistaratu zuen. Talde horrek munduko BPGaren % 90 inguru eta populazioaren bi herenak ordezkatzten ditu eta hurrengo herrialdeek osatzen dute: Argentina, Australia, Brasil, Kanada, Txina, Frantzia, Alemania, India, Indonesia, Italia, Japonia, Mexiko, Errusia, Saudi Arabia, Hegoafrika, Korea, Turkia, Erresuma Batua, AEB eta Europar Batasuneko ordezkaria. 2008an hasi zen krisialdi ekonomikoaren testuinguruan erabaki zuten herrialde aberatsenen eta emergenteen gobernuek G-20 taldea nazioarteko lankidetzako ekonomikoaren eztabaida-leku nagusia izan behar zela.

### ***1.3.2. Munduko Bankuaren ikuspegia***

Munduko Bankuak ekonomiak sailkatzeko erabiltzen duen irizpide nagusia per capita nazio-sarrera gordina (NSG) da (haren aurreko argitalpenetan adierazle hau nazio-produktu gordina (NPG) izenpean agertzen zen). Ekonomia bakoitzeko per capita NSG kontuan izanik, hiru talde nagusitan sailkatzen ditu munduko herrialdeak Munduko Bankuak: i) diru-sarrera baxuko ekonomiak; ii) diru-sarrera

ertaineko ekonomiak (diru-sarrera ertain-baxukoak eta diru-sarrera ertain-altukoak barneratzen ditu honek); iii) diru-sarrera altuko ekonomiak.

Munduko Bankuko kideak diren herrialde guztiak (185) sailkatzen ditu erakundeak eta, horiez gain, 30.000 biztanle baino gehiago dituzten gainerako herrialdeak. Horrela, haren tauletan 209 ekonomietako datuak agertzen dira.

Taldeak osatzeko per capita NSG «Atlas metodo»aren bidez kalkulatuak kontuan hartzen du adierazletzat Munduko Bankuak. «Atlas metodo» horren bidez konbertsio-faktorea kalkulatu da, eta beronen helburua kanbio-tasen gorabeheren eragina gutxitzea da nazioarteko mailan gauzatu diren herrialdeetako errentaren alderaketetan. Urte zehatz bateko Atlaseko konbertsio-faktorea herrialdearen urte horretarako kanbio-tasaren eta aurreko bi urteetako kanbio-tasaren batez bestekoa da, herrialdearen eta herrialde multzo baten (eurogunea, Japonia, Erresuma Batua eta AEB) inflazioaren aldearen bidez doitu.

Adierazle horretan oinarritutako sailkapena hau da:

- a. Diru-sarrera baxuko ekonomiak: 935 AEB dolar baino gutxiagoko per capita NSG dutenak. Azken datuak aztertuz, 43 ekonomiek osatzen dute talde hau eta gehienak Saharaz hegoaldeko Afrikan kokatuak.
- b. Diru-sarrera ertaineko ekonomiak: 936 AEB dolar eta 11.455 AEB dolar arteko per capita NSG dutenak. Talde hau bi multzotan bikoizten da: alde batetik, diru-sarrera ertain-baxukoak (936 AEB dolar eta 3.705 AEB dolar arteko errenta dutenak) eta, bestetik, diru-sarrera ertain-altukoak (3.706 AEB dolar eta 11.455 AEB dolar bitartean). 101 herrialdek osatzen dute taldea.
- c. Diru-sarrera altuko ekonomiak: 11.456 AEB dolar baino gehiagoko per capita NSG dutenak. 66 ekonomiek osatzen dute taldea.

Azpirarratzekoa da ezen Munduko Bankuak per capita BPG EAPtan kalkuluak egiten eta horien emaitzak argitaratzen dituela, nahiz eta bere sailkapenak egiteko orduan metodo honi ez jarraitu.

1.5. taulan herrialde talde bakoitzari dagozkion datu esanguratsuak azaltzen dira. Batetik, diru-sarrera baxuko eta ertaineko herrialdeek munduko biztanleriaren % 84 ordezkatzen dute eta diru-sarrera altukoek % 16. Munduko biztanleriaren proportzio oso txikia ordezkatu arren, diru-sarrera altuko herrialdeek munduko NPGren hiru laurdenak metatzen dituzte. EAP metodoarekin eginiko kalkuluen arabera, munduko NPGren % 58,4 dagokie. Bosgarren zutabean, per capita NPG, herrialde taldeen arteko aldea argi ikusten da: diru-sarrera baxuko herrialdeen batez besteko per capita errenta 574 dolarrekoa da eta diru-sarrera altuko herrialdeena 37.570ekoa (65,5 aldiz handiagoa). Per capita NPG EAPtan taldeen arteko aldea murrizten da: herrialde aberatsenen errenta 24,4 aldiz handiagoa da, diru-sarrera baxuko herrialdeena baino.

### 1.5. Munduko Bankuaren herrialde taldeen hainbat adierazle.

	Herrialdeak		Biztanleria		NPG		NPG EAPtan		per capita NPG	per capita NPG EAPtan
	Zenb.	%	Milioiak	%	Mila milioi dolar	%	Mila milioi dolar	%	2004ko dolar	2004ko dolar
Diru-sarrera baxuak	43	20,5	1.296	19,6	744,3	1,4	1.929,7	2,9	574	1.489
Diru-sarrera ertain-baxuak	55	26,2	3.435	52,0	6.542,9	12,4	15.748,8	24,0	1.905	4.585
<i>India</i>			<i>1.125</i>	<i>17,0</i>	<i>1.071,0</i>	<i>2,0</i>	<i>3.082,5</i>	<i>4,7</i>	<i>950</i>	<i>2.740</i>
<i>Txina</i>			<i>1.318</i>	<i>19,9</i>	<i>3.126,0</i>	<i>5,9</i>	<i>7.150,5</i>	<i>10,9</i>	<i>2.370</i>	<i>5.420</i>
Diru-sarrera ertain-altuak	46		824	12,5	5.853,9	11,1	9.943,8	15,1	7.107	12.072
Diru sarrera ertainak	101	48,1	4.258	64,4	12.393,5	23,5	25.666,2	39,0	2.910	6.027
Diru sarrera altuak	66	31,4	1.056	16,0	39.685,9	75,1	38.386,0	58,4	37.570	36.340
GUZTIRA	210	100,0	6.610	100,0	52.850,4	100,0	65.752,3	100,0	7.995	36.340

Oharra: Taulan agertzen diren datuak 2007. urtekoak dira.

Iturria: Munduko Bankua, World Development Indicators 2009.

### 1.4. NAZIO BATUEN GARAPEN PROGRAMA (NBGP) ETA GIZA GARAPENAREKIN LOTUTAKO ADIERAZLEAK

#### 1.4.1. Giza garapenaren kontzeptua

1990eko hamarkadara arte herrialdeen garapen-maila neurtzeko adierazle nagusi eta erabiliena biztanleko BPG izaten zen. 1990ean Nazio Batuen Garapenerako Programa (NBGP) Giza Garapenari buruzko Txostena argitaratzen hasi zen eta, horretan, Giza Garapenaren Indizea (GGI) kalkulatzeko da ia munduko herrialde guztietarako. Txosten bakoitzak gai zehatz bat ere lantzen du eta hurrengo taulan agertzen dira denboran zehar aurkeztutakoak.

#### 1.6. taula. Giza Garapenari buruzko Txostenen gaiak.

- 2009 Oztopoak gaudituz: giza mugikortasuna eta garapena
- 2007/2008 Klima-aldaketari aurre egiten: gizakion arteko elkartasuna mundu zatitu honetan
- 2006 Eskasia baino gehiago: boterea, pobrezia eta munduko ur-krisia
- 2005 Nazioarteko lankidetzaren bidegurutzean: laguntza, merkataritza eta segurtasuna desberdintasun handiko munduan
- 2004 Kultur askatasuna egungo mundu pluralean
- 2003 Milurteko Garapen Helburuak: giza pobreziaarekin amaitzeko nazioen arteko ituna
- 2002 Demokrazia sendotzen mundu zatitu batean
- 2001 Teknologia berriak giza garapenaren alde
- 2000 Giza eskubideak eta giza garapena
- 1999 Giza aurpegia duen globalizazioa
- 1998 Giza garapenaren aldeko kontsumoa
- 1997 Giza garapena pobreziaarekin amaitzeko
- 1996 Hazkunde ekonomikoa eta giza garapena
- 1995 Generoa eta giza garapena
- 1994 Giza segurtasunaren dimentsio berriak
- 1993 Jendearen parte-hartzea
- 1992 Giza garapenaren dimentsio globalak
- 1991 Giza garapenaren finantzaketa
- 1990 Giza garapenaren kontzeptua eta neurtzeko modua

Laurogeita hamarreko hamarkadan Amartya Sen-en teorian oinarritzen den giza garapenaren kontzeptua sortu eta Garapenerako Nazio Batuen Programaren bidez zabaldu egin da. NBGPk honela definitzen du kontzeptua: «Pertsonen aukerak ugaritzen dituen prozesua da giza garapena». Ohiko garapenaren teoriak ekonomien produkzioaren hazkundera helburutzat hartzen duten bitartean, giza garapenaren ikuspuntua erabat diferentea da eta gizakiak hartzen dira helburutzat, eta ez beste helburu batzuk lortzeko bitarteko gisa. Horrela, gizakiaren ahalmenak eta gaitasunak garatzea da garapenaren ikuspuntu honen funtsezko xedea eta hazkunde ekonomikoa pertsonen aukerak handitzeko baliabide bat besterik ez dela azpimarratzen du.

Giza garapenaren kontzeptu berriak oso aldaketa nabarmenak ekarri ditu. Batetik, garapena ondasun eta zerbitzuen produkzioaren hazkundera ez dela defendatzen duelako. Alderantziz, garapena pertsonen gaitasunen hedapena gauzatzen duen prozesua da. Horrela, garapenaren xedea ez da produkzioaren hazkundera izango, baizik eta pertsonak aukera gehiago izatea (bizitza luze eta osasuntsua gozatzea, hezkuntza jasotzeko aukera izatea eta bizi-maila duina edukitzea). Bigarrenez, garapena lortzeko bidea inbertsio eta azpiegitura produktiboak sustatzea nahikoa ez dela dio NBGPk. Giza garapenak giza kapitalari ematen dio lehentasuna (eta ez kapital fisikoari). Ikerketa askok hezkuntza-arloan edo osasun-arloan egindako inbertsioak oso emaitza onak izaten dituela egiaztatu dute. Zentzu horretan, gastu sozialak aukerak eta gaitasunak handitzeko ezinbestekoak dira.

#### ***1.4.2. Giza garapenaren neurketa***

NBGPk garapena neurtzeko erabili ohi zen adierazlea (hau da, per capita errenta) baztertu nahian, bere urteroko txostenean Giza Garapenaren Indizea (GGI) nabarmentzen du herrialdeen garapena neurtzeko adierazle bezala. Gero eta gehiago erabiltzen da garapenari buruzko ikerketetan eta proiektuetan, beraz, adierazle alternatibo bihurtu dela esan daiteke.

Herrialde baten garapen-maila han bizi diren pertsonen ahalmenekin lotzen da, baina hori neurtzeak zailtasun handiak dakartza. Hala ere, NBGPk horren hurbilketa moduan hiru azpiindize nagusi barneratzen dituen GGI diseinatu du:

- Lehenengo azpiindizeak bizi-itxaropena jaiotzearen indizea dauka izena eta bizitza luzea eta osasuntsua izatearen adierazlea da.
- Bigarren azpiindizea hezkuntza-indizea da eta biztanleriak ezagutzak eskuratzeko gaitasunaren estimazioa da.
- Hirugarrena, errentaren indizea, bizi-maila duina izatearen gaitasuna islatzen duena. Adierazle honen arabera, errenta altua izatea ez da giza garapena handia izateko baldintza bakarra. Herrialde bateko giza garapenaren mailan gastu publikoa eta hezkuntza- eta osasun-arloan ezarritako politikak

oso garrantzitsuak dira. Hori dela-eta, herrialde batzuetan, errenta-maila altua izan arren, giza garapena erlatiboki oso baxua da.

Hiru alderdi horiek 0tik 1era ebaluatzen dira eta batez bestekoa kalkulatu da, 0tik 1era guztizko GGiren balioa zehazteko. Gero, herrialdeak balio horren oinarriaren arabera ordenatzen dira: lehenengoak GGiren baliorik altuena izango du. Giza garapenaren kontzeptuak beste osagai batzuen garrantzia ere nabarmentzen du (politika-, ekonomia- eta gizarte-askatasuna eta genero-berdintasuna, besteak beste), baina GGik horiek ez ditu barneratzen.

$$\text{Giza Garapenaren Indizea} : \frac{\text{Bizi-itxaropenaren indizea} + \text{Hezkuntzaren indizea} + \text{BPGren indizea}}{3}$$

Osagaien indizeen balioak ondorengo formularen bidez kalkulatu dira:

$$\text{Osagaiaren indizea} : \frac{\text{Benetako balioa} - \text{Gutxieneko balioa}}{\text{Gehieneko balioa} - \text{Gutxieneko balioa}}$$

### 1.7. taula. GGI kalkulatzeko gehieneko eta gutxieneko balioak.


Adierazlea	Gehieneko balioa	Gutxieneko balioa
<b>Bizi-itxaropena</b>	85	25
<b>Helduen alfabetatze-tasa</b>	100	0
<b>Matrikulazio-tasa konbinatua</b>	100	0
<b>Biztanleko BPG EAPtan</b>	40.000	100

Iturria: Nazio Batuen Garapenerako Programa.

Bizi-itxaropenaren indizea taxutzeko, jaiotzean bizi-itxaropena kontuan hartzen du urtetan adierazita eta hori indize bihurtzen da aurreko formula erabiliz. Bigarrenik, hezkuntzaren indizea bi azpiindizek osatuta dago: batetik, helduen alfabetizazioaren indizea (bi herenaren haztapena) eta, bestetik, lehen, bigarren eta hirugarren hezkuntzako matrikulazio-tasa gordin konbinatuaren indizea (haztapena, herena). Azkenik, BPGren indizeak biztanleko BPG EAP dolarretan aintzat hartzen du, baina beheranzko doikuntza egiten zaie errenta altuenei.

2009. urteko txostenak laginean parte hartzen duten 182 herrialdeen gizarte-garapenaren maila neurtzen du. 1.2. laukian azaltzen den bezala, zerrendako lehen postuan Norvegia dago, bigarren postuan Australia eta hirugarrenean Islandia. Oro har, lehenengo taldean oso giza garapen altuko herrialdeak ditugu; hau da, 0,9 baino altuagoko GGI duten herrialdeak. Sailkapen hau 2009. urteko txostenean agertzen da lehendabizi, aurreko txostenetan hiru talde bereizten ziren bakarrik: giza garapen altuko, ertaineko eta baxuko herrialdeak. Bestetik, zerrendaren azken hiru postuetan Nigeria, Afganistan eta Sierra Leona daude eta, orokorki, giza garapen baxuko herrialde gehienak (GGI 0,5 baino txikiagoa) Saharaz hegoaldeko Afrikakoak dira.

### 1.8. Giza Garapenaren Indizea kalkulatzeko eskema.



Iturria: Nazio Batuen Garapenerako Programa.

GGIren arabera munduko rankinean 54. postuan dago Costa Rica eta 2009ko txostenaren datuen arabera Costa Ricako bizi-itxaropena 78,7 urtekoa da, helduen alfabetatze-tasa % 95,9koa, matrikulazio-tasa gordina % 73,0koa eta per capita errenta EAPtan 10.842 dolar. Datu horiekin herrialde horretako Giza Garapenaren Indizea kalkulatzeko posible da, baina hasteko osagaien indizeak taxutu beharra dago gehieneko eta gutxieneko balioak kontuan izanik.

$$\text{Bizi-itxaropenaren indizea: } \frac{78,7 - 25}{85 - 25} = 0,896$$

Hezkuntza-indizea ezin da zuzenean atera, helduen alfabetatze-tasa eta matrikulazio-tasa batez besteko haztatua dela-eta. Datuen arabera lehenengoa % 95,9 da eta bigarrena, % 73,0 Costa Ricako kasuan, horrela osagai honetako bi atal horiek taxutu behar dira aldezturik.

$$\text{Helduen alfabetatzea indizea: } \frac{95,9 - 0}{100 - 0} = 0,959$$

$$\text{Matrikulazio gordinaren indizea: } \frac{73,0 - 0}{100 - 0} = 0,73$$



### 1.9. taula. Giza Garapenaren Indizea (GGI) 2007.

Giza Garapen oso altua (GGI≥0,900)								
1	Norvegia	0,971	46	Lituania	0,870	93	Belize	0,772
2	Australia	0,970	47	Antigua eta Barbuda	0,868	94	Samoa	0,771
3	Islandia	0,969	48	Letonia	0,866	95	Maldibak	0,771
4	Kanada	0,966	49	Argentina	0,866	96	Jordania	0,770
5	Irlanda	0,965	50	Uruguai	0,865	97	Suriname	0,769
6	Herbehereak	0,964	51	Kuba	0,863	98	Tunisia	0,769
7	Suedia	0,963	52	Bahamak	0,856	99	Tonga	0,768
8	Frantzia	0,961	53	Mexiko	0,854	100	Jamaika	0,766
9	Suitza	0,960	54	Costa Rica	0,854	101	Paraguai	0,761
10	Japonia	0,960	55	Libia	0,847	102	Sri Lanka	0,759
11	Luxenburgo	0,960	56	Oman	0,846	103	Gabon	0,755
12	Finlandia	0,959	57	Seychelleak	0,845	104	Aljeria	0,754
13	AEB	0,956	58	Venezuela	0,844	105	Filipinak	0,751
14	Austria	0,955	59	Saudi Arabia	0,843	106	El Salvador	0,747
15	Spainia	0,955	60	Panama	0,840	107	Siria	0,742
16	Danimarka	0,955	61	Bulgaria	0,840	108	Fiji	0,741
17	Belgika	0,953	62	Saint Kitts eta Nevis	0,838	109	Turkmenistan	0,739
18	Italia	0,951	63	Errumania	0,837	110	Ok. lur. palestinarrek	0,737
19	Liechtenstein	0,951	64	Trinidad eta Tobago	0,837	111	Indonesia	0,734
20	Zeelanda Berria	0,950	65	Montenegro	0,834	112	Honduras	0,732
21	Erresuma Batua	0,947	66	Malaysia	0,829	113	Bolivia	0,729
22	Alemania	0,947	67	Serbia	0,826	114	Guyana	0,729
23	Singapur	0,944	68	Bielorusia	0,826	115	Mongolia	0,727
24	Hong Kong, Txina	0,944	69	Santa Luzia	0,821	116	Vietnam	0,725
25	Grezia	0,942	70	Albania	0,818	117	Moldova	0,720
26	Hego Korea	0,937	71	Errusia	0,817	118	Ekuatore Guinea	0,719
27	Israel	0,935	72	Mazedonia	0,817	119	Uzbekistan	0,710
28	Andorra	0,934	73	Dominika	0,814	120	Kyrgyzstan	0,710
29	Eslovenia	0,929	74	Grenada	0,813	121	Cabo Verde	0,708
30	Brunei	0,920	75	Brasil	0,813	122	Guatemala	0,704
31	Kuwait	0,916	76	Bosnia-Herzegovina	0,812	123	Egipto	0,703
32	Zipre	0,914	77	Kolombia	0,807	124	Nikaragua	0,699
33	Qatar	0,910	78	Peru	0,806	125	Botswana	0,694
34	Portugal	0,909	79	Turkia	0,806	126	Vanuatu	0,693
35	Arabiar Em. Batuak	0,903	80	Ekuador	0,806	127	Tajikistan	0,688
36	Txekiar Errep.	0,903	81	Maurizio	0,804	128	Namibia	0,686
37	Barbados	0,903	82	Kazakhstan	0,804	129	Hegoafrika	0,683
38	Malta	0,902	83	Libano	0,803	130	Maroko	0,654
<b>Giza Garapen altua (0,900&gt;GGI≥0,800)</b>			<b>Giza Garapen ertaina (0,800&gt;GGI≥0,500)</b>					
39	Bahrain	0,895	84	Armenia	0,798	131	Sao Tome eta Princ.	0,651
40	Estonia	0,883	85	Ukraina	0,796	132	Bhutan	0,619
41	Polonia	0,880	86	Azerbaijan	0,787	133	Laos	0,619
42	Eslovakia	0,880	87	Thailandia	0,783	134	India	0,612
43	Hungaria	0,879	88	Iran	0,782	135	Salomon uharteak	0,610
44	Txile	0,878	89	Georgia	0,778	136	Kongo	0,601
45	Kroazia	0,871	90	Dominikar Errep.	0,777	137	Kanbodia	0,593
			91	Saint Vincent eta Gr.	0,772	138	Myanmar	0,586
			92	Txina	0,772	139	Komoreak	0,576
						140	Yemen	0,575
						141	Pakistan	0,572
						142	Swazilandia	0,572
							Giza Garapen baxua (0,500>GGI)	
						159	Togo	0,499
						160	Malawi	0,493
						161	Benin	0,492
						162	Timor-Leste	0,489
						163	Boli Kosta	0,484
						164	Zambia	0,481
						165	Eritrea	0,472
						166	Senegal	0,464
						167	Ruanda	0,460
						168	Gambia	0,456
						169	Liberia	0,442
						170	Guinea	0,435
						171	Etiopia	0,414
						172	Mozambique	0,402
						173	Guinea-Bissau	0,396
						174	Burundi	0,394
						175	Chad	0,392
						176	Kongo E. D.	0,389
						177	Burkina Faso	0,389
						178	Mali	0,371
						179	Afrika Erd. Err.	0,369
						180	Sierra Leona	0,365
						181	Afganistan	0,352
						182	Niger	0,340

Horrela,

$$\begin{aligned} \text{Hezkuntzaren indizea} &= \frac{2}{3} \text{ helduen alfabetatzaren indizea} + \frac{1}{3} \text{ matrikulazio gordinaren indizea} = \\ &= \frac{2}{3} \times 0,959 + \frac{1}{3} \times 0,7 = 0,883 \end{aligned}$$

Azkenik, errentaren indizearen formularen logaritmoak erabiltzen dira, horrela errenta altuenen eragina gutxitzen da, giza garapenaren ikuspegiaren filosofiari jarraiki: errentak oso eragin inportantea dauka gizakien ongizatean baina muga batetik gorago ematen duen ongizate-gehikuntza gero eta txikiagoa da. Diru-sarrerak doitu egiten dira, giza garapena maila onera iristeko ez baitira beharrezkoak mugagabeko diru-sarrerak. Ondorioz, diru-sarreraren logaritmoa erabiltzen da.

$$\text{BPGren indizea: } \frac{\log 10.842 - \log 100}{\log 40.000 - \log 100} = 0,782$$

Osagaien hiru azpiindizeak behin ezagututa, Giza Garapenaren Indizearen balioa aurreko indizeen batez besteko sinplearen bidez lortzen da.

$$\text{Giza Garapenaren Indizea: } \frac{0,896 + 0,883 + 0,782}{3} = 0,854$$

Beraz, Costa Ricak 0,854ko Giza Garapenaren Indizea erakusten du eta horrexegatik Giza Garapen Altuko herrialdeen artean dago. Azken txostenean oso balio altua lortzen duten herrialdeek beste talde bat osatzen dute: oso giza garapen altuko herrialdeak.

Azkenik, 1.7. taulan NBGPk eskaintzen dizkigun datu agregatuak laburtzen dira. Lehendabizi eskualdekako sailkapena azaltzen da: Saharaz hegoaldeko Afrikari 0,514ko batez besteko GGI dagokio eta, beste aldean, ELGEko herrialdeei, 0,932koa. Lehenengoan bizi-itxaropena jaiotzean 51,5 urtekoa da eta ELGEko herrialdeetan 79koa. Herrialde garatuetan hezkuntzarekin lotutako adierazleak bereziki altuak dira, helduen alfabetatze-tasa ia % 100ekoa izanik.

1.7. taularen bigarren zatian NBGPk egiten duen GGIn oinarritutako sailkapena ere adierazita dago. Giza garapen oso altuko herrialdeetan batez besteko bizi-itxaropena 80 urtekoa da, hezkuntzaren indizeak balio maximoa hartzen du eta per capita errenta EAPtan 37.272 dolarrekoa da. Horrela, herrialde horien batez besteko GGI 0,955ekoa da. Hala ere, munduko herrialde gehienak giza garapen ertaineko taldean kokatzen dira eta 24 herrialdek osatzen dute giza garapen baxuko taldea. Azken talde horren batez besteko GGI 0,423koa da; bizi-itxaropena 51 urtekoa; helduen alfabetatze-tasa eta matrikulazio-tasa konbinatua % 50 baino txikiagoa eta, azkenik, per capita errenta bereziki apala, 862 dolarrekoa.

**1.10. taula. 2007ko Giza Garapenaren Indizea. Datu agregatuak.**

Eskualdeak	Giza Garapenaren Indizearen balioa	Bizi-itxaropena jaiotzean (urteak)	Helduen alfabetatze-tasa (%)	Matrikulazio-tasa konbinatua (%)	Per capita BPG (US\$ EAPtan)	Bizi-itxaropenaren indizea	Hezkuntzaren indizea	BPGaren indizea
Arabiar estatutak	0,719	68,5	71,2	66,2	8.202	0,726	0,695	0,736
Ekialdeko eta Erdialdeko Europa	0,821	69,7	97,6	79,5	12.185	0,745	0,916	0,802
Ekialdeko Asia eta Pazifikoa	0,770	72,2	92,7	69,3	5.733	0,786	0,849	0,676
Latinoamerika eta Karibe	0,821	73,4	91,2	83,4	10.077	0,806	0,886	0,770
Hegoaldeko Asia	0,612	64,1	64,2	58,0	2.905	0,651	0,621	0,562
Sahazar hegoaldeko Afrika	0,514	51,5	62,9	53,5	2.031	0,441	0,597	0,503
ELGE	0,932	79,0	..a	89,1	32.647	0,900	..	0,966
Europar Batasuna	0,937	79,0	..a	91,0	29.956	0,899	..	0,952
Giza garapen oso altua	0,955	80,1	..a	92,5	37.272	0,918	..	0,988
Giza garapen altua	0,833	72,4	94,1	82,4	12.569	0,790	0,902	0,807
Giza garapen ertaina	0,686	66,9	80,0	63,3	3.963	0,698	0,744	0,614
Giza garapen baxua	0,423	51,0	47,7	47,6	862	0,434	0,477	0,359
Mundua	0,753	67,5	83,9	67,5	9.972	0,708	0,784	0,768

a: GGI kalkulatzeko % 99 balioa hartzen du.

Iturria: Giza Garapenaren 2009ko Txostena.

**1.4.3. Giza garapenarekin lotutako adierazleak: pobrezia eta genero-desberdintasuna**

NBGPk giza garapenarekin lotutako hainbat gai bereziki aintzat hartzen ditu, pobrezia eta genero-desberdintasuna besteak beste. Eremu horietan herrialdeen egoera ezagutu ahal izateko garatu dituen adierazle ezagunenak Giza Pobreziaren Indizea, Genero Garapenaren Indizea eta Genero Sustapenaren Indizea dira.

**(a) Giza Pobreziaren Indizea**

Giza garapenaren ikuspuntutik, pobreziak giza garapenerako oinarrizko aukeren gabezia esan nahi du. Pobreek ez daukate bizitza luzea eta osasuntsua izateko aukerarik; era berean, bizi-maila duina, askatasuna, eta norberarenganako errespetua eskuratzeko gaitasuna ukatzen zaie. Ildo horretan, pobrezia ongizate materiala lortzeko baliabide falta bakarrik ez da. Pobrezia aukera falta bezala ulertzeak bere alde guztiak kontuan hartu beharra dakar, eta ez diru-sarrerak bakarrik.

1997ko Giza Garapenaren Txostenak Giza Pobreziaren Indizea aurkeztu zuen, adierazle konposatu batean bizi-kalitatearen ezaugarri guztiak batu nahian, eta horren bidez, komunitate baten pobrezia-mailari buruzko iritzia eman ahal izateko. Pobrezia neurtzeko sarrerak erabili beharrean, Giza Pobreziaren Indizeak gabeziak azaltzen diren hurrengo funtsezko aldeak neurtzen ditu: bizitza laburra, oinarrizko hezkuntza falta eta baliabide publiko zein pribatuak eskuratzeko aukerarik eza. Adierazle hau garapen-bideko herrialdeentzat (GPI-1) eta herrialde garatuentzat (GPI-2) desberdin kalkulatzen da, bi talde horien alde sozioekonomikoak eta gabeziak neurtzean desberdintasun handiak islatzeko asmoarekin. Hurrengo adierazleen batez bestekoa ateraz kalkulatzen da Giza Pobreziaren Indizea:

1. Lehenengo osagaia adin erlatiboki gaztea hiltzeko probabilitatea da eta, horrela, GPI-1ek 40 urte baino gehiago ez bizitzearen probabilitatea (40 urte arte biziko ez dela estimatzen den populazio-portzentajea) barneratzen du eta GPI-2k 60 urte baino gehiago ez bizitzearen probabilitatea.
2. Bigarren atala hezkuntzan oinarritzen da eta alfabetatua ez den populazio-portzentajearekin neurtzen da.
3. Hirugarren elementua bizi-maila duinarekin lotuta dago eta, bereziki, baliabide ekonomikoak eskuratzeko aukerarekin. GPI-lean hurrengo bi adierazleen batez bestekoa kalkulatu da: ura eta osasun-zainketa eskuratu ezin dutenen batez bestekoa eta normala dena baino pisu baxuagoa duten 5 urtez beherako haurren batez bestekoa. Bestetik, GPI-2k diru-sarreraren atalasearen azpitik bizi diren populazio-portzentajea kontuan hartzen du.

Hiru osagaiez gain, GPI-2k laugarren elementua barneratzen du: gizarte-bazterketa, epe luzeko langabezia-tasarekin neurtzen dena.

#### (b) Emakumezko eta gizonezkoen arteko desberdintasunak

NBGPren txostenen ekarpenik garrantzitsuenetarikoa emakumezkoen diskriminazioak giza garapenaren emaitzetan duen eragina neurtzeko adierazleen diseinua izan da. Ikuspegi honen ezaugarri jarraituz, gizarte guztietan emakumezkoek dituzten desabantailak kontuan hartu behar dira; bestela, genero-ezberdintasunak barneratzen ez dituen giza garapenaren emaitzen interpretazioak irudi partzial eta osatugabekoa emango luke. Are gehiago, giza garapena ezinezkoa litzateke, emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortu ezean. Hori dela-eta, Giza Garapenaren Txostenak 1995etik genero-esparruarekin lotutako bi adierazle proposatu ditu: Genero Garapenaren Indizea (GGI) eta Genero Sustapenaren Indizea (GSI).

##### b.1) Genero Garapenaren Indizea

Adierazle honek emakumezko eta gizonezkoen arteko desberdintasuna zigortzen du. Horrela, Genero Garapenaren Indizeak GGIn aldagai berberak erabiltzen ditu, baina emaitzak doitzen ditu helburu zehatz batekin: emakumezko eta gizonezkoen arteko osasun, hezkuntza eta diru-sarrerekin erlazionatutako aurrerapen-desorekak barneratzea. Genero Garapenaren Indizea GGInekin batera interpretatu behar da eta bi adierazle horien arteko aldea kontsideratu beharra dago hurrengo zentzuan: zenbat eta alde handiagoa (txikiagoa), are sakonagoak (arinagoak) izango dira genero-desberdintasunen eraginak. Hau da, kalkulatu den zenbakiak, berez, ez dauka esanahirik baina adierazle hau oso gaizki ulertu eta azaldu da hainbat ikerketa, txosten eta prentsa-artikuluatan. NBGPk berak onartu ditu adierazle honek interpretatzeko eta kalkulatzeko orduan dituen zailtasunak eta haren definizioaren moldaketa aztertzen ari da.

## b.2) Genero Sustapenaren Indizea (GSI).

Genero-esparruan bigarren adierazle honen erabilgarritasuna handiagoa da eta emakumezko eta gizonezkoen arteko desberdintasunak plazaratzen ditu hiru arlotan:

i) Esparru politikoko parte-hartzea eta erabakitze boterea: parlamentuan dauden gizonezko eta emakumezkoen portzentajea da adierazlea.

ii) Esparru ekonomikoko parte-hartzea eta erabakitze boterea: profesionalak edo lan teknikoetako langileak diren gizonezko eta emakumezkoen portzentajea eta goi-mailako legegileak, zuzendariak eta goi-mailako funtzionarioak diren gizonezko eta emakumezkoen portzentajea dira adierazleak.

iii) Baliabide ekonomikoaren gaineko boterea, emakumezkoek eta gizonezkoek jasotako diru-sarreraren bitartez neurtuta (AEB dolar EAPtan).

Adierazle honek ere kritika batzuk jaso ditu, batez ere lan-merkatuan eta gizar-tean egoerarik onenean dauden emakumezkoen baldintzak aztertzen dituelako. Era berean, lan-merkatutik kanpoko dimentsioak, autonomia fisikoa edota tokiko erakundeetako parte-hartzea ere oinarritzeko aldeak dira genero-desberdintasuna arakatu ahal izateko. Nahiz eta arazo horiek garrantzitsuak diren, herrialde askotako datuak jakinarazten dizkigu adierazle honek eta, horrela, emakumezko eta gizonezkoen egoera erlatiboa argitzen du eta nazioarteko zein denboran zeharreko alderaketak ahalbidetzen ditu.

## ***1.5. MILURTEKOKO GARAPEN HELBURUAK (MGH)***

Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH) 2000. urtean 189 herrialdek sinatutako Milurtekoko Deklarazioan ezarri zituzten eta, gehienak 2015. urtean lortu behar ziren, beranduenez ere, 1990eko hamarkadan munduan zegoen egoera aintzat hartuta. Giza garapenaren kontzeptua eta teoria barneratzen dute eta, horrela, jarritako helmugek garapenaren alde desberdinak barneratzen dituzte: pobrezia, hezkuntza, osasuna, generoen arteko desberdintasuna, naturaren hondaketa eta abar.

Nazio Batuen Erakundearen arabera, MGHak oso bereziak dira lau arrazoi-gatik: i) gizon-emakumeak dituztelako ardatz, epe jakinetan erdietsi behar direlako eta neur daitezkeelako; ii) helburuen oinarri den munduko itunak herrialdeen ardura azpimarratzen duelako (garapen-bidean dauden herrialdeek nork bere arazoak konpontzekoa eta herrialde garatuek ahalegin horiei babes ematekoa); iii) inoiz baino babes politiko handiagoa dutelako (herrialde garatuek, garapen-bidean dauden herrialdeek, gizarte zibilak eta garapenaren alde diharduten instituzio nagusiak), iv) lor daitezkeelako.

Aurrerapenak neurtu ahal izateko eremua eskaintzeko xedearekin, 2000. urteko Milurtekoko Deklarazioak zortzi helburu, 18 azpi-helburu eta 48 adierazle barneratzen ditu. Hala ere, 2007. urtean, jarraipen-eremua berraztertu zuten lau azpi-helburu berriak eta dagozkien adierazleak gehituz. Helburu eta azpi-helburu guztien arteko harreman estuak aurki ditzakegu, estrategia bakar baten aldeak dira-eta. Azpi-helburu bakoitzari dagozkion aurrerapausoak neurtzeko adierazle zehatzak Nazio Batuen web orrialdean aurki daitezke. Oro har, 60 adierazle ezarri dituzte hartutako konpromisoa zein puntutaraino betetzen ari den neurtu ahal izateko.

Milurtekoko Garapen Helburuak eta dagozkien azpi-helburuak ondokoak dira:

1. helburua: pobrezia gorria eta gosea errotik desagerraraztea.
  - 1.A. 1990-2015 bitartean, eguneko dolar bakar bateko edo gutxiagoko diru-sarrerak dituzten pertsonen portzentajea erdira murriztea lortzea.
  - 1.B. Enplegu betea eta produktiboa lortzea, eta denentzako lan duina, emakumezkoak eta gazteak barne.
  - 1.C. Azpi-helburua: 1990-2015 bitartean, gose direnen portzentajea erdira murriztea lortzea.
2. helburua: Lehen Hezkuntza unibertsala erdiestea.
  - 2.A. Munduko neska-mutil guztiek, 2015. urterako, Lehen Hezkuntzako ziklo oso bat amai dezaten zaintzea.
3. helburua: generoen arteko berdintasuna eta emakumeen botere-hartzea sustatzea.
  - 3.A. Lehen eta Bigarren Hezkuntzan genero-desberdintasunak deuseztatzea, ahal bada, 2005erako, eta hezkuntza-maila guztietan 2015. urtearen amaierarako.
4. helburua: bost urtetik beherako haurren heriotza-tasa murriztea.
  - 4.A. 1990 eta 2015 artean, bost urtetik beherako haurren heriotza-tasa bi heren murriztea.
5. helburua: amen osasuna hobetzea.
  - 5.A. 1990 eta 2015 artean, amen heriotza-tasaren arrazoa hiru laurden murriztea.
  - 5.B. 2015. urterako ugalketa-osasunerako sarbide orokorra lortzea.
6. helburua: GIB/HIESari, paludismoari eta beste gaixotasun batzuei aurre egitea.
  - 6.A. 2015erako GIB/HIESaren hedapena gelditzea eta murrizten hastea.
  - 6.B. 2010erako behar duten pertsona guztientzat GIB/HIESaren aurkako tratamendurako sarbide orokorra lortzea.

6.C. 2015erako paludismoaren eta beste gaixotasun larri batzuen intzidentzia gelditzea eta murrizten hastea.

7. helburua: ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea.

7.A. Garapen iraunkorraren printzipioak sartzeko politika eta programa nazionaletan, eta ingurumenaren baliabideen galerari buelta ematea.

7.B. Bioaniztasunaren galera gutxitzea, 2010. urterako galdutako tasaren murriztapen esanguratsua lortuz.

7.C. Edateko urik eta oinarritzko saneamendurik ez duten pertsonen ehunekoa 2015. urterako erdira jaitea.

7.D. 2020. urterako, txaboletako biztanleen artean, gutxienez 100 milioi pertsonaren bizitza nabarmen hobetzea.

8. helburua: garapenerako munduko itun bat sustatzea.

8.A. Merkataritza irekiko finantza-sistema bat egitea, arauetan oinarritua, aurreikus daitekeena eta ez-diskriminatzailea.

8.B. Gutxien garatutako herrialdeen premia bereziei erantzutea.

8.C. Gutxien garatutako herrialdeen, garapen-bidean dauden kostarik gabeko herrialdeen eta garapen-bidean dauden uharte-estatu txikien behar bereziet arduratzea.

8.D. Garapen-bidean dauden herrialdeen zorraren arazoari irizpide global batez aurre egitea.

8.E. Enpresa farmazeutikoekin lankidetzan, garapen-bidean dauden herrialdeetan oinarritzko sendagaiak saltzea bidezko prezioan.


8.F. Sektore pribatuarekin lankidetzan, teknologia berrien onurez baliatzea, informazio- eta komunikazio-teknologiez, batez ere.

Lehenengo helburua, pobrezia gorria eta gosea errotik desagerraraztea, ezagunena da eta, bereziki, bere lehenengo azpi-helburua: 1990-2015 bitartean, eguneko dolar bakar bateko edo gutxiagoko diru-sarrerak dituzten pertsonen portzentajea erdira murriztea lortzea. Grafikoan ikus daitekeen moduan, datu orokorrek munduko pobrezia-tasak murrizten ari direla erakusten dute, baina lurraldeen arteko joerak erabat diferenteak dira. Ekialdeko Asian pobrezia murriztapena oso nabarmena izan da azken urteotan eta ezarritako helburua aspaldi lortu da. Joera horren arrazoiatariko bat Txinak izan duen hazkunde ekonomiko azkarra da eta, horren ondorioz, 475 milioi pertsona muturreko pobrezia ekoeratik irten direla estimatzen da. Munduko gainerako lurraldeetan aurrerapena askoz motelagoa izan da eta egoerarik larriena Saharaz hegoaldeko Afrikakoa da: gero eta lagun gehiago daude pobrezia gorrian eta behartsuak gero eta behartsuagoak dira. 2005. urtean lurralde horretan muturreko pobrezian 100 milioi pertsona gehiago zeuden 1900. urtean baino, eta pobrezia-tasa % 50 baino altuagoa zen.

Gauzak horrela, mundu-mailan helburua lortzea posible izan daiteke baina argi dago hainbat lurraldetan ez dela lortuko eta horrek esan nahi du mila milioi pertsonak baino gehiagok muturreko pobrezia-aren egoera jasango dutela.

Aurrekoarekin lotuta, gose kronikoa murrizten ari da (eguneroko premiak betetzeko elikagai nahikorik ez duten pertsonen portzentajearen bidez neurtua) eta 2000-2002 bitartean lurralde guztietan egoera hobea zen 1900-1992 bitartean baino, Mendebaldeko Asian izan ezik. Joera hori 2008. urtean eten egin zen, elikagaien prezioen hazkundeagatik. Elikagaien prezioen gorakadak gose kronikoa jasaten duten pertsonen kopurua handitu zuen hainbat lurraldetan, gosearen aurkako benetako politikarik eza bistaratuz.

### 1.11. Egunean 1,25 dolarreko edo gutxiagoko diru-sarrerak dituzten pertsonen portzentajea. 1900, 2005 eta 2015. urteko helburua.



Iturria: Nazio Batuen Erakundea.

Oharra: Hasieran muturreko pobrezia-aren adierazlea egunean dolar 1 baino gutxiagoko diru-sarrera zen baina gaur egun 1,25 dolar baino gutxiagoko diru-sarrera hartzen da erreferentziatzat.

Lehen Hezkuntzako matrikulazio-tasari dagokionez, lurralde gehienetan aurrerapena nabarmena izan da; hala ere, eskolara joateko adina duten haurren % 10 oraindik ez da eskolara joaten. Horrekin lotuta, generoen arteko desberdintasuna matrikulazioan ere murrizten ari da, zeina emakumezkoen eta gizonezkoen arteko beste motatako aldeak gutxitzeko lehen urratsa den.

MGHeK pobrezia-aren aurkako borroka talde-lana dela azpimarratzen dute eta, era berean, borroka horretatik munduko herrialde guztiek etekinak aterako dituzte. Gaur egungo munduko elkarrekiko mendekotasun ekonomikoak merkataritzarako



arau berriak, nazioarteko finantza-egonkortasuna eta teknologiaren hedapena eskatzen ditu, garapen-bideko herrialdeek garapen bizkorra eta iraunkorra lortzeko aukerak aprobezta ditzaten.

## **BIBLIOGRAFIA**

- Maddison, Angus (2002): *La economía mundial: una perspectiva milenaria*. Mundi-Prensa, Madril.
- Nazio Batuak (2005): *Milurtekoko Garapen Helburuak. 2005eko Txostena*. Nazio Batuak, eskuragai: [http://www.unesco.org/dokumentuak/Garapen\\_Helburuak\\_2005.pdf](http://www.unesco.org/dokumentuak/Garapen_Helburuak_2005.pdf).
- PNUD (2009): *Informe sobre Desarrollo Humano 2009. Superando barreras: Movilidad y desarrollo humanos*, Programa de las Naciones Unidas para el Desarrollo. New York, euskarazko laburpena eskuragai: [http://hdr.undp.org/en/media/HDR\\_2009\\_BA\\_Summary.pdf](http://hdr.undp.org/en/media/HDR_2009_BA_Summary.pdf).
- Sutcliffe, Bob (2005): *100 imágenes de un mundo desigual*, Icaria Ed., euskarazko edizioa *Mundu desorekatu honen 100 irudi* eskuragai: [http://www.hegoa.ehu.es/articles/text/100\\_imagenes\\_de\\_un\\_mundo\\_desigual\\_mundu\\_desorekatu\\_honen\\_100\\_irudi](http://www.hegoa.ehu.es/articles/text/100_imagenes_de_un_mundo_desigual_mundu_desorekatu_honen_100_irudi).
- Stiglitz, Joseph E.; Sen, Amartya y Fitoussi, Jean –Paul (2009): *Informe de la Comisión sobre la Medición del Desarrollo Económico y del Progreso Social*, eskuragai: [www.stiglitz-sen-fitoussi.fr](http://www.stiglitz-sen-fitoussi.fr).

## **ERREFERENTZIAZKO WEB ORRIAK:**

*Nazio Batuen Erakundea (NBE)*: <http://www.un.org/es/>

- Milurtekoko Garapen Helburuak: <http://secint24.un.org/spanish/millenniumgoals/bkgd.shtml>
- Nazio Batuen Erakundearen datu-baseak: <http://unstats.un.org/unsd/databases.htm>
- Nazio Batuen Biztanleriaren Funtza (UNFPA): <http://www.unfpa.org/help/sitemap/es/index.html>
- Nazio Batuen Emakumezkoen Funtza (UNIFEM): <http://www.unifem.org/>
- Nazio Batuen Garapen Programa (PNUD): <http://www.undp.org/spanish/>
- Giza Garapenari buruzko Urteroko Txostenak: <http://hdr.undp.org/es/informes/mundial/idh2010/>
- Giza garapenaren inguruko estatistikak: <http://hdr.undp.org/es/estadisticas/>
- Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia (UNCTAD): <http://www.unctad.org/Templates/StartPage.asp?intItemID=2068&lang=3>

- Gutxien Garatutako Herrialdeei buruzko informazioa:  
<http://www.unctad.org/templates/countries.asp?intitemid=1676&lang=3>

**Munduko Bankua:** <http://www.bancomundial.org/>

- Munduko garapenari buruzko txostenak (Munduko Bankuaren urteroko Txostena):  
<http://www.bancomundial.org/publicaciones/>
- Munduko Bankuaren estatistikak: <http://www.bancomundial.org/datos/datos.html>
- Munduko garapenaren adierazleak (World development indicators. Database):  
<http://ddp-ext.worldbank.org/ext/DDPQQ/member.do?method=getMembers>

**Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea (ELGE):**

[http://www.oecd.org/home/0,3305,en\\_2649\\_201185\\_1\\_1\\_1\\_1\\_1,00.html](http://www.oecd.org/home/0,3305,en_2649_201185_1_1_1_1_1,00.html)

- ELGEk eskaintzen dituen estatistikak:  
[http://www.oecd.org/statsportal/0,3352,en\\_2825\\_293564\\_1\\_1\\_1\\_1\\_1,00.html](http://www.oecd.org/statsportal/0,3352,en_2825_293564_1_1_1_1_1,00.html)

**Lanaren Nazioarteko Erakundea (LANE):**

<http://www.ilo.org/global/lang—es/index.htm>

- LANEren datu-baseak:  
<http://www.ilo.org/public/spanish/support/lib/resource/ilodatabases.htm>
- Lan-merkatuaren oinarritzko adierazleak:  
<http://kilm.ilo.org/KILMnetBeta/default2.asp>

## 2. Munduko ekonomiaren globalizazioa

*Mikel Zurbano Irizar*

Globalizazioaren errealitatera hurbiltzen gara gai honetan. Azken hamarkadetan munduko ekonomiak izandako bilakaera etiketatzen duen terminoa da. Bere sorreratik eztabaida eragin du globalizazioaren esangurak eta hitzak berak, auzi hori aipatuko dugu globalizazioa kapitalismoaren nazioartekotze-prozesuaren testuinguru historikoan duen kokapena aipatu ondoren. Nolanahi ere, globalizazioaren izaera multidimensional da azpimarratu eta aztertuko duguna ondoren ekarpen interesgarri gisa. Kultura, ingurumena, teknozientzia eta beste hainbat eremutako globalizazioa munduko ekonomiaren globalizazioaren osagai banaezinak dira eta hori da gai honetako ekarpen espezifikoa, hurrengo gaietan globalizazio ekonomikoaren hainbat arlo aztertuko ditugu eta. Globalizazioaren garaian kapitalismoaren erregulazioan izandako paradigma-aldaketa ere aztertuko dugu, neoliberalismoak erabateko nagusitasuna eskuratzearaino. Aldaketa horretan estatuaren eta enpresa transnazionalen papera erabakigarria izan da. Horrela, laugarren gaian sakonduko den egungo krisiaren oinarriak ulertzeko zutarrak ipintzen dira gaiaren bigarren zatian.

### **2.1. GLOBALIZAZIOA: KONTZEPTUAREN HASTAPENAK**

#### **2.1.1. Globalizazioa kapitalismoaren dinamikan**

Globalizazioaren kontzeptua XX. mendearen azken hamarkadan agertu eta hedatu zen, kapitalismoaren aro berria definitzeko dimentsio anitzeko fenomeno gisa. Fenomenoak duen konplexutasunak eta ikuspegi zein adar ugari kontzeptuaren inguruan nahasmena eta ulerkera desberdinak sorrarazi dituzte. Horrela, inoiz globalizazioaren esangura diferenteak eta, batzuetan, kontrajarriak ere argitara eman dira egilearen jatorri eta ikuskeraren arabera. Nahiz erabilera urrikoak diren, kontzeptu bera beste izen batzuen bidez ere ezagutzen da. Horien artean erabiliena mundializazioa da, zeinak globalizazioaren eduki berbera adierazten duen batik bat eskola-tradizio frankofonoan.


Nazioarteko egungo testuinguru irekian, merkatuaren zein merkatuz besteko erlazioek, fluxuek, joan-etorriek, jokabideek, eragileek, prozesuek eta balioek gero eta gehiago eragiten dute, eta birproduzitzen edo identifikatzen dira munduko esparruan. Globalizazioaren eremuaren zabaltasuna erakusten du aipatutako

dinamikak, baina horrek ez du informaziorik ematen fenomenoaren garrantzi erlatiboaz. Indarrean dauden globalizazio-eremuak eta beren arteko elkarrekiko mendekotasunak ugariak dira. Alabaina, teknologia-globalizazioaz mintzo garenean, baita ingurumen-prozesuen, kulturaren, instituzioen edota ekonomiaren globalizazioaz ari garenean ere, hausnarketa eta baieztapen desberdinak egiten ditugu haien jatorri, garapen-maila, joera eta eraginei dagokienez.

Globalizazio terminoa argitze aldera haxe aurrera daiteke: globalizazioaren jatorria eremu sozioekonomikoan dagoela eta harreman estua duela kapitalismoaren ibilbide historikoan berezkoa den prozesu batekin, kapitalaren nazioartekotzearekin hain zuzen. Prozesu horrek adiera bikoitza hartzen du. Batetik, kapitalaren nazioartekotzearen bidez metaketa kapitalistaren produkzio eta birprodukzioaren gero eta zati handiagoa nazioarteko edo munduko esparruan gauzatzen da. Hots, sistema kapitalistan gauzatzen diren harreman ekonomikoak gero eta gehiago munduko merkatuetan bideratzen dira, nazio-merkatuen kaltetan. Hori da, hain zuzen, 2.1. irudian erakusten den joera. Irudiak diosku 1960tik aurrera Japonia, AEB, Alemania eta Frantziako produktuaren gero eta zati handiagoa munduko merkatuetara bideratzen dela eta merkatu nazionalera doan zatia gutxituz doala. Ondorioz, eragile sozioekonomiko nagusien nazio-atxekimendua ahulduz doa eta, aldiz, mundu-eremuk loturak indartu egiten dira. Enpresa transnazional erraldoiek islatzen dute erakunde sozioekonomikoek gaur egun nazioartekotzeko duten jokabidea. Baina, nazio-estatua bera ere ukitzen du globalizazioak, haren izaera eta ohiko funtzioak berrikustera eta aldatzera behartzeraino.

Halaber, globalizazioak badu beste adiera bat, kapitalismoaren hedapen globalarekin lotzen dena, hain zuzen. Kapitalismoak duen izera hedatzailea bitarteko, eremu berrietara zabaldu berri da, bere ziklo hedatzailearen gorengo mailara iritsiz. Horrela, kapitalismoa eremu geografiko berrietara hedatu da. Azken uhinean, sozialismo sobietarraren gainbeherarekin Europako ekialdeko herrietan eta antzeko erregimena garatu zuten herri periferikoetan kapitalismoa ezarri da, salbuespenak egon badauden arren. Politikoki sozialista den Txinan ere kapitalismoaren hedapen sozioekonomikoa indartsua da. Horrela, kapitalismoaren lurralde-hedapena gaur egun ia erabatekoa da. Beraz, munduko sistema sozioekonomiko bakarra eta ahalguztiduna gorpuzten du gaur egun kapitalismoak. Gainera, kapitalismoa jarduera berrietara ere hedatu da eta lehen merkataritza-arlotik at zeuden jarduerak bereganatu ditu. Horren adibiderik behinenak zerbitzuen sektoreko hainbat jardueratan aurki daitezke. Esaterako, aisialdia eta arlo pertsonaleko zainketa-lanak edo etxeko-lanak joera horren erakusle dira.

## 2.1. Mendebaldeko herrialde batzuetako munduko merkatuetarako joera.



Arlo horietako horniketa eta eskaintako zerbitzuak tradizioz etxeko ekonomietan eta era pertsonalean, eta batik bat emakumeek, eskaini izan diren arren, merkatuaren eskutik eskaintzen dira gero eta maizago bide publikoa zein pribatua erabiliz horretarako. Merkaturatzearen azken muga dugu ikur bihurtu den biogenetikaren garapena, zeinaren bidez giza bizitza bera kontrolatzeko tresnak eta baliabideak etekin ekonomikoaren logikaren menpe ipintzen baitira. Kapitalismoaren globalizazio ia erabatekoak historiaren amaiera iritsi dela baieztera bultzatu ditu egile bat baino gehiago<sup>1</sup>.

Laburbilduz, globalizazio-prozesuaren bidez mundua sistema bakarreko espazio gisa itxuratzen da eta sistema horren muina den metaketa kapitalista gauzatzeko espazio behinena mundua da.

Nolanahi ere, globalizazioaren urratsak hainbat alorretako berezko baldintzen garapenarekin uztartuz egin dira. Hurrengo atalean aipatuko dugun bezala, ulertezina litzateke egungo globalizazioa informazio- eta telekomunikazio-teknologia berrien zein garraioen garapen bizkorrik gabe, hauek ekarri baitute merkatu globala gauzatu ahal izateko distantzia eta denbora-mugaren murrizketa. Garapen horiek, hein berean, indarrean zegoen kulturaren uniformizazio-dinamika areagotu baino ez dute egin, betiere kultur eredu angloamerikarraren alde. Arestian azaldutako munduko sistema politiko bikoitzaren hausturak ere berealdiko garrantzia izan du egitura politiko-instituzionalak globalizazio-prozesua indartzeko orduan. Sozialismo errealearen hondamendiak eta 2001eko irailaren hamaikaren biharamunak lidergo politiko-militar estatubatuarra gorengo puntura eramanez, aspaldian ezagutu gabeko munduko hegemonia bakarra erdietsiz harik eta 2007ko *subprime hipotekekin* lehertutako krisiaren ondoren oreka geostrategikoak aldatzeko zorian ipini diren arte bederen.

1. Horien artean Fukuyamaren predikua da ezagunena.

Harago, arlo ideologikoan globalizazioa doktrina liberalaren hegemoniarekin uztartzen da, biak elkar elikatuz. Mendebaleko herrietan ongizatearen estatuak eta fordismoak 1970eko eta 1980ko hamarkadetan ezagututako krisiaren testuinguruan liberalismoa gailendu zen filosofia ekonomiko eta soziopolitiko nagusi gisa. Garapen-bideko herrietako nazio-populismoaren eta sozialismo errearen porrotak liberalismoa mundu osora barreiatu zuen. Neoliberalismoaren hegemoniak merkatuaren lehentasun osoa —batez ere munduko merkatuarena— ekarri du eta horri oztopoak ipintzen dizkion edozein traba edo erregulazio mota ezabatzea da helburu politikoa. Desarauketa, malgutasuna eta pribatizazioa ardatz hirukoitzaren oinarriari jarraituz bideratzen ari da gaur egun globalizazio sozioekonomikoa, enpresa transnazionalen eta Mendebaleko estatu boteretsuen mesederako eta garapen-bideko herrien eta gizarteko sektore txiroenen kalterako.

Beraz, globalizazioa prozesu dinamikoa da eta bere testuinguru historikoan ulertu behar da. Globalizazioaren aipamen hutsak ez digu ezer adierazten, testuinguruaren logika barneratzeko egokiago deritzogu globalizazio neoliberalaz mintzatzeari. Alta bada, globalizazio neoliberalak adierazten duena da, aspalditik indarrean dagoen nazioartekotze-prozesuaren segidan, mundua sistema sozioekonomiko eta politiko bakar gisa gorpuzten den garaiotan, kapitalismoak hartzen duen itxura eraberritua. Horretan, merkaturia gizakiaren aurretik lehenesten da, eragile eta, oro har, arlo pribatuak publikoa gailentzen du eta logika ekonomikoak arrazoi soziala lurperatzen du.

### ***2.1.2. Nazioartekotze-prozesua kapitalismoaren historian***

Arestian aipatu dugun bezala, kapitalaren nazioartekotzea ez da gertakizun berria. Kapitalismoak bere izaeran darama integrazioarako joera eta *munduko merkaturia* eraikitze beharra, nahiz eta historian zehar joera hori ez den modu jarraituan zein aldebarrekoan agertu. Hori dela-eta, egile batzuek diote kapitalismoak hastapenetik mundu-sistema osatzeko zaletasuna duela<sup>2</sup>. Hastapen horietan nazio-estatu gorpuztu zen ekonomi eta giza erregulaziorako eremu eta merkatu-gune nagusi bezala, baina ordurako jarduera jakin batzuk eremu hori gainditzen hasiak ziren, batez ere merkataritzakoak.

Kapitalismoak nazioartera emandako lehen urratsak ondasunen merkataritza-arlokoak izan ziren arren, denboraren poderioz kapitalen edo finantza-baliabideen zirkulazioa ere nazioartera hedatu zen —era nabarmenean XIX. mendean— eta geroago produkzio-prozesuak berak nazioz gaindikoa jorratu zuen —XX. mendean—. Horren ondoren ekonomia-kate osoko gainbalioa eta metaketa batez ere nazioarteko eremuan gauzatzen ari da.

---

2. Esanguratsuen I. Wallerstein da.

Kapitalaren metaketarako nazio zein nazioarteko espazioen arteko tirabirak gaur egun arte iraun egin du garaian garaiko koiunturak bata edo bestearen alde eginez, baina nazioarteko espazioak progresiboki garrantzi handiagoa hartu du. Kapitalismoaren historian zehar bi garaioak tartekatzen dira, ekonomia-liberalismoan oinarritutako indar ekonomiko eta ideologikoak gailentzen diren nazioartekotze tinko garaiak (globalizazioaren susperraldiak), eta babesgintza eta bakartzea nagusitzen diren garaiak zeinetan nazioartekotzeak gibelera egiten baitu (globalizazioaren atzeraldia). Liberalizazio eta nazioartekotze gorakorreko garaien artean aipatzekoak dira, batetik XIX. mendearen bukaera eta XX. mendearen hasierako tartea, eta, bestetik, XX. mendearen amaieraz honainokoa.

XIX. mendearen bigarren zatiko eta XX. hasierako kapitalen, produktuen eta pertsonen zirkulazioaren nazioartekotze bizkorraren zio nagusiak izan ziren, besteak beste, merkataritzarekiko oztupoen murrizketa, kapitalen nazioarteko joan-etorrien gaineko kontrol-gabezia (urre-araua nagusi zenean) eta trenbide zein itsas garraioen garapenari esker gertatu ziren garraio-kostuen merketzea. Lehen Mundu Gerrak amaiera eman zion Britainia Handiko hegemoniapeko munduratzeko-aldi horri. Bi mundu gerren artean estatu nagusietan politika protekzionistak ezarri ziren eta ondorioz nazioartekotzeak atzerapauso nabarmenak ezagutu zituen.

Munduko Mendebalde kapitalistan Ameriketako Estatu Batuen (AEB) lidergo argiarekin munduratzeko-uhin berria hasi zen II. Mundu Gerra amaitzearekin batera. Garai horren abiaburua Bretton Woods-en hitzartutako nazioarteko diru- eta finantza-sistema da. Txanponen arteko truke-tasa finkoen sistema horretan, kapitalen zirkulazioaren gaineko kontrolak onartzean eta Europa zein Japoniako berreraikuntzak merkataritzaren nolabaiteko isolatze-testuinguruan garatzeari baiezkota ematean, garai honen hasieran nazioartekotzea motela izan zen. Alabaina, gerraosteko globalizazio-prozesuak ezagutzen duen jauzi kualitatibo erraldoiaren funtsa Bretton Woods-eko sistemaren hondamendiarekin eta truke-tasa flotagarriek berau ordezkatzearekin gauzatu zen. Hein berean, AEBetako ekonomiaren hegemonia ia absolutuaren amaiera eta munduko ekonomiaren hedapen-alditik atzeraldirako trantsizioa adierazi zuen aipatutako hondamendiak. Munduko kapitalaren errentagarritasunaren galerak ekonomia-politika eta eraldaketa instituzional sakonak ekarri zituen. Neoliberalismoa hedatu eta lehenetsi zen berehala eta horrekin batera nazioarteko finantza-merkatuen liberalizazioa etorri zen 1980ko hamarkadan. Ondoren, ekonomia-liberalizazioak, bereziki merkataritza eta kapitalen inbertsioen fluxuenak, planifikazio zentraleko ekonomien hondamendiarekin batera, mundu-sistema kapitalistaren globalizazio-prozesua nabarmen indartu zuen.

### ***2.1.3. Globalizazioaren inguruko ezbaia***

Globalizazio neoliberalak duela hogeita bost urtetik hona aurrerapauso sakonak eman ditu, kapitalismoaren etapa historikoaren garapen-eredu hegemoniko gisa bederen. Nolanahi ere, globalizazioaren aurrerapauso-mailaz, haren eraginez eta

etorkizunaz egin daitezkeen balorazioak ez dira errazak ezta nolana hikoak ere. Are gehiago, *globalizazioa* aipatzen denean ez da beti errealitate beraz mintzatzen eta iritzi zein interpretazio ugari daude, batzuetan kontrajarriak eta elkarrekiko lehian direnak. Arlo ekonomiko eta sozialean dauden iritzien aniztasuna botere kapitalista desberdinek nazioartekotzeaz duten estrategia eta interesen isla da.

Globalizazioaren inguruko ikuskerak, oro har, hiru multzo orokorretan banatu dira (ikus taula). Batetik, globalizazioaren errealitatea ukatzen dutenen multzoa dago, eta bestetik, globalizazioa aintzat hartzen dutenena eta bien artean kokatzen dira globalizazioaren irakurketa erlatiboa egiten duten egileak —eraldatzaileak—. Horietako lerro batean lerratzeo arrazoiak ez dira beti ideologikoak. Globalizazioaren ukatzen dutenen artean jarrera aurrerakoa nagusi den arren, mundu-sistema bakarraren errealitate ezezkua ematen dion egile neoliberalik ere bada. Aitzitik, globalizazioaren errealitatea sostengatzen dutenen artean egile ezkertiarrik ere aurkitu ahal da teoriko neoliberalekin iritzia partekatuz, ikuspegi zeharo diferente batetik defendatu arren. Oro har, batzuek zein besteek globalizazioa eta bere eraginak *ideologizatze* joera erakusten dute eta bakoitzaren helburu zein interesen arabera balorazio baikorrak edo ezkorrak taxutzen dituzte.

Gaur egungo munduko egoera sozioekonomikoa deskribatzeko globalizazioa kontzeptua desegokitzen hartzen dutenen artean egiten den diagnostikoa bi ardatz desberdinetan bereiz daiteke. Biek ere beren tesiak oinarri kuantitatibo baten gainean eraikitzen dituzte. Horrela perspektiba dinamiko batetik, ondasun eta zerbitzuen zein produkzio-faktoreen globalizazioaz mintzatzean, nazioartekotzearen maila bezala ulertuta, urrunegi joan izana kritikatzeko duten egileak aurkitzen ditugu<sup>3</sup>. Kritikarako euskarria, egungo eta I. Mundu Gerraren aurreko globalizazio-uhinen alderaketa da.

Egile hauek diote gaur egungo ekonomiaren irekitasuna ez dela 1914aren aurrekoa baino garaia. Orduan nagusi ziren merkataritzaren liberalizazioa eta trukearen kontrolik eza. Kontinente arteko lurrunontziek eta telegrafoen aurrerapen teknikoek ahalbidetu zuten hori. Hartara, II. Mundu Gerraren ostean merkataritzaren liberalizazio-mailak (esportazioak produktuarekiko bezala definituta) ez zuen 1913koa gainditu 80ko hamarkada arte. Gainera, munduko herrialde nagusietan kontzentratzen da ondasun eta zerbitzuak nazioartera esportatzeko dinamika, munduko lurralde zabalak nazioarteko fluxuetatik alboratuak geratuz. Zehazki, ondasun eta zerbitzuen merkataritza dela-eta, nazioartean sortzen diren esportazio-eta inportazio-trukeen gehiena munduko hiru ekonomia-eremu nagusien baitakoa da. Errealitate horrek erregionalizazioaren fenomenoak mahai gainean jartzen du eta mundu-sistema bakarraren auzia zabaltzen. Egile hauentzat finantza-fluxuen nazioartekotze bizkorra bistakoa da, batez ere nazioarteko finantza-merkatuak 1980ko hamarkadan guztiz liberalizatu zirenetik. Baina, fluxu horiek ere batik bat

---

3. P. Hirst eta G. Thompson, esate baterako.



Mendebaldeko herri nagusien artean gauzatzen dira, lurralde zabalak baztertuz eta fluxu horien ondarrak baizik jasotzen ez dituztela. Gainera, egile horien esanetan kapitalen joan-etorriak gaur egun ez dira erlatiboki XX. mendearen hasieran baino garaia goak nazioarte mailan. Azterketa konparatiboari amaiera emanez beste faktorearen nazioarteko merkatuari erreparatzen diote, lan-merkatuari alegia. Eskulanaren nazioarteko fluxuak oso trinkoak ziren duela mende bat, garai hartako nazioarteko migrazio zabalek erakusten duten moduan. Orduan migrazioaren iturburua, batez ere, Europako biztanleria izanik eta helmuga Amerika eta Ozeaniako lurraldeak, munduko lan-merkatuan zirkulatzeko trabak oso bigunak ziren. Gaur egun, ostera, eskulanaren migrazioak inportanteak izan arren, nazioartean oztopo gogorak gainditu behar izaten dituzte, batez ere, garapen-bideko herrietatik Mendebaldeko herriak helburu dituzten etorkinek. Globalizazioarekiko eszeptikoak diren egileen argudioa laburbilduz, ondasun, zerbitzu, kapital eta lanaren nazioarteko merkatuetako benetako fluxuek ez dute gainditzten gaur egun duela mende bateko maila erlatiboa eta, beraz, egile horiek ondorioztatzen dute globalizazioaren fenomenoaren ez dela erabatekoa eta itzulezina.

Beste egile eszeptiko batzuek<sup>4</sup>, aurreko argudioarekin uztartuz, ikuspegi estatikoan oinarrituta ukatzen dute globalizazioa. Munduko ekonomia globalizatuak nazio-esparrurik ez egotea edo egotekotan diferentzia gabekoak izatea eskatuko luke egile hauen esanetan. Hori horrela izan dadin gutxienez lau baldintza bete beharko lirake munduko ekonomian: ondasun eta zerbitzuen munduko merkatua trararik gabe osatua egotea, lehenik; bestetik, produkzio-faktoreen nazioarteko mugikortasunerako ahalmen ososa suertatzea; hirugarrenez, moneta bakarreko sistema edo, bederen, moneta-sistema finko eta egonkorra moneta-arau definitu eta iraunkorrek in darrean egotea eta, amaitzeko, mundu-esparruko erregulazioa lehenetsia izatea.

Banan-bana aztertuta irizpide horietako bakar bat ere ez dela betetzen egiaztatzen dute ikuspegi horri eusten diotenek. Argudio batzuk lehengoan ildo beretik jorratzen dituzte; hala nola lehen irizpideari dagokiona: munduko merkatua osatu gabekoa da. Baiki, lehen GATTEk eta orain Munduko Merkataritza Erakundeak (MME) nazioarteko ondasunen eta zerbitzuen merkatuak liberalizatzeko bidean urrats garrantzitsuak egin dituzten arren, oraindik oso urrun dago sektore guztietako muga-sarien eta merkataritza-oztopoen erabateko ezabapena. Adibideak ugari dira, zerbitzu-sektoreko adarretako liberalizazioan aurrerapauso ahulak edo nekazaritzagaien arloko zailtasunak dira ezagunetarikoa. Areago, nahiz itxuraldatu diren eta gero eta gehiago estaltzen diren, nazio-merkatuak lehenesteko eta gordetzeko alde bakarreko babes-neurrien aplikazioek indartsu diraute. Horrek guztiak agerian uzten du ondasun eta zerbitzuen merkatu nazionalak oraindik duten indarra eta araugintza berezia sortzeko iturri direla, merkataritza-politika nazional diferentek

---

4. F. Chesnais dago, besteak beste, hauen artean.

agerrazten baitituzte. Beraz, mundu osorako merkatu global bakar baten gabezia bistakoa da.

Bigarren irizpidearen inguruko hausnarketa lehengo multzoko egileen bidetik egiten dute, hots, lanaren nazioarteko zirkulazioa guztiz oztopatuta dago eta hesi gogorrek gainditu behar izaten dituzte estatuko lan-merkatu batetik beste baterako urratsa egin nahi duten langileek. Nazioarteko lan-merkatua oso zurruna da eta zatikatua dago eta nazioarteko giza eta lan-arloko araugintza hutsaren hurrengoa da<sup>5</sup>. Bestalde, finantza-baliabideen edo kapitalen nazioz gaindiko zirkulazioa ia erabat librea den arren eta nazioarteko finantza-merkatuak oso indartsuak izanik, oraindik nazio-merkatu diferentziatuak egon badaude. Finantzagai sofistikatuentzako prezioak eta salerosketa-baldintzak ia berdinak diren arren, oraindik errentagarritasun diferenteak aurki daitezke finantza-plaza desberdinetan, eta bide hau da finantza-mugimendu etengabeak munduan zehar sortzeko iturria. Antzekoa esan daiteke bestelako finantza-aktibo tradizionalentzat, dibisak kasu. Munduko hiru txanpon nagusien prezioak ez dira berdinak zeren, Europako Banku Zentralak, Japoniakoak eta AEBetakoak ezartzen dituzten diruaren interes-tasek antzeko bilakaera duten arren, haien arteko tarte handia baita. Hau hirugarren irizpidearekin lotzen da, moneta bakarraren baldintzarekin, alegia. Bretton Woods-eko moneta-sistemak mundua hurbildu egin zuen betekizun horretara, truke-tasa finkoen sistema dibisa nagusi baten menpean, dolarraren pean, arautu baitzen. Haatik, 1970eko moneta-sistema horren apurketak txanponen arteko truke-tasa aldakorak eta dolarraren nagusitasun osoa zalantzan ipintzea ekarri zituen. Geroztik txanponen arteko parekotasuna aldatu egin da eta horretan eragin zuzena dute gobernuek helburu ekonomiko jakin batzuk eskuratzeko beren moneta-politika zehatza erabiliz.

Azken irizpideak, erregulazioarenak alegia, iradokitzen du ezen munduan sistema sozioekonomikoa arautzeko nazioz gaindiko erakundeetatik burututako araugintza bateratua edo oso hurbilekoa garatu beharko litzatekeela globalizazioa egotekotan. Hemen ere errealitatearekin egiten dugu topo. Izan ere, aurreko lerroetan azaldu dugun moduan, araugintza-sistema bakarretik urrun aurkitzen gara, oso bereziak baitaude nazio-ekonomien artean ekonomia zein giza arloko arau, lege edo erregulazio motak. Egia da nazioarteko erakunde batzuek (IMF, Munduko Bankua, MME...) doktrina neoliberalaren menpeko neurri bertsuak ezartzen dituztela han-hemen. Alabaina, erakunde horiek herri boteretsuenen kontrolpean daude barne-antolakuntzaren eredia dela medio, eta, beraz, beren irizpide eta ildo soziopolitikoak bultzatu eta betearazten dituzte. Ez dira, beraz, erakunde autonomoak kontrol demokratikodunak eta herri handienen interesekiko independenteak.

---

5. Lanaren Nazioarteko Erakundeak (OIT) egindako araugintza eta zuzendaritza multzoa aholkurako baizik ez da eta inolaz ere ez derrigorrez betetzekoa.

**GLOBALIZAZIOAREN INGURUKO JARRERA NAGUSIAK ATALKA**

	<i>Globalistak</i>	<i>Eszeptikoak</i>	<i>Eraldatzaileak</i>
<i>Zein da egoera berria?</i>	Aro globala	Merkataritza-blokeak Gobernu ahulak	Aurrekaririk gabeko lotura globala
<i>Ezaugarri nagusiak</i>	Kapitalismo globala Gobernu globala Gizarte zibil globala	XIX. mendearen amaieran baino interpedentzia apalagoa	Globalizazio trinkoa
<i>Gobernuen boterea</i>	Gainbeheran	Berrindartua edo hobetua	Birsortua, berregituratua
<i>Indar bultzagileak</i>	Kapitalismoa eta teknologia	Estatuak eta merkatuak	Modernitatearen indar ugari
<i>Mailaketaren nolakoa</i>	Hierarkia zaharren narriadura	Hegoaldearen bazterketa hazkorra	Munduko ordenaren arkitektura berria
<i>Arrazoi nagusia</i>	ETNak eta kultura-uniformizazioa	Nazio- interesa	Komunitate politikoen eraldaketa
<i>Globalizazioaren kontzeptua</i>	Giza ekintzaren egituraren berrantolaketa	Nazioarteratzea eta eskualdekatzea	Eskualde arteko erlazioen berrantolaketa
<i>Ibilbide historikoa</i>	Zibilizazio globala	Eskualdeko blokeak / zibilizazioen arteko talka	Zehatzugabea: integrazio eta zatiketa globalak
<i>Laburpena</i>	Nazio-estatuaren amaiera	Nazioarteratzea Estatuaren atxikipena eta laguntzaren menpe	Globalizazioak Estatuaren boterea eta munduko politika eraldatzen du

Politika neoliberalak potentzia eta eragile handien interesen arabera luzatzen dituzte. Bistakoa da posizio hori, esate baterako, garapen-bideko herrien kanpo-zorraren arazoaren aurrean indarrean ipinitako doikuntza-politiken kasuan. Dena den, liberalizazioaren aldeko orientazioa bakarra bada egungo munduan, ekonomia eta giza politiken arloko neurri zehatzak, haien erritmoak, liberalizazioaren mailak, etab. aplikazio diferenteak dituzte herrialdez herrialde. Gainera, truke-tasa edo interes-tasa bezalako nazioarteko aldagai makroekonomiko garrantzitsuenen inguruan adostasuna lortzeko zailtasunek nabarmenago uzten dute ekonomia-arloko gutxieneko koordinazio baterako oinarriaren gabezia. Alta bada, erregulazioaren mundu-mailako koherentziatik oso urrun aurkitzen gara eta, are gehiago, erregulazio-sistema bakarra osatzen.

Orain arte azaldutakoak arlo ekonomikoko globalizazioaren errealitatea ukatzeko plazaratzen diren arrazoi nagusiak dira. Gaur egun ezbatatzen hau gaindi-

tzeko bidean dago, globalizazioa egitate absolutu eta kuantifikagarria barik, kapitalismoaren fordismoaren osteko etapa berriaren osagarri kualitatiboak erakusten dituen eredutzat hartzen baita gero eta gehiago, bi muturren arteko egile eraldatzailen posizioekin lotura gehiago duen jarrera alegia. Horrela, bada, gaur egungo joerak ez luke sistema kapitalistaren benetako egiturazko aldaketarik adieraziko, baizik eta II. Mundu Gerraren osteko hedaldiko kapitalaren metaketarako oinarritzko egituren narriadurei emandako erantzuna. Ardatz hori harturik ekingo diogu hurrengo atalean globalizazio neoliberalaren azterketa osatuari.

## **2.2. GLOBALIZAZIOAREN DIMENTSIOAK**

Lehenengo ataleko globalizazioarekiko hurbilketa dimentsio bakarrekoa izan da halabeharrez. Izan ere, globalizazioaren testuinguru zein jatorriaren gainean arreta ipintzeak arrazionalitate ekonomikoaren esparrura eraman gaitu. Haatik, globalizazioa dimentsio anitzeko fenomeno da, aurpegi ugari ditu, alegia, eta haren aztertzailleek osagai desberdinen inguruan dihardute. Har dezagun sarrera gisa PNUD (1999) erakundeak honen haritik esandakoa: «Mundializazioa produktu eta diruaren korrantea baino zerbait gehiago da, munduko populazioaren arteko elkarrekiko mendekotasun gorakorra ere bada. Eta munduratzea, ekonomia ez ezik, kultura, teknologia, eta gobernu-egitura barnebiltzen dituen prozesua da». Nazio Batuetako erakunde horrek adierazitakoaren balioa globalizazioaren kontzeptuaren irekitasuna eta zabaltasuna berrestean datza. Horrenbestez, bistakoa da lehen atalean globalizazioaren kontzeptuaren inguruan eginiko hurbilketa aski ez izanik, oinarri ekonomikotik harago doan hurbilketa aberatsagoa ezinbestekoa dena. Hala ere, globalizazioa, prozesu multidimentsionala den heinean, eraldaketa etengabe dago eta konplexutasun handikoa da eta bera mugatzeko zailtasuna bistakoa da. Hartara, globalizazioaren ikuspegi integrala aurkezteko saio honetan osagaien zerrenda mugatua eta ahal bezain hesitua eskainiko dugu, prozesuaren gako nagusiak ulertze aldera.

Globalizazioaren dinamika orokorra modu zabalean ulertzeko hastapena lehen atalean aztertu izan den esparru ekonomikoaren globalizazioa da. Globalizazioaren zutabe nagusietarikoa eta jatorrizkoa izanik haren funtsa ulertzeko ariketa egingo dugu zenbait arlotan suertatzen ari diren prozesuak analizatuz. Ekonomia-prozesuarekin lotura estua duen teknologiaren munduratzearaz arituko gara ondoren, teknoglobalismoaren paradigma aurkeztu eta haren irispen-mailaren inguruko hausnarketa ere erantsiko dugu. Globalizazioaren ardatz gisa kulturaren globalizazioa eta uniformizazioa aztertuko ditugu, betiere nazioz gairik trukeak eta ikuskerak aurrera egiteko aurrebaldintzat hartuta. Areago, krisi ekologikoaren perspektiba dugu arazo orokor behinena eta berarekiko erantzun globalen premiak era nabarmenean plazaratzen dituenak. Ekologian bezala beste arlo desberdinetan ere hedatzen ari diren defizit eta eragin gurutzatu gehienak munduko eremuan

azaltzen diren neurrian arau- eta erregulazio-arloko erantzunek ere maila berekoak izatea eskatzen dute.

### ***2.2.1. Ekonomiaren globalizazioa***

Lehen ataleko hausnarketaren ildotik globalizazioaren inguruko hurbilketa nekez egin daiteke arlo ekonomikoari erreparatu gabe. Globalizazio ekonomikoaren ezbaia zertan den behatu dugu eta ikuspegi objektibo eta estatikoa erabili ordez fenomenoaren analisi dinamikoa eta kualitatiboa hobetsi dugu. Izan ere, lehenengo irizpideak aintzat hartuz gero, globalizazioaren kontzeptua zalantzan legoke. Baina, bere testuinguru historikoan globalizazioa ekonomiaren nazioartekotze-prozesuaren segidaren azken urrats gisa ulertzen da hemen. Horrela, 1980ko hamarkadatik estatuen kontrolpeko ekonomia ahulduz joan da merkatuaren nagusitasunaren menpeko munduko ekonomia finkatzeko. Merkatuen garrantzi hazkorra, ondusunen, zerbitzuen eta kapitalen nazioarteko fluxuen gehikuntzan islatzen da eta oinarrian honako zutarrak hauek ditu: garraio eta komunikazioen kostuen gainbehera, planifikazio zentraleko ekonomien hondamendia eta ideologia liberalaren garaipena. Horren guztiaren erakuslea litzateke azken hiru hamarkadetako nazioz gaindiko merkataritzaren, inbertsioaren eta teknologiaren trukeen hazkunde aparta. Orobat, jarduera politiko, sozial eta ekonomikoak gero eta munduratuago daude irispen-mailari dagokionez eta gizarte zein estatuen arteko elkarrengainak trinkotu dira biziki. Esan gabe doa, errealtate honek ondorio eta eragin franko ditu munduan zehar eta herri arteko disparekotasunen zabalkundea eta gizarte-taldearen arteko errenta-banaketa desberdinen areagotzea ekarri ditu. Hots, globalizazio-prozesuaren eraginak kontrajarriak dira; izan ere, gizarte-talde, interes-talde, herri edo eskualde batzuentzat prozesu hau onuragarria izanik, beste batzuentzat, aldiz, guztiz kaltegarria da.

Nolanahi ere, kapitalismoaren globalizaziorako joera historiko hau ez da alde-bakarreko fenomenoa ekonomiaren ikuspegitik ere. Aitzitik, ibilbide kapitalista osatuz hiru oinarriren gainean eraikitzen da hura, finantza-kapitalaren globalizazioaren, merkataritzaren eta produkzio-kapitalaren nazioartekotzearen gainean alegia. Oinarri horien izaera diferentea funtsezkoa da kapitalaren nazioartekotze-prozesuko arloek duten erritmo eta sakontasun-maila desberdina ulertzeko. Finantza-ibileraren nazioartekotzeak merkataritzarenak baino arazo gutxiago sorrazten du eta, ondorioz, sakonagoa da. Biek ere, produkzio-eremuaren nazioartekotzeak baino oztopo gutxiago jasan behar izaten dute. Beraz, egungo globalizazioaren bilakaeraren ebaluazioak ibilbide desberdinen zein beraien arteko loturen aurrerapen erlatiboa aintzat hartu behar du.

Globalizazioaren ibilera indartsua II. Mundu Gerraren ostean azaltzen bada ere, 1970eko krisiarekin jauzi kualitatiboa ezagutu zuen prozesuak. Jauzi hori aipatutako hiru kapital-eremuetan era desberdinean kausitu zen eta hiruren arteko

artikulazioek ere bilakaera berria izan dute geroztik. Labur bada ere, ondoren kapital-eremu horietako prozesu garaikideak aztertuko ditugu, horrela ekonomia-aren globalizazio-prozesuaren azalpena errazten baita.

### 2.2.1.1. *Finantza-merkatuen globalizazioa*<sup>6</sup>

Nazioarteko moneta-sistema arautzen zuen Bretton Woods-eko urre/dolar arauak porrota ezagutu zuen 1970eko hamarkadan. Horrekin, dolarraren eta urrearen arteko trukagarritasuna eta txanponen arteko truke-tasa finkoen sistema alboratuak izan ziren. Testuinguru horretan eta neoliberalismoaren hedapen azkarrarekin bat eginez, kapitalen nazioarteko mugimenduen gaineko kontrolak ia erabat ezabatu ziren 1980ko hamarkadaren hasieratik, finantza-merkatuetako desarauketari ateak irekiz.

Bestalde, garai horretan bertan finantza-tresna berriak sortu ziren, batez ere petrolio-prezioen igoerek elikatutako Europako finantza-merkatuetako dolarren (eurodolarren) hedakuntzaren ondotik. Nazioarteko finantza-merkatuetako finantza-mekanismoak konplexuagoak bihurtu ziren eta, hein berean, kontrolagaitzagoak. 1980ko hamarkadan ere finantza-arloko mugimenduei gaineratu zitzairen enpresen atzerriko inbertsioek eta berregituraketa-prozesuek sortutako dibisen joan-etorria, batik bat enpresen arteko bat-egiteek eta irenketek akuilatuta. Hori guztia dela medio, AEBetatik kanpoko dolarren kopurua hain bizkor biderkatu zen ezen urte gutxiren buruan nazioarteko finantza-sisteman dibisa estatubatuarraren zirkulazioa AEBen kontroletik at geratu baitzen. Beraz, kapitalen joan-etorriak ondasunen eta zerbitzuen nazioarteko merkatuekiko loturagabetu egin dira, autonomia osoa dute eta nazio-araugintza estuetatik ihes egitea erdietsi dute. Ekonomiaren finantza-esparruak berealdiko garrantzia hartu du produkzio edo merkataritzaren esparruekin alderatuta. Horrek ekonomiaren *finantzarizazioa* deritzon fenomenoak ekarri du eta gaur egungo globalizazioaren eta bere krisiaren giltzarrietariko bat da.

Finantza-merkatuen desarauketa eta liberalizazioa kapital produktiboaren errentagarritasunaren krisi estrukturalari emandako erantzun gisa agertzen da. Horrek ekonomia produktibotik at dauden kapitalen balorizazio-prozesu hedakorra tinkotzen du, batez ere kapital espekulatzailena. Haatik, finantzarizazio-prozesuak krisi estrukturala sakondu egiten du, sistema produktiboaren esparru batzuk deskapitalizatzen baititu —enpresa, adar ekonomiko edota herrialdeak zein eskualdeak— eta munduko ekonomiaren hazkunde motela sustatzen baitu.

Orobat, finantzarizazioa nekez ulertzen da garapen teknologikoarekin duen lotura kontuan hartzeke. Informazio- eta telekomunikazio-teknologia berriek munduko mutur batetik bestera dirua eta kapitalen bat-bateko transferentziak gauzatzea ahalbidetzen dute. Orain arteko diru-trukeak *bistakoak* izan dira nagusiki, alegia banketxeetan edota finantza- zein merkataritza-erakundeetan egin dira. Ostera,

---

6. Ikus 4. gaia.

gaur egun munduan zehar transferitzen diren sei dolarretik bost sare elektronikoen bidez modu ezkutuan gauzatzen dira<sup>7</sup>. Horrek guztiak ondorio ugari ditu, adibidez, finantza-erakundeetan enplegu-aurrezpen izugarria ekarri du, zeinak teknologia berriak ezartzeko kostuak aise gainditzen baititu. Halaber, finantza-mugimendu horien gaineko kontrolak are zailagoak egiten ditu. Ondorioz, estatuek presioak jasaten dituzte kapital-mugimenduak desarautzeko, balio-merkatuetakoak barne. Horrela egin ezean, kanpoko kapitalak ez erakartzeko edo bertakoak ihes egiteko arriskuari aurre egin beharko diote. Horrela, kapital espekulatzailen eragin-eremua eta tresnak hedatu egin dira modu ikaragarrian, gaur egungo finantza-sistema izendatzeko *kasino-ekonomia* izena erabiltzea arrunta bihurtzeraino. Finean, finantza-mugimenduen zatirik handiena epe laburrekoa, biziki hegakorra eta batez ere espekulatzaila da eta, beraz, nazioarteko finantzak ekonomia kapitalista globalaren osagai ezegonkorrena eta hauskorrena bihurtu da.

Testuinguru honetan nazioarteko finantzen joan-etorriak, izaera espekulatzailakoak barne, hain dira erraldoiak ezen hala herrialde nola eskualde osoko finantzak eta ekonomiak galbidera eraman baititzakete oso epe laburrean. Orobat, maila erdikoak diren lekuko finantza-merkatuak ezegonkortzen direnean eragina handitzea eta sistema osora zabaltzea oso erraza da. Ondorioz, nazio-mugen gaineko finantza-fluxuen eskalaren eta abiaduraren handitasunak gobernuak ahulagoak egin ditu mugimendu horietako bat-bateko aldaketen aurrean. Finantza-krisiak saihesteko egonkortasun-egitarauetara bideratutako baliabideak biderkatu egin dira, haren kostu ekonomikoek, sozialek eta politikoek egin duten bezala. Hori izan da batik bat, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) eta Munduko Bankuak lideratutako egiturazko doikuntza-egitarauak egin duten xede nagusia: finantza-arloko egonkortasuna, alegia. Hala eta guztiz ere, egitarau hauen porroten erakusgarri gisa oso indartsuak izan dira azken hamarkadan bizi izan diren mundu osoko finantzarlarrialdiak. Horien artean daude ondoko hauek: 1992ko Europako finantza-krisia, zeinak libra, lira eta pezeta Europako diru-sistematik kanporatu zituen; 1994-1995eko Mexikoko pesoak jasandako hondamendia, 1997-1998 urteetako Asiako herri batzuetako krisiak (besteak beste Hego Koreak eta Indonesiak bizi izandakoa); 1998 eta 1999ko Errusia eta Brasileko larrialdiak eta 2002-2003ko Argentinakoa; 2001eko burbuila teknologikoaren pitzadura eta, batik bat, 2007an AEBetan *subprime hipoteken* inguruan eztanda egin eta mundu zabalera hedatu zena. Finantza-astinaldi horien eraginak asimetrikoak dira. Izan ere, munduko sistemari likidezia eskaintzeko xedearekin kapitalismo garatuenerako herrietako interes-tasak jaisten diren bitartean, garapen-bideko herrietako merkatuetakoak oso maila garaian aurkitzen dira kanpoko kapitala erakartzeko eta bertakoari eusteko saioa eginez. Lehenengoetan kreditu merkeak inbertsio produktiboa akuitlatzen du; azkenekoetan hain beharrezkoa den inbertsio hori itzali egiten da mailegutzaren garestitasuna dela-eta.

---

7. AEBetako Erreserba Federalaren datuak.

### 2.2.1.2. Merkataritzaren hedakuntza eta liberalizazioa

II. Mundu Gerraren ostetik nazioarteko merkataritza oso bizkor zabaldu da eta lehen mailako tresna bihurtu da hala barne nola nazioarteko ekonomia-dinamikotasunerako. Izan ere, II. Mundu Gerraren aurretik nazioarteko merkataritzaren bolumena urteko % 0,5 soilik hazi zelarik, horren ondoren —1970eko krisira arte— urteko % 7 hazi zen. Ondoren, nazioarteko merkataritzaren hazkunde-tasa apaldu den arren, haren igoera-erritmoa munduko produktuarena baino azkarragoa izan da (3. gaia). Hots, munduan ekoizten diren ondasun eta zerbitzuetatik gero eta handiagoa da nazioarteko merkatuetan salerosten dena. Betidanik garrantzi handia izan duen ondasunen merkataritza azken hamarkadan atzerrian gauzatzen hasi berri den zerbitzuen merkataritzatik bereiztea komeni da hemen. Nazioz gaindiko merkataritzaren hazkunde azkar honen ondorioz, nazioarteko lehia biziki piztu da. Era horretan enpresek eta herriek produkzio- eta ekonomia-estrategiak egokitu behar izan dituzte lehia-baldintza berrietara. 1990eko hamarkadan merkataritza-lehia are gogorragoa egin zen NDFk eta Munduko Bankuak ezarritako doikuntza-egitarauek bultzaturik garapen-bideko hainbat herrik esportazioek eragindako hazkunde-estrategia oratu baitzuten. Dena den, merkataritza-lehiaren gune garrantzitsuena Mendebaldeko herri garatuen artekoa da.

Merkataritza globalaren hazkunde bizkor honen atzetik arrazoi ugari daude. Horietatik inportanteena da, liberalizazio-uhin hazkorrak ekarri zuen merkataritzari ipinitako traba edo oztopoen jaitsiera. Zehazki, GATT merkataritza liberalizatzeak akordio orokorraren eskutik lehenik eta Munduko Merkataritza Erakundearenetik (MME) ondoren, muga-sari edo muga-zergen zenbatekoa % 40tik % 6ra jaitsi zen iragan mendeko bigarren zatian (Gilpin, 2001). 1970eko amaieraz geroztiko liberalizazio indartsuak, zeinak desarauketa eta pribatizazioa eragin zuen, nazio-ekonomiak are gehiago ireki zituen eta inportazioak biderkatu egin ziren. Gainera, garraio- zein komunikazio-garapen teknologikoen piztu egin zuten merkataritza-hedakuntza, baita zerbitzuena ere. Ekonomia- eta teknologia-eraldakuntzek emandako aukerak aprobetxatzeko, gero eta enpresa gehiagok erabaki eta gauzatu du beren estrategiaren barnean nazioarterako urratsa jorratzea eta horrek lehia-esparrua biziagotzea ekarri du.

Nolanahi ere, gerraosteko nazioarteko merkataritzaren hedakuntza gorabehera handiko dinamika izan zen. Esaterako, muga-sarien babesaren murrizketa-prozesuak aurrera egin ahala bestelako hesiak zabalduz joan ziren. Batez ere, 1970eko hamarkadan lehortutako krisialdian, herrialde kapitalista nagusiek hainbat jarduera protekzionista berri ipini zituzten abian. Horien artean aipagarriak dira, besteak beste: osasun-arloan edota ingurumenean zein lan-esparruan inportazioei ipinitako arau kualitatiboak, jatorrizko arauak, betebeharrak administratiboak eta herri batekiko presioak honek *borondatez* bere ondasun baten esportazioak mugatu ditzan. Horrez gain, GATT oso arrakastatsua izan da Mendebaldeko herri nagusietan interes



estrategikoa zuten industria-gaien merkatuetako globalizazioa bultzatzeko orduan. Baina haren emaitzak mugatuagoak izan dira industriaz besteko produktuen merkataritzaren liberalizazioaren arloan (nekazaritza-gaiak) eta garapen-bideko herrietan ekoiztiko manufaktura-gaien kasuan.

GATTen ibilbidean jarrera multilateralistak ahuldu egin dira eta alde biko negoziazioak eta hitzarmenak ugaritu. Herri boteretsuenen arrazoiak nagusitu dira, nazioarteko merkataritzan nagusi diren enpresa transnazionalen interesen mende-kotasuna agerian utzita. Nazioarteko erakundeak munduko merkatuko baldintzak enpresa hauen estrategiei egokitzeko gertu dira. Enpresa transnazionalen, Mendebaldeko herri boteretsuenen eta nazioarteko erakundeen arteko lotura estrategikoa oso nabarmen geratu zen GATTek garatutako azken itzulian edo errondan, Uru-guaiko Errondan alegia, baita MMEren hurrengo konferentzietan ere, merkataritza liberalizatzeko negoziatio-mahai horretako agenda eta emaitzak EBko eta, batik bat, AEBetako irizpideen arabera izan zen. Izan ere, liberalizaziorako arlo nagusiak garatutako herrietan oso indartsuak diren zerbitzuak eta klima epeleko nekazaritza-gaiak izan ziren. Gainera, jabego intelektuala ere sustatu zen eta teknologia berrien arloan garatutako herrien monopolioa bermatzeko urratsak jorratu ziren. Atzerriko inbertsioei buruzko ebazpenak ere nazioarteko enpresa erraldoiei eman beharreko tratua nazio-enpresen parekoa izatea eskatzen du. Beste zenbait arlo ahazteke, Uruguaiako Errondaren emaitza nagusia Munduko Merkataritza Erakundea (MME) sortzeko erabakia izan zen. Sorrera horrekin, merkataritzaren liberalizazio- eta desarauketa-prozesuak bultzatzeko egitura instituzional osotua hezurmamitu zen 1995ean.

Orotara gerraosteko nazioarteko merkataritzaren hedakuntza oso disparekoa izan da. Lehenik eta behin, merkataritza-trukeek kontzentrazio-maila trinkoa eza-gutu dute, betiere Mendebaldeko herrien arteko fluxuen alde eta garapen-bideko herri gehienek pisua ahulduz. Bestetik, merkataritza-trukeen artean gero eta nagusiagoa da enpresa erraldoien baitako trukea; hauen hedapena merkataritza orokorraren barnean enpresa transnazional erraldoien garrantzi hazkorrekin bat garatu da. Halaber, garai honetan periferiako garapen-bideko herrialde gehienek truke-terminoen narriadura iraunkorra jasan dute Mendebaldeko herri garatuekiko.

### *2.2.1.3. Jarduera produktiboaren nazioartekotzea*

Kapital produktiboa izan da azkena nazioarterako urratsa ematen. Lehendik enpresa produktibo bakan batzuk atzerrian ezarri ziren arren, II. Mundu Gerraren ostean zabalduz joan zen joera hori. AEBetako enpresak hasi ziren 1960ko hamarkadan beste herri batzuetan helburu produktiboarekin lantegiak zabaltzen. Enpresa haietako gehienak Kanadan eta Europan kokatzen hasi ziren, bertako merkatuetara errazago iristeko asmoz. Alabaina, garapen-bideko hainbat herrialde-tan ere ezarpenak egin zituzten bertako produkzio-kostu apalak tarteko, soldaten

maila baxuak aprobetxatzeko bereziki. 1970eko hamarkadan enpresa europarrak hasi ziren nazioartera hedatzen. Batez ere Asiako hego-ekialdera eta Hego Amerikara zuzendu ziren enpresa europar horiek lan-kostuak apaltzeko. Baina AEBetara ere hedatu ziren bertako merkaturan errazago sartzeko asmoz, baita Europako beste herrialde batzuetara ere lanaren eskualdeko zatiketaren bidez eskala-ekonomiak erdiesteko xedearekin. Hurrengo hamarkadan, korporazio japoniarrak AEBetan eta Europan lantegiak kokatzen hasi ziren, herri horiek esportazio japoniarren arrakasta zela-eta hauek mugatzeko eraiki zituzten merkataritza-hesiak gainditzeko helburuarekin. Dena den, 4. kapituluko azterketak erakusten du 1980ko bigarren zatian eta, nabarmenago, 1990eko eta 2000ko hamarkadetan asko indartu dela enpresak atzerrian kokatzeko joera. Hori islatzen du aipatutako joera neurtzeko erabili ohi den adierazle nagusiaren bilakaerak, Atzerriko Inbertsio Zuzenarenak (AIZ) alegia. AIZ indizeak enpresa transnazionalak (ETN) beren jatorrizko herritik kanpo egindako inbertsioaren kopurua erakusten du. AIZren hazkundea nazioarteko merkataritza-arena eta munduko produktuarena baino indartsuagoa izan da. Gainera inbertsio honen zatirik handiena teknologia garaiko industrian, autogintzan eta informazio-gintzan egindakoa da.

AIZren eta enpresa transnazionalen inguruko aipamen orokor hauek haien jardueren alde esanguratsuak ezkututzen dituzte. Enpresen globalizazioaz mintzatzaren den arren, AIZ guztiz kontzentratuta dago eta oso modu disparekoan banatzen da munduan zehar. AIZren zati gehiena AEBetan, Mendebaldeko Europan eta Txinan kokatzen da, enpresen erakarpen-faktore nagusia merkatu zabalak baitira. Hegoaldeko garapen-bideko herri bakan batzuetara baino ez da heltzen aipatu inbertsioa: Asiako hego-ekialdeko herrialde emergenteetara, batez ere Txinara, eta neurri apalagoan Hego Amerikako herrialderen batera (Mexiko eta Brasil). Esan gabe doa, enpresen atzerriko kokapenak lanaren nazioarteko zatiketaren logikari jarraitzen dio. Horren arabera, puntako jarduera ekonomikoak eta ikerketa eta garapena (I+G) bezalako funtzio estrategikoak —kapitalaren balorizazioaren ikuspegitik— Mendebaldeko herri garatueta mantentzen dira.

Ostera, periferiako herrietan arruntagoak diren jarduera produktiboak kokatzen dira. Nolanahi ere, jokabide orokor horren baitan berriki salbuespenik sumatzen da. Esate baterako, Asiako hego-ekialdeko industrializazio berriko herri batzuek (Hego Korea, Taiwan...) nazioarteko hierarkia produktiboan ohiko maila gainditzea eta puntako produkzio-gintzan jardutea lortu dute. Baina horiek salbuespenak dira eta gainerako garapen-bideko herrialdeetako jarduera industrialaren dinamikak guztiz mugatuagoak agertzen dira, alde kuantitatibo zein kualitatiboaren ikuspegitik.

Enpresek beren produkzioa edo zati bat atzerrian kokatzeko arrazoi ugari dituzte: merkatu berrietara iristea, horniketa-arrazoiak, produkzio-kostuak murriztea, teknologia eta ezaupideak erdiestea, etab. Gehienetan, irizpide horietakoren bat

edo gehiago erabili ohi du kokapena non egin erabakitzeko. Dena den, enpresa transnazionalaren kokapen-erabakia antolaketa- eta produkzio-estrategia orokor baten barruan egin ohi da. Gaur egun, ETNek duten jokabide espazialaren ildotik bi estrategia nagusi agertzen dira: *globalizatzaile* deritzona, batetik, eta *lekutze global* izendatzen dena, bestetik. Estrategia globalizatzaileak munduko esparruan gauzatzen den *enpresa-barneko* lanaren zatiketa du helburu, eskala-ekonomiak munduko esparru zabalean eskuratzeko asmoz. Horretarako ETNa integrazio bertikaleko nazioarteko egitura gisa eratzen da eta produkzioegintzarako beharrezkoak diren bitarteko produktu estrategikoen horniketa bermatzea du helburu. Lanean trinkoak diren produkzio zatiak soldata apaleko lurraldeetan kokatu ohi dituzte eta, aldiz, teknologia garaiko edukia duten zatiak garatuagoak diren eta lan-prestakuntza altua duten lurraldeetan. Estrategia horrek lanaren nazioarteko zatiketa sakontzen du eta, halaber, nazioarteko merkataritzaren hazkundera sustatzen du.

Bestalde, lekutze globalaren strategiak *enpresa arteko* lanaren zatiketa du helburu, zeina munduko hiru eremu nagusietako batean kontzentratzen den. Aukera estrategiko honekin ETNek bi xede bete nahi izaten dituzte. Lehenarekin, desintegrazio bertikalari ekiten dio ETNak, horretarako helburu den herriko hornitzaile eta azpikontratazioak gauzatzen ditu. Bigarren xedea, helburu den herrialdeko eragileak (hornitzaileak, langileak, banatzaileak eta gobernuak), zeharka bada ere, kontrolatzea da. Bitarteko horiekin enpresak sareko antolakuntza burutzen du, erakunde malguagoa egituratuz eta helburuko herrialdean errazago bertakotuz. Estrategia honek helburu zehatz bat du: enpresaren produkzioa lekuko edo eskualdeko merkatu nagusietan sartzea kontsumoaren lurralde-diferentziak aintzat hartuz. Ondorioz, lanaren nazioarteko zatiketa zein nazioarteko merkataritzaren dinamika ahultzen du estrategia honek. Etxeko kohesio zorrotzean oinarrituriko estrategia hau, batik bat antolakuntza-eredu toyotista garatu duten enpresa japoniarrek zein korearrek sustatu dute, betiere beren esportazioei ipinitako oztupoak gainditzeko asmoz.

### 2.2.2. *Globalizazio teknozientifikoa*<sup>8</sup>

Ekonomiaren globalizazioaz aritzean ez ditugu berariaz aipatu beronen oinarriak diren teknologia eta sistema zientifikoa. Izan ere, azken horiek gaur egun duten garrantziagatik aparteko analisisa eskatzen dute. Jakina da ekonomiaren garapen-bideak zein ereduak eta teknologiak bat egin dutena kapitalismoaren ibilbideko urratsetan. Garai bakoitzeko paradigma teknologikoak eredu ekonomikoa zedarritu ohi du, ekonomiaren hazkunderaren erritmoetan eragin baitu, puntako adar produktiboak hezurramitu dituelako, etab. Ostera ere, garapen-ereduak dituen beharren arabera izan ohi da hedapen teknologikoa eta ekonomiaren agindupeko berrikuntzak bultzatu dituzte eta kapitalaren metaketa lagunduko duten aplikazio

---

8. Bosgarren gaian zabalago garatzen da eduki hau.

teknologikoak bideratu. Lotura horrek liburu honen xedeaz harago doan teknologien neutraltasunaren inguruko eztabaida mahaigaineratzen du.

Alabaina, teknozientziaren kontzeptua ez dugu era zurrun batean ulertu behar. Hemen produkzioaren antolakuntza teknikoaren parera eramaten dugu teknozientzia eta II. Mundu Gerraren osteko antolakuntza fordistaren aldia eta egungo antolakuntza malguaren edo fordismoaren osteko garaian lortzen du bere gorengo maila. Produkzioaren edo lanaren antolakuntza teknikoak produkzio-prozesuaren antolakuntza hirerarkikoa eta sistematizatua ekarri zuen. Langilearen eta produkzioaren arteko lotura ordenatzeaz gain, produkzioaren zatiketa bultzatzen du teknozientziak eta, halaber, zatien arteko mailaketa. Lan-prozesuen antolakuntza zientifikoan teknologiak rol erabakigarria jokatzen du eta antolakuntzaren norabidea determinatzen du. 1970eko hamarkadan fordismoaren porrota jazo zen eta lana antolatzeke eredu nagusia izateari utzi zion geroztik. Antolaketa-era zurrunezia eta bertikalegia izateak zerikusia izan zuen fordismoaren nagusitasunaren galerarekin. Ondoren, produkzioaren antolakuntza malgua da indartuz joan den eredu. Antolakuntza horren bidez, produkzioaren bertikaltasuna malgotu egiten da, langilea produkzio-prozesuarekiko autonomoagoa egiten du eta lan-erritmo desberdinagoak ahalbidetzen dira. Antolakuntza malguago honekin paradigma teknologiko eraberritua uztartu da ekonomia globalean.

Horrela, aurrerapen teknologikoak ondorio zuzenak eta erabakigarriak ditu kapitalismo globalaren ekonomian. Robotizazioak ahalbidetzen duen produkzioaren automatizazioak; telekomunikazio- eta informazio-teknologia berriek sustatutako zerbitzu berriak eta produkzioarako, antolakuntzarako zein banaketarako baldintza bizkorragoek; garraioaren azkartasun gehikorak dakarren denbora eta espazioaren murrizketak; bioteknologiaren arloko ekarpenek iragartzen dituzten potentzialitate mugagabeak... horrek guztiak paradigma teknozientifikoaren etengabeko eraldaketa-uhinean kokatzen gaitu. Berrikuntza hauek izan ezean, egungo ekonomia globalaren errealitatea bestelakoa zatekeen. Lehenik eta behin, komunikazio-sareek herrien arteko trukeak eta harremanak errazten dituztelako, kapitalen bat-bateko transferentzia, informazio-trukea, sare zibernetikoen bitarteko *merkatu birtual* berrien sorrera, eta pertsonen zein merkantzien garraiatze azkarrak ahalbidetzen dituzte. Baina, berrikuntza hauek ekonomia globala itxuratzen dute, batez ere *mundu bakarra* sortzeko joera indartzen dutelako. Hots, nonahi nagusitzen ari diren balioen, kultura-bideen, ideologiaren, lehentasunen, jokabide-kodeen bitartez gizakiaren eta sozietatearen mundu-mailako homogeneotasunerako joera tinkotzen da.

Ostera ere, kapitalismoaren globalizazioan txertatzen den heinean paradigma teknozientifiko eraberrituak haren edukiak barneratzen ditu. Hain da erabakigarria globalizazio-prozesuak berrikuntza-prozesuetan ezarritako baldintza-multzoa ezen paradigma *teknoglobalaren* izenpean ere ezaguna den. Berrikuntza teknologikoak gero eta gehiago nazioarteko merkatuetan ustiatzen direla adierazten du kontzeptu

honek. Hori horrela suertatzen da berrikuntzaren arloko hainbat jardueratan. Dakigunez, berrikuntzak hedatzeko bideak ugariak dira. Zuzenena patenteen bitartez egiten dena dugu. Herrialde guztietan, Mendebaldeko herrialdeetan ere, atzerriko jatorria duten patenteen gorakada nabarmena izan da azken bi hamarkadetan. Hori dela-eta, MMEk berak atal oso bat eskaini berri dio TRIPS deritzon jabetza intelektualaren nazioarteko araugintzari, berau arautu eta arlo honetako eskubide pribatuak —batez ere ETNenak— babeste aldera. Horrek, ikaragarritzko ondorio sozialak ditu mundu-mailan, teknologiaren jabetzaren ereduak zuzenean eragiten baitu herrialde eta eskualdeen arteko hierarkia produktiboan eta merkatuetara iristeko lehia-ahalmenean. Ikusiko dugunez, MMEk aldeztu duen jabetza-ereduarekin ETNen etekinak babesteko interesak gailentzen dira ezaupideak eta patenteak era zabalean barreiatzeko aukeraren kaltean. Hori horrela, eredu honek mundu-mailako disparekotasunak indartzen ditu eta alboan uzten du kohesio soziala eta mundu bidezkoagoa erdiesteko xedea.

Nolanahi ere, ETNek nazioarteko merkatuetan eta, oro har ekonomian, duten pisua kontuan izanik, talde osoaren barruan egindako teknologiaren ustiakuntzak dimentsio globala du, ustiakuntza hori bere estrategia globalaren menpekoa baita. Behiala, ikerketa eta garapenaren bidez enpresa hauek sortutako berrikuntza-korporazioaren etxe nagusiak zentralizatzen ziren bitartean, gero eta deszentralizazio-maila handiagoa bideratzen ari da arlo honetan eta gutxi-asko enpresa filialek ere berrikuntzarako kudeaketa-ahalmena dute. Etxe nagusiaren ikuskatzea eta kontrola alboratu gabe, enpresa filialen berrikuntza-funtzioei garrantzi handiagoa emate honek badu loturarik inguru bakoitzak eskaintzen dituen abantailak aprobetxatzearekin eta kostuak murriztearekin. Eraitza gisa, berrikuntzaren dinamika ere nazio-esparrua gainditzen ari da eta logika globalari atxikitzen ari zaio.

Sistema teknozientifikoaren munduratzea arlo horretan nazioartean zertzen ari den lankidetzan islatzen da. Hala da, enpresa ugariarentzat teknologia punta-koenetan egunean egoteko bitartekoa beste enpresekin eginiko lankidetzak eta hitzarmenak dira. Hitzarmen horiek oro har nazioarteko esparruan hezurramitzen dira. Oso arrunta da ere, hitzarmen horien ikuskatzaile gisa jatorriko herrialdeko Estatua ere egotea, batik bat hitzarmena sektore estrategikoren batekoa bada —adibidez, militarra, espaziala, segurtasuna, elektronika, etab.—. Horrela, nazio bakoitzeko programa estrategikoen baitan kokatuak egon arren, hori ez da beti oztopo izan hainbat jatorritako enpresa handien arteko lankidetzak bideratzeko. Hala izan da nagusiki munduko hiru eremu nagusietako korporazioek eremu bakoitzaren baitan garatutako lankidetzaren kasuan, baina baita AEBetako eta Japoniako korporazioen arteko hitzarmenetan edo korporazio amerikarren eta europarren artekoan ere.

### 2.2.3. *Kultura-uniformizazio globalaren auzia*

Munduko merkatuaren garapena garrantzi handikoa da kultura, indentitate eta bizimoduen moldatzaile gisa. Ekonomiaren globalizazioa globalizatorako joeradun eraldaketa kulturalarekin uztartuko litzateke, iritzi ugariren arabera. Ildo horretan oso oinarri zabalekoa da *kultura globalaren konbergentziaren* ustea. Uste horren funtsa kulturaren unibertsaltasunaren aurrerakada da, hots, bizimoduen uniformizazioa eta kultura-ikur zein jokabide-modu transnazionalak finkatzen ari direlako ideia. Eraikuntza honetan zeregin erabakigarria dute kultura-industriek eta komunikazio-korporazioek. Biek ere, kultura-ikurren eta bizitza-ereduen konbergentziara bultzatzen dute.

Munduko merkatuaren bide honek utopia negatiboa adierazten du. Munduko azkeneko bazterrak eta eremuak ere munduko merkatuan integratzen ari diren neurrian, mundu *bakarra* sortzen ari da, baina horrek ez dakar munduaren aniztasunaren ezagutza, ugaritasunaren eta elkarrekiko irekitasunarena alegia, baizik eta merkataritza-mundu *bakarra*, aldiz. Mundu bakar horretan, tokiko kultura eta indentitateak deserrotu egiten dira eta publizitateak zein enpresa transnazionalen ikonoak eraikitako merkataritza-ikurrek ordezkatu egiten dituzte. Diseinuak dena barneratzen du eta mundu guztirako errealitatea da.

Aurreratu dugunez, globalizazio ekonomikoak enpresen kostuak gutxitu eta irabaziak handitzea du xede nagusizat. Merkatu zati txikienak ere eta bertako bizi-moduak eta kontsumorako ohiturak dira enpresa transnazionalen helburu, unibertsaltasunaren logikapean kokatuz. Nazioarteko merkatuen planifikazioa giltzarria da egundaino kultura-industria globalen interesentzat. Ildo horretan, globalizazioa irabazi errazak eskuratzeko gako bihurtzen da eta horretarako kultura-ikur unibertsalak eraikitzeari ekiten diote enpresa erraldoiek beren publizitate- eta marketin-atalen bidez.

Alabaina, kultura-globalizazioaren joera uniformizatzailea paradoxaz eta kontraesanez beteta dago. Norabide horretan plazaratzen dira globalizazio-dinamikarekin batera garatzen diren bestelako joerak, hala nola *tokikotasuna*. Logika ekonomikoak berak diosku globalizazioak jarduera ekonomikoen lekualdatzea ez ezik, birlektzea ere dakarrela. Estrategia globalak dituzten enpresek ere tokiko harremanak garatu behar dituzte produzitzeko eta banatzeko. Areago, toki bakoitzeko bereizgarriak erabili ohi ditu horiei dimentsio transnazionala eman eta haie-tatik probetxua ateratzeko. Esan liteke enpresa transnazionalak tokiko aniztasun eta diferentziaz baliatzen direla nolabait munduko lehiaren testuinguruan irabazle irteteko. Dena den, lekualdaketak eta birlektutzeak ez du berez lekuko edo tokiko dimentsioaren pizkundera sustatzen, lekuko baldintzak eta identitateak nazioartera zabaltzeko irekitasun-askitasuna izatea ezinbestekoa da xede horretarako.

Errealitatearen konplexutasunak eta aldebitasunak bultzatu dituzte egile batzuk dimentsio globala eta tokikoa osagarriak direla baieztatzen. Tesi horren arabera, tokiko ardatza dimentsio globalaren parte bat da. Globalizazioak tokiko kulturen arteko hurbilketa eta topaketa ere esan gura du. Ildo horretan, kultura-globalizazioa baino egokiagoa da *glokalizazioaren* neologismoa erabiltzea egile hauen arabera. Hitz sintetiko horrek premia bat ere adierazten du, gaur egungo mundua ulertzea ezinezkoa dela honako gako hauek aintzat hartu gabe: kulturaren politika, kultura-ondarea, kultura-diferentziak, kultura-homogeneotasuna, identitatea eta generoa, alegia.

#### **2.2.4. Krisi ekologiko globala**

Jakina da kapitalismoaren logika etekina mugarik gabe igoaraztea dena. Beraz, kapitalismo globalaren garaiotan logika hori muturreraino eraman da, meta-keta kapitalista munduko esparruan garatzen ari baita lehentasunez horretarako oztopo ziren hainbat arau eta erregulazio malgutzeak eta mugatzeak erraztuta. Horrek produkzio-gintzaren kontrolik gabeko hazkundera sustatzen du eta bere emaitza ikusgarriena ingurumenaren narriadura eta natura-baliabideen zarrastalkeria dira. Harago, kapitalismo globalak eragiten duen aberastasunaren kontzentrazioak eta publizitateak eragindako kontsumoaren gizarteak are irrazionalago egiten du itxuragabeko produkzio-gintza, zeinak irabazpidea xede bakartzat izanik ez duen aintzat hartzen natura-baliabideen eta ekologiaren gaineko bere eragin suntsigarria.

Presio produktibista honek natura-baliabideen gainustiakuntza, isuri toxikoak eta ingurumenaren narriadura eragiten ditu, baliabide berriztagarriak eta berriztagaitzak suntsituz eta garaiko zein ondorengo belaunaldien bizi-baldintzak mugatuz. Arazo larrienetarikoak kutsadurarekin eta lehengaien zarrastalkeriarekin lotuta daude, lurraren berrikuntza- eta onarpen-ahalmenak gainditzen baitituzte. Horrela, krisi ekologikoa herri edo kontinentearen eremutik harago doa, bere eraginaren larritasunak munduko bazter guztiak ukitzen ditu eta irtenbideak bilatzeko garaian mundu-mailakoak izatera derrigortzen du. Jakina da ingurumenaren narriadura eta lehengai berriztagaitzen kontsumoaren neurria eskualdez eskualde edota herriz herri oso bestelakoak direna. Ekologia-krisia bereziki sakona da Mendebaldeko herrialdeentzat, bertan garapen-eredu produktibistak eta suntsitzaileak inoizko indarrak tinkoena hartu baitu. Alabaina, hain da sakona krisi ekologikoaren eragina ezen munduko dimentsioa hartu baitu. Are gehiago, aipatutako garapen-eredua mundu osora hedatzen ari den garaiotan Hegoaldeko herriak Mendebaldekoekin egitako kalte ekologikoa errepikatze-bidean dira eta hori egiteko zilegitasuna aldarrikatzen dute.

Oro har, Mendebaldeko herri industrialetan ura eta atmosfera kutsatzen dituzten orotariko hondakinak hirukoiztu egin dira azken bi hamarkadetan. Horrek lurreko bioaniztasunaren narriadura hazkorra dakar halabeharrez. Horrela, esaterako,

azken berrogeita hamar urteetan erregai fosilen kontsumoa bost bider handitu da eta karbono dioxidoaren urteko isurketak laukoiztu egin dira epealdi horretan<sup>9</sup>. Isurketa hauek ozono-geruzan eta lurraren klima-aldaketan eragin zuzena dute eta horrek izugarrizko kalteak sorrazten ditu uztaroetan eta lehorraldietan. Eragina espezie bizien aniztasunaren beherakadan ere islatzen da; esate baterako itsasoko aniztasuna kolokan dago; izan ere, bertako erreserben ia erdia bere iraunkortasun biologikoaren muga aurkitzen dira. Oso gogorra da orobat lurreko oihanen hondamendia, egungo suntsiketa duela hogeita bost urtekoarekin alderatuz gero % 40 garaigoa baita. Aldi berean, ur edangarriaren kontsumoa bikoiztu egin da, eta beraz munduko populazioarentzat eskuragarria den ura ikaragarri murriztu da.

Munduko kontsumoaren zenbateko handiena herri aberatsetan jazotzen den arren, haren eragin kaltegarriak herri txiroetako biztanleek bereziki pairatzen dituzte. Horrela, sarrera handieneko munduko populazioaren bosten batek karbono dioxidoaren isurketa guztien % 53aren erantzulea da; aldiz, bosten txiroena isurketa horien % 3 eskasaren erantzulea da. Haatik, isurketa horiek gizateriarengan dituzten ondorioak ikaragarriak dira, batez ere herri txiroentzat: uraren eskasia, itsas erreserben galera, oihanen suntsiketa, hiri-kutsaduraren ondorioak, etab. Laburbilduz, ekosistemen narriadura globalak txirotasuna areagotzen du eta horrek, aldi berean, larriagotzen du ingurumenaren babeserako modu egokian gauzatzeko aukera, finean miseria gorria ezagutzen duen populazioa elikatzeko presioak hura bigarren mailako helburu bilakarazten baitu. Xirotasunarekin lotzen da hazkunde demografikoa ere, hura areagotzen eta, aldi berean, bere ondorio ere den neurrian. Bistan da leherketa demografikoak ingurumenean eta, oro har, oreka ekologikoan preisionatuz jokatzeko duen rol kaltegarria ere hor dagoela, nahiz horrek modu mugatua eragiten duen.

Diagnostikoaren larriak erantzunaren tamaina dakar auzitara. Hala da, krisi ekologikoak pareko irtenbideak eskatzen baititu, erantzunaren ikuspegi integrala zein munduko dimentsioa aintzat hartuz behartuz. Ildo horretan azken bi hamarkadetan munduko dimentsio hori oinarritzat hartuz Rio de Janeiron eta Kyoton Lurraren Konferentziak egin dira. 1997an Kyotoko Protokoloa sinatu zen eta 2005ean indarrean ipini zen 2013. urtean epemuga duen ingurumen-babeserako neurri-multzoa. Nazio Batuetako Klima Aldaketari buruzko Esparru Hitzarmenaren aldetik 2013ko urtarriletik aurrera Kyotoko Protokoloa ordeztuko duen eta loteslea den nazioarteko akordio bat onartzea da helburu nagusia. Helburu horrekin goi-bilerak egin izan dira eta, emaitza handirik ekarri ez zuen Kopenhagekoak porrota ezagutu zuen 2009an. Beraz, krisi ekologiko globalaren irtenbide egokien bidean aurrerapauso sendorik ez da eman hamabost konferentzien ostean eta horren erakusle da konpromiso zehatzak eskatzen zituzten bertako akordio nagusiak bete gabe utzi izana. Nazio Batuen Erakundeak berak onartu du ezer gutxi egin

---

9. Atal honetako datuak Ingurumenerako Nazio Batuen Programaren txostenetik hartu dira.



dela horien ondoren ingurumena babeste aldera eta, salbuespenak salbuespen, estatuek zein enpresek ez dutela interes handirik erakutsi konpromiso horiek betetzeko.

Azken finean, ingurumena babesteko baldintzen artean egungo gizartearen produkzio- zein kontsumo-arauek sustraiko aldaketa da sendoena. Giltzarriak honako galdera-ikurren artean daude: zer da produzitzen duguna, nola produzitzen dugu eta zein neurritan kontsumitzen dugu produzitutakoa? Galdera horiek, batik bat, herrialde garatuenetan egitekoak dira, munduko produkzioa eta kontsumoa zuzentzen dituzten enpresa erraldoiak bertan kokatzeaz gain, munduko kontsumo zein ekologia-narriaduraren erantzuleak baitira. Irabazien maximotzearen eta meta-keta kapitalistaren logika ekologiaren oreka eta babesa garatzeko edozelako saiakeraren aurkaria da. Ingurumenaren babesaren helburua gaur egun indarrean da goen merkatu-ekonomia basatiarekin lortezina da; izan ere, desaruketa-prozesuen xedea edozein jardura lehiaren eragileen funtzionamendu *askearen* esku uztea da. Eta lehia-esparruan asmo nagusia ez da kontsumoaren muga arrazionala erdieste baizik eta kontsumoa piztea, sustatzea eta prestigiozko eta bizi-kalitate handieneko elementu gisa bere lilura goraiatzea.

### **2.3. KUDEAKETA SOZIOEKONOMIKOA KAPITALISMO GLOBALEAN: KEYNESIAR ERREGULAZIOTIK NEOLIBERALISMORA**

Aurrerago sakonago aztertuko dugun errealitate bati erreparatuz hasiko gara: nazioarteko sistema kapitalistan II. Mundu Gerraren ostean finkatu zen Bretton Woods-eko sistema erregulatzaileraren eta haren krisiaren ondorioak. Garai horretako hazkunde ekonomiko paregabea ahalbidetu zuen kudeaketa sozioekonomiko keynesiarra bi esparruren arteko lotura eginez garatu zen. Batetik, ekonomia nazionalaren baitan sistema produktiboa eta aldagai makroekonomiko nagusiak Estatuak (Ongizate Estatuak Mendebaldeko herrietan) kontrolatzen zituen, produkzio-sistemaren eta kudeaketa ekonomikoaren arteko kohesioa mamituz. Bestetik, gero eta garrantzi handiagoa hartuz joan zen nazioarteko alorra ere kudeaketa indartsu eta koherente batez hornitu zen, Bretton Woods-en nazioarteko finantza- eta moneta-sistemak arautzeko hartutako hitzarmenen ondoren. Ekonomiaren nazioartekotze bizkorra erraztu zuen hartutako bideak eta nazio-ekonomiaren eta nazioarteko ekonomiaren arteko loturaren egonkortasuna bideratu zuen egoera horrek urtetan, harik eta 1970eko hamarkadan aipatutako sisteman krisia lehertu zen arte.

Ondorioz, orain arte aipatu ditugun trinkotasun handiko joera globalizatzaileak nolabait arautu edo zuzentzeko nazioarteko mekanismoak ezereztu ziren Bretton Woods-eko sistemaren hondamendiarekin. Horri gaineratu behar zaio globalizazioaren nazio-estatuaren ekonomia-kudeaketarako ahalmena guztiz ezabatzen ez den arren, bere eraginkortasuna asko mugatzen dela. Izan ere, arestian aipatu dugun ildotik, produkzio-sistemaren integrazioa eta kohesioa nazio-ekonomiaren

baitan gauzatzetik munduko esparrura zabaldu da, produkzioaren eta finantzen globalizazio-prozesuak tarteko. Horrela, kapitalismo globala gaindiezinezkoa den kontraesan berri baten aurrean dago. Izatez kapitalismoa sistema ekonomiko hutsa baino zerbait gehiago bada, hots, dimentsio soziala eta politikoa ere baduenez, estatuaren beharra du oraindik gaur egun ere. Duela gutxi arte, kapitalismoa bi ardatz hauek bat zetozelako hedatu zen: metaketa kapitalistaren espazio nagusia eta haren kudeaketa sozial, ekonomiko eta politikoaren espazioa, nazio-estatu zentralaren espazioa alegia. Nazio-estatuak, alde batetik, bere espazio sozioekonomikoa kudeatzeko gauza zen, horretarako aldagai ekonomiko nagusiak kontrolatzeko ahalmena baitzuen, eta, bestetik, nazioarteko sistemaren egituraren oinarri zen. Gaur egun, aldiz, bi espazio horien arteko etena gauzatu da: metaketa kapitalistarako espazio nagusia mundua den arren, kudeaketa-mekanismoak batik bat nazionalak dira, lehendik nazioarteko aldagai ekonomikoak arautzeko zeuden tresnak bertan behera geratu baitira. Gainera, ekonomiaz haragoko kudeaketa sozialak eta politikoak ez du nazio-esparrua inoiz gainditu eta gaur egun espazio horretan ere berebiziko ahulezia ezagutzen ari da munduko bazter guztietan neoliberalismoa nagusitu den aldetik.

Testuinguru horretan, kapital globalaren interesen logikak kudeaketa ekonomiko globalizatuari lehentasuna eskaintzea eskatuko luke ikuspegi objektibo batetik, betiere nazio-estatuaren funtzioen kalterako. Logika hori, neoliberalismoaren uretatik edaten duten komunikabide nagusien erretorika antiestatistatik islatzen da, zeinaren bidez estatuaren esku-hartze soziala deuseztea, desarauketa eta pribatizazioa bultzatzea, etab. hobesten den. Horrek eskatuko luke sistema ekonomikoaren kudeaketa munduko merkatuak eginiko erregulaziora mugatzea, ordezkoko munduko egitura instituzionala eratzeke estatuaren esku-hartzea hutsaren hurrengoa izatera behartuz. Izan ere, nazio-esparruko erregulazioaren ahultasunerako joera ez da ordeztua izan munduko erregulazio indartsu batez. Nazio-esparruan estatuak bete duen rola munduko esparruan erakunde politiko sendo batek betetzea litzateke ezinbestekoa horretarako eta egoera horretatik oso urrun gaude gaur egun. Batez ere, Bretton Woods-eko sistemaren gainbehera suertatu zenetik nabarmena da munduan kudeaketa sozioekonomiko oinarritzkoena garatzeko dagoen erakunde-gabezia. Nahiz MME, NDF, Munduko Bankua edo Nazio Batuen Erakundea bezalako nazioarteko erakundeak dauden, ahalmen arautzaile oso ahula dute eta ahalmena duten arloetan estatu indartsuenen interesak ezartzen dituzte ikuspegi unibertsalista alboratuz. Esanguratsua da nazioarteko egoera sozioekonomikoa nolabait koordinatu eta horren inguruko erabakiak adosteko dagoen foro bakarra zazpi handien taldea izatea (G-7) nahiz 2007 ondoren krisia kudeatzeko G-20 foroa indarrean ipini duten. Erregulazioaren gabeziak aldagai ekonomiko nagusiak egonkortzeko exigentzia bere gain hartu du foro horrek, baina hartzen dituzten erabakien oinarrian munduko herrialde handien neurriko interesak lehenesten dira, horrela larriak eta eragin handikoak diren munduko enparauko arazo ekonomiko zein sozialak gutxiesten dira.

Esan gabe doa, globalizaziorako joera hazkorren eta munduko esparruan dagoen erregulazio-ahuleziaren arteko kontraesana ezegonkortasun eta gatazka iraunkorren iturria da nazioarteko jokalekuan. Kontraesan horrek ekonomiako eragile boteretsuak are gehiago indartzen ditu eta, beraz, haien jarduerak izan zitzaizketen mugak suntsitzen ditu eta haien interes estrategikoak eskuratzeko oztopo araugileak suntsitu egiten ditu. Halaber, munduko zati handi batean —gutxien garatutako herrietan gehienbat— bazterketa-prozesua areagotu egiten da. Beraz, munduko desberdintasun eta polarizazio ekonomiko eta soziala biziagotzen da nazioarteko erregulazio-defizitak eraginda.

Bestalde, doktrina liberal berrituak ekonomiaren arloan aurretik egindako erregulazio-ahalegin oro ezabatzeko bidea hartu zuen. Merkatuen eta enpresen funtzionamenduan baino gehiago esku-hartze publikoaren auzian zentratu da geroztik neoliberalismoa eta ildo horretan politikan desarauketa eta pribatizazioa dira erabili diren irizpide orokorrak.

Erregulazioaren aldaketa nagusia ekonomia-politikaren diseinuan bertan eman zen. Enplegu oso edo betearen helburua inflazioaren aurkako helburuak lehen-tasunez ordezkatu zuen. Horren justifikazio teorikoa izan zen langabezia ezin dela murriztu eskariaren hedakuntzarako politikekin<sup>10</sup>. Izan ere, muga batetik aurrera inflazio metakorra sortuko lukete eta, neoliberalismoaren ikuspegitik, enplegua sortzeko ezinbestekoa den inbertsio pribatua sortzeko oso kaltegarria litzateke hori. Ikuspegi honen aldaketak ondorio zuzenak izan ditu. Esate baterako, ekonomia-politiken helburu nagusia prezioen egonkortasuna da. Helburu horren nagusitasuna Europar Batasuneko eraikuntzaren eredian bertan islatzen da, besteak beste Europako Banku Zentralari eskatzen zaion betekizun nagusia inflazioaren kontrola baita. Beste ondorio bat, langabeziaren aurkako borrokan ekinbidea ez da hainbeste eskariaren hedapena eragitea, baizik eta lan-merkatuan egiturazko erreformak sustatzea. Langabeziak arazo makroekonomikoa izateari uzten dio eta lan-merkatuaren arazo bihurtzen da eta horrela joan den mendeko Keynesen aurreko ikuspegira itzultzen da. Ikuspegi horren arabera enplegu beteak lan-merkatuaren doikuntza iraunkorra eskatzen du, enplegu malgua alegia. Bestela esanda, langabeziaren zio behinenak lan-merkatuan zurruntasuna sortzen duten faktoreak dira, hala nola soldaten arautze publikoa —gutxieneko soldata—, langabeziaren eta enpleguaren gainera babesa.

Liberalizazioaren bigarren eremu zabala nazioarteko merkataritzaren arloan eman da. Hala ere, prozesu hori aurretik abiatu zen, II. Mundu Gerraren ostean hain zuzen eta indarrean dago. Merkataritzaren liberalizazio-dinamika eremu multilateralean mugatuago egon den arren, integrazio kontinentaleko eremuetan aurrerapauso sendoagoak eman dira —NAFTA edo Europar Batasuna kasu—.

---

10. Honen oinarrian dauden kontzeptuak langabeziaren tasa naturala edo NAIRU (inflazioa azeleratzen ez duen langabezia-tasa) dira.

Eraldaketa liberala esparruren batean nabarmen finkatu bada, finantza-sisteman izan da. Ereku horretan asaldatzeak ugariak izan ohi dira eta, beraz, erregulazio handiko jarduera gisa itxuratu zen. Banku zentralen lehentasun handienetako bat zen finantza-jardueren gaineko kontrol egokia egitea. Esparru neoliberal berrituan finantza-sistemaren orientazio malgurako urratsak egin ziren funtsezko arloetan. Garrantzitsuenen artean daude, nazioarteko kapitalen mugimenduaren liberalizazioa, finantza-erakunde espezializatuen arteko bereizketen ezabaketa (inbertsio-bankuak, kutxak, merkataritza-bankuak...), finantza-aktibo «errotoriak» sortzeko ahalmena, finantza-enpresa malguagoak sortzeko aukera —erakunde tradizionalen menpekoak gehienetan—; etab. Desarauketaren emaitza izan da kontrolatzeko zaila den finantza-sistemaren benetako hipertrofiaren sorrera 4. kapituluan aztertuko dugun gisa.

Neoliberalismoarekin erregulazioaren arloko beste eraldaketa-lerro batzuek ere mozkin-tasaren igoera bermatzeko ildotik jo dute. Hau da, hain zuzen, erreforma fiskalek hartu duten bidea; izan ere, beren helburua lortu dute, kapital-errentak eta errenta garaienak zuten zerga zuzeneko zama murriztea alegia. Beste ildo bat izan da, herrialde askotan komunitatearentzat garrantzitsuenak ziren zerbitzu publikoen kudeaketa kapital pribatuaren esku uztea. Neurri hauen eta antzeko beste batzuen justifikazioa izan dira ondoko balizko hauek: kudeaketa publikoaren burokraziarekin alderatuz enpresa pribatuaren kudeaketen efizientzia garaiagoa, aurrezki pribatuari emandako pizgarrietan oinarritutako hazkunde ekonomikoaren sustapena eta efizientzia ekonomikorako lehiakortasunak jokatzen duen funtzioa.

Globalizazio neoliberalaren garaiko politika publikoetako aldaketak merkatuetako funtzionamenduaren aldaketekin bat eginda eman dira. Enpresetan, eta batez ere handienetan, eraldaketa sakonak suertatu dira. Batetik, informazio- eta telekomunikazio-teknologia berriek erakusten dituzten teknologia-aldaketa indartsuak zein energia eta garraioaren merketasuna izan dira horren sustatzaile. Bestetik, enpresa-arloko eraldaketak estu lotzen dira beste bi aldaketarekin: produkzio-antolakuntza malguaren aldeko eraldaketarekin eta enpresako mozkinen berrinbertsioaren aldeko eredu kanpoko finantzei lehentasuna eskaintzen dien beste eredu baten eraikuntzarekin. Hein handi batean ekonomia globalaren finantza-arloko eta arlo produktiboko prozesuak antzekoak dira. Bietan azaleratu den ezaugarri bateratua da ekonomia-sistema uherra bihurtu duten erlazio-kate erraldoien ugaritasuna (azpikontratazioak, aktibo errotoriak...). Bi arloetan ere arriskua saihestea eta beste eragile batzuei eraldatzea (banakako inbertsioegileei, langileei, enpresa txikiei...) da enpresa handi hauen helburua.

## **2.4. GLOBALIZAZIOAREN ERAGILE NAGUSIAK: ETN-AK ETA ESTATU LIBERALA**

Globalizazio neoliberalaren eta munduko eragile nagusiak diren estatuen eta enpresa transnazionalen (ETN) arteko elkarreraginak ez dira nolanhikoak. Globalizazioaren testuinguruan kapitalen mugikortasunerako askatasun osoak eta finantza-merkatu globalen nagusitasunak nazioarteko finantza-kapitalen hegemonia ekarri dute. Halaber, kapital transnazionalak helburu eta ekinbide propioak dituzten lehen mailako eragile izatera iritsi dira. Horrek esan nahi du batez ere estatuarekiko autonomia dutela. Ildo horretan, lehia globalak indartu egiten du kapitalak nazio-esparrutik nazioartera urratsa emateko dinamika. Aurreko atalean aipatu dugun produkzio-sistema globalaren sorrera dakar dinamika honek. Izan ere, talde transnazionalak dira munduko merkatuetan lehiarako ahalmena dutenak eta munduko esparrua hartzen dute aintzat beren merkatu- zein produkzio-estrategiak diseinatu eta gauzatzekoan. Beraz, azaldutako dinamikak eta beren dimentsio erraldoia tarteko eragile transnazionalak gero eta ahalmen handiagoa dute estatuen kontrolpetik eta araugintzatik at jarduteko.

Handitasunak ez ezik, berrikuntza eta ezaupideak transferitzeko eta enplegua sortzeko ETNen ahalmenak hauen inbertsioa erakartzeko estatuen arteko lehia sortzen du, horrela inbertsio transnazionalak estatuen esku-hartze eremuan eragin garrantzitsua izaten dute maiz estatuen zeregina irmoki baldintzatuz. Izan ere, aspaldi honetan estatuen ekonomia-politikak elkarrekiko lehian aurkitzen dira atzerriko inbertsioak erakartzeko eta horren ondorioz ekonomia-politikak doikuntza-prozesuan aurkitzen dira beren izaera murrizgarria areagotuz. Estatuen eta talde transnazionalen arteko elkarreragin hauek begi-bistan ipini dituzte estatuen esku-harmenerako mugak eta honen planifikazio- eta kontrol-ahalmenaren zati bat desitxuratu dute. Beraz, estatuak arlo sozioekonomikoan eragiteko bere eskumen-eremu batzuk galdu ditu, arlo horretako subiranotasunaren kalterako. Testuinguru honek eremu publikoaren berregituraketa-prozesuak azkartu ditu eta estatu-jarduera berrienaren orientabide liberal orokorra indartu du. Ondorioz, bere ekinbide politikoaren esparrua mugatu da eta merkatuen autonomia eta bertan diharduten eragile pribatuena hedatu egin dira.

Globalizazioaren testuinguruko estatuen itxurazko ahultasun honek eta haren jarduera-esparruaren gutxitzeak estatuen izea eta herri arteko mugen galera ekarriko omen du egile batzuen ustez (Ohmae, Porter, Krugman...). Egile horien arabera bi indar soilik dira erabakigarriak munduko ekonomian: merkatu globala eta enpresa transnazionalak. Eta horietatik bat bera ere ezin da esku-harmen publikoaren objektu izan modu eraginkorrean, edozein gobernu ezin baita iritsi merkatu globalen indarrak biltzera eta bertan esku-hartze eraginkorra gauzatzera. Nolanahi ere, muturreko irizpide honek ez ditu kontuan hartzen errealitatearen konplexutasuna eta eragileok bidea jorratu ahala beren helburuak, funtzioak eta estrategiak

eraldatzeko joera. Hala da, korporazio transnazionalen kasuan; izan ere, eragile global nagusiak izan arren eta estrategia globalak garatu arren, gehienek ez dute beren herri-atxikipena alboratu. Ostera, kapital transnazionalak nazioarteko foroetan beren interesak ordezkatzan dituen jatorrizko herrialdearekiko lotura sakonak mantendu ohi dituzte. Korporazioen estrategia globalak jatorrizko herrialdeko abantailen gainean eraiki ohi dira. Abantaila horiek oso zabalak dira eta berrikuntza zein prestakuntza sistemetatik hasi eta antolakuntza sozial, instituzional eta militarerraino hel daitezke. Batez ere, jatorrizko herria Mendebaldeko herri aberatsa denean sortzen dira aipatutako abantailak, besteak beste, herri hauek nazioarteko arauak defini baititzakete eta beren eragin ekonomikoa munduko eremura zabal baititezakete.

Estatuaren ahalmena eta rola, beraz, ez da parekoa Mendebaldeko herri aberatsa izan edo Hegoko herri txiroa izan. Azken horientzat munduko ekonomia-ren globalizaziorako joerak ekonomia nazionalako aldagai sozioekonomiko nagusiak kontrolatzeko ezina dakar. Lehenetan, estatuak gordetzen du oraindik bere ahalmen eragilea nazio-ekonomian ez ezik nazioartean ere, G-7, G-20 edo beste erakunderen baten bidez erabakitzeke aukerak benetakoak dituen heinean. Estatu boteretsu hauek lehen mailako protagonismoari eusten diote globalizazioaren testuinguruan ere.

Estatu nagusien protagonismotik harago, estatua mundu-esparruan eragile garrantzitsua dela baiezteko bada beste irizpiderik. Hala da, desarauketak, pribatizazioak eta liberalizazioak ez baitute estatuaren garrantzi kuantitatiboa ezta kualitatiboa ere aldarazi. Zenbatekoari erreparatuta, Mendebaldeko estatu gehienek ekonomian duten presentzia ez dute murriztu azken hamarkadetan. Hala erakusten dute herri garatuetako gastu publikoaren zenbaki erlatiboek, gastu publikoa produktuarekiko ez baita jaitsi. Estatuaren esku-harmena eremu sozioekonomikoan gastu publikoa irizpidetzat hartuz neurtzen badugu, esku-harmena handitu egin da. Bestalde, ikuspegi kualitatiboari erreparatuz gero, estatuak beren ohiko funtzioak eraldatzen ari direla ondorioztatuko dugu. Esan dugun bezala estatuaren zeregin batzuk ahultzen ari dira, hala nola enpresa publikoen bitarteko bere ugazabafuntzioa edota lan-merkatuan eta beste merkatu batzuetan baldintzen eta mugen ezarpena malgutu egin ditu. Baina, hein berean, estatuaren beste jardunbide batzuk indartzen ari dira, esate baterako emigrazio-kontrolak zorrozten ari dira, merkataritzan babes-neurriak gero eta zabalagoak dira, kapitalaren metaketarako laguntzak tinkoagoak dira estatuaren aldetik horretarako abiarazten dituen neurriak zuzenak (diru-laguntzak, etab.) zein zeharkakoak (azpiegiturak eraiki, egonkortasun soziala bermatu, etab.) direla ere.

Beraz, neoliberalismoarekin estatuaren funtzio tradizionalak eraldatzen ari diren arren, ezin da estatuaren gainbeheraz mintzo. Liberala izanagatik estatua da oraindik ere, herrialde baten lurralde-kohesio eta kohesio sozial eta ekonomikorako egitura bakarra, barne-kontsentsu sozioekonomikoa gauzatzen duen heinean.

Kanpoaldean, berriz, errealitate globalaren oinarria da estatua, nazioarteko esparruan erregulaziorako gune sendorik egon ezean.

Dena den, globalizazio neoliberalaren garaian kapital transnazionalen botere ikaragarriak nazio-estatuaren ohiko subiranotasuna irmoki mugatzen duela ukaezina da. Estatu liberalak dituen mugek eta ezinak bere krisia mahaigaineratzen dute. Hiru dira krisi horren adierak. Lehenarekin gaur egungo gizarte konplexuaren eskariak ulertu eta berauei erantzuteko estatuaren zailtasunak agerian geratzen dira. Ezintasun hori gero eta gehiago zorroztasun eta autoritarismoaren bidea erabiliz gaintzen du estatuak, demokrazian sakontzeko bidea alboratuz. Bigarrenak lehenarekin lotura estua du eta zuzenbide-estatuaren aplikazioaren ahalmena murriztean datza eta, finean, estatuaren zilegitasunaren galera dakar. Norbanakoaren, lanaren eta gutxiengoaren eskubideak eta bermeak galbidean jartzeraino jardun berri dute estatu liberalaren instituzioek. Azkenik, estatu liberalak bere erantzukizun sozialak eta biztanleria zabalaren behar larrienak asebetetzeko inbertsioak alboratu ditu eta, aldiz, interes ekonomiko handienak ordezkatzuz agertzen den botere gisa hezurramitzen da. Orientabide eta politika-aldaketa indartsu honek lotura tinkoa du egungo krisiarekin.

Estatu liberalaren krisiaren beste aurpegia hiru alorretan egindako ukapenek erakusten dute. Ongizate-estatuaren nabarmenak ziren estatuaren erantzukizun sozialekiko ukoa da horietatik lehena. Bigarrena, erregulazio ekonomikoaren arloan estatuak merkatuari emandako erreleboa dugu. Haatik, arestian aipatu dugun gisan, estatuak ekonomiako bere esku-harmena ez du lausotu, baizik eta eraldatu egin du bere aplikazio-eremua, orain merkatu *askea* erabiltzen dutenen interesak dira babesten dituenak, giza asmoari uko eginez. Estatu liberalaren krisiak honakoan duen esangura hauxe da: interes pribatu handien aldeko funtzio-berrikuntza sakona ekarri duela, estatuaren beraren erantzukizun publikoari bizkarra emanez. Hemen du sorburua estatu liberalaren krisia eragin duen hirugarren ukoak: interes eta balio-kode pribatuak lehenetsi publikoak ezetsiz. Aldaera horrek ondorio sakonak ditu arlo guztietan, baita arlo sozial zein kulturalen ere: politika publikoaren narriadura eta gizartearen oinarritzko zutarriztat ekinbide partikularrak hartzea. Ondorio larriena, giza elkartasuna eta komunitate-balioen galera da.

## **2.5. GLOBALIZAZIOAREN KRISI OROKORRA**

2007. urtean ekonomia-krisiak eztanda egin zuen AEBetako *subprime* hipotekek izandako larrialdiak abiarazita. Laugarren kapituluaren krisi horren oinarriak eta arrazoiak finantza-arloari erreparatuz aztertuko diren arren, arlo horretan lehertu zen krisia kapitalismoaren krisi orokor bezala ulertu behar da nolnahi ere. Finantzaren arlotik abiatuz kapitalismoaren gainproduktzioaren ohiko krisiaren traza hartu du baina esparru zabalagoetan ere eragina du, hala nola energian eta ingurumenean, kulturen eta balioetan. Hots, metaketa-ereduaren eta zibilizazioaren krisi orokorra da.

Indarrean dagoen krisiak lehendik bizi izandako beste krisi batzuen zantzuak ditu —finantza-krisiak ugariak izan dira azken 30 urteetan, burtsen hondamendia, gainprodukzioa...— baina globalizazioaren hedapenaren testuinguruan gauzatu da eta, horrela, lehen aldiz krisia mundu-mailakoa izatera heldu da. Doktrina nagusi gisa neoliberalismoa gailendu izanak badu zerikusirik krisiaren leherketarekin. Haatik, globalizazioaren hedakortasunak hondamendia atzeratu egin du. Izan ere, AEBetako hedapen finantzario-militarra, industriako eskulan merkearen periferiako integrazioa —Txina, Asiako dragoiak...—, natura-baliabideen narriadura azkarra, garapen-bideko herri ugariaren finantza-ustiakuntza, etab., giltzarriak izan dira kapitalaren metaketaren dinamika lehenagotik leher ez zedin.

Globalizazio neoliberalarekin ekonomiaren finantzarizazioaren fenomeno indartu egin da, 4. kapituluaren agertzen den legez. Ekonomiako irabazi-tasak (mozkina/kapitala) 1970eko krisiarekin nozitu zuen beheranzko joerarekin amaitzeko, finantza-arloa funtzionala izan da globalizazioaren testuinguruan. Izan ere, AEBetan, Europar Batasunean eta Japonian —garatutako ekonomia nagusietan— 1980ko hamarkadaz geroztik errenta-banaketaren modua errotik aldatu egin zen eta irabazitasek gorako joera hartu zuten soldatapekoen kalterako (Husson, 2008). Aldiz, metaketa-tasa (kapital netoaren metaketa) joera horretatik urrundu egin zen eta beheranzko joerari eutsi dio azken hamarkadetan ere. Nahiz irabazi-tasaren kasuan gorako joera egonkortu den, metaketa-tasaren kasuan ez da antzeko bilakaerarik gertatzen. Hots, inbertitzen ez den irabazi edo mozkinen parte handitu egin da eta egoera berri honekin kapitalak *liberatu* egiten dira eta errentagarritasun maximoaren bila doazen finantza-aktiboen itxura hartzen dute. Finean, bi tasa horien arteko aldea erdiguneko ekonomia garatuetan finantza-espekulazioaren bilakaeraren adierazpena da.

Globalizaziorekin dinamika hau indartu egin da. Soldatapekoek errenta-banaketan galdutako posizioak okerrera egin du herrialde garatuetan, besteak beste, desarauketa-prozesuak ekarritako lanaren prekarizazioak, merkataritzaren liberalizazioak, kapitalen zirkulazio libreak eta ETNek munduko merkatuetan duten boterea indartzeak horretara bultzatuta. Horrela, finantza-merkatuen errentagarritasunaren logika gailendu da eta horrekin batera errentagarritasun-nahikotasuna izango luketen inbertsioen kopurua —arlotik produktibo jakin batzuetan batez ere— nabarmen murriztu du. Kapitalismo globalak bere irabazien gero eta parte txikiagoa inbertitzeko duen joerak krisiaren izaera sistemikoa erakusten du. Krisiaren sakoneko arrazoia gizateriaren behar sozialen eta kapitalismoaren irizpideen arteko leizea gero eta gehiago handitzean datza. Eskari soziala errentagarritasun maximoaren baldintzapean ekoizti ezin diren merkantzetan oinarritzen da. Hutsune horretan sakontzea ekarri du Estatuak ekonomian duen esku-harmena murrizteak. Behar sozialak asetzeko ongizate-estatuak zuen helburua malgutzuz eta, tokian-tokian, gutxituz joan da aurrekontu zein politika fiskal zorrotzak direla tarteko. Aurrekontu-defizita saihesteko ahalegin orokorrak gastu publikoa uzkurto egin du munduan zehar eta horrekin batera estatuen eskaria ere.



Horrela, bada, finantza-arloko 2007ko krisia ekonomia *errealera* hedatu zen berehala. Azpikontsumoaren moduan azkartu zen ekonomia-atzeraldia hurrengo urteetan. Krisia ordura arte lehertu ez izana arestian aipatutako mundu-mailako faktoreen eraginagatik izan zen, batik bat metaketa-ereduan AEBek izandako ardatz nagusiaren posizioak izandako papera dela medio. Baiki, II. Mundu Gerraren osteko AEBen hegemonia ekonomikoak eta politikoak ahalbidetu du munduko enparauak —batik bat Japoniak, Txinak, petroliodun herrialdeek...— azken bi hamarkadetako bere erosteko ahalmenak ahalbidetzen ez dion kontsumo-maila finantzatzea. AEBetan soldatapekoen sarreren joera beherakorrek azken hamarkadan familien aurrezki-tasen jaitsiera ekarri du modu iraunkorren gaur egun tasa hori hutsaren hurrengoa izateraino. Kanpotik jasotako finantzaketak AEBetako sektore publikoaren zein pribatuaren izugarritzko zorpetzea sustatu du. Maileguetako erraztasunak ahalbidetu du 2000ko hamarkadan zehar galdutako erosteko ahalmen errearen narriadura kitatzea zorpetze pribatua inoizko mailarik garaienera eramanda. Gehiegizko kontsumoaren beste aurpegia kanpo-merkataritzan urtez urte kausitu den defizita da. Defizit horrek sortutako finantza-beharrak kanpo-zor erraldoia metatu du herrialde horretan eta 2009. urtean munduko kanpo-zorraren laurdena izateraino heldu da. Eredu honetan AEBetako ekonomiak munduko eskariaren bultzagile-rola bete du baina rol hori ezinezkoa zatekeen soberakinak dituzten herrialdeen kapital-fluxu andana bertaratu izan ez balira.

Beraz, AEBetako ekonomiaren kontsumo-eredua finantza-merkatuen eta ekonomia errearen arteko elkarloturan oinarritzen da. Barnean mailegu hipotekarioak eta ondare-aberastasunak kontsumoaren sustatzaile izan dira. Aldiz, kanpoan atzerriko kapitalek izan dute kontsumoa finantzatzeko ardura. Eredu honen iraunkortasuna zalantzan egon da azken hamarkadan, batez ere 2000. urteko teknologia-burbuilaren ezteandaren ondotik. Orduko talka leundua izan zen neurri multzo zabala indarrean ipini zelako, besteak beste gastu militarren igoera —Irakeko inbasioarekin batik bat—, dolarraren parekotasunaren jaitsiera eta moneta-politikaren malgutzea. Ekonomia-faktore eta -neurrien ordeztasunak AEBetako arlo politiko zein militarreko mendekotasun-faktoreak nagusitu izan ziren, nolabait.

2007ko *subprime* hipoteken krisiak eredu honen pitzadura ekarri zuen eta AEBetako gainkontsumoaren jasanezintasuna agerian utzi zuen. Horrenbestez, gero AEBetako kontsumo pribatuaren joera doitzekoa izan da eta horrela munduko eskaria akuilatzeke funtzioa apalduz joan da azken hiru urteetan. Munduko enparauan ere azpikontsumoaren arazoa lehenago lehertu ez bada, kontsumoari emandako maileguen hedapenagatik izan da. Horrela, bada, finantzarizazioak elikatu duen kredituaren hedapen erraldoiak eredu neoliberalak sortutako bi desoreka makroekonomiko saihesten lagundu du. Herrialde-mailan soldaten eta kontsumo-mailaren dinamiken arteko desoreka da, bata. Eta bigarrena, globalizazioaren testuinguruan merkataritza-defizita iraunkorrek eta superabit iraunkorrek dituzten herrialdeen artean gertatzen dena da. Bigarren desoreka hori estaltzeko finantza-

rizazioa ez ezik, aipatutako AEBetako gehiegizko kontsumoaren eredia ere funtzionala izan da duela hiru urte arte.

Nolanahi ere, finantza-krisia ekonomia errealerara hedatzeko kontsumoaren gabeziak izan duen arduraz gain bada beste faktore bat eragin erabakigarria izan duena: sektore eta adar batzuetako gehiegizko inbertsioa, alegia. Oso bistakoa da egoera hori higiezinaren sektorean, zeinean gehiegizko eskaintzak sektorearen gainbehera ekarri duen herrialde ugarian. Berezko ezaugarriak dituen higiezinaren sektorean gauzatu den gehiegizko inbertsioak finantza-arloko bilakaerarekin zerikusi zuzena izan du. Bien arteko lotura espekulatzaitetik zartarazi zen *subprime* hipoteken krisia lehen momentuan. Baina, geroago hainbat herrialdetan —AEB, Espainiako estatuan, Europako ekialdean...— ekonomiaren atzeraldi orokorrean sakontzeko arrazoi gehigarria izan da eta herrialde horietan krisia gain-ditzeko arrazoi nagusietarikoa da gaur egun.

Orobat, azken krisiak azalera ekarri du azken bi hamarkadetako globalizazio neoliberalaren ereduaren mugen indarra, eta eredu horren gabeziak eta kalteak ikusarazi ditu. Eredu horren muga nabarmenatariko bat da finantza-arloaren eta ekonomia errealeraren arteko erlazio-mota, finantzarizazioa ekarri duena eta krisiaren muinean dagoena.

Horren gainean eraiki zen AEBetako gehiegizko kontsumoan oinarritutako mundu-mailako *egonkortasun* makroekonomikoarenak ere egin duela dirudi. Izan ere, AEBetako barneko zorpetzea murriztua egongo da etorkizun hurbilean kreditu-sistemaren zurrumbilao egonkortzen ez den bitartean bederen. Kanpoko zorpetzeaz esan litekeena zalantzagarriagoa den arren, AEBetako kanpo-defizita murrizteko beharra oso esanguratsua da. Eta horretarako biderik zuzenena dolarraren truketaren jaitsiera kontrolatua litzateke, nahiz bide hori estua den kanpoko finantza-keta gehiegi muga lezakeelako, AEBetako ondare eta aberastasunaren murrizketa ekartzen duelako eta neurri horrekin herrialde garatuetako merkataritza-balantzaren bidez atzeraldia luza litekeelako. Beraz, dolarraren jaitsiera ematekotan, mugatua izango da eta ez da nahikoa izango AEBetako merkataritza-defizita kitatzeko. Bestalde, ez dirudi herrialde emergenteak, Txina batik bat, gauza izango direnik amerkarren ordezkotza gauzatzeko munduko ekonomiaren eskariaren bultzagile gisa. Izan ere, epe luzean atzerriko kapitalen eta esportazioen indarrean oinarritutako Txinaren hazkunde-ereduaren mugak agerikoak dira. Orain arte haren ereduaren muina ekoizle gisa gauzatu da eta atzeraldian kanpoko merkatuak murriztu egin dira. Txinaren ekonomiaren perspektiba argiena barne-merkatuan berregokitutako dinamika akuilatzea da, baina horretarako herrialdearen hazkunderarekin lotuago egongo den langileen soldaten igoera gauzatu beharko litzateke. Nolanahi ere, irteera hau oso zalantzagarria da herrialde horretako egitura instituzionalaren soslaia eta gaur egun bertan dauden disparekotasun eta tirabira sozialak lehertzeko arriskua direla medio.

## LABURPENA

Globalizazioa kapitalismoaren historiako nazioartekotze-prozesuaren gorengo maila ez ezik, egungo metaketa-eredua ezaugarritzen duen kontzeptua ere bada. Munduko ekonomiaren egungo egoeraren erakusgarria da baina harago doa dimentsio anitz barneratzen baititu globalizazioak eta bere diziplinarteko izaera bistara ekartzen du horrela. 1990eko hamarkadako ezbaiaren auzia nolabait gainduta dagoen honetan kapitalismoaren aro berri gisa globalizazioaren ekarria batik bat bere kudeaketaren eredu liberala da. Horrela, globalizazio neoliberala munduko merkatuaren eta eragile pribatuen nagusitasunaren garaia da. Eragile horiek errentagarritasun mugagabea erdiesteko jarduerak munduko ekonomian disparekotasunak areagotzen ditu eta horrekin batera ekonomia globalaren ezegonkortasunerako baldintzak indartzen dira. Munduko gobernantzaren gabeziak eta estatuaren interbentziorako ahalmenaren gutxiesteak merkatu globalen ondoezak kontrolik gabe hedatzea dakarte. Egungo krisi ekologiko eta sozioekonomikoaren leherketa ulertzeko tresna kontzeptualak hemen aurki ditzakegu.

**BIBLIOGRAFIA**

- Adda, J. (1998): *Ekonomiaren Globalizazioa. Sorrera eta arazoak*, UPV-EHU, Bilbo.
- Bello, W. (2004): *Desglobalización*, Icaria, Bartzelona.
- Boyer, R. eta Drache, D. (1997): *States Against Markets. The limits of globalization*, Routledge, Londres.
- Dicken, P. (2007): *Global Shift. Mapping the Changing Contours of World Economy*, SAGE, Londres.
- Glyn, A. (2010): *Capitalismo desatado. Finanzas, globalización y bienestar*, Catarata, Madril.
- Held, D. et al. (1999): *Global Transformations. Politics, Economics and Culture*, Polity Press, Oxford.
- Held, D. eta McGrew A. G. (2003): *Globalización/Antiglobalización: sobre la reconstrucción del orden mundial*, Paidós Ibérica, Bartzelona.
- Hirst, P. eta Thompson, G. (1996): *Globalization in question*, Blackwell, Londres.
- Husson, M. (2008): *Un Pure Capitalisme*, Editions Page deux, Lausanne.
- Gilpin, R. (2001): *Global Political Economy: Understandign the International Economic Order*, Princenton University Press, Princenton.
- Krugman, P. (2009): *El retorno de la economía de la depresión y la crisis actual*, Editorial Crítica, Bartzelona.
- Mendizabal, A.; Zurbano, M.; Sarasua, J. eta Udaondo, A. (2005): *Globalizazioa eta Autoeraketa. Joerak, mugak eta aukerak*, Lanki-Mondragon Unibertsitatea, Eskoriatza (Gipuzkoa).
- Stiglitz, J. E. (2006): *Cómo hacer que funcione la globalización*, Taurus, Madril.
- Zurbano, M. (1998): *Munduko Ekonomia. Botereak, disparekotasunak eta egonkortasun-eza kapitalismo globalean*, UEU, Bilbo.

**WEB ORRIAK**

PNUD (Nazio Batuak): <http://www.undp.org>

UNRISD (Nazio Batuak): <http://www.unrisd.org>

NDF: <http://www.imf.org>

UNCTAD: <http://www.unctad.org>

Munduko Bankua: <http://www.worldbank.org>

Cepal: <http://www.cepal.org>

MME (OMC-WTO): <http://www.wto.org>

OXFAM: <http://www.oxfam.org>

Omal: <http://www.omal.org>

Forum Soziala: <http://www.forumsocialmundial.org>

Transnational Institute: <http://www.tni.org>

GERM: <http://www.mondialisations.org>

<http://www.socialwatch.org>

<http://www.mondialisation.ca>

### **3. Nazioarteko merkataritza: errealitatea, oinarriak eta instituzioak**

*Mikel Zurbano Irizar*

Nazioarteko merkataritza ekonomiaren nazioartekotze- edo internazionalizazio-prozesuaren erakusle nagusietako bat da. Kapitulu honen helburua nazioarteko merkataritzaren dinamika garaikidea aztertzea da eta bertako ezaugarri nagusiak identifikatzea. Ezaugarri horien aldaera ere azpimarratuko dugu, hala nola egungo merkataritzaren koordenatu berriak. Bestalde, merkataritzaren oinarri teoriko nagusiak laburbilduko dira, aztertutako aldaketa nagusiek oinarri horietan irekitako zalantzak eta ezinak plazaratuz. Oinarrietako jarrerak merkataritza-politiken orientabide nagusiak baldintzatzen dituzte eta horrekin gobernua liberalizazioaren eta protekzionismoaren arteko hautua egitera behartuta daude. Gaiaren xede nagusia nazioarteko merkataritzaren arloan dagoen erregulazio-sistema aztertzea da ere. Nazioarteko arkitektura instituzionalak eremu honetan duen erakundea, Munduko Merkataritzaren Erakundea alegia, analizatzen da. Arloz arloko liberalizazioa sustatzeko dauden oztopoak eta asimetriak ere mahai gainera ekarriko dira.

#### **3.1. NAZIOARTEKO MERKATARITZAREN BILAKAERA ETA ERREALITATEA**

##### **3.1.1. Merkataritza-interdependenziaren igoera**

Joan den mendeko II. Mundu Gerraz geroztik nazioarteko merkataritzak hedapen bikaina ezagutu du. Hedapenaren tamaina ez da, halere, berdina izan aldi honetan. 1960ko hamarkadaren amaiera arteko hazkunde bizkorra garai horretako ekonomia-hedakuntza orokorraren testuinguruan gertatu zen. Orduan hasi ziren merkataritzaren liberalizazio multilateralaren aldeko lehen urratsak jorratzen GATT akordioaren lerrotik. Baina 1970eko hamarkadako ekonomia-krisi estrukturalaren leherketarekin joera trukatu zen eta Mendebaldeko herrialdeetan merkataritza babes-neurri berriak aplikatzen hasi ziren produktuen nazioarteko trukeen hedapen-erritmoa murriztuz. Babes-neurri berri horiek GATTen kontroletik kanpo mantendu dira eta lehengaien eta eraldaketa-maila apaleko produktuen esportatzaileak diren herrialdeei egiten diete kalte gehien.

Nazioarteko merkataritzaren hedakuntza honek eragin zuzenak izan ditu munduko ekonomian, aipagarria da globalizazio-prozesua bizkortzeko joera. Jaki-


na da nazioarteko merkantzien trukeen gehikuntza ekonomiaren nazioartekotze-proze-suan eragile nagusietariko bat dena. Merkataritzaren hedakuntzarekin batera nazioarteko merkatuak ere hedatu eta indartu egin dira eta horrek produkzio-arloko eskala-ekonomia garrantzitsuak ahalbidetzen ditu. Dagokion teknologia egokia aplikatzean eskala handiko produkzioak produktibitate-hazkunde arinak ekarri ditu eta horrela lanaren zatiketa eta produkzioaren espezializazio sakonagorako baldintzak ezarri dira. Aztertuko dugun legez, honek guztiak nazioarteko merkatuen oligopolizazio-dinamika eta enpresa transnasionalek merkatu hauetan duten nagusitasuna erraztu ditu. Halaber, merkataritzaren gehikuntza produkzioaren lurralde arteko espezializazioa sakontzearekin bat etorri da. Joera horrek nazioarteko lanaren zatiketa handiatzea esan nahi du eta ikusiko dugunez ETNen jardueren hedapenarekin lotura estua du.

Baina, merkataritzaren hazkundeak bestelako eraginak ere izan ditu munduko ekonomian. Esate baterako, merkatu-esparruak zabaltzean lehia-baldintzak aldatu egin dira. Prezioak lehiarako aldagai ia bakarra izan zireneko garaiak iraganak dira. Prezio eta produktibitateak itxuratzen duten bikoteak ez ezik, beste faktore batzuek ere gero eta inportantzia handiagoa dute nazioarteko merkatu-konkurrentziarako; hala nola kalitateak eta produktu-diferentziazioak, nazioarteko banaketasareen gaineko kontrolak, publizitateak, etab. Oro har, gogoan izan behar da nazioarteko merkataritzaren hedakuntzak bi aurpegi dituen konkurrentzia-joera bizkortu duela: baldintza eraberritueta islatzen den nazioarteko lehia biziagoa eta, hein berean, nazioarteko merkatu inportanteenen oligopolizazioa zeina enpresa transnasionalen nagusitasunean gorputzen den.

Nazioarteko lehia-baldintza hauek batik bat *nazio*-merkatuan diharduen enpresa *nazionala* ukitzen dute, horregatik izan dira azkenaldion Estatuak babesneurri eraberrituak ezartzeko zio nagusi. Beraz, arlo politiko-instituzionalak ere badu zerikusirik merkataritzaren bilakaeran uneen uneko merkataritza-joerak bizkortuz edo joerei galga eginez. Eskuarki, merkataritza-politika *nazionalak* bertako kapitalen metaketa bermatzeko xedea dute eta gutxi-asko *nazio*-merkatuak babestu ohi dituzte, babesneurri klasikoei tresna berriak eta zuhurragoak erantsiz.

Azken mende Erdiko merkataritzaren hazkunde bizkorra 3.1. irudian egiazta daiteke. Ikus daitekeenez bi indizeren berri ematen da, biak ere hazkuntza-tasa gisa adierazita daudela. Bata merkataritzaren hazkuntza-tasa da —ezkerreko zutabea— eta produktuaren hazkuntza-tasa bigarrena —eskuineko zutabea—. Aipagarria da hasteko merkataritzaren hazkundera urtez urte gertatu dela denboraldi guztian. Nolanahi ere, tasaren zenbatekoa aldakorra izan da, nabarmena da 1950-1973 aldian munduan izan zen nazioarteko merkataritzaren hedapen ikaragarria, garai hartako ekonomia-hedaldi orokorraren adierazpena izanik. II. Mundu Gerraren ostean ekonomia-ordena berria eraiki zen eta kapitalaren metaketarako oinarri sendoak ezarri ziren honela inoizko ekonomia-susperraldia ahalbidetuz. Munduko ekonomiaren bilakaera ziklikoari jarraikiz, merkataritzaren igoera uzkurto egin zen 1970eko hamarkadaren hasierako ekonomia-krisiaren testuinguruan. Lehengo

hazkunde-tasaren dinamika erdira urritu zen geroztik 1990 urte arte, garai horretan zailtasun ekonomikoak ugaldtu eta, oro har, merkatuak murriztu egin ziren, merkataritza-politikak babes-neurriak lehenesten hasi ziren batez ere babes-era berriak, muga-sariz bestekoak alegia. 1990eko hamarkadaren hasiera inflexio-garaia izan zen eta merkataritzaren hazkunde-erritmoa bizkortu egin zen atzera, gerraosteko dinamikotasun-mailara iritsi gabe hala ere. Urtez urteko tasa oso aldakorra izan den arren, % 5,5 hazi da azken hamarkadan merkataritza urteko. Hamarkada honen hasierako urteak nahiko apalak izan dira baina ikusteko dago 2007ko finantza-krisiak eragindako krisi orokorrak zenbaterainoko eragin negatiboa izango duen nazioarteko merkataritzaren bilakaeran. Dagoeneko 2008. urteko lehen zantzuak nazioarteko merkataritza-fluxuen apalaldi esanguratsua iradokitzen dute.



Bestalde, munduko merkataritzak produkzioak baino arinago egin du aurrera urtealdi honetan. Epe guztietan bistakoa da ekoizpenaren igoeraren gaintik hazten dela merkataritza, hots, produktuaren gero eta zati zabalagoa salerosten da nazioarteko merkatuetan. Merkatuen espazioa gero eta gehiago nazioartekoa da, nazio-merkatuen kalterako. Bestela esanda, nazio-ekonomien arteko dependentzia indartzen ari da azkenaldion, herrialdeen arteko interdependentzia tinkotu egin da eta horrek ondorio argiak ditu globalizazio-prozesuaren hedatzeak adierazten duen gisan. Alabaina, egoera oso desberdinak dira eskualdeen zein garaien arabera. Esaterako, 1970eko krisiaren lehen unean merkataritzaren hazkundera eta produkzioarena berdintsu egon ziren lehen aldiz kapitalismoaren historian.

Aztertu dugunez merkataritzaren bilakaera ez da homogenea, oso aldakorra da denboran zehar merkataritzaren hazkundera eta aldakortasun hori areagotu

egiten da herri zein eskualdeetako dinamika kontuan hartuz gero. Horren ondorioz merkataritza-arloko kanporako joera oso aldakorra da herrialde batetik bestera eta horren arrazoia ez datza herrialdearen errentaren mailan. Merkataritza-arloan herrialde batek duen kanporako joera hori indize batez neur daiteke, kanpo-irekitasunaren bidez alegia. Indize horrek erakusten du herrialde batek garai jakin baterako ekoizten duen produktuarekiko zenbat saltzen duen nazioarteko merkatuetan esportazio gisa. Indize hori herrialdeko esportazioen eta BPGren arteko zatiketa gisa adierazten da. Ohar batez argitu behar da esportazioak salmenta direla eta, beraz, ondasunen azken prezioak dira haien erreferentzia. Aldiz, BPGrekin balio erantsia neurtzen da, hots, produkzio-prozesuan erabilitako baliabideak ez dira kontuan hartzen haren kalkulan. Beraz, bi kontzeptuen oinarria desberdina da baina, hala ere, hurbilpen moduan kanpo-irekitasunaren indizea erabilgarria da herrialdeak nazioarteko merkatuetan duen presentzia ebaluatzeko. 3.2. taulak erakusten du herrialde batzuen kanpo-irekitasunaren indizea. Taula horren azterketatik ezin da ondorioztatu indizearen jokabidea erakusten duen irizpide orokorrik. Sarrera garaiko herrien multzoan herrialde batzuek kanpo-irekitasun garaia erakusten dute, hala nola Holandak, Suediak edo Alemaniak. Singapur kasu berezia da, bertako esportazioen kopuruan inguruko herrietatik egindako berresportazioak ere kontabilizatzen baitira. Ostera, errenta garaiko herrialde batzuetan kanporako indizea oso apala da, esaterako Japonian edo Estatu Batuetan. Beste multzoan, errenta apaleko eta erdi-mailakoan artean alegia, egoerak ere oso desberdinak dira kanpo-irekitasunaren indizeari erreparatuz gero. Argelia, Filipinak, Hungaria eta Malaysiako irekitasun-maila zabalak Brasil, Etiopia, Haiti edo Asiako hegoaldeko maila urriekin orpoz orpo daude. Egoera anitz herrialde bakoitzaren errealitate desberdinaren ondorioz suertatzen dira. Nolabaiteko irizpide komuna iradokitzekotan, esan liteke gutxien garatutako herriek, oro har, irekitasun-maila oso apala erakusten dutela; izan ere, lehengairen baten monokultiboaz harago ez dute esportaziorako aukera handirik. Bestetik, barne-merkatu handia duten herrialdeetako kanpo-joera ere mugatuagoa dela dirudi, AEBetan, Japonian edo Brasilen hori beha daiteke. Baina Europar Batasuneko herrialdeetako kanpo-irekitasunaren indizeak asko murriztuko lirateke EBrako, beren salmentak esportazio bezala kontabilizatuko ez balira; izan ere, EBkoa merkatu bakarra da eta ikuspegi ekonomikotik barne-merkatuaren itxura du.

Bestalde, estaldura-tasaren indizea agertzen da 3.2. taulan. Indize horrek erakusten du esportazioen tamaina inportazioekiko eta kontabilitate nazionaleko merkataritza-balantzaren beste adierazpen bat da. Ehunekotan ematen denez, ehunetik gorako indizea erakusten duten herriek merkataritza-balantzan superabita erakusten dute eta, ostera, ehunetik beherako indizea dutenak defizita dute. Indize horri dagokionez ere, egoerak oso desberdinak dira eta herri bakoitzaren ekonomia-ibilbidearen araberakoa da emaitza. Herrialde bakoitzaren egiturazko egoerarekin batera ezin da ahaztu indize horren zenbatekoan urteko koitunturak duen eragina, herrialde batzuek indize oso aldakorra baitute urtetik urtera.




<b>3.2. Kanpo-irekitasuna (esportazioak/BPG) eta estaldura-tasa (esportazioak/inportazioak) (%). 2006</b>		
	<b>X/BPG</b>	<b>X/M</b>
<i>Errenta apaleko ekonomiak</i>		
Etiopia	7,9	22,3
Haiti	9,6	25,4
Nikaragua	19,3	34,8
Senegal	16,9	43,1
<i>Erdi-mailako errentadunak</i>		
Bolivia	34,6	137,0
Filipinak	40,2	90,5
Maroko	21,9	53,9
El Salvador	19,2	46,1
Argelia	46,0	251,5
Polonia	32,4	88,4
Turkia	21,1	62,1
Venezuela	34,8	212,2
Brasil	12,9	155,4
Malaysia	107,8	122,6
Hungaria	65,3	96,3
Mexiko	29,8	93,3
Txina	36,3	122,4
Argentina	21,8	142,2
Saharaz hegoaldeko Afrika	32,7	115,2
Asiako ekialdea eta Pazifikoa	40,4	118,1
Asiako hegoaldea	13,8	66,6
Ekialde Hurbila eta Ipar Afrika	38,5	133,2
<i>Sarrera garaiko herrialdeak</i>		
Portugal	22,5	65,0
Espainia	16,8	64,7
Australia	16,0	88,3
Erresuma Batua	18,9	73,8
Italia	22,2	93,9
Singapur	205,6	113,9
Kanada	31,0	108,5
Herbehereak	70,3	111,0
Frantzia	22,0	91,9
Suedia	38,3	116,6
Alemania	38,3	122,2
AEB	7,9	54,0
Japonia	14,9	112,1

Iturria: Munduko Bankua (2008) eta MME (2008).

### 3.1.2. Manufakturen eta zerbitzuen merkataritzaren hedapena


Nazioarteko merkataritzaren bilakaeraren diagnostikoan aipatzekoa da ere esportazioen osaketaren egitura. Historikoki nazioarteko merkataritzaren fluxu nagusiak ondasunen esportazioak eta inportazioak izan dira. Merkataritza kolonialaren garaian ondasun horien parte garrantzitsua lehengaiez osatutakoa zen eta manufakturak ere garrantzia izan arren, ez ziren iristen lehenengo mailara. XX. mendeko 80ko hamarkadara arte iraun zuen merkataritza eredu tradizional hau Iparraldeko herrialde garatuen garapen-ereduaren ispilu izan da. Horrela, merkataritza tradizionalan Iparraldeko herrialdeek manufaktura-gaiak esportatzen zizkieten beren kolonia edo kolonia ohiak izandako herrialdeei. Ostera, horiek nekazaritza-gaietan eta mea-gaietan zuten espezializazio produktiboa eta, beraz, horien esportazioak bideratzen zituzten herrialde garatueta.



Nolanahi ere, azken hamarkadetan aldaketa garrantzitsua jazo da nazioarteko merkataritzaren osaketaren arloan. Izan ere, lehengaiak merkataritzan izandako pisu espezifikoak ahultzen ari da gero eta nabarmenago. Aitzitik, manufaktura-gaien garrantzi absolutua eta erlatiboa handitu egin da. Hori da 3.3. iruditik ondoriozta daitekeena, hots, azken hiru hamarkadetan industria-gaiak ondasunen nazioarteko merkataritzan duten pisua handitu egin da, lehengaiena uzkurto den heinean. 1980. urtean manufaktura-gaien ehunekoa ondasunen merkataritzan 54 izanik hogeita zazpi urte beranduago ia 70 zen. Industria-gaien irabaziak lehengaien galera erlatiboa dakar eta hauen barnean azpimarratzekoa da nekazaritza-gaien merkataritzaren murrizketa erlatiboa (% 15 izatetik % 8,3rako atzerapausoa). Aipagarria da ere mea-gaien merkataritzaren jokabidea: ondasunen merkataritzaren ia % 30 ordezkatzaren zuten 1980. urtean eta oso galera bizkorra ezagutu ondoren —ondasunen merkataritzaren % 11 urrira atzeratuz— azkenaldian % 20rako jauzia eman dute. Ibilbide hau ulertzeko ondasunen nazioarteko merkatuetako egitura eta bertako prezioen eraketa ulertzea ezinbestekoa da. MMEren datuak prezio korranteetan

daude emanak eta mea-gaietako merkantzia garrantzitsuena petrolio da. Jakinaenez petrolioaren merkatua oligopolistikoa da eta prezioen gorabeherak oso indartsuak. Oinarriko urteko petrolioaren prezioen mailak asko baldintzatzen du produktu honen merkataritzaren balio finala. 2007. urtean petrolioaren prezioek aspaldiko igoerarik gogorrenak ezagutu zituzten eta horrek petrolioaren esportazio eta inportazioen balioa asko igoarazi zuen. Hori dela-eta, 3.3. irudian agertzen den legez, 2007ko mea-gaien garrantzi erlatiboa asko handitu da gainerako osagaiekiko. Esportazioak eta inportazioak prezioetan neurtu ordez bolumenean neurtuko balira, emaitza bestelakoa izango litzateke eta mea-gaien zein manufaktura-gaien 2007ko pisu erlatiboak ez lirateke 1996koaren oso desberdina izango. Dena den, joera historikoa ulertzeko beste faktore batzuk ere aipatu behar dira. Besteak beste, industriagintzan gero eta maizago ageri da lehengai sintetikoek mea-gaiak desplazatzeko joera industria-prozesuetan baliabide gisa erabiltzeko garaian. Eta munduko merkataritzaren liberalizazio-prozesua duela gutxi arte batez ere industria-gaietan kokatu izanak ere zerikusi estua du merkataritzan duten pisua handitzearekin.

Nolanahi ere, merkataritzaren osagaien bilakaeraren errealitate osoa biltzeko beste ezaugarri garrantzitsu bat aipatu behar da, zerbitzuen merkataritza hartzen ari den garrantzia hain zuzen. Zerbitzuen nazioarteko merkataritza fenomeno nahiko berria izan arren, oso bizkor hazten ari da. Horren inguruko datu estatistikoak duela gutxi ematen hasi da UNCTAD eta horren ganean eraiki da 3.4. irudia. Bertan aditzera ematen da zerbitzuen merkataritzaren pisu erlatiboa merkantzien merkataritzarekiko eta horren bilakaera.



Irudiak ohartarazten du zerbitzuen merkataritza ondasunen merkataritzaren laurdena izatera heldu dela azkenaldian. 1980ko hamarkadan egon zen jauzirik handiena zerbitzuen nazioarteko merkataritzan eta ondoren haren pisu erlatiboa bere horretan mantendu da. GATS akordioa MMEren barnean kokatu zen jaio zenean

baina, gero aztertuko denez, ez da aurrerapauso handirik eman zerbitzuen liberalizazio-prozesuan. Horrek ez du lagundu azken urteetan zerbitzuen nazioarteko merkataritzaren hedapenean. Irudian argi agertzen da, halere, herrialde garatueta bilakaera oso bestelakoa dela zerbitzuen nazioarteko merkataritzaren bilakaeran; izan ere, azken bi hamarkada hauetan herrialde-esparru horretan ia zortzi puntu irabazi ditu merkantzien merkataritzarekiko % 30ra heltzeraino. Aipagarria da batez ere arlo honetan Ameriketako Estatu Batuek izandako dinamika, zerbitzuen merkataritza erlatibo % 40tik gora kokatuz 2007an. Azken hamarkadan aurrerakada eman den arren, zerbitzuen merkataritzan AEBen atzetik daude Europako mendebaldea eta, batik bat, Japonia, non zerbitzuen produkzio-gintzaren eta merkataritzaren pisua oso ahula den, industriaren baitan integratuta agertzen baitira zerbitzu-jarduera nagusiak. Horiek horrela, ulertzen da herrialde garatueta eta batez ere AEBek GATS eta zerbitzuen liberalizazioa indartzeko duten asmo tinkoa, zerbitzuen produkzio-gintzan duten hobari konparatiboari etekina ateratzea nazioarteko merkatuetan errazago kokatuz, alegia.

Horrenbestez, bistakoa da munduko merkataritza-harremanak gero eta gehiago industria eta zerbitzuen fluxuez osatua daudela. Beraz, kolonialismo garaiko eta ondorengo merkataritza-eredu tradizionalen lehengaien garrantzia apurka ahitu egin da eta lehenetsuneko merkataritza-gaiak industria eta zerbitzuetaoak dira egungo eredu.

### ***3.1.3. Merkataritzaren kontzentrazioa eta polarizazioa***

Merkataritzaren bilakera eta egoeraren ezinbesteko ezaugarria bere polarizazio geografikoa da. 3.2. taulan aztertu dugu hainbat herrialdek duten kanpo-irekitasun maila, bertan errealitate oso desberdinak aurkitzen ditugula egiaztatuz. Gainera, disparekotasuna aurkitzen dugu ere kanpoko sektoreko kontuen emaitzak aintzat hartuz gero. Aipatutako taulan ere egoera disparekoak aurkitzen ditugu estaldura-tasa edo merkataritza-balantzari dagokionez. 2007. urteko emaitza zehatzak ematen diren arren, herrialde batzuen balantzaren emaitza estrukturala da. Herrialde batzuek merkataritza-superabit iraunkorrak izan ohi dituzte, hala nola Alemaniak, Japoniak, petrolio-esporthaileek edo Asiako hego-ekialdeko herrialde gehienek, hauek azkenaldian bereziki aipagarria Txina izanik. Beste muturrean aurkitzen dira merkataritza-defizit kronikoak dituztenak, besteak beste gutxien garatutako herrialde gehienak baina baita ere garatutako hainbat herrialde: Erresuma Batua, Australia, Espainia... eta batez ere Ameriketako Estatu Batuak. Pagamendu-balantzaren disparekotasun hauek gaur egun mundu-mailan dagoen faktore ezegonkorrenetarikoa da eta munduko ekonomiaren krisia ulertzeko giltzarria. Izan ere, nazioarteko merkataritzaren egoera honetan superabita ezagutzen dutenek maileguz ematen diete defizita pairatzen dutenei eta horrek finantza-fluxuen zirkulazio ikaragarria sorrarazten du nazioarteko finantza-sistemaren itxura baldintzatuz. Ildo horretan, AEBen merkataritza-defizita estaltzeko, batez ere Txina


eta Japoniak herrialde horretan finantza-aktiboak erosiz egin dituzten finantza-ekarpen milioidunak adibide behinena dira.

Alabaina, merkataritzaren polarizazioaren erakusle nagusia esportazioek eta inportazioek lurralde jakin batzuetan kontzentratzeko duten joera da. Hain zuzen, Europa, Ipar Amerika eta Asiako ekialdea dira nazioarteko merkataritzaren gune nagusiak, zehazki hiru eremu horietan munduko esportazio osoen % 85 egiten da. Hiru eremuko ardatz hori gaur egungo munduko ekonomiako gunea da ekonomia-aren dimentsio eta dinamikotasunaren aldetik behatuz gero bederen. Beraz, Mendebaldeko herrialde gutxi batzuek merkataritzaren gehiena bideratzen duten bitartean, munduko gainerako herrien multzo zabala bazterrean geratzen da merkataritzadynamikatik. Gutxien garatutako herriak dira marjinalizazio-prozesu hau nozitzen dutenak batez ere, baina hainbat garapen-bideko herriek ere oso zaila dute munduko merkatuetako sarbidea. Eta egoera hau mundu-mailako errenta-disparekotasunen iturri nagusietariko bat da. Hau da, hain zuzen, merkataritza-disparekotasun nagusiaren erakuslea.

Baina, merkataritza-desberdintasun hauek aspaldikoak diren arren historian zehar, bestelako garrantzia izan zuten gaur egun merkataritzan ahulak diren herrialde batzuek. XIX. mendean, esaterako, Hegoaldeko herrien pisua nazioarteko merkataritzan orain dutena baino zabalagoa zen. Hori horrela izan zen batik bat Hegoaldeko herrietako lehengaiak nazioarteko merkatuetan saltzen hasi zirenean ondasun berriak edo eskaintza-iturri berriak edo hobetu gisa aurkeztu zirenean. Haatik, XX. mendean zehar, eta batez ere bigarren erdian, aipatutako joera berria azaleratuz joan zen, alegia, nazioarteko merkataritzan manufaktura-gaien garrantzi hazkorra. Eta horrekin batera merkataritza-eredua ere aldatuz joan da: lehengaien eta manufaktura-gaien esportazio gurutzatuetan oinarritutako kolonia osteko eredu klasikoa indarra galduz joan da eta oinarrian manufaktura-gaien trukea duen industria barneko eredurako jauzia egin da. Industria barneko eredu hau dinamikoa da eta aldakorra, II. Mundu Gerraren ostean garatutako herrialdeen artean egiten zen ia soilik manufaktura-gaien truke gurutzatua, baina 80ko eta batez ere 90eko hamarkadatik herrialde emergente batzuk ere industria-gaien esportazio- eta inportazio-gune garrantzitsu bihurtu dira.

Hain zuzen, II. Mundu Gerraren osteko merkataritzan mundu-mailako eskualde batzuek izandako garrantziaren bilakaerari erreparatzen dio 3.5. irudiak. XX. mendearen erdian Mendebaldeko herrialdeek merkataritzaren % 67ren erantzule ziren. Gogoan izan gerrak suntsitutako Europa eta Japonia oso egoera ekonomiko ahulean zeudela eta, aldiz, AEB munduko potentzia ekonomiko oro ahalduna zela. Hegoaldeko herrialdeek menpeko posizioa zuten merkataritza-arloan eta oso presentzia xumea nazioarteko merkataritzan. Hurrengo bi hamarkadetan azken horiek merkataritzan zuten pisu urria are gehiago ahuldu zen, Hegoko herriek munduko merkataritza osotik laurdeneko ekarpen eskasa eginez 1973ko krisia lehertu zenean. Aipagarria da Afrikak izandako merkataritza-arloko garrantziaren galera

etengabea orain arte iraun duena, munduko merkatuetatik ia erabat kanpo utziz. Ordurako Europak eta Japoniak erakutsi zuten beren suspertze ekonomikoa eta komertziala, Europar Batasuna munduko merkataritzaren ia erdiaren erantzule izatera heldu zenean 1973. urtean.



Esan bezala, 1970eko hamarkadaren ondoren Mendebaldeko herrien ordezkaritza munduko merkataritzan uzkuritu egin da Hegoaldeko herrien merkataritzak aurrera egin duen heinean. 1973. urtean Mendebaldeko herriek munduko merkataritzan zuten pisua % 68 ingurukoa zen eta 2007an % 61. Nolanahi ere, garapenbideko herri guztiek ez dute merkataritza-ibilbide bera erakutsi. Esan bezala, Afrikak nariadura ikusgarria ezagutu du, baina «gainerako GBHek» ere galera izan dute beren merkataritza-ekarpenaren garrantzian, galera txikia izan arren. Aitzitik, Asiako Ekialde Urruneko herriek garrantzia irabazi dute, nabarmen irabazi ere, munduko merkataritzaren baitan. Batez ere, industrializazio berriko bost herrialdek (Hego Korea, Taiwan, Singapur, Malaysia eta Tailandia) eta bereziki Txinak dute horretan zerikusia. Oso joera berria da, 1990eko hamarkadan bistaritzen dena, eta ikusteko dago 2000ko hamarkada amaierako krisiaren eragina zein den herrialde horien merkataritzaren bilakaeran. Nolanahi ere badira beste herrialde emergente batzuk merkataritza-dinamika bizkorra ezagutzen ari direnak, hala nola Brasil, Mexiko, India, Hegoafrika... Hauen guztien dinamikasun ekonomiko eraberri-tuak Hegoa-Iparra bitasunaren inguruko paradigman pitzadurak sorrarazi dituela pentsatzera garamatza.

Hala eta guztiz ere, errealitate berri honek ez du merkataritzaren polarizazio-rako joera ezabatzen. Gehienez ere herrialde kopuru mugatu bat gehitzen zaio merkataritza-arloan oso aktiboak diren Mendebaldeko herrialde multzo bati. Baina merkataritzaren polarizazioak bere horretan dirau, kapitalismoaren bilakaerak arlo honetan ere disparekotasunak sorrarazten dituela bistan utziz.

**3.6. taula. Munduko merkataritzaren eskualdekako banaketa, 2007**  
(esportazio guztiekiko eta esportazioen norakoaren ehunekoak).

<i>Nondik</i>	Europa	Asia	Ipar Amerika	Hego eta Erdialdeko Amerika	EIK	Ekialde Hurbila	Afrika
Munduko merkataritza osoarekiko ehunekoa	43,73	24,18	18,48	3,31	2,91	3,54	2,61
<i>Norakoa</i>							
Mundua	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00
Europa	71,25	13,17	18,22	17,84	47,67	31,68	41,62
Asia	12,00	57,38	30,05	20,48	20,12	31,17	25,74
Ipar Amerika	5,52	10,69	37,79	28,99	3,13	10,38	7,68
Hego eta Erdialdeko Amerika	1,77	2,44	6,01	27,08	1,62	1,89	3,85
EIK	4,83	1,81	0,94	1,39	26,02	3,36	1,94
Ekialde Hurbila	1,82	12,06	3,33	0,97	1,20	19,34	7,76
Afrika	2,81	2,46	3,65	3,24	0,24	2,18	11,40

Iturria: MME, Work Trade Statistics, 2008.

Bestalde, merkataritzaren kontzentrazioaz eta polarizazioaz harago, beste ezau-garri bat ere aipagarria da merkataritzaren norabideari dagokionez: trukeak eskualde nagusietan eta berauen artean egiten dira. Munduko ekonomia osatzen duten hiru ardatz nagusiak —Europa, Ipar Amerika eta Asia/Pazifikoa— merkataritza kontzentratu ez ezik, fluxuen jatorri eta helburu garrantzitsuenak dira. Merkataritza-trukeen eskualdekatze hau 3.6. taulan islatzen da: eskualde bakoitzak merkataritzan duen ehunekoak nabarmen baiesten du lehen aipatutako kontzentrazio geografikoa. Areago, hiru ardatz nagusi horietan sortzen diren fluxuen nondik norako nagusia eskualdearen baitakoa da. Hots, Europako esportazioen % 71 Europako herrialdeetara bideratzen da; Asiako merkataritzaren erdiak baino gehiagok —% 57— Asiako herrialderen bat du helburu eta Ipar Amerikaren kasuan ehunekoak apalagoa izan arren —% 38— merkataritzaren gehiengoak ere eskualdera bideratzen da. Beraz, merkatu kontinentalak edo eskualdeko merkatuak dira nabarmen hazten ari direnak kanpoko salmenten eremu nagusi eta lehentasuneko bihurtuz. Haatik, beste joera indartsu bat ere aipagarria da, alegia, hiru ardatz

nagusi horien arteko merkataritza-fluxuen trukea. Europako esportazioak Europaz harago Asia eta Ipar Amerikara bideratzen dira, Asiakoak Europara eta Ipar Amerikara (baita Ekialde Hurbilera ere, logikoa denez Asian bertan baitago) eta Ipar Amerikako esportazioek Europa eta batez ere Asia dute helburu inportante gisa. Produktzio-faktoreen antzeko zuzkidura duten herrialde garatuen arteko merkataritzaren kontzentrazio hau ez dator bat abantaila konparatiboen arloko teoriekin (ezta ere Heckscher-Ohlinek hobetutako teoriarekin).

Gainerako eskualdeek pisu apalagoa dute merkataritzan eta pisu asimetricoa, beraiantzat Europa, Asia edo Ipar Amerikako merkatuak oso garrantzitsuan diren arren, ez da alderantzizko egoerarik gertatzen eta hiru gune horientzat bigarren mailako merkatuak dira Hego eta Erdialdeko Amerika, Estatu Independenteen Komunitatea, Ekialde Hurbila edo Afrika. Asimetria hau oso bistakoa da eskualde bakoitzak hurbilen duen ardatz nagusiko eremuarekiko. Esaterako Hego Amerikak Ipar Amerikako merkatua du helburu nagusi gisa, nahiz bertako merkatuak ere azkenaldian nolabaiteko garrantzia hartu duen. Estatu Independenteen Komunitateak Europara bideratzen du bere esportazioen ia erdia, Afrikaren antzera. Eta Ekialde Hurbilak Asiara zein Europara bideratzen du bere esportazioen herena. Ondorioz, munduko merkataritzaren irudiak erakusten du hiru merkatu kontinentalez osatutako errealitate globala, non hiru merkatu nagusi horien artean truke-dinamika indartsua gertatzen den eta merkatu nagusi bakoitzak bere ingurumari kontinentalean ekarpen-eragina burutzen duen.

Egile batzuek (Krugman eta Obstfeld, 2006) herrialdeen arteko merkataritza-trukeak trinkoagoak izateko hiru arrazoi hauek ematen dituzte: herrialdeen tamaina handia, herrialdeen arteko distantziaren laburtasuna eta herrien arteko merkataritza-traben ahulezia. Herrien arteko merkataritza-fluxuak azaltzeko lehen bi faktoreen eraginez grabitate-eredua deritzona eraikitzen da. Eredu horren arabera, gainerako baldintza guztiak berdin mantentzen direnean lehen aipatutako bi faktoreek —herrialdeen ekonomia-tamaina edo BPG eta distantzia— determinatzen dute herrialdeen arteko merkataritzaren maila eta trinkotasuna. Nolanahi ere, merkataritzaren dinamika azaltzeko eredu horrek alboan uzten ditu ezinbestekoak diren botere arteko faktoreak eta horrekin lotutako faktore instituzionalak eta erregulazioaren egoera. Mundu-mailako arkitektura instituzionala ez ezik herrialde bakoitzeko merkataritza-politikak ere erabakigarriak dira merkataritzaren dinamika ulertzeko. Horiekin batera ondasun eta zerbitzuen munduko merkatuen izaerak eta egiturak ere asko baldintza dezakete herrialde baten merkataritzarako aukera.



*Kontzentrazio geografikoa: Bangaloretik Wall Streetera*

Jarduera ekonomikoaren kontzentrazio-maila eskualde, hiri edo herri zehatz batzuk produkzio-adar zehatz batzuei lotzen zaizkien moduan islatzen da. Karmataka probintzian kokatzen den Bangalore hiriaren izena erabat lotuta dago Indiako informazio-teknologiaren sektorearekin. Indiako informatika-sektorearen % 25 hiri horretan dago kokatuta. Indiako Informatikako Teknologi Parkeak erakundearen estimazio batek dio Bangalore kokatuta dagoen Karmataka probintzia dela Indiako programa informatikoen esportazioen % 35en jatorria. Munduko beste muturrean ikur bihurtu den Silicon Valley informazio-teknologiaren iraultzaren seaska da. Kaliforniako iparraldean, Santa Klara haranean, kokatuta egonik informazio-teknologiaren eremuan sektoreko erraldoien jaiotzaren lekukoa izan da, hala nola Hewlett-Packard, Advanced Micro Devices (AMD), Sun Microsystems, Apple, Adobe, Cisco Systems, Oracle, Symantec, NVIDIA, eBay, Yahoo eta Google. Yahoo eta Google enpresetako sortzaileak hurbileko Standford Unibertsitateko ikasleak izan ziren. Hollywood eta Ipar Amerikako zinema-industria sinonimoak dira. Ameriketako Estatu Batuetako hiru autogintza-ekoizle erraldoien (Ford, Chrysler eta General Motors) garai puntakoenean autogintza oso kontzentratua zegoen Detroit hirian... II. Mundu Gerra amaitu osteko hurrengo lau hamarkadetan gutxienez Italiako Sassuolo hiria Italiako, eta, beraz, munduko zoladuretarako zeramikaren erdigunea izan da. Garai gorenetan, Txina eta Espainiako lehia jasan baino lehen, 1980ko hamarkadan alegia, urteroko esportazioen balioa 800 milioi dolarretara heltzen zen. Bestalde, Wall Street (New York) Estatu Batuetako eta munduko inbertsioen banka-jardueren erdigunea da.

Adibide hauek erakusten dute jarduera ekonomikoaren kontzentrazio geografikoa zerbitzuen sektorean zein manufakturretan suertatzen dela. Seguru asko adibide hauetan gehienetan enpresen kontzentrazio geografikoa ez da diruarekin lotutako kanpo-eraginengatik baizik eta kanpo-eragin teknologikoak tarteko.

*MME: Munduko Merkataritzari buruzko Txostena, 2008.*

### **3.2. NAZIOARTEKO MERKATARITZAREN OINARRIAK**

#### **3.2.1. Nazioarteko merkataritzaren teoriak**

Nazioarteko ekonomia-teoria arloren batean garatu bada, hori merkataritzan izan da. Ezin dugu ahaztu ekonomia kapitalistaren internazionalizaziorako prozesua ondasunen nazioarteko trukeen bidez gauzatzen hasi zela eta hedapen zabala ezagutu duela mendetan zehar. Hori dela-eta, garapen teoriko zabala landu da arlo honetan fisiokraten eta merkantilisten hasierako ekarpenak abiapuntutzat hartuta. Ekonomialari klasikoek eraiki zuten berezko teoria nazioarteko trukeen onurak azaltzeko eta merkataritza-politika liberalizatzeko aldarria egiteko. Haien ustez bi herrialdek edo gehiagok onurak ateratzen dituzte bakoitza ondasun edo zerbitzu jakin batean edo batzuetan espezializatzen bada eta gainerakoekin trukean sartzen bada. Eta hori horrela dela diote produktuaren espezializazioak eskala-ekonomia hazkorrak aprobetxatzea ahalbidetzen duelako eta horrekin batera produktibitatea

hazten delako. Adam Smith klasikoak abantaila konparatibo absolutuen teoriarik argudiatzen zuen nazioarteko merkataritzak herrialde partaide guztien aberastasuna handitzea ahalbidetzen duela baldin eta herrialde bakoitza espezializatzen bada gainerako herriekiko produkzio-kostu absolutu apalenak dituzten produktuen ekoizpenean. Horren ondoren David Ricardo etorri zen eta antzeko formulazioa plazaratu zuen baina haren ustez espezializazioaren funtsa ez dira herrialdearen abantaila edo hobari konparatibo absolutuak, baizik eta hobari konparatibo erlatiboak. Ricardok erakutsi zuen herrialde batek beste baten aurrean ondasun guztietan abantaila absolutuak —ondasun guztiak besteak baino merkeago ekoiztea— izan arren, bi herrialdeek merkataritzatik onurak lor ditzaketela herrialde bakoitza espezializatzen bada abantaila konparatiboa duen ondasunaren produkzioan, hots, herrialdeko produktuaren ekoizpen-kostua herrialdeko egitura produktiboaren batez besteko kostuarekin alderatzen denean herrialde horretan produktu hori beste herrialdean baino merkeago ekoizten denean. Ikuspegi horren ustez, lanaren espezializazioan eta zatiketean sakontzea probetxuzkoa da eta horren ondorioz sustatu beharreko merkataritza-politika nagusia liberalismoa litzateke. Nazioarteko trukearen onurak eskuratzeko oinarri honetan ezinbesteko baldintza edo hipotesia da produkzio-faktoreen nazioarteko higieztasuna, batik bat kapitalaren kasuan, eta beraz teknologia diferentziatua izatea herrialdez herrialde. Jakina da hipotesi hauek gaur egungo testuinguru globalizatuan ez direna betetzen eta, beraz, zalantzan ipintzekoa da eraikuntza teoriko honen oinarria bera.

Bi egile horiek herrialde arteko ondasunen prezioetako diferentziak hobari konparatiboaren oinarri bezala onartzen dituzte, baina beren analisiaren funtsa lan-balioa denez, ez dute azaltzen zergatik gertatzen diren prezio-diferentzia horiek. Hobari erlatiboaren teoria zutarritzat hartuz, Heckscher eta Ohlin egileek eskola neoklasikoaren paradigma erabiliz beren teoria eraiki zuten. Erabilgarritasunaren teoria aintzat hartuta merkataritza bideratzeko garaian herrialdeen arteko prezio-diferentziak analizatzen saiatu ziren bi egile suediar horiek. Haien esanetan merkataritzaren dinamikaren atzean ekonomia desberdinen arteko produkzio-faktoreen (lana eta kapitala) zuzkidura edo horniketa erlatibo diferentea dago. Horrela, herrialde bakoitzeko espezializazio produktiboa zuzenean lotzen zaio bertako produkzio-faktoreen zuzkidurari, hots, lan ugari eta merkea duen herrialde batek lan-eduki handiko produkzio-prozesuetan murgildu beharko litzateke eta kapital ugari duen herrialde baten espezializazio produktiboa inbertsio-maila handiko sektoreetan gauzatu beharko litzateke. Ondorioz, herrialde baten merkataritza-estrategia hauxe izango da: erlatiboki zuzkidura hoberena duen faktorean trinkoagoa den produkzio-prozesuan ekoiztutako salkaria esportatzea. Eta osterakoa da inportazio-estrategia bi egile horientzat, hots, zuzkidura eskaseko faktorea behar duen produkzio-prozesua alboratzea eta, beraz, hortik ekoiztutako salkaria atzerri-tik inportatu beharko litzateke.

Faktoreen zuzkidura desberdinaz harago, hipotesizat hartzen da ere produkzio-faktoreen ordainketarako egitura erlatiboa desberdina izatea herrialde bakoitzean, zeina herrialde bakoitzaren zuzkidura edo horniketaren arabera den. Eta faktoreen kostuak desberdinak direnez, ondasunek prezio desberdinak izango dituzte herrialde batetik bestera. Ikuspegi neoklasiko honetan ere produkzio-faktoreak higiezinak dira nazioartean, baina klasikoentzat ez bezala teknologia berdina da herrien artean. Teoria hauek guztiek merkataritzak nazioen arteko espezializazioa ekarriko duela aurreikusten dute eta, beraz, nazio bakoitzean esportazioen osaketa eta inportazioen osaketa oso bestelakoak izango direla. Horrela, aurreikuspen horren arabera merkataritzak industria arteko espezializazioa dakar, herrialde bakoitzean esportatzen diren salkariak eta inportatzen direnak diferenteak diren neurrian.

Nolanahi ere, XIX. mendeko testuinguru ekonomikoan hipotesi eta oinarri hauek balekoak izan zitezkeen arren, ez zaizkio gaur egungo errealitateari egokitzen, inondik ere. Produkzio-faktoreen higikortasuna oso zabala da gaur egun eta, hori horrela da batez ere kapitalaren arloan. Globalizazioarekin kapitalaren nazioarteko zirkulazioa erabat askea dela egiaztatu dugu bigarren kapituluan. Bestalde, teknologiaren apropiazio pribatu zorrotzak asko mugatzen du bere hedapena eta gaur egun oso luzea da herrialde batetik beste batera teknologiaren erabileran dagoen distantzia. Beste aldetik, teoria hauen ikuspegi estatikoari men eginez gero, faktoreen zuzkidura eta hobari konparatiboen egitura iraunkorra litzateke historian zehar. Baina, errealitate ekonomikoak nabarmen gezurtatzen du hipotesi hori, XX. mendeko merkataritzaren bilakaerari erreparatuz gero herrialde batzuek aldaketa sakinak ezagutu baitituzte beren faktoreen zuzkiduran eta abantaila konparatiboen egiturari. Hots, herrialde gehienek eskulanaren kualifikazioa, kapital-metaketa, ekipamendu-ondasunak etab., gehitu edo murriztu ahal dira herrialdeko produkzio-faktoreak eta eragileak mobilizatuz. Hori oso bistakoa da egungo herrialde emergenteen dinamika ekonomikoaren kasuan, baina baita Mendebaldeko herrialde askoren historian emandako industrializaziorako urratsetan ere.

Gainera Heckscher-Ohlin ereduaren faktore-zuzkidura oso desberdinak dituzten herrialdeen arteko merkataritza azaltzen saiatzen da —herrialde garatu eta garapen-bideko herrialdeen arteko trukeak esaterako— baina ez du erakusten antzeko faktore-zuzkidura duten herrialdeen arteko merkataritza. Hutsune hori are larriagoa da kontuan hartzen badugu merkataritza mota hori dela indartsuena eta hedatuena. Izan ere, aurreko atalean aztertu izan den bezala, munduko merkataritzaren zatirik handiena herrialde garatuen artean egiten da, oso antzeko faktore-zuzkidura duten herrialdeen artean alegia. Harago joanda esan daiteke ezen herrialde garatuen arteko trukeen zati oso garrantzitsua sektore berdinen baitako merkataritza gurutzatua dela, hots, *industria barneko merkataritza* bezala egituratzen dela. Beraz, errealitate horrek are gehiago urruntzen du bi egile horien teoria merkataritzaren egungo errealitatea azaltzeko tresna gisa.

Ikuspegi tradizional honek merkataritzaren errealitateari erantzun oso ahula ematen diola-eta, merkataritzaren paradigma eraberrituak garatu dira ondoren, perspektiba desberdinak kontuan hartzen dituztenak eta komunean eredu neoklasikoari egindako kritikak partekatzen dituztenak. Laburbilduz, industria barneko merkataritza azaltzen saiatzen direnak daude batetik, bestetik merkatu inperfektuei arreta berezia eskaintzen dietenak edo ikuspegi neoteknologikoa garatzen dutenak. Industria barneko merkataritza azaltzeko, besteak beste, Krugman edo Ethier egileek produkzioaren errendimendu gorakorrak, produktua bereiz dezaketen enpresak egotea edo kontsumitzaileen joera diferentziatuak azpimarratzen dituzte, beraz, merkatu inperfektuen egoera onartu egiten dute. Eskala-ekonomiak garrantzitsuak dira enpresentzat eta horrek eragiten du enpresek produkzioa lurralde jakin batzuetan kontzentratzea. Enpresa transnazionalen hedapena azaltzen du horrek eta kokapen gutxi batzuetako kontzentrazioak nazioarteko merkataritza areagotzen du ezarpen gutxi batzuetatik merkatu desberdinak hornitzeko egiten den ahaleginaren ondorioz. Industria barneko merkataritza azaltzeko enpresek beren produktuak bereizteko egiten dituzten publizitate, marka edo kalitate-ahaleginak eta kontsumitzaileen gustu diferentziatuak kontuan hartzen dituzte egile horiek. Kontsumitzaileen lehentasunen eta lurralde bakoitzean ekoiztitakoaren artean loturarik ez badago, industria-gai berdinak edo berdintsuak trukatzeko dira nazioartean.

Ikuspegi neoteknologikoen artean, Helpman, Romer, Pavit eta Dosi egileek Vernonen produktuaren bizi-zikloaren teoria oinarritzat hartzen dute. Egile horiek David Ricardok onartzen zituen herrialdeen arteko teknologia-desberdintasunak aintzat hartzen dituzte. Horrela, industria barneko merkataritza gauzatzen da, zeren antzeko merkantzien trukeek oso hurbileko beharrak asetzen dituzten arren, merkantzia horiek belaunaldi teknologiko desberdinetakoak baitira. Herrialde bakoitza produktuaren bizi-zikloaren urrats desberdinean aurkitzen denez, nazioarteko merkantzien trukea zertzen denean aurrerapen teknologiko diferenteen arteko produktuen merkataritza bideratuko da.

### ***3.2.2. Merkataritza-politiken orientazio orokorra***

Merkataritza-politika herrialdeen arteko merkataritza arautzen duen erregulazio multzoa da. Gobernuak merkataritza-politikako tresna ugari erabiltzen dituzte merkataritza-arloko helburuak lortzeko. Neurri horiek askotarikoak dira eta haien eraginak herrialdeak munduko merkatuen eta truke-harremanen gainean duen ahalmenaren arabera dira. Merkataritza-politiken hautu nagusia herrialdeko merkatuen irekitasun-mailaren ingurukoa da, merkataritzaren liberalizazioaren tamainarena alegia.

Nazioarteko merkataritza azaltzeko laburbildu diren teoria hauek guztiek merkataritzaren liberalizazioa hobesten dute trukean sartzen diren herrien onura gehitze aldera. Haatik, munduko herrialde gehienek merkataritza-politika anbiguoak

dituzte zeren liberalizazioaren erretorikaren azpian praktika protekzionista edo babes-praktika ugari ezkututzen baitira, globalizazioaren testuinguruan ere. Munduko Merkataritzaren Erakundeko partaide diren herrialdeek teorian merkataritzaren aldeko jarrera izan beharko lukete erakunde horren hastapenak partekatzen dituzten heinean. Baina, errealitatean herrialdeen ekonomia-politikaren lehentasuna tokiko industria eta ekonomia garatzea denez, babes-neurrietara jotzen dute sarritan egitura ekonomikoa bermatzeko aitzakiarekin. Babes-neurriak ezartzeko politika hau indartu egin da 2008an lehertutako krisiaren ondoren, ekonomia-ezgonkortasunaren aurrean herrialde bakoitzak bere ekonomiaren oinarriak ziurtatzeko merkatu nazionala kanpoko eragile ekonomikoetatik babestu egin nahi baitu.

Orobat, herrialde bateko merkatuak nazioarteko merkatuarekin duen lotura handiagoa edo txikiagoa izan daiteke bertako merkataritza-politikaren izaeraren arabera. Irekitasunaren aldeko politikak librekanbistak izan ohi dira eta, alderantziz, politika protekzionistek merkatu nazionalaren babesa dute xede. Bi konzeptuak herrialde edota merkataritza-eremu baten kanpo-irekitasun/itxitasun maila zehatza neurtzeko adierazpidea dira. Txanpon bakarraren bi aurpegiak dira. Kontzeptualki osagarriak dira, irekitasun/itxitasun eskala batean ez dago guztiz liberalizatua edo guztiz babestua dagoen herrialde edo merkataritza-eremurik. Erabateko merkataritza-liberalizazioa Europar Batasunean eta antzeko librekanbio-eremuetan gertatzen da eta, aldiz, herrialde autarkikoetan babesgintza osoa. Jardun arruntean bitarteko punturen batean kokatzen dira herrialdeetako merkataritza-politikak. Horrenbestez, azpimarratu behar da teorikoki liberalizazioaren aldeko politikak bultzatu arren errealitatean Estatuak etengabe hartzen dituztela babes-neurriak, aukera horrek epe laburrean berehalako etekinak eskaintzen dituelako.

Zehazte aldera, babesgintzaren helburua da herrialdeko produktu batzuentzat edo guztientzat nazio-merkatua ziurtatzea, horretarako produktu horien inportazioei sarrera-trabak ipiniz. Sarrera-traba edo babes-tresna erabilienean artean honako hauek daude: suspertu nahi diren ekonomia-jarduerei emandako diru-laguntza estatalak; inportazioei ezarritako kupo kuantitatiboak edota muga-sariak (inportazioen gaineko eskubideak edo tasak); muga-sariak ez diren trabak (inportazio-gaien gaineko arautegi teknikoak, administratiboak, osasun-arautegiak, etab. edota esportaziorako «borondatezko» mugak). Halaber, azken harmarkadako joera liberalaren ikurra izan diren Estatu Batuen merkataritza-legean, artikulua super 301 delakoan, haien interesen aurkakoa den merkataritza-jokabidea duen herrialdea zigortzeko neurriak aurreikusten dira.

Horrela, bada, helburu liberalizatzailea izanik herrialde eta erakunde askok egunez eguneko merkataritzan babes-neurriak erabili eta sendotzen dituzte maiz. Gainera, doktrina librekanbistek beraiek aurreikusten dituzte salbuespen-egoerak, zeinetan babes-praktikak onartzen diren.

---

## Babes-neurri garrantzitsuenak

### *1. Neurri kuantitatiboak*

#### *i. Muga-sariak edo aduana-zergak*

Muga-saria inportazioen gaineko zerga bat da eta helburu bikoitzarekin ezartzen da: Estatuarentzat baliabide fiskalak bermatzea eta dagokion produkzio-sektore nazionala babestea, muga-sariak kanpoko produktuen prezioa igoaraztean hauen lehia-ahalmena ahultzen baitute.

Hauen artean *ad valorem* muga-saria dago zeina inportatutako produktuaren prezioarekiko proportzionalki zenbatzen den. Beste muga-sari mota bat *eskubide zehatzak* dira, honen zenbatekorako ondasunaren ezaugarriak dira kontuan hartzen direnak eta ez prezioa.

#### *ii. Ikuskaritza-neurriak*

Babes-neurri *klasiko* honi neurri parekideak gehitu behar zaizkio, hala nola *dumpingaren* aurkako kitapenak eta esportazioari emandako *diru-laguntzak* eta kredituak. Diru-laguntza hauek esportazioko produktuen prezioak benetako merkatu askeko egoeran baino apalagoak izatea ahalbidetzen dute. *Dumping* praktika dagoela esaten da enpresa batek berea ez den herrialde bateko merkatuan produktua bere prezio arruntaren azpitik saltzen duenean. Prezio arrunta litzateke produktuaren kostu-egituraren ondorioz determinatzen den prezioa. *Dumpingaren* aurkako neurriak inportatutako produktuaren prezioa igoko luketen *dumpingaren* aurkako eskubide bezala bideratu ohi dira.

Gainera, sektore zehatz bati denboraldi mugatu batez aplikatzen zaizkion *salbuespen-klausulak* erantsi behar dira hemen. Klausula hauek nazioarteko merkataritza arautzerakoan ezarri ohi ditu MMEk eta herrialde bateko edo munduko sektore batek nazioarteko merkataritza askeko egoeran bizirauteko duen ezintasunean oinarritzen da.

#### *iii. Kuotak edo kontingenteak*

Kuota edo kontingenteen bidez produktu jakin batzuen inportazio askeari muga kuantitatiboa ezartzen zaio. Batzuetan kuoten tramitazioak Estatuarentzat diru-iturri mardulak ekartzen ditu inportaziorako baimenak onartzearekin parekatzen baita.

Munduko merkataritza zatitu eta bilateralismoa bultzatzen duten praktika hauek oso jarrera zorrotza izan du GATTek eta orain MMEk; izan ere, erakunde horrek merkataritzari eginiko murrizketa kuantitatibo oro salatu egiten du.

#### *iv. Muga-sariak ez diren oztopo kuantitatiboak*

*Bahimenduak* Estatu bateko produktu baten edo gehiagoren (baita guztiena ere) esportazioa galarazten du arrazoi desberdinak direla medio: zigorra, presioa edo errepresalia, besteak beste.

*Blokeoa* gerra-ekintza da enbargoa ez bezala. Blokeoak herrialde batekiko merkataritza galaraztea ez ezik, herrialde hori mundutik isolatzea ere du xedetzat. Horrela, neutralak

diren hirugarren herrialdeek ere blokeoaren bidez ezin dute merkataritzarik gauzatu herrialde kaltetuarekin. Blokeoen adibide franko dago historian zehar baina hurbilenak Iraki eginikoa eta Cubarekiko (Estatu Batuen *Helms-Burton* legeak ezarria) egun indarrean dagoena dira.

*Salbuespen-klausulak* ezartzen dira sektore zein denboraldi zehatz baterako, nazioarteko merkataritza libreko egoeran dagokion sektore nazionalari irauteko ezintasuna egiaztatzen zaionean.

*Esportaziorako Borondatezko Murrizketak* (Voluntary Export Restriction) Nazioarteko Ekonomi Ordenaren hierarkian garaiago dagoen herrialde batek (edo multzo batek) beste bati (edo batzuei) ezkutuko presioa dela medio ohiko esportazioak edo baldintza arruntetan egingo lituzkeen esportazioak oztopatzeko neurria da. Herrialde inposatzailea aise egin dezake ihes nazioarteko erakundeen salaketa batetik ezin baita bere jokabideari buruzko inolako frogarik antzeman.

## **2. Neurri ez-kuantitatiboak**

Gaur egungo babesgintzak ohiko muga-saridun babesgitzarekin zerikusi eskasa du zenbait arlotan. Neurri handi batez, bere aplikazioa ez da era irekian aitortzen, lehen baino praktika ezkutuagoa bihurtu da. Inportazioen gaineko eskubideak erabili ordez, egungo babesgintzak mekanismo ugarien bidez, maileguak, esportazioetarako diru-laguntzak eta muga-sariz kanpoko oztopoak abiarazten ditu.

Muga-sariz kanpoko oztopo hauek leunagoak izaki eraginkortasun handikoak dira. Aipatzeakoak dira, besteak beste:

\* Segurtasuneko *arau teknikoak* eta industrialak (*labelak*). Ofizialki ekoizpenaren kalitatea eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzea da arau hauen helburua.

\* *Osasun-arauak*, hauek eragina batik bat nekazaritza-gaietan eman ohi da.

\* *Merkatu publikoetatik atzerriko enpresei eginiko alboraketa*, horrela eskari publiko handiak hornitzaile nazionalen esku geratuz.

\* *Oztopo administratiboak*; etab.

Sarriagoak diren praktika hauek borondate oneko aldarrikapen librekanbistaren itxurapean mozorrotzen dira gero eta gehiago. Jarrera honen eredu Estatu Batuak dira, non bertako agintarien berba ofiziala merkataritza librearen aldekoa den baina bitartean «*super 301*» bezalako legeak indarrean dauden. Aipatu lege horrek Estatu Batuekin merkataritza-soberakin mardula duten herrialdeen aurkako neurri murriztaileak aurrikusten ditu.

### **3.3. MERKATARITZAREN GOBERNANTZA: MUNDUKO MERKATARITZA ERAKUNDEA (MME)**

#### **3.3.1. GATTetik MMEra**

II. Mundu Gerraren ostean, Nazioarteko Ekonomi Ordenaren zaindari gisa, nazioarteko erakunde batzuk eraiki ziren. Ekonomia-eremu desberdinak arautu eta erregulatzeko sortu zen nazioarteko sare instituzionala garai hartako nazioarteko

indar-korrelazioen isla izan zen. Hurrengo kapituluan aztertuko dugun bezala, nazioarteko moneta-eta finantza-sistemaren erakunde erregulatzaileak Bretton Woods-en sortu ziren, egundaino zutik dirauten Nazioarteko Diru Funtsa (NDF) eta Munduko Bankua indarrean jarritz. Baina, garai horretan ez zen nazioarteko merkataritzaren arloan erakunderik sortu, Merkataritzaren Nazioarteko Erakundearen egitasmoa bertan behera utzi baitzen. Estatu Batuen oposizioa zela medio, ez zen horrelakorik egin eta haren ordean nazioarteko merkataritzaren eremuan GATT hitzarmena sinatu zuten 23 herrialdek 1948. urtean. GATT —ondasunen merkataritzaren inguruko akordio orokorra— hitzarmen multilateralala da eta bere partaideen arteko merkataritza-harremanak ikuspegi librekanbista aintzat hartuz zuzendu zituen harik eta 1995. urtean Munduko Merkataritza Erakundea eraiki zen arte. Beraz, NDF edo Mundu Bankua ez bezala, GATT hitzarmen orokorra zen eta ez zuen izaera organikorik izan.

GATTen sorreratik muga-sarien oztopoen ezabapena eta merkataritzaren liberalizazioa izan dira haren xede nagusiak. Helburu hauen bitartez GATTek lehen eta orain MMEk nazioarteko merkataritza suspertu nahi izan dute, horrela bere onurak herrialde kideetara hedatuko direlakoan. Helburu horietaz gain, GATTek merkataritza-gaietarako hastapen bateratuak ezarri zituen eta gaur egun MMEk barneratu ditu. Hastapen horiek hiru dira:

1. Diskriminaziorik eza. Hastapen hau dela-eta partaide diren herrialde guztiei merkataritza-onura edo -hobari berberak ematen zaizkie. Bi klausulak osatzen dute hastapen horren mamia: «nazio faboratuenaren» klausulak eta «tratamendu nazionalaren» klausulak. Lehena, kanpora begira herrialde guztiek tratamendu berdina izango dutelako bermea da. Horrela herrialde partaide batek, Norvegiak kasu, beste bati, Ukrainiari esaterako, gariaren inportaziorako bere muga-saria % 20tik % 15era jaitea erabakiko balu, GATTeko partaide orok jaitsiera hori eskuratzeko eskubidea edukiko luke<sup>11</sup>. «Nazio-tratamenduaren» klausularen bitartez inportazioko produktuek barne-produktuak dituen eskubide berak dituzte.

2. Bigarren hastapena: merkataritza-oztopo guztien ezabapena. Hemen sartzen dira, muga-sarien murrizketa, muga-sariez besteko oztopoak edo trabak, *dumping* praktiken eta diru-laguntzen ezabapena eta kuoten debekua.

3. Hirugarren hastapena, GATTen funtzionamenduari dagokio eta hastapen honek dio berau kontsulta eta ekintza kolektiboaren sistema baten bidez bideratuko dela.

---

11. Adibidez, Argentina, Uruguai, Estatu Batuak... eta gari-ekoizleak diren beste herrialdeek Suediako merkatuan garia saltzerakoan ordaindu beharko luketen muga-saria % 15 izango litzateke klausula honi esker.



Alabaina, sorrera-hastapen hauen aplikazioa gauzatzekoan GATTek berak aurreikusitako salbuespen batzuk badira. Nabarmenenak honakoak dira:

1. hastapenaren salbuespenen artean: merkataritza libreko eremuak (EFTA, EB, NAFTA, Asean...), non eremuko herrialde partaideen artean ondasun eta zerbitzuen zirkulazio librea dagoen baina eskubide berbera ez dagokio eremutik kanpo dagoen beste herrialde bati. Beste salbuespen bat lehentasun orokortuen sistema (LOS) da, zeinaren bidez Hirugarren Munduko herrialde askok merkataritza hobariak dituzten.

2. hastapenaren salbuespenen artean aurkitzen dira pagamendu-balantzan zailtasun larriak dituzten herrialdeak; merkatuen antolakuntzan arazoak dituztenak eta nekazaritza-sektoreko hainbat egoera bereziko herrialdeak. Herrialde batek aipatu salbuespenen bat egiaztatzean ez du dagokion hastapena bete beharko eta negoziazio-txanda edo -erronda bakoitzean hartutako erabakien aplikazioa albor dezake.

GATTen funtzionamendu era negoziazio-txanda edo -errondetan gauzatu zen. GATTen garaian zortzi izan ziren txanda guztiak eta azkenekoan, zortzigarrenean alegia, GATTen ordeztako merkataritza-erakunde berria sortzea erabaki zen: Munduko Merkataritza Erakundea (MME).

GATTeko zortzi errondetan zehar hartutako erabakiek muga-sarien jaitsiera nabarmena ekarri zuten eta batik bat industria-gaietako sariak izan ziren murrizketa ezagutu zutenak. Genevako lehen errondan muga-sarien eraispen indartsua eman zen. Ondoren ez zen halako muga-sarien jaitsiera nabarmenik gertatuko Kennedy izenpean ezagutzen den erronda itxi arte (3.7. taula). Hasieran herrialde partaideen arteko binakako akordioak orokortu ziren modu errazean baina gerora mekanismo hori zaildu egin zen. Seigarren errondatik aurrera herrialde partaideen arteko negoziazioak modu multilateralean bideratu ziren gaiak gero eta *sentikorragoak* edo problematikoagoak ziren neurrian eta haien eraginkortasuna berpiztu egin zen muga-sarien murrizketen tamainak erakusten duen bezala. Ondorioz, ondasunen gaineko ondarreko muga-saria gero eta apalagoa egin zen eta 6. errondan hasi zen bizkortzen berriz ere muga-sarien jaitsiera-prozesua. Horrela, Uruguaiko Erronda itxi zenean muga-sariaren pisua 1930. urtekoaren % 13 baino ez zen.

### 3.7. taula. GATTen negoziazio-errondak.

Erronda	<i>Kideen</i>	<i>Partaideen</i>	<i>Muga-sarien</i>	<i>Gainerako</i>	<i>Mugasariz</i>	<i>Kanpoan utzitako</i>
	<i>kopurua</i>	<i>munduko</i>	<i>batez besteko</i>	<i>muga-saria</i>	<i>besteko</i>	<i>gaiak</i>
		<i>merkataritza</i>	<i>murrizketa</i>	<i>1930ekoaren</i>	<i>oztopoen</i>	
				<i>ehuneko gisa</i>	<i>erregulazioa</i>	
1. Geneva, 1947	23	% 57	% 21,1	52,7	ez	nekazaritza
2. Annecy, 1949	33	-	% 1,9	51,7	ez	nekazaritza
3. Torquay, 1950-51	34	% 67	% 3,0	50,1	ez	nekazaritza
4. Geneva, 1955-56	22	-	% 3,5	48,9	ez	nekazaritza
5. Dillon, 1961-62	45	-	% 2,4	47,7	ez	nekazaritza
6. Kennedy, 1964-67	48	% 73	% 36,0	30,5	zerbait	nekazar., ehungintza
7. Tokio, 1974-79	99	% 85	% 29,6	21,2	bai	nekazar., ehungintza
8. Uruguai, 1986-94	124	% 89	% 38,0	13,1	bai	Barneratuta: nekazaritza Ehungintza, zerbitzuak eta jabego intelektuala

Iturria: Varela Parache eta Diaz Mier (1998) eta MME (2000).

Hain zuzen, muga-sarien murrizketaren inguruko hitzarmenak izan dira nagusi errondetan zehar. Nolanahi ere, muga-sarien jaitsierari dagokionez, hori manufakturen merkataritzan gauzatu da, beste gai guztiak baztertuta egon izan baitira GATTen agendan oso berandu arte. Muga-sariak ez diren bestelako merkataritza-oztopoak (MBO) GATTeko Kennedy errondan barneratu ziren lehenengo aldiz liberalizazioaren agendan. Horren ondoren muga-sariz besteko oztopoak erronda guztietako eztabaidagai nagusietarikoa izan dira, babesgintza era berriak ekonomia-atzeraldietan indartzuz joan diren neurrian. 3.1. taulak errondaz erronda agendatik kanpo utzitako arloen berri ematen du ere. Lehen zazpi errondetan nekazaritza negoziazio-esparrutik at geratu zen, Mendebaldeko herrietako nekazaritza-ustiakuntzetako laguntzak eta babes-neurriak zalantzan jartzeko arriskuari aurre ez egitearren. Aipatzekoa da ere GATTeko *eremu grisa* izenarekin ezagutzen den negoziatio-esparrua Tokioko errondan abiatu izana. *Eremu grisa* akordioen inguruko salbuespenen esparru zabala da (salbuespen-neurriak, *dumping*aren aurkako neurriak, esportazioetarako diru-laguntzak, dagoeneko eraitsi den AMF akordio protekzionista, etab.). Eremu honek planteatzen duen arazoa hau da: herrialde eta eragileek akordioen aldekarreko interpretazio eta irakurketa interesatuak egitean gatazka sorrarazten dutela eta ebazpen argirik ezean akordio ilun horien kudeaketa aldekarrekoa garatzen dela. Jakina denez, egoera zalantzakorraren aurrean herrialde indartsuenek beren ikuspegi partikularra ezarri ohi dute ikuspegi multilateral edo aldeaniztunaren kaltean.

Azken erronda, Uruguaiakoa hain zuzen, 1986an hasi eta 1994an amaitu zen, aurreikusitakoa baino lau urte beranduago, zailtasun ugarik eta interes kontrajarriek horretara bultzatuta. GATTeko herrialde partaideak Uruguaiako Errondan 1986an bildu ziren lehenbizikoz, 80ko hamarkadaren erdialdeko nazioarteko merkataritza-testuinguruak horretara behartuta. Sasoi horretan merkataritza-politikan

gero eta babes-neurri indartsuagoak hartzen hasiak zeuden eta horren erakusle izan zen Estatu Batuen aldebakarreko esku-harmena, «super 301» legearekin adibidez, bere merkataritza-interesen kontra ari denari enbargoa ezartzeko aukera ematen du. Estatu Batuen esku-harmenak bere neurrira eraikita zegoen GATTen funtzioa eta instituzio-egitura zalantzan ipintzen zituen. Ordura arteko muga-sarien murrizketa-prozesuak babes-neurri berriak muga-sariz besteko oztopoen indartzea ekarri zuen. Gainera, garapen-bideko herrialdeen ekonomian nazioarteko merkataritzak zituen ondorioak eta errealitatea zirela-eta, kritikak ugarituz ari ziren. Beste alde batetik, nazioarteko merkataritzaren errealitatea aldatzen hasia zegoen garai horretan, merkataritzaren hedapena gero eta zabalagoa zen, enpresa transnazionalen inbertsioek merkataritza-arloko eragile hauen presentzia indartzen zuten, ordura arte ezagutzen ez zen zerbitzuen merkataritza zabaltzen ari zen eta nekazaritza-arloa ere GATTen barnean arautzea ezinbestekoa zen. Horrek guztiak, 80ko hamarkadaren erdialdean merkataritza multilateralaren sistema indartzeko beharra erakutsi zuen, hots, GATTen eta haren erregulazio-sisteman neurri berriak hartzeko tenorea zen. Horregatik, GATTen erronda berri bati ekiteko garaiko asmoa gorpuztu egin zen 8. erronda Uruguaiako Punta del Esten 1986an abian jarri zenean.

GATTen 8. erronda aurreikusi baino lau urte beranduago amaitu zen, zenbat alorretan adostasunik ezagatik akordiorik lortu ez zelako. GATTen azken errondaren emaitza inportanteenetariko bat Munduko Merkataritza Erakundea (MME) eratzea izan zen. Harrezkero, MME GATTen lekua betetzen ari da berau erabat ordezkatzuz eta haren filosofia, hastapenak eta ebazpen guztiak bereganatu egin ditu. Beraz, egungo munduko merkataritza erregulatzen eta arautzen dihardu MMEk, zeinak, GATTek ez bezala, izaera instituzionala duen. MMEren zeregin orokorra merkataritza multilateralaren arautegiaren kudeaketa edo gestioa da. Kudeaketa-betebehar horretan hainbat sail bereiz ditzakegu arautegiaren helburuaren arabera. Uruguaiako Errondaren mandatua izan zen MME hiru ardatzez osatuta egotea: aipatu dugun GATT bera alde batetik, GATS zerbitzuen merkataritzari egokitutako merkataritza-akordioa bestetik, eta merkataritzarekin erlazionatutako jabego intelektualak —TRIPS delakoa— eta inbertsioak —TRIMS— hirugarrenez.

### ***3.3.2. Munduko Merkataritza Erakundearen egitura eta funtzioak***

Bere sorreratik MMEren helburu operatiboak izan dira Uruguaiako Errondako akordioak finkatzea eta garatzea arlo nagusietan, hots, manufakturetan ez ezik zerbitzuetan, nekazaritzan eta TRIPS edo jabego intelektualaren eremuan. Areago, MMEren eragin-eremua zabaltzeko ahaleginak izan dira bere ibileraren hasieratik bertatik. Hala izan zen esaterako Singapurreko goi-bileran Mendebaldeko herrialdeek MMEren agendan hainbat gai gehigarri barnertatzeko egindako saiakerarekin, hala nola inbertsioak (Inbertsioen Akordio Multilateral), pribatizazioak, merkataritzarekin lotutako konkurrentzia, merkatuen irekiera edota lan zein ingurumeneko arauak.

Aurreratu dugun legez, GATTen azken errondetako oztopo kuantitatiboen murrizketarako ebazpen nagusiak manufakturaren arlokoak izan dira eta MMEk horiek heredatu egin ditu osorik. Horrela, bada, MMEk manufaktura-gaiek izandako muga-sarien murrizketa historikoak bereganatu egin ditu, baita Uruguaiako Errondan adosturiko batez besteko % 33ko jaitsiera ere. Beraz, liberalizazio-prozesu indartsu baten ondoren gaur egun industriaren arloko muga-sariak oso apalak dira nazioarteko merkataritzan. Arlo horretako atal babestuenean ere, ehungintza-sektorean alegia, garapen-bideko herrialdeen interesen aurka hamarkadetan indarrean egon den Multifibra Akordioa (MFA) dagoeneko eraitsi egin da. Mendebaldeko herrietako ohialgintza- edo ehungintza-sektorearen aldeko babes-hitzarmena izan da MFA akordioa eta paradoxikoa dirudien arren GATTen baitan sortu eta kudeatu izan da hitzarmen protekzionista hau 2005. urte arte. GATTen bigarren hastapenaren kontra egin arren MFA indarrean egon da hastapen horren barneko salbuespen gisa, liberalizazioarekin Mendebaldeko herrietako ehungintza-sektorean merkatuaren antolakuntzarako arazoak egon zitezkeela argudiatuta. GATTeko azken errondan garapen-bideko herrialdeek lortu zuten gaia barneratzea eta eztabaidatua izatea. Uruguaiako Errondaren amaierarekin hamar urteko epean hitzarmen horren eraipen orokorra adostu zen. Eraispenerako trantsizio-epe hau luzeegizat jotzen zuten garapen-bideko herrialdeek baina azkenik Mendebaldeko herrialdeen jarrera nagusitu zen, ehungintza-sektorearen munduko merkatuarekiko egokitzapena gauzatzeko hamar urteko epealdian nahikoa denbora izango zutelakoan.

Nekazaritza-produktuen arloan lehen aldiz erabaki sendoak hartu ziren Uruguaiako Errondan: babestutako nekazaritza-merkatuak irekitzeko ebazpena adostu zen lehen aldiz GATTen historian. Arlo honetan, nekazaritza-espazioei emandako diru-laguntzen beherapena onartu zen baita ere, horren aplikazioa batez ere Europar Batasunaren eta Japoniaren eskuetan egonik. Zerbitzuena MMEren barnean dagoen sail berria da. Uruguaiako Errondan GATS delakoaren sorrera onetsi zen. GATS zerbitzu-merkataritzaren erregulaziorako akordio orokorra da, hots, GATTen eraikuntza bera litzateke baina zerbitzuen arloari egokitzen zaiona. Beraz, GATSen mamia eta helburuak GATTek definitutakoak dira. Dena den, MMEren abiaraztean honek hartu zuen GATS garatzeko agindua eta ardura. MMEren eginkizuna izango da GATS edukiz betetzea; izan ere, Uruguaiako Errondaren amaieran ez ziren alor honetan agendako onespenerako puntuak adostu eta orain arte garapen urria ezagutu du. Ikus-entzunezkoen arloan, finantza-zerbitzuen arloan edota mota desberdinetako garraioenean Estatu Batuen eta Europar Batasunaren arteko liskarrak gaindiezinak suertatu ziren.

MME osatzen duen azken saila jabego intelektualarena —TRIPS— da, Uruguaiako GATTen azken errondan eztabaidatu eta onartu zena. Desadostasun handienak jabego intelektualaren eskubideen erregulazioan sortu ziren. Mendebaldeko herrialde garatuek produktu edota teknologiarik atxikitako egile-eskubideak, marka, industria-diseinua, patenteak, etab. babestu egin behar direla zioten.

Garapen-bideko hainbat herrialde teknologia-ezaupideak ezabatzearen eta bertako herri-ezaupideak Iparraldeko enpresa erraldoien menpeko eskubide gisa geratzearen beldur azaldu ziren.

Munduko Merkataritza Erakundeak berezko egitura instituzionala du. Horrek eragin zuzena du nazioarteko merkataritzaren oinarrietan eta, oro har, munduko gobernagarritasunaren esparruan. Haren erabakigune nagusia gutxienez bi urterik behin batzartu behar den Ministerio Konferentzia da. MME sortu zenetik sei ministerio-konferentzia garatu dira, laukian agertzen direnak hain zuzen ere.

***MMEren Ministerio Konferentziak***

1. Konferentzia: Singapur (1996).
2. Konferentzia: Geneva (1998).
3. Konferentzia: Seattle (1999). Milurteko Erronda.
4. Konferentzia: Doha (2001). Garapenaren Errondaren irekiera.
5. Konferentzia: Cancun (2003). Garapenaren Erronda.
6. Konferentzia: Hong Kong (2005). Garapenaren Erronda.

Lehen bietan ministeritza-aldarrikapenak plazaratzen dira eta teknologia eta merkataritza elektronikoaren inguruko akordio mugatuak hartzen dira. Hirugarren konferentzia Seattlen gauzatu zen eta erantzun sozialaren indarrak konferentzia bertan behera uztea ekarri zuen. Geroztik eragile sozialak nolabaiteko presentzia —formala izan ala informala— izaten ari dira ministerio-konferentzietan. Laugarren konferentzia Dohan izan zen eta bertan Garapenaren Erronda jarri zen indarrean, Dohako Erronda izenaz ere ezagutzen dena, alegia. Dohako Erronda honek Cancunen zein Hong Kongen garatu ziren 5. eta 6. ministerio-konferentzietan izan zuen segida baina arrakasta handirik gabe. Gaur egun ere oraindik itxi gabe dago aipatutako erronda hurrengo atalean aipatuko ditugun arazoak tarteko direla.

Nolanahi ere, MMEk bere Kontseilu Orokorraren bidez jardun iraunkorra gauzatu du ministerio-konferentzien izenean. Kontseilu Orokorrek bi zeregin gehigarri ditu, merkataritza-gatazkak sortzen direnean irtenbide multilateralak ezartzeko arbitraje- eta zigor-funtzioa lehena, eta bigarrena, kideen merkataritza-politikak aztertze funtzioa. Horrela, gainerako erakunde multilateralek ez duten ezaugarri berezi eta apartekoa du MMEk, Diferentzien Konponketarako Organo izenaz ezagutzen den tresna, alegia. Beraz, MMEren baitako arautegia betetzen ez duen herrialde kidearen gainean zigorra ezartzeko ahalmena du tresna horren bidez MMEk berak. Halere, Estatu Batuetako proposamen bati men eginez, dumping-aren aurkako neurriak organo horren eskumenetik at geratu dira. Baina merkataritzarekin lotutako gainerako gaitan arbitraje-funtzioa eta zigorra ezartzeko aukera bereganatu du MMEk. Ahalmen horrek aparteko bultzada ekarri dio MMEri, hala merkataritzaren arloan muga-sariz besteko oztopoen inguruko araugintzan nola

merkataritzaren arloan kokatzen ez diren hainbat gaitan —nazioarteko inbertsioak edo ingurumen-arazoak esaterako—. Azken horiei dagokienez, erakunde honen negoziazio-agendan barneratzen ahalegin berezia egin izan dute eragile eta herrialde ugariak MMEk orain duen eskumen aparteko honen funtzionaltasuna dela-eta.

Alabaina, instituzionalizazio-bide berri honek MMEko herrialde kideen subiranotasunaren galera nabarmena dakar, gainerako erakunde multilateralen kasuan gertatzen ez den bezala. Hainbat salbuespen-klausula egoteak kideei nola-baiteko eragin-ahalmena eskaini arren, oso nabarmena da kideek subiranotasunean nozitzen duten galera. Bi funtzioek berez dakarten galera indartu egiten dute MMEren bestelako funtzionamendu-baldintzek ere. Horren inguruan, lehenik eta behin, MMEk negoziazio-erronda bakoitzean kide guztiak adostasun bakarrera iristera behartzen ditu, hau da, akordio guztiak batera eta inola ere ez zatietan onartzera. Beraz, Uruguaiako Erronda bitartean erabili zen *norberaren neurriko* GATTen aplikazioa ez da aurrerantzean onartzen. Hori onartuko ez lukeen kidea MME utzi beharrean aurkituko litzateke eta kide berria izateko arautegi multzo osoa aintzat hartu beharko du herri partaide berriak ezinbestez bere legedia horretara egokituz. Jakina da ere oraingo betekizun berri honek zailago egiten duena konferentzietan akordioetara iristeko aukera, eta horren adibide da 2008. urtean Suitzan behin eta berriro Dohako Erronda modu positiboan ixteko aukerak porrot egin izana. Herrialde kideen subiranotasunaren galeran MMEren diferentzien konponketarako mekanismoak ere sakontzen du; izan ere, horren bidez akordioen batekin talka egiten duten politikak aldatzera behartuta dago Estatuak. Gainera, merkataritza-politikak aztertzeke funtzioak eskatzen du MMEren partaide guztiak aldiro azterketapean egotea MMEko akordioen betekizun-maila neurtzeko. Beraz, beren merkataritza-politiken aukerak mugatzean autonomia-maila murrizten duen nazioz gaindiko lege-esparrua onartzen dute herrialde partaideek.

Bestalde, MMEren baitan estatu bakoitza boto baten jabe da eta teoriarik erabakiak kontsentsuz hartzen diren arren, praktikan erakunde honek erabakiak hartzeko mekanismo informalak GATTetik heredatu ditu. Horrenbestez, jakina da erabaki-prozeduretan herrialde aberatsek nagusitasuna dutena eta prozedura informal horiek kritikatu izan direna gardentasun eta demokrazia faltagatik. Horrela, bistako botere-disparekotasunak sortu dira eta horrekin batera gatazkak MMEren barnean Mendebaldeko herrialde indartsuen eta garapen-bideko herrialde emergenteen zein gutxien garatutako herrien artean.

### 3.3.3. MME eta liberalizazio asimetrikoa

Merkataritzaren liberalizazioan egindako urratsak kritikatu Seattleko Konferentzian hainbat eragile eta talde sozialek (sindikatuak, GKEak, talde ekologistak, etab.) bilkura horren aurkako jarrera aktiboa hartu zuten. Zalantzan jarri zuten merkataritzaren onuren herrialde arteko banaketa eta garapen-bideko herrialdeentzat


—batik bat txiroenentzat— bestelako merkataritza-neurriak eskatzen zituzten. Horrenbestez, Dohan 2001. urteko laugarren ministerio-konferentzian garapen-bideko herrialdeen interesak gehiago babestuko zituzkeen negoziazio-erronda berria ireki zen. Erronda horren izenburu ofizialak ere hori bera laburbiltzen du; izan ere, Garapenerako Dohako Egitaraua edo Garapenaren Erronda gisa da ezaguna ere Dohako Erronda. Esan gabe doa, erronda horrek zailtasun larriak izan dituela urratsak emateko eta horren isla da 2009an itxi gabe egotea, noiz eta 2005ean aurreikusten zenean haren amaiera. Garapena aitzakia bihurtu izan zen hasieratik bertatik, argi geratu baitzen Mendebaldeko herrialdeek agenda zein emaitza beren interesen neurritara ipintzeko nahia. Horren adibiderik gorena da Mendebaldeko herrialdeek arloka hartzen duten jarrera disparekoa. Hain zuzen nekazaritzan liberalizazioaren aldeko neurriak atzeratzeko jarrerari eusten dioten bitartean manu-fakturretan eta zerbitzuen arloan liberalizazio bizkorra bultzatzen dute.

Nolanahi ere, Hong Kong hirian 2005ean adostutako neurriek arnasa eman zioten Dohako Errondari, zeren lehen aldiz horietako gehienak garapen-bideko herrialdeen aldekoak izan baitziren. Aurrenekoz, nekazaritza eta garapenari laguntzak bideratzeko neurriak negoziazioetako erdigunea izan ziren eta bertako muina ondoren aztertuko dugu. Gainera Gutxien Garatutako Herrialdeen aldeko ekime-nak hartu ziren: Everything But Arms, herrialde aberatsek gutxi garatutako 49 herrialderi beren merkatuetarako sarbide librea ahalbidetzen zien akordioa hitzartu zuten. Garapenaren aldeko neurri garrantzitsua izan arren, praktikan eragin eska-sekoa da GGH horiek ahalmen esportatzaile oso urria dutelako. Horrelako neurriek Dohako Errondaren blokeoa irekitzea lortu zuten arren, 2006az geroztik erronda horretan adostasunak erdiesteko ahalegin gehienek huts egiten dute. Gatazka-gune nagusiek ondokoak izaten jarraitzen dute: herrialde garatuetako nekazaritzaren liberalizazioaren tamainak eta herrialde emergenteetan nekazaritza-gaiak ez diren ondasunen eta zerbitzuen liberalizazioaren mailak.

### *Nekazaritzaren liberalizazioa*

Azken erronda honetako agendan nekazaritzaren liberalizazioa sartzea lortu zuten garapen-bideko herrialdeek. Aspaldiko aldarrikapena izanik, garapenaren aldeko erronda ulertezina zen nekazaritza aintzat hartu gabe. Gainera, Uruguaiako Errondan jada barneratu egin zen nekazaritza, besteak beste, Mendebaldeko hainbat herrialdetako aurrekontuetan arazoak sortzen hasiak zirelako nekazaritzari bideratzen zitzaizkion diru-laguntzak. Arlo honetako helburua izan da esportazioei ematen zaizkien diru-laguntzak zein merkataritzan arazoak sorrarazten dituzten barneko diru-laguntzak ezabatzea. Merkatu hauetako liberalizazioa helburutzat hartuta ere, behin eta berriro mahai gainean nekazaritzaren funtzioarekin lotutako gaiak (ingurumenaren babesa, elikadura-segurtasuna eta subiranotasuna edo landa-garapena) zein herrialde txiroenen interesak zaintzeko beharra egon da. Haatik,

merkataritzaren liberalizazioan emandako urrats sektorialak oso desore-katuak izan direla ezin da ahaztu eta horren ispilua da 3.8. taulak adierazten duen errealitatea. Bertan Mendebaldeko herrialdeetan Dohako Erronda hasi zeneko muga-sarien egitura erakusten da. Orduan, gaur egun bezala, nabarmen handiagoak ziren nekazaritza-gaiei Mendebaldeko herriek ezarritako muga-sariak manufakturrekin alderatuz gero.



Aipatzekoa da nekazaritza-merkataritzaren liberalizazioan dauden interesak oso kontrajarriak direla hala herrialde garatu nola garapen-bideko herrialdeen artean. Lehenengoen baitan liberalizazio-prozesuan geldoago joatearen aldeko jarrera du Europar Batasunak Estatu Batuekin alderatuta. Europar Batasunak lehen aipatu dugun nekazaritzaren ikuspegi multifuntzionala ere modu esplizituan sostengatu izan du, protekzionista den Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) eraispena sahieste aldera. Horrela, bada, negoziazio-prozesu honi aurre egin ahal izateko, sektorea ere oso babestua duen Estatu Batuetan ez bezala, Europar Batasunak bere NPBen aldaketa sakonari ekin behar izan zion.

Baina, garapen-bideko herrien artean ere interesak ez dira bateratuak arlo honetan. Besteak beste G-21 taldea dago —Cairnseko taldea izenez ere ezagutzen dena—. India, Brasil, Txina, Hegoafrika... garapen-bideko herrialdeek osatzen duten talde horren ezaugarria da nekazaritzan ekoizle efizienteez osatua egotea. Xede nagusia da nekazaritzan ematen diren diru-laguntza guztiak ezabatzea eta horretan bat dator *agrobusiness* edo nekazaritza-enpresa handi eta eraginkorrek sostengatzen duten jarrerarekin. Talde horren indarra eta esangura apartekoa da munduko biztanleriaren erdia eta nekazarien bi herenak bertan aurkitzen ditugulako. Talde horretan arrakastaren isla da globalizazioaren baitan lehen mailako agente politiko bihurtu izana Estatu Batuekin edo Europar Batasunarekin interlokuzio zuzena izateraino. Horrela, Hegoaldeko herrialdeen baitako lankidetzarako



bide posiblea urratzen ari dela esan liteke eta 2008an krisiaren larritasunaz mundu-mailako goi-bilerak G-20 foroaren inguruan antolatu zirelarik garapen-bideko herrialde emergente batzuk talde horretakoak izatea da emaitzetariko bat. Haatik, nekazaritzaren liberalizazio-prozesua arriskutsua izan liteke garapen-bideko herrialde txiroentzat, batetik nekazaritzaren diru-laguntzak murriztean ondasunen prezioak igo litezkeelako eta, bestetik, bertako nekazari txikientzat egoera larria bihur litekeelako G-20ko herrialdeetako nekazaritza-enpresa handiek egin leza-keten lehia dela medio (elikadura-segurtasunerako arriskua lekarke horrek).

Dohako Errondaren baitan Hong Kongen 2005ean garatutako konferentzian hartutako neurrien artean aipatzekoak dira, kotoiaren produkzioari zein esportazioari herrialde garatuek ematen dizkieten diru-laguntzak zein nekazaritza-gaien esportazioei emandako diru-laguntza guztiak 2013an ezabatzeko hartutako konpromisoak. Haatik, kontuan hartu behar da nekazaritzan ematen diren diru-laguntzetatik txikiena dela hauxe, esaterako Europar Batasunaren nekazaritza-gastu guztiaren % 3,6 bakarrik ordezkaten du esportazioei emandakoak. Ekoizpenari edo ustiakuntzari emandako gainerako diru-laguntzak ez dira aipatzen konpromiso horretan. Beraz, ezin da esan Hong Kong izan zela nekazaritzaren liberalizazio-prozesuan aparteko urratsa. Nekazaritzan efizienteak diren GBHek beren negoziazio-agendan nekazaritzaren liberalizazioaren asmoari ia bere horretan eusten diote.

### ***Zerbitzuen liberalizazioa***

Dohako Errondako beste negoziazio-arlo esanguratsua zerbitzuen da. Aztertu denez, zerbitzuen nazioarteko merkataritzaren presentzia asko zabaldu da azkenaldian eta errealitate horrek bultzatu zuen GATTeke Uruguaiako Errondan arlo hori barneratzera GATS akordioaren bitartez. Mendebaldeko herrien presioei jarraituz, zerbitzu mota ugariagoetara zabaltzeko ahalegina egiten da Dohako Errondan. Zerbitzuetako merkataritza-babesa erregulazio nazionalaren bidez gauzatu ohi da, ondasunen muga-sarien eta kuoten sistematik aldeniduz. Zerbitzuen arloko oztupoek lege- eta administrazio-kutsua dute, hala nola enpresak ezartzeko lizentziak eskuratzeko trabak edo debekuak ipintzeak, egoitza edo herritartasunaren eskakizunak, atzerriko kapitala kokatzeko baldintzak edo mugak ezartzeak, etab. Horrela, bada, ezinbestekoa da zerbitzuen merkataritza liberalizatzeko nazio-legedia aldatzea.

Arlo honetako arazoetariko bat zerbitzuak nazioartean merkaturatzeko dauden bideak ondasunenak baino konplexuagoak izatea da. Zehazki, zerbitzuak nazioartean merkaturatzeko aukerak lau dira —lau modu bezala ezagutzen direnak—. Lehen modua zerbitzu baten mugaz gaindiko horniketa da. Modu honetako adibideak dira mugaz harago eskaintzen diren posta-zerbitzuak, mezularien edo Internet bidezko zerbitzuak, aholkularitza juridikoa, hezkuntza, etab. Bigarren moduan kontsumitzaileek zerbitzua hornitzen duen herrialdean egiten dute erosketa, turismoa izanik horren adibide nagusia. Hirugarren modua zerbitzuen horniketa egiteko enpresa atzerrian ezartzean datza —ETNaren filialaren bidez eskuarki—.

Azkenik, laugarren moduaren bidez, pertsona fisikoak zerbitzua hornitzeko behin-behinekoz beste herri batera desplazatzen dira. Azken modu horretan lehiarako abantaila dute GBHek eskulan ugari eta erlatiboki merkeagoa dutelako. Herrialde garatuen interes handikoa da garapen-bideko herrialdeek lehen hiru moduetako liberalizazioari ateak zabaltzea. Hori horrela da herrialde horiek direlako nagusi eta lehiakorrenak zerbitzu-funtzio gehienetan: telekomunikazioak, finantza-zerbitzuak, turismoa, aseguruak, enpresentzako zerbitzuak, etab. Errealitate honi modu zuhurrean erantzuten diote GBHek. Batetik herrialde emergenteak beldur dira beren zerbitzu-enpresa garrantzitsuenek kanpoko lehiaren bidez beren posizioa galtzeaz. Bestetik, herri txiroenak ez ziren egon Uruguaiako Errondako negoziatioetan eta arlo honetako liberalizazioak beren oinarritzko zerbitzuetako narriadura ekar lezakeela uste dute, zerbitzu publikoena alegia, batez ere zerbitzu horietako prezio-igoerek murriztu egiten dutelako sektore ahulenen hornidurarako aukera. Nolanahi ere, arrisku horren aurrean MMEk malgutasun-mekanismoak ditu eta gutxi garatutako herrialdeei lehentasunezko tratua eskaintzen zaie, esaterako, inportatutako zerbitzuei tratu nazionala eskaintzerakoan. Eztabaidagarria da, dena den, malgutasun hori nahikoa den eta zenbaterainoko maniobra-aukera ematen duen.

Nolanahi ere, GBHek badute ere zerbitzuen liberalizaziotik onura ateratzeko aukera eta, ondorioz, ez diote guztiz muzin egiten bide horri. Esaterako, lehen moduan zerbitzu batzuen lekualdaketen ondorioz onura jaso dezakete edo bigarren moduan turismoaren hedapenari itxaropenez begiratzen diote GBHek. Baina, herrialde horientzat arlo honetako erronka nagusia laugarren moduaren liberalizazioa da. Izan ere, 4. moduaren liberalizazioak ez luke kostu gehigarriarik ekarriko GBHentzat eta bai, aldiz, onura eta etekin ekonomiko garrantzitsurik. Halere, modu horrek zerbitzuen nazioarteko merkataritzaren % 1 eskasa ordezkutzen du (Munduko Bankua, 2004) eta, beraz, lan handia aurreikusten da modu horretan liberalizaziorako urrats efektiboak emateko. Herrialde garatuek 4. moduaren liberalizazioan aurrerapausoak emateko duten beldurra da beren herrietako langileen lan-baldintzak eta negozioen jarraipena narriatuko lirakeela ezinbestean. Baina, kontuan hartu behar da herrialde garatuetan atzerriko langileak epe mugatu batez zerbitzu bat eskaintzeko kontratatutak izateko aukera MMEren bidez egiteak, orain arte bilateralki egin izan denean ez bezala, diskriminazioa saihestuko lukeela eta eraginkortasun handiagoa ahalbidetuko lukeela. Horren emaitza litzateke, GBHek izugarritzko etekin ekonomikoak eskuratzea eta orain arteko GATS barruko liberalizazio asimetrikoa zuzentzen hastea.

### ***Nekazaritza-gaiak ez diren bestelako ondasunen liberalizazioa (NAMA)***

Aurreko errondetako muga-sarien eta oztopoen murrizketa nagusiak arlo honetan lortu ziren, manufaktura-gaien merkataritzan izandako liberalizazioa tarteko. Alabaina, prozesu horren amaieran manufaktura-gaien muga-sariak handiagoak dira GBHetan garatutako herrialdeetan baino, historikoki lehentasun- eta salbuespen-

tratuak izan dituztelako lehenek GATTen zein MMEren baitan. Gaur egungo lehentasunezko eskemak nahasiak eta diskrezionalak dira. MMEko akordioek onartzen dute GBHek behar espezifikoak dituztela baina MMEk ez du zehazten zertan den tratu berezia eta apartekoa, ezta zein diren GBHei eman beharreko abantailak ere. Dohako Errondan garatutako herrialdeak presio berezia egiten ari zaizkie GBHei beren manufakturen merkatu nazionalak areago ireki ditzaten. Horren ordain gisa, garatutako herriek beren nekazaritzaren babes zerbait murriztea eskaintzen dute. Ikusteko dago zertan geratzen den trukea baina orain arte ikusitakoa nagusitzen bada, Mendebaldeko nekazaritza-merkatuen irekiera xumea oso konpentsazio ahula litzateke GBHetako industriagintzaren garapenean eragin negatiboa izan lezakeen bertako manufakturen merkatuetako irekiera garrantzitsua- ren ondoan.

Bestalde, ehungintza eta zapatagintzaren AMF akordio protekzionista 2005. urtean desegin zen ofizialki. Ondoren sektore horretako esportazioen hazkundera bizkorra izan da eta horrek ekarri du Mendebaldean babeserako presioa handitu izana. Estatu Batuetan edo Europar Batasunean kuota batzuk berrezarri dira geroztik, MMEren barneko akordio bat zalantzan ipiniz eta horrekin MMEren sinesgarritasuna bera. Uruguaiako Errondaren itxiera osoa orekatua izatea bilatzen zuen eta MFA akordioa neurri osoen atal bat baino ez zen. GBHek garatutako herrialdeen- tzat onuragarriagoak ziren atalak onartu izan dituzten bezala (GATS edo TRIPS kasu), herrialde garatuek erreziprozitate-hastapena kontuan hartuz beste atalak ere errespetatu beharko litzukete.

Kapitulu honetan dagoen beste arlo kezkarria da Mendebaldeko herrialdeen *antidumping* klausularen gehiegizko erabilera. *Dumping* egoera bat zer den zehaztea zaila da eta horregatik haren aurkako erabilera oportunitista egiten dute herrialde askok, Hegoafrika eta India bezalako herrialde emergente batzuk tarteko. Horrela klausula hori babes-neurri soil bihurtzen ari dira. Ezinbestekoa da, beraz, *dumping* praktika zer den adostea eta mugatzea industriaren defentsarako pentsatuta dagoen tresna babes-tresna bezala erabilia izan ez dadin herriade baten interes partikularren arabera.

### **TRIPS-JIEA**

Jabego intelektualen eskubideen inguruko akordioa da TRIPS, ingelesezko akronimoarekin ezagutzen dena. Gogoan izan GATTeko Uruguaiako Errondan barneratu zela lehen aldiz merkataritzari lotutako gai bezala, batez ere botika, software edo aisiaren arloko ETNek egindako presioak horretara behartuz. Izan ere, TRIPS delako akordioak jabego intelektuala, erregistratutako markak eta patenteak babesteko arau minimoak ezartzen ditu nazioarteko esparruan. Oro har, Mendebaldeko herrietako babeserako nazio-neurrien bideari jarraitzen dio TRIPSek baina nazioartera hedatzean minimoen harmonizazioa gorantza doa. Akordioak

patenteak 20 urtez babesteko beharra ezartzen du eta Estatuak beren lurraldeetan patenteen aplikazioa malgutzeko edo kentzeko duten ahalmenari mugak ezartzen dizkiote. Akordioak «bizitza erak» edo bioteknologiaren arloa ere bereganatzen du. Arlo horretako patenteen % 95 ETNenak dira eta sarritan komunitate desberdinetako antzineko naturaren ezagutzaren bidegabeko jabetzea erabili izan dute, *biopirateria* gisa ere deitu izan den mekanismoa alegia. Botika-etxe erraldoiek prozedura ilun hau modu zabalean indarrean jarri dute batzuetan oinarritzko bizitza genetikoki eraldatuz eta horrekin patentea ziurtatuz. Bistakoa da etikarik gabeko jokabide horrek mundu osoko osasun publikoan duen eragin kaltegarria, arrisku bizia baitakar nazioarteko osasun-egoera interes pribatuen menpe uzteak.

Akordio honen logika ekonomikoa zalantzakorra da. Jabego intelektualaren eskubideen babesa eta nazioarteko merkataritza lotzeko arrazoirik ikusten ez dutenen iritzia dago hasteko. Berez, araudi honek izaera babeslea du, berrikuntza eta patenteen izaera pribatuari men eginez enpresa eta instituzio pribatuen berrikuntza-estrategiak bermatu eta areagotuko direlakoan. Ildo horretan akordio hau merkataritzaren liberalizazioaren norabidetik aldendu egiten da eta erraztasunak baino gehiago trabak ipintzen dizkio garapenerako premiazkoa den teknologiaren hedapenari eta transferentziari. Horrela, patenteak errespetatzen ez dituzten botika orokorren esportazioak debekatzean gaixotasun infekziosoen aurkako borroka zailagoa da herrialde txiroetan. Gainera TRIPS akordioak herrialde txiroenetatik herrialde aberatsenetarako errenta-transferentzia eragiten du. Hori dela-eta, neurri hauek eta, oro har, merkataritzarekin zuzenean lotzen ez diren beste gai batzuenak ere (Singapurreko gaiak, hala nola lehia, inbertsioak eta erosketa publikoak) MMEen barneratzeak ez die mesede handirik egiten GBHei.

Nazio Batuen menpeko Jabego Intelektualaren Munduko Erakundea (JIME) egon badagoen arren, jabego intelektualaren eskubideen babesa nazioartekotzearen ardura MMEren esku egotea hobetsi da. Horren arrazoi nagusia da MMEk gatazkak bideratzeko eta zigorrak ezartzeko organoa duela, JIMEk ez bezala. Horrela, patenteen gaineko legedia MMEren araudien barnean kokatzen ez duten herrialdeak zigortuak izan daitezke diferentziak konpontzeko organoaren aldetik. Baina, TRIPSEk herrialde txiorenari erraztu nahi omen dien teknologia-transferentziarik errazten ez denean, aldiz, ezinezkoa da organo horri kontuak eskatzea. Aipatutako desoreka gertatzen da teknologia-transferentziaren inguruan akordioa oso zalantzazkoa delako eta, aitzitik, zehaztasun osokoa jabego intelektualaren eskubideak defendatzeko neurriei dagokienez.

Ez da harritzekoa beraz GBHak TRIPS akordioaren aurka agertu izana, nazioarteko sistemaren botere-desorekaren ispilua den heinean. Garapen-bideko herrialdeek exijitzen dute beren nazio-mailako legedia gogortzen joatea betiere garapen-mailan aurrera egiten duten neurrian, herrialde garatuetan gertatu zen bezala, alegia. Horrenbestez, herrialde hauei jabego intelektualaren eskubideak goizegi igoaraztea gairazinezko traba litzateke haien garapenerako. Dohako

Errondan orain arte lortu egin den aurrerapauso nabarmenena botika orokorren ingurukoa izan da. GBHek botika orokorrak merkaturatzeko ahalmena eskuratu zuten botika-etxe erraldoien interesen gaitetik. Nolanahi ere, zailtasun ugari suertatzen ari da akordio hori praktikara eramateko garaian osasun-larrialdi egoera igotzen joan den bitartean.

## LABURPENA

Nazioarteko merkataritzaren hedapena oso bizkorra izan da azken hamarkadetan eta, gutxi asko, produktuaren hazkundea bera baino gehiago hazi denez, nabarmena da herrien arteko harremanen eta munduko merkatuen indartze-prozesua. Nazioarteko merkatuen garrantzia bistakoa den arren, ezin dugu ahaztu nazio-merkatuek oraindik duten nagusitasuna termino kuantitatiboetan bederen. Hedakuntza honek arrazoi ugari ditu, besteak beste, munduko ekonomian lehen mailako eragile ekonomikoak bihurtu diren Enpresa Transnazionalen hedapen-prozesuaren eragina da azpimarratzekoa globalizazio neoliberalaren testuingurua ahazteke.

Nazioarteko merkataritzaren eredia ere eraldatuz joan da azkenaldion. II. Mundu Gerraren ostean oraindik oso bistakoa zen kolonialismoaren osteko merkataritza klasi-koaren eredia, bertan Iparraldeko manufakturek eta Hegoaldeko oinarritzko ondasunek merkataritza-fluxu gurutzatuak sortzen zituztela. Eredu horren eraldaketa nagusiak izan dira, batetik oinarritzko ondasunen presentzia oso eskasa dela gaurko merkataritzan eta, aldiz, manufaktura-gaiak eta zerbitzuak direla truke-gai nagusiak diferentzia handiz. Bestalde, merkataritzaren kontzentrazio geografikoa oso indartsua den arren, herrialde emergente batzuek gero eta presentzia handiagoa dute esportazio eta inportaziogintzan. Azkenik, azpimarratzekoa da industria barneko merkataritzaren garrantzi hazkorra. Beste arrazoi batzuk ahaztu gabe, azken horrek zalantzan ipintzen ditu Heckscher-Ohlin egileen paradigma neoklasikoaren oinarriak. Hau izan da merkataritzaren liberalizazioaren hamarkadetako sostengu teorikoa, GATT edo MMEren filosofian eta politiketan isla izan duena. Alabaina, merkataritza-politiken ildo nagusia eta ofiziala liberalizatzailea izan arren, herrialde gehienek, gutxi asko, neurri protekzionista ugari mantentzen dituzte, are gehiago krisiak eragiten duen garaietan.

Nazioarteko merkataritzaren instituzio-erakuntza multilateralala oso garatua dago, batik bat MME sortu ondoren. Nazioarteko erakunde bakarra da gaur egun arbitraje-funtzioa betetzen duena eta zigor-ahalmena duena, hori dela-eta merkataritzaz haragoko gaiak barneratzeko saio ugari egon dira. GATTen herentzia jasotzen du erakunde honek eta zerbitzuen arloko GATS akordioa eta jabego intelektualaren TRIPS delakoa ere biltzen ditu, Diferentziak Konpontzeko Organoarekin egituraketa osoa biribilduz. GATTeke negoziazioen ibilbidean bezala orain MMEren errondetan zehar, Dohakoa azkenekoa barne, nazio-botere desberdinen posizio hierarkikoa bistakoa da negoziatzeko garaian. Herrialde bakoitzak boto bat izan arren, herri indartsuen ahalmen ekonomikoa beren arrazoa ezartzeko tresna bihurtzen da edozein gai negoziatzerakoan. Horiek horrela, ez da ustekabekoa negoziazio-erronda desberdinetako emaitzetan sortutako liberalizazio asimetrikoa ezta etorkizuna eta agenda baldintzatuz herrialde garatu indartsuenek MMEko Dohako Erronda irteerarik gabeko egoerara eraman izana.

**BIBLIOGRAFIA**

- Bagwell, K. & Staiger, R. (2002): *The Economics of the World Trading System*, MIT Press, Cambridge MA.
- Bhagwati, J. (2002): *Free Trade Today*, Princeton University Press, Princeton.
- Chang, H.-J. (2004): *Retirar la Escalera. La estrategia del desarrollo en perspectiva histórica*, Catarata, Madril.
- Krugman, P. R. eta Obstfeld, M. (2006): *Economía Internacional. Teoría y Política*, Addison Wesley, 7. argitalpena, Madril.
- MME (zenbait urte): *World Trade Report*, MME, Geneva.
- Steinberg, F. (2007): *Cooperación y Conflicto. Comercio internacional en la era de la globalización*, Akal, Madril.
- Stiglitz, J. & Charlton, A. (2005): *Fair Trade for All: How Trade Can Promote Development*, Oxford University Press, Oxford.
- UNCTAD (zenbait urte): *Handbook of International Trade*, Nazio Batuen Erakundea, New York.

**WEB ORRIAK**

[www.citizen.org](http://www.citizen.org)  
[www.gatswatch.org](http://www.gatswatch.org)  
[www.oxfam.org](http://www.oxfam.org)  
[www.tradeobservatory.org](http://www.tradeobservatory.org)  
[www.tradeforum.org](http://www.tradeforum.org)  
[www.unctad.org](http://www.unctad.org)  
[www.wdm.org](http://www.wdm.org)  
[www.wto.org](http://www.wto.org)

## 4. Nazioarteko moneta- eta finantza-harremanak

*Mertxe Larrañaga Sarriegi*

Mundu globalizatu honetan finantzek gero eta garrantzi handiagoa daukate eta hori argi gelditu da bizi dugun Atzeraldi Handiarekin, krisi globala finantzen krisia bezala hasi zen eta. Gai honen helburua Nazioarteko Diru Sistemak eta nazioarteko finantza-merkatuetan izandako aldaketak ondo eta modu errazean azaltzea da. Horretarako diruaren inguruko oinarriko kontzeptu batzuk eman eta gero, kanbio-tasetan eta kanbio-erregimenen inguruko eztabaidan zentratuko gara. Gaurko mundua ulertzeko ezinbestekoa iruditzen zaigu orobat Nazioarteko Diru Sistemak izandako azken aldaketa handiak ikustea baita zer paper jokatzan duten Nazioarteko Institutio Finantzario nagusiek ere. Finantza-merkatuak ere oso labur azaltzen ahaleginduko gara, horretarako sailkapen ezberdinak erabiliko ditugu eta merkatu garrantzitsuenetan geldiune txiki bat egingo dugu, merkatu horietan gertatutakoak finantzen globalizazioa hobeto ulertzen lagunduko digulako. Amaitzeko, gero eta ugariagoak bihurtu diren krisi finantzarioak aipatuko ditugu eta Bretton Woods amaitu ostean gertatu diren guztietatik hiru aukeratu ditugu, kanpo-zorraren krisia, Asiako krisia eta gaurko Atzeraldi Handia.

### **4.1. OINARRIZKO KONTZEPTUAK: DIRUA ETA NAZIOARTEKO DIRU-FLUXUAK**

Nola definitzen dira nazioarteko moneta-sistema eta nazioarteko finantza-sistema? Betiere sistema terminoak antolakuntza ideia garamatza. Nazioarteko Diru Sistemak (NDS) nazioarteko moneta- eta finantza-harremanak arautzen ditu. Jakina, moneta-sistemaren oinarrian monetak daude, hau da, dirua. Nazioarteko harreman ekonomikoetarako (ondasunak eta zerbitzuak salerosteko eta inbertsioak egiteko) moneta ezberdinak erabiltzen dira eta moneta ezberdinen arteko erlazioak ondo araututa egotea komeni da.

Baina nahiz eta gure ekonomiak guztiz monetarioak izan eta dirua etengabe erabili, honen definizio zehatza ematea ez da adituen esanetan oso erraza. Ekonomiako testuliburu ia denek esaten dute diruak hiru funtzio nagusi betetzen dituela: ordainbidea da, kontu-unitatea da eta balore-gordailua da.

- **Ordainbidea:** ondasunak eta zerbitzuak erosteko eta saltzeko balio du, erosahalmena azaltzen du. Hau da funtzio nagusia. Nahiz eta diruak berezko baliorik ez eduki, diruan dugun konfiantza unibertuala da, mundu guztian erabiltzen da ordainketak egiteko.
- **Kontu-unitatea:** ondasun eta zerbitzuen balioa neurtzeko balio du, kontabilizatzeko balio du. Ondasun eta zerbitzuen prezioak moneta unitatetan adierazten dira. Horrek kalkulu ekonomikoak errazten ditu, baita produktu ezberdinen balioen arteko konparazioak ere.
- **Balore-gordailua:** hainbat ondasunen trukearekin gertatzen ez den bezala, denborak ez du eraginik, monetak itxaroten uzten du, balorea denboran zehar gorde egiten du. Hau da dirua erosahalmena etorkizunera pasatzeko erabil daiteke eta hau inportantea da bestela ez genuke-eta onartuko ordainbide gisa.


Gaur egun herrientzat nazioarteko harreman ekonomikoek garrantzi oso handia daukate eta harremanen artean ondasun eta zerbitzuen fluxuak (hauetaz beste gai batean sakontzen da) eta kapital-fluxuak bereizten dira, eta jakina, fluxu hauek guztiek diru-mugimenduak eragiten dituzte. Kanpo-harreman hauek guztiak dokumentu kontable batean, Pagamendu Balantzan, kontabilizatzen dira, ondasun eta zerbitzuen fluxuak Kontu Korrontean, eta kapital-mugimenduak Kontu Finantzarioan. Nazioarteko kapital-mugimenduetan fluxu pribatuak eta publikoak bereizten dira. Publikoak aurrekontu publikoetatik, nahiz administrazio zentraletik, nahiz autonomia-erkidegoetatik nahiz udaletatik, emandakoak dira eta garrantzi handia daukate batez ere garapen-bideko herrialdeentzat. Fluxu publiko hauek merkatuko baldintza baino nabarmen baldintza hobeetan ailegatzen direnean (eta ez da beti horrela izaten), kontsesionalak direla esaten da eta Garapenerako Laguntza Ofiziala (GLO) ia guztia osatzen dute. Fluxu publikoak bilateralak edo multilateralak izan daitezke, nork kudeatzen dituen, eta baldintzatuak edo baldintzatu gabeak, jasotzaileek zertan erabili ahal dituzten.

Diru-fluxu pribatuak ia beti merkatuko baldintzetan ematen dira eta hiru motatako mugimenduak bereizten dira: Atzerriko Inbertsio Zuzena (AIZ), karterako inbertsoa eta beste inbertsio batzuk (batez ere maileguak). AIZ askotan atzerriko enpresen titulu-erosketan gauzatzen da baina erosketaren helburua enpresa-proiektuan zuzenean parte hartzea da. Kartarako inbertsioa ere nazioarteko merkatuetako titulu-erosketan gauzatzen da baina helburua bakarrik errentagarritasuna bilatzea da. Ez da beti erraza izaten AIZ eta karterako inbertsioen artean bereiztea eta horretan laguntzeko Nazioarteko Diru Funtzak (NDF) dio inbertsio bat zuzena izango dela baldin enpresaren kapital sozialaren % 10etik gora erosten bada, eta hortik behera karterakoa izango da. Maileguei dagokienez esan beharra dago akzio-erosketak eta AIZk ez bezala zorra sortzen dutela. AIZ karterako inbertsioa baino egonkorragoa da. Normalean agente pribatuek ipinitako baldintzak finantzaketa emateko orduan berdinak dira herri guztientzat baina praktikan, adibidez, herri



pobreek nekez lortuko dute horrelako inbertsioa erakargarriak ez direlako, eta lortzekotan, baldintza gogorragoak ezartzen zaizkie «herri-arrisku» altua dutelako.

Azpiko grafikoan AIZren bilakaera azaltzen da. Bertan ikusten da fluxu hauek asko hazi direla batez ere 80ko hamarkadaren bukaeratik eta fluxu gehienak Iparralderakoak direla. Garbi gelditzen da baita gaurko krisiak (2007an hasitako krisia aurrerago aztertuko dugu) fluxuen beherakada ekarri duela eta orain arte behintzat beherakada hau Iparraldeko fluxuetan gertatzen ari dela. Hau izan daiteke hasieran krisiak batez ere Iparraldeko herrialdeak kolpatu dituelako eta Hegoaldera pixka bat geroago ailegatu delako. Dena den ikusteko dago zer gertatuko den ondorengo urteetan.



## 4.2. KANBIO-TASAK ETA KANBIO-ERREGIMENAK

### 4.2.1. Truke-tasa nominalak eta errealkak

Munduan moneta ezberdinak egotean nazioarteko harremanak gauzatzeko ezinbestekoa da monetak beste monetetan adieraztea. Truke-tasa edo kanbio-tasa moneta baten balioa da beste moneta batekiko neurtuta eta, normalean, atzerriko dibisa batek merkatu nazionalean duen prezio gisa adierazten da. Horrela, AEBetako dolarrak (\$) dituen batek 1,36 \$ behar baditu euro (€) bat erosteko, euroak dituenaren ikuspuntutik truke-tasa nominala (KTN) 0,735 da. Prezio hauek aldatzen direnean devaluazio/errealuazio edo depreziazio (balio-galtze)/apreziazio (balio-irabazte) terminoak erabiltzen ditugu. Kanbio-tasak finkoak direnean devaluazio/errealuazioaz hitz egiten da, eta, aldiz, kanbio-tasak malguak direnean, depreziazio/apreziazioaz hitz egiten da.

Baina AEBetako euro-erosle edo Alemaniako dolar-erosle bati interesatzen zaiona ez da bakarrik kanbio-tasa nominala baizik eta moneta horiekin erosi ahal izango duena eta horrekin sartzen da jokuan kanbio-tasa errearen kontzeptua. Truke-tasa errealak (KTE) herri bateko ondasun eta zerbitzuen balioa neurtzen du beste herri bateko, beste herri batzuetako edo gainerako guztietako prezioekin alderatuz truke-tasa nominalean. Formula erabiliz  $KTE=eP^*/P$  izango litzateke, non  $e$  kanbio dolar-euro KTN den,  $P^*$  Alemaniako batez besteko prezioa, eta  $P$  AEBetako batez besteko prezioa.

Eman dezagun produktu berdin bakarreko (hanburgesak) mundu teoriko eta irreal batean gaudela. Aurreko kanbio-tasa nominalekin jarraituz  $KTE=1$  balitz, hanburgesak berdin balioko luke AEBetan (1,36 \$) eta Alemanian (1 €), hau da, prezioa eta KTN berdinak izango lirateke, dolarraren eta euroaren erosahaltenaren parekotasuna (EAP) berdinak dira. Baina eman dezagun Alemanian hanburgesak 1,2 € balio dituela, orduan Alemanian AEBetan baino % 20 gehiago balio du, beste era batera esanda, euroa % 20an gainbaloratuta dago dolarrarekiko. Orduan, ikuspuntu ekonomikotik logikoa litzateke Alemaniako jendeak dolarrak erostea, dolar horiekin AEBetan hanburgesak erostea eta hanburgesa horiek gero Alemanian saltzea 1,2 €-tan. Prezio-aldeak aprobetxatzeko egindako eragiketa hauek arbitrajeak deitzen dira. Kasu honetan dolarren eskaria handitu egiten da eta horrek dolarraren balioa gorantz bultzatuko du  $KTE=1$  izan arte. Hau da, KTNk erosahalmena ez badu ondo adierazten teoriarik behintzat moneten gaineko presioak azalduko dira: gainbaloratuta badago, depreziatzeko presioa, eta azpibaloratuta badago, apreziatzeko presioa. Jakina, mundu errealean kostu askok prezio-konparazioak konplikatzen dituzte, adibidez garraio-kostuak. Eta mundu errealean herrialdeek produktu bat baino gehiago saltzen dituztenez, KTE produktu-saski baten prezioekin kalkulatu da.

#### ***4.2.2. Kanbio-erregimenak: kanbio finkoak eta malguak***

Moneten balioak adierazteko hainbat era daude baina garrantzitsuenak bi dira, kanbioak finkoak edo malguak izan daitezke, nahiz eta praktikan kanbioak oso gutxitan izaten diren guztiz finkoak edo guztiz malguak. Kanbioak finkoak izateak ez du esan nahi ezin denik fluktuazio edo gorabehera-bandarik egon, are gehiago, kasu gehienetan kanbio finkoak aukeratzeko direnean, kanbio finko doigarriak eta fluktuazio-tarteekin aukeratzeko dira. Kanbio finkoen sistema batean debaluazioak eta errebaluazioak agintari eskudunek onartu behar dituzte. Eta kanbio-tasa aldaketa hauek normalean gobernuen porrot ekonomiko gisa irakurtzen dira.

Herri batek bere monetaren balioa beste moneta bati (moneta-aingura) lotzea erabakitzen duenean, aingura bezala normalean herri indartsu eta egonkor bateko dibisa eta nazioarteko harreman ekonomiko handiak dituen herriko dibisa aukeratzeko ditu. Gaur egun moneta-aingura garrantzitsuena AEBetako dolarra da. Kanbio finko arruntenak doigarriak badira ere, badaude muturreko beste aukera batzuk ere. Horien artean moneta-batasunak (eurogunean egindako aukera), dolarizazioak, hau

da, beste herri bateko moneta onartzea (horrelako kasu ezagunenak Latinoamerikakoak dira, adibidez Panama eta Ekuadorrekoa) eta bihurketa-kutxak ditugu (adibide ezagunenetakoa 2001eko krisiaren aurretik Argentinak egindako aukera da). Muturreko aukera hauek herrialdeei subiranotasun ekonomikoaren galera handia ekartzen diete. Dolarizazioaren kasuan herrialdeko Banku Zentralak moneta jaulkitzeari uko egiten dio eta betebeharrak hori kanpoko erakunde baten esku gelditzen da, onartutako moneta AEBetako dolarra bada, Erreserba Federalaren esku.

Berriz NDS batek kanbio-tasa malguekin funtzionatzen duela esaten da moneten arteko parekotasunak dibisa-merkatuetako eskariak eta eskaintzak finkatzen dituenean. Orduan, teoriarik behintzat, moneten flotazioa librea da, askea, nahiz eta gero praktikan flotazio hori nekez izaten den garbia. Gehienetan Banku Zentralak kanbio-tasa kontrolatzen saiatzen dira tarte edo marjina batzuen barruan mantentzeko eta kasu horietan flotazioa zikina dela esaten da. Horrelako sistema batean monetaren kotizazioa merkatuak erabakitzen duenez, apreziazio edo depreziazioak emateko ez da agintearen baimenik behar.

Agintari ekonomikoek hainbat modu dauzkate kanbio-tasa defendatzeko. Modu klasikoena dibisa-merkatuetan parte hartzea da dibisak erosiz eta salduz, eta, horretarako, erreserbak erabiltzen dira edo nazioarteko merkatuetan zorpetzen dira. Gaur egun, kapital-mugimenduak hain handiak direnez, herrialdeek gero eta maniobra-marjina txikiagoa daukate *open-market* eragiketa hauekin eta, beraz, beste era bateko parte-hartzeak nagusitzen joan dira. Adibidez, kapital-mugimendu pribatuetan eragiteko modu nahiko arrunta interes-tasekin jokatzea da. Eta krisigaraietan beste era bateko neurriak ere hartu ohi dira, esate baterako, kapital-mugimenduen gaineko muga kuantitatiboak edo kontrolak ezar daitezke.

Kanbioak malguak direnean, monetaren balioa merkatuko eskariak eta eskaintzak finkatzen dute eta eskaria eta eskaintza horietan nazioarteko harreman komertzialak eta kapital-mugimenduak eragiten dute. Dena den badaude mugimendu hauetan eta, beraz, kanbio-tasan eragiten duten hainbat faktore eta horietako batzuk honako hauek dira: inflazio diferentzialak, interes-tasen diferentzialak, hazkunde-eritmo diferenteak eta igurikimenak. Horrela, bi herriz osatutako mundu guztiz simple batean, A herrialdeko inflazio-tasa B herrialdekoa baino altuagoa bada, A monetaren erosahalmena Bkoa baino azkarrago jaisten da, beraz, B monetaren eskaria handituko da eta horrek A monetaren depreziazioa ekarriko du. Berriz, A herriko interes-tasa Bkoa baino altuagoa denean, kapitalak Btik Ara mugituko dira eta horrek A monetaren apreziazioa eragingo du. Hazkunde-eritmoei buruz, Ako errenta Bkoa baino azkarrago hazten bada, A herrialdeko kanpo-eskaria (eta beraz B herriko produktuen eskaria) gehiago haziko da eta horrek B moneta apreziatuko du. Azkenik, igurikimenez oso paper garrantzitsua jokatzen dute kanbio-tasetan eta, adibidez, nazioarteko eragileek inflazio-arriskua antzematen badute herri batean, herri horretatik ihes egingo dute eta ihes horrek depreziazioa areagotu besterik ez du egingo.

Kanbio-sistemen inguruko eztabaidak ez du ematen amaierarik duenik eta sistema bakoitzaren aldeko eta aurkako arrazoiak ugariak dira. Eztabaida honen inguruko xehetasunak ulertzeko Mundellen «ezinezko hirukia» (Mundellen trilema ere deitzen da) gogoraraztea komeni da. Hirukia osatzen duten osagaiak hauek dira: kanbio finkoak, moneta-politikaren autonomia eta kapital-mugimenduen askatasuna. Mundellen arabera, gobernuek hiru horietatik bi bakarrik lortu ahalko dituzte batera eta, beraz, beti bati uko egin beharra egongo da. Adibidez, Bretton Woods garaian nazioarteko kapitalen mugimenduak kontrolatu egin ziren nahiz eta kontrolen eraginkortasuna jaisten joan zen denbora pasatu ahala. Kanbio malguen alde gehien aipatzen den arrazoa da baldintza ekonomikoak aldatzean egoera azkar zuzentzeko ahalmena izatea, hau da, egonkortzaile automatikoak izatea. Horrela, eman dezagun kanpo-eskaria jaisten dela eta ondorioz errenta jaisten dela, langabeziak gora egiten duela eta defizit komertziala sortzen dela. Egoera horretan kanbioak finkoak balira, doikuntza prezio eta kostuen bitartez egingo litzateke, hau da, deflazioarekin, zeinak kanpo-eskaria handituko lukeen. Kanbio malguekin, berriz, egoera ia automatikoki zuzenduko litzateke, hau da, aurreko egoeran moneta depreziatu egingo da, depreziatzean ekonomia lehiakorragoa bihurtuko da, horrek kanpo-eskariaren igoera ekarriko du eta, jakina, errentak eta enpleguak ere hobera egingo dute.

Kanbio finkoen aldekoek, berriz, hainbat arrazoi ematen dituzte, besteak beste, diziplina, mugimendu espekulatzailen aurkako babesa, kanpo-merkataritza eta inbertsioen bultzada, eta nazioarteko lankidetzaren handiagoa. Kanbioak finko mantentzeko konpromisoa duten gobernuek politika ekonomikoa erabat baldintzatu izango dute eta ezingo dute aldatu, adibidez, hauteskundeak gerturatzen direnean. Bestalde, mugimendu espekulatzailak sarriagoak eta handiagoak izan ohi dira kanbio malguekin eta moneta batek ahultasuna erakutsi bezain laster espekulatzailen erasoak hasiko dira eta horrek depreziazioa areagotuko du, hau da, espekulazioak dibisa-merkatuen ezegonkortasuna ekartzen du eta horrek herrien kanpo- eta barne-orekan ondorio kaltegarriak izaten ditu.

Nazioarteko merkataritza eta inbertsioak bultzatzeko kanbio finkoak norma-lean hobeak dira, kanbio malguekin edozein eragiketarako duen arriskuari «kanbio-arriskua» gehitu behar zaiolako eta kanbio-arrisku horretatik babesteko askotan eratorriak erabiltzen dira (hauetaz aurrerago arituko gara). Eta jakina, kanbio-arriskua desagertu egiten da, guztiz ez bada ere bai neurri handi batean, kanbioak finkoak direnean.

### **4.3. NAZIOARTEKO DIRU-SISTEMA: BRETTON WOODS-ETIK FLOTAZIORA**

Bigarren Mundu Gerra amaitzear zegoenean, potentzia garrantzitsuenak (45 herrialde) Bretton Woods (New Hampshire) hirian bildu ziren Roosevelt


presidentek deituta gerra osteko Nazioarteko Diru Sistema berria diseinatzeko. Nazio Batuen Moneta eta Finantza Konferentzia honek hiru aste iraun zuen eta bertatik Bretton Woods-eko sistema berria atera zen, baita sistema hau zaintzeko instituzioak ere, Nazioarteko Diru Funtsa (NDF) eta Munduko Bankua (MB). Negoziatzaile garrantzitsuenak John Maynard Keynes (Erresuma Batua) eta Harry Dexter White (AEB) izan ziren. Nahiz eta ezadostasun nabarmenak eduki, biek, eta baita gainerako agintariek ere, garbi zeukaten helburua nazioarteko harreman ekonomikoak bultzatzea bazen ezinbestekoa zela arau monetarioak garbiak izatea eta argi zeukaten, orobat, ordena monetarioa ezinbestekoa zela bi mundu-gerren arteko historia ez errepikatzen. XX. mendeko bigarren eta hirugarren hamarkadak benetan ezegonkorrak izan ziren eta debaluazio konpetitiboak oso ugariak izan ziren, hau da, herrialde askok kanbio-tasa erabili zuten lehiakortasuna irabazteko asmoarekin (neurri hauek ezagutzen dira ere «albokoak txirotzeko politikak» izenez).

Diseinatu zen sisteman zurruntasuna eta malgutasuna konbinatzen ahalegindu ziren: zurruntasuna, uste zelako hau nazioarteko harremanentzat ona zela, eta malgutasuna, mundu berrian herrialdeak ez zeudelako prest edozer gauza onartzeko kanbioak finko mantentzearen. Horrela, bada, Bretton Woods-eko sistema kanbio finkoen sistema zen, kanbioak finkoak bai baina baita doigarriak ere eta fluktuazio-tarteekin (hasierako tartea  $\pm\%$  1ekoa zen). Nahiz eta sistema berri horretan Keynesek ez zuen nahi urreak protagonismoa izatea, azkenean urrean oinarritutako patroi metalikoa ezarri zen. Sisteman herrialdeek kanbioa finkatu ahal zuten «urrea edo urreak bihurgarria zen moneta batekiko» eta herri batek kanbioa mantentzeko arazoak izanez gero alda zezakeen, beti baldintza batzuk betez gero. Praktikan beren monetaren eta urrearen arteko bihurgarritasuna bermatzeko gauza zen herri bakarra AEB zen, urre guztiaren hiru laurdenen jabe zelako. Beraz, sistema urre-\$ sistema izan zen, hau da, \$aren balioa urreak bikoiztu zen (ontza urre bat=35 \$) eta gainerako moneten balioa \$arekiko finkatu zen. Sistema horretan AEBek eta beste herrialdeek paper diferentea izan zuten eta horregatik esaten zen sistema asimetrikoa zela: AEBek \$aren eta urrearen arteko bihurgarritasuna bermatzea (hau da, urre kantitate nahikoa bermatzea) eta beste beren monetaren eta \$aren arteko parekotasuna mantentzea. Beraz, parekotasuna aldatzeko arriskua egonez gero, beti gainerako herriak ziren parte hartu behar zutenak.

Noski, horrelako sistema bat, moneta bakar baten gainean eraikitako sistema bideraezina da epe luzera eta horrela adierazi zuen Triffin ekonomialari belgiarrak 1968an. Triffinen arabera, horrelakoetan bi gauza gerta zitezkeen: AEBek kanpo-superabita izatea edo defizita izatea. Lehen kasuan, hau da, AEBetan sartutako dolar kantitatea ateratakoa baino handiagoa bazen, nazioarteko eragiketarako, ordaintzeko, oztopatuko ziren eta nazioarteko merkataritzaren hazkunderentzat traba nabarmena izango zen. Bigarren kasuan, berriz, hau da, AEBetatik ateratako dolar kantitatea sartutakoa baino handiagoa bazen, ez zen nazioarteko merkataritzaren hazkundera oztopatuko baina lehenago edo beranduago, konfiantza-krisi bat sortuko

zen dolar gehiegi egoteagatik nazioarteko merkatuan. «*Triffin dilemak*» zioena zen Bretton Woods sisteman AEBetako ekonomiak nazioarteko likidezia bermatzeko modua beste herriekin zorpetzea zela. Eta gertatu zena, bigarren kasua izan zen: AEBek ezin izan zuten mantendu dolarraren eta errearen arteko bihurtarritasuna, besteak beste, urre kantitatea ez zelako inolaz ere dolar kantitatea adina igo. Gauzak horrela, 1971ko abuztuan Nixonen Administrazioak dolarraren eta errearen arteko bihurtarritasuna eten egin zuen eta hori Bretton Woods sistemarekin amaitzea zen. Urte haren amaieran dolarra lehenengo aldiz devaluatu zen (ontza urre = 38 \$ finkatu zen) eta fluktuazio-tarteak  $\pm\% 2,25$ ra zabaldu ziren (smithsondar tartea). Handik gutxira, 1973an dolarra bigarren aldiz devaluatu zen (ontza urre = 42,2 \$ finkatu zen) eta nahiz eta sistema berpizteko ahaleginekin jarraitu, azkenean 1975ean Jamaikako akordioekin (Kingstongo akordio izenez ere ezagutzen da) Bretton Woods-en heriotzari ofizialtasuna eman zitzaion.

Ordutik aurrera herriek askatasuna dute kanbio-sistema aukeratzeko, debekatu zen bakarra errearekin finkatzea izan zen, beraz, sistema metalikoen historia luzea amaitutzat eman zen. Herri garrantzitsuenek kanbio malguak, hau da, flotazioa aukeratu zuten, esaten da kanbio finkoen sistematik kanbio malguen sistemara pasatu zela. Beste batzuen arabera, berriz, sistema garbiko garaitik sistemarik gabeko garaira pasatu zen. Hegoaldeko herrialdeei dagokienez, aukerak oso ezberdinak izan ziren baina, oro har, esan daiteke kanbioa nolabait finkatzearen aldeko konpromisoak hartu zituztela (ikus 4.2.).



Nahiz eta dolarrak teorian zuen paper zentrala galdu, praktikan moneta garrantzitsuena izaten jarraitu du bai nazioarteko ordainbide bezala baita erreserba-dibisa bezala ere. Jakina, Europako herrialdeek ibilbide propioa egin dute. Euroguneko herriek euren artean kanbioak finkatu egin zituzten (eurora heldu arte) baina beste monetekin flotazioa aukeratu zuten, hau da, Europa mailako Bretton Woods antzeko sistema antolatu zen eta sistema hori Europako Diru Sistema (EDS) deitu zen. Egia da euroaren sorrerak itxaropen handia ekarri zuela eta ez dugu esango itxaropenak ezerezean gelditu direnik baina ez du lortu dolarrari lehen postua kentzerik.

#### **4.4. NAZIOARTEKO FINANTZA-INSTITUZIOAK**

Bretton Woods-eko bilera famatuan oraindik bizirik jarraitzen duten bi instituzio sortu ziren: Nazioarteko Diru Funtza (NDF) eta Munduko Bankua (MB). Bretton Woods-eko Instituzio (BWI) horiek Nazioarteko Finantza Instituzio (NFI) garrantzitsuenak dira. *Instituzio bikiak* edo *Keynesen bikiak* izenez ezagutzen dira eta hasieran instituzio aurrerakoiak kontsideratu ziren. Batera sortzeaz gain, lotura oso estua izan dute beti: bien egoitza Washingtonen dago, boto-sistema berdina da, MBko kidea izateko NDFko kidea izan behar da, eta ahozko akordio baten arabera, MBko burua beti AEBetako bada, NDFkoa ez da inoiz AEBetako izan behar eta praktikan orain arte beti europarra izan da (dena den, azken berrien arabera ematen du hau aldatzekotan dabiltzala).

##### **4.4.1. Nazioarteko Diru Funtza (NDF)**

NDF Bretton Woodds-eko bileratik sortu zen 1944an Nazioarteko Diru Sistema berriaren zaindari gisa. Gaur egun 186 kide ditu, hau da, erakunde ia unibertsala da. NDFren antolakuntzari dagokionez, haren baliabideen iturri nagusia herriek ordaindutako kuotak dira, kuota horiek herri bakoitzaren pisu ekonomikoaren arabera finkatzen dira eta horretarako kontuan hartzen da, batez ere, barneproduktu gordina baina baita beste adierazle batzuk ere, adibidez, irekidura-maila eta nazioarteko erreserba kantitatea. Eta herrien boto kantitatea ordaindutako kuotaren arabera da, beraz, Iparraldeko herrialde aberatsenek kontrolatzen duten erakundea da. G-7+1 taldeak botoen % 47,13 kontrolatzen du, zeren eta AEBek boto guztien % 16,77 daukate, Japoniak % 6,02, Alemaniak % 5,88, Frantziak % 4,85, Erresuma Batuak 4,85, Italiak % 3,19, Kanadak % 2,88 eta Errusiak % 2,69. Kuota- eta boto-sistema oso antzekoa da Munduko Bankuan ere. Beraz BWIetan ez du Nazio Batuen Erakundeko sistema tradizionalak funtzionatzen, hau da, herrialde bat, boto bat. Espero da 2011. urtean botere-banaketa zerbait aldatzea NDFn. Munduko Bankuan boto kopuruen aldaketa 2010ean egin da eta azken aldaketa horren arabera, herrialde emergenteek botoen % 47 dute eta, adibidez, Txina boto-sailkapenean hirugarren dago AEB eta Japoniaren atzetik.

Hasieran NDFk bi zeregin zituen, erregulatzailea eta kreditu-funtzioa. Funtzio erregulatzailearen helburua parekotasun finkoen sistema bermatzea zen. Kreditu-funtzioaren helburua kanbio-tasa mantentzeko arazoak zituzten herrialdeei kredituak eskaintzea zen. NDFk emandako maileguekin bi helburu lortu nahi ziren: alde batetik, nazioarteko merkataritza-sistemari likidezia nahikoa ziurtatzea nazioarteko merkataritza bultzatzeko, eta bestaldetik, epe laburreko arazoak, arazo koiunturalak zituzten herrialdeei laguntzak emanez, debaluazio lehiakorrek ekiditea. Funtzio nagusia erregulatzailea zen eta kreditu-funtzioa funtzio erregulatzailearen menpe zegoen.

Aurreko puntuan esan dugu kanbio finkoen sistema, hau da, Bretton Woods-eko sistema desagertutzat eman daitekeela 70eko hamarkadaren erdialdetik aurrera eta momentu horretan NDF zereginik gabe geratu zen, bere funtzio erregulatzailerak galdu zuen eta kreditu-funtzioak ez zuen ia zentzurik. Herrialde batek zertarako eskatuko zion NDFri kreditu bat kanbio-tasa finko mantentzeko ez bazeukan finko mantendu beharrik? Baina zereginik gabe geratzean NDF ez zen desagertu, garai berrietara egokitzeke aldatu egin zen, bere zereginak eta funtzioak aldatu egin zituen.

70eko hamarkadan NDFren papera ilunduta geratu zen, bigarren maila batean egon zen. Lehen funtzioa galdua zuenez, bigarren maila zentratu zuen bere zeregina, hau da, kreditu-funtzioan. Eta hau da gaur egun NDFren eginkizun nagusia: arazoak dituzten kideei baliabide finantzarioak erraztea. Bretton Woods eta gero egonkortasun finantzarioaren eta ekonomia-politiken koordinazioei buruzko benetako negoziazioak hasieran G-7 taldean (Kanada, Erresuma Batua, Frantzia, Alemania, Italia, Japonia eta AEB) egiten hasi ziren, gero G-7+1 (edo G-8) taldean (Errusia gehitu zen) eta azkenik G-20an, talde pribilegiatu horretan herrialde emergente nagusiak onartu zirenean (Txina, Brasil, India, Australia, Hego Korea, Mexiko, Saudi Arabia, Turkia, Indonesia, Argentina eta Hegoafrika).

Esan dugun bezala NDFren jarduera finantzarioa erabat aldatu egin zen batez ere 80ko hamarkadatik aurrera, eta aldaketa horretan nazioarteko gertakari batzuek zerikusia izan zuten. Horrela, 70eko hamarkadaren erdialdera petrolioaren prezioak igotzean herrialde inportatzaileei 10 urtetara itzultzeko kredituak ematen hasi zen. 80ko hamarkadan kanpo-zorren arazoak eztanda egiten duenean, NDF egiturazko doikuntza-programetan sartzen da buru-belarri. Laurogeiko hamarkadan mailegu bereziak ematen hasi zen baita herrialde pobreeni, eta 1986. urtean, Egitura Doikuntzarako Zerbitzua eskaintzen hasi zen (herrialde horiek dira baita Munduko Bankuko Nazioarteko Sustapenen Agentziaren laguntzak jasotzen dituztenak). Eta XX. mendearen azken hamarkadan, berriz, Bigarren Munduko herrialdeei komunismotik kapitalismorako bidean laguntzeko zerbitzu berezia jarri zuen abian, Aldaketa Sistemikorako Zerbitzua.

Azpimarratzekoa da NDFren finantzazioa beti finantzazio baldintzatua dela, hau da, herri batek NDFren finantzazioa lortu nahi badu, hark proposatutako neurri ekonomikoak ezarri beharko ditu. Beraz herrialde batek finantzazioa eskuratu ahal izateko NDFrekin austeritate-programa bat adostu beharko du eta hasieran maileguaren zati bat bakarrik eskuratzen duenez, mailegu guztia lortu aurretik politikak benetan aplikatzen dituen ala ez begiratzen da. Horrek azaltzen du herriek normalean NDFra jotzen dutela beste finantzazio-iturririk ez dutenean, eta horregatik, adibidez 1980tik gaurko krisia arte, herrialde garatu batek ere ez duela NDFren finantza-zerbitzurik eskatu eta, beraz, hauen politika ekonomikoa ezin izan du baldintzatu, aholkuak eman bai baina aholkuak ematea, esaten den moduan,



debaldekoa da. Gaurko atzeraldian eta konkretuki 2008an, aspaldiko partez, herri aberats bati, Islandiari, 2.100 milioi dolarreko mailegua emango ziola iragarri zuen eta horretarako bi baldintza jarri zizkion: austeritate-programa eta Islandiako bankuek Erresuma Batuko eta Holandako bezeroekin zuten zorra ordaintzeko konpromisoa. Aipatzekoa da orobat 2010ean lehenengo aldiz historian NDFk euroguneko kide bati lagunduko diola, Greziari hain zuzen ere. Greziak, zalantza askoren ostean, hiru urtetan 110.000 milioi euroko diru-laguntza jasoko duela erabaki da eta horietatik 30.000 milioi NDFk emandakoak izango dira eta gainerakoak euroguneko kideen mailegu bilateralak.

#### **4.4.2. Munduko Bankua**

Munduko Bankua (MB) garapen ekonomikoa finantzatzen duen erakunde multilateral garrantzitsua da. Munduko Bankua Berreraikuntza eta Garapenerako Banku bezala sortu zen II. Mundu Gerrak hondatutako Europa eta Japoniaren berreraikuntza bultzatzeko eta Hirugarren Munduko garapen-egitasmoak finantzatzeko. Baina aipatutako lehen eginkizuna AEBek hartu zuten bere gain Marshall Planarekin eta, beraz, 1950eko hamarkadaren hasieratik Munduko Bankuaren funtzio bakarra garapena bultzatzea izan da, garapen bezala hazkunde ekonomikoa ulertzen zuelarik. Bere argitalpenak eta bereziki 1978tik aurrera urtero argitaratzen duen *Munduko Garapenari buruzko Txostena* oinarrizko erreferentzia dira garapen ekonomikoi buruzko pentsamendu ortodoxoa ezagutzeko. Munduko Bankua bezala ezagutzen duguna errealitatean talde bat da eta taldea bost erakundek osatzen dute, hauek: Nazioarteko Berreraikuntza eta Garapenen Bankua (IBRD, *International Bank For Reconstruction and Development*, 1944), Nazioarteko Sustapenen Agentzia (IDA, *International Development Association*, 1960), Nazioarteko Finantza Korporazioa (IFC, *International Finance Corporation*, 1956), Inbertsioak Bermatzeko Alde Anitzeko Erakundea (MIGA, *Multilateral Investment Guarantee Agency*, 1968) eta Inbertsioei buruzko Desadostasunak Konpontzeko Nazioarteko Zentroa (ICSID, *International Centre for the Settlement of Investment Disputes*, 1965). Bakoitzak bere funtzio propioak ditu baina gobernu-organoak, egoitzak eta langile berdinak dituzte.

Munduko Bankuak ez ditu bere funtsak bakarrik herrialde partaideen kuoteetatik lortzen. Horretaz gain, finantza-merkatuetan zorpetu egiten da (bonoak jaulkitzen ditu). Bono horiek interesarekin ordaindu egin behar ditu, eta horrek, egiten dituen inbertsioei errentagarritasuna bilatzera bultzatzen du, noski. Hau kontraesan bat da, hau da, Munduko Bankua ahalegintzen da, alde batetik, instituzio finantzarioa izaten eta, bestetik, garapenerako agentzia izaten, eta askotan errentagarritasun ekonomikoa eta garapena ez datoz bat.

Orokorki Munduko Banku terminoa erabiltzen denean Nazioarteko Berreraikuntza eta Garapenen Bankuaz (IBRD) eta Nazioarteko Sustapenen Agentziaz (IDA) hitz egiten da. Dena den ezin da ahaztu bi instituzio horiek helburu berbera

duten arren, emandako kredituen baldintzak diferenteak direla. IDAk emandako kredituak kontzesionalak dira, hau da, merkatuko baldintza baino askoz baldintza hobeetan ematen ditu eta kreditu hauek bakar-bakarrik munduko herrialde pobreenek eskura ditzakete. IDAk bere baliabideak 30 bat herrialderen borondatezko ekarpenetatik lortzen ditu, eta horrek esan nahi du, nahiz eta kreditu kontzesionalak eskaini, bere jarduera-ahalmena herrialde emaitzen borondate onaren menpe dagoela. IBRDren finantzazioa beti bide konbentzionaletik lor zitekeen finantzazioaren osagarria kontsideratu ohi da mailegu horien baldintzak banku pribatuek ematen dituztenak baino zertxobait hobeak direlako, baina ez dira beti kontzesionalak izaten. Hori horrela da zeren eta, nahiz eta IBRDren helburua ez izan mozkinak edo irabaziak lortzea, ukaezina baita finantzazio-kostuak eta funtzionamendugastuak berreskuratu beharra duela.

Bere ibilbidearen hasieratik, Munduko Bankuaren helburua garapenerako egitasmo zehatzak izan dira eta ez ekonomia-plan orokorrak. Dena den, urtetan zehar aldaketa batzuk antzeman daitezke. Horrela, lehen 25 urteetan Munduko Bankuak finantzatu zituen batez ere garraio-azpiegiturekin, energiarekin eta oinarritzko industriarekin erlazionatutako proiektu handiak. 1970eko hamarkadan Robert McNamararen lehendakaritzapean (1968-81) bankuko maileguak ikaragarri hazi ziren eta prestigio handiko proiektuetara zuzendu ziren (portuak, presak eta abar). Seguru asko, McNamara da MBk izan dituen lehendakari guztietatik ezagunena, MBra ailegatu aurretik, Ford enpresa zuzendu zuen eta estatu-idazkaria ere izan zen. Ezaguna da baita komunismoari zion gorrotoagatik (misiolari antikomunista deitzen dute batzuek), bere ustez instituzio publikoak enpresa pribatuak bezalaxe kudeatu beharko lirake eta metodo kuantitatibo eta unibertsalen oso laguna zen. Bere garaian hasi ziren «pobreziaren aurkako» proiektuak finantzatzen, elektrizitate- eta ur-proiektuak baita osasun- eta hezkuntza-proiektuak ere, eta horrela egin zen uste zuelako miseriak horrela jarraituz gero Hirugarren Munduko herrialdeetan gatazka sozialak gertatzeko arriskua handia zela eta horrekin komunismoa hedatzeko arriskua ere. Gero, 1980ko hamarkadatik aurrera, kanpo-zorren arazoak eztanda egin zuenean, orain aipaturiko proiektuez gain, Munduko Bankua doikuntza sektorial eta egiturazko doikuntza-egitasmoak finantzatzen hasi zen. Doikuntza-egitasmo horiek sarritan NDFrekin batera egin ohi zituen. Joan den mendeko azken hamarkadatik aurrera, pobrezia ez zela desagertzen egiaztatzean baizik eta hazten ari zela, doikuntza-egitasmo horietan sektore ahulenak babesteko neurriak sartzen hasi ziren eta ikur gisa «pobreziarik gabeko mundua» hartu zuten eta politika heterodoxoagoak ezartzeko ahalegin txikiren bat ere egin zen. Horren adibidea da Stiglitzek aukera 1997an ekonomialari nagusi bezala baina esperientziak oso gutxi irau zuen, Stiglitzek (eta bere antzeko beste batzuek ere) bankua utzi egin zuen-eta 1999an. Gaur egun Munduko Bankua milurtekoko helburuetan oso zentratuta dago.

Munduko Bankuak kritika ugari jaso eta jasotzen ditu. Munduko Bankuak garapena eta hazkunde ekonomikoa sinonimotzat jotzen ditu. Hazkundera noski, beti merkatuko ekonomietan eta hori dela-eta jarduera pribatua bultzatzen saiatu da eta ez zaio asko inporta izan jarduera hori lokala edo atzerrikoa zen. Hori dela-eta, atzerriko enpresen partaidetza bultzatu du eta adierazgarria da, esate baterako, dirutza gehienak Iparraldeko enpresek, hau da, Munduko Bankuaren kredituak jaso ezin dituzten herrialdeetako enpresek jaso dituztela. Kritikak izan da baita gauzatutako azpiegitura-egitasmo askoren eraginak ingurumenean eta gizartean kaltegarriak izan direlako. Kritikak jaso ditu baita bere erabakietan AEBetako kanpo-politikak eragin itzela izan duelako eta maiz laguntzak arma politiko gisa erabili ohi direlako. Eta nahiago izan duelako ordena demokrazia baino eta, ondorioz, batzuetan gehiago lagundu dituelako gobernu autoritarioak gobernu demokratikoak baino. Adibidez 1965ean Nazio Batuen ebazpen baten kontra Hegoafrikako erregimen arrazistari laguntzen jarraitzea erabaki zuen.

1990eko hamarkadan Nazioarteko Finantza Instituzioen (NFI) eta Iparraldeko herri garrantzitsuenetako (G-7) agintarien iritzia garapenaren arazoaren inguruan Washingtongo Kontsentsuan (WK) laburbildu zen. Washingtongo Kontsentsua John Williamsonek planteatu zuen 1989an *What Washington Means by Policy Reform* dokumentuan eta bertan Latinoamerikarako hamar neurri ekonomiko plazaratzen ziren. Gero zerrenda hori osatu egin zen eta ideologia neoliberalaren paradigma bihurtu zen. Hamar errezetak honako hauek ziren: (1) defizit publikoa gutxitzeko diziplina fiskala; (2) gastu publikoaren aldaketa; (3) erreforma fiskala; (4) liberalizazio finantzarioa, batez ere interes-tasena; (5) truke-tasa konpetitiboa; (6) merkataritzaren liberalizazioa; (7) atzerriko inbertsio zuzenaren liberalizazioa; (8) enpresa publikoen pribatizazioa; (9) merkatuaren desarauketa, bai produktuen merkatuena baita lan-merkatuarena ere, eta (10) jabego-eskubideen (noski pribatuak) bermea, batez ere sektore informalean.

Washingtongo Kontsentsuaren (WK) defendatzaileen ustez, behin ekonomiak egonkortuta, liberalizatu eta pribatizatutakoan garapenaren bidean jarriko ziren, garapen hori etengabeko hazkundera gauzatuko zen eta hazkunde horren onurak denborarekin gizartean banatuko ziren. Jakina WK-k kritika ugari jaso ditu batez ere praktikan arazo handiak izan zituelako eta ez zirelako lortu espero izandako emaitzak, ez Ekialdeko ekonomien trantsizioan ezta Hegoaldeko herrialdeetan ere. 1990eko hamarkadako azken urteetan Kontsentsu berri bat sortuko zela ematen zuen eta Post Washingtongo Kontsentsu honen inguruan bi proposamen kaleratu ziren: bata moderatua (Kontsentsua baina giza aurpegiarekin eta Williamsonek berak onartutakoa), eta bestea erradikalagoa, Stiglitzek bultzatutakoa.

Bretton Woods-eko bi instituzio hauetaz gain badaude beste instituzio finantzario internazional batzuk, banku erregionalak eta Nazioarteko Ordainketa Bankua, besteak beste. Banku erregionalak Munduko Bankuaren eskemari jarraituz sortu ziren baina jarduera geografikoki askoz mugatuagoa daukate. Inportanteenak

honako hauek dira: Amerika arteko Garapen Bankua, Afrikako Garapen Bankua, Asiako Garapen Bankua eta Berreraikuntza eta Garapenerako Europako Bankua.

Nazioarteko Ordainketa Bankua edo *Bank for International Settlements* (BIS) 1930ean sortu zen Lehen Mundu Gerraren ostean Alemaniaren ordainketak kudeatzeko eta banku zentralen arteko lankidetzak bultzatzeko. Nazioarteko finantza-instituzio zaharrenaren egoitza Basilean (Suitzan) dago eta bere kapitala 35 herrialdetako banku zentralak emandakotik lortzen du. Gaur egun eztabaida- eta ikerketa-gune bezala funtzionatzen du neurri handi batean.

#### **4.5. MERKATU FINANTZARIOAK**

Finantza-merkatuetan finantza-tresnak salerosten dira eta oso ezberdinak izateaz gain etengabe aldatzen dira. Mishkinen arabera, finantza-merkatuen funtzio nagusia inbertsio-aukera onak dituzten agenteei dirua bideratzea da eta merkatu hauek ez badute ondo funtzionatzen, ekonomiak ez du ondo funtzionatuko eta hazkundera oztopatuko da. Hau guztia 2007an hasitako krisian ezin hobeto ikusteko aukera izan dugu.

Finantza-merkatuak era askotakoak dira eta sailkatzeko irizpide asko daude, besteak beste, arauen arabera, eragiketaren momentuaren arabera, kokapen edo integrazio-mailaren arabera, aktiboen ezaugarrien arabera (epea, mota...), garapen-mailaren arabera eta entrega-eparearen arabera. Ondoren, sailkapen ezberdinak aipatu besterik ez dugu egingo, baina merkatu garrantzitsuenetan apur bat gehiago geldituko gara, konkretuki baloreen merkatuetan, euromerkatueta, dibisa-merkatuetan eta eratorrien merkatuetan.


##### ***Baloreen merkatuak: Bursak eta OTC merkatuak***


**Arau juridikoen erabera** merkatu antolatuak edo ofizialak eta ez-ofizialak edo OTC (*over the counter*) bereizten dira. Merkatu antolatu edo ofizialetan nahiko aktibo ezberdinak negoziatzen dira baina beti oso araututako merkatuak dira eta toki fisikoa dute. Merkatu ofizial garrantzitsuenak burtsa tradizionalak dira eta hauen artean inportanteena New Yorkekoa da (NYSE; New York Stock Exchange) eta honen atzetik Tokio, Londres eta Frankfurtetakoak daude. Azken urteetan burtsetan aldaketa oso handiak gertatu dira bai lan egiteko moduan (kontratazio elektronikokoak gero eta pisu handiagoa dauka), ordutegietan (luzatu egin dira eta honi esker mundu-mailan ez da etenik gertatzen 24 orduetan), fusioak egin dira NYSErekin lehiatu ahal izateko, produktu berriak asmatu dira, eta abar. Fusiorik handiena 2006an EURONEXT (2000. urtean Paris, Amsterdam eta Bruselako burtsen fusioarekin sortu zen Europa mailako merkatu hau) eta NYSEk burututakoa da eta munduko burtsa-merkatu handiena sortu zuten.

OTC merkatuak askoz berriagoak dira eta bertan kotizatzen duten enpresek bete beharreko arauak ez dira hain zorrotzak izaten eta ez dute toki fisikorik, merkatu elektronikoak dira. Sortu ziren merkatu ofizialetan sartu ezin ziren enpresei tokia egiteko eta bereziki teknologia berriekin lotutako enpresei. Merkatu ez-ofizialak deitzen dira baina horrek ez du esan nahi araurik gabe funtzionatzen dutenik edo merkatu kaotikoak direnik. AEBetan OTC merkatuak hobeto arautzeko NASDAQ (National Association of Securities Dealers Automated Quotation) sortu zen, balore teknologikoetan espezializatuta (elektronika, informatika, telekomunikazioak, bioteknologia eta abar) eta bertan kotizatzen dute adibidez Microsoft, Dell, Oracle eta Intell bezalako konpainiek. Bitxikeria gisa NASDAQ bultzatu zutenen artean (gero lehendakaria ere izango zen), Bernard Madoff aurkitzen dugu, 2007ko krisiak agerian utzi zuen iruzurgile famatuena. NASDAQ 1998an AMEXekin (America Stock Exchange) fusionatu zen.

1980ko hamarkadatik aurrera burtsetako jarduera ikaragarri hazi da eta hazkunde horretan hainbat faktorek eragin dute, besteak beste, merkatuen desarauketak, merkatu emergenteen gorakadak, enpresa publikoen pribatizazio-prozesuak eta inbertitzaile instituzionalen gorakadak. Inbertitzaile instituzionalak, hau da, pentsio-funtsak, inbertsio-funtsak eta aseguru-konpainiak, merkatu finantzarioetako agente oso garrantzitsuak dira baliabide oso handiak kudeatzen dituztelako.

Ondorengo bi grafikoak burtsei buruzkoak dira. Lehenengoak erakusten du nola hazi den burtsen kapitalizazioa 1990etik aurrera, baina erakusten du baita zer kalte egin dion azken krisiak burtsetako negozioari. Bigarrena, berriz, burtsen banaketari buruzkoa da eta garbi ikusten da munduko inportanteenak Iparraldekoak direla.





**Eragiketa egiten den momentuaren arabera** lehen mailako merkatuak eta bigarren mailakoak bereizten dira. Titulu bat (akzioa, obligazioa...) lehen aldiz jaulkitzen eta saltzen bada, lehen mailako merkatua izango da. Bigarren mailako merkatuan titulu horien ondorengo salerosketak gauzatzen dira, hau da, bigarren eskuko merkatuak direla esan dezakegu. Aurrerago aipatutako baloreen burtsak bigarren mailako merkatuak dira.


**Aktiboen epeen arabera** merkatu monetarioak eta kapital-merkatuak bereizten dira. Merkatu monetarioetan (diru-merkatuak ere deitzen dira) epe motzeko, urtebetetik beherako aktiboak salerosten dira, eta kapital-merkatuetan, berriz, urtebetetik gorako epea dutenak. Normalean gobernuen bonoak, enpresen akzioak eta kreditu hipotekarioak kapitalen merkatuan negoziatzen dira. Merkatu monetario inportanteena dibisen merkatua da.

### ***Dibisen merkatua***

Dibisa-merkatuetan moneta ezberdinak salerosten dira eta dibisen prezioak merkatuak finkatzen dituenetik, hau da, flotazioa nagusitu denetik, dibisa-eragiketen hiru laurden inguruk helburu finantzario hutsa dute, hau da, espekulatzailak dira. Dibisa-eragiketa bat ez da espekulatzaila izango, helburua nazioarteko eragiketa burutzea bada; baina helburua dibisa-salerosketa hutsarekin irabaziak lortzea bada, orduan espekulatzaila dela esaten da. Dibisen gaineko espekulazioa ekonomiarako kaltegarria izan zitekeela batzuek garbi ikusi zuten Bretton Woods-eko sistema jausi eta berehala, eta espekulazio hori gelditzeko neurriak ere proposatu ziren. Neurri horien artean ezagunena Tobin Tax izenekoa da. James Tobin ekonomialariak epe motzeko eragiketen gaineko tasa hau 1972an proposatu zuen


«finantza-gurpiletan hondarra» botatzeko eta hauek geldiarazteko. Zerga hau hainbat taldek defendatu arren (ATTAC Association pour la taxation des transactions financières et pour l'action citoyenne) eta gaurkotasan handia berreskuratu badu ere 2007an hasitako krisiarekin oraindik ez da benetako ahaleginik egin horrelako proposamenak praktikan jartzeko.

Dibisa-merkatuak munduko merkatu finantzario handienak dira. Bertan, batez ere bankuen arteko eragiketak gauzatzen dira, baina badaude beste agente batzuk ere, hala nola banku zentralak, enpresa transnazional handiak eta inbertitzaile instituzionalak (pentsio-funtsak, inbertsio-funtsak eta aseguru-konpainiak). Dibisa-merkatuak ikaragarri hedatu dira azken urteetan (ikusi 4.1 grafikoa) eta eguneroko eragiketak hiru bilioi dolarretik gorakoak dira. Hedapen honetan zerikusia eduki dute, jakina, aurrerakuntza teknologikoak eta finantza-merkatuetan gertaturiko integrazio-prozesuak eta desarauketak.



Dibisa-merkatuak ez dira merkatu fisikoak eta salerosketak hiri handietan kokatutako hainbat zentro finantzariotan egiten dira. Ondorengo grafikoak erakusten duenez, Londres da gunerik inportanteena, bertan egiten da eragiketa guztien ia % 35 eta hurrengo hiru hiri garrantzitsuetan, hau da, New York, Tokio eta Singapurren dibisa-eragiketen % 29 kontzentratzen da. Salerositako monetei begiratu gero, aipagarria da dibisa-eragiketa horietan AEBetako dolarrak daukan garrantzia: horrela, 2007an eragiketa guztien % 88an dolarrak parte hartu zuen (eragiketa gehienak, % 27 hain zuzen ere, \$/euro eragiketak ziren).

4.6. Eguneroko dibisa-eragiketen banaketa geografikoa, 2007.



### ***Eratortien merkatuak***

**Entrega-epareen arabera** eskurako merkatuak eta eratorrien merkatuak aurkitzen ditugu. Eskurako merkatuan aktiboak momentuan (edo ia momentuan) ematen dira, eta eratorrien kasuan, berriz, ez da horrela gertatzen, etorkizunean entregatzeko konpromisoak baitira. Eratorriaren balorea beste aktibo baten balorean oinarritzen da eta horri menpeko aktiboak esaten zaio. Menpeko aktiboak zituak, zukuak, kafea, petrolioak, metalak, interes-tasak, burtsa-indizeak, bonoak, dibisak, akzioak... izan daitezke. Adibidez, kafearen gaineko eratorri bat erosten bada, ez da kafea erosten, baizik eta kafe kantitate bat prezio konkretu batean erosteko konpromisoa. Eratorri garrantzitsuenak *aukerak* eta *gerokoak* dira. Gerokoak (*forwards*) araututako kontratuak dira eta, bertan, merkantzia edo finantza-tituluen (menpeko aktiboak) kopuru zehatza, alde aurretik ezarritako prezioan eta epe jakin batean salerosteko konpromisoa hartzen da. Aukerak (*options*) merkantzia edo finantza-tituluen kopuru zehatza, alde aurretik ezarritako prezioan eta epe jakin batean salerosteko aukera erosten da, hau da, aukeraren jabeak hitzartutako salmenta edo erosketa gauzatzeko edo ez gauzatzeko eskubidea hartzen du.

Eta eratorri klasikoak aukerak eta gerokoak badira, azken urteetan CDS (Credit Default Swap) merkatuen garapena izugarria izan da. CDS kredituen gaineko eratorria da eta aseguru-kontratu bat dela esan daiteke. Bi parteren arteko akordioa da, batek aseguru bat saltzen du eta bigarren batek erosi egiten du eta horrela bigarren hau hirugarren baten porrot-arriskutik babesten da (normalean bigarrenak hirugarrenari kreditua emanda dauka eta horrela hirugarrenak ez badu kreditua itzultzen babestuta dago). Ez ordainketen aurrean babesteko tresnak dira



baina beste eratorriekin gertatu den antzera, trabesak egiteko merkatu ezin aproposagoak bihurtu dira.

Lehengaien gaineko eratorriak aspaldikoak dira eta, batez ere, saltzaileak eta erosleak prezioen ezegonkortasunetik babesteko sortu ziren. Baina eratorriak erostean edo saltzean etorkizuneko prezioekin jokatzeko denez, apustularientzat, hau da, espekulatzailentzat oso merkatu erakargarriak dira, hau da, merkatu hauetan berehala lehengaietan inolako interesik ez zuten agenteak sartu ziren. Eta 1970eko hamarkadan flotazioa nagusitzean, moneten balioa (lehenago lehengaiena bezala) ezegonkor bihurtzen da eta orduan agente ekonomikoak (merkatariak eta inbertitzaileak) kanbio-arriskutik babesteko dibisen gaineko eratorriak sortu ziren, hau da, eratorri finantzario «garbiak». Eta lehengaiekin gertatu zen bezala, eratorri finantzario horiek espekulatzailentzat benetan erakargarriak dira eta hori dela-eta, eratorrien merkatua ikaragarri garatu da azken urteetan. Eta asko garatzeaz gain, mundu honetan imajinazio handia erabili, eta eratorriak gero eta konplikatuagoak bihurtu dira eta askotan ez dago batere garbi zer erosten eta saltzen den.

Eratorriak merkatu ofizialetan edo OTC merkatuetan negoziatzen dira. Eratorrien merkatuak ikaragarri garatu badira ere, krisiak merkatu hauetan ere eragin nabarmena izan du. Horrela, Nazioarteko Ordainketa Bankuak (BIS) emandako azken datuen arabera, 2009ko lehen hiruilekoan merkatu hauetako jarduerak behera egin du, baina ez gehiegi, kontratazio-maila 366 bilioi dolarrekoa izan baita eta aurreko hiruilekoan, berriz, 380 bilioi-koa. Eta interes-tasen gaineko eratorriak ez badira aldatu, dibisen gainekoek eta akzioen gainekoek nabarmen behera egin dute. Eta OTC merkatuetako eratorriek ere behera egin dute: 2008ko amaieran merkatua-ren tamaina 592 bilioi dolarrekoa zen, eta sei hilabete lehenago, berriz, 684 bilioi-koa. CDSen merkatua izan da gehien jaitsi dena, beherakada % 25ekoa izan da eta.

**Kokapenaren arabera** edo integrazio-mailaren arabera merkatu nazionalak eta nazioartekoak bereizten dira. Nazionalak edo *onshore* merkatuetan eragiketak moneta nazionalan egiten dira, eta *onshore* merkatuak bitan zatitzen dira: merkatu domestikoak edo etxeakoak, eta kanpo-merkatuak. Etxeko merkatuetan eragiketak bertako monetan egiteaz gain, parte hartzen duten agenteak ere bertakoak dira. Kanpo-merkatuetan, aldiz, eragiketa bertako monetan egiten da baina parte hartzen duen agenteren bat atzerrikoa da (hobeto esanda egoitza atzerrian dauka).

*Offshore* merkatuetan egiten diren eragiketak beste moneta batean egiten dira eta, nola beste moneta batean egiten diren, agintariak ez dira hain zurrunik izaten arauekin atzerrikoen diru kantitateek ez dituztelako gehiegi kezkatzen. Hori dela-eta, herri horretako jurisdikziotik kanpo egoten dira *offshoreak*.

Dena den, finantza-kontuetan *offshore* terminoarekin paradisu fiskalak adierazi nahi izaten dira, hau da, erregimen fiskal oso berezia duten herrialdeak edo herrialdeetako gune finantzario bereziak. Normalean erregimen fiskal bikoitza izaten dute, hau da, tratu ezberdina ematen zaie bertakoei eta atzeritarrei. Atzeritarrek

(enpresak edo/eta pertsonak) ez dute ia zergarik ordaintzen eta, horretaz gain, eragiketa finantzarioetan gardentasun falta nabarmena izaten da, besteak beste. Normalean lurralde txikiak izaten dira eta bertako industria finantzarioak ez du zerikusirik herriaren tamainarekin. Dena den, ez dago beti garbi zein diren paradisu fiskalak, eta zerrenda asko eta askotarikoak daude, erakunde bakoitzak irizpide ezberdinak ipintzen dituelako. Gainera, zerrendak ia etengabe aldatzen dira bertan dauden herriak jarrera aldatzeko konpromisoa azaltzarekin nahiko izaten delako bertatik ateratzeko. Zerrenda guztietatik ezagunena, seguru asko, Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak (OECD, *Organisation for Economic Cooperation and Development*) argitaratutakoa da. 2009an atera berri duen zerrendaren arabera, paradisu fiskalak hauek dira: Andorra, Anguilla, Antigua eta Barbuda, Bahamak, Belize, Cook uharteak, Dominika, Granada, Liberia, Marshall uharteak, Montserrat, Nauru, Niue, Panama, Saint Kitts eta Nevis, Santa Luzia, Saint Vincent eta Grenadinak, Samoa, Turks eta Caicos uharteak, eta Vanuatu. Ikusten den bezala zerrenda horretako asko Karibe inguruko lurralde minuskuloak dira eta zerrendan hainbat eta hainbat paradisu «klasiko» falta dira, adibidez Seychelles, Gibraltar, Monaco, Liechtenstein edo Kaiman uharteak. Etengabeko aldaketen adibide oso berria da honako hau: 2009ko hasieran OECDk bi koloreko zerrenda argitaratu zuen, beltza (txarrena noski) eta grisa. Beltzean Uruguay, Costa Rica, Filipinak eta Malaysia zeuden. Baina handik oso gutxira laurek zerrenda beltzetik ateratzea lortu zuten OECDren *standarrak* betetzeko prest zeudela adieraztean eta orain zerrenda beltza hutsik dago.

### ***Euromerkatuak***

*Offshore* merkatuekin jarraituz, euromerkatuak argi eta garbi *offshore* merkatuak dira. Euro terminoak ez dauka euroarekin edo Europarekin zerikusirik, garrantzen Europan hazi baziren ere. Horrela deitzen dira sorreran (Gerra Hotzaren testuinguruan) *Eurobank* izeneko bankuak parte hartu zuelako. Bitartekari finantzarioa herri batean kokatuta badago eta eragiketa bertako moneta horretan egiten bada, ez da euroeragiketa izango, euroeragiketa izateko beste moneta batean egin beharko da. Hau da, dolar bat AEBetan dolar bat da baina dolar bat Francfurten edo Tokion «eurodolar» bat da. Euromerkatuetan balio handiko eragiketak egiten dira eta gehienbat merkatu interbankarioa da, hau da, bankuak elkarri likidezia emateko erabiltzen dira. Eragiketak normalean epe motzekoak izaten dira (urtebetetik beherrako maileguak eta gordailuak). Nahiz eta agente inportanteenak banku komertzialak izan, parte hartzen dute ere banku zentralak, enpresa transnacionalek eta inbertitzaile instituzionalek.

Merkatu hauek asko hazi dira azken hamarkadetan eta, egile gehienek arabera, hazkunde horren arrazoia arauen asimetrian dago. Agintari ekonomikoek, adibidez, gogorrago hartzen dituzte moneta propioan izendatutako gordailuak beste monetetan izendatutakoak baino, eta horrela da, batez ere, moneta-eskaintza kontrolatu

nahi dutelako. Euromerkatuak ez dute bete behar inongo jurisdikziorik eta bitartekariak ez dute, esate baterako, kutxa-koefizienterik (ezta erreserba-baldintzarik ere) mantendu behar, gordailuek ez dute ezta asegururik ere eta interesak libreak dira. Kutxa-koefizienterik ez edukitzeak esan nahi du, besteak beste, kreditu bankarioaren biderkatzailea ez dagoela mugatuta eta mugatzen duen bakarra kredituaren ihesa dela.

#### **4.6. FINANTZEN GLOBALIZAZIOA**

Globalizazioak, oro har, eta finantzen globalizazioak ere XX. mendeko 70eko hamarkadan hasi eta 80koan jarraitu bazuen ere, ikaragarri azkartu zen 90eko hamarkadan. Gainera mendearen bukaeran prozesuan sartu ziren Ekialdeko herrialdeak ere. Kapital-mugimenduen askatasunak munduko finantza-merkatuak integratu ditu. Merkatu monetario eta finantzarioetan burutzen diren eragiketak nazioarteko merkataritza-eragiketak baino askoz handiagoak dira (50 aldiz handiagoak zenbaiten ustez) eta uste da fluxu horiek, neurri handi batean behintzat, espekulatzailerik direla, hau da, finantza-tresnak salerosten dira salerosketa huts horrekin irabaziak lortzeko asmoarekin, beraz, ez dute ekonomia errearekin loturarik.

1973an petrodolarren birziklapenarekin nazioarteko kapital-mugimenduen hazkunde-garaia hasi zen eta hazkunde horrek oraintsu arte iraun du. Egile batzuen arabera, neoliberalismoaren lehen arrakasta handia Bretton Woods sistemaren amaiera da. Eta horrela da harrezkero merkatu finantzarioak ikaragarri garatzen hasi zirelako, eta lehen garatu zen merkatua dibisena izan zen eta honekin oso lotuta eratorri finantzarioena ere. Neoliberalismoaren garai arrakastatsuen hasiera Margaret Thatcherrek eta Ronald Reaganek agintea hartu zutenean jartzen da (gobernura lehena 1979an eta bigarrena 1980an ailegatu ziren). Neoliberalentzat lehiakortasuna funtsezko kontzeptua da, herrien arteko lehiakortasuna, lurraldeen artekoa, enpresen artekoa eta jakina pertsonen artekoa. Honekin erabat lotuta neoliberalen merkatuan jarritako fedea itsua da eta Estatuaren parte-hartzea txarto ikusten dute. Ideologia hau Reaganek nahiko ondo laburbildu zuen esaldi bakar batean «Estatua ez da irtenbidea, estatua arazoa da» esan zuenean. Beharbada neoliberalismoaren arrakasta handiena euren ordena ekonomiko eta sozial posible bakar bezala gizarteratu izana da. Merkatuaren funtzionamendu askean sinesten denez, merkatuak orokorki desarautu eta liberalizatu egin ziren eta finantzen merkatua ez zen salbuespena izan; alderantziz, finantzen merkatuak globalizatuenak izan dira eta azken urteetan kapitalak askatasun osoarekin mugitu ohi dira nazioarte mailan.

Finantzen liberalizazioa AEBetan sendotu zen bertako kongresuak 1999an *Gramm-Leach-Bliley legea* onartu zuenean. Lege horrekin bankuek ordu arte debekatuta zituzten hainbat jardueratan sartzeko eskubidea lortu zuten baita zerbitzu eta produktu ezberdinak eskaintzeko eskubidea ere. Hau da, finantza-instituzioen eta beraien negozioen gaineko kontrolak nabarmen gutxitu egin ziren.

Merkatu finantzarioen liberalizazioa, besteak beste, honako neurrietan gauzatu da: interes-tasak desarautu dira (horrek esan nahi du Estatuak edo Banku Zentralak bankuei, hau da, bitartekariei emandako kredituaren prezioa finkatzen duela baina ez du eskurik sartzen bitartekariak enpresei eta familiei kobratzen dieten prezioan), kredituen gaineko kontrol publikoa kendu da, sektorean sartzeko mugak gutxitu dira, finantza-entitateei autonomia handiagoa eman zaie, banku publikoak pribatizatu dira eta atzerriko kapital-fluxuak askatu egin dira.

Gainera laurogeiko eta, batez ere, laurogeita hamarreko hamarkadatik hona finantzen popularizazio nabarmena gertatu da, mundu guztia hasi da finantza-aktiboetan inbertitzen. Eta popularizazio horretan agintariak badute zerikusia etengabe zabaldu dute-eta, adibidez, pentsio publikoak zalantzan egon daitezkeen ideia eta pizgarri fiskalak eskainiz jendea pentsio-funts pribatuetan inbertitzera animatu dute. Popularizazioa inbertitzaile instituzionalen onerako izan da, horrela maneiatzen dituzten funtsak ikaragarri hazi baitira.

Finantzen globalizazioari estu-estu lotuta ekonomiaren finantzarizazioa gertatu da eta finantzarizazioa honela azal daiteke: sortutako errentaren gero eta ehuneko altuagoa finantza-merkatuetara bideratu da, ekonomia produktiboa alde batera lagata, eta horrela izan da azken urteetan merkatu finantzario hauek (batzuek merkatu birtualak eta magikoak direla diote) oso errentagarriak izan direlako. Arazoa da merkatu finantzarioetan balore nominalak handitu handitzen direla baina ez dela aberastasunik sortzen.

Finantzen munduan berrikuntza benetan handiak egin dira eta adibidez produktu finantzario berri asko asmatu dira. Eta berrikuntza horietan exekutiboen soldata altuek pizgarri bezala jokatu dute. Ingeniaritza finantzarioa sortzen da finantza-tresnak ugaritzen direnean baita bankuak eta beste bitartekariak gero eta paper aktiboagoa jokatzen hasten direnean ere, eta bezeroen aurrean iniziatiba hartzen dute produktu berriak eta gero eta konplikatukoak eskainiz. Are gehiago, bitartekariak ere horrelako aktiboetan gero eta gehiago inbertitzen dute negozio-aukera handiak ikusten dituztelako. Honek guztiak agenteen arteko konkurrentzia handitzen du, eta horrekin ingeniaritza oraindik gehiago garatuko da.

Jakina, globalizazio hau nekez ulertuko litzateke aurrerakuntza teknologikorik gabe eta finantzen kasuan telekomunikazioan eta informatikan emandako aurrerakuntzarik gabe. Komunikazioen aldetik ere gauzatutako berrikuntzek kapitalen mugikortasuna ahalbidetu dute. Sateliteek, faxak, posta elektronikoak, Interneten bitartez egindako telekonferentziek, komunikazioa ikaragarri merkatu, eta datuen transferentzia izugarri erraztu dute. Aurrerakuntza teknologiko hauei esker nazioarteko merkatuetan aritzen diren kapital kantitate gero eta handiago horiek oso-oso denbora gutxian mugitzen dira, elkarrekin 24 orduz konektatuta dauden merkatuetan edozein gertaerak fluxuen norabidea alda dezake eta horrekin merkatuen hegazkortasuna ere ikaragarri hazi da.

#### **4.7. KRISI FINANTZARIOAK**

Nazioarteko finantza-sistemak krisirako joera gero eta handiagoa erakusten du, hori bai, azken krisiak nahiko ezberdinak izan dira. Bretton Woods-eko sistema amaitu zenetik gertatutako krisi garrantzitsuenen artean honako hauek ditugu: 80ko hamarkadako kanpo-zorraren krisia, Europako Diru Sistemaren krisia 1992an, Mexikoko krisia 1994an (eta haren «Tekila efektua»), Asiako krisia 1997an, Brasilgoa 1998an, Errusiakoa 1998an, Turkiakoa 2000n, Argentinakoa 2001ean (haren «Tango efektuarekin») eta azkena 2007an eztanda egin zuen Atzeraldi Handi Globala. Jakina krisiak askoz ugariagoak izan dira baina askotan ondorioak bakarrik krisia sortu den herrialdean nabaritzen dira. Krisi bat nazioarteko krisia izateko hedatu egin behar da beste herri batzuetara eta zabaltze hori «kutsadura-efektu» izenez ezagutzen da. «Krisi-zerrenda» asko daude, adibidez Eichengreenek 1973 eta 1997 bitartean herri emergenteetan 95 krisi eta Iparraldekoetan 44 izan zirela dio. Emergenteetako krisietatik 57 kanbio-krisiak izan ziren, 17 banku-krisiak eta 21 krisi bikiak.

Eta krisien ugaritasunak globalizazioarekin lotura estua dauka baita merkatu finantzarioetan izandako aldaketekin ere. Krisien arrazoiak ez dira beti oso argiak izaten eta ekonomialariak, oro har, ez dira gai izan aurreikusteko, hau da, esan daiteke krisi guztiak sorpresa handia izan direla eta, beraz, krisiak azaltzen dira behin pasatu eta gero. NDFk hiru motatako krisiak bereizten ditu: kanpo-zorraren krisiak, kanbio-krisiak eta banku-krisiak. Kanpo-zorraren krisiaren atzean herrialde batek zorra ordaintzeko ezintasuna aurkitzen da. Ezintasun horren atzean, berriz, likidezia-arazoa edo solbentzia-arazoa egon daitezke. Arazoa likideziarena bada, arazoa behin-behinekoa da; eta, berriz, kaudimen-arazoa bada, herriak egiturazko arazoa izango du ordainketei aurre egiteko. Kanbio-krisia gertatzen da herri bateko monetak presio oso handiak jasaten dituenean eta presio horrek politika ekonomikoa aldatzera behartzen ditu. Hau da, horrelako krisia gertatzen da moneta asko eta azkar devaluatu edo depreziatzen denean, eta honi aurre egiteko normalean agintariak parte hartzen dute dibisa-merkatuetan interes-tasak igoz edo politika makroekonomikoak aldatuz. Banku-krisia dugu finantza-sistemak porrot egiten duenean edo porrot-arriskua nabarmena denean. Askotan kanbio-krisiak eta banku-krisiak batera gertatzen dira eta horrelako fenomenoak adierazteko «krisi biki» terminoa erabiltzen da. Krisi bikiak gehienetan gertatzen dira herri bateko finantza-sistema nazioarte-mailan zorpetu denean.

Gure helburua ez da finantza-krisiak modu sakonean azaltzea, besteak beste, oso konplikatu eta luzea izango litzatekeelako. Hala eta guztiz ere, ez guke gai hau amaitu nahi krisiez xehetasun batzuk emateke eta horretarako adibide gisa mota bakoitzeko krisi bat aukeratzea erabaki dugu. 1980ko kanpo-zorraren krisia, Asiako krisia, eta 2007an hasitako Atzeraldi Handia.

#### **4.7.1. Kanpo-zorraren krisia: 1980ko hamarkadako krisia**

Orain arte gertatutako kanpo-zorraren krisietatik garrantzitsuena eta orokorre-na 1980ko hamarkadan eztanda egindakoa da. Pasa den mendeko 70eko hamarkadan Hegoaldeko finantzaketa asko aldatu zen eta, laburbilduz, pribatizatu eta bankarizatu egin zela esango dugu. Eta aldaketa horretan faktore askok eragin bazuten ere, guk eskaintzan emandako bat aipatuko dugu. Hamarkada horretan petrolioaren prezioa asko igo zen eta igoera horrek herri produktoreen sarrerak ikaragarri igotzea ekarri zuen. Petrolioaren prezio-igoerak bazuen erlazioa baita Bretton Woods-eko amaierarekin: petrolioaren negozioa dolarretan egiten zen eta dolarra 1971n eta 1973an devaluatzea petrolioaren negozioarako kaltegarria izan zen eta hau petrolioaren prezioaren igoeraren atzean zegoen arrazoietakoa bat izan zen. Petrolio-produktoreen sarrera-igoera gastu-ahalmena baino handiagoa izan zen eta petrodolar asko Iparraldeko bankuetan gorde ziren. Iparraldeko bankuek, beraz, irtenbide bat aurkitu nahian Hegoaldeko herrialdeei maileguak oso erraz eta oso merke eman zizkieten gehiegi aztertzeke ordaintzeko gai izango ziren ala ez. Kontuan izan behar da garai hartan Iparraldea krisi sakonean sartuta zegoela eta beraz kreditu-eskaria erabat geldotuta. Eta Hegoaldera emandako mailegu asko interes-tasa aldakorrean eman ziren.

Laurogeiko hamarkadaren hasieran eta inflazioa kontrolatzeko AEBek interes-tasa igo zuten eta honi erantsi behar zaio baita dollarraren aprezioazioa 1981-84an eta lehengaien prezioen jaitsiera. Horrela, zorraren zerbitzua ikaragarri hazi zen eta herri zordunak ordaintzeko arazo larriekin aurkitu ziren. Horrela, 1982ko abuztuan Mexikok zorra ez ordaintzea erabaki zuen (gertaera hau «Mexikoko sustoa» esapideaz ezagutzen da eta hartzekodunen ikara benetakoa izan zen) eta Mexikoren atzetik beste batzuek ere gauza bera egin zuten. Berehala zorra birnegoziatzeko bilerak egiten hasi ziren eta birnegoziazio horretan Nazioarteko Diru Funtzari arbitro-papera eman zitzaion eta, beraz, aurreko hamarkadan galdutako protagonismoa berreskuratu eta oinarrizko funtzioetan aldaketa batzuk egiten ditu: doikuntza-politikan «egiturazko doikuntzaren» alde egiten du eta egiturazko eta epe ertaineko neurriak lehenesten ditu. Birnegoziazio hauen azken helburua zordunek zorra ordaintzea zen eta, batez ere, zordun handiek (gehienbat Latinoamerikako herrialdeak) beren zorra ordaintzea, hauek zirelako benetako arazoa Iparraldeko hartzekodunentzat. Eta zorra ordaintzeko lortu beharrekoa oso simplea izaten da: sarrera gehiago lortu eta gutxiago gastatu, hau da, austeritate-planak ezarri ziren. Hartzekodunak Iparraldeko banku pribatuak, gobernuak eta nazioarteko instituzioak ziren (hauek garrantzitsuak bereziki herrialde pobreenen kasuan) eta zordunak, berriz, herri zordunetako enpresak (nahiz bertakoak nahiz multinazionalak) eta gobernuak izan arren, azken hauek hartu zuten beren gain zorraren ordainketa.

Herri zordunek NDFren finantzaketa eskatzen zuten zorrari aurre egiteko eta aurrerago diogun bezala NDFren finantzaketa beti finantzaketa baldintzatua da eta kasu honetan doikuntza-egitasmoak inposatu zituen. Doikuntza-egitasmo horiek

Hegoaldetik Iparralderako baliabide-transferentzia neto handia ekarri zuten eta ondorio ekonomiko eta bereziki ondorio sozial oso kaltegarriak eragin zituzten (laurogeiko hamarkada Latinoamerikarentzat «alferrik galdutako hamarkada» deitzen da). 1990eko hamarkadatik aurrera zorraren arazoez askoz gutxiago hitz egiten da baina horrek ez du esan nahi arazoa amaitu denik (arazoak larria izaten jarraitzen du herri askorentzat eta, batez ere, oso pobreetan zorraren zama oso handia da), baina, hori bai, hartzekodunentzat arriskua pasatu dela esan daiteke.

#### **4.7.2. Kanbio-krisia: Asiako krisia**

Asiako krisia (Hego Korea, Tailandia, Malaysia, Indonesia, Hong Kong eta Filipinetan eragin zuen) kanbio-krisien eredu gisa ipini badugu ere, benetan krisi bikia izan zen, hau da, kanbio-krisia eta baita banku-krisia ere. 1970eko hamarkadan Asiako hego-ekialdeko herriak hazkunde-eredu bilakatu ziren mundu-mailan, bertan urteko batez besteko hazkunde-tasak % 8 ingurukoak ziren, beste Hegoaldeko erregioetakoak baino nabarmen altuagoa. Kanbio-erregimenari dagokionez, moneta AEBetako dolarrari lotuta zuten. Asiako krisia, neurri handi batean, Washingtongo Kotsentsuak planteatuko neurriak aplikatzearen ondorioa dela esan daiteke. Herrialde haietan kapital-mugimenduak erabat askatu egin ziren baina behar bezalako kontrol bankarioa ezartzeke, hau da, finantza-sistema nazionala behar bezala garatzeke, eta hau atzerriko fluxuak kudeatzeko orduan arazo nabarmena izan zen. Hori dela-eta atzerriko kapital ugari sartu zen merkatu erakargarriak zirelako eta epe motzeko zorra asko handitu zen. Aldi berean, estatuak sektore pribatura zuzendutako atzerriko inbertsioak koordinatzeko papera alde batera laga zuen eta horrek kasu askotan gaininbertsioa eta enpresen errendimenduaren jaitsiera ekarri zituen.

Krisi guztiek edo ia guztiek adituak eta agintariak ustekabeen harrapatzen badituzte ere, Asiako krisiaren kasuan sorpresa oraindik handiagoa izan zen eta horrela izan zen krisiak eztanda egin aurretik normalean sortzen diren desorekak ez zirelako herri haietan ageri. Salbuespen bakarra Tailandia zen, bertan defizit korrontea nahiko handia zen eta. Krisi honek eztanda egin zuen 1997ko uztailean Tailandiak bere moneta (*bath*) erortzen utzi eta NDFren laguntza eskatu zuenean. Tailandiako moneta debaluatzean inguruko herrietan ere konfiantza-arazoa sortu zen eta herri horietako monetek erasoak jasan zituzten (krisi honetan hainbat inbertsio-funtsek jokaturako papera oso kritikatu izan zen). Beraz kutsadura-efektua Malaysia, Indonesia, Hong Kong eta Filipinetara zabaldu zen. Asiako krisian garbi ikusi zen kapital-fluxuak oso ezegonkorrak izan daitezkeela eta atzerriko fluxuen «jarrera gregarioa» egiaztatzeke aukera paregabea izan zen. Horrela, atzerriko inbertitzailerek 1997an merkatu hauetan izandako konfiantza galdu egin zuten eta kapital-irteerak oso handiak izan ziren. Nahiz eta ekonomian etengabe errepikatu agente ekonomikoak guztiz arrazionalak direla, kapital-mugimenduetan aritzen diren inbertitzailen instituzionalak (pentsio-funtsak, inbertsio-funtsak eta aseguru-konpainiak) «kapital eroak», «kapital enarak» eta antzeko terminoekin kalifikatzen

dira. Horrela adierazi nahi da beti batera mugitzen direla, artalde moduan funtzionatzen dutela eta askotan horrelako funts inportante batek herri batetik ihes egiten badu, atzetik gainerakoek ere gauza bera egingo dutela. Jarrera horren atzean arrazoi asko egongo dira, baina garrantzitsu bat, informazio-arazoa da.

Eta Asiako krisiari aurre egiteko NDFk proposatutako neurriak guztiz desegokiak izan ziren (NDFk berak horrela onartu zuen azkenean). Inbertsio-funts europar eta amerikarrak herri horietatik kapitala erretiratzeko hasi zirenean, NDFk egoera konpontzeko inflazioa eta defizit publikoa kontrolatzeko neurriak agindu zituen eta oso neurri arraroak ziren, kontuan izanda herri horiek ez zutela ez inflazio-arazo nabarmenik ezta defizit publiko handirik ere (1997an NDFren laguntza eskatu zuten hiru herrietako —Indonesia, Tailandia eta Hego Korea— kontu publikoen egoera oso ona zen). Eta NDFk inposatutako gastu publikoaren jaitziera oso kaltegarria izan zen, krisi ekonomikoa areagotu besterik ez baitzuen egin.

Krisi hau, 2007koa heldu den arte, Bretton Woods amaitu zenetik larriena izan da eta adituak beldur ziren ea ote zen benetako krisi global bihurtuko. Eta krisi honekin batera Nazioarteko Arkitektura Finantzario Berriaren (NIFA New International Financial Architecture) inguruko eztabaida piztu zen. Eztabaidatu ziren gaiak bi izan ziren, batez ere: alde batetik, nola aurre hartu krisiei, hau da, krisiak aurreikusteko mekanismoak asmatu eta aplikatu beharra, eta bigarren gai nagusia, NDFren papera krisietan. NDFren rolari dagokionez, kritikatu ziren, alde batetik, instituzio horrek ezartzen zituen neurriak edo baldintzak, zeren eta Asiako kasuan oso nabarmen gelditu baitzen guztiz desegokiak zirela eta eztabaidatu zen bere lana «azken mailegu-emaile gisa» honekin «arrisku moral» arazoa ager zitekeelako. Hau da, NDFk krisian dauden herriak erreskatatzean edo laguntzean portaera arriskutsuak desagertzeko oztopoa izan daiteke, arriskuzaleek badakitelako zerbait gertatuz gero, laguntza jasoko dutela. Eta NDFren hutsegiteak instituzio bikien arteko lehen gatazka sortu zuen Munduko Bankua ez zelako ados egon NDFk erreskate-politiketan ezarritako baldintzekin. Ez dugu esango NIFA eztabaida alferrikakoa izan zenik, ikuspuntu akademikotik behintzat interesa eduki zuelako baina ikuspuntu praktikotik, ez zen ia ezer aldatu, seguru asko krisia gainditu zenean benetako aldaketa-beharra ez zelako premiazkoa ikusi.

#### **4.7.3. Banku-krisia: Atzeraldi Handia**

XXI. mendeko lehen krisi globalak ezustean harrapatu zuen mundua eta milurtekoko lehen hamarkada hau egile batzuek «*hamarkada hutsa*» esapidiaz definitu dute dagoeneko. 2007an eztanda egin zuen krisia izen askorekin ezagutzen da: zekenkeriaren krisia, mendeko krisia, krisi morala, krisi globala eta atzeraldi handia, besteak beste. Hau idazten ari garenean, Depresio Handia izan eta gero gertatu den krisirik larriena ez da oraindik amaitu, beraz, analisi sakona egiteko azkarregi da eta hemen klabe batzuk ematen besterik ez gara ahaleginduko. Esan dugu Bretton Woods sistema jausi zenetik hamaika finantza-krisi gertatu direla,



baina besteak ez bezala, gaurko hau munduko herri inportanteeneko finantza-gune garrantzitsuenean sortu da, Wall Streeten, eta Iparraldeko herrien finantza-sistemen porrot-arriskua oso erreala izan da. Finantza-sistamarako, orain arte, momentu larriena 2008ko iraila izan zen Lehman Brothers erori zenean.

Krisi ekonomiko honek hiru hanka izan ditu: higiezinaren krisia, krisi finantzarioa eta krisi ekonomikoa edo «ekonomia errearen» krisia. Atzean 6. puntuan azaldu dugun finantzen globalizazioa eta globalizazio hori eragin zuten faktoreak ditugu. Oso-oso abiadura handiko krisia izan da. AEBetan hasi zen *subprime krisia* bezala 2007an: etxebizitzaren prezioa etengabe igoko zelakoan familia pobreei hipoteka ugari saldu zitzairen. Aktibo toxiko horiek gero titulizatu, paketeetan sartu eta mundu osoan oso erraz saldu ziren, besteak beste, *rating agentziek* oso ondo baloratu zituztelako (beraz, agentzia horien erantzukizuna ere ez da makala). Gero, etxebizitzaren prezioa jaisten hasi zenean eta garbi ikusi zenean hipotekak ez zirela kobratuko, gauzak okertzen hasi ziren, hau da burbuila hipotekarioak eztanda egin zuen eta finantza-erakundeak arazoak izaten hasi ziren, euren artean deskonfiantza nagusitu zen ez baitzekiten bakoitzak zenbat zabor zeukan. Horrela, *subprime krisia* 2008an nazioarteko krisi finantzario bihurtu zen. Ordu arte instituzio finantzarioek hain erraz emandako kredituen garaia, diru errazaren garaia bat-batean amaitu egin zen eta familiak eta enpresak arazoak izaten hasi ziren. Horrekin krisi finantzarioa ekonomia errealera pasatu zen eta Enpleguaren Krisia bihurtu zen. Krisi finantzarioaren eragina batez ere Iparraldean sentitu bada ere, krisi erreala guztiz mundiala da, hau da, krisiaren ondorio kaltegarrienak Iparraldeko eta Hegoaldeko gizon eta emakume asko eta asko ari dira jasaten, Enpleguaren Krisia benetan globala delako.

Krisi finantzarioen artean hau banku-krisia dela esan daiteke Iparraldeko finantza-entitate oso garrantzitsuek porrot egin dutelako (Bear Stearns, Fannie Mae & Freddie Mac, Lehman Brothers, Merrill Lynch, American International Group...). Banku-sistemaren porrota ekiditeko eta etendako kreditu-fluxua irekitzeko gobernu guztiek, merkatuaren aldeko ideologia eta *arisku moralaren* arriskua alde batera lagata, bankuak erreskatatzeko baliabide publiko itzelak erabili zituzten (Ben Bernanke, Erreserba Federaleko buruak, metafora antzera esan zuen helikoptero batetik dirua bota behar zela eta horregatik batzuek «Helikopter Ben» gaitzizena ipini zioten). Hori bai, erreskate horretan bi gauza azpimarratuko genituzke; alde batetik erantzun azkarra, eta bestetik tamaina. Presa horrek agerian utzi du beste kasu batzuetan izandako nagia, batez ere garapenerako laguntzan, pobreziaaren aurka eta aldaketa klimatikoaren aurrean.

Atzeraldia antzematen hasi bezain laster gobernuak ekonomia berotzeko neurrietan pentsatzen hasi ziren, hori bai, gehiegi hausnartzeke zer motatako hazkundera komeni den. Kontua da, esportazioak eta inbertsioak erabat geldotuta zeudenez, gastu publikoa handitzeko neurriak, neurri keynesiarrak hartzen hasi zirela baita kontsumoa pizteko ahaleginak egiten ere. Gastu publikoa igotzeko

azpiegitura fisikoak aukeratu dira askotan, hau da, eraikuntza bultzatzea erabaki da sektore motorra delakoan. Kontsumorako deiak entzutean pentsatu ahal genuen krisi honen errua kontsumitzaileok genuela, bai behintzat enplegua mantendu arren gastua murriztea erabaki zutenak. Krisiak kontsumo-ohiturak zerbait aldatu dituela ematen du. 2007 baino lehen jendeak asko gastatzen zuten, askotan errenta-ahalmenaren gainetik eta horrela zen arrazoi ezberdinengatik. Alde batetik, ekonomikoki urte oparoak ziren, lan-merkatua ondo zegoen eta langabezia baxua zen. Bestalde, kontsumorako kredituak lortzea oso erraza zen eta ez zen harritzekoa oporretarako eta abar zorpetzea. Azkenik, ekonomian «aberastasun-efektua» deitzen dena zegoen, hau da, gastatzeko orduan aberatsak bagina bezala jokatzeko genuen. Eta aberatsak sentitzen ginen, kontsumoa erabakitzeko garaian ez genuelako bakarrik errenta kontuan hartzen, kalkuluak egitean beste aktiboen balorea ere sartzen genuen, besteak beste gure etxebizitzaren balioa eta finantza-aktiboenak ere bai. Eta badakigu aktibo horien prezioa erabat puztuta zegoela, burbuilak eztanda egin duenean ikusteko aukera izan dugun legez.

Krisia eta gero, panorama guztiz bestelakoa da. Hasteko lan-merkatua oso txar-to dago, langabezia izugarri hazi da eta enplegua mantentzeko zortea izan duten askok ere errenta-galera nabarmenak eduki dituzte. Bestalde finantza-krisia dela-eta, kreditu errazeko garaia historiara pasatu da, kredituak lortzea oso zaila bihurtu da bankuek iturria erabat itxita daukatelako. Eta azkenik, aberastasun-efektua erabat eta bat-batean pasatu zaigu. Horrela gauzak, ez da, bada, harritzekoa jendeak gutxiago kontsumitzea, eta adituen arabera, egoerak horrela jarraituko du nahiz eta hazkunde-tasak sendotu. Pixka bat exageratuz, ematen du kontsumismo-garaitik gerra-garaiko kontsumorako ibilbidea egiten ari garela. Eta hau, nire ustez, krisiaren ondorio positiboetako bat izan daiteke, bai behintzat kontsumo arduratsuago batera jotzen bada. Baina horrek badauka baita bere arriskua ere eta arriskua nabarmena da gastatzen ez den diru hori berriz ere finantza-merkatuetara bideratzen bada, zeren eta horrela balitz, burbuila berrien arriskua berbertan izango baikenuke.

Aipatzekoa da orobat krisiari aurre egiteko G-20 hiru aldiz bildu dela orain arte (Washington, Londres eta Pittsburgen). Lehengo bilerak, Washingtingoak, itxaropen ikaragarria sortu zuen eta batek baino gehiagok esan zuen handik Bretton Woods II aterako zela. Horrelako konparaziorik ez da gehiago entzun eta hori izan daiteke bilera hauen porrotaren sintoma bat. Hasiere-hasieratik adituak finantza-sistemaren arauak aldatzeko eskatzen hasi ziren eta sortutako hondamendia hain handia zenez, erreforma hori behintzat gauzatuko zela pentsatu genuen, zeren eta krisi honen oinarrian finantzen deskontrola, desordena eta desarauketa egon direla ez du oraindik inork ukatu. Baina hau idazten ari garenean, historia honen hasiera ahazteko zorian gaudela ematen du. Hori ematen du bai, batzuk hasi dira-eta erreforma finantzarioen beharra bera ere zalantzan jartzen eta planteatzen ari diren aldagetak nahiko ziztrinak dira. Adibidez, Europako Batzordeak 2009ko amaieran aurkeztu zuen finantza-sistema hobeto kontrolatzeko plana. Besteak beste *European*

*Systemic Risk Council* (ESCR) sortuko du krisi-arriskua begiratzeko, baina harri-garria da erakunde horrek agenteren bat gaizki jokatzen ari dela eta bere portaerarekin sistema arriskuan jar dezakeela ikusten badu, ez du agente arriskutsua ezertara derrigortzeko ahalmenik ezta zigorrik ezartzekorik ere. Eta «agente toxiko» horien gaineko presioa berriro ere merkatuaren esku utziko du.

Krisia nahiko bat-batekoa izan bada ere, ematen du irteera ere horrelakoa izatea nahi dela eta, adibidez, 2009ko abuztuan NDFk adierazi zuen krisia bukatzeaz zegoela. Hasiera-hasieratik ikusi zen oraingoa ez zela krisi arrunta eta ez zuela V itxurarik edukiko, seguru asko L baten antzekoa izango zela, hau da, jaitziera azkarraren ostean ez da igoera azkarra etorriko, geldiene luzea baizik. 2010eko hasieran gero eta aditu gehiagok pentsatzen dute burbuila berrien arriskua nahiko erreala dela eta beldur dira azkenean ez ote duen W itxura izango. Eta segurua da burbuila finantzario berriak sortuko direla merkatu finantzarioetako arauak ez badira aldatzen.

#### LABURPENA

Azkenengo hamarkadetan finantzen globalizazio-prozesu sakona bizi izan da eta globalizazio horretan zerikusi handia eduki du XX. mendeko 1970eko hamarkadan Nazioarteko Diru Sisteman emandako aldaketak, hau da, kanbio finkoen sistematik flotaziora pasatzeak. Horren ondorioz, dibisen merkatuak ikaragarri hedatzen hasi ziren baita eratorri finantzarioen merkatuak ere. Gero 1980ko hamarkadatik aurrera, ideologia neoliberalak nagusitu zen garaian, finantza-merkatuak desarautu egin ziren eta desarauketa horrek haien hazkundera bultzatu zuen. Finantza-merkatuak sailkatzeko irizpide ezberdinak daude, besteak beste, arau juridikoen arabera, aktiboen epeen arabera, entrega-eparen arabera eta kokapenaren arabera. Hartzen den irizpidea hartzen dela merkatu guztiak ikaragarri hazi ziren azken hiru hamarkadetan: dibisen merkatuak, burtsak, euromerkatuak, eratorrien merkatuak eta abar. Ematen du oraingo krisiarekin hazkunderako joera hau aspaldiko partez apurtu egin dela.

Finantzen globalizazioa sakontzen joan den neurrian krisi finantzarioak ugaritu egin dira eta hainbat kasutan kutsadura-efektua benetan larria izan dute. Horren adibide dira Asiako krisia eta, noski, gaurko Atzeraldi Handia. 1997an Asiako krisiak eztanda egin zuenean mundu osora hedatuko ote zen beldurra zabaldu zen eta nazioarteko finantza-merkatuak eta harremanak aldatu beharra ikusi zuten adituek, hau da, Nazioarteko Arkitektura Finantzario Berriaren inguruko eztabaida piztu zen. Orduan, aldaketak teorikoak izan baziren ere, oraingo krisi finantzarioa munduko herrialde inportanteenetara hedatu denez, agintari ekonomikoek aho batez esan dute aldaketak guztiz premiazkoak direla. Baina oraindik ikusteko dago zertan geldituko diren erreforma-neurri guztiak. Asiako krisia kanbio-krisi bezala definitu daiteke eta Atzeraldi Handia, berriz, bankukrisia da. Badago Nazioarteko Diru Funtzaren arabera hirugarren krisi mota bat: kanpo-zorraren krisia eta orain arte kanpo-zorraren nazioarteko krisirik larriena 1980ko hamarkadakoa da, inolako zalantzarik gabe.

Nazioarteko moneta-sistema aldatzean sistema hori zaintzeko sortutako instituzioak, Nazioarteko Diru Funtzak, funtzio nagusia galdu egin zuen eta bere zereginak aldatu beharra izan zuen. Funtzio erregulatzailerak galdutakoan kreditu-funtzioan zentratuko da eta funtzio horretan ere hainbat aldaketa izango dira. Azken hamarkadetako krisi finantzarioetan protagonismoa berreskuratu du NDFk baina askotan jokaturako papera kritikatu izan da arrazoi ezberdinengatik. NDFren instituzio bikiak, hau da, Munduko Bankuak ere protagonismo handia eduki du azken hamarkadetan, batez ere Hegoaldeko herrialdeetan, bere zeregin nagusia garapena bultzatzea da eta hau ere ez da kritiketatik kanpo gelditu.

## **BIBLIOGRAFIA**

- Alonso, J.A.; Fernández, S. eta Steinberg, F. (2009): *La reforma de la arquitectura financiera internacional*, Ed. Empresa Global, Madril.
- Alsasua, J. (2009): “Las relaciones monetarias y financieras internacionales”, J. Bilbao eta J. Longás (koord.): *Temas de economía mundial*, Delta, Madril.
- Eichengreen, B.J. (2000): *La globalización del capital: historia del sistema monetario internacional*, Antoni Bosch.
- Husson, M. (2009): *Un Capitalismo puro*, Maia Argitaletxea, Madril.
- Mishkin, F. (2001): “Marco de análisis, hechos e implicaciones de la inestabilidad financiera mundial”, *Ekonomiaz*, **48**, 12-37.
- Torrero, A. (2006): *Crisis financieras. Enseñanzas de cinco episodios*, Marcial Pons, Madril.

## **WEB ORRIAK**

[www.bis.org](http://www.bis.org)  
[www.ecb.int](http://www.ecb.int)  
[www.imf.org](http://www.imf.org)  
[www.oecd.org](http://www.oecd.org)  
[www.unctad.org](http://www.unctad.org)  
[www.worldbank.org](http://www.worldbank.org)  
[www.world-exchanges.org](http://www.world-exchanges.org)

## 5. Globalizazioaren dimentsio teknologikoa

*Antxon Mendizabal Etxabe*

Thomas Khunek dio iraultza zientifiko batek beti paradigma berri bat eraikitzen duela. Eta paradigma berri horrekin gure mundu-ikuspegia eta barnean daukagun kokapena eraldatzen direla. Bere liburuan *La Estructura de las Revoluciones Cientificas* (1962), zientzia egonkortasunaren aldi luzeen historian kokaturik dagoela esaten du. Eta historia horrek etenaldiak eta aldaketa zakarrak ezagutzen dituela.

Zentzu horretan, esaten du zientziaren bilakaera ez dela lineala izan; baizik eta ezagutza-prozesuan haustura eta jauziekin aurreratu dela, benetako iraultzen bidez antzinako ezagutza-sistema gaindituz. Tomas Khunek komunitate zientifiko osoak onartzen dituen teoria kardinalen existentzia defendatzen du. Arazo zientifikoak konpontzea izango da teoria horien jomuga.

Denbora-aldi batean unibertsalki onartuak diren gauzatze zientifiko hauek arazo- eta soluzio-bideen ereduak ematen dizkiote komunitate zientifiko zehatz bati. Paradigmak horrela testuinguruak dira. Eta testuinguru horien barnean zientzialariek, aztertutako arazoei soluzioa bilatzeko ereduak ematen diete.

### 5.1. XX. MENDEKO IRAULTZA ZIENTIFIKOA

Ilustrazioak eraikitako ezagutzaren hiria XX. mendean krisian sartu da. XVIII. mendearen bigarren erdian Newtonen fisika jaun eta jabe hedatu zen toki guztietan; garaiko fisikaren muga zehatzak gaindituz Ilustrazioaren oinarritzko filosofia bihurtzeko. Mekanika da hemen mundu-sistema azaltzeko beharrezko tresnak dituen matrizea. Imanuel Kant-ek idatzitako *Arrazoimen hutsaren kritika* obrak sistema newtondarrari egia ontologikoaren estatusa eman zion eta horrela ezagutza klasikoaren oinarri bihurtu zuen. XIX. mendearen hasieran, ikuspegi deterministak kokapen pribilegiatua lortu zuen. Geroago, *Espezien jatorriaz* argitaratzearekin Darwin-ek ezarritako teoria eboluzionistak naturari buruzko ikusmolde mekanizistari bultzakada emango zion.

Modu horretan, erakuspen kosmologiko berriaren marko kontzeptuala denbora klasikoan jaun eta jabe izan zen, Einsteinek planteatutako *Erlatibitatearen Teoria Orokorra* (1916) eta *Mekanika Kuantikoa* agertu arte. Einsteinek espazio eta denbora kontzeptuei buruzko formulazio berria egitean, erradikalki eraldatu zuen

fisikari buruzko ikusmoldea. Fisikaren eremutik ezabatu zituen Newtonek ezarrita-ko espazioa eta denbora; eta dena larritu egin zen mekanika kuantiko, genetika, eta biologia molekularren garapenarekin. Hondoratu ziren horrela Mendebaleko gizartean eraikitako arrazionaltasun modernoaren oinarritzko postulatuak, naturari buruzko eredu berria azaleratzearekin batera.

## 5.2. TEKNOLOGIAREN IRAULTZA

Testuinguru horretan, Carlota Perez-ek «iraultza teknologikoa»ren kontzeptua garatzen du (2002). Horrela, iraultza teknologikoa teknologia, produktu eta industria dinamikoen multzo bezala definitzen du, zeina gai den ekonomiaren oinarriak asintzeko eta epe luzerako garapen-uhina bultzatzeko. Berrikuntzak, energia-iturri berriak, produktu eta prozesu berriak eta azpiegitura berriak bateratzen dira hemen<sup>12</sup>.

Iraultza teknologikoak, alde batetik, egitura produktiboaren birmoldaketa eta erakunde-sistemaren eraldaketa, eta bestetik, ideologian, kulturaren eta irakaskuntzan aldaketak eragiten ditu. Ondorio sozialak ere ezustekoak dira. Gogora deza-gun hemen ekoizpen masiborako teknologiek sortu zituzten ereduak: keynesiarren demokrazia ordezkatzaila, ekonomiaren antolaketa sozialista eta faxismo europarra.

Zentzu berean Carlota Perez-ek, teknologia, industria eta produktuen ibilbidearen logika adierazteko, paradigma tekniko-ekonomikoaren nozioa definitzen du (2002). Modu horretan paradigma bihurtzen da garapen globalaren prozesuaren eredu eragilea. Eta paradigma horrek inklusio/bazterketa logika ezartzen du inguruko prozesu ekonomikoen gainean. Berak adierazten du iraultza teknologikoa aplikatzeko era eraginkorra; berrikuntzak ahalbidetzen dituen «zentzuz jokatze» joera berria bihurtuz.

Iraultza teknologiko bakoitzaren zabalkundeak aurretiko iraultza teknologikoen logiketan erresistentzia ahaltsuak aurkitzen ditu. Schumpeter-ek gogoratzen digu hazkunde kapitalistaren motorra berrikuntza dela. Autore horren arabera (1934; 1942; 1975), berrikuntza prozesu «suntsipen-sortzaile» baten bitartez gautzen da. Prozesu horrek sistema produktibo osoa modernizatzen du eta modu horretan gutxi gorabehera 50 urterik behin garapen kapitalistak iraultza teknologikoaren zikloak ezagutzen ditu.

---

12. Aipatutako iraultza aurrerapen teknologiko eta zientifiko ahaltsuen testuinguruan garatzen dela kontsideratu beharko genuke. Eta hori diziplina zientifiko guztietan gainera: komunikazio, biokimika, elektronika, fisika molekular, mundu aeroespazial eta abarretan. Jakina da gaur egun, fusio nuklearrean, konputazio optikoan, satelite bitarteko komunikazioan, bioenergian, superkonduktibitatean eta abarretan dauden aurrerapen azkarrek erradikalki eralda dezaketela planetako paisaia geopolitikoa.

Dena den, aldaketa teknologikoa enplegu- eta trebetasun-galerarekin agertzen da. Baita produkzio-lekuaren aldaketarekin ere. Trebetasun berritzaileak agertzen dira produktu berriak ekoizteko, merkatu-garapenerako<sup>13</sup> gaitasun handiagoa daukaten espazioetan. Dena den, iraultza teknologikoez ez dute ekartzen produkzio-moduen eraldaketa, baizik eta murriztagoa den errealitate baten eraldaketa hazkunde-ereduarena.

Ezin da zuzenki lotu ezta ere, aldaketa teknologikoa aldaketa soziopolitikoarekin. Eta gizarte konkretu bakoitzean harreman soziopolitikoak dira, hain zuzen ere, iraultza teknologiko bakoitzean, ahalezko garapen berritzaile eta produktiboa oztopatu edo ahalbidetu egiten dutenak. Aldaketa teknologikoa, ekimen teknologiko eta enpresarial berriek bideratzen duten «erakarmen» berriaren bitartez egituratzen da. Prozesuaren bukaeran teknologia multzo bakoitzak Ikea edo deklibe-fasea ezagutzen du eta horrela bere potentzialtasunaren agortzea erakusten du.

Karlota Perez-ek «garapen-uhina»ren kontzeptua ezartzen du. Hemen, iraultza teknologiko bat eta bere paradigma, ekonomia osoan hedatzen denean, «garapen-uhina» suertatzen da. Prozesu honek, ekoizpenean, banaketan, komunikazioan eta kontsumoan egiturazko aldaketak ekartzen dizkigu. Eta gizartean ere aldaketa kualitatibo sakonak gauzatuko ditu. Uhin hori, lurralde geografiko mugatuetatik, gero eta urrunago dauden lurralde periferikoetaraino hedatuko da. Modu horretan, olatu bakoitzak hedatzen du kapitalismoaren sartzeko-prozesua, sistemaren zentro aurreratuan dagoen herrien taldea handiagotuz.

### **5.3. BOST IRAULTZA TEKNOLOGIKOAK**

Oinarri honekin Karlota Perez-ek iraultza industrialaren hasieratik egungo globalizazioraino bost iraultza garrantzitsu sailkatzen ditu.

Lehena iraultza industrialari dagokio. Ingalaterran hasi eta 1771n Arkwright-ko kotoi-irundegiaren ezarketarekin kokatzen da. Kotoi-industriaren mekanizazioa eta makineriaren garapena ikusten ditugu hemen. Ibaiko bideen erabilerak eta energia hidraulikoaren garapenek egituratzen dituzte prozesuaren azpiegitura berriak. Sistema produktiboari dagokionez, fabrika kapitalista handia eta produktibitatea neurtzeko sistemak garatzen dira hemen.

Bigarrena, trenbidearen garapenari eta lurrunezko garaia dagokie. Ingalaterran ere kokatuta, Europa eta Estatu Batuetarantz barreiatuko da. Liverpool-Manchester arteko trenbiderako lurrunezko motorrarekin, 1829 inguruan kokatzen da. Hemen, lurrunezko makinaren garapena eta ikatzarekin funtzionatzen duten burdinazko makinak ikusten ditugu. Lurrunezko motorraren erabilerarekin diharduten trenbidearen

---

13 .Teknologia eta azpiegitura berriek baldintza berriak eskatzen dituzte. Horrela, munduko hedadura daukaten arau eta erregulazio berriak agertuko dira altzairu garaiko merkatuetan.

sare berriek azpiegitura berriak gauzaten dituzte. Garai honetakoak dira telegrafoaren garapena eta mundu-mailako itsas nabigaziorako portu eta itsasontzi handiak. Merkatu nazionalaren eskariaren arabera hiri industrial handiak gauzaten dira. Eta gero eta gehiago, ekoizpen estandarizatua handitzen eta hedatzen joango da.

Hirugarren iraultza teknologikoa altzairu garaiari dagokio; ingeniaritza astunari eta elektrizitateari. Alemania eta Ameriketako Estatu Batuetan garatzen da eta herri horiek Ingalaterrari aurrea hartzen diote. Pensilvanian dagoen Carnegie-ko Bessemer altzairu-fabrikarekin kokatzen da 1875 inguruan. Bessemer-ek altzairu merkea ekoizten du eta lurrunezko motorra daukaten altzairuzko itsasontziek itsas garraioa dominatzen dute, gero eta gehiago. Garai honetan nazioarteko trenbide-sareen agerpena daukagu; telefonoa eta telegrafoa garatzen dira, hirietan energia elektrikoa agertuko da eta obra zibilak eta zubi handiak eraikiko dituzte. Paradigma tekniko-ekonomikoa altzairuzko egitura erraldoiekin, industria-prozesuan elektrizitatearen erabilerekin, eskala-ekonomien garapenarekin eta kostu-kontabilitateetan oinarritutako administrazio-sistema berriekin markaturik dago.

Laugarren iraultza teknologikoa zuzenki automobil, petrolio eta ekoizpen masiboaren garaiari dagokio. Alemaniaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko lehiak garaiko lurralde-lidergoa markatzen du. Detroiten, Ford fabrikako lehen modeloen irteerarekin, 1908 inguruan, kokatzen da. Maila teknologikoan, automobilen ekoizpen masiboa petrolio merkearen garaia eta garraioan, hegazkinetan eta guda-tankeetan konbustioko barne-motorraren hedapena daukagu. Portu-, aireportu- eta autobide-sare berria, oliobide-sare handiekin osatzen da hemen. Baita etxebizitza eta industriarako estaldura elektriko osoarekin ere. Paradigma tekniko-ekonomikoa masako ekoizpenarekin, kontsumo-ondasunen eskariaren garapenarekin, eskala-ekonomiekin, eta energiaren erabilera intentsiboarekin markaturik dago.

Bosgarren iraultza teknologikoa egungo globalizazioari dagokio. Telekomunikazio eta informatikaren garaian sartzen gara eta Ameriketako Estatu Batuen go-entasuna da hemen oinarri. Kalifornian, 1971n, Intel mikroprozesadorearen eza-gutzearekin dugu hasiera. Maila teknologikoan telekomunikabideen garaia, ordenagailuen garapena, mikroelektronika merkea eta informazio-iraultza daukagu. Azpiegitura berriak mundu-mailako komunikazio digitalean, Internetek emandako zerbitzuetan eta abiadura handiko garraio fisikoan oinarritzen dira. Paradigma ekonomikoa informazioaren erabilera intentsiboarekin, gero eta handiagoa den kapital ukiezinaren balorazioarekin eta ezagutza-gizartearen agerpenarekin markaturik dago. Globalizazioaren garai berria dugu hemen. Berarekin batera antolaketarako cluster eta sare-egituren garapena daukagu.

Testuinguru berri horretan eraldaketa teknologikoek berebiziko garrantzia izango dute. Jakina denez, aurkikuntza teknologiko eta zientifikoak sistema produktiboan erabiliz gero, bai produkzio-eragileen arteko harreman tekniko eta sozialak, bai produkzioarako bitartekoekiko harremanak aldatu egingo dira. Histo-



riak erakutsi digunez, lanerako baliabide batzuk produkzio-prozesuetan txertatzeko ezinbestekoa izan da gizarte eta politikan baldintza berriak sortzea. Horrela, baldintza berriek langilearen inizatiba eta askatasuna areagotu dituzte, teknika berriek produkziarako dituzten ahalmenak garatzeko xedez.

#### **5.4. MIKROELEKTRONIKAREN IRAULTZA**

Mikroelektronikaren iraultzak ekarri dituen «teknologia berriak» (industria-robotia, zenbakizko kontroladun makinak, fabrikazio malguko sistemak, informatikaren erabilera diseinuan, marrazketan eta kalkuluetan, telematika, Internet, eta abar) alor sozioekonomikoan erabiltzeak ondorio ugari eragin ditu gure egungo munduaren dinamika ekonomiko, sozial eta politikoan. Izan ere, bizitzako eta laneko arlo anitzetara ekarri dituen ondorio ugariak dira iraultza mikroelektronikoaren ezaugarri nagusietakoak<sup>14</sup>. Era berean, ondorioek hainbat eraldaketa bultzatu dituzte.

##### **5.4.1. Serie ezberdin eta laburrak**

Iraultza mikroelektronikoak ekarritako teknologia berriak produkzio-prozesuaren barruan hedatzeak (mikroprozesadoreak, zenbakizko kontrola, telematika, robotika, fabrikazio malguko sistemak, etab.) serie ezerdin, labor eta sofistikatuen produkzioa ahalbidetu du, hau da, tailer malguetan aldaketa azkarrak egiteko gai diren aginte elektronikoekin bakarrik fabrika daitezkeen serieen produkzioa. Baina horrek guztiak lanaren antolaketa arina, malgua eta produkzioaren baldintza aldatzekorretara egokitze gaitasun handia eskatzen du.

##### **5.4.2. Kudeaketarako oinarri berriak**

Iraultza mikroelektronikoak ekarritako teknologia berrien azterketak erakutsiko digunez, makina berriak produkzioan erabiltzeko nahitaezkoa da langileek ekimen eta autonomia handia izatea. Teknologia berriok automatismoan oinarrituta daude eta tailerretan azkar hedatzen ari dira. Teknologia berriak sartzeari ekin dioten lantokietan zaharkituta ari dira geratzen laneko iraultza tayloristako printzipioak: pertsona bat = eginbehar bat/lanpostu bat.

Esan bezala, produkzioan makina berriak erabiltzeko ezinbestekoa da langileek ekimen eta autonomia handia izatea, eta horretarako, kudeaketaren oinarria

---

14. 1953an, 701 zenbakiarekin, IBMk ordenagailu berria sotu zuen. Eta hori sistema eragile berriak garatzeko elementu erabakigarri bihurtu zen. Horrela, maila handiko programaziorako lehen hizkuntza gauzatu zen (Fortran hizkuntza). Gero lehen txipa sortuko zen. 1980ko hamarkadaren hasieran IBMk ordenagailu pertsonalak merkaturatu zituen, prezio merkean; Mikrosoftek MS-DOSa eskaintzen zuen bitartean. 1990ean AEBetan egindako proiektu militar baten ondorioz, munduko ordenagailuak artikulatu ziren World Wide Web-aren bitartez, Internet sortuz.

aldatu egin behar da: lanaren ohiko antolaketa taylorista langilea/lanpostua erlazioan oinarrituta egon da, eta orain langile-taldea/jarduera-gunea erlazioa ari da nagusitzen. Ordenagailua lagun duen talde-teknologia azaldu da, sortakako fabrikaziora ondo egokitzen dena eta diseinuan zein produkzioan erabil daitekeena. Lan-taldea «jarduera-gune» batez arduratzen da eta, beraz, kide bakoitzak balio anitzekoa izan beharko du produkzioan. Ondorioz ardurak, funtzioak, betekizunak, jarduerak eta abar aldatu egingo dira, eta harremanetarako eta integraziorako modu berriak beharko dituzte. Horretarako, langileek mentalitatea, jarduerak, portaerak eta prestakuntza eguneratu beharko dituzte.

### ***5.4.3. Lanaren antolaketa***

Sarritan aipatu dugunez, teknologia berriak erabiltzeko produktoreek ekimen-maila handia izan behar dute eta balio berezia eransten diete kapitalaren alde ez materiala osatzen duten motibazioari, prestakuntzari, ekimen-gaitasunari, sormenari, adimenari (OCDE, 2007). Egoera horrek enpresan boterea bestela banatzeko premia ekarri du, eta areagotu egin ditu langileen pisu sozioteknikoa eta ardura-dunen boterea.

Horrela, lanaren antolaketa berria da sindikatuen eta patronalaren arteko eztabaidagai berria. Praktikan, kapitalak produkzio-prozesuen kontrolari eusteko eta lan-indarraren intentsitatea areagotzeko moduan hedatzen ditu teknologia berriak, eta horretarako beharrezkoak diren gizarte- eta kultura-arloak garatzen ditu.

Errealitate enpirikoan, estrategia parte-hartzailea abiatzearekin batera, taylorismoa eta fordismoa mantendu eta garatu egiten dira (kapitalak egoera berria ez duela onartu nahi adierazten du), baita haiei lotuta dauden ezgaitze-prozesua eta agente-harremanak ere. Alde sozialak lanaren antolaketa berriaren hainbat arlo bultzatzen ditu, lan-indarraren birgaitzea eta produkzio-prozesuen kontrol eta prestakuntzaren hobekuntza ekarriko dituzten arloak, alegia, eta aldi berean, zalantzan jartzen ditu aldaketok txertatzen diren gizarte- eta kultura-ereduak.

### ***5.4.4. Enpresa globala***

Mikroelektronikak lanaren antolaketan sorrarazi dituen aldaketok produkzio-unitate osoari eragiten diote eta enpresa modernoaren joera berriak diseinatzen dituzte. Automatizazio- eta informatizazio-prozesuak eta komunikaziorako zein elkarlotzeko sistemak lau joera nagusi dituen sistema tekniko eta ekonomiko berria erdiesten ari dira:

- Ondasunen eta zerbitzuen produkzioan **informazioaren intentsitatea** areagotzeko joera. Ondorioz, ordenagailuaren laguntza duten fabrikazio-teknikak erabiltzen dituzten fabrikak sortzen dira eta zerbitzuek zenbait produktu ordeztzen dituzte.

- Produktuak hobeto dibertsifikatzeko asmoz, fabrikazio-lantegietan **malgutasuna** areagotzeko joera. Antzinako produkzio-sisteman fabrikazio-kostuak murriztea helburu zuten fabrika handiak nagusitu ziren, serie handietan fabrikatzeko aukera eskaintzen zutenak. Joera berriarekin fabrika handi haien lekua betetzen ari dira serie laburrak ekoizten dituzten tailer malguak, zeinak produktuen sortan eta produkzio-denboran aldaketa azkarak egitea ahalbidetzen duten aginte elektronikoak erabiltzen dituzten.
- Enpresa-jarduera guztiak sistematikoki **integratzeko joera**. Informatikari esker, etorkizuneko enpresak sare batean bateratu ahal izango ditu hainbat jarduera, hala nola kontzepzioa, produkzioa, merkaturatzea eta koordinazioa. Sare horretako osagai guztiak elkarri lotuta egongo dira eta norabide anitzeko informazio-fluxua izango dute oinarri.
- Leku ezberdinetako jarduera produktiboak **integratzeko joera**. Globalizazioak eskatutako enpresa internalizatua daukagu hemen; zeinek planeta osoan, merkatu emergente eta helduen inguruan merkataritza-ordezkaritzak eta fabrika berriak eraikitzen dituen (ikus 6. gaia). Enpresa globalak informazioarako eta komunikazioarako sistemak internalizatzen ditu, «Intranet» gauzatuz<sup>15</sup>.

Horrela, eraginkortasun eta errentagarritasun globalak helburu dituela, enpresa berriak hainbat funtzio bilduko ditu komunikazio-sistema bakarrean, eta informazioa eta erabakitze-prozesuak kudeatuko ditu. Enpresaren antolaketa berriaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira: soldatapekoen mugikortasuna, lanpostuen malgutasuna, gaitasunen balio-aniztasuna, taldeen autonomia, deszentralizazioa, ardura eta autokontrola. Itxuraz aurkakoak diren aldeak uztartu nahi ditu sistema berriak, hala nola lankidetzeta eta lehia, edota espezializazioa eta dibertsifikazioa.

Lan eta kostu zuzenen gaineko kontrolek garrantzia galdu dute sistema sozio-tekniko berriotan, eta haien ordez indartu egin dira produktibitate globalaren ikuspegia diseinatzen duten faktore estrategikoak. Ildo horretan, soldatapekoek proiektuarekiko duten inplikazioa areagotuko duten motibaziozko faktoreak garatzea da lehiakortasunerako tresnarik eraginkorrenetakoa.

#### 5.4.5. *Lan-kontratua*

Lehenago aipatu dugunez, teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak modu eraginkorrean erabiltzeak balioa eransten die kapitalaren alde ez materiala osatzen duten motibazioari, ekimen-gaitasunari, sormenari, eta abarri. Horrek lan-kontratuaren edukia aldaraziko du. Izan ere, gizarte industrializatuen zibilizazio-paradigma izan den lan-kontratuaren izaera aldatu egin da: lan-indarra soldataren

---

15. Hemen, informazio- eta komunikazio-teknologiaren mundializazioan oinarrituz, enpresek orokortzen dituzte esternalizazioarako eta azpikontratazioarako prozesuak. Horrela, lan-indarraren malgutasuna indartu eta hitzarmen kolektiboek bermatutako klausula sozialak ezabatzen dira.

truke saltzen duen langilearen lan-kontratua bestelakoa da gaur egun. Orain, soldataren truke langileak lan-indarra, teknikan eta produkzioan inplikatzeko borondatea eta enpresaren helburuekiko atxikimendua saldu behar ditu. Hau da, lan-kontratuan osagai ideologikoak eta politikoak sartu dituzte, dagozkien balio espezifikoekin batera.

Horrela, alde batetik «taylorismo ondoko» kudeaketa-moduetan murgildutako langileria egonkorra dugu lan-merkatuan eta, bestetik, kapitalak hautaketa-prozesuak kontrolatzen ditu. Izan ere, lan-merkatuaren lehentasunezko guneetan egoteko hainbat betekizun eskatzen dizkio kapitalak eskulanari eta, modu horretan, kapitalak berak baldintza sozialak, politikoak eta ideologikoak ezartzen dizkie hautagaiei. Irizpideekin bat ez datozenek «bazterketa-prozesua» pairatzen dute. Bazterketa-prozesuak emakumeei, etniei, ideologia-sektoreei eta kultura espezifikoiei eragiten die, eta arazo gehiago dakartza elkarbizitzarako.

Gero eta ugariagoak dira logika horren arabera sortutako marjinazio-poltsak, eta egoera horretan indibidualismoa eta beldurraren kultura indartu egiten dira gizartean. Ondorioz, gizarteak miseriari, esplotazioari eta bazterketari erantzuteko duen gaitasuna ahuldu egiten da eta nagusi den ereduarekin gehiago sendotu.

#### **5.4.6. Gizarte malgua**

*Just-in-time* indarrean jartzearekin eta serie laburren produkzioarekin batera, malgutasun sozial eta produktiboa nazioarteko lehiakortasunaren oinarri bilakatu da. Ondorioz, presio izugarria dago gizarte eta laneko malgutasuna, lanpostuen behin-behinekotasuna eta langilea enpresara atxikitzeke kultura bultzatzeko. Jar-duera produktiboaren behin-behinekotasunak lan-kontratuaren behin-behinekotasuna ekarri du, eta horrela, kapitalak metatze-fase berrirako egokiak izango dituen hainbat baldintza berreskuratu ahal izan ditu: adibidez, baldintza materialak (soldata txikiak), politikoak (aginte-harreman berriak) eta ideologikoak (logika berria onartzea, pertsona enpresa-kulturaren menpe jartzea).

Aurreko gizarte-ereduak enplegu osoa zuen helburu eta lanpostu finkoan zegoen oinarrituta; gaur egungo ereduaren ardatzak, berriz, langabezia eta, batik bat, kili-koloko enplegua dira. Era berean, lehen ezinezkoak ziruditen enpresa-politikek inbertsioaren amortizazioari ematen diote lehentasuna, eta laugarren eta bosgarren lan-txandak ezartzen dituzte enpresetan. Horrek berebiziko eragina du gizarteko eta laneko harremanetan. Bestalde, banaketaren sektorean areagotzen ari den malgutasunak denda txikiak baztertuko ditu eta hiriguneetatik merkataritzagune handien inguru merkantilistara eramango du hiritarren komunikaziorako eremua. Horrela, kontratuen prekarizazioa, lan-txanda gehiago, ordutegi malgua-goak, 24 orduko lan-sistemak, etab, hedatu dira hemen. Horrekin batera lan-egitura berriak sortu dira («telelana» kasu), lanaren deszentralizazioan eta lekualdaketan oinarrituak, langileen sakabanaketa eta isolamendua eragiten dituztenak.

### 5.4.7. Internet

Aipatu beharra dago, era berean, telematikak eta Internetek eragindako komunikazioen goraldia. Ordenagailua eta telebista uztartu dituen sare horrek aukera eskergak zabaldu ditu mundu osoko giza jardueraren alor guztietan (euskara bezalako hizkuntza gutxituetan, esate baterako). Hala ere, aukera horiek gaur egungo beste hiru errealitatek baldintzatzen dituzte. Lehenik, munduan dagoen banaketa telematikoa, banaketa ekonomiko, finantzario eta sozialaren isla da. Izan ere, Interneten sartzeko linea telefoniko guztien % 75 lurralde industrializatu gutxi bazueta dago, horietan munduko biztanleen % 15 soilik bizi den arren. Bitartean, lurreko 47 lurraldetan ez dago linea telefoniko bat ere 1.000 biztanleko, eta munduko biztanleen erdiek sekula ez dute telefonorik erabili. Bigarrenik, Internetek informazioa demokratizatzeko aukera handia eman badu ere, herritarrek sarean sartzeari erraztuz, aukera hori indarrak gabe utzi du botere politikoak, teknika hori oso era sofistikatuan erabili baitu herritarren gaineko kontrola areagotzeko. Hirugarrenik, pentagonoari, finantza-kapitalari eta enpresa multinazionaleri dagokien geopolitikaren helburua informazioaren teknologiekin eratutako ziberespazioaren «botere inmateriala» menderatzea delako, ondoren kolonizatze eta euren interesen zerbitzuan erabiltzeko.

## 5.5. BIOTEKNOLOGIA

«Bioteknologiaren iraultzak» mikrobiologia eta informatika konbinatzen ditu. Bioteknologiak bizitzako prozesuekin, produktuekin eta formulekin lan egiten du<sup>16</sup>. Beraz, mikroorganismoak, landareak, animaliak eta baita giza material genetikoa ere, lehengaiak baino ez dira, izaki berriak ekoizteko, aldatu, nahastu eta egokitu ahal direnak. Bioteknologia berria biologia zelularren eta molekularren inguruko ikerketatik eratorritako teknika ugari osatzen dute. Teknika horiek mikroorganismoak edo landareen nahiz animalien zelulak erabiltzen dituen edozein industriak erabil ditzake helburu komertzialekin. Industria horiek beren produktuetan egiten duten organismo bizien erabilera DNAREN molekulak nahita manipulatzera ere iristen da.

Orain 540 milioi urte sortu zen egungo konplexutasun genetikoa. Gaur egun, 50 milioi animalia-espezia daudela estimatzen da eta denak enbor komun batetik gatzela dakigu. Oso antzekoak gara. Euliarekin alderatuz gero, gene berdinak dauzkagu % 60ko mailan, eta har batekin alderatuta % 50ean osaketa genetikoa

---

16. 1953an ADN molekularren egiturak daukan helize bikoitza aurkitzen da. Hori erabakigarria izango da aitarengandik seme-alabenganako informazio genetikokoaren transmisioa irakurtzeko. ADNak frogatzen du planetako gizaki bizidun guztiok jatorri komuna daukagula. 70eko hamarkadan ingeniariak genetikoa garatzen da. 80ko hamarkadan gaixotasunen kausa izan daitezkeen birus eta bakterioak aurkitzen dira; pertsonen identifikaziorako ere baliogarriak direlarik. 90eko hamarkadan biologia molekularren eta ingeniariak genetikokoaren hasiera daukagu.

berdina daukagu. Izaki bizidunen zelulek kromosometan daukate informazio genetikoa. Kromosomak helize-itxura daukaten DNA molekulekin osaturik daude eta hauen barnean geneen ekoizpen-unitateak aurkitzen ditugu. Gene bakoitzak ekoizpen-unitate kopuru aldakorra dauka. Horrela gauzatutako organismoari «genetikoki eraldatutako organismo transgenikoa» edo sinpleago, «transgeniko» deitzen diogu.

Bioteknologia berria ikerketa zientifiko modernoaren alor nagusia da. Gobernuak ikerketa eta garapenerako zuzendu ohi dituzten aurrekontuetan gero eta diru gehiago bideratu ohi da alor horretara<sup>17</sup>. Bioteknologia bost atal zabaletan sailka liteke. Lehenengoa giza osasunaren bioteknologia da; horrek zelula amak klonatzeko, zelula helduak berrantolatzeko eta mekanismo genetikoa manipulatzeko aukera ematen du, organo berriak sortzeko helburuz. Bigarren atala animalien bioteknologia da; horrek ugaltzeko teknikak, txerto berriak eta hormonak egiteko bakterio-nahiz zelula-hazkuntza berriak erabiltzen ditu. Hirugarrena bioteknologia industrial da, eta landareen DNA industrian erabiltzeko aukerak ikertzen ditu. Laugarrena landareen bioteknologia begetala da, produkzio transgenikoa garatzeko helburua duena. Bosgarren atala ingurumeneko bioteknologia da; horrek kutsaduraren aurka borrokatzeko bidea ikertzen du, horrela ingurumenaren kalitatea babesteko eta berreskuratzeko.

Bioteknologiak erabiltzen dituen teknikak ehun-hazkuntzari (ehun-hazkuntza, zelulak, ehunak eta organoak kontrolpean garatzea) eta ingeniarietza genetikoiari (giza genomaren klonazioa eta eugenesia) dagozkie. Nekazaritza- eta industria-iraultza berri honi esker, multinazionalak hainbat prozesu biologikoren eta bizi-formaren gaineko monopolioa bereganatu ahal izango dute, jabego intelektualaren erabilera dela-medio.

### **5.5.1. Merkantilizazio-prozesua**

Munduan zehar, 90eko hamarkadak ekoizpen transgenikoa kontsolidatzen du eta 1995ean zeuden 200.000 tona 33 milioi tona bihurtu ziren 1998an. Data horretan, merkataritzak 50 landare transgenikoren barietateak eskuratzen ditu. Milurte berriaren hasieran, Europako supermerkatuetan, soja transgenikoaren 30.000 produktu inguru daudela estimatzen da. 1998an Espainiako estatuko lehen artoaren uzta transgenikoa daukagu eta, horretarako, 20.000 hektarea erabiltzen dira. Euskal Autonomia Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzak transgenikoa erabiltzen du patataren ekoizpenean. Nafarroan, aldiz, Monsanto, Norvartis, Agrevo, Senasa eta Pioneerek ekoizpen transgenikoa erabiltzen dute artoan, garian eta tomatean.

---

17. Dena den, iraultza berria iragartzen duen disziplina zientifikoa neurobiologia da. Burmuin, memoria, prozesu mental eta kontzientziaren funtzionamenduari dagokio.

Gaur egun transgenikoen artean gehien merkantilizatzen diren barietateak hauek dira: soja, artoa, kotoia, koltza, kuia, eta papaia. Arrozaren ekoizpen transgenikoan, Txina eta Iran dira lehenak. Soja transgenikoaren laborantza da jarduera handiena duena eta transgenikoen lur osoaren % 60 erabiltzen du. Sojari, ondoren, artoak, kotoiak eta koltzak jarraitzen diote.

Aniztasun biologikoaren aurkako gerrari lotutako merkantilizazio-prozesuak aurrera egingo du, ziur asko, orain arte ukiezinak ziren eremuetan barneratuz. Lurra, basoak, ibaiak, itsasoak eta atmosfera kolonizatuta, higatuta eta kutsatuta daude dagoeneko. Patenteei eta eskubide intelektualari buruzko legeria berriek kolonizazio-prozesuarekin jarraituko dute, garai bateko kolonien ordeztu barne-mailako espazioak eta izaki bizidunen kode genetikoak ezarriz (mikrobioak, landareak eta animaliak, pertsonak ere barne hartuta). Jabetzaren kontzeptu eurozentrikoaren nagusitasuna sendotu egingo da horrela, eta legez kanpokotzat joko dira komunitate nekazari eta indigenen bestelako ikuspegiak; izan ere, haientzat aniztasun biologikoa eta hari lotutako erabilera gizateriaren ondasun komuna baitira, komunitateen artean eta komunitate bakoitzaren barruan askatasunez trukatu beharrekoa. Lehen, koloniak okupatzen zituzten jaberik gabekoak zirela pentsatuz, bertako biztanleei giza izaera eta askatasuna ukatuz.

### ***5.5.2. Bioaniztasunaren kolonizazioa***

Orain, kontua bioaniztasunaz jabetzea da, bai haziak, bai sendabelarrak eta bai nekazari-herri eta indigenen ezagupenak, natura eta jaberik gabeko eremu gisa definituz; bereziki ukatuz, Mendebaldekoak ez diren ezagupen-sistemak eta ekarpen intelektualak. Lehen, kristautasuna kontsideratzen zen erlijio bakarra zela, eta beste kosmologia guztiak atzerakoiak edo zaharkituak. Gaur egun, uste hori beste honek ordeztu du: Mendebaldeko zientzia, zientzia bakarra da, eta beste ezagupen-sistema guztiak atzerakoiak dira.

Era berean, subjektu kolektiboari jakintzaren sortzaile eta jabe gisa dagokion balio guztia ukatuko zaio, eta egungo enpresa kapitalista jakintzaren gaineko jabetza hori eskuratzeko legezko ahalmena duen bakarra izango da. Ezagupen indigenaren jabetze-prozesua ikusiko dugu, hau pribatizatuz eta merkantilizatuz. Merkantilizatuz, aldi berean, pertsona, landare eta animalien gorputzen barne-eremuak, hala nola emakumeen barne gertatzen den bizitzaren birsorketaren sekretuak. Jabetzaren, jakintzaren eta pirateriaren inguruko kontzeptu eurozentriko horiek zilegitasuna eskainiko diote zientzialariek eta enpresa multinazionalak Mendebaldez kanpoko pertsona eta kulturen aberastasun, aniztasun biologiko eta jakintzaren gain duten berezko eskubideari.

### 5.5.3. TRIPS

Jabego intelektualaren inguruko egungo legeek organismo bizien gaineko patenteak egitea baimentzen dute, eta herri indigenen nahiz tokian tokiko ezagutza pribatizatzeke erabiltzen ari dira. Horretarako bidea haien ezagutza-sistemen gaineko kontrola eskuratzea da, nazioarteko hitzarmenak erabiliz, hala nola «aniztasun biologikoari eta TRIPSei buruzko hitzarmena» (ikus 3. gaia).

TRIPS akordioak (merkataritzarekin erlazionatutako jabego intelektualaren eskubideei buruzko alderdiak) jabego intelektuala babesteko eskubidea onartzen die enpresei eta babesteko sistemak ezartzera behartzen ditu Estatuak, besteak beste patenteak. Bizi-formen gaineko jabego intelektualaren eskubideak babestea galdegiten duen nazioarteko lehenengo tresna juridikoa da eta, beraren arabera, baliabide genetikoak ustiatu egin daitezke dirua irabazteko asmoz. Naturaren pribatizazioa eta izakiak merkantzia bihurtzea dakartza akordio horrek. Adibidez, Indian bakarrik, 100 senda-belar autoktono baino gehiago patentatu dituzte AEBetako eta Europako enpresek. Era berean, Papua Ginea Berriko hagahaitarren eta Panamako guamitarren linea zelularrak patentatu egin ditu Estatu Batuetako Merkataritzako idazkariak.

Rio de Janeiroko Gailurreko Aniztasun Biologikoari buruzko Konbentzioa lege-indarra duen agiria da eta 130 lurraldek berretsi dute. Zenbait klausula jasotzen ditu bizi-formen gaineko jabego intelektuala baimentzeko. Hitzarmen horrek erraztu egiten du espoliatutako lurraldeetako baliabide genetikoak eta ezagutza desjabetzea. Konbentzioak alde biko akordioak sustatzen ditu enpresen eta gobernuen artean (ustez gobernuak baliabide biologikoen gaineko kontrol subiranoa dutela).

### 5.5.4. Korporazio handiak

Monsanto, Aventis, Novartis, Du Pont, Agrevo, Astra Zeneca eta antzeko korporazioek landare transgenikoen merkaturak kontrolatzen dute (Monsantok AEBetako merkatuaren % 80 kontrolatzen du). Enpresa horiek milaka milioi dolar inbertitzen ari dira ingeniarietza genetikoan. Interes komertziala duen izakien genoma ikertu eta «aurkikuntza» hori patentatu egiten dute. Ondoren, aurkikuntzak izan litzakeen erabilera praktikoak saldu egiten dituzte medikuntzarako, nekazaritzarako eta abarretarako. Haien helburu estrategikoa mundu zabaleko elikagaien, botiken, uzten eta hazien produkzioa kontrolatzea da. Izakien gaineko patente guztien % 99 baino gehiago lurralde aberatsetako enpresen esku daude. Hala, mundu osoko landa-komunitateak, herri indigenek eta indigena ez direnek, euren lurraldeetako baliabide naturalen inguruko jakintza tradizionalaz beste batzuk nola jabetzen diren ikusi behar dute<sup>18</sup>.

---

18. Elikagaien segurtasunak elikagaien ekoizpen-, banaketa- eta merkaturatze-prozesuen gainean tokian tokiko eta eskualdeko kontrola eskatzen du, familiako nekazaritza eta nekazari txikien esku jarritz gehiago.



Industria bioteknologikoak logika hori defendatu egiten du, azkar handitzen ari den giza populazioa elikatu beharra dagoela argudiatuz<sup>19</sup>. Horrez gain, teknologia berriek arrakasta izan dezaten, multinazionalak ikerketan egiten dituzten inbertsio handiak babesteko monopolioak sortzeko aukera izan behar dutela ere arrazoitzen du industriak. Horrela, kontrolatu egiten dute nor balia daitekeen «haiek» gure onerako egiten dituzten asmakizunez. Hau da, patenteak, izen komertzialak eta sekretu komertzialak beharrezkoak omen dira mundua gosetetik libratzeko. Egia esanda, AEBetako nekazaritzako kimikaren eta farmaziaren alorretako sei enpresa multinazional erraldoik, ingeniari-tza genetikoaren bidez, munduko elikagai-produkzioa menderatzeko ahaleginak egiten dihardute. Eta kontuan hartu behar da Hirugarren Munduko lurraldeetan eragindako mendekotasunak (esportatzeko landatu) gosearen eta mantenuaren arteko leizea sakondu egingo duela (industria horrek dioen bezala).

### **5.5.5. TRIPSEK Hegoaldeko herrietan izandako hedapena**

Hegoaldeko herrietan TRIPSEk (biodibertsitatearen merkataritzari lotutako jabetza intelektualeko eskubideek) izandako hedapen handiak Iparraldeko transnationalei teknologiatatik egindako ordainketak handitzea eragingo du eta, horrela, zenbait enpresak kostuen gainetik handituko dituzte produktuen prezioak, diru-sarrerak monopolioan jasotzeko. Farmazia-alorreko enpresa transnationalek sendagaiak ezarritako tasen ondorioz, ezinezkoa izango zaie izurriteak jasaten dituzten herriei botika horiek erostea eta legeak, gainera, galarazi egiten die beren sendagaiak sortzea. Era berean, hazietan eta landare-barietateetan TRIPS ezartzean, ordeztu egingo dira ongien egokitutako barietateak eta haziak hurrengo urtarora arte gordetzeko betiko ohituraren gaineko debekuak garapen-bidean dauden herri gehienek mendekotasuna areagotu eta haien aniztasun eta jasangarritasuna murriztu egingo ditu (haziak urtero erostera behartuz). Jakinaenez, aipatutako herrietako biztanle gehienek bizibidea nekazaritza da.

Bioaniztasuna bioteknologiaren lehengai da eta gero eta garrantzi estrategiko handiagoa du. Izan ere, munduko ekonomiaren % 40 produktu eta prozesu biologikotan oinarrituta dago. Munduko biztanle guztien % 80 pobreak dira eta haietatik % 85 edo % 95 bioaniztasunaren menpe daude bizirauteko. Izakien patenteekin, dena dago jokoan.

## **5.6. NANOTEKNOLOGIAK**

Nanoteknologiak maila molekularrean, eskala nanometrikoan (metroaren mila milioiko zatikia) erabiltzen du materia. Maila horretan, egitura molekularrak eta

---

19. Gaur egun munduko populazioa elikatzeko behar dena baino gehiago ekoizten da. Nazio Batuek diote behar dena baino % -50 gehiago ekoizten dela. Bitartean 1.000 milioi pertsona baino gehiago gosetean daude, lantzeko lur-partzelarik ez dutelako edo elikagaiak erosteko dirurik ez daukatelako.

atomoak landu eta erabil ditzakegu. Atomo eta molekulen berrantolaketak ahalbidetuko liguke material berriak eta makinak egitea. Fabrika molekular horiek gai izango dira doitasunez kontrolaturik izango den atomo eta molekulen muntaketaren bitartez edozein material berri egiteko. Gure ingurune osoa oinarritzko elementu atomikoen kopuru jakin batek osaturik dagoela ulertu behar dugu. Eta elementu horien egitura eta konposizioaren ondorioz sor daitezke hain ezberdinak diren ura, esmeraldak, edo hezurak. Gure aurrean agertzen zaigu molekulen muntaketak daukan ia mugarik gabeko boterea.

Teknologia honen potentzialtasuna ulertzeko, eskala nanometrikoan, materia-  
ren ezaugarri fisiko eta kimikoak eraldatzen direla jakin beharko dugu. Eta horri «efektu kuantikoa» deitzen zaio. Konduktibitateak, erresistentziak, elastizitateak, erreaktibitateak eta abarrek portaera ezberdina daukate eskala mikro honetan.

Teknologia honek materiaren kolore, gogortasun, malgutasun eta ezaugarri elektromagnetikoak ere eraldatzeko ahalmena du. Nanoteknologiaren ezaugarri garrantzitsuena natura-zientzien eremu espezializatu ezberdinen diziplinarteko elkarrekiko gurutzamenduan datza. Zentzu horretan kimika, biokimika, biologia molekularra, fisika, elektronika eta informatika erlazionatzen ditu. Mende berrian mundu zientifiko eta teknologikoaren ardatz ikusten dute.

### **5.6.1. Ahalmenak**

Teknologia honek eraldaketa iraultzaileak gauzatuko ditu; material berrietan, produkzio-tresnetan, energia alternatiboetan, pertsonaren ahalmen kognitibo eta sensorialetan, osasun-laguntzan, komunikaziorako sisteman (burmuinen artekoa alde batetik, eta makinaren eta burmuinaren artekoa beste aldetik), sorkuntzan eta gizakien osasunean. Halaber, pertsonaren ahalmen kognitibo eta sensorialak lanaren efizientzia eta ikasteko ahalmena hobetuko ditu. Hirugarren adineko pertsonen narriadura fisiko eta kognitiboa neutralizatzeko ahalmena duela ere kontsideratzen da.

Nanoteknologiak aplikazio zabala du material berrien arloan (iraunkorra-  
goak, arinagoak, eta erresistenteagoak); elektronikan (ordenagailu ahaltsuagoak diseinatuz); energian (eguzkitik energia sortuz); osasuna eta nanobioteknologian (gaixotasunen tratamendu eta diagnostikoa, herentziazko gaixotasunen aurkako borroka, zelula kantzerigenoen suntsipena, eta abar). Eremu hauetako aurrerape-  
nek oihartzun handia izango dute farmaziaren industrian, kosmetikoen industrian, eraikuntzaren sektorean, komunikazio-sektorean, industria militarrean, eta indus-  
tria aeroespazialean. Egungo erronken artean dago nanoelektronika mota berri bat sortzea, erdieroalezko elektronikatik molekulen elektronikara pausoa emango duena.

Nanoteknologiak, zientzia kognitiboarekin, informazio-zientziarekin eta bioteknologiarekin konbinatuz, garapen jasagarria hobetzeko ahalmena du. Eredu honetako itxaropenak bioteknologiaren arloarekin duen erlazioan daude (biomedizina bezalako guneetan); nanobioteknologia gauzatuz.

AEBetako Zientzi Fundazio Nazionalak 2001. urtean aurreikusi zuen hamar urteren buruan erdiekoalezko industria osoa eta farmaziaren industria erdia nanoteknologiaren menpe egongo zirela, 2015. urterako nanoteknologiaren merkatu globala bilioi dolarretan ebaluatuz (Guerrero, 2005)

### **5.6.2. Arriskuak**

Hemen, zehazkia etekin ekonomikoak ordeztzen du (ez dakigu teknologia honek gizakiarengan eta ingurumenean zein eragin izan dezakeen). Egile batzuek ohar-tarazi dute luraren mikrorganismoen nanopartikulak xurgatu ditzaketela; ondoren elikagaien katean zehar mugituz eta azkenean zeluletara pasatuz (NIOSH, 2009). Horrela espezie bizidunen sistema immunologikoa distortsionatu daitezke. Esanguratsua da ere teknologia ahaltsu honen ondorioak erregulatzeke nazioarteko erakunderik ez dela oraindik sortu.

Bere garapena eta erabilera monopolizatuz bihurtu daitezke menderatzeko sistema berria, sortutako mendekotasunaren ondorioz. Teknologia ahaltsu honi esker gogotari eta gaixotasunei aurre egin diezaiekegula dioen literatura kuestionatu beharko genuke. Iraultza teknologikoa eta gizarteak daukaten dialektikak erakusten digu baztertuak ez dituztela eskuratzen korporazio handiek saldatutako produktu komertzializatuak; nahiz eta oso onak izan azken hauek. Transgenikoen porrota gogotaren aurkako borrokan erreferentzia handia izan da zentzu horretan. Hemen, gaixotasun kronikoen aurka erabilitako efikazia handiko produktu farmazeutikoen eta txertoen talka egiten dute produktu horiek eskuratu ezin dituztenek, hau da, munduko biztanleriaren erdiak, erabazten duten harresi sozialarekin. Zentzu berean, nanoteknologiak pertsonen askatasunerako eta intimitaterako barneremuek deuseztatzen ditu, kontrol sozialerako norbanako neurri sofistikatuarekin eta denbora errealean egiten duten urruneko zaintzarekin.

Teknologia honen kontrola enpresa multinazional handien eskuetan dago (IBM, L'Oréal, Dow, Xerox, Monsanto, Pfozer, eta abar); hauek urtero patenteak biderkatzen dituzte. Kraft eta Nestle edari interaktiboak egiteko nanopartikulak erabiltzen dituzte; Monsanto bere belar transgenikoa merkaturatzeko eta L'Oréal bezalako enpresa transnazionalak bere produktu kosmetikoen merkaturatzeko. Hemen, industria belikoa da izar handiena, guda bakteriologikoa eta kimikoa diseinatzen duenak. Eta kezkarria da Estatu Batuetako gobernuak MITekin batera sortutako «Borrokalarien Nanoteknologiaren Institutua», teknologia honen etorkizunerako garapen eta norabideak horrela bideratzea.

### 5.6.3. Nanoteknologiak eta AEB

Eta bereziki Estatu Batuetan bere gain hartzen dute nanoteknologia gizakion jarduera guztietan eragina edukiko duen iraultza tekniko-zientifiko handia dela. Teknologia hau kontrolatuz, gainbeherari buelta emateko eta munduko hegemonia politikoa, ekonomikoa eta militarra berreskuratzeko helburuarekin.

Ekimen giltzarria izan da zentzu horretan, «teknologietarako ekimen nazionala» izendapenarekin 2001. urtean AEBek onartutako plan estrategikoa. Jarduera teknologiko horretan lidergoa eskuratzea helburu aitortua izan da. Ekimenak 9 erronka handi ditu eta materialen mundua, nanoelektronika, osasun-zaintza, ingurumenaren hobekuntza, energia, espazioko esplorazioa, mehatxu biologikoa, bidegarraioa eta segurtasun nazionala eskuratzen ditu.

AEBek nanoteknologian dagoen jarduera inperatibo militarra kontsideratzen dute eta defentsa sailak, 2002tik aurrera, 400 milioi dolar jarduera teknologiko honi bideratzen dizkio. Horrela, Massachusetts Institute of Technology delakoak garaiezina eta menderaezina izango den supersoldadua gauzatzeko<sup>20</sup>, «soldadu nanoteknologikoarentzako institutua» sortu du.

#### LABURPENA

Iraultza teknologiko bakoitzean, kapitalismoaren botere-zentroek iraultza hori mehatxu eta aukera gisa ikusi dute aldeko kokapen geopolitikoa kontsolidatzeko orduan. Zentro hauen nagusitasun tekniko-zientifikoan oinarrituta (bereziki Ameriketako Estatu Batuetan) proiektu ideologikoa bideratzen dute, zeinean gizateriaren ongizaterako garapenaren bermatzaile bihurtzen diren. Beste modu baten esanda, lidergo zientifiko teknikoaren bidez beren «kontzientzia soziala» inposatzen dute eta berarekin batera beren gehiagotasun kulturalaren aldeko ideia.

Patenteen esperientziak bazterketaren eremuan dauden mehatxuak plazaratzen ditu; ezagutzaren eremu zabaletan periferiak kanpoan utziz. Logika honi bioteknologiaren garapen-prozesuak ematen dio bere esangura osoa. Horrela, komunikaziorako eskubi-deak, bioaniztasunaren erabilera eta nanoteknologiaren garapena herri periferikoen garapen eta subiranotasunak aurrera egiteko oinarrizkoak badira, patenteen sistemak eta nazioarte mailan ezarritako erregulazio-prozesuek soberania teknologiko eta zientifikoaren aldeko ahaleginak ezeztatuko dituzten nazioarteko legediak ezartzen dituzte.

Jakina, teknologiak bere baitan botere-harremanak ditu eta fenomeno sozial eta politikoei emandako erantzuna baldintzatzen du. Bere baitan darama ere herritartasunaren eduki desideologizatua, indibidualizatua, eta testuinguru sozial eta kolektibotik gero eta isolatuago dagoena.

20. Banakoarentzako armadura nahi dute gauzatu: arina, irauten duena, ingurumenari egokitu egiten zaiona eta soldaduen ahalmen fisikoa handitzen duena. Armadura horrek soldaduari bizi-zeinuak monitorizatuko dizkio eta urruneko kontrol-zentro batekin komunikatuko dizkio.

Horren ondorioz, oinarri zientifiko-teknikoaren sorkuntza erabakigarria da botere kapitalistaren periferian dauden herrientzat. Sare propioen sorkuntza, giza baliabideen formakuntza, teknologia hauen aspektu sozial eta etikoaren azterketa, hil edo biziko aspektuak dira gure subiranotasun eta garapen-politikarako. Gakoa, hemen, komunitate ezberdinen behar ekonomiko eta sozialak asetzeko garapena bilatzea da.

Hil edo bizikoa da testuinguru honetan gure baliabide eta ezagutzaren babes intelektuala. Herriok, subiranotasuna nahi dugu eta horretarako gure bioaniztasuna ikertuko duen zientzia biologiko ahaltsua behar dugu, gure baliabideen babes intelektuala ahalbidetuko duen patenteen sistema sortuz. Eta hori posible izan dadin, gure zientzia sozialetan aurrerapen nabariak gauzatu beharko genituzke. Inperialismoaren aurkako gatazka eta kapitalismoaren botere-zentron aurkako gatazka, arlo teknikoa, zientifikoa, ekonomikoa, soziala, politikoa eta kulturala artikulatzen dituen fronte globalean planteatzen da.

Botereak ezarritako ikuspegi teknokratiko horri aspektu soziopolitiko eta etikoekin artikulaturik dagoen garapen tekniko-zientifikoa kontrajarri beharko genioke. Horrela, teknologia, gizateriaren emantzipazioarekin loturiko faktorea izan daiteke. Testuinguru honetan, guda etikoak bide eta ondorio propioak ditu eta zentro hegemonikoetatik datozen nazioarteko erregulazio eta lege-proposamenekin kontrajartzen da. Zientzia, teknologia eta gizartearen arteko harremana, eraldaketa sozialarekin loturik dago munduko herrietan. Eta soilik eraiki daiteke zientzia sozialen garapen propioarekin batera eta emantzipazioaren aldeko etika berri baten barnean.

## **BIBLIOGRAFIA**

- Amin, S. (1998): *El capitalismo en la era de la globalización*, Paidós, Bartzelona.
- Castells, M. (2006): *La Sociedad Red: una visión global*, Alianza Editorial, Madril.
- Dormido, S. (2009): “Grandes Retos Científicos en Automática y en Tecnologías de la Información para el Siglo XXI”, *XI Foro sobre Tendencias Sociales*, Mérida.
- Einstein, A. (1984): *Sobre la teoría de la relatividad especial y general*, Alianza, Madril.
- Invernizzi, N. eta Foladori, G.(2005): “¿La nanotecnología como solución a los problemas de los países en desarrollo?”, <<http://nanoandsociety.com/foia@cantera.reduaz.mx>.18.Octubre.2005>.
- Kuhn, T. S. (1962; 2001): *La Estructura de las revoluciones científicas*, Fondo de Cultura Económica, Madril.
- Lipietz, A. (2003): *Vert espéranc,e l’avenir de l’ecologie politique*, La Découverte, Paris.
- Lucas Marin, A. (2000): *La nueva sociedad de la información. Una perspectiva desde Silicon Valley*, Trotta, Madril.
- Mattelart A. (2007): *Historia de la sociedad de la información*, Paidós, Bartzelona.
- O.C.D.E. (2007): *Science, Techology an Industry Scoreboard*, Paris.

- Perez, C. (2002): *Revoluciones Tecnológicas y Capital Financiero*, Siglo XXI, Mexiko.
- Rifkin, J. (1999): *El siglo de la biotecnología*, Crítica-Marcombo, Bartzelona.
- Shiva, V. (2003): *Cosecha robada*, Paidós, Bartzelona.
- Schumpeter, J. (1934): *The Theory of Economic Development*, Harvard University Press, Cambridge.
- Tezanos, J.F. (2008): *Internet en las familias*, Editorial Sistema, Madril.
- Wallerstein, I. (1997): *El futuro de la civilización capitalista*, Icaria, Bartzelona.

### **Web orriak**

- Nanoteknologia. <http://es.wikipedia.org/wiki/Nanotecnologia>
- ¿Qué es la nanotecnología? Agiria: <http://www.nanovip.com>
- UNESCO, (2005): “Hacia las sociedades del conocimiento”, in <http://unesdoc.unesco.org/images/0014/001419/141908s.pdf>
- UNESCO, Sociedades del Conocimiento. <http://portal.unesco.org/shs/en/ey.php-URL ID=8951&URL DO=DO TOPIC&URL SECTION=201.html>
- Unión Europea, Sociedad de la Información. [http://ec.europa.eu/information\\_society/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/information_society/index_en.htm)

## **6. Enpresa transnazionalak: ekonomia-eragile globalak**

*Helena Franco Ibarzabal eta Mikel Zurbano Irizar*

Enpresa transnazionalak dira produkzioaren internazionalizazioaren eragile inportanteenak. Azken bizpahiru hamarkadetan nabarmenki gehitu da haien esku-hartze eremua eta gaur egun oso gutxi dira, modu zuzenean edo zeharka, ETNen eraginetik kanpo geratzen diren lurraldeak. Ekonomiaren globalizazioaren zutabe ezinbestekoa diren agente horiei eta haien jardunari zuzenduko diegu begirada 6. gai honetan. Horretarako lehen urrats batean, azalpen osoan zehar erabiliko ditugun kontzeptuak aurkeztuko ditugu, definizioz harago, haien ezaugarri nagusiak mahaigaineratzen dira baita haien garrantziaren neurketarako ohikoak diren adierazleak ere. Jarraian, azken aldiko bilakaera eta joerak azaltzeari ekingo diogu, ETNen hedapenaren erakusgarri diren hainbat datutatik abiatuz. Enpresa transnazionalen jokabidearen zergatiak azaldu nahi izan dituzten ekarpen teoriko nagusiei toki egin ondoren, atal berezia eskainiko diogu 80ko hamarkadaz geroztik transnazionalen estrategian gertatu den aldaketa orokorrari, zeinak beraien lehia-esparru espaziala mundu osora hedatzearen ondorioz mundu-mailako eragile global gisa duten izaera areagotu baitu. Gure analisia osatze aldera, ETNen kokapen-estrategiak eta horietan eragina izan ohi duten faktore nagusiak jasoko ditugu. Bukatzeko, ETNek helburuko herrialdean eragin ditzaketan ondorio ekonomikoak ere aztertuko ditugu, eskuarki onartzen zaizkien onura nagusiak gogoratzeaz gain, horien benetako norainokoa erlatibizatuko dugu eta berebat gertatu ohi diren bestelako eragin ez horren positiboak nabarmenduko ditugu.

### **6.1. ETN-AK ETA ATZERRIKO INBERTSIO ZUZENA: KONTZEPTUAREKIKO HURBILKETA**

#### **6.1.1. Kapitalen internazionalizazioa**

Kapitalen nazioartekotze gehikorra da munduko ekonomiaren ezaugarri nabarmenetako bat. Atzerri-inbertsioaren bolumena handituz doa eta berebat izaera multinazionalako enpresen protagonismoa. Kapitalismoaren hastapenarekin nazio-estatua itxuratu zen erregulazio-eremu eta merkatu-gune nagusi gisa. Alabaina, kapitalismoaren sorreratik ekonomia-jarduera jakin batzuk eremu hori gainditzen hasiak ziren, merkataritza-harremanak izanik batik bat nazioz harago hedatzen

zirenak. Denborak aurrera egin ahala, merkantzien zirkulazioaz gain, kapitalen zirkulazioa ere hedatu zen nazioartera (XIX. mendean hasita) eta geroago produkzio-prozesua bera (XX. mendean).

Kapitalen mugimenduek gero eta dimentsio internazionalagoa dute, merkataritza- eta produkzio-beharrek eta helburu espekulatzailerik bultzaturik, eta nazioarteko finantza-merkatuen garapen bizkorrak ahalbidetuz. Kapital produktiboaren internazionalizazioak, bere aldetik, ekonomia-prozesu orokorraren katea osatzen du aurreko biek elkarturik. Esan bezala, urrats hau da hiruretariko berriena eta eragile bat da prozesu honen protagonista: enpresa edo elkarte transnazionala (ETN), enpresa multinazional gisa ere izendatu ohi dena. ETNaren izaerari, haren jokabideari eta horretatik eratortzen diren ondorioei zuzenduko diegu begirada 6. kapitulu honetan.

Hala ere, eginkizun horri ekin aurretik, produkzioaren internazionalizazioaren ondorioei buruzko aipamen bat egin nahiko genuke. Produkzioa nazioarteko logikaz taxutzeak beronen lurralde-banaketaren hierarkizazioaren eremura garamatza, Lanaren Nazioarteko Zatiketarenera alegia. Gainera, eta honekin loturik, produkzioa nazioartekotuagatik ez dago teknologia, finantza edota merkatuen ahalmen berdinek herrialde guztien artean. Beraz, internazionalizazio-prozesuaren hierarkiarekin egiten dugu topo hemen ere. Alabaina, nolabaiteko nazioartekotzea gertatzen da, esaterako, lanaren antolaketaren arloan —ezinbestekoa da nazioartean gutxieneko homogeneotasun bat— eta arlo teknologikoan; azken horretan, nazioaren muga estuak nola edo hala gainditu egiten dira neurri batean ekipondasun edo makineriaren lekutzearekin, patente eta lizentzien deserriratzarekin, laguntza teknikoarekin, etab. Azken finean, ekonomia-prozesuaren nazioartekotzeak interdependentsia eta produkzio-sarearen orokortzea dakar, baina inola ere ez herrialde eta eskualde arteko produkzio-ehun diferenteen parekatzea.

### ***6.1.2. Kontzeptuaren eta definizioen inguruan***

Enpresa transnazionalen jarduna azaltzen duen atzerriko inbertsio zuzenaren (AIZ) azterketan sakonago murgildu aurretik, ezinbesteko deritzogu termino horien bitartez adierazi nahi duguna ondo finkatzeari. Nolanahi den, AIZk ez du ETNen jokabidea oso-osorik azaltzen, ETNak beste enpresen jabetza eskuratzeko bestelako bideak ere badirelako, eta jabetzaz haratago ere AIZ gehitzen ez duten sareko lankidetzak-formulak ere gero eta gehiago erabiltzen dituzte.

Modu erraz batean honela aurkez dezakegu atzerriko inbertsio zuzena: herri batean egoitza duen erakunde batek beste herri batean diharduen edo jardungo duen enpresa batean parte-hartze iraunkorra izateko egindako nazioarteko inbertsioa. *Parte-hartze iraunkorra* esapideaz zer adierazi nahi den zertxobait gehiago sakontzeko Nazio Batuen UNCTAD erakundeak erabiltzen duen definiziora joko dugu: herrialde baten ikuspegitik AIZak izango liriteke ez-egoiliarrek, iraupen luzeko



harreman baten bitartez, enpresa hartzailean erabakitzeke ahalmena lortzeko asmoz burutzen dituzten inbertsioak.

Ikus daitekeenez, parte-hartze iraunkorra, epe luzeko harremanaz gain, *erabakitzeke ahalmena izate*arekin lotzen du aipatu definizioak. Kontua da nola mugatzen den erabakitzeke ahalmen izate hori. Autore batzuek, adibidez, parte hartutako enpresaren Administrazio Kontseiluko kideren bat izendatzeko inbertitzaileak duen gaitasunari begiratzen diote. Halere, ikuskera hedatuena Nazioarteko Diru Funtsak ezarritakoa da, irizpide praktiko batez honela definitzen baitu AIZ: pertsona fisiko edo juridikoek burututako atzerri-inbertsioak AIZtzat hartuko ditugu baldin inbertitzaileak enpresa hartzailearen jabegoaren % 10 edo gehiago eskuratzeko badu.

Atzerriko inbertsio zuzen horiek gauzatzeko moduak dira, esaterako, atzerrian lantegi berri bat ezartzea, edo beste herrialde bateko enpresa bat erostea, edo haren akzioen ehuneko esanguratsu bat eskuratzea. Edozein kasutan inbertsio horien bereizgarria izango da inbertitzaileak enpresaren kudeaketan eragin erabakigarria izan nahi duela eta bertan epe luzeko interesa daukala. Horrek bereizten ditu, hain zuzen ere, AIZak eta zorroko inbertsioak.

Atzerriko inbertsio zuzena aztertzeke orduan, elkarren artean loturik egonagatik ere desberdinak diren bi alderditik abia genezake analisia:

(i) Ikuspegi makroekonomikotik, nazioarteko finantzen eremuan kokatuko ginateke, hots, inbertsio-helburuaz herrialde batetik bestera mugen gaintik zirkulatzen duten kapital-fluxuen analisisian (AIZ kapital-mugimendu horietako mota jakin bat baita). Informazio hori da modu sistematizatuan herrialdeen pagamendu-balantzako estatistiketan agertzen zaiguna. Ikuspegi horren arabera, honako aldagaion gain jarriko genuke arreta: finantza-kapitalen fluxuetan, enpresa inbertitzaileek metatutako kapital-stockaren balioan edota inbertsio horietatik eratorritako errenta-fluxuetan.

(ii) Bigarren ikuspegiak, aldiz, izaera mikroekonomikoagoa du; kanpo-fluxu horiek kapitalaren jatorrizkoak ez diren beste herrialdeetako enpresetan gauzatzean sortzen den industria-antolaketan eta industria-produkzioan jartzen du arreta. Ikuspuntu horretatik begirata, intereseko alor bilakatzen dira, adibidez, atzerrian gisa horretako ekimenak gauzatzeko inbertitzaileak izan ditzakeen zioak edo arrazoiak; edo, halaber, enpresa transnazionalen eta inbertsio horien bitartez sortutako filialen jardueren ondorioak, jatorrizko herrialdeko nahiz herrialde hartzaileko inbertitzaileentzat (enpresa horien merkataritza, enplegu, produktioetik eta beren kapital intelektualaren fluxu eta stocketik erortzen diren ondorioak, pagamendu-balantzako kapital-fluxu eta stockek neurtzen ez dituzten alderdiak, bistan denez).

Guk produkzioaren transnazionalizazioaren fenomenoari erreparatu nahi diogu gai honetan, eta horregatik ikusmolde horietako lehenengoa gutxietsi gabe

(kontuan izanik, gainera, liburu honetan bertan 4. gaian finantza-mugimenduen inguruan jardun dugula) bigarrenaren baitan kokatuko dugu nagusiki gure analisia.

Ez dago ETNen definizio ofizial bat, zehatza eta unibertsalki onartua. Has-teko, hedapen handiena duen definiziotik abiatuko gara: enpresa transnazonalaz mintzatzen gara enpresa batek bere jatorrizko herrialdeaz harago beste herrialde batzuetan inbertsio produktiboak dituenean. Ideia horren beraren beste adieraz-pide bat: enpresa bat transnazonaltzat hartuko dugu produkzio-ahalmena (fabrikak, makineria...) estatu batean baino gehiagotan daukanean. Bistan denez, jabetzan oinarritzen den kontzepzio bat jasotzen da definizio hauetan eta, zentzu horretan, erabat lotuta agertzen zaizkigu enpresak kanpoan egiten duen inbertsio produk-tiboarekin, hots, AIZrekin. Beraz, transnazonaltzat edo multinazonaltzat hartuko genuke gisa horretako inbertsioak egiten dituen enpresa.

Hala ere, ETNak zer diren zehazteko orduan soilik jabetzaren irizpideari hel-duz gero, nekez jaso ditzakegu jarduera transnazonalei ekiteko enpresek dituzten gero eta aukera konplexuagoak, hala nola lankidetzak-ekimenen hainbat modu, edota geografikoki sakabanatutako produkzio-sareen baitako trukeak kontrolatzeko eta koordinatzeko erak. Nolabait esatearren, ETNek nazioarteko panoraman duten garrantzia azpimarratzen denean, ez zaio bakarrik jabetzari begiratzen, berebat produkzio-jardueraren gain duten kontrol-ahalmena izaten dugu aintzakotzat. Egia da normalean lehengoak bigarrena dakarrela, baina kontrol-maila esanguratsua ere gerta daiteke jabetzarik gabe.

Horregatik interesgarria izan daiteke definizio zabalago bat mahaigainera-tzea, adibidez: «Jabetza eskuratu zein ez, eragiketak estatu batean baino gehiagotan koordinatzeko eta kontrolatzeko boterea duen enpresa da ETNa». Izan ere, jabetza-rik gabe produkzio-kateak kontrola daitezke, adibidez, nazioarteko azpikontratazioa erabiliz, hots, atzerriko ekoizpen-fabriken jabetza ez baina horietan egiten diren produktuen teknologia, diseinua eta marka edota banaketa bera ere kontrolatzen dituzten enpresen gaineko kontrola bermatuz. Antzeko zerbait ere lankidetzak-akor-dioak egiten direnean suertatzen da: ikerketarako, produktuen merkaturatzea batera egiteko... edo oro har atzerrian fabrika berri bat irekitzeko. Elkarlan horretan akti-bo estrategikoen kontrola —hala nola ezagutza edo markak— oso modu dispare-koan egoten delako banatuta gertatzen da hori. Esan gabe doa gehienetan ETN handienen aldekoa izan ohi dela disparekotasunaren noranzkoa.

### ***6.1.3. Enpresa transnazonalen ezaugarri nagusiak***

ETNen garrantzia hiru oinarritzko ezaugarrietan dago errotuta:

- i. Produkzio-sare transnazonaletan, herrialdeen artean zein barnean, pro-zesuak eta trukeak koordinatzeko eta kontrolatzeko duten gaitasunean.

- ii. Produkzio-faktoreen banaketan (lurra, lana, kapitala) zein politika publikoetan (zergak, merkataritza-hesiak, diru-laguntzak...) egon daitezkeen desberdintasun geografikoak beren alde aprobetxatzeko duten gaitasun potentzialean.
- iii. Beren malgutasun geografiko potentzialean: baliabideak eta eragiketak alde batetik bestera aldatzeko eta berriz aldatzeko gaitasuna, eskala globalean ere.

Ondorioz, ETNen erabakiek eta jardunak izugarriko eragina dute ekonomia globalaren geografia aldakorraren itxuratzean. Funtsezkoak dira ildo horretan non inbertitu eta non ez, edota toki batzuei eta besteei esleitzen zaizkien funtzioei buruzko erabakiak; eta halaber geografikoki sakabanatutako eragiketa horien ondorioz sortzen dituzten fluxuen norabideak eta bolumenak, honako alderdi guztiei buruz: lehengaiak, osagai zein produktu bukatuak, teknologia- eta antolakuntza-trebetasuna edota finantza-arlokoak. Sektoreka zein lurraldeka eragina desberdina den arren, oso gutxi dira gaur egun modu zuzenean edo zeharka ETNen eraginetik kanpo gera daitezkeen tokiak. Zenbait kasutan, dena den, eskualde bateko patu ekonomikoaren gainean ETNen eragina sekulakoa da.

Enpresa transnazionalen jardunerako bideak aztertuko ditugu ondoren, bi bide nagusiak aztertu ere. Batetik, filialen bidezko ohiko ezarrera dago, antolakuntza mota honetan enpresa bakarra da ikuspegi juridikoaren arabera eta askotarikoa produkzio-unitateei dagokienez. Enpresa transnazionala izaera desberdinetako lantegiz osatzen da, enpresaren barnean funtzio eta eginkizun desberdinak dituztenak. Antolakuntza-egitura hierarkikoa itxuratzen da honelako ereduarekin.

Eredu honetan etxe nagusia da inbertitzen duen enpresa eta erabakigune nagusia. ETNaren jatorrizko herrialdean kokatu ohi da eta enpresaren zuzendaritza eta kudeaketa zentralizatuaren arduragunea da. Aldiz, inbertsioak jasotzen dituzten enpresak edo lantegiak adierazteko etxe filialaren errealitatea dago. Nagusiki atzerrian kokatzen dira, eta etxe nagusiaren zuzendaritzapean daude. Printzipioz, enpresa filialek ez dute aparteko ahalmenik beren enpresa-egitasmo propioa garatzeko; aitzitik, beren enpresa-helburuak ETNaren estrategia edo egitasmoaren logika orobateratuari atxikitzen zaizkio.

Halere, etxe nagusiaren eta inbertsioaren jasotzaile den enpresaren artean ezartzen den harremana ez da beti izaera berekoa izaten; deszentralizazio- eta autonomia-maila desberdinak egon daitezke, betiere enpresa transnazionalaren estrategia globalaren barnean. ETNen jarduna, gero eta gehiago, filialei nolabaiteko autonomia onartzearen bitartez egiten da, modu horretan malgutasun handiagoa lortzen baitute merkatu zehatz bakoitzaren baldintzetara hobeto egokitzeko.

ETNen antolakuntza-ereduaren bigarren mota enpresa-sarea da. Enpresa-sareak eratzeke formula bat baino gehiago garatu dituzte enpresek, besteak beste: azpikontratazioak, frankiziak edota enpresa bateratuak.

- i. Azpikontratazioa. Enpresa batek bere produkzio-prozesuaren zati edo fase batzuk beste enpresa batzuei kontratatzen dizkienean; zentzu horretan bereziki interesgarriak dira azpikontratataile eta azpikontratatuaren artean oinarri egonkorra duen erlazioa ezartzen denean, zenbait urtetarako eta produktua enpresa nagusiak finkatutako espezifikazioen arabera ekoizteko baldintzapean.
- ii. Frankiziak. Enpresa batek beste enpresa bati lagatzen dio bere markaren erabilera eta horrekin batera bere negozioaren oinarritzko egiteko moduak eta ezagutzak, aldez aurretik finkatutako baldintza batzuetan ustiatu ditzan. Trukean frankizia jaso duen enpresa horrek aldizkako ordainketa bat egin beharko dio enpresa lagatzaileari. Frankizia-eskubidea denboraldi mugatu baterako eta lurralde-eremu jakin baterako ezarri ohi da.
- iii. Enpresa bateratua edo *Joint Venture* (JV) izenaz ezagutzen den formularen erabilera ere ugartuz doa azken aldion atzerriko inbertsio zuzenen eremuan. Zehazki honetan datza: enpresa bat beste enpresa batzuekin (bere herrialde berekoak zein atzerrikoak izan daitezkeenak) elkartzen denean, inbertsio-proiektu bateratu bat gauzatzeko (esku artean darabilgun alorrean, inbertsioaren jasotzailea den herrialdean enpresa berri bat sortzeko); eta bai jabetzan bai erabakitze-ahalmenean JVko kideen artean nolabaiteko simetria bermatuz. Kontuan izan behar dugu ETNen eremu honetan askotan tamaina handiko inbertsioez ari garela, arrisku handikoak, merkatuan aurretiazko eskarmentua beharrezkoa dutenak; horrek guztiak nahiko interesgarri bihurtzen du enpresa bateratuaren aukera.

Ondoren, herrialde hartzailean ETNa barneratzeko modu nagusiak aipatuko ditugu. Izan ere, AIZak ez dira beti modu berean gauzatzen. ETN batek bide desberdinei hel diezaike herrialde batean ezartzeko:

a) Enpresa (edo fabrika) berri bat sortzea, ETNaren izena eraman dezakeena edo ez. *Greenfield* hitz anglosaxoiaz ezagutzen dira horrelako inbertsioak. Esan beharrik ez dago herrialde hartzailean instalaturiko produkzio-ahalmenaren gehikuntza dakartela.

b) Indarrean dagoen enpresa bat osorik eskuratzea edo bertan kontrola ziurta diezaiokeen gutxieneko parte-hartzea erostea. ETNek sarri erabili ohi dute bide hau; izan ere, enpresa hauek eskuarki sarrerako hesi gogorak dituzten merkatuetan jarduten baitute eta horietan enpresa berri bat sortzeko merkatutik kanporatua izateko arriskua norberaren gain hartzea lekarke. Haatik, batzuetan arazoak dituzten eta merkatutik ateratzekotan dauden enpresak eskuratzen dituzte ETNek; normalean horren atzean egon ohi den arrazoia da enpresa horrek baduela ETNak dakartzan aktiboen osagarri den aktiboren bat (adibidez, merkatuaren ezagutza edota ospea), horrek merkatu horretan instalatzeko bidea erraztuko dio inbertitzaile atzeritarriari. Besterik gabe jadanik existitzen diren enpresak eskuratzerako bideratutako inbertsioek ez dute eragiten herrialdean instalaturiko ahalmenaren gehikuntzarik.

Halere, batzuetan enpresak behin eskuratuta, beren jarduera-maila igotzen dute, baita inbertsio berriak eginez ere.

c) Ezarritako enpresekin merkataritza-akordio edo bestelako akordioak. Batzuetan estatistikak ohartu gabe gertatzen den atzerri-kapitalaren barneratzea, ez baita zorrozki AIZ. ETNaren eta tokiko enpresen arteko merkataritza-akordio edo lizentziez ari gara. Horrelako kasuetan, inbertsioa txikia izaten da, atzerriko enpresak sukurtsal bat sortzen du, tokikoen operazioak kontrolatzen dituen; multinazionalaren (edo bere izen komertzialaren) inbasio «fiktizio» bat gertatuz merkatuan. Mota honetako barneratze-estrategiak, ez direnak jakina AIZren gehikuntza batean islatzen, ohikoak izaten dira banakuntza komertzialaren sektorean, frankizia-akordio bitartez. Horrelako jokabideek azaltzen dute zergatik sektore batzuetan atzerriko kapitalaren barneratzea estatistika ofizialek adierazten dutena baino handiagoa suertatzen den.

Amaitzeko, kontuan hartu behar da ETNak ikuskera globalaz diharduten agenteak direla. ETNen eragiketa-bidea mundu-mailako kontrol eta estrategian datza. ETNa osatzen duten enpresa filialen autonomia-mailaz harago, bere jardueraren lerro nagusiak etxe nagusiko erdigunean erabaki eta zuzentzen dira. Erdiguneak erabakitzen du inbertsio berriei buruz, hornidura-merkatuak eta salmenta-merkatuak erdiguneak aukeratzen ditu, ikerketa- eta garapen-egitarauak erdiguneak zehazten ditu, eta enpresa filialen trukeak burutzeko prezioak erdiguneak ezartzen ditu. Horrekin lotutako ezaugarri garrantzitsua hau da: ETNen estrategian garrantzia duena ez da enpresa partaide bakoitzaren irabazia, talde guztiaren etekin orokorra baizik. Gerta liteke ETNa osatzen duen produkzio-unitateren batean behin-behineko galerak edo galera iraunkorrak izatea eta taldearen irabazpidearen estrategia orokorrarekin bat etortzea.

Antolakuntza aldetik beste faktore bat gehitzen zaio aurrekoari, produkzioa eta merkataritza nazioarteko mailan integratzen direla alegia. Ekoizpenaren segmentu desberdinak herrialde diferenteetan lekutu ahal dira eta azken produktua edo produktu finala beste herrialde batzuetan merkaturatua izan. Autogintzako enpresa anitzen jarduerak arras ongi islatzen du egoera hau. Dena den, azpimarratu beharra dago enpresa bat ez dela transnazionala nazioarteko merkataritzan asko aritzen delako, baizik eta produkzioan eragiten duelako.

#### ***6.1.4. ETNen garrantzia neurtzeko adierazleak***

Ikus ditagun orain enpresa transnazionalen presentzia eta haien jardunaren garrantzia neurtzeko gehien erabiltzen diren adierazleak.

##### ***6.1.4.1. Atzerriko inbertsio zuzenari buruzko datuak***

ETNen jarduera modu partzialean azaltzen duen arren, atzerriko inbertsio zuzena (AIZ) da gaur egun enpresa transnazionalen nondik norakoa eta zenba-

tekoa neurtzeko formula nagusia eta hedatuena. Inbertsio horiek fluxuetan, hots, urteko joan-etorrietan edota stockean, ordura arte metatutako inbertsio-kapitalean, neur daitezke.

**AIZren fluxuak** neurtzean ez-egoiliarrek urte jakin batean inbertitutako kopuruak hartzen dira kontuan eta zehazki honakoak biltzen dira: inbertsio berria, mozkinen berrinbertsioa, instalaturiko enpresen eskurapena, etxe nagusia eta filialen arteko maileguak eta higiezinetakako inbertsioak. Herrialde baten ikuspegitik sarrerako fluxuak nahiz irteerakoak kalkula daitezke; interesgarria izaten da, halaber, AIZren osaketa sektorialari erreparatzea, inbertsioaren hartzaile nahiz emaille diren enpresak zein produkzio-sektoreen barne kokatzen diren ikusteko.

**Atzerri-kapitalaren stocka** denboran zehar izandako AIZren fluxuen meta-ketaren bitartez kalkulatu ohi da. Stockari buruzko datuek koiunturaren arabeko aldaketak saihesten dituzte eta, beraz, ETNen presentzia eta egitura geografiko nahiz sektorialari buruzko irudi egokiagoa eskaintzen dute AIZren fluxuek baino.

AIZri buruzko informazioa termino absolutuetan ez ezik askotan neurri erlatiboetan ere erabiltzen dugu, adibidez atzerriko inbertsio-fluxuek bertako produktu totalarekiko duten garrantzia neurtzeko (**AIZ/BPG**) edota inbertsio totalaren gain duten pisua (**AIZ/inbertsioa**), adierazle horiek herrialde batek kanpo-inbertsio horrekiko duen mendekotasun-maila ageriago uzten baitute eta, gainera, herrialdeen arteko konparazioak egitea ahalbidetzen dutelako.

Bukatzeko AIZ produkzioaren nazioartekotzearen neurri gisa gehien erabiltzen den informazio-iturria bada ere, ezin dugu ahaztu internazionalizazio-fenomeno horren adierazpen batzuk bere esparrutik kanpo geratzen direla eta, hortaz, ez duela bere garrantzia osotasunean jasotzen. Adibidez, lehen aipatu ditugun nazioarteko subkontratazioek edota lankidetzak-akordioek, esaterako, inbertsioek eurek islatzen dutena baino askoz ere bultzada handiagoa ematen diote nazioartekotze-prozesuari; edo, beste adibide bat, ETNek atzerriko kokaguneetako inbertsioetan erabiltzen duten finantzazioaren zati handi bat tokiko finantza-sistematik lortzen dute, eta, beraz, ez da jasotzen AIZri buruzko datuetan.

#### *6.1.4.2. ETNek jarduera ekonomikoan duten garrantzia neurtzen*

Beste adierazle batzuek AIZk duen tamaina eta garrantzia neurtzera mugatu gabe, harago joan nahi eta atzerriko enpresek herrialdeko jarduera ekonomikoaren gain duten kontrola nabarmendu nahiko lukete. Eginkizun horretan hainbat aldagairi begiratuko zaie, kasu bakoitzean ETNen filialei dagokiena herrialdeko totalarekin alderatuz. Adibidez: enpresa kopurua (atzerri-kapitalak erabakitzeko ahalmena duen enpresa kopurua herrialdeko enpresen totalarekiko), edota produkzioa (zenbatekoa den atzerri-kapitaleko enpresek sortzen duten produkzioaren balioa herrialdeko produktu osoarekiko), edota molde bereko kalkuluak salmentari, balio erantsiari zein enpleguari dagokienez.

Zentzu horretan doaz halaber UNCTADek nazioarteko konparazioak egiteko erabiltzen dituen beste adierazle espezifikoko batzuk, jarraian aipatuko ditugunak.

**AIZren sarrera efektiboan indizeak** honakoa esaten digu: herrialde bati munduko AIZren korranteetatik dagokion proportzioa, munduko BPGan dagoen zati proportzionalarekiko alderatuta (kalkulurako honela egingo genuke: zenbakitzailean *AIZ sarrerak herrialdean / AIZ sarrerak munduan* eta izendatzailean *BPG herrialdean / BPG mundukoa*). Herrialde batek atzerri kapitalarentzat duen erakargarritasunaren adierazgarritzat har daiteke.


**Herrialde hartzaileen transnazionalizazio-indizea.** Ikuspegi orokor bat eskaini nahian inbertsio, produkzio eta enpleguari buruzko datuetan oinarriturik eraten den adierazle hau AIZk herrialde batean duen garrantzi erlatiboa neurtzeko erabiltzen da. Zehazki, honako lau portzentajeen batez bestekoa eginez kalkulatu da: AIZren sarrera-fluxuak/KFEG + AIZ sarrera-stocka/BPG + atzerriko filialen balio erantsia/BPG + atzerriko filialen enplegua/enplegu osoa.

Ez da nahastu behar beste honekin: **ETNen transnazionalizazio-indizea**, enpresen kanpo-presentzia neurtzeko erabili ohi den adierazlea, hiru ratio hauen arteko batez bestekoa eginez kalkulatu dena: kanpo-aktiboak aktibo totalekiko, kanpo-salmentak salmenta totalekiko eta filialetako langileak enpresako langile guztiekiko.

## 6.2. *ETN-EN HEDAPENA ETA PRODUKZIOAREN INTERNAZIONALIZAZIOA*

II. Mundu Gerraren ostean enpresa transnazionalen kokapen globala indarrean zegoen. Orobat, XX. mendeko bigarren zatian enpresa transnazionalek atzerrian egindako inbertsioaren hazkundeak ekonomiarena gaintitu zuen. Eta enpresa hauen dinamika hedatzailea bizkortu egin da geroztik gaur egungo globalizazioaren ezaugarri nabarmenetako bat izateraino. Horrela, ETNak hedatu eta handitu diren neurrian, produkzioa ere transnazionalizatu egin da; izan ere, produkzio eta balio-kateak zein banaketa-sareak nazioz gaintiko hedapena ezagutzen ari dira gero eta indar handiagoz. Hori dela-eta, gero eta argiago azaltzen ari da produkzio-eta banaketa-sareen dimentsio globala.

II. Mundu Gerraren osteko lehen hedapena AEBetako enpresek egin zuten nagusiki. Hasiera batean Ipar Amerikako enpresa erraldoiek batik batik lehen sektoreko nekazaritzan eta meagintzan, petroliogintzan batez ere, inbertitzen zuten atzerrian. Baina, beren teknologia-nagusitasuna aintzat hartuta, berehala hasi ziren Europarako urratsa ematen industria filialak bertan ezarriz, merkatu horietako babes gaintitzeko asmoz. Nolanahi ere, 1970eko hamarkadan Europako eta Japoniako enpresa eta sektore batzuetan produktibitate-maila garaian lorpena tarteko bertako enpresa ugari atzerrian inbertitzen hasi ziren, hurbileko herrialdeetan hain zuzen.




ETNen hedapenaren neurria, besteak beste, enpresa hauen AIZren bilakaerak adierazten du, nahiz enpresak atzerrian kokatzeko beste bide batzuk ere erabiltzen dituzten, hala nola helburuko herrialdeetako finantza-baliabideak maileguz edo bertako laguntzak eskuratzea. Beraz, AIZk ez du enpresa transnazionalen hedapena guztiz erakusten, baina hedapen horren bilakaerari jarraitzeko indize fidagarriena da. 1980ko hamarkadaren hasieran AIZren geldialdia gertatu zen (6.1. irudia) garai horretako krisiaren ezta eraginda. Haatik, atzerriko inbertsioak egundoko igoera izan zuen hamarkada horretako bigarren zatian eta, batez ere, hurrengo hamarkadako bigarren erdian 2000. urtean gailurra lortuz. Bi aldi horietan mundumailako hazkunde ekonomikoa bizkorra izan zen eta testuinguru horretan enpresa transnazionalak atzerrian egindako inbertsioa biderkatu zuten. Kontuan hartzekoa da garai hartan integrazio kontinentalen ekimenak aurrera egiten ari zirela eta horrek merkatuak zabaltu egin zituela eta horrekin errentagarritasunerako aukerak. Esaterako, Europar Batasunean Europako Merkatu Bakarra eraiki zen, Ipar Amerikan NAFTA akordioaren bitartez merkataritza libreko eremua zabaltu zen eta Asia-Pazifikoan ere APEC delako akordioarekin bertako merkatua eremu libre gisa aurrera egiteko asmoa adostu zuten. Horrela, munduko hiru eremu geoeconomico nagusietako merkatuen garapenerako oinarriak ezarri ziren eta enpresa transnazionalen estrategietan gero eta garrantzi handiagoa hartu du bertan ezarpenak egiteak. Merkatu zabal horietan kokatzeko helburua indartu zen eta Japoniako enpresek Ipar Amerikako eta Europako ezarpenak areagotu egin zituzten, Europako korporazioek Ipar Amerikako beren presentzia handitzen zuten bitartean. Kokapen hauen hedapen berritua enpresen bat-egiteen eta erosketen bidez gauzatu dira neurri handi batez. Integrazio kontinentalen joera 1970eko hamarkadaren ondoren gertatu zen paradigma ekonomikoaren aldaketak lagundu du, hots, liberalizazio orokorraren uhinak, zeinak aipatutako integrazio kontinentalaz haratago merkataritzaren



liberalizazioa sustatu izan duen. Gainera, liberalismoaren aldeko aldaketak enpresen eta zerbitzuen pribatizazioa ere ekarri zuen eta horren harira gauzatu izan dira enpresen arteko bat-egiteak eta erosketak, hauek AIZren gorakadaren arrazoi inportantea izanik, oraintxe aipatuko dugun legez.

Mende honetako lehen zazpi urteetan, berriz, oso joera aldakorra ezagutu du atzerriko inbertsio zuzenak. Lehen hiru urteetan AIZk jaitsiera gogorra nozitu zuen. Teknologia-burbuilaren leherketa izan zen garai horretan eta horrekin munduko ekonomia uzkurtu egin zen. Hamarkadaren erdialdean, ostera, atzerriko inbertsio zuzena bizkortu egin zen nabarmen ekonomia-zikloaren hedapen-garai orokor batean. AIZ oso sentikorra da ekonomia-zikloarekiko eta, beraz, 2007an lehertu zen ekonomia-krisiaren ondorioak ikusi ahal izango ditugu 2008ko AIZren datuak ezagutzen ditugunean.

Aurreratu dugunez, atzerriko inbertsioaren bilakaeraren oinarrian enpresen arteko bat-egiteak eta erosketak daude. Kapitalen kontzentrazioa eta zentralizazioa kapitalismoaren ezaugarria da eta horretarako biderik esanguratsuena enpresen artean egindako kapitalen arteko lotura organikoak dira, bat eginez edo enpresa batek beste bat edo beste batzuk erosiz egiten dena. Joera historikoa izan dena azken hiru hamarkadetan bizkortu egin da, batik bat enpresa publikoen pribatizazioaren uhinak akuilatuta. Hauen artean nazio desberdinetako korporazioen arteko bat-egiteak eta erosketak ugariak dira eta horiek gauzatzen direnean, estatistikoki atzerrian egindako inbertsio gisa agertzen dira, nahiz eta sarritan bat egindako korporazioak ez duen kapital gehigarri eskuratzen.




Enpresa transnazionalen kapitalen kontzentrazioarako joera gero eta indartsuagoa erakusten du 6.2. irudiak eta, halaber, joera horrek atzerriko inbertsio zuzenaren dinamika ehuneko handi batean azaltzen du, batez ere AIZren hazkunde bizkorreko garaian. Horrela, jatorri desberdinetako enpresen arteko bat-egiteak eta

erosketak AIZren erdiaren baino gehiagoren erantzule dira 1998. urtetik aurrera —2003ko salbuespenarekin— eta horietako sei urtetan % 60 baino gehiagoko ekarpena egin diote AIZri. Joera hau bereziki garrantzikoa izan da zerbitzuetan, batik bat finantza-zerbitzuetan. Finantzen arloko liberalizazio indartsuak ahalbidetu du OECDeko herrialdeen arteko fluxuak ez ezik Latinoamerikara zein Asiako ekialdera bideratzen direnek ere oso igoera bizkorra ezagutu izana.

Halabeharrez, enpresak erosi eta bat egiteko jokabide hazkor horren atzean lege eta arauen malgutasuna dago, nazioarteko hitzarmentan hori bultzatu baita eta herrialdeen joera ere liberalizazioaren aldekoa izan da atzerriko inbertsioa erakartze aldera. UNCTADek dioenez, 1990eko hamarkadako AIZri buruzko arategi nazionalen aldaketan % 95ek izaera liberalizatzailea izan zuen eta modu berezian finantza-arloan gertatu zen. Ondorioz, ekonomiaren globalizazioak kapitalen kontzentrazioa areagotu egin du eta nazioarteko merkatuetara eraman du garai batean nazio-esparruko oligopolioen eraketa.


Enpresa transnazionalen hedakuntza-prozesu bizkorra AIZren kopuruaren bilakaera soilaren bidez aztertu dugu, urtez urteko balio absolutuak alegia. Baina produkzioaren transnazionalizazioak bere testuinguruan duen garrantzia analizatzeko interesgarria da ere indize konparatiboen bilakaerak gainbegiratzea. Horietako bat da inbertsioaren internalizazioaren indizea. Horrek aditzera ematen du urte jakin bateko munduko inbertsio guztiaren fluxuarekiko zein den AIZren ekarpena eta 6.3. irudiko AIZ/inbertsioa erlazioaren bidez adierazten da. Bistakoa da indize honek azken hogeita bost urtetan izandako bilakaera oso positiboa izan dela. 1982an % 2ko indize urriak ia % 15era egin baitzuen jauzi 2007. urtean. Bilakaerak ez du zalantzarako aukerarik ematen eta mundu-mailako produkziogintzan nazioz gaindikoa inbertsioak duen garrantzia adierazteaz gain, prozesuaren dinamikotasun bizia ere erakusten du. Aipagarria da, hala ere, 2000. urtetik indize honek egin duen atzerapausoa, zeinak zerikusia duen hamarkada honetan nazio-inbertsioek izandako gorakada inportantearekin.



Bigarren indizeak produkzioaren internazionalizazioa zuhurtasun gehiagoz neurtzen du. Izan ere, produkzioaren internazionalizazio-indize honek munduko produktuari atzerriko filialek egindako ekarpena adierazten du, jatorrizko herrialdeetik kanpo ekoizitakoaren ehunekoa alegia. 1982. urtean filialek ekoizitakoak munduko produktuaren % 5 gainditzen zuen, eta hogeita bost urte geroago % 11 ekoiztera iritsi ziren. Beraz, bi hamarkada eta erdian soilik nazioz haragoko produktuak munduko BPGri egindako ekarpena bikoiztu egin da aise. Eta horrek ezin hobeto erakusten du produkzioaren internazionalizazioaren gaur egungo dinamika bizkorra.

Aipatzekoa da ETNen hedapena modu desberdinean gauzatu dela sektoreei erreparatzen badiegu. Esan dugunez II. Mundu Gerraren ostean oraindik oso garrantzi handikoak ziren lehen sektoreko enpresa transnazionalak, baina 1950eko hamarkadatik aurrera nazioarteko inbertsioaren esparru sektorial nagusia industria izan zen 1970eko krisia lehertu arte. Autogintza, elektronika, kimika... adarretan egindako inbertsioek hartu zieten aurrea lehen sektorekoei garai hartan. 1980ko hamarkadaz geroztik, oro har ekonomian gertatzen ari den aldaketa estrukturala AIZra ere iritsi dela esan daiteke, hots, zerbitzuetan gauzatzen ari da atzerriko inbertsio zuzenaren parterik handiena eta, aldiz, industria-arloko AIZ indar erlatiboa galtzen ari da.

Eraldaketa hau 6.4. irudian ikus daiteke. Bertan azken hamarkada eta erdian AIZren stocka sektoreka nola banatzen den erakusten da. Lehen sektoreko AIZren stockaren pisua ia berdintsu mantentzen da, hau da, AIZ handituz doan neurrian, lehen sektorean dagoen atzerriko inbertsioaren stocka ere handitu egiten da hein berean, baina ez gehiago. Aldiz, AIZren stockaren pisu erlatiboaren trukea gertatzen da industria-arloko atzerriko inbertsioaren stockaren eta zerbitzukoaren artean. Hots, industriako AIZren stockaren ehunekoa nabarmen jaitsi da % 42 izatetik % 30era eta, ostera, zerbitzuetan metatutako AIZren stocka hazi egin da ia proportzio berean % 62raino.




Beraz, gaur egun zerbitzuen sektorean dagoen AIZren stockak industriakoa bikoizten du. Horrek erakusten du produkzioaren internazionalizazioak eta tertziarizazio produktiboak oso harreman estua dutela. Jokabide hori oso lotuta dago lehen aipatu dugun liberalizazio-prozesuarekin eta batik bat finantza-arlokoarekin. Finantza-arloan azken hamarkadetan ezagutu den liberalizazioak eta desarauketak nazioarteko inbertsioa modu librean egiteko aukera ekarri dute, nazioarteko mugikortasunerako oztopo guztiak edo gehienak bertan behera geratu diren neurrian. Horrek ikaragarri biderkatu ditu finantza-erakundeek atzerrian egindako inbertsioen kopurua eta erakunde finantzarioen arteko bat-egite eta erosketak transnazionalak. Gainera, kontuan hartu behar da zerbitzuetako merkataritza gero eta handiagoa den arren, manufaktura-gaiena baino zailagoa dela gauzaten. Hori dela-eta, hainbat zerbitzu-enpresak atzerriko kokapena hobetsi ohi dute bertako merkatuetan sarbidea errazteko eta beren atzerriko presentzia handitzeko.

Nolanahi ere, enpresen jarduera produktiboaren transnazionalizazio-maila ez da bakarrik AIZren tamainarekin edo filialen atzerriko produkzioarekin adierazten. Badira bestelako adierazleak hori erakusteko, besteak beste UNCTAD erakundeak eraikitako Transnazionalizazio Indizea (TNI). TNI indizea hiru erlazio hauek osatzen dute: enpresaren aktibo guztiekiko atzerriko aktiboen mailak, atzerriko salmentek salmenta guztiekiko, eta atzerriko enpleguak enplegu guztiarekin alderatuta. Indize honen azpian dagoen kontzeptuak egiaztatzen laguntzen du zenbateraino dauden sustraiturik enpresen interesak eta jarduerak beren jatorrizko herrietan eta atzerrian.

UNCTADek 100 enpresa transnazional handientzat eraikitako TNIn bilakaera hazkorra argitaratu ematen du 6.5. irudian. Esanguratsua da hamahiru urteren ostean indizearen zenbatekoa % 50 igo izana. Beraz, enpresa transnazional handien eragiketa-jarduera osoan gero eta garrantzi handiagoa du atzerrian duten

faktoreen eta aktiboen tamainak. Jakina da enpresa handien atzerriko joera bizkorragoa dena, baina nolana ere, bilakabide orokorraren erakuslea da irudi honetako TNIn ibilera. Hala ere, ETN hauen jatorri inportanteenak kontuan hartuz, herrialde desberdinen arabera diferentziak daude indize honen balioari dagokionez. Esate baterako, indizearen balioa batez bestekoa baino handiagoa da Frantzia edo Erresuma Batuko enpresentzat, eta apalagoa, Alemania, Japonia eta Ameriketako Estatu Batuetakoentzat.



Enpresen transnazionalizazioaren maila ETNen kopuruak berak eta hauek atzerrian dituzten enpresa filialen kopuruak ere ematen dute. Hori erakusten du modu gordinean 6.6. taulak. Kopuruen bilakaerak eskaintzen digu informazio interesgarria; izan ere, 1997. urtetik 2006ra bitartean ETNen kopurua hazi egin da ia bikoizteraino. Baina, enpresa filialen kopuruak are gorago egin du proportzioz, zeren duela hamar urteko 276 mila filialak hirukoiztu egin baitira. Harago, munduko herrialde eta eskualde ia guztiek ezagutzen dute, gutxi-asko, ETNen jardueren eta produkzio-sare globalen presentzia (6.6. taula). Nolanahi den, herrialde garatuetan jatorria ETNen % 71k baino gehiagok, beraz, enpresa hauen gehiengo zabal batek Iparraldeko herrialdeetan du egoitza.

Baina duela hamar urte, ETNen % 81ek zuen bere jatorria garatutako herrialderen batean. Beraz, ETNen egoitza nagusiaren Iparraldeko kontzentrazioa leuntzen ari da denboraren poderioz eta Hegoaldeko herrietako jatorria duten ETNak gero eta ugariagoak dira absolutuki eta erlatiboki. Aipagarria da Asiako jatorria duten enpresa transnazionalak direla ugaritzen ari direnak, Asia-Pazifikoko aroko herrialde emergenteetako ekonomia-dinamikotasunaren haritik doan susperraldiari jarraituz. Halere, Europar Batasuneko herrialderen batean jatorria dute ETNen erdiak baino gehiagok, beraz, lehen merkatu bakarraren sorrera eta hedapena garrantzizko arazoia izan da bertako enpresek nazioz gaindiko urratsa emateko. Aldiz,

enpresa filialen kopurua banatuago dago eta erdia baino gehiago garapen-bideko herrialdeetan kokatzen dira. Hemen ere apartekoa da enpresa filialen Asiako kopurua, bertan kokatutako filialen zenbatekoa garatutako herrialdeetako filialak beste baitira. Ostera, esan liteke Afrikan kokatutako enpresa filialen kopurua oso urria dela eta produkzio globalaren sistematik kanpo geratzen ari dela.

### 6.6. Etxe nagusien eta atzerriko filialen kopurua eta ehunekoa

(herri bakoitzeko azken urteko datuak, azken hamarkada hartzen dutenak).

	Herrialdeko etxe nagusiak		Atzerriko etxe filialak bertan	
	kopurua	%	kopurua	%
<i>Mundua 1997</i>	44508	100	276659	100
Mundua 2006	78817	100	794894	100
<i>Garatutako herrialdeak</i>	56448	71,6	366628	46,1
Europako mendebaldea	45607	57,8	328864	41,4
Europar Batasuna	42089	53,4	317687	39,9
Japonia	4663	5,9	4500	0,6
Ameriketako Estatu				
Batuak	2418	3,1	24607	3,1
<i>GBHak</i>	20586	26,1	413446	52,1
Afrika	737	0,9	6225	0,8
Latinoamerika eta Karibe	3177	4,1	39017	4,9
Asia	16651	21,1	367764	46,3
EIK eta Europako hego-ekialdea	1783	2,3	14820	1,9

Iturria: UNCTAD, World Investment Report 2008 eta 1998.

ETNen hedapen geografikoaren inguruan antzeko balorazioa egin daiteke enpresa kopuruaren ordean AIZren stockaren balioak erabiltzen badira. AIZren kanpo-eta barne-stocka neurtzen du 6.7. taulak, AIZ gauzatzen edo jatorria duen herrialdearen eta herrialde hartzailearen arteko bereizkuntza eginez. Hemen ere garatutako herrialdeen aldeko kontzentrazio espazialaren jokabidea oso nabarmen antzematen da. Horrela, bada, atzerriko kapitalaren emaile nagusiak Mendebaldeko herrialde garatuak dira alde handiz; izan ere, 2007. urteko datuen arabera AIZren kanpo-stockaren % 83 baino gehiago herri garatuetatik irten zen. Haatik, hemen ere ikuspegi dinamikotik behatuta aldaketaren zantzua ikus daiteke 1980. urtean Mendebaldeko herrialdeen ekarpen erlatiboa kontzeptu honentzat askoz garaia goa baitzen, % 97 alegia.

**6.7. taula. AIZren stockaren lurralde-banaketa (mundukoarekiko %).**

	AIZren kanpo-stocka		AIZren barne-stocka	
	1980	2007	1980	2007
Mundua	100	100	100	100
<b>Garatutako herrialdeak</b>	97,4	83,6	73,8	68,7
Europar Batasuna	40,0	51,2	36,6	47,7
AEB	42,9	17,9	16,4	13,7
Japonia	3,8	3,5	0,6	0,9
<b>GBHak</b>	2,6	14,6	26,2	27,9
Afrika	0,1	0,5	2,7	2,6
Latinoamerika eta Karibea	0,6	3,2	9,4	7,5
Asia	1,9	11,1	13,8	17,8
Europako trantsizio-ekon.	-	1,7	0,1	3,3

Iturria: Unctad, World Investment Report (urte desberdinak).

Azpimarratzekoa da garai honetan herrialde garatuetan egondako posizio-aldaketa: Europar Batasunak bere AIZren kanpo-stockaren partaidetza indarrez handitzen duen bitartean, AEBetako galera erlatiboa apartekoa da, 25 puntu atzeraka egiten baitu hiru hamarkadetan. Garapen-bideko herrialdeek AIZren kanpo-stockaren ekarpenean aurrerapen tinkoa egin dute, batik bat Asiako herrialdeen jokabideari leporatu ahal zaiona. Garapen-bideko herrialdeko jatorria duten atzerriko inbertsioaren zati bat, bertan egoitza izan baina herrialde garatuetako egoiliarren jabetza duten ETNek egindakoa da. Hala ere, azkenaldian garapen-bideko herrialdeetako zein trantsizio-ekonomietako enpresa transnazionalak inbertsio ugari bideratu dute atzerrira.

Atzerriko inbertsioaren barne-stockarekin ere kontzentrazio geografikorako joera azaltzen da, neurri apalagoan bada ere. Hemen, garatutako herrialdeek jasotzen duten AIZren stocka mundukoaren % 68,7 da eta garapen-bideko herrialdeen zatia % 28. Kontuan hartzen badugu 6.6. taula, atzerriko etxe filialen kopurua garatutako herrialdeetan eta garapen-bideko herrialdeetan hurrenez hurren % 46 eta % 52 dira. Bi aldagaiak alderatuta ikusgarria da Iparraldean kokatutako enpresa filialaren eta Hegoaldeko enpresa filialaren arteko atzerriko inbertsioaren stockaren desberdintasun erlatiboa. Garatutako herrialdeetako enpresa filialen kapitalizazioa askoz ere garaiagoa da batez beste garapen-bideko herrialdeetako enpresa filialak duenarekin alderatuz, lehen kasuan 28,5 milioi dolar gutxi gorabehera dagozkiolako filialari eta, aldiz, garapen-bideko herrian kokatutako filialari horren erdia baino gutxiago, 10,3 milioi dolar alegia. Oso esanguratsua da datu hau, argi uzten baitu eremu bakoitzeko batez besteko enpresa filialen egitura produktiboaren eta merkaturatzeko ahalmenaren arteko aldea.

Halaber, garapen-bideko herrialdeetan ere atzerriko kapitalaren kontzentrazioarako irizpidea errepikatu egiten da. Atzerriko inbertsioaren stock gehiena

Asiako herrialdeetan —Txinan eta hego-ekialdean batik bat— kontzentratzen da. Gainera azken hiru hamarkadetan indartuz doan joera da, lau puntu irabazi baititu Asiako AIZren stockak duen pisuak, mundukoaren % 18 ordezkatzearaino. Latinoamerika urrun geratzen den arren, atzerriko kapitalen erakarpen-eremua da, nahiz eta azken hamarkadetan erlatiboki ia bi puntu galdu dituen munduko AIZren stockaren hartzaille gisa. Azpimarratzekoa da, orobat, Europako trantsizioko herriek nolabaiteko garrantzia hartu dutela AIZren hartzaille gisa eta munduko AIZren harrera-stockaren % 3,3 erakartzen dute. Afrikaren posizioa oso bazterrekoa da eta hiru hamarkadetan ez da aldatu egoera hori. Atzerriko kapitalen kontzentrazioarako eredu hau ez dator bat arau neoklasikoaren ikuspegiarekin. Izan ere, argi geratzen da kapitalaren norabide nagusia ez doala kapital ugari duen herrialde batetik kapital urria duen herrialde batera eskola horretako egileek dioten moduan. Aitzitik, AIZren ibilbidearen ardatzak Mendebaldeko herrialdeak eta Asiako hego-ekialdekoak ditu jatorri zein helburu aldi berean.

### **6.3. AIZ-REN JOKABIDEAREN ARRAZOIAK ETA TEORIAK**

Mundu-ekonomian lehen mailako aktoreak izaki, ETNek arreta izugarria jasotzen dute aspaldion. Halere, haiei buruzko analisi teorikoa berri samarra dela esan dezakegu, 60ko hamarkadan hasi zen AIZ ekonomialarien arreta erakartzen. Oraindik ere ez dago AIZ eta ETNen jokabidea agertzen duen teoria orokor osaturik. Badauzkagu, haatik, zenbait ekarpen, garapen-maila handiagoa edo eskasagoa dutenak, batzuetan elkarren artean osagarriak ere badirenak. Horien arteko inportanteenak laburbiltzen saiatuko gara atal honetan.

#### **6.3.1. Azalpen neoklasikoa: errentagarritasunak gidatutako kapital-mugimenduak**

Gaur egun nagusi den ikuskera teorikoak (liberalak/neoklasikoak) berandu eta muga nabariez barneratu zuen AIZren gaia bere analisisian; izan ere, ekonomia neoklasikoaren oinarriak (lehia perfektua, teknologia ondasun libretzat hartzea, etab.) ez ziren bat etortzen ETNen errealitatearekin.

Muga horiekin guztiekin ere garatu izan da inbertsio zuzenaren nazioarteko mugimenduak azaltzeko proposamen bat, nazioarteko merkataritzaren eredu neoklasikotik abiatzen dena, nahiz eta teoria horrek bere formulazio zorrotzean ez duen aintzat hartzen produkzio-faktoreen —lan eta kapitalaren— mugikortasuna (merkataritzak eragingo bailuke prezio erlatiboen nazioarteko berdinketa, faktoreek desplazatzeko beharrik gabe).

Hala ere, teoria horretan oinarriturik horren hedapen gisan honakoa proposatu zuen Mundell-ek 1957an: merkataritza librea eragozten duten oztupoak egonik ere faktoreen prezio erlatiboen nazioarteko berdinketa lor daitekeela kapital-faktorearen desplazamenduen bitartez. Zehazki, kapitala mugituko da lanarekin alderatuta



ugari dagoen (eta hortaz errentagarritasun gutxiago duen) herrialdeetatik erlatiboki urria den tokietara (non bere ordainketa altuagoa den).

Proposamen horrek iradokitzen duenaren arabera, kapital-mugimenduak herrialde garatuetatik garapen-bidean daudenetara gertatu beharko lirateke; errealitatean, aitzitik, fluxu askok ez dute ezaugarri hori betetzen. Horrek zalantzan jartzen du teoriaren azalpen-gaitasuna, gehienik ere esplikazio partzialtzat hartu beharko litzateke eta, ondorioz, osatu eta berraztertu beharrekoa.

Bestalde kontura gaitetzen azalpen horretan atzerri-inbertsio zuzena errentagarritasun handiagoa lortzeko asmoz gauzatzen diren nazioarteko kapital-desplazamendutzat hartzen dela, zorroko inbertsioetik bereizketa handirik gabe, eta inon arretarik bideratu gabe horrelako eragiketak egiten dituzten enpresen izaerari eta beren estrategiei.

### ***6.3.2. ETNei buruzko teoriaren hastapenak: merkatuko inperfekzioak***

Hymer-ek 1960an burutu eta 1976an argitaratu zuen lana hartzen da ETNen teoriaren aitzindaritzat. Ikerlanaren gunea enpresa multinazionalak zuzendu zuen, AIZ errentagarritasun-tasekiko erantzuten duen kapital-mugimendu sinpletzat hartzen zuen ideia gaindituz.

Antolaketa industrialaren teoriatik edanez, eta bereziki sarrerako hesien inguruan diharduen ataletik abiatuta burutu zuen bere analisia. Hymer ohartu zen ETNek bazituztela eurei espezifikoak zitzaizkien aktibo batzuk, beren jatorrizko merkatuan posizio monopolistikoa ahalbidetzen zieten; eta gainera aktibo horiek merkatuaren bidez besterentzeko zailtasunak zeudela. Testuinguru horretan aztertu beharko dira enpresek produkzio-gintza nazioartekotzeko hartzen dituzten erabakiak.

Ohar gaitetzen bide honetatik merkatu perfektuaren balizkoetatik urruntzen ari garela, edo bestela esanda, merkatuko inperfekzioen existentzia aintzat hartzen duen ikuskera batean kokatzen dela azalpen ildo hau.

Izan ere, ETNak jardungo duen merkatuko enpresen aurrean abantailaren bat duela suposatzeak enpresen arteko desberdintasunak onartzea dakar, lehia perfektuaren oinarrietako bat urratuz. Norberarena ez den herrialde batean kokatzeak dakartzan desabantaila ukaezinen aurrean (ezjakintasuna bezeroen zaletasunei buruz, sistema legalaz, esparru instituzionalaz; etxe nagusitik urrun aritzearen kostuak, etab.) ETNak atzerrian lantegiak ezartzea erabakitzen badu, izan behar du abantailaren bat tokiko lehiakideek ezin eskura dezaketena. Gainera abantaila horren oinarrian produktuaren desberdintzea edota lehiakideek eskura ezin dituzten produkzio-teknikak egon daitezke, eta ezaugarri horiek ere beste inperfekzio batzuen ondorio izango lirateke (ondasunen merkatuan eta faktoreen merkatuetan, hurrenez hurren).

Hurbilketa honetan beste funtsezko osagai bat transakzio-kostuen existentzia izango da (merkatuaren bidezko harreman bat duten parte-hartzaileen artean sortzen diren informazio-, negoziazio-, koordinazio-, eta kontrol-beharrek sortutako kostuak). Kostu horiek handiak direnean, hala nola ziurgabetasun handiko edota konfiantza murrizteko egoeretan, merkata transakzioak antolatzeke mekanismo gisa erabiltzeak zailtasunak dauzka (adibidez zaila delako enpresa eta hornitzaileen artean etorkizunean gerta daitezkeen egoera guztiak jasoko lituzkeen kontratu bat sinatzea), eta hortaz enpresaren barne-prozedurak egokiagoak gerta daitezke transakzioak antolatzeke.

Aitzindaritzat jo dezakegu, halaber, Vernon-ek 1966an egindako ekarpena, izaera espazialik ez zuen Produktuaren Bizi Zikloaren kontzeptuari kokatze-dimentsioa emanez. Bigarren Mundu Gerraren ostean AEBetako ETNen bilakaeran oinarritu zuen bere proposamena. Bere azalpenaren arabera, atzerriko inbertsioa izango litzateke enpresa batek bere produktua helduarora hurbiltzen doalarik merkatu-kuotak galtzeko arriskuaren aurrean izango lukeen erreakzioa, eta berebat lehiari aurre egiteko faktoreen kostu merkeagoak lortzeko bidea. Zehazkiago, honelako faseak edo etapak bereiziko genituzke produktuaren bizitzan zehar:

- Hasieran, produktua berrikuntza baten gisan agertzen da; teknologia zein eskaria ziurgabeak dira. Enpresa sortzaileak bere jatorrizko herrialdean ekoizti eta merkataturako du produktua, horrela tokiko eskariari erantzunez eta aldi berean ikerkuntza, garapen eta produkzioaren arteko koordinazio eraginkor bat bermatuz. Atzerriko merkatuak esportazioaren bidez hornitutako dira.
- Aurrerago produktua estandarizatuago dago, enpresa aitzindariak zeukan ezagutza-abantaila galduz doa. Enpresa zenbait produkzio-instalazio atzerrian lekutzen hasiko da, produkzio- zein banaketa-kostuak murrizteko edota bere merkatu-posizioa ahultzeko arriskuak direla-eta (lehiakideak agertzen direlako zein gobernuek inportazioak moteltzeko hesiak ezartzen dituztelako). Hasierako filial horiek nagusiki errenta altuko beste merkatu batzuetan ezarriko ditu, horrela lehen esportazio-merkatuak zirenak orain zuzenean bertatik hornitzeko. Filialik gabeko merkatuetara esportatzen jarraituko du enpresak, nahiz eta baliteke hori ere aldatzea, zeren atzerriko filial berrien kostu-abantailek interesgarriagoa egin baitezakete beste merkatu horietarako esportazio bera filialetatik egitea.
- Azkenik, produktua erabat estandarizatzen denean, produkzioa kostu apaleko kokapenetara eramango da, garapen-bideko herrialdeetan.

Esan beharrik ez dago Vernonen proposamena, bere momentuan eta AEBetako hasierako enpresa transnazionalen bilakaera azaltzeko baliagarria izan zitekeena, erabat mugatua geratzen dela gaur egun globalki gauzak hain konplexuak diren aro honetan ETNen ibileraren azalpenerako eredu orokor gisa. Horregatik egokiagoa

iruditzen zaigu bilakaera-ibilbide desberdinez hitz egitea, ibilera tipikoentzat hartzen denetik abiatuz baina beste aukera batzuei ere leku eginez.

### 6.3.3. *Ildo berrian sakonduz: Dunning-en teoria eklektikoa*

Hymer-en ekarpenetako zenbait eta beste autore batzuenak ere jaso eta marko teoriko koherente eta bateratu batean elkartu zituen Dunning-ek (1980, 1993), gisa horretan gaur egun ETNen existentziari buruz onarpen handiena duen azalpen-eredua proposatuz.

Teoria eklektikoa edo OLI paradigma izenez ezagutzen den teoriaren muina honela laburbil daiteke: enpresa multinazionalen existentzia aldi berean hiru abantaila mota izatearekin dagoela lotuta, zehazki, jabetzari buruzko abantailak, kokatze-abantailak eta barneratzearen abantailak izatearekin. Ohar gaitezen, hain zuzen ere, hiru abantaila horien ingelesezko hitzen inisialak direla OLI laburduran agertzen zaizkigunak (*Ownership, Location, Internalization*). Azter ditzagun banan-banan abantaila mota horiek.


a) **Jabetza-abantailak** —abantaila absolutuak—. Atzerrian inbertituko duen enpresak badu aktiboren bat lehiakideen aldean nolabaiteko abantaila ematen diona. Aktibo horiek ukiezinak izan daitezke, hala nola ezagutza teknologikoa, markak eta ospea, enpresen antolakuntzarako era espezifikokoak...; edota ukigarriak ere, esaterako tamaina handian eta eskala-ekonomietan sorburua izango luketen gehiegizko produkzio-ahalmen edota finantza-ahalmena. Enpresak jada bere gain hartua du aktibo horien kostua eta, beraz, beste merkatu batzuetan ustiatzeko interesa izan dezake molde horretan bere errentagarritasuna areagotzeko.

Dena den, enpresaren esku badaude beste aukera batzuk ere bere soberazko aktibo horiek atzerriko merkatuetan errentagarri bihurtzeko. Lehen, jatorrizko herrialdean gehiago produzitzea eta ondoren esportatzea da. Beste aukera bat da, helmugako merkatuan jadanik indarrean dagoen enpresa bati aktibo horiek alokatzea ordainketa jakin baten truke —horixe da lizentzia edo frankizien kasua—. Alegia, aktibo horien jabetzatik erator daitekeen abantaila ez da nahikoa atzerrian inbertitzeko prozesuaren zergatiak azaltzeko.

b) **Kokatze-abantailak** aipatzean batez ere inbertsioaren helmugako herrialdeak eskaintzen dituen abantailai buruz ari gara, hots, herrialde jakin bat ETNentzat kokagune erakargarria izateko arrazoiak —abantaila konparatiboak—. Besteak beste, honako ezaugarriei erreparatu ohi zaie: kostu apaleko eskulana edota prestakuntza altukoa, ustiatu gabeko barne-merkatu zabalak izatea, lehengaien ugaritasuna, azpiegitura publikoen hornidura egokia, instituzio-esparru eta trataera fiskal onuragarriak eta, berebat, merkatua hornitzeko beste aukerek izan ditzaketan trabak, hala nola muga-zerga garaiak edota garraio-kostu handiak. ETNak atzerriko kokagunean lantegi bat ezartzen duenean, lortu nahi duen helburua izan daiteke

merkatu berri horretan sartzea edota produkzio-prozesuaren zati bat bertan lekutu eta horrela kostuen murrizketaren batez baliatzea.

Edonola ere, kontuan izan behar dugu AIZ ez dela kokatze-abantailak baliatze bide bakarra, hango enpresekiko lizentzia- eta frankizia-akordioen bitartez ere egin daiteke. Izan ere, bi egoera horietan merkatua helmugatik hornitzen da, esportazioetan ez bezala.



c) Horregatik **barneratzearen abantailak** —internalizazioaren abantailak edo lehia-abantailak— ere agertu behar zaizkigu azalpen-teoria honetan. Izen horren bitartez adierazi nahi da produkzioa enpresaren baitan egiteak dakartzan abantailak, nagusiki, enpresak bere aktibo estrategiko batzuk (hala nola ezagutzak, teknologia, marka eta ospea) beste enpresaren batzuen esku utziko balitu sortuko liratekeen transakzio-kostuak saihestearen ondorio direla.

Kanpo-merkatu bat hornitzeko transnazional batek lizentzien edo frankizien bideari ekiten badio, horrek zenbait kostu ekarriko dizkio ETNari. Esaterako, tokiko enprekin kontratuak gauzatu beharrak gehi adostutakoari jarraipena egiteko kontrol-mekanismoen ezarrerek dakartzaten kostuak. Ezin da ahaztu bi aldeen artean dagoen informazio-asimetria, hots, tokiko enpresek ezagutzen dute bertako merkatua eta ETNak ez eta, hortaz, bertako enpresak kontratua ez betetzeko edo bere egoeraz modu desegokian baliatzeko pizgarriak sortzen dira. Gainera, lizentzia edo frankizien hautuak baditu beste arrisku batzuk ere, esaterako, merkatu horretan saltzeari dagokionez, atzerriko enpresa tokikoarekiko mendekotasun-egoera

nabarmen batean geratzen dela edo, halaber, tokiko enpresa eduki teknologikoaren jabe egin daitekeela, ondoren ETNa merkatutik kanporatzera iristeraino.

Gisa horretako arriskuak altuak direnean, hots, egoera horiek gertatzeko probabilitatea altua bada, enpresek produkzioa barneratuko (internalizatuko) dute, produktuak enpresan bertan ekoitziz. Horrela, atzerriko merkatu batean saldu nahi bada, edo helmuga den herrialde horretan bertan inbertsioak egingo dira edo, bestela, esportazioen bitartez egingo da (nahiz eta esportazioen bidezko hornikuntzak komertzializazioaren esternalizazioa ekartzekotan, horrek ere transakzio-kostu inportanteak izan ditzakeen).

#### 6.3.4. Teoria osagarri batzuk

Gaur egun adituen artean onarpen handiena duen teoria izan arren, teoria eklektikoak arazoak ditu ETNak protagonistatzat dituzten zenbait fenomeno azaltzeko. Besteak beste ondokoa azaltzeko: transnazionalen artean azaltzen den enpresa-kontzentrazioarako joera edota inbertsio gurutzatuko fenomenoak (herrialde bateko ETNek beste herrialde batean inbertitu eta horretakoak ere hartan inbertitu, AEB eta EBren artean gertatzen denaren antzera). Horregatik enpresa transnazionalaren jokabidearen beste ezaugarri horiek ulertzen lagun dezaketen beste ekarpen batzuei tokia egingo diegu azken atal honetan.

Horietariko bat, AIZ kapital-mugimendutzat hartzen duen ikuskeraren hedapentzat har daitekeena, **zorroko inbertsioaren teoriaren adaptazioa inbertsio zuzenaren kasurako**; eta funtsean honakoa diosku: ziklo ekonomikoek beren jardueran zein mozkinetan izan ditzaketen efektuak minimizatzeko enpresek dibertsifikaziora jotzen dute, dibertsifikazioak enpresari laguntzen dio bere arriskua gutxitzen eta dibertsifikazio hori *zertan* inbertitzeko orduan gauzatu behar den bezala horrela ere *non* inbertitzeko erabakian eragiten du; izan ere, proiektuak herrialde batean baino gehiagotan gauzatuz gero, enpresak bere gain hartzen duen arriskua murrizten baitu.

Dena den, praktikan, inbertsioen dibertsifikazio geografikoarekin batera enpresek estrategia konplexuagoak izaten dituzte gorabehera ziklikoekin loturiko arriskuak minimizatzear gain beren mozkinen ibilera positibo bat ziurtatzeko. Testuinguru horretan kokatuko genuke beste ekarpen multzo bat, ETNen jardunbide estrategikoa gero eta globalizatuagoa den ingurune ekonomikoan kokatzen dutenak. Enpresen arteko lehia dela-eta, enpresek zenbait erreakzio izan ditzakete —inbertsio berriak, bat-egiteak edota erosketak— lehiakideek burututako ekintzen erantzun gisa edo horiei aurrea hartzeko.

**AIZren abantaila monopolistikoaren teoriaren** arabera enpresek kanpoan inbertitzeko oinarriko arrazoa izango litzateke merkatu globalizatuetan nagusitasuneko posizio bat eskuratzea edo mantentzea. Enpresak pixkanaka beren ja-

torrizko merkatuen gaineko kontrol-ahalmena galtzen joango dira eta horregatik nazioarteko hedapenaren bidez saiatuko dira posizio horiek mantentzen.

Beren herrialdeaz haragoko hedapen hori gauza daiteke horizontalki —enpresa lehiatzaileak eskuratuz— edota bertikalki —bere hornitzaile edo bezero diren enpresak erosiz—, horrela ETNek produktuaren balio erantsiaren sortze-katea neurri handiagoan kontrolatzen dute eta nazioarteko lehia murrizten.

Nagusitasunezko posizio horri eusteko nahia agertzen zaigu ere **jokabide (edo erreakzio) oligopolikoaren teorian**. Honakoa planteatzen digu: enpresek nazioz gaindiko inbertsioa egingo dute atzerriko beste enpresa batzuek bere merkatuan egindako inbertsioaren erronkari erantzuteko. Proposamen baliagarria da inbertsio gurutzatuak azaltzeko. Demagun ETN batek inbertitzen duela herrialde batean zeinean tokiko enpresa batek nagusitasun-posizio bat duen. Enpresa nazionalak, mehatxatuta sentitzen bada eta ezin badu kanpotarra handik bota, «erasoa» hasi zuen ETNaren herrialdean inbertitzen erantzungo du; modu horretan merkatu bakoitzean oligopolio bat sortuko da edo, bestela, sartu den enpresarekin akordioak egingo dira haren sarrera baino lehenago zegoen egoeraren antzeko bat mantentzeko.

Atal hau bukatzeko aipamen bat egin nahiko genieke **zenbait tradizio kritiki**; izan ere, beren artean ez ezik beren baitan ere ikuspegi arras desberdinak jasotzen dituzten arren, produkzioaren transnacionalizazioaren analisia neurri batean oinarri marxista batetik abiatzen dute. Horien artean koka genitzake esaterako: *Imperialismoaren teoria* kolonietan eginiko inbertsioak metropolietako irabazi-tasaren galera kitatzeko bide gisa aurkezten dituena, *Estatuko kapitalismo monopolista* Estatuak eta bere bitartekoez enpresa handien interesen eta horien estrategia kanporatzailearen alde agertzen duten jokabidea azpimarratuz, *Azpigarapen-teorien ikuspegiak* produkzioa herrialde kapitalista azpigaratuetara eramatea kostu-abantailez aprobetxatzeko, bertako biztanleen errenta eta eskari-mailak sakrifikatuz eta, berebat, *Produkzioaren globalizazioa* eta *Mundu-ekonomiari* buruzko proposamenak. Hauen arabera, nazioartekotze-prozesuaren giltzarria produkzioaren espazio nagusia mundua den bitartean, espazio politiko nagusia, aldiz, nazioa izatearekin lotuta legoke eta testuinguru horretan ETNek munduko ekonomiaren eragile aktibo nagusi gisa duten funtzioa azpimarratu egiten dute.

#### **6.4. ETN-AK NAZIOARTEKO EKONOMIAREN ERAGILE GLOBALAK**

XX. mendean konpainia kolonialak hedatzen hasi ziren inperio handien lan-zatiketaren logikari jarraituz. Konpainia nagusiak batik bat lehen sektorean ziharduten eta mea-gaiak zein elikagaiak ekoizteko kolonietan lantegiak eraikitzen zituzten, gero, ondasun horiek metropolietara esportatzeko. Garrantzitsuak izan arren, nazioarteko ekonomian eragin mugatua zuten banakako ezarpenak ziren. Gaur egun

ezagutzen dugun enpresa transnazionalaren jatorria II. Mundu Gerraren ostean Ameriketako Estatu Batuetako enpresa batzuek hasiera batean beren abantaila teknologikoa aprobetxatuz Europan egindako kokapenetan aurkitzen da. Gerraren ostean oso indartsuak ziren merkataritza-oztopoak eta nazioarteko merkataritza eta esportazioak zailago bihurtzen zituzten. Egoera hori gainditzeko eta eskariaren igoerari erantzuteko asmoz, autogintza edo etxetresnen sektoreetako enpresa handi batzuk beren lantegiak mugaz harago kokatzen hasi ziren merkatu berrietara errazago iristeko. Geroago enpresa japoniarrak eta europarrak ere atzerriko kokapenak egiten hasi ziren. Jokabide horrekin aldaketa kualitatiboa eman zen; izan ere, aurretik enpresek atzerrian esportaziorako saltokiak zituzten arren, ondoren urrats gehigarri bat eman zuten produkziarako unitateak atzerrian ezartzen hasita. Enpresek merkataritza- eta finantza-arloan emandako internazionalizaziorako urratsa produkzioaren arlora ere hedatu zuten. Produkzioaren transnazionalizazioa izan da, beraz, enpresek nazioarteko jardueran jorratu duten azken urratsa.

II. Mundu Gerraren ostean atzerriko kokapen produktibo horien xedea tokian tokiko abantaila zehatzak aprobetxatzea zen. Enpresek atzerrian ezarpen zehatzak eta mugatuak egiten zituzten eta etxe nagusiaren errentagarritasuna osatzeko estrategia soila zegoen. Enpresaren lehia-esparruak nazio-ekonomia izaten jarraitzen zuen eta haren estrategiaren lerro nagusiak esparru horretara begira zehazten ziren. Aztertu dugun bezala, 1980ko hamarkadaren amaieran AIZren hedapen bizkorra zertzen hasi zen eta maila gorenera iritsi da azken bi hamarkadetan. Jauzi kuantitatibo hori enpresa transnazionalen estrategia-aldaketa orokor baten adierazpena da. Izan ere, globalizazioaren testuinguruan, enpresa transnazionalek beren estrategiaren esparru espaziala mundu osora hedatzen dute, estrategia globala da aintzat hartuko dutena gero eta modu zabalagoan. 1980ko hamarkadaz geroztik hainbat bilakabide berrik erraztu egin zuten estrategia-aldaketa hori. Neoliberalismoaren uhin ideologikoak, estatueta esku-harmenerako oinarriak aldaraziz, kapitalen nazioarteko higikortasun librea eta merkatuen integrazio globala indartu ditu. Horrela, nazio-esparrutik munduko esparrura zabaldu da enpresek lehiarako aintzatesten duten espazioa. Beraz, enpresek eta, orobat, ekonomia-eragileek nazio-merkatuetako beren posizio lehiakorra gutxietsi gabe enpresa-estrategiaren esparrua mundu-mailara hedatu dute: produkzioaren desintegrazio bertikala eta enpresaren baitako lanaren nazioarteko zatiketa bultzatu dute tokian tokiko abantaila erlatiboak aprobetxatuz (baliabideak, kostuak, diru-laguntzak, lege-esparrua, etab.) eta enpresa barneko merkatuak sortuz eta zabalduz. Enpresaren barne-eremuan sortzen den merkatuaren logika ez da merkatu ofizialarena, bertan ezartzen diren prezioak —*transferentzia-prezioak*— eta truke-irizpideak enpresaren estrategia globalaren menpekoak baitira (tokiko zergak saihesteko edo errenta korrontea ezkutatze helburuarekin, besteak beste). ETNaren baitako barne-merkatuak gero eta indartsuagoak dira, gaur egun ETNen merkataritzaren herena baino gehiago barne-merkatu horietan gauzatzen da. Barne-merkatu horiei esker enpresa transnazionalek are errazagoa dute gobernuen kontrol fiskal zein finantzarioa saihestea.

Horren guztiaren ondorioz, produkzio-faktoreen gaineko kontrola nazioarteko esparrura zabaldu da, nolahi ere estatuetan ez bezala nazioartean faktore horien gaineko kontrol-mekanismodun instituziorik ezean, faktore horien jabeek —ETNek alegia— dute arlo horretako ahalmen osoa. Nazioarteko merkatuen integrazioa indartzearen ondorio gehigarria da hainbat merkatutan botere oligopolikoa munduko esparrura zabaltzea.

Horrela, bada, nazioartean ere kapitalen zentralizaziorako eta kontzentrazio-rako joera historikoa indartu egin da eta merkatu-egituraren aldetik oligopolizaziorako joera gero eta tinkoagoa izatea da horren isla nagusia. Nazioarteko merkatuetako kapitalen gaur egungo kontzentrazio-maila orain hogeita bost bat urte nazio-merkatuetako mailaren pare dago erosketa eta bat egiteko prozesu orokorren ondoren. Beraz, ez da harritzekoa ikustea merkatu global horietan lehiabideekin batera lankidetzara ere zabaldua dagoela oligopolioen artean. Hori dela-eta, aurkakotasun oligopolistikoaren irudia gero eta zabaldago dago merkatu globaletan, bertan enpresen arteko lehiabide mugatua egon badagoen arren, lankidetzara eta sareen hedapena ere hauen jardueren gida ere badirelako. Nazioarteko merkatuen joera oligopolistikoa ez da berria, petroliogintzan aspaldiko merkatu-egitura izan da hamarkadetan nazioarteko esparruan ere. Haatik, berrikuntza da orokortu egin dela merkatu-egitura hori sektore gehienetara eta, batez ere, eskala handiko zein I+G erabilera handiko sektoreetara, hala nola telekomunikabide, kimika, autogintza, elektronika, aeronautika, eta abarretara.

Horrela, petroliogintzan diharduten enpresa transnazional gutxi batzuek merkatu-ahalmen ikaragarria dute, hala nola AEBetako Exxomobil, Chevron edo Conocophillips; edo Erresuma Batuko British Petroleum eta Erresuma Batuko zein Herbeheretako den Royal Dutch/Shell enpresek. Halaber, autogintzako General Motors edo Ford estatubatuarrek; Toyota eta Mitsubishi japoniarrek edo Daimler Chrysler alemaniarrek dimentsio erraldoia erakusten dute. Hala gertatzen da ere, besteak beste, sektore elektronikoan General Electric enpresa iparramerikarrak duen tamainari erreparatuta; edo telekomunikazioetan Vodafonek (Erresuma Batua), Deutsche Telekomek (Alemania), France Telecom edo Telefonicak (Espainia) dutena kontuan hartuta. Enpresa transnazional hauen dimentsioaren erreferentzia erreala zein den ikusteko ariketa erraz bat egin daiteke enpresa hauen salmentabolumena eta herrialde batzuen BPG alderatuz.

Bi indize horiek ez dira berdinak, BPGk balio erantsia baino ez duelako neurtzen eta salmenta-bolumenak bitarteko inputak eta zergak ere barneratzen dituelako. Nolanahi ere, hurbilketa gordina egiteko interesgarria da bi indizeen konparaketa eta emaitza harrigarriak lortzen dira. Esate baterako, Exxomobil edo Wal-Mart enpresen salmenta-bolumenak Taiwan edo Saudi Arabiako BPGren antzekoak dira (UNCTAD eta Munduko Bankuko Txostenak). Autogintzako General Motors edo Toyota, Kolonbia edo Tailandiako jarduera ekonomikoaren



parean kokatzen dira, eta Royal Dutch/Shell edo British Petroleum Irangoarenean. Orobat, salmenta-bolumen handiena duten 15 ETNek Malaysia edo Errumaniako tamaina berdindu egiten dute gutxienez eta, beraz, hauek baino errenta-maila apalagoa duten herrialde ugarien dimentsioa gainditzen dute. Aparteko egoerak diren arren, enpresa transnazional askok inbertsio-kapitalen fluxu handiak mugitzen dituzte herrialdez herrialde eta herrialde askotako aldagai makroekonomikoetan —hala nola inbertsio eta enplegu-mailan— edota hauetako baldintza produktiboe-tan —teknologiaren garapenean edo kudeaketa eta antolakuntza-ereduetan— eragin nabarmenak sorrarazten dituzte. Sarritan herrialdeetako ekonomia-oinarrien hobekuntzarako eta garapenerako horren garrantzitsuak dira ezen enpresa transnazio-nalek estatuetao ekonomia-politikak aldaraz edo, gutxienez, baldintza ditzake-ten. Atzerriko inbertsioa erakartzeko politikak eta legediak enpresa transnazio-na-len neurrira egokitzen dira sarritan ikuspegi liberala jorratuz, betiere hauek ekar litzaketen onurez baliatzeko aitzakiarekin. Besteak beste, horregatik dira hain ahulak gaur egun atzerriko kapitalaren gaineko kontrol publikoak batez ere 1980ko eta 1990eko hamarkadetatik neoliberalismoak bultzatutako desarauketa- eta pribatizazio-politikak abian jarri ondoren.

Enpresa transnazionalen egitura handitu den neurrian bertako enpresa filialen zereginak eta funtzionalitateak espezializatzeko joera hartzen dute eta beraien arteko loturak gero eta konplexuagoak bihurtzen dira. ETNen antolakuntzaren konplexutasuna eta haien hedapen geografikoa eta tamaina hazi egin denez gero, haien lurraldeko enpresa filialen arteko barne-harremanak oso esanguratsuak dira ekonomia globalean. ETNek beren produkzio-sarea eraikitzeo duten modu zeha-tza zenbait eraginek itxuratzen dute, batik bat: enpresaren historia eta geografia zehatzak —hala nola jatorrizko herrialdearekiko atxikimenduak eta bere ingurune kultural eta administratiboak— eta enpresak diharduen industria-ingurunearen izaerak eta konplexutasunak —baita lehiarako eta teknologia-baldintzek, erregula-ziorako instituzioek...—.

Enpresa transnazionalak ohiko antolaketa hierarkikoaz gain, bestelako antola-kuntza-ereduak ere ari dira eraikitzen globalizazioaren erronkari egokiro erantzuteko eta inbertsio berrien arriskua gutxitzeko. Antolaketa malgua darabilte gero eta gehiago, *integratutako sare-antolaketa* itxura berria hedatuz, ekonomia globalak plazaratzen dituen erronkei errazago erantzuteko eta antolaketa-egitura erraldoiek ingurune aldakorrari egokitzeko zailtasun ugari dituztelako. Bat-egiteek eta eros-kekek enpresa-dimentsioa handitzen dute baina, era berean, gero eta nabarmenagoa da produkzio-zati batzuk enpresatik kanporatzeko edo *esternalizatzeko* dinamika. Horrela enpresaren desintegrazio bertikala indartzen da baina era berean kanpoko enpresekin koordinaziorako urratsak egiten dituzte ETNek eta horiekin lankidetz-a sustatzen da. Sare-antolaketetako lankidetz-a-hitzarmen edo formulen artean hona-ko hauek dira erabilienak: azpikontratazioak, joint ventures, frankiziak, lizentziak, etab. Beraz, lehia oligopolistiko eta globalizazioaren testuinguruan enpresek

erakunde oso egituratu eta hierarkizatutako sistema batean filialak eraiki ordez gero eta gehiago lotura malguak eratzen dituzte bazkide berrieekin: lankidetzeta eta hitzarmen askotarikoak bitarteko.

Nolanahi ere, enpresen arteko sare global hauetan ere hierarkia dago: enpresa liderrak eta jarraitzaileak daude, liderrak jarduera estrategikoenak kontrolatuz. Sare hauetako enpresa jarraitzaileek lortzen dutena hauxe da: ukiezineko kapitala (teknologia, ezaupideak), bikaintasuna/marka, antolaketa-hobekuntza eta presentzia munduan. Enpresa liderrak zera lortzen du: munduko eskariarekin eta finantzekin lotutako arriskuak gutxitzea, kapitalen beharrak murriztea, eskulanaren kudeaketa arintzea edota tokiko ekonomian egokiago integratzea. Horrelako hobariak izan arren, enpresa-sareek berezko mugak dituzte, batez ere ezegonkorrak eta hauskorrak direlako eta etorkizuneko enpresa-proiektu gisa oso ahul jokatzen dutelako gehienetan.

Enpresa filialek eta subsidiarioek enpresaren baitan duten papera eta zeregina ETNetako antolaketa-ereduek eta beren estrategiek baldintzatu egiten dute. Horren arabera enpresa subsidiarioen mota nagusiak ondokoak dira: tokiko eragilea, ekarle espezializatua eta mundu-eragilea. Tokiko eragilea den enpresak geografikoki eta funtzioz eragin mugatua du, bere lehen xedea ETNaren produktuak tokiko merkatuetara egokitzea da. Ekarle espezializatuak ezagutza eta zeregin zehatza du eta oso modu estuan dago integratua ETNaren gainerako enpresa filial edo subsidiarioekin. Beraz, funtzio-esparru mugatua du eta enpresaren beste zatiekiko elkarrekiko mendekotasun handia. Mundu-eragileak negozio edota produktu mota jakin baten gaineko munduko (edo eskualdeko) ardura du. Oro har, enpresa filialen funtzio desberdin hauek eragin zuzenak dituzte ETNek nazio eta tokiko ekonomietan duten jardueraren gainean. Funtzio mota hauen aldaketak eta garapenak ETNaren izaera eta barne-antolakuntzak ematen dituen aukeren araberrakoak dira. Eta ETNaren geografiaren errealitateak eta antolaketa erak zein enpresa filialak hartzen dituen paperak elkarrekin erlazio estuan daude.

### **6.5. ETN-EN KOKAPEN-ESTRATEGIAK**

Enpresek atzerrian kokatzeko erabakia hartzen dutenean enpresa-estrategiaren arabera egiten dute. Estrategia hori konplexua izan arren, hiru eredutan laburtu daiteke. Horietako bakoitzak garai desberdinetan ezagutu du bere garapenik zabalena nahiz eta oraindik sektore batzuentzat erabilgarriak diren lehengo estrategiak ere. Hasteko, tradizionalena estrategia esportatzailea da, gaur egun aeronautikak —garraio-kostuak eta espezializazio-garaia direla tarteko— egiten duen bezala, herrialde batean garatzen da produkzio-prozesu osoa eta ondoren atzerrian saltzen da. Geroago estrategia plurinazionalak garatu izan dira, batez ere fordismoaren garaian. Hemen produkzio horizontala hedatzen da, alegia, etxe filialak atzerrian ezartzen dira atzerriko merkatuak hornitzeko. Horretarako, jatorrizko herrialdeko

produktuak eta prozesuak errepikatzen dira baina maila tekniko eta teknologiko apalagoan. Eredu hau guztiz lotzen da lehen aipatu dugun merkatu inperfektuen teoriarekin. Oraindik orain horrelako estrategiak beha ditzakegu hainbat zerbitzu-enpresaren aldetik eta garraio-kostu handiko sektoreetan. Eta amaitzeko, azken aldian estrategia globalak dira enpresa transnazionalak garatzen dituztenak. Hauen bidez, ETNek beren eragiketa guztiak eskala globalean arrazionalizatzen dituzte. Helburua ez da soilik kanpoko presentzia zabaltzea, baizik eta presentzia hori hobeto administratzea eta kudeatzea. Espazialki zatikatuta dagoen jarduera produktiboa enpresaren baitan hierarkikoki integratzen da, lanaren nazioarteko zatiketari sakontzeko bidea jorratuz.

Enpresak atzerrira jotzeko erabakia hartzearekin batera non kokatu ere erabaki behar du. Horretarako herrialde eta tokirik egokiena aurkitzeko asmoz irizpide batzuk bete behar ditu kokapena zein herrialdetan egin erabakitzeko. Helburuko herrialdeek gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa dute enpresa transnazionalak erakartzeko. Ostera, hauek ez dituzte aintzat hartuko oinarri minimo horiek betetzen ez dituzten herrialdeak. Betekizun edo baldintza horiek bi multzotan bereiz ditzakegu: herrialdeko ekonomia-politikaren esparrua eta bertan herrialdeak eskaintzen dituen erraztasun eta laguntza-zerbitzuak. Ekonomia-politikaren esparruko oinarri onuragarriak dira, batez ere, egonkortasun politikoa, soziala eta makroekonomikoa. Faktore horien garrantzia bistakoa da enpresentzat konfiantzazko esparrua bermatzea giltzarria baita jarduera produktiboa bideratzeko. Horrekin batera, atzerriko inbertsio zuzenarentzat dagoen esparru zehatza ere kontuan hartzen dute enpresek, hots, herrian sartzeko dauden arauak, eragiketak eta jarduera ekonomikoak egiteko dagoen lege-esparrua, AIZren inguruan herriak dituen nazioarteko akordioak, atzerriko filialei ematen zaien tratua... Gainera, garrantzi handikoak dira, orobat, herrialdeko merkatuen egitura zein funtziona-mendua eta bertako pribatizazio-politiken eta merkataritza- zein zerga-politiken izaera eta orientazioa, hauek zenbat eta kutsu liberalagoa izan, orduan eta pizgarri gehiago izango dute enpresek bertaratzeko.

ETNek non kokatu erabakitzeko politikaren eta erregulazioaren esparrua garrantzi handikoa izanagatik ere, oso kontuan hartzen dituzte helburuko herrialdeetan dauden harrerarako erraztasunak eta bertako ingurune produktiboaren onurak, besteak beste, inbertsioari ematen zaizkion laguntzak, pizgarriak eta sustapenerako lerroak. Inbertsioaren osteko zerbitzu-jardueren presentzia eta herrialdeko enpresa- eta instituzio-kulturaren ondorio kaltegarriek (ustelkeria, etab.) sor litzaiketen funtzionamendu-kostuak ere erabakigarriak izan ohi dira atzerriko inbertsioa erakartzeko garaian. Finean, enpresarentzat erabakigarria da helburuko herrialdeak ingurune sozioekonomiko erakargarria izatea, esaterako hornitzaileen sare egokia eskainiz, tokiko clusterrak sortuz, ingurune berritzailea bermatuz, lanaren kualifikazio eta kostuak enpresen beharretara doitzuz, azpiegitura egokiak eraikiz, ingurumen-baldintza onak sustatuz, etab.

*Mundua Wal-Marten arabera*

.....

Denen iritzia da Bill Clintonek 2000. urtean Txinarekin sinatutako merkataritza-itunak ezabatu zituela Wal-Martentzako hazkunde global zoroak zituen azken oztopoak.

Clintonek akordioa merkatu txinatar izugarri zabalean produktu estatubatuarrek saltzeko aukera gisa aurkeztu zuen arren, errealitatea justu kontrakoa izango zen eta Billek bazekien. Huraxe zen Wal-Martentzat Txinan bete-betean sartzeko aukera eta bere produkzioa —baita bere hornitzaileena ere— harantz deslokalizatzea, hainbesteraio ezen 2003an Wal-Martek Txinatik 15.000 milioi dolarreko balioko esportazioak egin baitzituen, Txinatik AEBetarako esportazioen % 10 baino gehiago dena.

Horrela, bada, hedabide txinatarrek Erresuma Batua edo Errusia baino merkataritza-kide garrantzitsuagozat jotzen dute Wal-Mart, Shenzen-eko industria-erregioan milaka langile baititu (ia esklabotza-baldintzetan) telebista-aparatuak (eta askoz gauza gehiago ere) ekoizten, ondoren Ohioko egongeletan bukatu ohi dutenak.

Wal-Martek Txinarekin duen merkataritza-harreman erraldoiak kalte egiten dio hilabetez hilabete AEBek herrialde asiarrarekiko duten merkataritza-posizioari, lehenengoaren merkataritza-defizita emendatuz bigarrenaren onurarako. Horrek tentsio politikoak eragiten ditu, baita Kongresuan Txinaren aurkako neurriak aplikatzeko deiak ere, baldin eta hark ez badu bere dibisa devaluatzen jada ia existitzen ez diren AEBetako esportazioen mesedetan; izan ere, telebistak ekoizten dituen AEBetako azken enpresa kinka larrian dago, pantaila handiko telebisten lineari gogor atxikitzen zaiolarik.

Lentillak, zapatak, su-armak nahiz erlojuak izan, Wal-Martek urterik urtera geroz eta prezio apalagoak eskatzen dizkie bere 21.000 hornitzaileei eta nahi duena lortzen du beti. Enpresa hornitzaileek, prezio horren pean, berregituratu, beren kostuak murriztu eta Txinara deslokalizatu behar izaten dute, kaleraketetan, soldata baxuagoetan, lan gehiago egiten duten langile kopuru txikiagoetan, eta abarretan gauzatzen diren efektu biderkatzaile nabarmenekin. Wal-Martentzako enpresa hornitzaileek ez dute nahi izaten minoristarekin duten tratua hitz egin ere, errepresalia komertzialen beldur.

.....

Laburbilduz, Wal-Mart da benetan denen arteko munstrorik ikaragarriena, liderra da globalizazio kapitalistaren egungo faseko joera multzo handi batean. Arkansaseko enpresak berak bizkortu eta larriagotu egiten du soldatak, lan-baldintzak, bizi-mailak, sindikalizazio-mailak eta eskubide indibidual zein kolektiboak beherantz eraman nahi dituen enpresa-lasterketa.

*OMAL (2007): Las empresas transnacionales en la globalización*, Observatorio de Multinacionales en América Latina-OMAL-, Madril.

Oinarritzko baldintzak eta inguruneak aintzat hartuz enpresa transnazionalak beren atzerriko kokapen-estrategia egingo dute jarraian zehazten diren lau xede produktiboak betetzeko.

i. Lehen, produkzioarako baliabideak bilatzea da —oro har, lehengaiak edo bi-tarteko kontsumorako gaiak—. Enpresa batek ekoizpenerako eta merkaturatzerako behar dituen zenbait aktibo geografikoki modu disparekoan banatuta daude. Natura-baliabideak dira adibide klasiko bat; horien beharra duen industriak, baliabide horiek dauden tokitik gertu kokatu ohi ditu behintzat produkzio-prozesuaren hasierako faseak. Natura-baliabideen arabera bideratutako atzerri-inbertsioak historia luzea du eta ekonomia globalean oraindik ere esanguratsua izaten jarraitzen du, nahiz eta produkzio- zein garraio-mailako garapenen ondorioz ez izan beste garai batzuetan bezain inportantea.

ii. Merkatu berriak lortzea da bigarren asmoa. Helburuko merkatu horretan ekoitziko den ondasun edo zerbitzua jatorrizko herrialdean produzitzen denaren berdina izan daiteke edo, aldiz, aldaketak edo moldaketak izan ditzake tokiko merkatuaren gustuetara edota eskakizunetara hobeto egokitzeko.

AIZren jomuga izatearen ikuspegitik, merkatuen hiru ezaugarri dira bereziki garrantzitsuak: (a) tamaina (per capita errentan neurtu ohi dena), eskariaren potentzialtasunaren adierazgarri litzatekeena; (b) eskariaren egitura, hura ezagutuz errenta-igoera baten aurrean eskariaren gehikuntza zein produktu motatara zuzenduko den aurreikusi baitezakegu neurri batean. Esaterako, errenta apaleko herrialdeetan oinarritako produktuak bideratuko dela eta errenta altuagokoetan maila goragoko ondasun eta zerbitzuetara; (c) irisgarritasuna, alegia, merkatu horretara beste nonbait ekoitzitako produktuak sartzeko erraztasun edo zailtasunak; adibidez, garraio-kostuekin edo kanpoko produktuei ezarritako merkataritza-hesiekin loturikoak.

iii. Enpresaren produkzio-prozesua arrazionalizatzea da hirugarren helburua —besteak beste produkzio-kostuak gutxitzeko— efizientzia ekonomikoa lortze aldera.

iv. Azkenik, enpresaren nazioarteko lehiakortasuna indartzeko tokiko aktiboak, gaitasun espezifikokoak eta ahalmenak eskuratzea da bidea eta horretarako ezagutza eta lan kualifikatua erdiesteko aukera giltzarria da. Ezagutza eta berrikuntza tokiko clusterretan garatzeko dagoen joerak horrelako enpresa-taldeak edota instituzioak —unibertsitatea, industria-elkarteak eta ikerketa-zentroak— dauden inguruneetan kokatzeko pizgarriak handitzen ditu, batik bat berrikuntzak oso bizkorrak diren sektoreetako enpresen kasuan. Teknologia aurreratuko kokagune horietan ezagutza instituzio mota jakin batzuen gain dago oinarritua (hala nola unibertsitatea, ikerkuntza-institutuak, industria-elkarteak...). Hala ere, gero eta onartuago dago cluster horien benetako erakargarritasuna langileek beren baitan duten kualifikazio eta ezagutzan datzala.

Izan ere, lan-faktorea biziki garrantzitsua da lekutzearen ikuspegitik; zentzu horretan lanaren bost ezaugarri dira kontuan hartzekoak: (a) lehenik, aipatu berri duguna, hots, ezagutza eta kualifikazioak, oso lotuta daudenak hezkuntzarekin eta

lurren baten bilakaeraren historiarekin; (b) soldata-kostuak; (c) lanaren produktibitatea, eragin askoren isla dena, besteak beste: hezkuntza, trebakuntza, kualifikazioa, motibazioa, eta berebat erabiltzen diren ekipamendu eta makineria; (d) lan-indarraren gaineko kontrol-ahalmena, langileen inplikazio- eta antolakuntza-mailarekin loturikoa; eta (e) lanaren mugikortasuna, oro har nahiko txikia, bereziki distantzia luzeetan, hala ere: gizonezkoak emakumezkoak baino mugikorrakoak, langile kualifikatuak ez-kualifikatuak baino gehiago, bulegoko langileak eskulangeak baino gehiago.

***Eskema: ETNen kokapen-faktore nagusien ondoko estrategiak.***

<i>Giltzarria</i>	<i>Estrategia orokorrak</i>	<i>Estrategia espazialak</i>
<i>i. Merkaturatzea</i>		
1. Produktuaren prezioa	Monopolioa lortu prezioak gehitzeko Produktuaren hobekuntza eta diferentziazioa	Babes-hesiak bilatzea (legegintza, lehiakideekiko distantzia...) Zerbitzuen horniketa ona duten eremu berritzaileetako kokapena
2. Salmenta-bolumena	Merkatu berriak bilatzea	Dentsitate eta kontsumo-ahalmen handiko eremuetako kokapena (metropoliak, garatutako eskualdeak)
<i>ii. Kostu-murrizketa</i>		
3. Produktibitate-maila	Prozesuetako eta lan kualifikatuaren hobekuntza-teknikoa Produktzio-prozesuetako antolakuntzaren hobekuntza	Berritzeko ahalmena duten eremuetako kokapena
4. Orduko soldata	Eskulan merkeagoa bilatzea Antolatutako gabeko eskulanaren erabilera	Eremu periferikoetako kokapena
5. Lehengaien eta kapital-ondasunen prezioa	Hornitzaile merkeagoen bilaketa Produktzio-metodoen hobekuntza	Lehengaietako ustiakuntzekiko hurbileko kokapena
6. Kokapen-kostuak (zoru/higiezinak)	Zoru/higiezin merkeen bilaketa Dimentsio egokiaren bilaketa (lurzoruak, eraikuntzak...)	Eremu periferikoetako kokapena Laguntza publikoa duten eremuetako kokapena
7. Merkantzia, pertsona, kapital eta informazioaren joan-etorriak	Informazioaren teknologia berrien erabilera Sareko antolaketa	Garraio-sareetako gune edo ardatzetako kokapena Hornitzaile zein bezeroekiko hurbileko kokapena

Helburu hauen garrantzia desberdina izan da garai jakin batzuetan eta horren arabera enpresek egokitu egin dituzte beren estrategiak. Gaur egun ere oso malgua da enpresek helburu hauek betetzeko duten premia, sektore, tamaina edo enpresaren ezaugarrien arabera. Gero eta gehiago lau xede horietako batzuk aldi berean betetzeko ahaleginak egiten dituzte nazioarteko enpresek. Estrategia bateratzaile hau sarritan erabiltzen dute enpresek integrazio kontinentaleko eremuetako kokapenetan —Europar Batasunean eta Ipar Amerikako NAFTA eremuan esaterako—. Izan ere, eremu kontinental horietan oztoporik gabeko merkatu integratuak daude eta bertako kokapen periferiko batek —adibidez Eslovakian edo Mexikon egindakoak— merkatu hedatura heltzea lortzeko xedea produkzioaren arrazionalizazioaren asmoarekin bat egin dezake. Horrela, bada, enpresa transnazionalen baitako lanaren zatiketa indartzeko joeraren lurren mailako adierazpena integrazio kontinentaletako eremuak dira. Eremu horietan eta haien periferietan aurkitzen baitira

enpresa transnazionalen estrategia espazial zabaletako lerro nagusiak erdiesteko aukera errealak.

### **6.6. ETN-EN JARDUEREN ONDORIO EKONOMIKOAK**

Munduko gobernu gehienek eta nazioarteko erakunde multilateralek enpresa transnazionala eta atzerrian egindako inbertsioa ezinbestekotzat jotzen dituzte globalizazioaren onurak eskuratzeko garaian. Hori dela-eta, estatu gehienetako ekonomia-politiken irizpide nagusietariko bat enpresa transnazionalak erakartzea izan da azkenaldian liberalizazio eta desarauketa erabiliz. Horretarako, zeharkako zein zuzeneko bideak jorratu dituzte inbertsiogileen posizioa hobetze aldera eta herrialdeko ekonomia-politikak helburu horretara makurtuz. Garatutako zein garapen-bideko herri askotan jokabide hori muturreraino eraman dute, inbertsioaren kalitateari buruzko ardurak eta ondorio kaltegarriak ahazteraino. Jarrera horren atzean dago enpresa transnazionalak izan dezaketen onura-ekarlearen rola, teorikoki bederen, kapital, ezaupide, teknologia eta enpleguaren arloan. Haatik, egunerokoa enpresa hauek egindako ekarpena oso zalantzazkoa da; izan ere, haien jarduerak herrialde hartzailean eragin ekonomiko eta sozial positiboak sortzen ditu batzuetan, baina baita ondorio kaltegarriak ere.

Enpresa transnazionalak helburuko herrialdean eragin ditzaketen onuren artean ohikoena hauek dira: kapitalaren ekarpena, teknologia eta ezaupideen hedapena eta transferentzia eta merkatu berrietarako sarbidea. Lehenik, aurrezki gutxi edo nahikorik sortzen ez duen herrialdean produkzioaren eta enpleguaren hedapena erraz lezake. Kontuan izan behar dugu enpresa hauek egiten duten atzerriko inbertsio zuzenak bokazio iraunkorra duela definizioz eta horregatik beste dibisarrera batzuk —zorroko maileguak, adibidez— baino egonkorragoak izan ohi dira, batez ere garapen-bideko herrialdeetan. Bestetik, enpresa transnazionalak helburuko herrialdeetako enpresekin eraikitzen dituzten harremanen bidez azken horien ahalmen teknikoa eta ezaupideak handitzeko aukerak erraz ditzakete. Ikerketa eta garapenean egiten duten gastua eta patenteen gainean duten kontrola direla medio, enpresa transnazionalak muga teknologikoan kokatzen dira eta horri esker munduko merkatuetako lehia oso posizio onean daude. Eta ezaupide hauen onura jaso dezakete enpresa filialak kokatzen diren herrietan arlo desberdinetan, teknologian bezala antolakuntza-metodoetan edota kalitate-arauen metodoetan. Azkenik, enpresa transnazionalak eskaini lezakete beren barne-merkatuetarako zein merkatu berrietarako sarbidea beren banaketa-azpiegiturak erabiliz.

Nolanahi ere, onura hipotetiko hauek oso zalantzazkoak dira enpresa transnazionalen jokabideaz ari garenean. Atzerriko inbertsio zuzenek egindako inbertsio-ekarpena puztuta agertzen da sarritan. AIZren harrera-fluxua baliabideen transferentzia netoarekin identifikatzen da baina hori ez da beti horrela izaten. Jatorrizko herrira itzultzen diren irabaziak oso garrantzitsuak izan ohi dira eta kapitalaren

sarrera gordinari kendu behar zaio atzerritik datorren inbertsioaren ekarpen netoa ebaluatzeko. Herrira itzultako irabaziek kopuru handia osatzen dute. Esate baterako, garapen-bideko herrialdeei transferitutako atzerriko inbertsio zuzenaren baliabideen % 30 inguru jatorrizko herrialdera itzultzen da irabaziak eskuratu ostean (Oxfam, 2002). Beraz, AIZ finantza-iturri gisa oso garestia da, honek ez badu epe luzeko hazkunde garaiagoa sortzen behintzat. Irabaziak herrira itzultzea AIZrekin lotutako dibisen kostu bistakoena izan arren, badira antzeko beste batzuk, atzerriko inbertsioarekin lotutako inportazioak adibidez. Bestalde, ezin dugu ahaztu enpresa transnazionalen AIZren zati bat helburu diren herrialdeetako aurrezki nazionalen kontura finantzatu ohi dela. Horrela, bada, herrira itzultako irabaziak eta helburuko herrialdeetako sarrerez osatutako inbertsioaren zatia elkarrekin hartuta AIZk bideratutako dibisen transferentzia netoak ez dira AIZren erdira iristen Hego Amerikan (Oxfam, 2002). Amaitzeko, atzerriko inbertsio zuzenaren benetako ekarpena kalkulatzeko ezinbestekoa da kapitalen irabazien ihesak eta bestelako praktika ezkutuek eragindako zerga-iruzurra eta atzerriko kapital hori erakartzeko egindako finantza-ahalegina —pizgarriak— ere kontuan hartzea.

Gainera, aipatu dugun legez, etxe filialen kokapenak ezaupide eta teknologia berriak zein ahalmenen garapena ekar litzake bertako enpresekin egindako truke-sarearen bidea erabiliz. Kalitate oneko inbertsioaren egoera honetan enplegua sortu eta produktibitatea gehitu ohi da. Baina, azken bi hamarkadetako atzerriko inbertsio zuzenaren hazkunde bizkorrarekin lotutako jarduera ez dator bat errealitate honekin. ETNen presentzia orokorra, indize ekonomiko desberdinez egiazta daitekeena, ez da kalitateko inbertsioaren baliokidea. Horrela izan da, esate baterako, Mexikoko makila-enpresen kasuan. Ipar Amerikako NAFTA integrazio-prozesuak piztu egin du Mexikorako AIZren joera eta hain zabala izan da enpresa transnazionalek herrialde horretan hartu duten presentzia, ezen Mexikoko esportazioen hirutik bi enpresa horietatik bideratzen. Hala ere, bertako enpresen eta enpresa filial esportatzaileen arteko loturak hutsaren hurrengoak dira. Oro har, enpresa filialetan inportatutako osagaiak erabiliz muntaketa-lana gauzatzen da eta esportaziora zuzentzen da, batik bat AEBetako merkatura. Horrela, Mexikoko esportazioen hazkunderen ezaugarri nagusiak balio erantsiaren urritasuna, merkatu bakarrarekiko —AEBetakoa— mendekotasun handia, eskulanaren merketasuna, nazio-lotura eskasa eta atzerriko kapital eta teknologiarekiko mendekotasun gogorra dira. Nolanahi ere, Mexikok izandako bilakaera honek AIZren arloan globalizazioak sortutako ereduari jarraitzen dio. Esportazioetan oinarritutako hazkunde- eta industrializazio-estrategiak gobernu askoren jomugan egon direnez sarritan esportaziorako eremu bereziak sortu dituzte, eremu libreak edo frankoak bezala ezagutzen direnak alegia. Eremu franko horiek eskulan merkean intentsiboak diren produktuetako esportazioen hazkunderako guneak dira. Oro har, bertako inbertsiogileek ez dute eskulanaren kualifikazioa gehitzeko edo tokiko enpresekin loturak bideratzeko asmorik izaten. Eremu hauen bitartez atzerriko inbertsioarek erakarri nahi izaten dituzte gobernuak, azpiegiturak eraikiz eta diru-laguntzak zein zerga-arinketak eskainiz,



*opor fiskalak* barne. Esan gabe doa, egoera honek gobernuen diru-sarrerak urriagotu egiten dituela, baita inbertsio publikora bidera daitezkeen dirutzak ere.

Teknologiaren eta ezaupideen transferentziari dagokionez ere emaitzak ez dira oso arrakastatsuak herrialde hartzailearen interesen ikuspegitik. Enpresa filialek berrikuntzara helburuko herrialdeetako enpresek baino baliabide gehiago bideratzen dituzten arren, ez dute enpresa nagusiak I+G+b arloan egiten duen inbertsio-maila berdintzen. Oro har, etxe filialek jatorrizko etxe nagusitik eskuratzeko teknologia eta horrek mendekotasun indartsua dakarkie. Nolanahi ere, eragin hauen emaitza helburuko herrialdearen garapen-mailaren arabera da. Garapen-bideko herrialde atzeratuenetan prestakuntza gutxiko eskulana dute eta, beraz, teknologia erabiltzeko eta irensteko ahalmenean ahultasuna dute. Beraz, bertan tokiko enpresek enpresa transnazionalen teknologia zabaltzen denean ere ezin izaten dute onura hori aprobetxatu. Horrela, teknologia-disparekotasunak tokiko enpresa merkatutik kanporatzea dakar, merkatu nazionala hornitzeko enpresa transnazionalarekiko mendekotasuna handituz.

#### LABURPENA

Globalizazioaren testuinguruan enpresa transnazionalak duten jokabidea zein zeregina eta haien eragin ekonomikoak aztertzen dira hemen modu orokorrean. ETNa ulertzeko bere ezaupiderako oinarri eta definizioak jorratu dira hasteko, atzerriko inbertsio zuzenaren ulermenean indar berezia ipiniz. AIZ adierazle nagusizat hartuz, ETNen bilakaera eta joera nagusiak aztertu ditugu ondoren. ETNen hedapen garaikide bizkorra azpimarratu dugu ziklo ekonomikoarekin parekatuta doana, hein batean. Hedapenaren dimentsioa hain da erraldoia ezen produkzioaren internazionalizazioaren fenomeno, batetik, enpresa handienetara ez ezik enpresa txiki eta ertainenetara ere iritsi den dagoeneko, eta, bestetik, enpresa hauek eragile ekonomiko global gisa itxuratu dituen. Nolanahi ere, kapitalaren kontzentrazioarako joerak zuzeneko isla du ETNen jokabidean; izan ere, enpresa handi gutxi batzuek gero eta atzerriko kapital kopuru absolutu eta erlatibo gehiago dute beren esku artean. Errealitate hau lotuta dago azkeneko hamarkadetan enpresen arteko bat-egite eta erosketa-prozesuek duten garrantziarekin. Aipatzekoa da ere kontzentrazioarako joera hau ETNen sektore berrietan hedatzeko duen jokabidearekin batera gertatzen ari dela. Industriagintza izan bazen ETNek beren hedapenerako oinarri gisa hartu zuten sektorea, gaur egun enpresa transnazionalen presentzia, gero eta gehiago, zerbitzuen arloan sumatzen da.

ETNen lurralde-jokabidea aztertuta, egiazta daiteke garatutako herrialdeetan kontzentratzeko duten joera, batik bat jatorriari erreparatuta. Dena den, azkenaldian garapen-bideko herrialde emergente batzuk gero eta nabarmenagoak dira atzerriko inbertsio zuzenaren helburu gisa. Jokabide geografiko horretan zenbait kokapen-estrategia nahaspilatzen dira. Garatutako herrietara jotzeko garaian ETNek erosalmen handiko merkatu kontzentratuak, aktibo estrategikoak eta inguru instituzional egokiak bilatzen dituzte batez ere. Garapen-bideko herrialdeetara jotzean aipatutako faktoreak inportanteak izan arren, gakoak dira bertan lan-kostu apalak, lehengaiak edota araudien baldintza faboragarriak eta leunak izatea.

ETNen hedapena azaltzeko ekarpen ugari egin dira jatorri eta korrante desberdinetatik. Neoklasikoen ustetan, merkataritza izan da nazioarteko ekonomia azaltzeko esparru nagusia eta bakarra duela gutxi arte. Merkatu perfektuen egoera ideal bezain irrealetatik abiatuz, inbertsio-fluxuak kapital ugaridun herrialdeetatik, hots garatuetatik, kapital urriko herrialdeetara bideratuko direla aurreikuspen horretatik harago doaz merkatu inperfektuak oinarritzat hartzen dituzten korrante eta egileak. Hemen koka daiteke Vernonen teoriak atzerriko fluxuekiko duen aplikazioa. Produktuaren bizitza-zikloaren fase desberdinetatik abiatuta, fase berritzaileak jatorrizko herrian amaitu ostean ETNen atzerriko joera indartu egiten da atzerrian zikloa berritik hasteko aukera gehigarria eskaintzen duen neurrian. Ekarpene kritikoek duten garrantzia ere aipatzen den arren, teoria eklektikoa edo OLI paradigma da azalpen-esparru zabalena eskaintzen duena. Teoria eklektikoak iturri desberdinetatik edanez jabetzea, kokatze eta barneratzearen abantailak biltzen ditu paradigma bakar batean.

Azkenik, ikusi dugu ETNen jarduerak herrialde emailde zein hartzaileetan eraginak dituela. Oro har, bere presentziak baldintza desberdinen arabera eragin onuragarriak izan ditzake herrialdeko epe luzeko garapen ekonomikoan. Baina, helburuko herrialdeetan hainbat eragin kaltegarri ere izan ditzake ETNak bertan kokatzeak. Haien artean dago herri hauetako pagamendu-balantzan ETNak bertan egoteak duen eragin negatiboa. Esaterako, normalean eragina negatiboa da merkataritza-balantzan esportatu baino gehiago inportatu egin ohi dutelako ETNek helburuko herrietan. Zerbitzuen balantzan ere antzeko eragin negatiboa jasaten dute atzerriko teknologia erosten baitute, nahiz oso kasu zehatzetan herri hauetara teknologia-transferentziak ere bideratzen diren. Eta zalantza dago ere herriek jasotako kapital kopuruaren onuraren inguruan; izan ere, sarritan mozkinen atzerako bidea ematen baita jasotako kapital netoa asko urrituz.

## **BIBLIOGRAFIA**

- Barba, N. & Venables, A. J. (2006): *Multinational Firms in the World Economy*, Princeton University Press, Princeton.
- Castellani, D. & Zanfei, A. (2006): *Multinational Firms, Innovation and Productivity*, Edward Elgar, Cheltenham (UK).
- Dicken, P. (2006): *Global Shift. Mapping the Changing Contours of the World Economy*, SAGE Publications, Londres.
- Forsgren, M. (2008): *Theories of the Multinational Firm: A Multidimensional Creature in the Global Economy*, Edward Elgar, Cheltenham (UK).
- Dunning, J. H. & Lundan, S. M. (2008): *Multinational Enterprises and the Global Economy*, Edward Elgar, Cheltenham (UK).
- UNCTAD (zenbait urte): *World Investment Report*, Nazio Batuen Erakundea, New York.
- Verger, A. (2004): *El sutil poder de las transnacionales*, Observatorio de la Deuda en la Globalización, Icaria, Bartzelona.

**WEB ORRIAK**

OXFAM (2002): <http://www.maketradefair.com>

OMAL: <http://www.omal.org>

Observatorio de Corporaciones Transnacionales: <http://www.ideas.coop>

Transnational Institute: <http://www.tni.org>

Corporate Europe Observatory: <http://www.corporateeurope.org/>

Bank Track: <http://www.banktrack.org>

<http://es.transnationale.org>

<http://multinationalmonitor.org>

<http://www.corporatepolicy.org>

<http://www.corporatewatch.org>.



## 7. Garapen-bideko ekonomiak

*Yolanda Jubeto Ruiz eta Efren Areskurrinaga Mirandona*

Bigarren Mundu Gerraren garaian herrialde asko koloniak izatetik herrialde independente izatera pasatu ziren. Harrezkero haien norabide sozioekonomikoen eta egiturazko gabezien inguruko eztabaida hedatuz joan da. Testuinguru horretan herrialde horien arazoak eta irtenbideak aztertzeke ekonomia-adar propioa sortu zen XX. mendearen erdialdean.

Kapitulu honen helburua garapen-bideko herrialdeek bizi izandako bilakaera ekonomiko eta soziala ulertzeko funtsezko elementu batzuk aztertzea da. Horrek garapenaren kontzeptuaren bilakaerarekin lotura duenez, garapen mota jakin hori lortzeko ekonomia-teoria nagusiek proposaturiko norabideak laburbilduko ditugu eta garapen-bideko herrialdeetan izandako ondorio orokorrak azpimarratu. Ibilbide horretan, ezin dugu ahaztu nazioarteko erakundeek garapen-planak aurrera eramateko sortutako egiturek herrialde askotan izan duten eragin zuzena, bai orokorrean bai beraien txirotze-prozesuan. Funtsean, 80ko hamarkadatik aurrera, kanpoko zorrak eztanda egin zuenetik hain zuzen, Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtsak zorpeturiko herrialdeei gero eta baldintza gehiago ezarri zizkieten. Bukatzeko XXI. mendeko lehenengo hamarkadan sortu diren garapen alternatibo baten aldeko planteamendu berriak adibide argi baten bidez jasoko ditugu; hau da, Bolivian 2006ko Nazio Garapen Egitasmoan. Boliviako gizarteak plan hori garatzeko aukera baldin badauka, garapen kontzeptuari norabide berriztatzaileak zabalduko dizkio.

Garapenaren ekonomian bi herrialde-multzo bereizi izan dira hasieratik: herrialde industrializatuak, askotan garatuak izenarekin ezagututa, eta bestetik, azpigaraturiko, edo garapen-bideko herrialdeak, industrializaturik ez zeudelako, edo gutxienez, herrialde kapitalista helduekiko ezberdintasun nabariak zituztelako. Horrelako izendapenek hierarkia bat ekartzen dute burura, eta garapenaren helburua industrializazio kapitalistan kokaturik dagoela ematen duenez, gero eta autore gehiago ukatzen hasi dira horrelako izendapenak. Nolanahi ere, garapenaren ekonomiaren hastapenetik, eskola estrukturalistak zentro eta periferia multzoak izendatu zituen. Beste autore batzuek Lehenengo eta Hirugarren Munduaz hitz egin dute, azken hauek herrialde independente berriek zuten indarra azaltzeko (hirugarren botere modura). Hortaz, hasiera batean Hirugarren Munduak eduki zehatza zuen eta nortasun desberdin baten adierazlea ere bazen. 1950etik 1970eko hamarkada amaitu arte, antzeko arazo ekonomikoak, Mendebalde-Ekialdearen arteko gatazkatik at geratzeko gogoia eta sistema ekonomiko globala

berreskuratzeko nahia izan ziren Hirugarren Munduko herrialde gehienek bloke bezala jarduteko motibazio politiko nagusiak.

Nolanahi ere, 90eko hamarkadatik aurrera, Sobietar Batasuneko blokea erori ondoren, kontzeptu horren edukia erabat aldatu da. Horregatik, guk hasieran Hirugarren Mundua erabiliko dugu gehienbat eta ondoren Iparraldea eta Hegoaldea, munduan dauden aberastasunaren eta txirotasunaren arteko aldeak eta desorekak adierazteko oinarri geografikoa erabiltzen duena.

Azkenik aipatu nahi genuke, kapitulu hau egitean bereziki Alfonso Dubois ekonomialariari eta lankide maitagarriari eskertu nahi diogula bere ezinbesteko laguntza. Esan beharrik ez dago, hutsuneak autoreenak direla.

### **7.1. GARAPENAREN INGURUKO KEZKA: SORRERA ETA BILAKAERA**

Garapenaren ekonomiaren sorrera 1930eko eta 1940ko hamarkadetan kokatu ohi da, 1929ko krisi larriaren eta II. Mundu Gerraren garaien artean. Izan ere, garai horretan koloniak izandako herrialde asko independentzia politikoa lortzen hasi ziren, eta beren agintariak egoera sozioekonomikoari buruzko ardura hartzen hasi ziren. Horren isla, 1945eko Nazio Batuen Erakundeko Gutunean topatzen dugu. Bertan, munduko herrialde gehienek «bizi-maila garaiagoa, enplegu betea eta aurrerapen ekonomiko eta sozialerako baldintzak» ezartzeko konpromisoa itundu zuten. Hortaz, garapena, mundu-mailako giza ongizatea hobetzeko helburu gisa hitzartu zuten.

Eremu geografikoari begira, garapen eta azpigarapenaren inguruko kezkek Latinoamerikan sortu ziren 1929ko urtean eztanda egin zuen beheraldi ekonomikoaren ondorioz. Latinoamerikako herrialdeek XIX. mendetik aurrera independentzia lortua bazuten ere, beren egitura ekonomikoa ez zen asko aldatu mende oso batean, eta nazioarteko lanaren zatiketa klasikoan oinarritzen zen. Hau da, David Ricardok teorizatu zuen moduan, abantaila konparatibo estatikoei jarraituz Latinoamerikako herrialdeek lehengaiak eta nekazaritzako produktuak esportatzen zituzten manufakturen inportazioen truke. Horrelako nazioarteko merkataritza-harremanak bi aldeentzat onuragarriak izango zirela ematen bazuen ere, XX. mendeko lehenengo krisi ekonomikoak Hego Amerikako herrialdeak jo zituenean, egitura ekonomikoaren ahuleziaz eta dependentziaz ohartzen hasi ziren bertako ekonomialari batzuk. Eskura zituzten azterketa ekonomikorako tresnak, garai horretan nagusi zen paradigma neoklasikoan oinarritutakoak, bertan aplikagarriak ez zirela konturatzen hasi ziren.

Krisiaren ondorioz, Latinoamerikako herrialde askok pagamendu-balantzetan defiziten igoera nabarmenak pairatu zituzten. Alde batetik, esportatzen zituzten lehengaien salneurriek nabarmen beheranzko joera hartu zutelako. Adibidez, Argentinan 1933ko prezioak 1929koekin alderatuz gero askoz baxuagoak ziren oro har: gariaren prezioa % 58 jaitsi zen; artilearena % 78; kotoiarena % 66; kafearena

% 71, eta kautxuarena % 87, besteak beste. Horren bitartean, inportatzen zituzten manuflakturen salneurriak ez ziren jaitsi. Hortaz, zorpetze-prozesua areagotuz joan zen eta neurri batzuk hartu ondoren, 1943rako industrializazioaren aldeko apustu argia egin zuten. Horrekin batera egoera ekonomikoaren azterketa propio baten ondorioz ikuspegi estrukturalistaren oinarria eratu zuten. Eskola horren autore ezagunen artean hurrengoak daude: Raúl Prebisch, Celso Furtado, Juan F. Noyola, Aníbal Pinto, Jorge Ahumada eta Osvaldo Sunkel, besteak beste. Autore horiek munduan zentro eta periferiaren arteko harremanen ondorioz, azpigarapena sortzen zela aldarrikatu zuten, aurrerago ikusiko dugun moduan. Planteamendu hori izan da, autore batzuen iritziz, garapenaren ekonomiaren jatorrizko teoria.

### **7.1.1. Kolonizazio-prozesuen bukaera**

Horrelako Nazioarteko Lanaren Zatiketa klasikoaren ondorioz sorturiko egitura ekonomiko ahul eta zentroarekiko menpekoaren jatorria ulertzeko ezinbestekoa da kolonizazioaren historia kontuan hartzea, Hegoaldeko herrialde gehienegitua ekonomiko eta sozialak iraganeko kolonialismoaren herentzia baitira. Zenbait eskualdetan, iragan hori XIX. mendea baino lehenagoko kolonialismoekin erlazio naturik dagoenez (Latinoamerika, Afrika eta Asiako zenbait eremutan bereziki), kolonialismoa aspaldiko kontua dela ematen du eta dagoeneko gainditurik dagoen zerbait dela. Aitzitik, kolonialismo berriak, Afrika osoa eta Asiako zati handi bat ukitu zituenak, XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen erdira arte indarrean egon dira. Hori dela-eta, Hegoaldeko herrialdeen egoera ulertzeko bertan kolonialismoak izandako eraginari buruzko gogoeta egitea funtsezkoa izango da. Horrekin batera, deskolonizazio-prozesuen ezaugarriak ere kontuan hartzea merezi du, kasu gehienetan, deskolonizazioa, prozesu traumatikoa izan baitzen, bai independentzia lortzeko bidean baita independentzia lortu osteko garaietan ere.

Nahiko urte gutxitan, 1960ko hamarkadaren bukaerarako, Hegoaldeko herrialde gehienak formalki independenteak ziren, zenbait lurraldetan kolonizatzaile eta kolonizatuen arteko gatazka luzeak gertatu ondoren. Dakigunez, Amerika izan zen deskolonizatzen lehen kontinentea, eta gero Asia. Ondoren, Ekialde Hurbila eta Iparraldeko Afrika izan ziren, eta azkenik, Saharaz hegoaldeko Afrika. Adibidez, Argeliak Frantziatik 1962an lortu zuen independentzia; Mendebaldeko Sahara Espainiatik edo Mozambike eta Angola Portugaldik 1975ean. Orduetik, oso hamar-kada gutxi igaro dira eta metropoli ohien jarreraren eragina oso indartsua izan da lurralde horietan.

Subiranotasun politikoak ez zuen, oro har, independentzia ekonomikoa berehala ekarri. Horrek zalantzak sortu zituen ea independentzia *formalitate* hutsa ez ote zen sarritan. Izan ere, esperientzia koloniala zela-eta (Latinoamerikan barne), herrialde horiek nazioarteko ordena ekonomikoarekin zituzten loturak ez ziren erabat aldatu independentzia lortu ondoren, bizirik iraun baitzuten.

Gaur egungo egoera ulertzeko, ostera, azken 50 urteotan garapen-prozesuekin erlazonaturiko aldaketa sakonak gertatu direla ezin da ukatu, herrialde horien nazio-askatasunaren aldeko mugimenduak eta independentziak sorturiko egoeraren ondorioz. Horrez gain, hasieratik esan beharra dago, herrialde eta eskualde bakoitzak bere historia propioa daukanez herrialdeen arteko aniztasuna handia dela. Hala ere, testuinguru orokor bat eskaintzea posible da, aldaketa globalak herrialde eta eskualde zehatzetan izandako eragina kontuan hartzeko.

### **7.1.2. II. Mundu Gerraren osteko testuingurua**

Bigarren Mundu Gerraren osteko berregituraketan Bretton Woods-en sorturiko instituzioek Hirugarren Mundurako garapen-markoa ezarri zuten eta haiengan eragin iraunkorra izan zuten. Bere mugak izanda ere, bi hamarkadaz nazioarteko ekonomiaren funtzionamenduan aurrekaririk gabeko iraunkortasuna eman zuten Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtzak. Horrez gain, Mendebalde eta Ekialdearen arteko guda hotzak eragin handia izan zuen nazioarte mailako erakundeetan eta herrialdeen arteko erlazioen eta gatazken bilakaeran. Halaber, gerra ostean eta 50eko hamarkadaren hasiera arte martxan jarritako Marshall planak Europako berreraikuntzan lortu zuen arrakasta ikusita, arazo sozioekonomiko larriak zituzten herrialdeen irtenbide gisa laguntza ekonomikoaren papera indartu zen. Gertaera hauek guztiek interes politiko zehatz batekin topo egin zuten Hegoaldeko herrialdeei laguntza ekonomikoa ematerakoan.

Garai horretan Mendebaldeko Europan eta Ipar Amerikan garapenez kezkatu-rik zeuden ekonomista gehienak independizatu berri ziren ekonomien arazoei irtenbideak topatzen saiatu ziren, eta «herrialde azpigaratuen» garapen ekonomikoa bultzatzeko, politika berri baten beharra ikusi zuten. Politika horrekin, nazioarteko egonkortasuna lortzeaz gain, autore askok komunismoaren zabalkuntza oztopatzeko asmoa zuten. Ekonomista horien artean, W.W. Rostow (1916-2003) estatubatuarra izango da ezagunena. Rostow-ek egindako adierazpen hauek oso esanguratsuak dira zentzu horretan:

Herri moduan aukera bat egin dugu. Gure nazioarteko arazoaren trataeran, zeharo baztertu dugu Ameriketako Estatu Batuek (AEB) bultzatuta, Sobietar Batasunean eta Txina komunistan eraso militarra abian jartzea. AEBen erabaki horrek ondorio esanguratsu bat dauka, hots, (Ipar) Amerikako herrialdeak bere interesak babesteko beste bide batzuk topatu behar dituela. Bakea ez da AEBek hasitako erabateko gerraren aurrean dagoen alternatiba. Moskun eta Pekinen bestelako gogo eta politikak nagusitu arte, AEBentzat alternatiba ekimen politiko, militar eta ekonomikoaren konbinazio bat da.

### **7.1.3. Hirugarren Munduko kontzeptuaren sorrera eta bilakaera**

Onartuta dago, Hirugarren Munduaren kontzeptua Alfred Sauvy demografo frantziarrak (1898-1990) erabili zuela lehen aldiz 1952an, kolonizazio-prozesuak amaitutakoan independentzia lortu ta gero sortzen ari ziren herrialdeen multzoa



izendatzeko. Izen horrekin, mendetan zehar, ahaztuta, zapaldua eta mespretxatua izan ondoren, azaleratzen ari zen mundu baten indarra eta kemena adierazi nahi zuen, kleroaren eta nobleziaren aurrean Frantziako Iraultzan izan zen Hirugarren Estatu gogoratuz. Mundu hori ohartuta zegoen jada bere lehengaien erreserbek zuten garrantziaz eta munduko geo-politikan zuten zeregin baliotsuaz eta gogor aldarrikatzen zuten nazioarteko harremanetan eta ekonomia-garapenean merezi zuten protagonismoa.

Gaur egun, aldiz, Hirugarren Munduaren kontzeptua ekonomia-gainbehera, gizarte-integrazioaren gabezia eta politika-ahultasuna ezaugarri dituen errealitatea deskribatzeko erabiltzen da.

Eric Hobsbawm (1917-) historialariak honela azaltzen du zergatik erabili izan den Hirugarren Mundua terminoa hain errealitate konplexua eta askotarikoa deskribatzeko:

Ez da harritzekoa Bigarren Mundu Gerraren ondoren sortu ziren kolonizazioaren osteko estatuak —ugariak, bestalde— Latinoamerikaren zatirik handienarekin batera...(..) «hirugarren mundua» izenarekin, diotenez 1952an sortutakota, adieraztea, horiek herrialde kapitalista garatuen «lehen mundutik» eta herrialde komunisten «bigarren mundutik» bereizteko. Nahiz eta Egipto eta Gabon, India eta Papua Ginea Berria mota bereko gizartetzat hartzea absurdua izan, hori nahiko egingarria zen; izan ere, guztiak gizarte pobreak ziren mundu «garatukoekin» alderatuz gero, guztiak ziren menpekoak, guztiak zituzten «garatu» nahi zuten gobernuak eta bakar batek ere ez zuen uste, Depresio Handiaren eta Bigarren Mundu Gerraren ostean, kapitalismoaren mundu-merkatuak (hots, ekonomialarien «abantaila konparatiboaren» doktrinak) edo etxeko enpresa pribatuaren ekimen askeak hori eskainiko zienik (Hobsbawm, 1995).

Hasieran, beraz, kontzeptu berri honek itxaropena sortu zuen. Garai horretan bi bloke aurkari politiko, ekonomiko eta estrategikoen arteko borroka birsortzen ari ziren eta mundu osoa inplikatu nahi zuten gatazka horretan. Denboran zehar bere esanahia aldatuz joan da eta Sobietar Batasuna desegin zenetik gero eta gutxiago erabiltzen da, nahiz eta oraindik hedaturik egon.

#### **7.1.4. Nazio Batuen instituzioen papera: MB, NDF, CEPAL, UNCTAD, NBGP...**

Hasieratik, Hirugarren Munduaren kontzeptuak alde sozial, politiko eta ekonomikoak zituen. Hala ere, nazioartean Hirugarren Munduaren formalizazioa, errealitate operatibo gisa, izena agertu ondoren osatu zen, Bandung-en (Java uharte indonesiarreko hirian) 1955ean ospatu zen Konferentzia Afroasiarrean, hain zuzen. Bertan Afrikako eta Asiako 29 estatuburuk garapen-politikak eztabaidatu zituzten eta erabaki garrantzitsuenak kolonialismo, arrazagatiko diskriminazio, eta beste herrialdeen barne-arazoetan sartzearen kontra azaldu ziren. Mendebalde-Ekialdearen arteko lehiatik at, nazioarteko politikek garapen-bideko herrialdeen beharrei erantzun ziezaieten aldarrikatu zuten.

Herrialde horiek antolatzen hasi zirenetik, Ipar-Hegoaren arazoak Nazio Batuen Erakundearen (NBE) zein bere agentzietan garrantzia hartzen hasi ziren. Horren adibidea, 1960ko NBERen Batzar Orokorrak Autodeterminazio Adierazpenaren onarpena da, herrialde kolonizatu guztientzako nazio-autodeterminazioaren eskubide legitimoa ezartzen zuen adierazpena, hain zuten.

1955eko Konferentziaren ondorioz, Hegoaldearen kontzientzia berpizteko, lehenengo urratsa Lerrokatu Gabeen Mugimenduaren sorrera bultzatzea izan zen, eta 1961ean lortu zuten. Mugimendu hori independentzia lortu berriko herrialdeen adierazpen politiko bihurtu zen, eta estatu berrientzat erakargarria izan zen bi bloke nagusietatik bereizteko tresna bat zelako. Hortaz, indar politiko berria eratu nahi izan zuten eta mendekotasun modu berrien aurkako borrokan nazio-estatu berrien arteko elkartasuna bultzatzea izan zuten helburu.

Lehenengo urteetan Lerrokatu Gabeen Mugimenduak Hirugarren Munduaren interesen aldeko nazioarteko koalizio bezala egin zuen lan, Mendebalde-Ekialdearen arteko gatazka nagusi zen sistema batean. Haien helburua nazioarteko harremanen sistema berregokitzea izan zen, horrela independentzia lortu berria zuten herri txirotuen aldeko garapena bultzatzeko. Nahiz eta helburu nagusia ezin izan zuten lortu, Hirugarren Munduko bloke baten sorrerarako baldintza politikoak jarri zituen sistema globalean.

Lerrokatu gabeen lehen konferentzia Belgraden egin zen, 1961eko irailean, partaideen kopurua poliki-poliki hazi zen, eta Habanan bildu zirenean 1979an, 93 herrialde ziren partaide gehi 40 begirale. Bloke horretan parte hartzen zuten herrialdeei dagokienez, hiru lokarri zituzten ezaugarritzat. Lehena politikoa, lerrokatu gabeen aldeko jarrera; bigarrena, ekonomikoa, nazioarteko ordena ekonomikoak pareko zailtasunak jartzen baitzizkien garapen ekonomikoa lortzeko, traba handi bat zena; eta hirugarrena, historikoa, gehiengoaren iragan kolonialak benetako independentzia abian jartzea galerazten zuen.

Lehenengo urteetan, arazo politikoen inguruko erabakiek izan zuten lehentasuna, eta erraza izan zen kolonialismoaren kontrako adierazpenak edota Afrika australaren askatasun-mugimenduen aldeko jarrera azaltzea eta aho batez onartzea. Baina Txina eta Sobietar Batasunaren arteko gatazka zein Txina eta Indiaren artekoak, partaideen arteko ezadostasunak agerian utzi zituzten; eta hauek Sobietar Batasuna Afganistanen sartu zenean areagotu egin ziren.

Gero eta herrialde gehiago independentzia lortzen ari zirenez, gero eta herrialde gehiago ziren Nazio Batuen Erakundeako partaide, eta horrek lerrokatu gabeko herrialdeei aukera eskaini zien beren bozketa-boterea erabiltzeko presio gisa alde anitzeko erakundeetan, gehiengo osatzen hasi baitziren. Bozketa-boterea erabiliz, garapen-bideko herrialdeek aurrea hartu zuten eta 1964an Nazio Batuen baitan nazioarteko Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia (UNCTAD) antolatu zuten.

Hortik aurrera, UNCTAD Hirugarren Munduko herrialdeen interesen kontra-merkataritzara-arauek eraldatzeko proposamenak helarazten zituen plataforma iraunkorra bihurtu zen. Horrez gain, bilkura horren bukaeran, lerrokatu gabeko herrialdeek G-77 sortu zuten. Gaur egun 130 estatuk baino gehiagok parte hartzen dute plataforma horretan, nahiz eta izena mantendu. Talde horren helburu nagusia Hirugarren Munduko estatu gehienak Nazio Batuen Erakundean zein haren agentzia elkartuetan bozketa-bloke bezala aurkeztea izan da. Lerrokatu gabeko herrialdeak Hirugarren Munduaren nortasun kolektiboa sortzen aritu ziren eta, bereziki G-77-ren bidez, nazioarteko eszenatokian indar politiko garrantzitsua bihurtu ziren.

UNCTADen lehenengo lorpen politikoa 1964an GATTen arauetara egindako berrikusketa izan zen. Hor lehen aldiz garapen-bideko herrialdeen estatus eta behar bereziak nazioarteko merkataritzara-sisteman onartu ziren. Bigarren lorpena UNCTAD bera egituratzea izan zen. Horrekin, lehenengo aldiz baita ere, Iparraldeak eta Hegoaldeak nazioarteko erreforma ekonomikoak negoziatzeko aukera izan zuten. Dena den, indar-korrelazioaren ondorioz, Konferentzia hitza mantendu behar izan zuten Mendebaldeko herrialde industrializatuek erakunde iraunkor baten sorrera arbuia zutelako. Hala ere, bere lanari esker, elkarriketarako hizkuntza berria sortzen hasi zen nazioarteko erakundeetan, ez baitzegoen horrelako negoziazioen aurrekaririk. Hegoaldea aurrea hartzen ari zela ematen zuen, nahiz eta Iparraldeak ezarritako oztopo eta erresistentziak makalak ez izan.

Iparraldearen erresistentzia izanda ere, UNCTADek zenbait proposamen indarrean jartzea lortu zuen, eta horretan oinarritu zen G-77 Iparraldearekin negoziazioak hasteko Merkataritzara Lehentasun Sistema bat ezartzeko. Sistema horrek Hirugarren Munduko esportazioei inportazio-mugak eta arantzelak mugatu behar zizkion. Negoziazioak arrakastatsuak izan ziren eta 1970ean amaitu ziren *Lehentasun Orokortuen Sistema* ezarriz (hala ere, ez zen indarrean sartu 1976ra arte). Erreforma horiek Ipar-Hegoaren arteko harremanen berregituraketa erradikalago eta osatuagoaren hasiera besterik ez ziren izan.

70eko hamarkadaren erdialdean, Hegoaldeko herrialdeetako politikoei nazioarteko ingurunea aldatzeko gero eta aukera gehiago ikusten zituzten aurreko bi hamarkadetan Hegoaldeko herrialde batzuk aurrekaririk gabeko hazkunde ekonomikoaren lekuko izan baitziren. Lurralde Petrolio-esportatzaileen Elkartearen (LPEE=OPEP) bilakaera arrakastatsua beste herrialdeentzat eredu bihurtu zen eta aukera berriak bilatzeko pizgarria izan zen.

Beste aldetik, herrialde industrializatuek ez zekiten oso ondo nola defendatu nazioarteko ekonomia-harremanak. 1971tik aurrera Bretton Woods-en sistema apurtuta zegoen; petrolioaren prezioaren igoerak ahulezia berri bat agerian utzi zuen eta atzerapen orokor eta sakona areagotu zuen. Horrez gain, ingurumenaren eta baliabideen inguruko kezka berriak sortzen eta plazaratzen ari ziren. Garaiak heldua ematen zuen Hegoaldeko herrialdeek independentzia politikoa eta hazkunde

ekonomiko propioa garatzeko, nazioarteko ekonomiaren funtzionamendu-arauak erreformatuz. Herrialde industrializatuak harriturik eta defentsiban zeuden; ematen zuen aldaketak moteldu besterik ezin zutela egin, kontrola galtuta baitzeukaten (Helleiner, 1990).

Testuinguru horretan, 1974an, LPEEren boterea erabiliz, G-77 eta lerrokatu gabeek lortu zuten NBEren seigarren ezohiko batzarrak *Nazioarteko Ordena Ekonomiko Berriaren (NOEB) Adierazpena* onar zezan. Adierazpen horrek ekintzetarako egitasmoarekin zein *Estatuen Eskubide eta Betebehar Ekonomikoen Gutunarekin* batera aldaketa erradikalentzako oinarria ezarri zuen. NOEBk Iparaldearen eta Hegoaldearen arteko harreman ekonomikoak zehazteko erabiltzen ziren printzipio librekanbistak eta merkatuaren nagusitasuna baztertuz eta berdintasunean eta zuzentasunean oinarrituriko nazioarteko erregimen berria indarrean jarri nahi izan zuten. Lehengaien inguruko itunen bidez, lehentasunezko merkataritzari buruzko itunak, multinazionalen gaineko kontrola eta finantza-instituzio nagusien demokratizazioa oinarritzat hartuz, NOEBk Hirugarren Munduko aurrerapenerako egiturazko oztopoak gainditzeko aukera gehiago ematen zituen. NOEBren eskakizunekin batera Informazioaren Nazioarteko Ordena Berria aldarrikatu zuten.

Zenbait lekutan 70eko erdialdean hazkundea gertatu zenez (zorpetze azkar baten ondorioz), baikortasun berri bat zabaldu zen Hirugarren Munduko zenbait herrialdetan, eta nazioarteko ekonomia gobernatzeko ikuspegi berriak ezartzeko aukerak egon bazeudela zirudien.

Nolanahi ere, baikortasuna laster ezerezean gelditu zen, ezarritako helburuek porrot egin baitzuten 80ko hamarkadaren hasieran, Washingtonen kontrako jarra azaldu zuenean eta Moskuk nahiko makal lagundu zuelako. Horrez gain, 70eko krisiari aurre egiteko AEBek ezarritako moneta-politika murriztaileak interes-tasak igoarazi zituen eta, harrezkero, dolarretan zorpeturik zeuden herrialdeek maileguak itzultzeko gero eta zailtasun handiagoak izan zituzten. Epe labur batean kanpozorraren arazoak eztanda egin zuen. Mexikok hasiera eman zion 81ean kanpozorraren ordainketa-etenaldiari eta, jarraian, domino-piezak moduan, garapen-bideko herrialde askok bide bera jarraitzeko beharturik ikusi zuten beren burua. Horren guztiaren ondorioz, beren helburu orokorrek porrot egin zuten eta horrekin batera «Hirugarren Munduko» leloaren bukaeraren hasiera izan zen. Horrez gain, Hirugarren Munduaren barruko kohesio hauskorra zela medio, 80ko hamarkadaren hasieran barne-kontraesanak areagotu egin ziren.

Hirugarren Munduaren zatiketa, Mendebaldeko estatu askotan, AEBetan eta Erresuma Batuan, bereziki, monetarismoaren garaipena, nazioarteko berregituraketa industrial eta nazioarteko ekonomia bideratzeko merkatuaren lehentasunaren defentsa areagotzen hasi zenean gertatu zen. Horrek Hirugarren Munduaren kontrako jarrerak zabaldu zituen eta AEBek alde anitzeko erakundeetatik alde egin

zutenean, argi geratu zen ez zela nahikorik botoen zenbatekoa, baizik eta botere militarra eta ekonomikoa.

Hirugarren Munduaren amaiera talde bezala nazioarteko ordena ekonomiko zaharraren aldaketen testuinguruan soilik da ulergarria, eta hori 90eko hasieran gertatu zen Gerra Hotza bukatu zenean. Garai horretan Gerra Hotzaren bukaeraz gain, Hirugarren Munduaren bukaeraz eta Historiaren bukaeraz ere mintzatzen da. Horrek mundu-mailako politika krisi-garaian zegoela adierazten du, hots, aldaketa sakon baten atarian.

Garai horretan, munduko nazio-ekonomien elkarrekiko mendekotasunaren hazkundera guztiz agerian egonda ere, Iparraldean zabaldua zegoen ikuspegi baten arabera bertako ekonomiaren funtzionamenduak eta emaitzek ez zeukaten Hirugarren Mundukoekin zerikusirik. Ingurumenaren gaian bakarrik alderantzizkoa gertatu zen, kasu horretan Iparraldeak onartzen baitzuen Hegoaldea behar zuela arazoa konpontzeko.

1990etik aurrera, aldiz, Nazio Batuen Garapen Programa (NBGP-PNUD) giza garapenaren teoriaren aldeko apustua egiten hasten da, eta urte horretatik aurrera Giza Garapenari buruzko Txostena argitaratzen du. NBGP giza garapenaren asmatzailea izan ez bada ere, erakunde horrek aurkezten dituen urteroko txostenak ezinbesteko erreferente bihurtu dira garapenaren inguruko eztabaidan.

Bere ekarpen garrantzitsuen Munduko Bankuari eta Nazioarteko Diru Funtzari alternatiba bat aurkeztea izan da, eta horrela Bretton Woods-eko erakundeen garapenari buruzko estrategien definizioak bere monopolioa galdu du. Giza garapenaren paradigma NBGPk bere ideiak onartu zituenean hasi zen finkatzen. Prozesu horretan oso garrantzitsua izan ziren Mahbub ul Haq (1934-1998), garai horretan Nazio Batuen Garapen Programaren burua eta Amartya Sen (1933,-), giza garapenaren oinarritzko proposamena egin duen autorea.

## **7.2. GARAPENARI ETA AZPIGARAPENARI BURUZKO AZALPEN TEORIKOAK**

### **7.2.1. Paradigma estrukturalistatik mendekotasun-eskolara**

**Eskola estrukturalistaren** sortzailea Raul Prebisch (1901-1985) ekonomista argentinarra izan zen. Prebisch-ek hezkuntza neoklasikoa izan zuen. 20ko hamarkadatik aurrera, ekonomia eta estatistika arloko lanpostuetan jardun zuen eta 1935etik aurrera Argentinako Banku Zentralaren zuzendaria izendatu zuten. Bere agindupean, Banku Zentrala industrializazioa defendatzera pasatuko da, ordura arte lanaren nazioarteko zatiketa klasikoa onartzen bazuen ere. Industrializazioa posible izateko, lehen urratsa, inportatzen zituzten ondasunen izaeraren aldaketan

zetzan: kontsumorako ondasunak izan beharrean, kapital-ondasunak bultzatu behar zituztela aldarrikatu zuen.

40ko hamarkada osoan Prebischek Argentinako zein Latinoamerikako industrializazioa defendatu zuen; eta 1948an, publikoki abantaila konparatiboen teoria estatikoa kritikatu zuen. Bere ikerketen ondorioz, lehengaiak esportatzen zituzten herrialdeek, XX. mendean, manufakturen esportatzaile garrantzitsuekin parekide-tzeko ahalmena ez zutela izango aldarrikatu zuen. Egoera horren arrazoiaren artean, herrialde industrializatuek aurrerapen teknologikoen abantailak beren onurako erabiltzen zituztela argudiatu zuen; hau da, produktibitatearen zein soldata errealean maila altuagoa zuten herrialdeek diru-sarreraren metaketa lortzen zutela aztertu zuen. Horrez gain, nazioarteko merkataritzan lidergoa zuen estatuak, hau da, Ameriketako Estatu Batuek, XIX. mendeko liderrak (Britainia Handiak) baino inportazio-koefiziente baxuagoa zuen.

Hausnarketa hauek sakontzeko, 1948an NBEko egituraren barruan sortu zen Latinoamerikarako eta Kariberako Batzorde Ekonomikoa (CEPAL delakoa). Prebisch erakunde horren lehenengo zuzendaria izan zen eta bere inguruan ekonomista talde bat osatu zuen (Celso Furtado brasildarra barne). Batzorde horren hasierako lana Prebischek izandako ideiak praktikan ipintzeko bitarteko bat izan zela esan daiteke. Talde horren ustez, epe luzera, esportatzen ziren lehengaiak bide txarretik abiatuko zirelakoan, aplikatzen zen merkataritza-teoria baztertu eta beste teoria berri bat martxan jarri nahi izan zuten; teoria estrukturalista izenarekin ezagutu zena.

Estrukturalismoak, herrialde azpigaratuek duten izaera ekonomiko ahula eta heterogeneoa eta lurralde garatuekin duten etengabeko borroka azpimarratzen zuen. Nazioarteko Lanaren Zatiketa klasikoaren ondorioz, AEBek eta Europak mundu-mailaren **zentroa** osatzen zuten eta Latinoamerikak zein Hirugarren Munduko gainerako herrialdeek, ordea, **periferia**. Beren azterketa historikoan azpimarratzen zuten heredaturiko ekoizpen-egiturek Latinoamerikako ekonomien dinamika baldintzatzen zutela, eta zentroko herrialdeen portaeretatik urruntzen zituztela.

Hortaz, atzerriko lehiak zein barne-merkatuaren tamaina txikiak eragozten zuten barne-garapena. Ekonomia sendoago bat lortzeko sektore industrialaren bitartez nazio-barnean zegoen egitura birmoldatu nahi izan zuten. Helburu hori gauzatzeko kanpo-lehia kontrolatu eta merkatuaren tamaina txikia handitzeko neurri zehatzak indarrean jarri behar izan zituzten. Lehenengo urratsa, lehengaien eta nekazaritza-produkzioaren esportazio-baldintzak hobetzeko eskaera handitzea izan zen, eta bigarrena, manufakturak esportatzeko aukerak hobetzeko ahaleginetan zentratu ziren. Bilakaera horretan Estatuaren papera funtsezkoa izango zen eskola honen arabera.

1950eko eta 1960ko hamarkadetan ikuspegi honek Latinoamerikatik kanpoko ekonomista asko erakarri zituen, eta paradigma hau egituratzen lagundu zuten Hans Singer, Dudley Seers zein Myrdal-ek, besteak beste.

Eskola estrukturalistaren arabera, garapena ez da soilik kapital-metaketaren ondorioa, baizik eta aurrerapen teknikoarena, eta hori klase-egitura, antolakuntza politiko eta sistema instituzionalaren arabera zehazten da. Celso Furtado-k, CEPALeko ekonomialari estrukturalista esanguratsuak, bere *Desarrollo y subdesarrollo* liburuan aurreko ideiak jorratzen ditu modu zabal batean eta azpigarapena prozesu historiko autonomo bezala definitzen du, eta ez garapena lortzeko fase huts moduan. Garapenaren ikerketa, beraz, hiru teorien gurutzean kokatzen da autore hauen arabera: metaketaren, gizarte-estratifikazioaren, eta boterearenean.

Aldi berean, Hegoaldeko herrialdeen mendekotasunaren arrazoiak azaltzeko ordezeko teoria erradikala agertu zen Latinoamerikan, **mendekotasun-eskola** izen-datua. Bere oinarrian, herrialde horien bilakaera kolonialismoak utzitako herentzia bezala aztertzen zuen, eta eskola honen iritziz azpigarapena ez zen produktibitatea edo ekoizkortasun ezaren edo pobrezia-ondorio bat, baizik eta menpeko garapen baten ondorio historikoa, non distortsioak eta blokeoak nagusi ziren.

Mendekotasunak bi dimentsio desberdin zituen: politikoa eta ekonomikoa. Alde politikoan, munduko periferia-estatusaren ondorio ezkorrak gaingintzeko autonomia eta «zentro»ko herrialdeekiko loturak apurtzea eskatzen zuen. Ikuspegi honek harreman estua izan zuen mugimendu nazionalista eta kolonien kontrako borroken ondorioz sortutako kohesio politikoarekin. Horrekin batera, garapeneredu sozialista hautatu zuten herrialdeek emandako adibideekin lotura handia izan zuen: Kuba, Txina, Vietnam, Mozambike, eta abar. Kapitalismoa sustraiturik zegoen zenbait herrialdetan ere langileen mugimendu iraultzaileak, bai hirietan bai landetan, agertu ziren 1960ko hamarkadan.

Mendekotasun-eskolaren ondorioek nazionalismoaren gorakadarekin ere harremanak izan zituzten. Herrialde garatuak eta garapen-bidean zeudenen arteko harreman ekonomikoak ez ziren soilik desberdinak, baizik eta botere ekonomikoak zuen eraginagatik denboran zehar desberdintasunak zabaltzen edo handitzen zirela argudiatzen zen.

Beraz, azpigarapena kapitalismoaren sorrera eta hedapenaren ondorio gisa ulertu behar zen. Nahiz eta korrante ezberdinak egon mendekotasunaren teoriaren barruan, adierazgarria iruditzen zaigu André Gunder Frank-ek emandako azalpena gai honen inguruan: «Azpigarapena garatzen duena sistema kapitalista da». Autore neomarxista hauen analisiaren arabera, azpigarapenaren eragilea metropoliekiko satellite izatea zenez, zenbat eta harreman gutxiago egon bien artean, orduan eta errazagoa izango litzateke herrialde txiroentzat garapenerako bidea egitea. Harreman-haustura bat behar zen eta hori iraultza sozialistaren bitartez egin behar zela uste zuten neomarxistek.

Denbora aurrera joan ahala, periferia barruan zegoen aniztasuna gero eta nabariagoa zen eta, adibidez, Asiako hego-ekialdeko zenbait herrialde, «Asiako dra-

goiak» ezizenarekin ezagunak direnak, industrializatzen hasi zirenean, zalantzak eta eztabaidak piztu ziren aurreko ikuspegiaren estutasunen inguruan. Bestalde, gero eta arazo gehiago pairatzen zituzten beste herrialde askoren egoerak ez zuten oso baikor izateko aukera handirik ematen.

### 7.2.2. *Modernizazio-teoriak eta kapitalismoaren ibilbidea*

Ameriketako Estatu Batuetan eta Mendebaldeko European autore batzuek<sup>21</sup> azpigarapenaren inguruan interesa erakutsi zuten 40ko hamarkadatik aurrera. Gehienak «modernizazioa» ren aldeko apustua egin zuten, eta azpigarapena herrialdeen barruko baldintza eta egoeragatik sortzen zela argudiatu zuten. Horren ondorioz, beren eztabaidaren abiapuntua, garapena lortu nahi zuten herrialdeen epe luzeko barruko arazo estrategikoen azterketa izan zen. Ezbaika horri Paul Rosenstein-Rodan-ek eman zion hasiera, 1943an egindako ekarpenarekin. Autore hori arazo praktikoetan teorikoetan baino askoz interesatuago zegoen. Europako hego-eta hego-ekialdeko gerra osteko egoera aztertu ondoren, garapenerako estrategia bat proposatu zuen. Bere ardatz nagusiak industrializazioa zuen helburu, eta horretarako eskala-ekonomiak erabili behar zirela defendatu zuen. Horrez gain, merkaturaren hutsuneak gainditzeko estatuaren parte-hartzea aldarrikatu zuen. Bere ustez, gobernuen plangintzak bultzada handia eman behar zion prozesuari, jarduera ekonomiko ezberdinetan inbertsioak sustatuz (pizgarrien bidez). Estrategia horri *big push* izena eman zitzaion. Horren bidez, nazio-errentaren hazkundera bultzatuko zuten eta barne-merkatuaren tamaina handitu.

Laster, garapenari buruzko literaturak oinarrizko ikuspuntu teoriko bat eratu nahi izan zuen, garapen ekonomikorako estrategia zehatz bat zehaztu nahian. Helburu horrekin, oinarri teorikoen bila abiatu zirenean teoria klasiko, neoklasiko eta keynesiarrean zentratu ziren. Abiapuntu ezberdinetatik abiatuta ere, ekonomista hauen ezaugarrietariko bat paradigma neoklasikoaren ukapena izan zen eta, oro har, garapen ekonomikoa suspertzeko sektore publikoaren parte-hartzea beharrezkoa zela defendatu zuten, salbuespenak salbu.

Modernizazio-teoria aldarrikatzen zuten autoreen iritziz, garapen ekonomikoak per capita errenta nazionalaren hazkunderarekin lotura zuzena zuen. Ondoren, denbora pasatu ahala, garapen horren mozkin batzuk populazio guztira zabalduko zirela uste zuten. Aho batez onartzen zuten industrializazioa epe luzean onuragarria izango zela herrialde hauentzat; hazkunde ekonomikoa lortzeko zeuden trabak, ordea, gehienbat barnekoak ziren, ez kanpokoak, traba horiek erakunde lokaletan

---

21. Autore ezagunenak hurrengoak dira: Paul Rosenstein-Rodan (Polonia, 1902-1985), Ragnar Nurkse (Estonia, 1907-1959), Arthur Lewis (Antillak, 1915-1990), W.W. Rostow (AEB, 1916-2003), Hla Myint (Birmanian, 1920-), Gunnar Myrdal (Suedia, 1898-1987), Harvey Leibenstein (Ukrania, EEBB, 1922-1994), Albert O. Hirschman (Alemania, 1915-) eta Peter T. Bauer (Hungaria, 1915-2002), besteak beste.



eta gizarte-jarreretan kokaturik baitzeuden. Eta gehienen iritziz, traba nagusia nazio-errentaren aurrezki-tasa txikia zen, herrialde txirotuen ezaugarri bat zena.

Modernizazioaren ikuspegiaren ardatz nagusiak laburbiltzeko, teoria honen autore ezagunenen artean bi aukeratu ditugu: Walt Whitman Rostow estatubatuarra eta Arthus Lewis Antilletan jaioa baina Ingalaterran hezia.

W.W.Rostow-ek 1960an “*The Stages of Economic growth, a non Communist Manifesto*” argitaratu zuen eta bertan industrializazioaren funtsezko papera azpimarratu zuen. Idazlan hori argitaratu baino lehen, bere ideiak *Process of Economic growth* (1952) liburuan azaldu zituen. Liburu horretan nabarmena zen ekonomista klasikoen eta Schumpeter-en eragina. Rostow-ren ustez, garapena prozesu historiko lineala da, eta hainbat etapatan banatzen da. Herrialde guztiek, garai ezberdinetan bada ere, garapenaren ibilbide antzekoa egin behar dute, eta prozesu honek antza handia du leku guztietan. Horrela, etapa hauen bidez, garapen-bideko herrialdeek herrialde garatuen bideari jarrai diezaioke.

Rostow-ek eragin nabarmena izan zuen garapen-politiketan, bai laguntza-programen formulazioan bai garapenerako estrategien kontzepzioan ere. Haren ustez, garapen-bidean zeuden herrialdeek maila handiko atzeritar laguntza eta atzerriko kapitalen sarrera onartuz gero, epe labur batean, kanpo-laguntza beharrik gabeko etapa batera heltzea lortuko zuten.

Industria bultzatzeaz gain, Rostow-ek garrantzia ematen zion hazkunde ekonomikoaren eta gizarte-garapenaren arteko erlazioari, baita kapital-inbertsioen eta hazkunde ekonomikoaren arteko erlazioari ere.

### *Rostow-en teoria*

#### *Hazkunde-abialdia (take-off)*

Rostow-en ustez, hazkunde jarraitua lortzeko estrategiak nazio-errentan aurrezki eta inbertsio-kuotak modu esanguratsu batean handitzea eskatzen zuen, eta hori lortzeko enpresari ekintzaile klase berri baten beharra azpimarratzen zuen. Prozesu horretan Rostow-ek bost hazkunde-fase edo garai bereizten zituen gizarte tradizional batetik masen kontsumo garaira heldu arte. Etapa bakoitzaren ezaugarri nagusiak hurrengoak dira:

1) Abiapuntua **gizarte tradizionala** da. Bertan jarduera nagusia produktibitate baxuko nekazaritza da, produkzio metodo konstanteak erabiltzen dituzte eta produkzioaren xede nagusia autokontsumoa da. Soberakinak badaude, merkatuan saltzen dira. Mugimendu soziala eskasa da.

Batzuetan, gizartetik kanpo, beste batzuetan gizarte barneko dinamikaren ondorioz, aurrerapen ekonomikoa posible dela zabaltzen hasten da. Zenbait kasutan elite barruan, eta beste batzuetan gutxietsita dagoen talde batean. Sarritan, aurrerapen hori bilatzen

duten arrazoi ekonomikoekin batera badaude arrazoi sozialak (boterea eta ospea lortzea, anbizio politikoa, eta abar).

2) **Hazkunde-abialdirako aurrebaldintzen ezarpena.** Gero eta merkatari ekintzaile gehiago sortzen dira, mozkin bila. Merkatuak zabaltzen dira. Oinarrizko kapitala gehienbat komunikabide eta garraiobideetan inbertitzen da. Jarduera horiek gauzatzeko finantza-instituzioak sortzen dira. Manufaktura-enpresa berriak agertzen dira inportazioak ordeztuko. Fase honetan, inbertsio produktiboaren tasak errenta nazionalaren % 5 baino gehiago ordezkatu dezake.

3) **Hazkunde-abialdia.** Fase honetan inbertsio-tasaren igoerak per capita barneproduktua igoarazten du, produkzio-tekniketan zein finantza-fluxuetan aldaketak sorraraziz. Horrek guztiak, inbertsio-eskala berri bat ekarriko du eta per capita barneproduktuaren igoera orokorra bultzatuko du. Hazkunde-abialdirako baldintza moduan, beharrezkoa da, baina ez nahikoa, inbertsio netoa errenta nazionalaren % 5etik % 10era igotzea.

4) **Heldutasunerako bidea.** Hazkunde-abialdiak eskatzen du gizartea prest egotea enpresa produktiboen aukera berriei erantzuteko. Horrek, aldi berean, aldaketa sozial, politikoa zein instituzionalak eskatzen ditu inbertsio produktiboen hazkundeari eusteko. Rostow-en ustez, abialdi batzuk ezerezean geratzen dira gizarteak hazkunderako aurrebaldintzak bete ez dituelako. Hala ere, haren iritziz, historia modernoa progresio lineal bat da.

5) **Masen kontsumo garaia.** Mundu kapitalistan aurkitzen gara. Aldaketak balio sozial zein instituzio ekonomikoetan gorpuzten hasiko dira. Behin inbertsio egokiak garatuz gero, garapen ekonomikorako bidea zabaldua geratuko da.

Rostow-ek etapen teoria aurkeztu zuen eta haren baliagarritasuna defendatu zuen herrialde guztietarako. Haren ustez, garaturiko zein garapen-bidean zeuden herrialdeetan hazkunde-abialdiaren barneko mekanismoek kapital-eraketan sorrazten zituzten arazoak berdinak ziren, bai arlo politikoan bai sozialean. Horregatik, eragina izan arren, Rostow-en teoriak aurkari asko topatu zituen bidean.

Hirschman-ek, adibidez, etapen teoria «monoekonomien» barnean sartu zuen, teoria neoklasikoa eta teoria marxista bezala. Monoekonomien ezaugarri garrantzitsuena unibertsaltasuna aldarrikatzea da. Hirschman-en iritziz, aldiz, gaur egungo eta antzinako garapen-prozesuen artean badaude ezberdintasun nabarmenak. Horien artean, hurrengoak azpimarratzekoak dira. Lehendabizi, herrialde atzeratuek hazkundera indartu nahi dute gaur egun aberatsak direnek egin zutena baino maila baxuago batetik abiatuta. Horrez gain, herrialde atzeratuetan ez da nekazaritza-sektorearen iraultzarik izan industrializazioaren oinarrian. Nekazaritza-hazkundera ez izateak garapenerako zailtasunak areagotuko ditu. Eta azkenik, herrialde txiroetan, ezberdintasun politiko zein soziokulturalek garapena oztopatzen dute. Herrialde txiro asko garapenaren aurka daude, harreman sozialen estruktura hierarkikoa dela-eta, besteak beste.

Beste autore esanguratsu bat **Arthur Lewis** izan zen. 1954an idatziriko «Economic Development with Unlimited Supplies of Labor» artikulua oso ezaguna egin zen ekonomia-adar honetan. Lewis-ek, Rostow-ek eta beste autore batzuek bezala, garapen ekonomikoaren giltzarria kapital-metaketa azkar batean oinarritzen zela defendatzen zuen. Zentzu horretan, garapen ekonomikoaren arazo nagusia hurrengo zela uste zuen: zer-nolako prozesuari jarraitu behar zion komunitate batek bere nazio-errentaren % 4 edo % 5 aurreztu eta inbertitzetik, borondatezko aurrezkiak % 12 edota % 15era igo zitzaizkien. Prozesu horretan, autore gehienek industriaren garrantzia azpimarratu zuten. Lewis-ek, aldiz, sektoreen arteko harremanak aztertu eta lehenetsi zituen.

Lewis-en azterketa eredu ekonomiko klasikoan kokatzen da. Bertan, bi sektore bereizten ditu: sektore kapitalista, alde batetik, eta sektore tradizionala, bestetik. Sektore kapitalistan soldatapeko langileak aritzen dira eta, produktuen salmentarekin etekinak lortzen dituzte. Sektore tradizionalan, berriz, banakako enpresak daude, egin beharreko lana familia barruan banatzen da, eta lanaren produktibitate marjinala ia hutsa da. Sektore horretan sortzen diren harremanak ez dira kapitalistak, beraz, langileek ekoizten duten produkzio guztia kontsumitzen dute. Hortaz, kide bakoitzaren diru-sarrerak lanaren batez besteko produktuaren parekideak dira.

Sektore kapitalistan ordainduko diren soldatak sektore tradizionalan langileek jasotzen dutenaren arabera zehaztuko dira. Sektore kapitalistaren hazkundea sektore tradizionalan diharduen eskulana xurgatuz lortzen da. Beraz, bi sektoreen soldatak antzekoak izango diren arren, sektore kapitalistan apur bat altuagoak izan beharko dira, sektore tradizionalaren eskulana xurgatu ahal izateko eta migrazio-kostuak estaltzeko.

Lewis-ek bere teoria zenbait hipotesitan oinarritu zuen, eta deskribaturiko garapenaren prozesua horrelakoa zen:

- Sektore kapitalistan ezarritako soldata-mailan sektore tradizionalaren eskulanaren eskaintza guztiz elastikoa (mugagabea) zen, lanaren produktibitate marjinalaren maila baxua (ezkutuko langabezia) zela-eta.
- Sektore kapitalistan soldatak konstante mantentzen ziren, eskulanaren migrazioari esker (lanaren produktibitatea igoz). Horrela, etekinak gero eta handiagoak izango ziren (aurrezkiak eta kapital-metaketa, beraz, igoko lirake), eskulan gehigarriaren beharra izango zuten, eta prozesuak horrela jarraituko zuen.
- Sektore kapitalistaren etekin guztiak berriz ere inbertitu egiten ziren. Ondorioz, kapital gehigarriaren kopurua handituko zen, nazio-errentaren igoera bultzatuz.
- Eskulanaren migrazioa bukatzean, prozesu hori amaitu egingo zen. Orduan, soldatak igotzen hasiko ziren. Hori gertatzean, ikuspegi hau sektore bakarreko ikuspegi neoklasikoaren antzeko bihurtzen da.

Ekonomia dualaren ikuspegiak eztabaida nahiko sortu zuen 1950eko eta 1960ko hamarkadetako teoriarrien artean. Lewis-en ikuspuntua kritikatu egin da hiru akats garrantzitsu izan dituelakoan: bere hipotesiaren arabera, sektore kapitalistak ekoitziriko guztia saldu ahal izango du eta inbertsioaren eskaria etengabekoa izango da. Hortaz, soberakinak inbertitzen dituen kapitalista multzo bat dago, hots, kapitalaren eta enpresen kudeatzaile onak daude hazkunde ekonomikoa bideratzeko. Horrez gain, nekazaritza-sektorean dagoen «ezkutuko langabezia», eta beraz, eskulanaren elastikotasuna dela medio, nekazaritzaren eskulana xurgatu ahal izango da momentu guztietan nekazaritza-produkzioa jaitsi gabe eta aldakuntza teknikorik sartu gabe. Praktikan horrelako portaerak ez direla ohikoak edo errealak azpimarratu da.

Lewis-ek argudiatu zuen berak ez zuela «ezkutuko langabezia» oinarritzat hartzen, baizik eta kanpoan (industrian) emandako soldata-maila jakin batean, eskulanaren soberakinak zeudela. Lewis-en bideari jarraitu zioten beste autore batzuek garrantzia emango diote berrikuntza teknologikoari. Horren bidez, nekazaritzaren produktibitate-maila igo zitekeelako, eta horrela industrializazio-prozesua bultzatu.

Beraz, garapenaren ekonomia sortu zenetik, 70eko hamarkada hasi arte, teoria nagusiek industrializazioaren beharra azpimarratzen zuten. Ezberdintasun nagusiak industriaren adarren arteko pisuari zegozkion edo sektore produktiboen arteko loturari. Hortaz, garapen-bideko herrialdeek industrializazio-prozesuak martxan jarri zituzten. Hasiera batean, Inportazioak Ordezteko Industrializazio (IOI) ereduarekin, bereziki Latinoamerikako estatuetan, eta ondoren Esportazioak Ordezteko Industrializazioarekin (EOI), hau Asiako hego-ekialdeko zenbait herrialdek bultzatuta. Prozesu hauen ezaugarri nagusiak hurrengo atalean jorratuko ditugu.

### ***7.2.3. 1970eko hamarkada: krisia, ideia berriak eta aldaketarako garai aproposa***

Nolanahi ere, modernizazio-teoriak Hirugarren Munduko errealtatearekin tal-ka egin zuen, bereziki, 70eko hamarkadan. Garai horretan gero eta azterketa gehiago agertu ziren, non jasotzen zen hazkunde ekonomikoak ez zuela lurralde askotan ez lanpostu nahikorik sortzen, ez errenta-banaketa zuzenago bat bultzatzen, ezta pobrezia-amaiera ekartzen ere. Hortaz, bai Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE), bai UNICEFek ahotsa altxatu zuten horrelako arazoak kontuan har zitzaten nazioarteko erakundeek. Munduko Bankuak ere zenbait txostenetan jaso zuen hazkunde ekonomikoak ez zituela errentaren arteko disparekotasunak edo pobrezia murrizten. Bazirudien garapen-estrategien norabidean aldaketa sakonak sartu beharko zituztela.

Horrez gain, 1960ko hamarkadan indarrean jarritako garapenaren aldeko proiektuen emaitza eskasetik abiatuta, Ester Boserup-ek garapen-prozesu horiek emakumeengan zituzten ondorioak aztertu zituen 1970ean argitaratu zuen liburuan (*Woman's role in economic development*). Bertan, Boserup-ek sexuen arteko lan-

zatiketa, zer-nolako lanak baloratzen ziren eta zer motatako hezkuntza behar zuten emakumeek garapena suspertzeko aztertu zuen, besteak beste. Haren ondorioen arabera, garapenaren aldeko politikak ez ziren generoarekiko neutroak eta emakumeentzat kaltegarriak izan zitezkeen, hauek egindako zereginak eta lanak baloratzen ez zirelako, eta sarritan garapen-agentzietako ordezkariak emakumeak eta beraien ekarpenak baztertzen zituztelako. Harrezkero «Emakumeak garapenean» ezbaiak gero eta oihartzun handiagoa lortu zuen, nazioen ekonomietan zer-nolako garrantzia zuten emakumeen ekarpenek, bai etxeko lanen arloan, bai soldatapeko lanen esparruan mahaigaineratu baitzuten. Eta hortik aurrera, nazioarte-mailako emakumeen mugimenduak martxan jarriko dira eta beren helburuen artean garapen-ikerketek zein proiektuek emakumeen nahiak, beharrak eta rolak garapen-prozesuetan kontuan har zituzaten defendatuko dute. Halaber, gizon eta emakumeen arteko botere-harremanen ondorioak ere sartzen joango dira azterketetan, bereziki «Genero-garapenean» garatzen doan heinean. Horrek ez du esan nahi nazioarteko erakundeek aldarrikapen hauek erraz barneratuko dituztenik baina diskurtsoa moldatzen hasi dira eta emakumeen arazo espezifikoak zein emakumeen eta gizonen arteko harreman disparekoak gero eta ikusgarriagoak dira.

70eko hamarkadan ere herrialde industrializatuek aurrera eramaten ari ziren hazkunde ekonomikorako estrategiak ingurumenerako oso kaltegarriak zirela adierazten zuen txosten esanguratsu bat argitaratu zen (Meadows-ek koordinaturiko *Hazkundearen mugak* izenburua zuena, 1972an argitaratu zen), Erromako Klubak hala eskatuta. Bertan aurrez ikusten zuten etorkizun ilunari aurre egiteko, indarrean zegoen hazkunde-ereduari alternatiba bat planteatzeko beharra azpimarratzen zuten. Txostenean «zero hazkundearen» aldeko apustua egin zuten. Zalaparta handia sortu zuen txostenak eta hurrengo hamarkadetan zenbait nazioarteko bilkuren arreta piztu zuen. Hala ere, proposamenok ez ziren indarrean jarriko, eta hazkunde ekonomikoak lehentasuna izaten jarraitu zuen. Bereziki 1973tik aurrera, Mendebaldeko herrialdeetan krisiak izan zituen ondorioak zirela kausa, hazkunde ekonomikoaren premia berriro ere azpimarratu zuten.

Halaber, Hirugarren Munduko zenbait herrialdeetako agintariek barruko errentaren banaketa bidezkoago baten aldeko apustua egin ordez, herrialdeen arteko disparekotasunetan ikusten zuten haien arazo zioa, eta aldaketarako oztupoak bi aldeetatik sortu zirela esan dezakegu.

Joera hori 1980ko hamarkadan indartu zen, neoliberalismoa agertzearekin batera munduko botere ekonomikoek ortodoxia ekonomikoari izugarritzko garrantzia eman baitzioten. Bidaurratzagak (1998) laburtzen duen moduan, «pentsaera neoklasikoaren birformulaziotzat jo dezakegun korrante neoliberal honen proposamen nagusiak ondoko hauek lirake: merkatuaren eraginkortasuna goraiapatzea, ekonomiaaren alorreko Estatuaren esku-hartzeak dituen ondorio kaltegarriak agerian uztea, eta nazioarteko harremanen liberalizazioa azpimarratzea, inportazioak ordeztzeko industrializazio-prozesuen aurkako kritika zorrotza plazaratuz».

Pentsaera hori mundu osora zabalduz joan zen 1980ko hamarkadan eta He-goaldeko herrialde askotan eragin zuzena izan zuen, bereziki aurreko hamarkadan zorpetze-prozesuetan sartu zirenen kasuan. Kanpo-zorraren eztanda gertatu zenean bai Munduko Bankuak bai Nazioarteko Diru Funtsak maileguak berriz negoziatzen hasteko, baldintza moduan oreka makroekonomikoa, pribatizazio-planak eta ekonomien liberalizazio-politikak ezarri zizkieten (inposaturiko neurriak Washingtongo Kontsentsuaren barruan kokatuta daude). Herrialde askok neurri horiek indarrean jartzeko ahalegin guztiak egin zituzten. Nolanahi ere, plan hauen porrota 1980ko hamarkadaren bukaeran islatu zen, bai Latinoamerikan bai Afrikako zenbait herrialdetan «hamarkada galduaz» hitz egingo baitute.

Inposaketa horien guztien ondorioz, garapenaren kontrako joerak gero eta zabalagoak izango dira. Garapenkeria bultzatzen zuten proiektuen aurrean eta, bereziki, kapitalismoa mundu osora zabaldu nahi zuten nazioarteko instituzioen portaerari eta lehentasunei erantzuteko, toki ezberdinetan garapen kontzeptua bera ere zalantzan jartzen hasi zen eta Mendebaldeko asmakuntza antzu moduan aztertzen hasi. Iritzi bateratu bat ez izan arren, autore batzuen ustez (A. Escobar, S. Latouche, G. Rist, G. Séraphin, E. Sizoo eta W. Sachs, besteak beste), garapen kontzeptuak eta estrategiak Mendebaldeko modernitatearen eta industrializazioaren apustu kapitalistarekin ezinbesteko lotura dutela salatuko dute. Ildo horretatik, Latoucheren (2007) hitzetan «garapena, kontzeptu zitala da», beraz, ez da baliagarria. Autore horiek ez dute aukerarik ikusten gizartearen bilakaeraren ezaugarriak adierazteko teoria bat antola daitekeenik. Garapen-teoriak ez baitira gai bestelako kultura eta zibilizazioen balioak ulertzeko ezta gizakien ongizatea sustatzeko ere.

#### **7.2.4. Giza garapena**

Ikusi dugunez, azken hamarkadetan, hazkunde ekonomikoan zentratutako garapen-teoriei egindako kritikak gero eta zorrotzagoak izan dira. Zenbait lekutan, hazkunde ekonomikoarekin batera pobrezia eta bazterkeria zabaltzen joan dira, eta pertsona askori duintasunez bizitzeko aukerak murriztu zaizkie. Beraz, merkatuari lehentasuna emanez eta ekimen pribatua lehenetsiz, estatuak gero eta ahulagoak geratu dira eta pertsonen segurtasunik eza areagotu egin da.

1980ko hamarkadaren hasieran bertan, autore batzuk, Streeten moduan, oinarritzko beharrianen asetzaren garrantzia azpimarratzen hasi ziren, baita indarrean zegoen eredia ez zihoala ildo horretatik ohartarazi ere. Orditik, giza beharrianen inguruko eztabaida zabaltzen hasi zen eta bere izaera unibertuala aldarrikatu zuten autoreek gero eta oihartzun handiagoa lortu zuten, Doyal eta Gough, 1991n adibidez. Nolanahi ere, Amartya Sen izan da, giza garapenari buruz egin zuen hausnarketa dela medio, eragin gehien izan duen autorea azken hamarkadetan. Kritikak izan bada ere, bere proposamenak garapena birformulatzeko aukera asko zabaltzen ditu, jarraian laburbilduko dugunez.

*«Giza garapena jendearen garapena da, jendearentzat eta jendearengatik»*

1980ko hamarkadaren amaieran, garapenaren ekonomian aldaketa nabarmena ekarri duen paradigma berri bat agertu zen, autore aipagarriena Amartya Sen izango delarik. Paradigma horren ezaugarri nagusiak hurrengoak dira. Lehendabizi, garapenaren gakoa definitzerakoan aldarrikatzen du ez dela bakarrik per capita errentaren hazkundera sustatu behar, baizik eta pertsonen «gaitasunak» zabaltzeko prozesua, ongizaterako aukerak zabalduz. Beraz, garapena pertsonak «aukera» gehiago izatean datza, gauza gehiago egin ahal izateko, bizitza luzeagoa bizitzeko, gaixotasun gutxiago izateko, ezagupen-maila garaiagoa lortzeko, eta abar. Pertsonen gaitasunak eta aukerak harreman estua daukate bai haien artean bai gizartean dagoen askatasun-mailarekin.

Horren ondorioz, garapen-maila ezagutzeko adierazlerik garrantzitsuena giza garapena izango da, barne-produktu gordina bigarren mailan utziz. Gizakian inbertitzeak garapena ekarriko baitu. Ongizatea lortzeko, gizakiaren gaitasunak zabaldu behar dira. Hortaz, nazio-errentaren hazkunderak lagundu dezake, baina ez da helburua izango, tresna bat baizik. Funtsezkoa, aukeren hazkundera lortzeko egiten diren inbertsio zuzenak zein zeharkakoak izango dira. Hauek giza garapenaren prozesua abian jartzen baitute. Adibidez: hezkuntza- edo osasun-zerbitzuak. Bestalde, kapital fisikoaren metaketaren aurrean, giza kapitalaren metaketari ematen dio lehentasuna, zentzu zabalean. Giza kapitala ez da soilik hezkuntza izango, baizik eta Ikerketa eta Garapena, osasun-zerbitzuak, elikadura-programak zein familia-plangintzetarako egitasmoak, besteak beste.

Ikuspuntu honen ondorio nagusia hau da: gizakian inbertitzea merkatuan inbertitzea baino produktiboagoa da. Horrek garapenarekiko ikuspegia erabat aldatzen du, funtsezkoena pertsonak direlako eta, beraz, politikak zein garapenaren tresna nagusiak gizakiei zuzendu beharko zaizkie, eta ez kontsumo-ondasunen hazkundera lortzera. Hala ere, teoria honek onartzen du kontsumo-ondasunen hazkundera lagungarria izan daitekeela gizakiaren gaitasunak handitzeko; hau da, tresna baliagarria dela, baina ez bakarra, eta ez helburu nagusia, bitartekoa baizik.

Amartya Sen ongizate-ekonomia ortodoxoarekin erabateko desadostasunetik abiatuko da, hau da, merkatua ez dela nahikoa ongizatea lortzeko. Hortaz, ongizatearekiko ikuspegi alternatiboa eskaini nahi izan du, aurreko ikuspegietatik urrunduz. Haren ustez, **ongizatea** bizi-kalitate maila duin batera ailegatzean lortzen da. Eta gizakion bizitza «ekintza eta egoeren multzo»tzat hartzen duenez, bizitzaren kalitatea ekintza eta egoera horiek baloratzean zehatz daiteke (nola bizitzen den baloratzen duena).

Horrez gain, egitura berriak bilatu behar dira birbanaketa ziurtatzeko, eta ezinbestekoa da egitura horiek sortzen diren gizarte-egituran txertaturik egotea. Horrekin batera, ongizatearen kontzeptua hainbat instituzio eta egiturek, merkatu

lehiakorrak barne, sorturiko emaitza sozialak ebaluatzeko erreferentzi gisa kokatzen dute.

Ikuspegi horren funtsezko galdera hau da: zer-nolako irizpideak erabili behar diren jakiteko gizarte-egiturek edo instituzioek pertsoneri bizimodu egokia garatzea ahalbidetzen ote dieten. Hau da, neurtu behar da noraino instituzio berriak aurrekoak baino egokiagoak diren ongizatea bideratzeko.

Ongizatearen ebaluazioa egiteko bi irizpide erabiltzen ditu: funtzionamenduak eta gaitasunak. **Funtzionamenduak** pertsona batek bizitzan zehar lortzen duenaren edo egiten duenaren multzoa da, hau da, «bizitzan egiten edo izaten lortzen dituen gauzak». Ongizatea ebaluatzeko funtzionamenduen ebaluaketa egin behar da. Funtzionamenduak izan daitezke bai aktibitateak (irakurtzea, idaztea...), bai osasun-egoerak (osasuntsua edo ongi elikatuta egotea), bai egoera mentalak (pozik egotea,...) edo funtzionamendu sozialak (gizartean integratuta egotea).

Funtzionamenduak pertsona baten bizitzaren osagaiak dira, eta horrela, bizitza elkarren artean loturik dauden funtzionamenduen multzotzat har daiteke. Ongizatea, beraz, pertsona batek lorturiko funtzionamenduen arabera eraikiko da. Ikuspegi honetatik ondasunen jabetzak ez du berez ongizatea sortzen, ondasun horien erabilerak baizik. Hala ere, baliabideak edukitzea beharrezkoa da funtzionamendu batzuk lortzeko.

Ondasunek zenbait ezaugarri dituzte, erabiltzen edo horien jabe den pertsona kontuan hartu gabe. Propietate horiek funtzionamendu bihurtzea pertsonak duen **gaitasun** edo abileziaren menpe egongo da. Prozesu horretan pertsonen gain ingurune sozial, politiko eta ekonomikoaren baldintzek ere eragina izango dute.

Pertsona batek funtzionamendu multzo bat lortzen duenean, logikoa da pentsatzea posibilitate anitz eduki dituela eta haien artean ongizaterako gehien baloratzen dituenak aukeratu dituela. Hortik sortuko da **funtzionamenduen gaitasunaren** kontzeptua. Pertsona batek bere aurrean funtzionamendu multzo posibleak ditu eta denak ezin dituenek hartu, funtzionamendu multzo bat aukeratu beharko du, bere ongizatean eragin positiboena emango diona, hain zuzen ere.

Funtzionamenduen eta gaitasunen artean lotura estua dago. Funtzionamenduak lortzeko gaitasunak pertsonaren askatasuna adierazten du. Gaitasun horrek pertsona batek ongizatea lortzeko dituen benetako aukerak zehazten baititu. Askatasun hori (izateko eta egiteko askatasuna, hain zuzen), **ongizatearen askatasuna** da Sen-en iritziz. Horrela, gizarte bat ona izango da askatasunean oinarritzen bada.

Bizitza aberatsagoa izango da gero eta hautatzeko aukera gehiago edukiz gero. Horrela, ongizatearen askatasuna, pertsona batek dituen funtzionatzeko gaitasunen arabera neurtuko da, eta ongizatearen erreferentzia nagusia izango da.



Funtzionamenduak eta gaitasunak funtsezko elementuak dira ongizatearen ebaluazioa egiterakoan. Funtzionamendu eta ahalmen guztiek ez dute garrantzi bera ongizatea lortzeko. Horregatik ebaluatu behar dira bai funtzionamenduak baita gaitasunak ere. Sen-ek onartzen du balorazio zehatz batera ailegatzeko zailtasun handiak daudela, baina jakinarazten du kalkulu horren emaitza ez dela guztia edo ezer ere ez. Ebaluatzerakoan zentratze-puntuaren kokapena izango da gakoa, hau da, funtzionamenduetan edo gaitasunetan zentratu behar den erabaki behar da. Sen-ek ongizatearen faktorerik garrantzitsuena gaitasuna dela aipatzen du, aukeratzeko askatasuna ongizatearen eta bizitzaren kalitatearen elementu garrantzitsu bat delako; ez bakarrik askatasun gehiago izateagatik, funtzionamendueskaintza gehiago izatea inplikatzeko delako. Sen-ek onartzen du pertsonen gaitasun multzoa zein den jakitea oso zaila dela eta praktikan ezinezkoa dela ongizatea ebaluatzea gaitasunak erreferentziatzat hartuta. Beraz, funtzionamenduak bihurtzen dira aukera bakarra ongizatea neurtzeko.

Giza garapenaren kontzeptua sartu baino lehen, garapenari buruz hitz egitean hau galdetzen zen: Zenbat ekoizten du nazio batek? Orain, aldiz, hau galdetu behar da: zelan dago jendea? Eta horrek esan nahi du kontuan hartu behar dela jendearen osasun-egoera, prestakuntza-maila edo bizi-maila, nazio batek produzitzen duena baino garrantzitsuagoak direlako.

Nazio Batuen Garapen Programak, lehen aipatu dugun moduan, 1990etik aurrera urtero giza garapenari buruzko txostena argitaratzen du. Bertan adierazten du giza garapena jendearen aukeren, giza gaitasunen eta funtzionamenduen hazkundera dela. Horrez gain, garapen-maila guztietan bizitza-maila ona lortu ahal izateko 3 funtsezko gaitasun daude: bizitza luze eta osasuntsua, hezkuntza, eta baliabideak. Eta horiek dira munduko herrialdeen egoera alderatzeko eratu den adierazlearen osagaiak, hau da, *Giza Garapenaren Indizearenak*. Hala ere, giza garapena, hori baino askoz gehiago dela onartzen da: jendeak erabaki politikoetan parte hartzea, seguru bizitzea eta giza eskubideen bermea izatea eskatzen du eta, hori guztia, beharrezkoa izango da edozein pertsona produktiboa, sortzailea izan eta komunitate batean barneratuta egon dadin. Sen-en ildo beretik abiatuta, hau da giza gaitasunen azterketatik, Martha Nussbaum-ek (AEB, 1947,-) ikuspegi hau sakontzeko ezinbesteko ekarpena egin du, giza gaitasun zentralen zerrenda bat osatuz, emakumeen egoerak oinarritzat hartuta.

### 7.2.5. *Giza garapen iraunkorra*

Garapen iraunkorrak Garapen eta Ingurumenerako Munduko Batzordeak 1987an eskaturiko *Our common future* txostenean du jatorria. Batzordeak Brundtland politikari sozialdemokrata norvegiarrari eskatu zion ikerketa-talde baten koordinazioa eta horregatik Brundtland txostena ezizenarekin egin zen ezaguna. Bertan garapen iraunkorra honela definitu zuten: «Oraingo beharrianak betetzea, etorkizuneko belaunaldiak izango dituzten beharrianak arriskuan jarri

gabe». Beraz, iraunkortasuna ez da berez helburu bat, baizik eta espazioan eta denboran mantendu beharreko oreka bat: ingurumen, ekonomia, giza instituzio eta balioen arteko elkarreragin konplexuak eragiten dituena.

Kontzeptu hau 1992ko Lurraren Gailurrean mundu osoan eman zen aditzera, eta asko erabiltzen da gaur egun. Hala ere, ez du batere lehentasunik finkatzen ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-arloen artean, eta, hori dela-eta, helduleku erraza da politikan eta merkataritza-esparruan nagusi diren joerentzat: lehen «garapen iraunkorra» genuen, eta orain, aldiz, «hazkunde iraunkorra» dugu; horrela, hamaika zentzugabekeria semantiko eta teoriko sortu dira. Garapen iraunkorraren definizioak ugalduz joan dira, berrehun baino gehiago baitira; eta, ezinbestez, definizio horiek balio eta oinarri desberdinak azpimarratzen dituzte (Bermejo, 2001: 93). Orduetik hona, kontzeptua guztiz anbigua da eta eraginkortasuna falta zaio<sup>22</sup>.

### 7.3. GARAPENA LORTZEKO ESTRATEGIAK

#### 7.3.1. Nekazaritza*ik* industrializaziorantz

Garapen-teoria nagusien arabera, gizarte tradizionalak nekazaritzan zentratzen dira. Industrializazioan oinarrituriko modernizazio-ereduaren arabera, aldiz, industriak gaitasuna erakutsi behar du nekazaritzako lan-indarraren soberakinak xurgatzeko. Errealitatean, aldiz, landetatik hirietara gertaturiko migrazio handiek ez dute hirietan lanpostu nahikorik aurkitu. Dena den, Hegoaldeko estatu askok industrializazioaren aldeko apustua indarrean jarri nahi izan dute, aurretik industrializaturiko Iparraldeko herrialdeen urratsei jarraitzeko. Praktikan jarritako industrializazio-eredu nagusiak bi izan dira, haien arteko loturak nabarmenak izanda. Laburbilduz, bi eredu haien ezaugarri nagusiak, hurrengoak dira:

#### *Industrializazio-ereduak: IOI eta EOI*<sup>23</sup>

1950eko eta 1960ko hamarkadetan, garapen-bideko herrialde askok industrializazio-prozesu azkarra jarri zuten abian. CEPALen analisi teoriko aitzindariak oinarrituz, Erdialdeko Amerika eta Hego Amerikako herrialde askok **inportazioak ordezteko industrializazio-eredua** (IOI) baliatu zuten. Industrializazioak erritmo edo abiadura desberdina hartu zuen eskualdeen arabera. Erdialdeko eta Hego Amerikako herrialde handienak (Argentina, Brasil, Mexiko, Txile, Uruguai...) 1930eko hamarkadatik 50era hasi ziren industrializatzen. 1960rako oinarri industrial nabarmena zeukaten eta Hego Amerikako industria barne-merkatuei begira eraiki zen. Estrategia horren ardatza barne-merkatua hornitzeko enpresa nazionalak garatzean zetzan, lehenago inportatu egiten ziren ondasunak ordezteko. Hori lortzeko, inpor-

22. Florent Marcellesi eta Igone Palacios (2008): "Iraunkortasunari buruzko gogoetak garapenerako lankidetzan sartzea", *Cuadernos Bakeaz*, 88. zk.

23. Atal hau Zurbanoren, 1998ko *Munduko Ekonomia* liburuan oinarrituta dago.

tazioei oztopoak ipintzea beharrezkoa zen. Asmo horrekin, IOI estrategiak babesneurriak finkatu zituen. Laburbilduz, inportazioak ordeztuko industrializazio-estrategiak hurrengo helburuak zituen: barrura begira, ekonomiaren dibertsifikazioa zabaltzea eta barruko industriarekin merkatua asetzea, eta nazioarteko harreman ekonomikoei begira, kanpo-mendekotasuna ahultzea, eta merkataritza-balantza orekatzea.

Hala ere, IOI estrategia indarrean jarri zuten herrialde guztietan ez zen industrializazio-maila bera lortu. Estatuaren nazio-merkatuen ahalmenaren maila oso ezberdina zen, esportazioen izaera eta zenbatekoaren arabera, azpiegitura fisikoen mailaren arabera, langileen prestakuntzaren arabera edo atzerriko inbertsioaren paperaren arabera.

IOI estrategiaren ibilbidean bi urrats bereiz daitezke: 1950eko hamarkadako erdira artekoa, «sasoi erraza» deritzona, eta ondorengoa, «sasoi desnazionalizazio» izenaz ezagutzen dena.

**IOIren «sasoi erraza»:** IOIren hastapeneko garaian manufakturen ardatza kontsumo iragankorreko ondasunen produkzioa izan zen, hau da, elikagaiak, ehunak, edariak eta tabakoa, besteak beste. Eta produkzio-unitate adierazgarria eskulanean eduki handiko enpresa txikia izan zen. Prozesu horretan muga asko topatu zituzten. Esportaziorako lehen sektoreko jarduerak aurretik izandako lehentasuna mantendu zuten eta eremu batzuetan Iparraldeko ekonomia-eragileen sarrera nabarmena izan zen. Horren ondorioz, inportazioek jasandako igoera eta esportazio-sektorearen egitura tradizionalaren iraunkortasuna barneko muga behinenak ziren. Horrez gain, nazio-merkatuen egitura eta dimentsio urria mantendu egin zen, inportatutako teknologiaren izaera edo sarreren banaketa disparekoa.

Ondoren, eredu lehen-esportatzailearen krisialdia gertatu zen eta horrek estatua ekonomian modu sistematikoan parte hartzera bultzatu zuen. Estatuaren esku-hartzea gehitu egin zen, gastu publikoaren gehikuntzarako beharrak (azpiegiturak, zerbitzu sozialak, etab..) eta inportazioak gidatzeko (ekipamendu-ondasunenak bultzatuz) egindako ahaleginak zirela medio.

**Desnazionalizazioaren bigarren IOIren sasoi:** Aipaturiko faktoreen eraginez, IOIk sasoi berri bat ezagutu zuen Hego Amerikan, transnazionalizazio eta oligopolizazioaren dinamikak nagusitu zirenean. 1950eko hamarkadaren erdialdetik aurrera Enpresa Transnazionalak (ETN) nolabaiteko industria-oinarria eta barne-merkatua zuten Hego Amerikako zenbait industria-sektoretan finkatu ziren. Horrela, lehengo IOI eredia arau oligopolikoagoa eta menpekoagoa bihurtu zen.

Sasoi honetako IOIren ezaugarri nagusiak aztertzerakoan, garatu zen industria-sektorearen egitura bitxia da azpimarratu beharreko lehena. ETNen produkzioa luxuzko kontsumora eta kontsumo iragankorreko ondasunak ekoiztera bideratu zen batez ere. Luxuzko kontsumora zuzentzen zelarik, ez zen inportazioen ordezenik

gertatu, lehen inportatzen ziren ondasunak ez baitziren barnean produzitzen, eliteen kontsumora zuzendutakoak baizik. Bestalde, kapital- edo ekipamendu-ondasunak herrialde soil batzuetan eta neurri apalean produzitzen ziren, eta horrek teknologia eta inportazioekiko dependentzia areagotzea ekarri zuen.

Aurrekoari, diru-sarreraren banaketaren eta industrializazio-arauaren arteko harremanen emaitza gehitu behar zaio. Herrialde hauetan errenta-banaketa oso disparekoa zen. Herritar gehienek oso erosahalmen urria zuten eta gutxi batzuek, aldiz, diru-sarrera garaiak. Errenta-banaketaren egitura honek industrializazio-arauan eragin zuen bete-betean merkatuaren kontsumo-egituraren bitartez. Horrela, sarrera garaiko gutxiengoari zuzendutako industrializazio oligopolikoa izan zen sasoiko araua. Industrializazio-arau horrek ezarritako merkatu-egiturak honako ezaugarriak izan zituen: eskari murriztua, eskari oso dibertsifikatua (produkzio-kopuru apaleko kontsumo-ondasunen ugaritasuna) eta luxuzko ondasunen kontsumo garrantzitsua.

Horrez gain, atzerriko inbertsio zuzenaren kokapen-erabakiek ez zeukaten loturarik herrialde hauen garapen endogenoaren lehentasunekin eta etekinak aberriratzeko joerak kapital-metaketa eta inbertsioak areagotzeko zegoen beharra makaldu zuen erabat. Horrez gain, teknologia baxuko inbertsioak eta bertako ekonomiarekiko lotura eskasak ahuldu zuten prozesu osoa. Halaber, nekazaritza baztertzeak, jakien laguntzaren eraginez eta hiritartzeari emandako lehentasuna zela-eta, arazoak areagotu zituen.

Gainera, ETNen kokapenekin batera, kapitalaren kontzentrazioaren eta desnazionalizazioaren fenomenoak finkatu ziren. Izan ere, ETNek bertako enpresa nazional dinamikoenak irentsi edo jarduera arruntagoetara baztertu zituzten, sare produktiboaren desnazionalizazio-prozesua eta barne-polarizazioa bizkortuz. Horrekin batera, ETNetan kapitalaren erabilera trinkoagoa zegoenez, langabeziaren igoera azkartu egin zen.

IOI eredia bultzatuz eta lagunduz, estatuaren esku-hartzea aipagarria izan zen, xede hori lortzeko hainbat tresna erabili zituelarik, hala nola merkataritza-politikak, kreditu- eta finantza-politikak, politika fiskala, etab.

Eredu honen ibilbidea jorratu ahala, gero eta nabarmenagoa egin zen bere bideragarritasunik eza, batik bat, herrialde hauek metatzen ari ziren kanpo-defizita zela-eta. Finean, ETNek beren ekoizpen-prozesuetarako kapital-ondasunak atzerriko etxe nagusitik inportatzean, merkataritza- eta pagamendu-balantzak desorekatzen zituzten herrialde hartzaileetan. Kanpo-desoreka hauek inflazio gogorra agerrarazi zuten eta finantza-baliabide gehigarrien beharra, zeina kanpo-zorren arazoaren iturburua izan zen.

Horren guztiaren eta nazioarteko ekonomia-krisiaren eraginpean, 1970eko hamarkadan IOI eredia krisi sakonean amildu zen. Krisiaren atzean Inportazioen Ordezpenaren ondorioz Hego eta Erdialdeko Amerikan gertaturiko barne- eta kanpo-

desartikulazioak daude. Barnealdeko desartikulazioa ekonomikoa eta soziala izan zen, eta kanpokoa, herrialde hauek nazioartean ezagutu zuten kokapenarekiko dependentea.

**Esportazioak ordeztuko industrializazioa (EOI):** Asiako hego-ekialdean, aldiz, industrializazioa bultzatzeko beste eredu bati jarraitu zioten eta oinarri esportatzailearen industrializazioa bultzatu zuten; hau da, esportazioak ordeztuko industrializazio-eredua izenez ezaguna dena. Haren xedea lehen sektoreko ondasunen esportazioak industria-produktuen esportazioekin ordezteka izan da. Estrategia hau arrakastaz gauzatu duten herrialdeek **Industrializazio Berriko Herrialde** izena hartu dute (IBH): Taiwan, Hego Korea, Hong Kong, Singapur, eta ondoren, Malaysia, Tailandia, Indonesia eta Txinaraino zabaldu zen. Herrialde hauek beren industriak eraiki zituzten masa-produkzioan ekoizitako kontsumo-ondasunen esportazioetan oinarriturik. IBHetako esperientzia industrializatzailearen arrakasta, kanpo- eta barne-arrazoi ugarien bat-egitearekin ahalbidetu zen.

Prozesu honen hastapenean, bi faktore erabakigarri dira azpimarratzekoak: eskulan ugaria, oso merkea eta batzuetan kualifikatua, alde batetik, eta horrekin batera, Estatuaren esku-hartze indartsua prozesuan zehar, planifikatzaile estratetikiko aktibo bihurtu zena. Hortaz, Estatuak nekazaritza-sektorea eta barne-merkatuak babestu eta sustatu zituen, pizgarriekin, eta langileen formazioa bultzatu zuen, besteak beste. Zenbait kasutan Japoniarekiko merkataritza-harremanek lehentasuna izan zuten eta Japoniako multinazionalak hor kokatu ziren. Atzerriko inbertsio zuzen horrek ere bere ekarpena izan zuen, IBHen industrializazio-prozesuak behar zituen kapital gehigarriak eskuratzen lagundu baitzuen. Ondoren beste herrialdeetako atzerriko inbertsioa ere heldu zen. Estrategia honen arrakastak bere hazkunde ekonomikoaz gain, egituraketa sozialean ere islatu da (hezkuntz-maila altua, osasun-zerbitzuen hobekuntza,...). Hego eta Erdialdeko Amerikako zenbait herrialde, IOI estrategiaren porrota bizi ondoren, oinarri esportatzailearen eredu hau indarrean jartzen saiatu dira. Hala ere, emaitzak ezberdinak izan dira, barruko eta kanpoko faktoreak erabat ezberdinak izan baitira, gaur egun arte.

### ***7.3.2. Pobrezia gainditzeko estrategiak***

Pobrezia murrizteko politiken eraginkortasuna erabiltzen den pobreziaren kontzeptuaren araberakoa izaten da. Garapen-bideko ekonomien (GBE) pobreziaren kasuan, hura murrizteko estrategia eta politiken ildoak ekonomia hauen kanpotik inposatu izan dira. Esan daiteke ez dela existitzen bestelako pobreziarik nazioarteko erakundeek hala definitutakotik at. Baina pobrezia murrizteko ardura nagusia nazio-estatu mailako estrategietan kokatzen da. MBren kasuan bertan ere, izenagatik nazioarteko dimentsioa izan zezakeena, GBE-en pobrezia murrizteko ez dago inolako nazioarteko estrategiarik, maila nazionaleko neurrietara mugatzen du bere lana. Garapena maila nazionaleko gaitzat hartu izan da eta horrek baldintzatzen ditu estrategia eta helburu guztiak.

### 7.3.2.1. Munduko Bankuaren estrategiaren bilakaera

MBk gaur egun agertzen duen nahia pobrezia-aren aurkako nazioarteko erakunde nagusia izateko, GBE-en pobrezia-aren inguruko arazoekiko hurbilketa-prozesu mailakatu baina ez-lineal baten ondorioa da eta bertan garai ezberdinak bereiz ditzakegu.

Hasierako garaian, bankuaren sorreratik 1970eko hamarkadara arte luzatzen dena, ez du agertu ia inolako interesik GBE-en pobrezia-aren gaiaren inguruan eta egin duenean beti zeharkako modu batean izan da. Izan ere, garai horretan MBren eginkizun nagusia hazkunde ekonomikoa lortzeko beharrezkoak ziren azpiegiturak eraikitzea izan zen. GBE-en pobrezia-aren murriztapena hazkunde ekonomikoaren ondorio gisa ulertuz.

Bigarren garaian, Robert Macnararen lehendakartzaren garaian (1968-1981) bankua bete-betean sartu zen GBE-en pobrezia murrizteko lanetan oinarritzko behar-arak asetzeko estrategiak bultzatuz garapenaren ardatz gisa. Hirurogeiko hamarkada-aren bukaeran garapenaren inguruko pentsamenduan aldaketa nabarmena gertatzen da hazkunde ekonomikoaren nagusitasun osoa kolokan jarri eta ordura arte arreta jaso ez zuten gaiak lehenetsiz, hala nola lana sortzea, langabezia-aren aurkako politikak, errentaren banaketa disparekoaren murriztea edota oinarritzko beharren asetzeta.

Baina agintaldiaren bukaera aldean, 1978ko Munduko Garapenaren Txostenetik (MGT) aurrera alegia, pobrezia-aren aurka borrokatzeko strategiaren lehentasuna berriro kokatzen da hazkunde ekonomikoa lortzean eta fluxu ekonomikoetan, gizarte-politika-etik kanpo betiere. Laurogeiko hamarkadan ikuspegi horren nagusitasuna ageri da fluxu ekonomikoak eta merkatu-harremanak lehenetsiz egiturazko doikuntza-planen ezarpenaren bidez eta pobrezia-aren hedapenaren kaltetan.

Laurogeiko hamarkadaren bukaera arte, eta doikuntza-planak sortutako ondorio sozialen harira hainbat arlotatik jasotako kritikei erantzunez, MB ez da hasiko bere egiten GBE-en pobrezia murrizteko helburua. Bereziki 1987. urtean UNICEFek kaleratutako *Giza Aurpegiko Doikuntza* txostena agertu ondoren hasten da MBk GBE-en pobrezia-ri buruzko kezka bere egiten eta bere jardunean kontuan hartzen. Kezka horren ondorioz, hamarkadaren bukaeran bankuak doikuntza-aren gizarte-dimentsioaz hitz egiten du eta hazkunde ekonomikoa sustatzeko hartutako ohiko neurriei gizarte-mailako neurri sorta gehitzera dator, doikuntzak sortzen zituen kalte nagusiak arintzeko asmoz, hazkundearen helburua kolokan jarri gabe eta GBE-en pobrezia-aren gaineko pentsamendu osatu izan gabe, neurri osagarri aringarri soilak baino.

Aurrerago, 1990. urteko Munduko Garapenaren Txostenean (MGT) GBE-en pobrezia-aren gaia aztertzen du eta hoffen aurkako estrategia zehazten du. Hiru osagarri nagusi ditu: handitu pobreen aukerak aktibo ekonomikoak lortzeko, bereziki lana; gizarte-zerbitzu-entzako sarbideak hobetu eta hedatu, eta sektore hauskorrenei bideratutako gizarte-segurantzako sareak sortu.

Baina bankuaren interes gorakorra GBE-en pobreziaren aurkako borrokan onartuta ere, baita estatuaren esku-hartzea gizarte-politiken arloan ere, ezin dugu esan aldaketarik gertatu denik GBE-en pobreziaren kontzeptuan, baizik eta hura borrokatzeko politiketan. Ikuspegia zabaldu egiten du eta neurri gehiago onar-tzen ditu aurre egiteko, baina haren neurketa pobrezia-marrara mugatzen jarraitzen du, pobrezia larriko maila berria 1 \$ eguneko marran jarriz (aldiho 2 \$-ekoa ere erabiliz).

Azkenik, laurogeita hamarreko hamarkadan, eta bereziki Munduko Garapena-ren Txostena 2000-01etik aurrera, bankuak GBE-en pobrezia murrizteko eragile nagusia izateko ardura hartzen du bere gain, GBE-en pobreziari aurre egiteko ikuspegi berri bat aldarrikatuz. Eta gainerako nazioarteko erakundeek horrela onartzen diote. Aipatu txostenean agertzen du nabarien zein den bere estrategia GBE-en pobreziaren aurka egiteko, lan horretan aritzeko behar duen legitimitatea lortzeko helburu argiaz egina ere.

Horrela, txostenaren hasieran GBE-en pobrezia definitzeko eta honi aurre egiteko beharrezkoak diren neurriak azaltzen direnean ematen du benetan ikuspegi-aldaketa gertatu dela MBn. Errentan oinarritutako dimentsio bakarreko ikuspegia alboratzen da eta dimentsio askotariko ikuspegia erabiltzen du. GBE-en pobrezia orain errenta-gabezia baino ekintza- eta erabakitze-askatasunetarako sarbide-gabezia bezala irudikatzen da. Etxebizitza, elikagai, edota osasun- eta hezkuntza-zerbitzu egokiak izateko aukeren gabeziak; gaixotasun, ondorio ekonomiko kaltegarri edota natura-hondamendiekiko zaurgarritasuna; baita estatuko instituzioek emandako tratu okerra edo norberarengan eragiten duten erabakietan ezin eragin izatea ere hartzen ditu GBE-en pobreziaren adierazpen gisa. Eta ondorioz, pobreziari aurre egiteko ezinbestekotzat jotzen du pobreak babestu eta indartzeko beharra.

Baina pobreziaren kontzeptualizazio berri honetatik harago ez du ezer egiten. Ez du plazaratzen inongo adierazle berririk ikuspegi berrituak dituen dimentsio anitzeko gabeziak irudikatzeko. Pobreziaren ikuspegi berri hori zein den eta zein dimentsio duen neurtzea ahalbidentzen duen adierazlerik ez badago, ezin dira finkatu ez helburu ez politika berririk errealitate sozial berri horri begira, eta ondorioz, kontzeptuaren berrikusketa eta proposamen berriak eragingarritasun osoa galtzen du eta ariketa formal hutsa bihurtzen da.

Erronka horri bankuak ematen dion erantzuna etsigarria da. Kontua ez da bakarrik ez duela inongo adierazle berririk proposatzen modu berrian definitu duen pobreziaren errealitate sozial berri hori irudikatzeko ohiko diru-sarreretatik harago, baizik eta ez duela egiten inolako ahaleginik pobreziaren erreferente berri horri ondo egokitzen zaion adierazle bat aurkitzeko, ez du sumatzen ezta behar hori ere. Erabiltzen duen errentaren adierazlea bera ere ez du ukitu, 1 \$ eguneko pobrezia larriaren muga mantentzen du. Beraz, ezin da esan MBk aldatu duenik GBE-en pobreziaren kontzeptua ezta pobreziaren aurka orain arte jarraitutako estrategia ere.

### 7.3.2.2. Nazio Batuen Garapen Programaren estrategia

NBGPren proposamen teorikoak GBE-en pobrezia-aren inguruan oso erakar-garriak dira: onartzen du pobrezia-aren zergatia harreman sozioekonomikoetan dagoela eta hamarkadetan zehar harreman horietan izan diren desberdintasun es- trukturaletan datzala. Horregatik argudiatzen du pobrezia-aren aurkako politikak eta estrategia-kiak hiru mailatan eragin behar dutela eraginkor- rak izateko: maila ma- kroekonomikoan, maila ertaineko politika instituzionaletan, eta maila mikroeko- nomikoko esku-hartzeetan; eta hiru maila horietan hartutako neurrien arteko koordi- naziorik eza izan da aurreko GBE-en pobrezia-aren aurkako politiken eraginkortasu- nik ezaren zergati nagusia.

Ikuspegi ausart eta sakon hau aplikatuz gero, pobrezia-aren aurkako politika eta estrategia-kiak osatzeko unean ez dago zalantzarik NBGPren diskurtsoak GBE-en po- breziari aurre egiteko ikuspegi alternatiboa suposatuko lukeela. Baina kasu hone- tan ere, Munduko Bankuaren kasuan bezala, ikuspegi ausart hau ahuldu egiten da nabarmen defendatutako ikuspegi hori praktikara eramateko orduan. Batetik, ez duelako kontuan hartzen aipatu dituen politika makroekonomiko horien nazioarteko dimentsioa, GBE-en pobrezia-aren aurkako estrategia-ren diseinua herrialde pobreen mailara mugatzen duelako, eta bestetik, maila nazionalean bertan gutxiesten duelako nazio-estatuen ahalmena, pobrezia murrizteko esparruak sortzeko ahalmen hori pobreen antolaketa kolektiboaren esku soilik uzten duen heinean.

Berriro ere, proposamen teoriko zabalak ezerezean gelditzen dira giza gara- pen txostenetan, zeren GBE-en pobrezia-aren aurka proposatzen diren politiketan ez baita inolako proposamen zehatzik egiten gainditzeko salatu duen hiru esparruetako neurrien arteko koordinaziorik eza. Izan ere, analisia teoriko zabala egin ondoren proposatzen dituen neurriak —beti ere herrialdeen maila nazionalean— honetara mugatzen dira: pobreenengan metatzea esfortzu handienak; pertsonen aukerak heda- tzea eta giza gaitasunak eraikitzea. Baina proposatutako hiru neurri horiek eragin- korrak izateko behar diren egiturazko aldaketak zein diren modu argian esan gabe.

## 7.4. GAUR EGUNGO ERRONKA NAGUSIAK

Gaur egungo erronka nagusiak lau esparrutan koka ditzakegu. Lehendabizi, **gara- pen kontzeptuari** dagokionez, lantzen eta birsortzen ari den fase batean gaude. Berrikuntza nabarmenak kapitalismotik urrundu nahi dituzten proposamenetan topatzen ditugu, garapenaren eduki propioa sortu nahi dutenen partetik, hain zuzen. Adi egon beharko gara, beraz. Hurrengo urteotan, herrialde batzuk egiten ari diren apustu iradokitzaileak eduki berriz bete baitezake kontzeptua; guztiz beharrezkoa dena, gure iritziz. Adibide gisa hona hemen Boliviako Nazio Garapen Planean sartu duten garapenaren definizioa.



## GARAPEN NAZIO-PLANAREN HELBURUA: ONDO BIZITZEA

BOLIVIA, 2006

Ondo bizitzea herrien eta komunitateen arteko elkargunea da, aniztasun eta nortasun kulturala errespetatuz. Hau da, «ondo bizitzea gure artean». Elkarbizitza komunitarioa da, kulturen artekoa eta botere-asimetriarik gabekoa, «ezin da ondo bizi, gainerakoak txarto bizi badira». Komunitatearen partaide moduan bizitzean datza, azken honen babespean. Halaber, ondo bizitzeak naturarekin harmonian bizitzea esan nahi du «inguratzeko gaituenarekin orekan bizitzea». Orduan, bere esanahian «zurekin eta nirekin ondo bizitzea» sartzen da, eta hau Mendebaldeko «hobeto bizitzea» kontzeptutik aldentzen da, azken hori norbanakoarena da, gainerakoengandik bananduta, eta batzuetan besteen kontura, eta naturatik urrunduta.

Bigarren erronka guztiz loturik dago garapenaren edukiarekin. Lehen ikusi dugu nola azken hamarkadetan **giza garapen iraunkorraren** beharra azpimarratzen den, baina oso kontzeptu anbiguoak izan dela orain arte. Beraz, hazkunde ekonomiko mugagabea lortu nahian natura-baliabideen gehiegizko ustiapenak, bai nazioarte-mailan bai tokian tokiko eremuetan, erakutsi digu gaur egungo eredu sozio-ekonomikoaren norabideak aldaketa zorrotzak eskatzen dituela. Bestela, komunitate gehienek bizimodua kolokan egon daiteke. Egoera honek hausnarketa sakonaz gain, politika berriak eta eraldatzaileak eskatzen ditu, gizartearen partaidetza erdigunean jarritz.

Hirugarren erronka hain zabaldua dagoen **giza eskubideen urraketa** aurre egitea da. Kontzeptu zabal horretan atal asko sartzen dira. Alde batetik, aberastasunaren banaketa disparekoa —gero eta handiagoa dena bai herrialdeetan bai herrialdeen artean— murrizteko neurriak ezarri behar dira, hura baita gehienbat pobrezia sortzailea eta ondorezaren jatorria. Horren baitan, bai luraren jabetza-eskubideen banaketa bidegabea, bai luraren haziak eta fruituak kontrolatzeko ETNek erakusten duten gogo asegaitza, bai tokian tokiko enpresa txikien desagertzea edota giza segurtasunik eza topatzen ditugu funtsezko arazoetan. Disparekotasun hauen guztien artean, aipatzekoak dira ere gizon eta emakumeen arteko botere-harreman bidegabeak. Funtsezkoa da botere-harreman horiek berraztertu eta aldatzeko tresnak martxan jartzea, bertan kokatzen baitira bidegabekeria askoren oinarriak, herrialde autoktono/indigena askoren diskriminazioarekin batera. Aipatu ditugun esparru guztietan neurri berritzaileak eta bidezkoak ezartzea ezinbestekoa izango da, baita nazioarteko ekonomia-harremanen eta migrazio-fluxuen arauen esparruan ere, beste gaitan aztertu den moduan.

Eta azkenik, Boliviako herrialdeak azken garapen-planean jaso duen bere historiaren laburpenaren sarrera jasoko dugu, herrialde askorentzat ispilua, eta aurreko ataletan jorratu ditugun gaien adibide garbia delako. Interesa duenak testu osoa topa dezake hurrengo web orrian: <http://www.planificacion.gov.bo>.

## GARAPENERAKO NAZIO-PLANA

### BOLIVIA 2006

Boliviak, 2006ko urtarrilaren 22tik aurrera, bere historiako fase berri bati hasiera eman dio, itxaropenez eta erronkaz beteta. Bertan, Evo Morales Ayma lankidea eta anaia buru duen gobernuak *Iraultza Kultural eta Demokratikoa* sendotzeko beharra lehenesten du.

Menderakuntzan eta beldurrean sustraiaturiko kolonialismoaren garai luzeak, azken 20 urteotan politika neoliberalak sakondu duenak, populazio boliviarrarengan ondorio latzak izan zituen: herrialdearen ikuskera galtzea eragin zigun eta, funtsean, pertsonen eta herrien balioesteak, naturarekiko harreman harmoniatsuak eta harreman komunitarioak duten indarra galtzea. Horregatik gure herrialdearen oinarriak berrerratzeko premia daukagu.

Batzar eratzailerako deialdia, hidrokarburoen nazionalizatzea eta Nazio Gobernuak indarrean jarritako beste zenbait neurri gaur egungo eraldaketak sendotzeko estrategien, asmoen eta bideen parte dira. Bide horiek guztiak Nazio Garapen Planaren osagaiak dira: Bolivia duin, burujabe, emankor eta demokratikoan Ondo Bizitzeko.

(...)

Garapen-ereduaren aldaketa nazio-ekoizpen matrizearen osaketarekin hasten da; kolonialismo neoliberalaren deseraikitzearekin; Estatuaren deskolonizazio eta nortasun boliviari berriaren eraikuntzarekin, komunitatearen ikuspegia txertaturik duen nazio anitzetako instituzionalitatean oinarriturik.

Gizartean dagoen ezberdintasuna eta bazterketa kolonialismoaren eta lehen-esportatzailearen ereduaren ondorioak dira. Errepublikako kolonialismoak, sortu zenetik, populazio indigenaren ezberdintasuna eta bazterketa instituzionalizatu ditu, bai gizartean, bai politikan bai ekonomian. Produkzio-faktoreen jabetza-eskubideak ukatu dizkie, bereziki, lurrarena. Halaber, hezkuntza- eta osasun-zerbitzu publikoak erabiltzeko zein nazio-erabakietan parte hartzeko aukerak ere ukatu dizkie. Hala ere, koloniatik heredaturiko zerga indigenak ordainarazi dizkie, gehi morrontza eta ugazaben aldeko soldatarik gabeko lana (...)

<http://www.planificacion.gov.bo>

## LABURPENA

Garapen-bideko herrialdeek azken hamarkadetan bizi izandako bilakaera ekonomiko eta soziala aztertzean bultzaturiko garapen mota jakin baten porrotarekin topo egiten dugu eta horrek garapen kontzeptuaren inguruko eztabaidetara zuzentzen gaitu. Nazioarteko erakunde nagusiek garapen mota jakin bat lortzeko ekonomia-teoria nagusiek proposaturiko norabideei jarraitu dietenez, artikulua honetan lehenetsun horiek GBE-etan izandako ondorioak laburbildu ditugu, pobrezia gain izandako eragina azpimarratuz.

Funtsean, 1980eko hamarkadatik aurrera, kanpoko zorrak eztanda egin zuenetik hain zuzen, Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtsak zorpeturiko herrialdeei gero eta baldintza gehiago ezarri dizkiete, eta horrek haien garapen-eredu propioa garatzeko oztopo nagusia bihurtu da. Azkenik, XXI. mendeko lehenengo hamarkadan sortu diren garapen alternatibo baten aldeko planteamendu berriek itxaropena zabaltzen dute eta kapitalismo basatiari aurre egiteko premia eta ahaleginak egiten ari direla nabarmen geratzen ari da. Hemendik aurrera ikusiko dugu zer-nolako ibilbidea osatzen duten esperientzia horiek eta noraino munduko botereek oztopatzen dituzten horrelako prozesu autoktonoak.

**BIBLIOGRAFIA**

- Areskurrinaga, E. (2008): “La liberalización agrícola y el aumento de la inseguridad alimentaria mundial”, *Cuadernos Bakeaz*, **86**, 1-15.
- Bermejo, R. (2001): *Economía sostenible: principios, conceptos e instrumentos*, Bakeaz, Bilbo.
- Bidaurratzaga, E. (1998): “Garapen kontzeptuari buruzko eztabaida”, *Inguruak*, **21**, 1-25.
- Boliviako Gobernua (2006): *Plan Nacional de Desarrollo de Bolivia*, Ministerio de Planificación de Desarrollo, <<http://www.planificacion.gov.bo>>.
- Boserup, E. (1993): *La mujer y el desarrollo económico*, Minerva, Madril.
- Bustelo, P. (1998): *Teorías contemporáneas del desarrollo económico*, Síntesis, Madril.
- Dubois, A. (2001): “Las estrategias globales frente a la desigualdad de los organismos internacionales: un análisis crítico” in A. Dubois; J.L. Millan etra J. Roca, (koor.), *Capitalismo, desigualdades y degradación ambiental*, Icaria, Bartzelona, 75-112.
- Hobsbawn, E. (1995): “Historia del Siglo XX”, Crítica, Madril [Itzulpena: Unzeta, K. eta Yoldi, P. (2000): “Garapenerako lankidetzeta. Sorrera eta bilakaera historikoa”, Eusko Jaurlaritzan].
- Latouche, S. (2007): *Sobrevivir al desarrollo*, Icaria, Bartzelona.
- Munduko Bankua (zenbait urte): *Informe sobre el Desarrollo Mundial*, Munduko Bankua, Washington.

- NBGP (Zenbait urte): *Informe sobre Desarrollo Humano*, Nazio Batuen Erakundea, New York.
- Nussbaum, M. (2002): *Las mujeres y el desarrollo humano: El enfoque de las capacidades*, Herder, Bartzelona
- Sen, A. (2000): *Desarrollo y libertad*, Planeta, Madril.
- Unceta, K. (2009): “Desarrollo, subdesarrollo, mal desarrollo y post desarrollo”, *Carta Latinoamericana*, 7, CLAES, Centro Latino Americano de Ecología Social.
- Villalba, U. (2007): “Parte-hartzea garapenean: hainbat diskurtso eta jatorri”, *Uztaro*, 63, 77-89.
- Zurbano, M. (1998): *Munduko Ekonomia*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

### **WEB ORRIAK**

- CEPAL= ECLAC: [www.eclac.cl](http://www.eclac.cl)
- Munduko Bankua: [www.worldbank.org](http://www.worldbank.org)
- PNUD: [www.undp.org](http://www.undp.org)
- UNCTAD: [www.unctad.org](http://www.unctad.org)
- UNICEF: [www.unicef.org](http://www.unicef.org)

## 8. Integrazio ekonomikorako ekimenak: garapenerako tresnak?

*Eduardo Bidaurratzaga Aurre*

Azken hamarkadetako ekonomiaren internazionalizazio-prozesuak, gehienbat munduratzeko edota globalizazio kontzeptuekin identifikatua izan denak, mugaz gaindiko ekonomia-fluxuen liberalizazioa eta hedapena izan ditu ezaugarri nagusi gisa. Honetaz guztiaz hitz egiterakoan, batez ere, merkataritzaren eta inbertsioen alorrean sortu diren joerez ari gara. Baina nazioartekotze-prozesu honetan bi dinamika mota izan dira aldi berean: bat mundu-mailakoa, zenbait erakunde aldeaniztunen liberalizazio-politikei lotuta, eta bestea, eskualde- edo erregio-mailakoa, herrialde batzuek beren ingurukoekin integrazio ekonomikorako akordioetan gauzatutakoa.

Horrela, beraz, azken aldian gero eta sarriago elkarri lotuta ikusi ditugun bi kontzeptu globalizazioa eta integrazio ekonomikoa dira. Hainbat eztabaidatan, batzuen ikuspegitik, bi kontzeptu horiek jarduera ekonomikoa antolatze bide alternatibotzat hartuak izan dira; beste batzuen aburuz, aldiz, bi dinamika horiek norabide berean joango liriteke, ekonomiaren liberalizazio-prozesuak zabalduz erregio-mailan hasiera batean, gero mundu osora hedatzen joango liritekeelarik. Gaur egun, bi mutur horien arteko eztabaida zabalik dago. Baina edonola ere, ondorengo testuan ikusiko dugun bezala, azken urteetan dinamika berri batzuk sortu dira tradizionalki erregio-mailako integrazio ekonomikoa deitua izan den horri dagokionez, eskualde edo erregioaren kontzeptua gero eta zabalagoa bihurtuta, eta integrazio-prozesuak kontinente oso bat edo bi kontinenteren arteko harremanak barneratzeraino iritsi dira.

Ondorengo testuan, hortaz, hauxe aztertuko dugu; honen guztiaren inguruko planteamendu teorikoak, integrazioak garapen-tresna modura dituen abantaila eta mugak, eta kontinente batzuetan zein besteetan emandako bilakaerak eta etorkizunari begira zabaltzen diren jokalekuak. Helburu nagusia ekonomia-integrazioaren eta garapenaren arteko lotura azaltzea denez, garapen-bideko herrialdeen arteko integrazio-prozesuetan, eta gehienbat azken aldiko haien eta herrialde industrializatu aberatsen artekoetan, zentratuko gara gure analisisian.

## **8.1. HURBILPENA TEORIAREN ALDETIK: KONTZEPTUA, KORRONTEAK ETA HELBURUA**

### **8.1. Kontzeptua**

Integrazio ekonomikoa, kontzeptu nahasia eta interpretazio zabalekoa bada ere, testuliburu gehienetan, 60ko hamarkadan Balassak ezarritako sailkapenaren erreferentziari jarraituz, erregio-mailako integrazio-prozesuak lau eratakoak izan daitezkeela esan genezake, edo hobeto esanda, mota bakarrekoa, baina lau fase desberdinetan banatutakoa (merkataritza libreko eremuak, aduana-batasunak, merkatu bateratuak, eta ekonomia-batasunak). Tradizio handiko eskema honen arabera, ondasun eta zerbitzuen merkatuaren liberalizazioa izango genuke hasiera batean, geroago lana eta kapitalaren mugikortasuna sustatuz, ekonomia-politikaren koordinazioarekin amaitzeko. Era horretan, merkatuez gain gobernu batzuen eta besteen ekonomia-politikak ere integratu egingo liriteke.

Eta hauek lehenengoan, merkataritza libreko eremuetakoan alegia, herrialde kideek barne-merkataritzarako euren muga-sariak eta inportazioetarako murriztapen kuantitatiboak desagerrarazten dituzte, herrialde bakoitzak taldetik kanpoko beste guztiekiko bere merkataritza-politika propioa mantenduz. Hurrengo fasean, aduana-batasunarenean, aurrekoaren ezaugarriez gain, integrazio mota honetan herrialde kideek kanpoko arantzel bateratua ezartzen diete batasunetik kanpoko inportazioei, euren merkataritza-politika horrela koordinatuz. Merkatuen integrazioaren azken fasean, merkatu bateratua izenekoan, mugikortasun-askatasuna ekoizpen-faktoreetara zabaltzen da, hau da, lanaren eta kapitalen liberalizazioa gauzatuz.

Ekonomia-batasunari dagokionez, merkatuen integrazioaz gain, tankera desberdinetako ekonomia-politiken integrazioa ere gaineratu egiten da, gehienbat arlo fiskal eta monetarioan zein konpetentzia eta ingurumenaren alorrean. Ohiko eske-ma honen azken fasearen ostean beste batzuk ere azal daitezke, besteak beste, moneta-batasunarena, Europar Batasunaren kasuan legez, koordinaziotik harago, moneta bakarrari bidea zabalduz Banku Zentral bakar baten agintaritzapean.

#### **8.1. taula. Integrazio ekonomikoaren faseen hurbilpen tradizionala.**

Integrazio motak	Barruko arantzelen ezabapena	Kanpoko arantzel bateratua	Kapital eta lanaren mugikortasuna	Ekonomia-politiken koordinazioa
Merkataritza askeko eremuak	BAI	EZ	EZ	EZ
Aduana-batasuna	BAI	BAI	EZ	EZ
Merkatu bateratua	BAI	BAI	BAI	EZ
Ekonomia-batasuna	BAI	BAI	BAI	BAI

Aipatutako ikuspegi tradizional horretatik hartzen den ideia nagusietako bat hau da, oso lerro eta zatiketa argia dagoela aipatutako fase guztien artean, edota integrazio ekonomiko eta lankidetzaren ekonomikoaren artean. Azken kontzeptu horren kasuan, literatura nagusiak ulertzen du horren barruan koordinazio eta elkarlan motarik prekarioenak soilik sartu beharko lirakeela. Eta nolana ere, horrek ez lukeela mereziko integrazio-ekimenaren izendapena, nahiko pentsamolde zabaldua da adituen artean.

Hala ere, hau guztia uste baino nahasiagoa da askotan errealitatean. Nonbaitek hastearren, talde erregionalen izendapenak hartzerakoan, sarritan hauek ez datoz bat oraintsu aipatutako faseetan integrazio-prozesuek izandako bilakaera eta eskuratutako lorpenekin<sup>24</sup>. Horrez gain, adituen artean ez dago erabateko adostasunik ezarri nahi denean zein lirakeen irizpide argiak identifikatzeko integrazio-prozesu bati sorrera ematen dioten gutxieneko baldintzak eta ezaugarriak. Eta horrexegatik gero eta hedatuago dago gai honen gaineko literaturan beste kontzeptu zabalago batzuen erabilera, «erregionalismoa» eta «erregio-talde» kasu, besteak beste.

Azken izendapen horiek bestelako ekimen eta elkarlan motak ere barneratuko lituzkete, integrazio ekonomikoaren esanahia eta mugak lausotuz. Ondo zehaztutako etapa horien eskemaren atzean inplizituki onartzen den printzipioetako bat da herrialdeen arteko diskriminazioen desagertzea, eta ez murrizketa, behar-beharrezkoa dela integrazioaz hitz egiten hasteko. Horrexegatik gaiaren gaineko literatura klasikoaren arabera, arantzelen gutxitzea besterik gertatzen ez den kasuetarako, lankidetzaz hitz egin beharko litzateke eta ez integrazioaz.

Hala ere, gero eta aditu gehiagoren esanetan, ikuspegi murriztaile horrek askotan talde erregional eta ekimen ugari utzi ditzake eskema honetatik kanpo. Horrexegatik, malgutasun handiagoko ikuspegi baten aldeko apustua gero eta ohikoagoa bihurtzen ari da, eta horrekin batera oraintsu aipatutako beste kontzeptu zabalagoen erabilera, eta erregionalismoarena batez ere. Kontzeptu horrek lankidetzaren ekonomikoaren barruan sartzen diren beste ekimen batzuk ere barneratuko lituzke, besteak beste, zenbait alorretan talde erregional baten herrialdeek bultzatutako proiektu bateratuak (garraio-, energia- edota ur-azpiegituren kasuetan bezala).

Ikusmolde zabal batetik abiatuta, beraz, zenbait alorretako ekimenak edota arantzelen gutxitzea oso garrantzi handikoak bihurtu daitezke erregio-mailako integratzearako, lehenengo urrats gisa oso lagungarriak baitira herrialdeen arteko harremanak sendotzeko eta euren helburu bateratuak gorpuztu eta burutu ahal izateko etorkizun hurbil edo urrun batean.

---

24. Behin baino gehiagotan garapen-bideko herrialdeen arteko integrazio-prozesuetan, «merkataritza libreko eremua» edo «merkatu bateratua» kontzeptuak erabiltzen dira hauek izendatzerakoan, lehenengo kasuan merkataritzaren liberalizazioa hasi besterik egin ez denean, eta bigarrean, herrialde kideak kapitalaren eta lanaren erabateko mugikortasunetik oso urrun daudenean.

### 8.1.2. Korrontek

Erregio-mailako integrazio ekonomikoaren gaineko marko teorikoa gehienbat ortodoxia neoklasikoaren ikuspegitik garatu den arren, bestelako ikuspuntuak agertu dira ere, hain zuzen ere, beste errealitate bat erakusten duten garapen-bideko herrialdeen analisisan oinarrituta sarritan. Zehaztasun handiegietan sartzeko asmorik gabe, eta literatura espezializatuan askotan aipatzen diren sailkapen ugari sinplifikatuz, honako hiru korronte nagusi aipa genitzake:

- Lehenengoa ortodoxoa, neoklasikoa edota merkatukoa litzateke, gaur egun zalantzarik gabe zabalduen dagoena eta jarraitzaile gehien duena. Honetan azpimarra nagusia erabateko kompetentzia askeko egoera batean herrialdeek jasotako onuretan egiten da, merkatuko indarrei utzi egiten zaienean determinatzen merkataritza-harremanak, eta zeharka ekoizpenari lotutakoak. Korronte honen aldekoek, beraz, merkataritza askeko eremuen edota aduana batasunen sorreran jartzen dute euren interes nagusia, hortik aurrerako integrazioaren beste faseetan edo ikusmolde alternatiboetan sakontzeko inongo beharrik gabe.
- Bigarrena zuzendutako, adostutako edota araututako integrazioaren aldekoa litzateke. Honetan inbertsioen planifikazio eta arauketaren bitartez, edota pizgarriak erabiliz eta herrialdeen arteko akordioen bitartez, testuingururik egokiena bilatzen da industriaren espezializaziorako, ekoizpenaren egitura eraldatuz eta arrazionalizatuz. Ikusmolde honen ezaugarri nagusietako bat da garapen orekatuarekiko ardura eta integrazioaren onuren banaketa bidezkoaren aldeko apustua, horretarako neurri birbanatzaileek eta planifikazioak ezinbesteko funtzioa betetzen dutelarik. Honekin guztiarekin batera, erakundetzearen eta integrazioaren sakontzearen aldeko apustua izaten da beste ezaugarri behinenetakoa.
- Azkenik, ikuspegi funtzionalista genuke. Eredu teoriko honetan gako nagusia litzateke zenbait sektoretan gauzatzen den lankidetzaren proiektu kolektiboak gauzatzeko. Teoria-mailan, honek desorekak sortuko lituzke ekonomiaren beste arloekiko, azken hauetan presio-bideak agerraraziz antzeko jarduerak eta integraziorako ekimenak garatzeko asmoz. Lehenengo ikuspegiaren kasuan bezala, integrazioaren sakontze- eta erakundetze-prozesuetan ez dago interes handiegirik.

Nolanahi ere, izendapenak eta sailkapenak eratzeko maila teorikoan integrazioaren analisisan egon daitezkeen irizpideak alde batera utzita, zentzu zabal batean ondoko hau ondoriozta dezakegu: honen gaineko eztabaidak, ekonomiaren alorrean beste hainbatetan legez, jarduera ekonomikoan esku-hartze publikoak izan beharko lukeen pisu handiago ala txikiagora gera daitekeela mugatuta, bai estatu kideen gobernuen aldetik, zein integrazio-prozesu horretatik sortutako estatuen gaineko erakundeen aldetik. Horrela, beraz, hauxe da gehienbat ondasun eta zerbi-



tzuen zein kapitalaren eta lanaren liberalizazio-maila zehazten duen faktore nagusia, alegia, zabaldutako erregio-mailako esparru horretan merkatuaren indarrek izango duten askatasuna, eta esku-hartze publikoaren bidez martxan jarriko diren tresna birbanatzaile eta konpentsatzaileek izango duten eragina integrazioaren kostu eta onurak ekitatezko irizpidez banatuak izan daitezzen.

### 8.1.2.1. *Korronte ortodoxoa eta haren erabilgarritasuna*

Nagusia den ikuspegi honetatik egindako analisiek erlazio zuzena ezartzen dute merkataritzaren liberalizazioaren eta ongizate ekonomikoaren artean, azken hau oso modu murriztaile eta partzialesan definitzen delarik Paretoaren optimoaren arabera, eta beraz, alde batera utzita beste hainbat aldagai eta faktore ongizatearen eta, azken finean, garapenaren kontzeptua zentzu zabal batean osatzeko behar-beharrezkoak direnak.

Paretoaren esanetan, gizarte edo talde baten ongizatea handitu egiten da aldagai hau gizaki edo taldekide batentzat hobetzen denean, besteena kaltetzen ez den bitartean. Ongizatea termino horietan definituta ontzat hartzen denean hautu ideologiko argia egiten denean, besteak beste, birbanaketaren kontrakoa, azken honen aldeko politikek kaltetuko luketelako batzuen ongizatea, agian bakan batzuen, besteen alde jokatu ahal izateko. Beste modu batean esanda, disparekotasun handiko errenta duen gizarte edo integrazio talde batean, egoera hau aldatzearen aldeko neurriek Paretoaren araberako ongizatearen printzipioaren kontra joko lukete betebete.

Ikuspegi partikular honetatik, merkataritzaren erabateko liberalizazioa Paretoaren optimo kontsideratzen da, ulertuta beste aukerarik ez dagoela norbaiten egoera hobetzen duena besteena kaltetu barik. Honek agerian uzten du erregio-mailako integrazio ekonomikoaren eta mundu-mailako merkataritzaren liberalizazioaren arteko bereizketa. Alde batetik, badago diferentzia bat eremu geografikoaren gainekoa, alegia, bata mundu-mailakoa eta bestea erregionala edo eskualde-mailakoa delako (erregioaren mugak zabalak edo murrizak izan badaitezke ere), azken honen liberalizazioa erregiotik mundura zabaltzeko inongo derrigortasunik eta sarritan ezta beharrik ere ikusten ez delarik<sup>25</sup>. Baina horrez gain, historikoki ezagutu ditugun talde erregional gehien kasuan, integrazioak taldeko kide ez direnekiko modu batean edo bestean diskriminazioa dakar.

Testuinguru honetan, pentsamolde honen esanetan aukerarik onena munduko merkataritzaren liberalizazioa da, eskualde-mailako integrazio ekonomikoa horrela bigarren maila batera pasatzen delarik. Horrexegatik gai honen inguruko literaturan *second best* esaera ohikoa bihurtzen da integrazio erregionalaz hitz egitera-

---

25. Nolanahi ere, geroxeago azalduko dugun legez, azken urteetan gero eta zabaldugoa dagoen ikuspegiak kontrakoaren aldeko apustua egiten du, alegia, talde erregionalak liberalizazio globalaren bidean tarteko formulak besterik ez direla defendatuz.

koan, era partikular batean definitutako ongizatea sustatzerakoan aukerarik onena hau ez dela adierazi nahian.

Planteamendu teoriko hauetan, integrazio ekonomikoaren alde on eta txarren gaineko analisirako elementu nagusietakoak merkataritzaren sorrera eta desbideratzea lirateke, aduana-batasunen teoria izendatua izan denaren barruan. Parametro hauen arabera, merkataritzaren sorrera, integrazioaren onuratzat hartuta, ondoko baldintzetan gertatuko litzateke: herrialdeen gastuaren proportzio txiki bat kanpo-merkataritzara bideratzen denean, eta kanpoko merkataritza horren portzentaje nabarmen bat erregio-taldeko kideekin gauzatzen denean.

Beste era batean esanda, osoarekiko herrialde baten barruko merkataritza zenbat eta handiagoa izan, eta beraz, kanpoko zenbat eta txikiagoa, orduan eta handiagoa izango da merkataritza sortzeko aukera aduana-batasun baten bitartez. Horrek kostu handiko bertoko ondasunen ekoizpena baztertzeko aukera emango luke, integrazio-eremuko kostu txikiagoko beste ondasun batzuekin ordeztu ahal izanez, eta baliabideen esleipen egokiagoa zein kontsumitzaileen ongizate-mailaren hobekuntza ekarriko lukeelarik. Era berean, aduana-batasunetik kanpoko herrialdeekiko merkataritza zenbat eta pisu gutxiagokoa izan, edota batasunaren barrukoa zenbat eta handiagokoa, orduan eta txikiagoak izango dira merkataritzaren desbideratzeari lotutako efektu negatiboak, talde erregionaletik kanpoko kostu gutxiko inportazioetatik kostu handiagoko honen barrukoetara igarotzean.

Baldintza hauek ontzat emanez gero, arrazoizkoa litzateke garapen-bideko herrialdeen arteko hainbat integrazio-ekimenen esperientzia tamalgarria, haien ekonomien ezaugarri nagusiak, hain zuzen ere, orain aipatutakoen aurkakoak baitira: herrialde bakoitzaren kanpoko merkataritza sarritan barne-merkatuetakoa baino handiagoa, eta erregio-talde barruko merkataritzaren pisua oso maila apalekoa. Hau da, merkataritzaren sorrerari lotutako abantailak merkataritzaren desbideratzeak eragindakoak baino txikiagoak dira, euren ekonomiak eremu erregionalean bata bestearen osagarriak baino gehiago, batez ere lehiakideak izanik horretatik kanpoko merkatuetan.

Ikuspegi honetatik, hortaz, garapen-bideko ekonomien arteko integrazioak ez luke efektu positiborik izango, eta hauen ondorioz testuinguru horretan garapenerako tresnatzat ez luke inongo zentzurik edukiko. Eta hau izan da korrante hau kritikatzeko historikoki agerrarazi den arrazoi nagusietakoa. Horrela kritikoez adierazten dutenez, Vinerengandik datorren analisi estatikoa<sup>26</sup>, alegia, merkataritzaren sorreran eta desbideratzean oinarritutakoa, ez da batere egokia garapen-bideko ekonomien arteko integrazio-prozesuak aztertzeko. Ildo horretatik, aditu hauek

---

26. Analisi estatikoak ondokoa hartzen du kontuan, baliabideen esleipenetik eratorritako efektuak merkataritzaren sorrera eta desbideratzearen arabera une jakin batean. Integrazioaren efektu dinamikoak, aldiz, denboran zehar baliabide horien aldaketek eragindakoak lirateke.

tankera honetako integrazio-ekimenetan beste efektu onuragarri batzuk egon badaudela azpimarratzen dute, agerian utzi nahian merkataritzaren sorrera eta desbi-derapena aduana-batasun batetik eratorritako onurak eta kalteak identifikatzeko irizpide bakarrak ezin direla izan.

Horrexegatik hain zuzen, garapen-bideko ekonomien arteko integrazioaren analisiak eskala-ekonomien garrantzia azpimarratzen du, merkatua zabaltzerakoan honek lagundu dezakeelako ahalmen produktiboaren hobekuntzan, erabili gabeko baliabideak mugiaraziz, eta produktibitatea zein eraginkortasuna igoaraziz. Eskala-ekonomiei lotutako abantailaz gain, tankera dinamikoetako beste batzuk ere badaude: inbertsioek kokapen eta bolumenari, konpetentzia-mailari, espezializazio produktiboari, truke-erlazio errealarari, edota teknologia-mailan suertatutako hobekuntzei lotutakoak.

Honen guztiaren bitartez ondorioztatu nahi dena hau da: aduana batasunen teoria tradizionala aplikagarritasun gutxikoa dela garapen-bideko ekonomien kasuan, ez baititu kontuan hartzen integrazio-prozesuek epe luzean erraztu ditzaketen egiturazko aldaketak. Historian zehar burututako ekimenei erreparatuta, gainera, ez omen dago zalantza handiegirik esaterakoan garapen-bideko gobernu agintari gehienek iritzia integrazio erregionalen inguruan baikorra dela, besteak beste, sarritan irtenbide bat eskaintzen duelako euren ekonomia txikien (biztanleria zein errentaren aldetik) arazoari aurre egiteko, eta industria- zein teknologia-garapena sustatzeko.

Analisi ortodoxo honetatik kanpo dagoen beste faktore bat, garrantzi handikoa garapen-bideko ekonomien arteko integrazioa bultzatzerakoan, talde erregionalak errazten duen negoziatzeko ahalmena hobetzea litzateke, bai orokorrean herrialde industrializatu aberatsen aurrean, bai nazioarteko hainbat gailur, foro eta erakundetan.

Aduana-batasunen teoria tradizionala oso kritikatu izan da ere bere abantaila konparatiboen analisi estatikoan erabilitako hipotesi edo aurrebaldintzengatik. Horrela, beraz, nahiko orokorki onartuta dago eredu honen aurrebaldintzek zerikusi gutxi dutela errealtatearekin, ez bakarrik eredu sortzeko erreferentzia gisa hartutako ekonomia industrializatuen errealtatearekin, baizik eta bereziki garapen-bidekoen ezaugarriekin. Izan ere, integrazio ekonomikoaren analisi neoklasikoak emanda hartzen ditu zenbait ezaugarri garapen-bideko ekonomietan oso ohikoak ez direnak, besteak beste, maila altuko garapena administrazio, azpiegitura, industria eta ekonomiaren arloetan, edota erregio-taldeko kideen arteko merkataritza-bolumen handia. Alde horretatik, herrialde industrializatu aberatsen arteko integrazio-ekimenetan ardura nagusia merkataritzan egoten bada ere, merkataritzaren liberalizazioaren aldeko ikuspegi zurrun eta hertsia baten aplikazioak ez du seguru asko emaitza onuragarri handiegirik lortuko euren ekoizpen-egituretan aldaketa sakonak behar dituzten ekonomietan.

Integrazioaren onuren banaketari dagokionez, ikusmolde neoklasikoak duen arreta falta oso kritikatu izan da ere. Aditu askoren esanetan, disparekotasun ekonomiko handien testuinguruan integrazioaren dinamikak erraztasun handiagoa dauka ekonomiarik aurreratuenetara baliabideak erakartzeko, jarduera ekonomikoa beste guztietara zabaltzeko baino. Horren ondorioz, merkatuaren logika soila erabiltzeak onura behinenak herrialde aurreratuetan kontzentratuko lituzke, eta integrazio-eremuan disparekotasun eta dibergentziaren aldeko joera areagotuko litzateke<sup>27</sup>.

Oro har, ahots kritiko hauek nabarmendu nahi dutena hauxe da: ortodoxia neoklasikoak oso funtsezko gabeziak dituela garapen-bideko herrialdeen arteko integrazio-prozesuak aztertzean, ekonomia horiek dituzten egiturazko arazoak alde batera utzi egiten baitira. Análisi honen gabezia nagusien artean honako hauek aipa genitzake: industriaren eta merkataritzaren espezializatorako orientabide eta irizpide egokien falta, erregio-mailako garapenerako planifikazioa eta politika aktiboekiko ardurarik eza, integrazioaren kostu eta onuren ekitatezko banaketarako tresnen gabezia, kanpoko kapitalaren erakarpenaren bidez garapena sustatzeko politika aproposen falta, eta abar.

#### *8.1.2.2. Korrante alternatiboen zailtasunak eta mugak*

Ikuspegi arautu edo garapenekoaren aburuz, integrazio-prozesu batean parte hartzen duten herrialdeetako batzuk, lehiakorrak izan arte, lehiakortasun eta produktibitate handiagokoen aurrean jarduera produktiboak babesteko beharrean izango dira. Hala ere, konpetentzia mugatzeko neurrien erabilerak ika-mikak ere sortuko ditu kideen artean, honen onurak eta kostuak banatzerakoan.

Merkatuaren dinamikak sor ditzakeen desorekei aurre egiteko martxan jar daitezkeen neurrien artean honako hauek aipa ditzakegu: esportazioen sustapena eta inportazioen murriztapenen banaketa desberdina estatu kideen artean, pizgarri fiskalen erabilera, garapen erregionalerako bankuen sorrera inbertsioak sustatzeko, errentaren transferentzia kideen artean, industriaren espezializazio adostua, edota azpiegitura lanen eraikuntza ekonomiarik ahulenetan.

Tresna zuzentzaileen artean, errazen eta ohikoenetakoa geometria aldakorrekoa deitutakoa da. Honetan ekonomia atzeratuenetan erritmo motelagoa adosten da merkataritzaren liberalizatorako, muga-zergen desagerpenaren epea luzatuz zenbait urtetan. Era horretan, ekonomia ahulenen doikuntza-kostuak arintzea bilatzen da eta zenbait kasutan atzeratuenen babes moderatu eta behin betikoa bermatu egin daiteke liberalizazio-prozesu orokorraren ostean ere.

---

27. Ildo honetatik egin ziren lehenengo ekarpenak, erregio-talde bateko herrialde kideen arteko desberdintasunak areagotzeko arriskua azpimarratuz, Myrdal edota Cooper eta Massell ekonomisten eskutik etorri ziren 50eko eta 60eko hamarkadetan, hurrenez hurren.

Pizgarrien eskaintzari dagokionez, helburu nagusia da industria-sarearen osaera geografiko orekatuagoa eragitea erregio-taldearen barruan. Zeresanik ez dago, tresna hauek ez dutela helburuen lorpena bermatzen, izenak berak dioen bezala, merkatuaren dinamikaren gainean eragin nahi baitute, ekonomiarik atzeratuenetan inbertsio berri jakin batzuen kokapena baldintzatuz eta sustatuz<sup>28</sup>.

Errentaren transferentziari dagokionez, irizpide nagusia kopurua kalkulatzera-koan, zera izaten da, merkataritzaren liberalizazioaren ondorioz diru-sarrerara fiskal gisa herrialde horrek jaso ez duena konpentsatzekoa. Nolanahi ere, sarritan merkatuaren irekiera horrek bestelako ondorioak ere sor ditzake, lehiakorak ez diren industriak desagertzearainokoak. Kasu horietan, aipatutako errentaren transferentzia horiek ez lirateke inoiz nahikoak izango konpentsatu ahal izateko, lanpostu, errenta eta zergen aldetik merkataritzaren liberalizazioak eragindako galerak.

Aldiz, neurri zuzentzaile hauek industriaren planifikazioaren edota adostuta-ko espezializazioaren bidez gauzatzen direnean, alegia, integrazioaren izaera birbanatzailea areagotuz, mota askotako errezeloak sortzen dira ere, besteak beste, ekonomiarik aurreratuenek onartu nahi ez dutelako inbertsioen kokapen bat merkatuaren logika eraginkorraren eta euren interesen kontrakoa dena. Horrez gain, ekonomiarik ahulenen gobernuak, eta bi muturren artean geratzen diren beste guztiak ere, saiatuko dira tresna birbanatzaile horien efektuak euren interes partikularren alde jartzen. Era horretan, tankera honetako ekimenek atzerapen eta zailtasun handiak ezagutu dituzte euren negoziaketetan. Aurreikustekoa denez, integrazioaren kostu eta onuren gaineko ebaluazioak, edota ekitate-irizpideen gaineko interpretazioak, oso desberdinak izaten dira norberak betetzen duen posizio erlatiboaren arabera.

Zailtasun hauen aurrean, garapen-bideko herrialdeen kasuan zenbait adituk ondokoa gomendatzen dute; integrazioaren hasierako faseetan akordioak ekoizpen-arlo batzuetara mugatzea<sup>29</sup>, tarteko formula gisa, kideen artean elkarlanaren kultura sendotuz, konpromiso handiagoko hortik aurrerako merkatuaren liberalizazioarako akordioak errazteko. Ikuspegi funtzionalista honek dituen abantailen artean, maila baxuko konpromisoa eta malgutasun handia aipatu ohi dira, biak oso lagungarriak integrazio-prozesuaren lehenengo faseetan subiranotasunaren galera-aren aurrean gobernu kideek izaten dituzten erretizentziei aurre egiteko.

---

28. Pizgarri hauek tankera askotakoak izan daitezke, besteak beste, abantaila fiskalen bidezkoak, edo garapen erregionalerako banketxeek eta funtsek emandako finantzazio subentzionatuen bitartekoak.

29. Hau dena ekoizpenaren alor desberdinetan gerta badaiteke ere, Europako integrazioaren kasuan ikatzaren eta altzairuaren sektoreetan bezala, normalean alor jakin batzuetan suertatzen da, energiaren, uraren edo garraio-bideen azpiegiturretara lotutakoak izaten direlarik.

### 8.1.3. Helburua

Integrazioaren aldeko lehenengo ekimenak sortu zirenetik hona, garapena bultzatze aldera honek dituen abantaila eta desabantailen inguruko eztabaida teori-koak oso sutsuak izan dira. Eta eztabaida horien gai nagusia integrazioaren kostu eta onuren birbanaketaren aurrean batzuek eta besteek duten sentikortasuna bihurtu da.

Hala ere, argitu beharra dago erregio-taldeen osaketa ez dela beti egon erabat erlazionatuta garapenaren inguruko debategin, normalean merkataritzaren liberalizazioari lotuta joan baita. Horrek ekarri duena zera da, integrazio-prozesuei buruzko arrakasta ebaluatzean gehienbat erregio barruko merkataritza-fluxuak eta hazkunde ekonomikoaren gainean hauek izan ditzaketen efektuak izatea erreferentzia bakarrenetakoak.

Ikuspegi hau, batez ere, ortodoxia neoklasikoaren aldetik nabarmena izan da, merkatuaren logika egitura ekonomiko desberdina duten herrialdeentzat baliagarria dela defendatuz, eta garapen-bideko ekonomientzat egiturazko arazoak kontuan hartzen dituen eredu espezifikoak osatzeko inongo beharrik ez dagoela adieraziz. Aldiz, integrazioaren helburu gisa garapenaren ideia azpimarratu duten ikuspegiak neurri konpentsatzaileen, arautegi propioen, ekitate eta birbanaketaren aldeko apustua egin badute ere, integrazioaren xede gisa defendatu duten garapenaren kontzeptioa nahiko tradizionala izan da ere historikoki, gehienbat industrializazio eta hazkunde ekonomikoari lotua izan delarik.

Baina azken bi hamarkadetan garapenaren inguruko teorizazioak oso bilakae-ra nabarmena izan du, besteak beste Paul Streeten eta Amartya Sen ekonomista ospetsuen lanetan oinarrituta, eta hortik aurrera, garapena oinarritzko beharrak ase-tzearekin, ongizatearekin eta giza garapenaren kontzeptuarekin identifikatua izan da<sup>30</sup>. 90eko hamarkadan zenbait adituren aldetik oso teorizazio-lan garrantzitsua egin bada ere, ideia berri horien zabalkundea eta kontzientziazio-lana egin duen erakundea Nazio Batuen Garapen Programa izenekoa izan da, PNUD gaztelaniazko siglen bitartez ezaguna dena.

Era horretan, erakunde horrek 1990etik aurrera argitaratutako txostenari erreparatuta, giza garapena ondoko terminoetan geratuko litzateke definituta: gaur egungo belaunaldien zein etorkizunekoan ahalmenak eta aukerak hobetzeko modua, bizitza osasuntsu, luze eta asebetetzekoa izan ahal izateko. Zentzu horretan, garapenaren birdefinizio honek helburu berri bat planteatzen du, eta berori esku-ratzeko asmoz ekonomia-politikak, oro har, eta integrazio ekonomikoa, zehazki, birbideratu beharko lirateke.

---

30. Garapenaren kontzeptio berri honen aurrekari nagusien artean oinarritzko beharrezane-  
lotutakoak daude, besteak beste 60ko hamarkadaren amaieran eta 70ekoaren hasieran sortutako  
eztabaidak Nazioarteko Lan Erakundean (OIT delakoan) eta baita Munduko Bankuan ere.

Integrazio ekonomikoak hazkunde ekonomikoa faboratu badezake ere (prozesu horretan emandako baldintzen arabera), horrek ez du esan nahi giza garapenaren egoera automatikoki hobetu egingo denik. Alegia, ekonomiaren hazkunde suerta daiteke enpleguaren egoera hobetu gabe, pobreziaren maila murriztu gabe, disparekotasun ekonomikoak nabarmen handituta, askatasun politikorik gabe edota zenbait gizarte-talderen bazterketaren maila gutxitu gabe.

Azken hamarkadetan garapenaren gaineko eztabaidetan agertu zaigun ezinbesteko beste faktore bat jasangarritasun edo sostengarritasunaren ideia azpimarratzen duena da. Ingurumenaren gaineko kezka horren lehenengo aurrekari ofiziala Brudtland txostena<sup>31</sup> izenarekin ezaguna egin dena izan da. Txostenean definitzen den eran, garapen jasangarria hauxe litzateke: oraingo belaunaldiek euren beharriak asetzeko duten garapen-eredua, hurrengo belaunaldiena kaltetu barik. Jasangarritasunaren aldagaia garapenaren inguruko eztabaidetan sartzen dugunean, industrializazioaren edota hazkunde ekonomikoaren eta garapenaren arteko harremana are zalantzakorra goa bihurtzen zaigu zalantzarik gabe.

Horrela, giza garapenaren zein garapen jasangarriaren aldetik, hazkunde ekonomikoaren eta garapenaren arteko korrelazioak berezkoetik gutxi dauka, garrantzitsuena beraz garapen-ereduaren egitura, ezaugarriak eta kalitatea liratekeelarik. Eta horretan adostasun puntu argi bat legoke bi adar horien ikuspegietatik orain arte egin diren analisi eta hausnarketetan, alegia, giza garapen sostengarria sustatzeko birbanaketa behar-beharrezkoa izatekoa. Izan ere, oinarritzko beharren asetzea bultzatu nahi izanez gero, belaunaldi bereko herrialde eta gizarte-talde desberdinen arteko birbanaketa ezinbestekoa litzateke, eta eredu sozioekonomiko jasangarria sustatu nahi izatekotan oraingo eta etorkizuneko belaunaldien arteko birbanaketa beharko genuke ere.

Alde horretatik, eta ekonomia-integrazioaren gaira bueltatuta, birbanaketaren garrantzia berriro ere azpimarratu beharra dago garapenaren aldeko tresna gisa. Horrek aurretik aipatutako tresna birbanatzaile eta konpentsatzaileen erabilera eskatuko luke, edota gizarte- eta ingurumen-politika bidezkoarena, erregio-taldeko ekonomien arteko disparekotasunak murrizten laguntzeko eta integrazioaren onurak eta kostuak kideen artean modu orekatuan banatu ahal izateko, orain eta etorkizunean ere.

Laburbilduz, integrazio edo erregionalismoaren analisi teorikoa egitean planteatzen den eztabaida nagusietako bat zera da, horrek duen egokitasuna garapena sustatzeko tresna gisa, non integrazio-ereduaren izaera birbanatzailearen gaineko debatea garrantzi handikoa bihurtzen den. Hasiera batean, integrazioaren inguruko teorizazioak bere helburu nagusiak merkataritzaren, industrializazioaren eta haz-

---

31. Kanadako politikari honek idatzitako txostenaren izenburu ofiziala honakoa da: *Our Common Future* (Brundland, 1987).

kunde ekonomikoaren arabera zehazten bazituen ere, gaur egun, berauek birdefinitzeko beharra argia da. Era horretan, azken hamarkadetako aurrerapenek garapenaren gaineko teorizazioan giza garapen jasangarriaren kontzeptuan egiten dute azpimarra, eta alde horretatik, horixe litzateke integrazio-prozesu berriek helburutzat hartu beharko luketen erreferentzia nagusia.

## **8.2. TOKIAN TOKIKO ESPERIENZIAK**

Integrazioaren kasuistika zabala izan da historian zehar, une jakin batetik aurrera gehienbat kontzentratuta, eta kontinenteen araberrako oso esperientzia eta bilakaera desberdinak ezagutu dituelarik.

### **8.2.1. Aurrekariak eta lehenengo esperientziak**

Integrazioaren esperientzien artean historikoki lehenengoa kontsideratu dena egungo Alemanian 1833an Zollverein<sup>32</sup> sorrerarekin batera emandakoa litzateke. Ha-la ere, II. Mundu Gerraren ostera arte ez ziren agertu integrazio ekonomikoaren corpus teorikoaren gaineko aurreneko idazlanak<sup>33</sup>. Eta hortik aurrera ere hasi ziren ugaritzen kontinente gehienetan erregio-mailako integrazio-ekimenak, Mendebaldeko Europako esperientzia, zalantzarik gabe, erreferentzia nagusia izan bada ere.

Garai hartako testuingurua aproposa zen herrialdeen arteko lankidetzak eta tankera honetako ekimenetarako, besteak beste, jazo berria zen gatazka armatua bezalako beste bat saihesteko ahalegin guztiak egin behar zirela uste zelako, eta sortu berria zen GATT izeneko akordioak merkataritzaren irekiera bultzatu nahi zuelako nazioarte-mailan. Era horretan, 1951n Ikatzen eta Altzairuaren Europako Elkartea (CECA delakoa) sortu zen, 1957an Erromako Itunaren sinaduraren aurrekari bihurtuko zena. Itun horren bitartez, Europako Ekonomia Elkartea<sup>34</sup> jaio zen, denboraren poderioz, kide gehiagoren partaidetza eta integrazio-prozesuaren sakontzea ekarriko zuena gaur egungo Europar Batasunera ailegatu arte.

Integrazioaren analisi teorikoan Mendebaldeko Europako esperientziak pisu handia izan badu ere, garapen-bideko ekonomiak izan dira kopuruaren aldetik ekarpenik handiena egin dutenak, batez ere Latinoamerika eta Saharaz hegoaldeko Afrikan. Sarritan legez, faktore kualitatiboak eta kuantitatiboak ez datoz bat oraingo

---

32. Honek ekarri zuena zera izan zen, garai hartako Prusia eta Germaniako beste estatu batzuen arteko merkataritza-akordioaren ezarpena, hasiera batean merkataritza libreko zona bat sorraraziz, geroago 1870ean Alemaniako batasuna ekarriko zuena.

33. 50eko eta 60ko hamarkadetan agertutako ekarpen handiko lanen artean honako aditu hauenak aipatu beharko genituzke, besteak beste: Viner, Timbergen, Perroux, Balassa eta Bye.

34. Erromako Itunarekin batera Energia Atomikoaren Europako Erkidegoa ere jaio zen (EURATOM izenarekin ezaguna dena). Sasoi hartakoa da ere EFTA delakoa, alegia Europako Merkataritza Libreko Elkartea, zeinak Erresuma Batuen ekimenez 1960an sortutakoa, Suitza, Austria, Portugal, Islandia eta Eskandinaviako herrialdeak partaide izan zituen.



honetan ere, eta bi kontinente hauetako integrazio-ekimen hauen historia atzerapenez, akordioen ez-betetzez eta hutsegitez beteta egon da. Errealitate honek integrazio formalaren eta errealtatearen arteko aldea ulertzen laguntzen digu, non integrazio-ekimen eta siglaz betetako zenbait kontinenteren kasuan, ekonomia horien arteko benetako integrazioa hainbat alorretan (merkataritza, inbertsio, migrazio, azpiegitura-proiektu edota nazioz gaindiko erakundetzea, besteak beste) hutsaren hurrengoa izan daitekeen.

Asiaren kasuan, aldiz, alderantzizko egoera izan da ezaugarri nagusia, oso integrazio formal gutxi egonik, kontinentearen ekialdean euren ekonomien arteko harremanak intentsitate handikoak izan dira. Egon den esperientzia apurrenetako bat II. Mundu Gerraren osteko lehenengo hamarkadetan agertu zen, 1967an Asiako hego-ekialdeko Nazioen Elkarte (ASEAN) izeneko integrazio-ekimena erregio horretako herrialde batzuek sortu zutenean.

Latinoamerikari dagokionez, lehenengo aurrekariak 60ko hamarkadakoak dira ere, 1960an bertan Latinoamerikako Merkataritza Libreko Elkarte (ALALC delakoa) eta Erdialdeko Amerikako Merkatu Bateratua (MCCA izeneko) sortu ziren. Integrazioaren lehenengo olatu honek jarraipena izan zuen Karibeko Merkataritza Libreko Eremuaren sorreraren bitartez (CARIFTA delakoa) 1968an eta Andeatako Taldearen eratzearen eskutik (GRAN deiturikoa) 1969an.

Afrikaren kasuan, zenbait kasu goiztiar<sup>35</sup> suertatu baziren ere, integrazio-ekimen gehienak deskolonizazioaren ostean sortu ziren 50eko hamarkadaren amaieratik, eta batez ere, 60ko hamarkadaren hasieratik aurrera. Horrela lehenengo fase horretan 1964an Erdialdeko Afrikako Aduana eta Ekonomia Batasuna (UDEAC izeneko) jaio zen, haren ostean 1966an Mendebaldeko Afrikako Aduana eta Ekonomia Batasuna (UDEAO delakoa) eta 1967an Ekialdeko Afrikako Ekonomia Elkarte (EAEC deiturikoa).

### 8.2.2. *Europa*

Mendebaldeko Europako integrazio-prozesua izan da zalantzarik gabe literatura espezializatuan arreta gehien erakarri duena, eta sarritan formatu eredugarritzat hartu izan dena. 50eko hamarkadaren hasierako urratsetatik fase ugari bereizi beharko genituzke gaur egun ezagutzen dugun Ekonomia eta Diru Batasunera ailegatu artean.

---

35. XIX. mendearen amaieratik aurrera merkataritza-akordio ugari sortu ziren Afrikako hegoaldeko garai hartako estatu kolonialen artean. Eta Hegoafrikako estatuaren sorrerarekin batera 1910ean SACU izeneko integrazio taldea (Hegoaldeko Afrikako Aduana Batasuna) sortu zen egungo Hegoafrika, Botswana, Lesotho eta Swazilandiaren artean, mendearen amaieran, bere independentziarekin batera Namibia formalki bildu zitzaizlarik. Horrez gain, independentzia-garaitik hurbilago, 1953an *Rhodesia eta Nyasalandgo Federazioa* sortu zen egungo Zimbabwe, Zambia eta Malawiren artean.

CECA delakoa ikatzak eta altzairuaren merkatua zabaldu eta koordinatzeko 1951n sei herrialdek (Mendebaldeko Alemania, Italia, Frantzia, Belgika, Herbehereak eta Luxenburgo) sortu zutenetik, aurrerapen eta etapa ugari bete ditu integrazio-ekimen honek. Besteak beste honako hauek aipa daitezke: Erromako Itunaren bitartez Europako Ekonomia Elkartearen sorrera 1957an; Aduana Batasunaren osaketa 1968rako; 1986an Akta Bakarra sinatu zen, merkantzien mugikortasuna bermatuz eta merkatu bakarra sortuz; Europar Batasuneko Ituna, 1992an Maastrichten sinatutakoa, kideen ekonomien arteko konbergentzia bultzatzeko helburuarekin; 2002an euroa moneta bakar gisa indarrean jartzea; eta erakundearen zabalkundea kide berrien etorreraren bitartez (Bretainia Handia, Danimarka eta Irlanda 1973an, Grezia 1981ean, Espainia eta Portugal 1986an, Suedia, Finlandia eta Austria 1995ean, Erdialdeko eta Ekialdeko Europako 10 herrialde batera<sup>36</sup> 2004an, Bulgaria eta Errumania 2007an sartutako azkenak izanik orain arte, gaur egungo EB-27 osatuz).

Europa ekialdeko herrialde askok oso harreman estuak izan zituzten integrazio-ekimen honetako kideekin Europar Batasunera sartu baino lehenago. Horiez gain, erregio-talde honekin historikoki lehentasunezko erlazioa mantendu duten beste herrialde batzuk lehen aipatutako EFTA izeneko ekimenekoak izan dira. Denboraren poderioz horietako asko Europar Batasunean sartzen joan badira ere, gaur egun geratzen diren laurekin (Islandia, Norvegia, Suitza eta Liechtenstein) oso harreman pribilegiatua mantentzen dute merkatuen merkataritza eta inbertsioen irekierari begira.

Europar Batasuneko ereduak integrazioaren eskema tradizionala gainditzen du alor askotan: Nekazaritza Politika Bateratua, sektore honen babesa bilatzen duena aurrekontu-laguntzen bitartez; garapen-maila baxuagoko herrialdeekiko birbanaketa-tresnen aplikazioa (Egiturazko eta Kohesio Sozialerako Funtsak); Maastrichteko Itunak bultzatutako Ekonomia eta Diru Batasuna, zenbait aldagairen gaineko konbergentziarako baldintzen bidez (moneten kotizazio, defizit publiko, inflazio, interes-tasa, eta zor publikoen gainekoak); kanpo- eta defentsa-politika bateratuak; Schengeneko Akordioek ahalbidetutako mugez gaindiko pertsonen mugimendua; eta erakundetze-maila altua, besteak beste, Europako Banku Zentrala, Europako Inbertsio Bankuaren, Europako Legebiltzarraren, Europar Batzordearen eta Europar Batasuneko Kontseiluaren bitartez. Orintsu aipatutako berezitasunez gain, zalantzarik gabe Europar Batasuneko oso kasu singularra bihurtzen dutena, merkatuen alorrera bakarrik mugatuko bagina ere, hauxe da: integrazio-ekimen bakarra dela munduan, merkataritzaren<sup>37</sup>, inbertsioen eta pertso-

36. Polonia, Txekia, Eslovenia, Hungaria, Estonia, Eslovakia, Txipre, Letonia, Lituania eta Maltz ari gara.

37. Merkataritzaren liberalizazioaren eta bere ekonomien dibertsifikazio-maila handiaren ondorioz, zona barruko merkataritza-portzentajea mundu-mailan dagoenik eta handiena da, bere esportazio guztien % 67,6koa erregio-talde honetara bideratzen delarik (UNCTAD, 2008).

nen mugikortasuna bermatzen duena, lan-merkatuaren liberalizazio-prozesu hauen gauzatzea oso ezohikoa izaten delarik.

Aipatutako guztiagatik, integrazio-ekimen hau hainbat adituren esanetan eredugarritzat hartu beharko bagenu ere, haren analisisia ez da atal honen helburua, gai hau jorratzen duten liburu eta material ugari eskuragarri baitago. Aldiz, azpimarra nagusia garapen-bideko herrialdeetan sortzen diren ekimen anitz eta haien eredueta egin nahi dugu, eta batez ere hauen eta herrialde industrializatuen artean zabalduetako formatu berriko inbertsio eta merkataritza-akordioetan. Hala eta guztiz ere, gaitetik besterik ez bada ere, Europar Batasuneko ereduaren ezaugarri nagusiak aipatzea oso komenigarritzat jotzen dugu beste integrazio-ekimen batzuekiko konparaketa egin ahal izateko.

Europar hasi eta Asiaraino zabaltzen den beste kasu bat, baina integrazioari dagokionez arreta handirik erakarri ez duena, Estatu Burujabeen Batasuna da (CEI<sup>38</sup> delakoa). Honen arrazoi nagusia garai bateko Sobiet Batasuneko herrialde gehienek osatutakoa izatea eta, alde horretatik, nolabaiteko desintegratio-prozesu baten berreraikuntza partzialtzat hartu beharko genuke. Haren sorreratik eztabaida eta desadostasun ugari suertatu dira zenbait kideren artean integratio-ekimenaren izaerari begira egon daitezkeen posibilitateen gainean (ekonomikoa, militarra eta politikoa), baita Errusiak erregio-taldean bertan jokatu beharko lukeen rolaren inguruan, besteak beste Ukrainiak eta Georgiak lehenengoaren mendekotasunarekiko aitzakia handiak erakutsi dituzte.

### 8.2.3. *Amerika*

Lehen aipatu bezala, eta beste kontinenteen antzean, Amerikakoan XX. mendean bigarren erdiaren hasierara arte ez ziren sortu lehenengo integratio-ekimenak. Aurrenekoak Latinoamerikako Merkataritza Libreko Elkartea eta Erdialdeko Amerikako Merkatu Bateratua (ALALC<sup>39</sup> eta MCCA<sup>40</sup> delakoak) izan ziren, eta Karibeko Merkataritza Libreko Eremua eta Andeatako Taldea (CARIFTA<sup>41</sup> eta GRAN<sup>42</sup> deiturikoak) ostean eratu ziren. Lehenengo belaunaldiko integratio-ekimenek

---

38. Lehenengo Sobiet Batasuneko 15 kideetatik 11 herrialdek osatu zuten komunitate hau 1991n, Baltikoko herrialdeak (Estonia, Letonia eta Lituania), eta 1993an sartu zen Georgia, kanpoan geraturik hasiera batean: Armenia, Azerbaijan, Bielorrusia, Errusiako Federazioa, Georgia, Kazajistan, Kirguistan, Moldavia, Tayikistan, Turkmenistan, Ukraina eta Uzbekistan. Azken urteetan Turkmenistan eta Georgia irten dira erregio-talde honetatik.

39. ALALC delakoa Montevideoko Itunaren bitartez sortu zen 1960an Argentina, Chile, Uruguay, Paraguay, Brasil, Peru eta Mexikoren artean; geroago, Kolonbia, Ekuador, Venezuela eta Bolivia bildu zitzaizkien.

40. MCCA izenekoa Managuako Itunaren bidez sortu zen 1960an El Salvador, Guatemala, Honduras eta Nikaraguak osaturik hasiera batean, Costa Rica 1962rako erregio-taldera sartu zelarik.

41. CARIFTA delakoa, 1965eko Dickensongo Bahiako Itunaren bidez sortutako elkartea, Antigua eta Barbuda, Barbados eta Guyanaren artean, 1968an ituna indarrean jarri artean zortzi herrialde gehiagoren sarrerarekin batera (Jamaika, Dominika, Granada, Montserrat, Trinidad eta Tobago, San

CEPAL (Latinoamerikarako eta Kariberako Batzorde Ekonomikoa) izeneko erakundearen sostengua jaso zuten, «barrura begirako garapen-eredua» bultzatu nahian.

Erregio-talde hauek geroago eraldatuak izan ziren. Horrela ALALC izeneko ALADI (Latinoamerikako Integrazio Elkarte) bihurtu zen 1980an bere 11 kideek<sup>43</sup> horrela adostuta. CARIFTA delakoari dagokionez, ekimen hau 1973an eraldatu zen CARICOM<sup>44</sup> (Karibeko Merkatu Bateratua) sorturik, Chaguaramaseko Itunaren bitartez. MCCAre kasuan aldaketarik egon ez bada ere alde horretatik, 1991n SICA izeneko beste erakunde (Latinoamerikako Integrazio Sistema) bat sortu zen MCCAreko bost kidez gain, Belize eta Panama barneraturik, eta beste maila batean Dominikar Errepublikak ere estatu bazkide gisa hartuta. Eta GRAN izeneko Andeetako Elkarte (CAN) bihurtu zen 1997an lehenengo akordioan zenbait aldaketa ezarri Trujilloren Protokoloaren bitartez.

Ezegenkortasun politikoak, gatazka armatuak eta 80ko hamarkadan agertutako kanpo-zorraren krisiak oso eragin kaltegarriak izan zituzten kontinente honetako integrazio-ekimenen bilakaeran. Gainera, egiturazko doikuntza-politiken aplikazioak 80ko hamarkadan aldaketa nabarmena ahalbidetu zuen ordura arteko zenbait ekonomia-politikan, eta integrazioaren inguruko korrante desberdinen arteko eztabaidan kanpora begirako ereduaren aldeko apustu argia egin zuen.

«Galdutako hamarkada» deitua izan zen horren ostean beste integrazio talde batzuk sortu ziren, azken aldiari oihartzun handiak bihurtu direnak. Baten eta besteen integratzeko ereduak oso desberdinak badira ere, XX. mendeko azken hamarkadan sortutako MERCOSUR<sup>45</sup> eta NAFTA-TLCAN<sup>46</sup> izenekoak izan dira literatura espezializatuan Amerikako kontinentean arreta gehien erakarri dutenak azken urteetan. Geografikoki, bakoitza mutur batean, ereduaren aldetik ere, esan bezala, oso diferenteak dira.

Horrela, MERCOSURi dagokionez, haren helburuak oso handinahiak dira, arantzel bateratu batetik hasita, pertsona eta kapitalen mugikortasunetik pasatuta, eta ekonomia-politikan koordinazioan amaituta. Azken urteetan, eta gehienbat

---

Cristobal eta Nieves, Santa Luzia, eta San Vicente eta Granadinak), eta Belize 1971n erregio-taldera bildu zitzairen.

42. GRAN deiturikoa, 1969an Cartagenako Akordioaren bitartez jaiotzen Boliviak, Kolonbiak, Txilek, Ekuador eta Peruk osatutakoa, 1976an, Txilek taldetik alde egitea erabaki zuelarik.

43. ALADI izeneko integrazio-ekimen honetara Kuba ere sartu zen 1999an, 12 kideko taldea osatuz.

44. Beste hiru herrialde gehiagoren sarrerarekin (Bahamak 1983an, Surinam 1995ean eta Haiti 1997an) gaur egun erregio-taldea 15 kidera ailegatuta dago.

45. Hego Konoko Merkatu Bateratua 1991n sortu zen egungo 4 kideren (Argentina, Brasil, Paraguay eta Uruguay) artean Asunciongo Itunaren bidez. Horiez gain, beste formatu batean, alegia herrialde bazkide gisa, Boliviak, Txilek, Kolonbiak, Ekuador, Peru eta Venezuela ere barneratzen ditu.

46. Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Akordioa, AEB, Kanada eta Mexikoren artean osatutakoa, 1994an sartu zen indarrean, lehenengo biek 1989tik euren arteko sinatuta zutelarik.

2002an Olivos izaneko hirian izandako gailurretik erakundetzearen aldeko apustu argiagoa egin da, idazkaritza berrindartuz, moneta-erakunde bateratua sortzeko aukera irekiz, eta Kontrobertsiak Berrikusteko Tribunal Iraunkorra izeneko erakundea sortuz. Erakundeen berreraikitze eta berrindartze honen bidetik, 2005aren amaieran MERCOSUREko Legebiltzarra ere sortu zen, 2007ra arte funtzionatzen hasi ez zena. Horrez gain, kideen arteko disparekotasun eta egiturazko asimetriki-ko ardura bere sorreratik egon bada ere, 2004ra arte ez da funts bat osatu propio arazo horri aurre egin ahal izateko. FOCEM izenekoak (MERCOSUREko Egiturazko Bateratzerako Funtsa), Europar Batasuneko ereditutik inportatutakoak, ekonomia ahulenen eta garapen gutxiagoko eskualdeen aldeko proiektuak finantzatzeko helburua du. Ekoizpenaren zenbait alorretan ere, nekazaritza familiar eta energia-aren kasuetan, adibidez, kideen arteko lankidetzarako politika bateratuak bultzatzeko helburua du integrazio ekimen honek.

NAFTA-TLCANen kasuan, aldiz, planteamendua nabarmen desberdina da. Printzipioz, integrazio-ekimen modura, bere helburuak ez lirateke oso handinahiak izango, kideen arteko arantzelen desagerpenaren bitartez merkataritza libreko eremu bat osatzea egitasmo nagusia litzatekeelarik. Hauxe AEBetan eta Kanadaren arteko akordioaren luzapena da, lehenengo aldiz herrialde industrializatu aberatsak eta garapen-bidekoak bilduz merkataritza libreko eremu batean. Erakundetze-maila txikia eta integrazioaren kostu eta onuren birbanaketarekiko ardura eskasa izan dira integrazio-ekimen honen beste ezaugarrietako batzuk, erregionalismo irekiaren ereduarekin bat eginik<sup>47</sup>.

Alde batetik akordioak ez du merkataritza libreko benetako eremu bat osatzen, besteak beste salbuespenak mantentzen direlako ekoizpenaren zenbait alorretan, laguntzak jasotzen jarraitzen dituen AEBetako nekazaritzarenean bezala. Baina bestaldetik, integrazioaren lehenengo fase hori gainditu egiten du nabarmen beste zenbait kasutan gai berriak sartuz, jabego intelektualaren inguruko eskubideen gaia edota kapital-merkatuaren liberalizazioarena dira adibide esanguratsuak.

Afrikaren kasuan geroxeago ikusiko dugun legez, Amerikako erregio-taldearen izenak eta integrazioaren alorrean egindako lorpenak sarritan ez datoz bat, eta, adibidez, merkatu bateratuen kasuan lan eta kapitalaren talde barruko mugikortasuna ez da gertatzen. Izan ere, MCCA, CARICOM eta MERCOSUREn kasuetan, merkataritza libreko eremuaren ostean, atzerapen eta zailtasun asko gaindituta, aduana-batasunera besterik ez da ailegatu, haien izenetan adierazten den merkatu bateratua etorkizunerako helburu gisa hartu beharko litzatekeelarik. NAFTA-TLCANi erreparatuta, kasua kontrakoa litzateke, alegia, izenak berak adierazten

---

47. MERCOSUREko adibideaz gain, Amerikako kontinentean eredu honekiko kontrajarria agertzen zaigun beste ekimen bat CANekoa da. Izan ere, Andeetako Elkarrean erakundetzeari garrantzi handia ematen zaio (besteak beste, dituen erakundearen artean honako hauek aipa genitzake: Andeetako Legebiltzarra, Kanpo Harremanetarako Ministroen Kontseilua, Justizia Epaimahaia, etab.).

duena baino askoz ere urrunago doalako integrazio-ekimen hau zenbait alorretan, Munduko Merkataritza Erakundearen onartuta dauden akordioetatik harago joanez, besteak beste, kapitalen liberalizazioari, jabeago intelektualaren gaineko eskubideei edota erosketa publikoei begira, «MME+» deitua izan den arategi mota bultzatu da.

Kontinente honetako integrazio-talde barruko merkataritzari dagokionez, hauexek dira ekimen batzuen eta besteen arteko diferentziak mailarik altuenetik baxuenera: NAFTA % 53,8; MCCA % 16,8; ALADI % 14,3; MERCOSUR % 13,5; CARICOM % 11,3 eta CAN % 8,4 (UNCTAD, 2008). Horrez gain, beste faktore batzuk erabil nahi baditugu erregio-talde bakoitzaren ekarpenak ebaluatzeko, erakundetze-maila, birbanaketarekiko sentikortasuna eta garapena (zentzu zabal batean) sustatzeko martxan jarritako politikak eta erabilitako tresnak aipatu behar ko genituzke. Oraintsu ikusi bezala, pare bat adibideren bitartez, hauetan ere erregio-taldearen arteko aldeak oso adierazgarriak dira.

#### **8.2.4. Asia eta Ozeano Barea**

Zonalde hau ez da izan oso tradizio handikoa integrazioren alorrean. Izan ere, Asiaren kasuan sarritan integrazio formal txikiak eta integrazio erreal handiak hitz egiten da, adierazi nahian historikoki integrazio-ekimenak ez direla oso ohikoak izan ezta konpromiso- edo erakundetze-maila handikoak ere, baina, merkataritza- eta inbertsio-harremanak, berriz, intentsitate zabalekoak izan dira, bereziki oso dinamismo ekonomiko handia erakutsi duen Asiako ekialdean.

Inguru horretako integrazio-prozesurik bakarrenetakoa eta arrakastatsuenak Asiako hego-ekialdeko Nazioen Elkarte (ASEAN) izenekoa da. 60ko hamarkadan sortutako erregio-talde hau Filipinak, Indonesia, Malaysia, Singapur eta Tailandiak osatutakoa izan zen hasiera batean, Gerra Hotzaren testuinguruak nabarmen baldintzaturik, eta AEBetako gobernuaren babesarekin, komunismoaren orduko mehatxuari aurre egiteko asmoz. Brunei 1984an erregio-taldera sartu zen Britainia Handiarekiko independentzia eskuratu eta gero. Testuinguru politikoa hain erabakigarria izanik, 90eko hamarkadaren bigarren erdira arte ez dugu ikusi iragan komunistakoak izandako Vietnam, Laos, Myanmar, Kanbodia eta beste herrialde batzuen sarrera integrazio-ekimen honetara.

1976ra arte kideen arteko harremana lankidetzara mugatu zen, batez ere gatazkak ekidin eta segurtasuna bermatzeko. Hortik aurrera gai ekonomikoek garrantzia handiagoa hartu zuten, besteak beste ondoko sektore hauetan, nekazaritza, industria, garraioak eta merkataritza. 90eko hamarkadaren hasieran ASEANgo kide fundatzaileek (Filipinak, Indonesia, Malaysia, Singapur eta Tailandiak) merkataritza libreko eremu bat sortzea proposatu zuten. Hortik aurrera beste kide guztiak joan ziren horretara biltzen merkataritzaren liberalizazio-erritmo desberdinekin, garapen-maila baxuagokoei epemuga zabalagoak eskaini zitzaizkielarik.

2010erako lehenengo sei kideen arantzelen eta hesi ez-arantzelarioen erabateko desagertzea aurrikusten da eta 2015erako gainerako laurena.

Asiako kontinentean dagoen beste integrazio-ekimenetako bat SAARC ize-nekoa da (Hego Asiako Eskualdeen Lankidetzarako Elkartea), ondoko 7 herrialde hauek 1985ean osatua: Bangladesh, Butan, India, Maldivak, Nepal, Pakistan eta Sri Lanka. Erregio-talde horrek arrakasta handirik izan duenik ezin da esan, besteak beste, bi kide nagusien arteko harreman gatazkatsuek, alegia Indiaren eta Pakistanen artekoek, aukera askorik eman ez dutelako kideen ekonomien artean lankidetzak sakontzeko. Horrez gain, eskualde horretan Indiako ekonomiak beste guztiekiko duen nagusitasunak ere errezelo handiak sortu ditu gainerako kideen artean historikoki, haien ekonomiak zenbait alorretan liberalizatzeko egitasmoaren aurrean, akordiorik eza eta atzerapenak nagusi izan direlarik.

Ozeano Barearen kasuan dugun lehenengo integrazio-ekimena ANZCERTA deiturikoa da (Australiaren eta Zeelanda Berriaren arteko Harreman Ekonomiko Hurbilagoetarako Merkataritza Akordioa), Ozeaniako bi herrialde horiek 1983an sortutakoa, eta 1988an berrikusia izan zena. Horrek 1965ean oso arrakastatsua izan ez zen merkataritza libreko beste akordio bat izan zuen aurrekari gisa. ANZCERTA-ren helburu nagusia merkataritzaren liberalizaziora mugatuta bazegoen ere, ordura arteko arantzelez gain, hesi kuantitatiboak eta esportazioetarako laguntzak desagerrarazteko asmo argia zuen. Hala ere, nekazaritzaren aldeko neurri babeszaleak eta salbagoardiako zenbait neurri mantendu egin ziren. Zerbitzuen alorrean ere gauzatu zen liberalizazio-prozesu bat bi herrialde horien artean, salbuespenen zerrenda batean zerbitzu estrategikoen zenbait kasu zehaztu egiten baziren ere.

Bukatzeko, azken hamarkadetan inguru horretan sortutako beste integrazio-ekimen bat APEC deiturikoa da (Asia eta Ozeano Bareko Elkarlaguntzarako Foroa). 1989an sortu zen, eta hasiera bateko kideak honako hauek izan ziren: Ameriketako Estatu Batuak, Australia, Brunei, Kanada, Filipinak, Hego Korea, Indonesia, Japonia, Malaysia, Singapur, Tailandia, eta Zeelanda Berria. Txina, Hong Kong eta Taiwanek bat egin zuten proiektuarekin 1991n; gero Mexiko eta Papua Ginea Berria 1993an eta Txile 1994an erregio-taldera bildu ziren. Azkenik, 1998an Peru, Errusia eta Vietnam sartu eta kideen kopurua gaur egungo 21era ailegatu zen. Helburuen artean merkataritza eta inbertsioen liberalizazioa egon da hasieratik, baina horiek aurrera eramateko prozedura norberaren borondatearen arabera izan da, alegia, akordioak betetzeko obligaziorik gabekoa eta zenbait sektoretan kontzentratuta.

Talde horrek planteatzen dituen nobedadeen artean honako bi hauek aipa genitzake: kontuan hartzen dituen eremu geografiko zabala, kideen kopuru altua, garapen-maila desberdina, bi kontinentetako herrialdeen harreman ekonomikoak (ondasun, zerbitzu eta kapitalen alorrean, batez ere) trinkotu nahi ditu, aurrekaririk gabeko integrazio-ekimen batean; eta konpromiso- eta erakundetze-maila gutxiko

proiektua, tradizionalki lotura ekonomiko txikia duten zenbait herrialde zaku berdinean sartzeko ahalegina egiten duenez, haien artean adostutako akordioak oso exijentzia handikoak ezin direla izan ulertuz. Konpromiso-maila txikikoa izanik erakunde hau, emaitzak ebaluatzea ez da erraza egiten bere ibilbide laburrean. Aldiz, ezin da ukatu estrategikoki ez duela apustu makala egiten, saiatzen baita biltzen munduan dauden bi zonarrik dinamikoentako zenbait ekonomia (Amerikako eta Asiako ekialdekoak), Europak eta bere periferiak osatzen duten hirugarren bloke nagusiaren aurrean. Aipatutako ezaugarri hauengatik hain zuzen aditu askok ekimen hau erregionalismo irekiaren lehenengo erreferentzia nagusia dela adierazten dute eta, alde horretatik, bateragarria mundu-mailako merkataritzaren eta inbertsioen liberalizazioa bultzatzeko dauden eta egon daitezkeen beste ekimen batzuekin.

Amaitzeko, oso garrantzi handikoa ez bada ere, Asiako mendebaldean edota Ekialde Hurbilean dagoen integrazio-ekimen bakarra aipatu beharko genuke, GCC delakoa (Golkoko Lankidetzarako Kontseilua). Integrazio-ekimen hau 1981ean sortu zen, eta Arabiar Emirerri Bateratuak, Barheim, Saudi Arabia, Oman, Qatar eta Kuwait ditu kide. Haren helburua merkatu bateratua osatzea bada ere, aduana batasuna da orain arte izan duen lorpenik handiena, 2003tik indarrean sartu zenetik.

Hasieran esan dugun legez, beste kontinente batzuekin alderatuta, Asia aldean ez da tradizio handirik egon integrazio-ekimen formalei dagokienez, dinamismo handiagoko zonetan, eta ekialdean bereziki, integrazio erreal handia egon bada ere. Golko aldean, aldiz, kide gehienak petrolio-esportatzaileak izanik, haien arteko trukeak urriagoak dira. Aurretik esan bezala, integrazio-ekimenak ebaluatze askoz ere faktore gehiago beharko genituzkeen arren, historikoki kontinenteko erregio batzuen eta besteen arteko diferentziak, gainerik besterik ez bada ere, ohiko aldagairi erreparatuta ikus daitezke, alegia, integrazio-talde barruko merkataritzari begira: APEC % 69,4; ASEAN % 24,9; SAARC % 5,6; GCC % 4,8 (UNCTAD, 2008).

### 8.2.5. *Afrika*

Asian ez bezala, Afrikako kontinentean integrazioaren aldeko ekimen formalak oso ugariak izan dira, euren ekonomien arteko bateratze-maila eta integrazio erreal oso intentsitate gutxikoak izan badira ere merkataritzan zein inbertsioen alorrean. Aurrerago aipatu legez, UDEAC<sup>48</sup>, UDEAO<sup>49</sup> eta EAEC<sup>50</sup> izenekoak izan ziren deskolonizazio-garaitik aurrera agertutako lehenengo erregio-taldeak, Afrika-

---

48. UDEAC izenekoak Erdialdeko Afrikako 5 herrialde frankofonok sortua zen (Erdialdeko Afrikako Errepublika, Gabon, Txad, Kongo eta Kamerunek osatuta).

49. UDEAO delakoa Mendebaldeko Afrikako 8 herrialde frankofonok osatua izan zen (Benin, Burkina Faso, Boli Kosta, Niger, Togo, Mauritania, Mali eta Senegalek), 1972an CEAO bihurtu artean, alegia Mendebaldeko Afrikako Elkarrekin Ekonomikoa.

50. EAEC deituriko integrazio ekimen hau Kenya, Tanzania eta Ugandaren artean sortu zen 1967an, eta 10 urte geroago desagertu zen.



ko erdialdean, mendebaldean eta ekialdean hurrenez hurren. 60ko hamarkadako proiektu hauen ostean, 1975ean kontinentearen mendebaldean agertu zen gaur egun oraindik bizirik jarraitzen duen integrazio-ekimen nagusietakoa, ECOWAS-CEDEAO deiturikoa (Mendebaldeko Afrikako Estatuaren Ekonomia Elkartea), erregio horretako herrialde frankofono zein anglofonoak bilduta. Honen aurreko proiektuak Frantziako kolonia ohiek sortutakoak izan zirenez, tamaina handiagoko honek inguru horretako liderrak, hau da Nigeriak, bultzatutakoa izan zen, ordura artekoen indarra konpentsatzearen. Lehenengo belaunaldiko ekimen hauen bultzatzaile nagusietakoa OUA delakoa (Afrikar Batasunaren Erakundea) izan zen, eta haren helburu nagusien artean panafricanismoaren aldarrikapena agertzen da.

80ko hamarkadan, azkenik, agertu ziren lehenengo belaunaldiko azken integrazio taldeak kontinentean, denborarekin eraldatzen joan direnak, funtzioei, kideei eta baita izenei dagokienez ere. Horien artean 1980an SADCC izenarekin sortutakoa eta 1992an SADC bihurtu zena (Hegoaldeko Afrikako Garapen Elkartea). 1983an ECCAS-CEEAC delakoa agertu zen (Erdialdeko Afrikako Estatuaren Ekonomia Elkartea), gaur egunera arte ere iruan duena. 1982an PTA deiturikoa sortu zen lehentasunezko merkataritza-akordio gisa, 1994rako COMESA bihurtu zena (Hegoaldeko eta Ekialdeko Afrikako Merkatu Bateratua). Orain arte ikusi dugun legez, erregio-talde gehienak Saharaz hegoaldeko Afrikan kontzentratu badira ere, kontinentearen iparraldean integrazio-ekimen bat badago, UMA izenekoa, Arabiar Magrebeko Batasuna alegia, 1989an eratutakoa<sup>51</sup>.

Horrela, 90eko hamarkadan, munduko beste erregio askotan bezala, erregionalismoaren bultzada berri batek eraginda, eta kontinente barruko zein kanpoko zenbait gertakarik baldintzatuta, Afrikako zenbait integrazio-ekimenen berrantolamendua eta berreraikuntza gauzatu zen eta 1. irudian erakusten diren erregio-taldeen osaketa konplexua suertatu. Koordinazio gutxiko eta solapamendu askoko ekimen ugari hauen mapa nahasiaz hitz egiterakoan, atentzioa ematen du literatura espezializatuan erabiltzen den kontzeptuak, hots *spagetti bowl*, nolabaiteko nahasmena erakusten duten ezaugarri horiek guztiak irudi bakarrean adierazi nahi izatea.


Aipaturiko gertakari hauetako entzutetsuena Hegoafrikako *apartheid* deituriko erregimenaren amaiera izan zen, zeinak inguruko herrialdeekin batera osaturiko erregioan aldaketa nabarmenak ekarri baitzituen. Era horretan, ordura arteko erregimen arrazistaren amaiera ofizialarekin batera, nazioarteko boikotaren eta bizilagunekiko harremanen normalizazio-prozesuari hasiera eman zitzaion. Horrek, besteak beste, COMESA eta SADCen arteko kompetentzia sortu zuen erregio horretako erraldoia, eta potentzialtasun handiena daukan ekonomia erakartzeko. 1994an Hegoafrikako gobernuak SADC izenekoan sartzeko erabakia hartu zuenetik, integrazio-talde horrek protagonismo eta espektatiba handiak hartu zituen

---

51. UMA delako erregio-taldea honako herrialde hauek osatzen dute: Algeriak, Libiak, Mauritaniak, Marokok eta Tunisiak.

COMESAren kaltean<sup>52</sup>, eta azken horrek zenbait kideren irteeraren ostean bere burua birdefinitzeko beharra izan zuen.

1. irudia: Afrikako erregio-talde nagusiak.



Iturria: egileak eginda.

*Akronimoa eta erregio-taldea sortutako urtea:*

- CEMAC: Communauté Économique et Monétaire de l'Afrique Centrale (1994)
- COMESA: Common Market for Eastern and Southern Africa (1994)
- ECCAS-CEEAC: Economic Community of Central African States-Communauté Économique des États de l'Afrique Centrale (1983)
- ECOWAS-CEDEAO: Economic Community of West African States-Communauté Économique des États de l'Afrique de l'Ouest (1975)
- SADC: Southern African Development Community (1992)
- SACU: Southern African Customs Union (1910)
- UMA: Union du Maghreb Arabe (1989)
- UEMOA: Union Économique et Monétaire Ouest Africaine (1994)
- EAC: East African Community (1999)

Moneta-batasunera iritsitako kontinenteko bi erregio-taldeek, UEMOAK eta CEMACek (Mendebaldeko Afrikako Ekonomia eta Diru Batasuna, eta Erdialdeko Afrikako Ekonomia eta Diru Elkarteak) 90eko hamarkadan hartu zuten bultzada handi bat euren burua birdefinituta. Bi ekimen horiek nahiko atipikoak direla esan genezake integrazioren fase tradizionalak betetzear, moneta bakarraren erabilera

<sup>52</sup>. Arazo horrez gain, COMESAk bazituen bestelako eragozpenak ere alde zuzenetik, besteak beste, ondo definitu gabeko oso zona zabala hartzen zuela erreferentziatzen (Afrikako hegoalde eta ekialdea), eta lotura ekonomiko handirik ez duten mutur bateko (Egipto eta Sudan) zein beste (Angola eta Swazilandia) herrialdeak bere baitan biltzen ditu.

Frantziako kolonialismoaren herentzia gisa jaso baitzuten (CFA deituriko libera), merkataritzaren liberalizazioaren alorrean urrats esanguratsuak ematen hasi baino lehenago. Eta azkenik, hamarkada honetakoa da ere birsortutako eta birdefinitutako beste ekimen bat, EAEC gisa sortu eta desagertu eta gero, 1999an berragertutako EAC<sup>53</sup> delakoa (Ekialdeko Afrikako Elkartea).

Amerikako kontinentean bezala, 80ko hamarkadan nolabaiteko inflexio-puntua agertu zen bi integrazio-korronte nagusien talka gauzatu zenean. Horrek bere isla nagusia izan zuen OUA izeneko erakundeak PAL delakoa (Lagoseko Ekintza Plana) bere egitasmoaren aldarrikapena egin zuenean 1980an. Horren bitartez, barrura begirako integrazio-eredu baten aldeko apustua egin nahi zuen erakunde panafrikantistak. Baina burutu bezain laster Munduko Bankuaren eta Nazioarteko Diru Funtzaren erreakzioa etorri zen 1981eko Berg izeneko txostenaren argitalpenarekin. Txosten horretan integratzeko eredia kanpora begira izan behar zela gomentatzen zen, eta horretarako merkataritzaren liberalizazioa, eta ekonomiaren irekiera oro har, izan behar zirela lehentasunezko tresnak garapenerako bidean. Bigarren eredu honen hedapena bi erakunde horiek inposatutako egiturazko doikuntza-politiken bitartez gauzatu zen, zeinak zorpetutako herrialdeek finantzazioa eskuratzeko ezinbesteko baldintza bihurtu baitziren. Harrezkero, bi integrazio-ereduon arteko ika-mika etengabea izan da, globalizazio neoliberalaren garaian bigarrenaren gailentzea nabarmena izan bada ere.

Oro har, Afrikako integrazio-ekimenen inguruan nahiko zabaldua dagoen ustea zera da, hauek ez direla batere arrakastatsuak izan, ez behintzat ohiko parametroen arabera neurtu egiten baditugu haien lorpenak. Alde horretatik, egia da Afrikako erregio-talde barruko merkataritza-munduan dagoen baxuenetakoa dela<sup>54</sup>, baina ez soilik liberalizazio-prozesuak apalak izan direlako integrazio-ekimenetan, baizik eta baita kolonizazioak baldintzatutako bertako ekoizpen-sistemak lehenengo sektoreko esportazioetan oraindik ere oinarrituta daudelako. Horrez gain, aintzat hartu beharko genuke, kontinente honetako ezegonkortasun politikoak, gatazka armatuek, garraio-azpiegituren eskasiak, eta bestelako egiturazko arazoek zerikusi handia izan dutela ere integrazio-taldeen hainbat alorretan izandako aurrerapen txikiarekin.

Hala eta guzti ere, azken urteetan zenbait erregio-taldek aurrerapen nabarmena izan dute merkataritza liberalizatzeko, besteak beste honako hauek: zenbait gobernuen erresistentzia eta atzerapenekin bada ere, ECOWAS-CEDEAOk

---

53. Hasierako kideek (Kenya, Uganda eta Tanzania) berpiztutako integrazio-ekimen honek Ruanda eta Burundi ere erakarri ditu bere baitara azken urteetan.

54. Kontinente osoko barne-merkataritza orokorrean oso baxua da. Mailarik altuenetik baxuenera integrazio-ekimenen arteko ondoko diferentziak nabarmentzen dira: UEMOA % 13,1; SADC % 9,1; ECOWAS-CEDEAO % 8,3; COMESA % 4,2; UMA % 2; ECCAS-CEEAC % 0,6; CEMAC % 0,9 (UNCTAD, 2008).

merkataritzaz libreko eremu bat osatua du ofizialki 2000tik, eta aduana-batasuna osatzea aurreikusten zen 2008rako; UEMOAREN eta CEMACEN kasuan aduana-batasuna 2000tik ere ofizialki sortua da; SADCri dagokionez, merkataritzaz libreko eremua 2008an sortu zen, 2010erako aduana-batasuna, 2015erako merkatu bateratua eta 2018rako moneta bakarraren ezarpena aurreikusita daudelarik. EACren kasuan, 2005ean lehenengo 3 kideen arteko (Kenya, Tanzania eta Uganda) aduana-batasuna sortu zen eta 2009an sartu berriak ziren beste birekin (Ruanda eta Burundi).

Baina zona barruko merkataritzaren alorrean emandako aurrerapen eskasak alde batera utzita ere, esan genezake Afrikako erregio-taldeek bestelako ekarpenak egin dituztela beste zenbait alorretan. Izan ere, erakundetze-maila nabarmena da horietako batzuetan: ECOWAS-CEDEAO izenekoak, beste batzuen artean, honako organoak sortu ditu: Elkartearen Batzordea, Justizia Tribunalak, aholku-mailako funtzioak betetzen dituen Elkartearen Legebiltzarra, Inbertsio eta Garapenerako Elkartearen Bankua, eta zenbait agentzia sektorial, osasun, energia, ur edota generoaren alorretan. SADCek, besteak beste, Ministroen Kontseilua, Justizia Tribunalak, segurtasun-gaietarako berariaz sortutako Politika, Defentsa eta Segurtasunerako Organoa, Batzorde Sektorialak (azpiegiturak, baliabide naturalak, defentsa eta segurtasuna, giza garapena, merkataritzaz, industria, etab.) eta zenbait programa transbertsal (ingurumena eta garapen jasangarria, generoa eta HIESaren edota pobreziaaren aurkakoak) ere baditu<sup>55</sup>. EAC delakoak ere, besteak beste, honako organoak ditu: Ministroen Kontseilua, Justizia Tribunalak, Batzorde Sektorialak, Asanblada Legegilea, Garapen Bankua. Eta ekimen hau da ere erregio barruko pertsonen mugikortasunerako aurrerapenik handienak lortu dituenak, pasaporte bateratuaren sorrera barne.

Literatura konbentzionalak aipatutako elementu hauek guztiak alde batera uzten baditu ere integrazio-ekimenen arrakasta ebaluatzean, azpimarratu beharra dago horietako batzuen potentzialtasuna garapenaren helburua lortzen laguntzerakoan. Eta aldi berean, aintzat hartzekoa ere bada aditu askoren esanetan ereduagarriz jotzen den Europar Batasunaren ereduarekin ekimen hauetako batzuek sarritan ageri duten parekotasuna.

### **8.2.6. Azken joerak eta ekimenak**

Ez dago ukatzerik erregionalismo irekia joera nagusia bihurtu dela herrialde askorentzat gaur egungo nazioarteko testuinguruan, baina horren aurrean erresistentziak eta eredu alternatiboen sorrerak ere badaude oraindik oso bizirik dagoen eztabaidaren adierazgarri gisa. Oso garapen-maila desberdineko ekonomien parte-hartze bateratua ekarri duen erregionalismo berri honek bi zutabe nagusi ditu

---

55. Benetako legebiltzar bat osatzeko eztabaidak areagotzen ari dira azken aldian SADCn, orain arteko *SADC Parliamentary Forum* izeneko foroa ordezkatuko lukeena.

euskarri: alde batetik, Hegoko herrialdeen interesa errenta-maila altuko merkaturetan eta oraindik zorrotz babestutako zenbait sektoretan euren esportazioen sarrera errazteko; eta bestetik, Iparreko ekonomia industrializatuen egitasmoa beraien eragin-zonak indartu eta formalki lotzeko merkataritza libreko akordioen bitartez hazkunde ekonomikorako potentzialtasun handia duten herrialdeekin. Eredu horren lehenengo kasu argia aurretik aztertutako NAFTA-TLCAN izenekoa izan zen, AEBetako gobernuaren eskutik Amerikako kontinente osora zabaltzeko aukera eskaini duena.

Era horretan, Bush aitak 1992an proposatutako «Ameriketarako Ekimena» izenarekin ezaguna egin zen egitasmoaren ondorengoa, hau da, ALCA delakoa (Ameriketako Merkataritza Libreko Eremua) da azken hamarkadan eztabaida handiak sortu dituen, zeinak kontinente osorako merkataritza libreko eremu erraldoi bat sortu nahi izan baitu. 2005ean akordioa sinatzeko epea aurreikusita zeukan egitasmo hau gaur egun ez atzera ez aurrera blokeatuta dago, batez ere Hego Amerikako zenbait ekonomia indartsuren gobernuak proiektuarekiko euren erretizentziak eta mesfidantzak agerian utzi dituztelako. Kontinente osorako ekimen hau geldituta dagoenetik AEBetako gobernuak jarraitu du bere bidea egiten kontinentearen barruan «TLC» formatuko banakako akordioak bultzatzen (Txile, Peru eta Kolonbiarekin, adibidez) edota erregio-mailakoak, aurretik erregio-talde bat osatuta zuten herrialdeekin batera. Azken horren adierazgarri modura, AEBetako gobernuak Erdialdeko Amerikakoekin 2004an sinatutako CAFTA deiturikoa<sup>56</sup>, alegia, Erdialdeko Amerikako Merkataritza Libreko Akordioa.

Hauek guztiek komunean dituzten ezaugarriak dira erakundetze-prozesu eskasa, birbanaketa mekanismoen gabezia eta MMEn oraindik onartu gabeko gai sentikorren barneratzea, besteak beste, inbertsioak, zerbitzuak, jabego intelektuala-ren gaineko eskubideak<sup>57</sup>, erosketa publikoak, eta abar. Hau guztia, konkurrentzia librearekin erabat inkoherenteak diren AEBetako nekazaritza-sektorearen laguntzak mantentzen diren bitartean.

Horixe bera izango litzateke ere Europar Batasunak hartutako norabidea bere garapenerako lankidetzeta-politikaren alorrean Loméko Akordioen ostean zabalduko aro berrian. Horretan Afrikako, Karibeko eta Ozeano Bareko («AKOB herrialdeak» deiturikoak) taldeak bere itun-kideek osatutako talde erregionalekin merkataritza libreko eremuak sustatu nahi ditu, herrialde hauen aldeko garai bateko lehentasu-

---

56. Akordioen barruan dauden Erdialdeko Amerikako ekonomiak honako hauek dira: El Salvador, Guatemala, Honduras, Nikaragua eta Costa Rica. Hauei Dominikar Errepublika batu zitzaizen apur bat beranduago.

57. Ez genuke ahaztu behar honek ez daukala zerikusirik aurreko hamarkadetako teknologia-transferentziarako aplikatzen ziren akordioekin, eta herrialde txiroen biztanleriarentzat mehatxu modura ulertzen dela, haien ongizatearen kontrako dinamika arriskutsuak sortzen baititu zenbait alor sentikorretan, besteak beste, botiken kasuan.

nezko merkataritza-harremanen ordezkoko gisa alde bietako liberalizazioa eskatzen duen eredu berria bultzatuz<sup>58</sup>. EPA (Ekonomia Elkarkidetzarako Akordioak) izeneko hauek EBren eta AKOBeko herrialdeek aurretik osatutako erregio-taldearen artean osatu nahi dira merkataritza eta kapitalen liberalizazioan oinarrituta. Negoziauketarako eremuak honako hauek: Erdialdeko Afrika, Mendabaldeko Afrika, Hegoaldeko Afrika, Ekialdeko Afrika, Ozeano Barea eta Karibea, erregio hauetako integrazio-ekimenak erreferentzia nagusi gisa harturik. CARICOMen salbuespenarekin, EPA izeneko akordio hauek ez dira gauzatu erregio-talde oso baten onarpenarekin, kasu gehienetan kide bakan batzuek bakarrik akordio partzialak sinatu dituztelarik, integrazioa baino gehiago desintegrazioa eraginez<sup>59</sup>. Merkataritza erregimen baterako negoziazioak hasi zirenean Lomeran ostean Cotonuko Akordioaren bidez AKOBeko gobernu askoren oposaketa gogorra izan da ezaugarri nagusietakoa, formatu berri honek herrialde hauen garapenerako<sup>60</sup> izan ditzakeen ustezko efektu onuragarriak zalantzan jarritz, nahiz eta EBko garapenerako lankidetzaren sostengua izan.

Asiaren kasuan, antzeko egoera izango genuke Txinaren eta ASEAN izeneko erregio-taldearen artean merkataritza libreko eremu bat sortzeko proiektuarekin. Baina are handiagoa litzateke oraindik Txina, Hego Korea, Japonia eta ASEANgo kideen artean sortzeko asmoa duten merkataritza libreko eremu erraldoia. Oso dinamismo ekonomiko handia duen Asia ekialdeko erregioa barneratuta geratuko litzateke horrela ASEAN+3 esan zaion eremu berrian.

Horrela, beraz, tamaina diferenteko zona geografikoak barneratuta, eta Ipar zein Hegoko ekonomien partaidetza uztartuta, etorkizun hurbilean aurreikusten den joerak iradokitzen omen duenez, mundu-mailako hiru ardatz nagusien arrimuan (AEB, Europar Batasuna eta Txina/Japonia) merkataritza zein inbertsio-lotura zabalak ezarriko dira, hauetako erdigune bakoitzak bere eragin-eremuak zabaldu eta finkatu guran euren inguruko periferiarekiko. Erdigune bakoitzaren posizio-hartze, dinamika eta ekimenek besteenak ere elikatu egiten dituzte, mundu-mailako lehiaketa erraldoi baten partaide direlakoan.

Azken aldiko ekimen hauen kontra agertu diren erresistentzia-ahaleginez gain, zenbait gobernu eta gizarte-mugimenduren aldetik, batez ere, oso planteamendu desberdinak dituzten duela gutxiko integrazio-ekimen alternatiboen aipamena

---

58. MMEren printzipio nagusien artean agertzen diren diskriminaziorik eza eta elkarrekikotasuna izan dira EBren argudioetako batzuk norabide bakarreko merkataritza liberalizatzeko lehengo erregimena merkataritza libreko, alegia, bi norabidetako, akordioekin ordezkatzeko.

59. ECOWAS-CEDEAO eta SADC, Afrikako erregio-talderik handienak eta potentzialtasun nabarmenekoak, zatiketa eta desintegrazio honen adibide argienetakoak dira.

60. EBren aurreikuspenen arabera 2008rako EPA izeneko akordioak sinatuta egon beharko baziren ere, AKOB herrialdeak kritiko mantendu dira oro har proposamen honekiko, une oro epemugen luzapena eta barneratu beharreko gaien birnegoziazioa aldarikatu dituztelarik.

egin beharko genuke. Horien artean, gehienbat Amerikako ALBA<sup>61</sup> eta UNASUR<sup>62</sup> izenekoak izan dira arreta gehien erakarri dutenak.

### **8.3. GLOBALIZAZIORANTZ ALA ERREGIONALISMORANTZ?**

Azken hamarkadetan nazio-estatu bakoitzaren ekonomiak nazioartekotze-prozesu zabal baterako joera bizi izan duela, bere gobernuen autonomia eta erabakitze ahalmenaren narriadura gauzatu delarik, ukazina da. Baina liberalizazio ekonomikora eta nazioarteko fluxuen hedapenera eramaten duen dinamika honek bi motatako mugimenduak ezagutu ditu: lehenengoa, izaera aldeaniztuna, nazioartemailako zenbait akordio eta erakundetan oinarrituta, besteak beste, GATT izeneko akordioa, Merkataritzarako Munduko Erakundea (MME), Munduko Bankua (MB), edota Nazioarteko Diru Funtza (NDF) aipa daitezkeelarik; bigarrena, eskualdemailako hainbat integrazio ekimenetan gauzaturik, bai herrialde industrializatuen artean, alde batetik, eta garapen-bidekoen artean, bestetik, zein batzuen eta besteen artekoak.

Era horretan, bi joera horien elkarbizitzak eztabaida luze eta mamitsu baterako bidea zabaltzen du; alegia, galdera nagusia zera litzateke, ea dinamika desberdinetako bi osagaiak diren ala helmuga bererako norabidea hartuta duten bi errealitate edo txanpon bereko bi aldeak. Egia da 90eko hamarkadatik aurrerako aldia oso esanguratsua izan dela erregionalismoari bultzada berri bat ematerakoan, eskualde-mailako zenbait integrazio prozesu zaharren berpizteak eta berri batzuen agerpenak agerian utzi dutenez. Hala ere, oraintsu ikusi bezala, ekimen hauek hartzen duten itxura eta definitzen dituzten helburuak ez dira homogeneousasun handikoak, eta etorkizunean har dezaketen norabidea ez da ere erraz aurreikustekoa. Horrela, zabaldu egin da adituen arteko eztabaida bat hauxe planteatzen duena: erregionalismoak zenbateraino ahalbidetzen duen globalizazio ekonomikoaren azken faseen gauzatzea, munduratzeko-prozesuarekiko osagarri gisara jokatzu, ala,

---

61. ALBA delakoa (Ameriketarako Alternatiba Bolivartarra) Hugo Chavezek proposaturik, 2004an jarri zen martxan Habanako gailur batean Venezuela eta Kubaren artean. Harrez geroztik, 7 herrialde gehiagok egin du bat ekimen horrekin: Bolivia, Nikaragua, Dominika, Honduras, Saint Vincent eta Grenadinak, Ekuador eta Antigua eta Barbuda. TLC formatuko akordioen aurkako erantzun erradikal gisa ulertu beharko genuke kideen garapena (zentzu zabal batean ulertuta) sustatu ahal izateko. Hainbat alorretan (hezkuntza, azpiegiturak, energia, ingurumena, elikadura, bidezko merkataritza...) bultzatutako proiektuak dira bere egitasmoa gauzatzeko bide nagusia.

62. UNASUR (Hego Amerikako Nazioen Batasuna) izenekoak, erregio horren integrazio-ekimenak biltzeko egitasmoarekin sortu berria den proiektua da. 2004tik aurrerako gailurren aurrekariekin, azkenean 2008an sortu zen talde hau honako kideek osaturik: Argentina, Bolivia, Brasil, Txile, Kolonia, Ekuador, Guyana, Paraguai, Peru, Surinam, Uruguai eta Venezuela. Integratorako gaiak eta sustatu beharreko garapena oso era zabalean ulertzen dira, arlo kultural eta politikotik hasita, sozial eta ekonomikora ailegatzeko. Zenbait erakundetu dira, erregiorako legebiltzarra, besteak beste, eta lehenasuneko gaien artean honakoak gailentzen dira: energia-integrazioa, ingurumena, erregiorako finantza-mekanismoak, telekomunikazioak, eta gizarte-kohesioa.

aldiz, horren garapenerako oztopo bihurtzen den, orain arteko globalizazioaren alternatibatzat hartuta.

Orain aipatutako erakunde aldeaniztunek bultzatutako desarauketa eta nazioarteko fluxu ekonomikoen liberalizazioa benetan adierazgarriak izan dira azken boladan, alde horretatik gehien gailentzen diren merkatuak kapitalena eta ondasun eta zerbitzuena izanik. Horrek, ordea, ez du esan nahi errealitate hau globalizazio eta multilateralismoaren arabera soilik interpreta daitekeenik, ezta mundua apurka-apurka hurbiltzen ari den jomuga horixe denik.

Alegia, planetaren alde batera eta bestera erregionalismoaren alorrean koka daitezkeen hainbat integrazio-prozesuk agerian uzten dute eskualde-mailako taldeen osaketa hau errealitate heldu eta sendoa dela. Baina, integrazio erregionalerako joera ukaezinezko egite modura hartuta ere, hau guztia mundu-mailako erabateko liberalizazioranzko tarteko etapa baten adierazlea besterik ez dela baieztatzen duten ahotsak ez dira gutxi. Are gehiago, argudio honen defendatzaileek gaineratzen dutena da errealitatea bat etorriko ez balitz interpretazio horrekin, mezua orduan zera litzatekeela, horixe ez bada erregio-taldeek gaur egun hartuta duten norabidea, izan beharko litzatekeela, eta horretara bideratu beharko liratekeela.

Era horretan, adituen arteko eztabaida bi maila desberdinetan planteatzen da ondoko galderen arabera: integrazio ekonomiko erregionalak azken aldiaren ezagututako bultzada abiapuntutzat hartuta, erregionalismoa eta globalizazioa dinamika bateragarri ala kontraesankor modura ulertu beharko genituzke? Eta nolabaiteko bateraezintasuna emango balitz, eraldatuak izan beharko al lirateke integrazio-ekimen zaharrak, eta berriak eraiki, diskriminazioa errefusatzeko duen printzipioan oinarriturik, mundu-mailako merkataritza- eta inbertsio-harremanen erabateko liberalizazioa ahalbidetzeko?

Inkognita horiek planteatzen ari dira ea erregio-taldeen sorrera jomuga gisara interpretatu behar den ala globalizaziorako bidean aurkitzen dugun tarteko etapa moduan. Gaiari helduta, eta tesirik baikorrenek jakitera ematen duten ez bezala, eskualde-mailako integrazio-ekimen hauek definizioz GATT-MME delakoaren akordio eta arautegi aldeaniztunen filosofiaren aurka era desberdinetan jotzen dutela defendagarria litzateke, batez ere, nazio faboratuenaren klausulari dagokionez.

Horrela, beraz, nahiz eta GATTen inguruko negoziazio-itzulietan, edo haren ordezkoa den MMEn gaur egungo lanean, mezu nagusia bereizkeriaren aurkako izan, XXIV. artikulua interpretazio eta inplementazioari lotutako arazoek —«hizki txikietan» egindako akordioaren salbuespenen gaineko arauketak, eta zenbait kasu tratatzean erabilitako anbiguotasunak— sorrarazten dute egoera bat non itxuraz bateraezintzat jo ditzakegun proiektuak elkarren ondoan bizi diren. Beste hitz batzuetan esanda, diskriminazioaren kontrako printzipioa, merkataritzaren alorreko konpromiso aldeaniztunen ikurra bihurtu denak, eskualde-mailako zenbait



akordioekiko elkarbizitzarako arazoak planteatzen ditu, hauek ekonomiaren arlo batzuen gaineko babesarekin, talde erregional bereko herrialdeei eskaintako lehenetsunezko baldintzekin, eta honetatik kanpo geratzen diren besteekiko bereizkeriarekin, zerikusi handia baitute. Beste alde batetik, merkataritzaren alorreko muga-zergeren murrizketetarako joera, bai eredu aldeaniztunean zein eskualde-mailakoan, nabarmenki orokortua bada ere, neurri babeszaleen erabilera, bereziki arantzelen ordezkioak ugaritzen ari diren muga-zergetatik kanpoko tresnen bitartez, gero eta ohikoagoa bihurtzen ari da. Izan ere, kuotak, esportazioetarako «borondatezko» murrizketak, anti-dumping izeneko neurriak, esportazioak sustatzeko laguntzak, hesi teknikoak (administrazio edota osasunari lotutakoak), eta abar azken urteetako protekzionismo berriaren adierazle nagusitzat hartu beharko genituzke. Eta herrialde industrializatuek martxan ipinitako praktika hauek, batez ere garapen-bideko ekonomien esportazioen aurka, erantzuna jaso dute azken horien aldetik talde erregionalen osaketa partikular baten bidez, aipatutako diskriminazio horri aurre egiteko kontrapisu modura, eta egitura aldeaniztuneko liberalizazio-prozesuarekiko alternatiba gisa, beraz.

Aurreko atalean ikusi dugun legez, egun ezagutzen den talde erregionalen ugaritzea eta beraien izaera ikusirik, ez du ematen merkatuen zabaltze orokorra, multilateralismoaren ezaugarri nagusietako bat, begien aurrean dugun errealitatea denik. Ordea, ekonomia global bakarrerantz erdibidean geratzen den etapa gisa, berorren osagarritzat hartuta eta erregionalismo irekiaren filosofiarekin bat eginez, ekimen ugari ikus ditzakegu azken aldian. Baina aldi berean beste eredu erregionalista askok erakutsitako portaeraren arabera badaude argudio asko egoera hau ulertzeko globalizazioaren alternatiba gisa eta ordezeko eredu modura. Zorritzarrez, bi dinamika kontrajarri horien elkarbizitzak eta tirabirek ez digute aukera handirik ematen etorkizunean sustatuko eta gauzatuko diren joerak era argian aurreikusi ahal izateko.

#### **8.4. GARAPENERAKO BIDEAN INTEGRAZIO-EKIMENEN ESKUTIK?**

Integrazio-ekimenen egokitasuna ebaluatzerakoan erregionalismoaren eredu desberdinen eta irekiera-mailaren inguruko balorazioek eztabaida zabalerako bidea ematen dutela ez dago zalantzarik. Historikoki honetan eztabaida sutsuak, gora-behera handiak eta irizpide-aldaketa ugari ezagutu ditugula begi-bistakoa da. Baina azken urteetan ikusitakoak integrazio-eredu desberdinen arteko eztabaida zabala erakusten du, kontrakoa sarritan entzuten dugun arren.

Hau dena aztertzeko, abiapuntutzat honako galdera hau har daiteke, ea zein den ongizate-maila maximotzeko tresnarik aproposena, batez ere, garapen-bideko ekonomien kasuan: mundu-mailako eredu aldeaniztuna ala erregio-mailako taldeen osaketa eta indartzea? Ekonomien integrazioa bi maila horietan gerta daiteke, baina

bietan ere integratzeko eredia gako bihurtzen da garapenaren gainean ondorio batzuk edo besteak eragiteko.

Lehenengo aukeraren alde egiten dutenak, GATT-MMEren egitura helburu horretarako tresnarik egokiena delakoan, nahiz eta historikoki talde erregionalen sorrerarekiko inongo jarrera baikorrik ez defendatu, apurka-apurka euren diskurtsoa eraldatzen joan dira behin ikusita, bai garapen-bideko ekonomien aldetik zein industrializatuetatik, eskualde-mailako integrazioa gero eta interes handiagoa hartzen ari dela. Orainsu aipatutako faktoreez gain, badago beste bat zentzu honetan nolabaiteko eragina ere izan duena, partaide kopurua alegia. Zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta arazo gutxiago egongo dira normalean merkatu desberdinak desarautzeko negoziazioak garatzen direnean. Pentsaera-adar honen barruko ideiarik funtsezkoena, Bretton Woods-eko erakundeek ordezkaturia, zera da, erregionalismotik bultzatutako prozesu liberalizatuak oso ondo etorriak direla, baldin eta haien azken helburu nagusia mundu osora beraien merkatuak irekitzea bada. Aurretik ikusi bezala, hau izango litzateke azken aldiko erregionalismo irekiaren planteamenduarekin bat datorrena, integrazioaren sakontze- eta erakundetze-maila baxuetan oinarrituta eta merkataritza libreko eremu erraldoiak sustatuz ganorazko tresna birbanatzaileak gabe.

Testuinguru honek guztiak merkataritzaren liberalizazioarako estrategia kanposektorera bideratua egotea eskatzen du, hau da, esportazioak ordeztekoa izatea, garai batean garapen-bideko ekonomien arteko integrazio-proiektuetan nahiko orokortuta zegoen inportazioak ordezteko (barrura begirako) eredu esku-hartzailearekiko alternatiba gisa. Ikuspegi honetatik ateratzen den ondorio nagusia hau da: garapen-bideko ekonomien arteko ekimen erregionalistek ezagututako porroten zergatia inportazioak ordezteko industrializazio-ereduan bilatu beharko litzatekeela, horrek «merkataritza desbideratzea» deiturikoa sortzen baitu.

Eta horrexegatik hain zuzen, errealitatearen interpretazio honen ildotik kideen arteko konpromiso-maila handia lortzen duten erregio-taldeek beste guztiekiko nolabaiteko bereizkeria erakusten dutela uste da, honek, *second best* motako aukera den aldetik, ongizate-mailarik altuena eskuratzeko modurik ez duela ematen ulerturik. Horrela, erregionalismo berri eta ireki honen aldeko apustuak maila erregionalerako liberalizazio-prozesu tradizionalen egokitzea proposatzen du, diskriminaziorik gabeko dinamika desarautzaile aldeaniztun baterantz pixkanaka-pixkanaka hurbiltzen joan ahal izateko.

Aldiz, talde erregionalen osaketaren aldeko jarrera gobernu gehienen aldetik euren interes kolektiboen defentsaren ikuspuntutik gainerako herrialde guztiekiko erraz ulertzekoa bada ere, nazioarte-mailako mugen erabateko irekitzeak zalantza handiak sortzen ditu hainbat ekonomiatarako gobernu-ordezkarientz. Eta hori suertatzen da, batez ere, herrialde horien jardura ekonomiko nagusiak lehiakortasun gutxiak direnean, eta, nazioarteko merkatuen pean egonda, prezioen gora-

behera handiak izaten dituzten lehen sektoreko esportazioekiko gehiegizko espezializazioa gertatzen denean. Horiexek dira garapen-bideko herrialdeetan GATT-MMEren inguruko merkataritza aldeaniztunaren liberalizazioak dituen ustezko onurei buruz azken aldian planteatu diren eztabaidaren zenbait nondik norakoak. Eta era berean, beste hainbesteko mesfidantza sortzen da garapen-bideko herrialdeetako gobernu askorentzat logika honekin bateragarria den erregionalismo irekiaren filosofia bereganatzen duten ekimen berriekiko.

Mundu-mailako politika merkatuzaleen aldeko argudiotzat hartuta, neurriok bultzatzen dituzten nazioarteko erakundeez gain, aditu batzuek defendatu dute Saharaz hegoaldeko Afrikaren bazterketaren gakoa, adibidez, nazioarteko testuinguruan bere merkatuak erabat irekitzeko erresistentzian datzala. Beste ikuspegi batzuetatik, berriz, ekonomia afrikarren arazoak inongo zerikusirik ez duela liberalizazio, eta desarauketa faltarekin, baizik eta produkzio-ahalmenaren hazkundearekin, azpimarratzen da. Zentzu horretan, konponbideak lehiakortasun gutxiko edo sortu berriko industriarentzako trantsizio-epealdien, giza baliabideen garapena ahalbidetuko duen industria-politikaren, eta ekoizpenaren arlo guztiei tratamendu bera emango ez dien liberalizazio-estrategia baten eskutik helduko dira.

Gobernu hauen beldur nagusietako bat merkataritzaren irekiera orokortzen ari den gaur egungo testuinguruan, munduko ekonomian gero eta marjinalagoak bihurtzea da. Panorama horren aurrean, ukazina da zenbait lehengairen eta eskulan trinkoko manufakturen gaineko babes-neurriak desagertuko balira Iparreko herrialdeetan, horrek Hegoko ekonomia askoren alde jokatu lukeela. Horrek, ordea, ez du derrigorrez esan nahi bi norabideko liberalizazio-prozesu batek, merkatu lokalen defentsarik eza agerian utziz, ekonomiarik ahulentzat onura argiak ekarriko dituenik. Eta hori da, zoritxarrez, MMEren barruko negoziaketen atzerapenen aurrean, merkataritza libreko eremu erraldoien bitartez bultzatu nahi den liberalizazio-agenda pragmatikoa, finean blokeatuta dauden gai sentikorren ezarpena aurrera ateratzeko.

Beste alde batetik, benetan deigarria egiten da ikustea ekonomia industrializatu gehienek merkataritzaren irekiera oso modu kontrolatu eta moderatuan burutu egin duten bitartean, garapen-bidekoen gobernuak epe laburrean neurri desarautzaile erradikalak inplementatu behar dituztela aholkatu edota inposatu zaiela, beraien ahulezia eta lehen sektoreko gehiegizko espezializazioa aintzat hartu barik. Baina, beste muturrera joanda, ez da erraz defendatzekoa liberalizazio ekonomikoa berez kaltegarria denik, beronen efektuak bide hori hartzen duten ekonomientzat hainbat faktoreren arabera direlako, besteak beste, prozesuaren erritmo, irekitze-maila, azpiegitura, giza baliabide, industria-politika, teknologia eta abarren gaineko neurri osagarriak aipatu beharrekoak direlarik, beti ekonomia bakoitzaren ezaugarri, beharizan eta gabeziara egokituz.

Ildo horretatik, globalizazio, erregionalismo, eta liberalizazioaren inguruko azterketak zenbait aditu honako hau defendatzera eraman ditu: trabarik gabeko merkataritza, arautzeko tresnen eta kontrolen faltan, garapen-bideko ekonomientzat ezin dela inoiz irtenbiderik egokiena izan politika komertzialaren alorrean. Eta beste hainbeste aipatu egiten da sarritan korrante kritikoen aldetik baldintzarik gabeko inbertsioen liberalizazioaren kasuan, edota jabego intelektualaren babesarean.

50eko eta 60ko hamarkadetan ez bezala, non inportazioak ordeztuko ereduaren eta esku-hartze publikoaren gaineko konfiantza handia izan zen, gaur egun gero eta agerikoagoa bihurtzen ari da merkatuaren indarrekiko eta irekieraren uestezko onurekiko neurritz kanpoko aditu askoren fedea, garapen-bideko ekonomientzat honek guztiak posibilitate ugari eta etorkizun baikor baterako bideak zabaltzen dizkielakoan. Aldiz, egungo liberalizazio-olatu unibertsaltasunzale hau erakusten ari da gobernu eta talde erregionalek euren ezaugarri eta lehenasunen araberrako garapen-eredu propioa definitzeko duten gaitasun eta posibilitateen kaltean jokatzeko duela sarritan dinamika honek.

Eta erreallitatea aztertzeko parametro hauen barruan, logikotzat hartu beharko lirakeke eszeptikoenek «merkataritza-hazkundera» paradigma desmitifikatzeko, nazioarteko merkatu ezegonkorrekiko mendekotasun handikoa den lehengaiak esportatzeko ereduarekin amaitzeko, edota buruaskitasun-maila handiagoak sustatzeko, egindako proposamenak. Ikuspuntu horretatik garapen-bideko ekonomien arteko talde erregionalen eginkizuna duintzeak duen garrantzia azpimarratu ohi da. Halaber, merkataritza baino askoz ere alor gehiago biltzen dituen integrazioarekiko hurbilpena azpimarratzeko beharra ikusten da azterketa-molde hauetatik, mota honetako ekimen erregionalistak lanabes eraginkor bihurtu nahian garapenaren sustapenerako.

Horrela, beraz, egun ezagutzen dugun antolaketa-egitura aldeaniztunaren barruan ekonomiarik desfaboratuenean jasan behar izaten dituzten gutxiagotasun-baldintzak eta euren interesen defentsarako zailtasunak nabarmenak izanik, Hegoko gobernuen ikuspegitik, talde erregionalen sorrera eta indartzea begien aurrean dugun ekonomiaren munduratzeko neoliberalarekiko garapen-estrategia alternatibotzat hartua izateak ez luke inor ustekabea harrapatu beharko.

Aitzitik, aurretik esan bezala, estrategia aldeaniztunaren ildo berdinetik joanda, azken aldiko erregionalismo irekiaren eskutik datozen ekimenek ez dute oraintsu aipatutako integrazio alternatibo honekin zerikusirik. Are gehiago, merkataritza libre formatuko azken proiektu erregionalista erraldioen bidez lortzen ari dena zera da, MMEn garapen-bideko herrialdeek blokeatutako ekimenak (besteak beste, polemika handiko gaien sarrera: zerbitzuen eta inbertsioen liberalizazioa, jabego intelektualaren gaineko eskubideak, erosketa publikoak, etab.) atzealdeko atetik ateratzea garapen-bideko herrialdeen oposaketa txikiagoa aprobetxaturik.

Kanpora begirako integrazio-eredu honen arriskua ekonomia desfaboratuenean eta haien arteko integrazio-prozesuen barruko desintegrazioa litzateke. Mugimendu altermundistak aldarrikatzen duen ildo beretik joanda, beste integrazio mota bat «posiblea eta desiragarria da». Eta hauxe da hain zuzen ere Iparraldeko eta Hegoaldeko gizarteek esku artean duten erronka nagusietakoa gaur egun, alegia, integrazio-ekimenak bihurtzea garapenerako tresna, oinarrizko beharren asetzeara eta jasangarritasuna helburutzat harturik eta disperekotasunak murrizteko behar bezalako birbanaketarako tresnak martxan jarririk.

#### LABURPENA

Garapenerako tresna gisa erregio-mailako integrazioak duen potentzialtasuna ebaluatzerakoan ezinbestean integratzeko ereduak datza. Alegia, integrazio-ereduak merkatuzaleagoak edo esku-hartzaileagoak izan daitezke, integrazioaren onurak eta kostuak birbanatzeko tresnak, eta hauen ondorioak, hortaz, horren arabera izanik. Tradizionalki Europar Batasunaren kasua eredugarritzat jo bada ere, haren ereduak erakusten duen birbanaketarako tresnen erabilera eta erakundetze-maila ez daude mundu-mailan oso zabalduak.

Bereziki azken hamarkadan zabalduak merkatuaritza libreko eremuen formatuak ez du zerikusi handirik ustez ereduak den horrekin. Gero eta ohikoagoak bihurtzen ari diren integrazio-talde handi hauek gehienetan ondasun, zerbitzu eta inbertsioen liberalizazioetara geratzen dira mugatuta, akordio soiletan oinarrituta eta inongo erakunderik edota birbanaketarako tresna propiorik sortu gabe, edo hauek minimizatuz, eta ingurumenaren babesarekiko ezelako ardura edota kualifikaziorik gabeko lan-merkatua liberalizatzeko batere asmorik gabe. Ekimen hauetan parte hartzen duten ekonomiarik ahulenez ez du ematen hauek giza garapen jasangarria sustatzeko baldintzarik egokienak direnik. Integrazio-ekimenean, mundu-mailakoak edota erregio-mailakoak izanik ere, gakoak inplementatutako ereduaren ezaugarrietan dago. Eta horretarako ezinbestekoa da, lehenengo eta behin, helburua argi zehaztea, gure kasuan garapenarena, oso modu zabalean ulertuta; eta bigarrenik, xede hori bideratzeko tresnak indarrean jartzea, disperekotasunak murriztu eta integrazioaren kostu eta onuren banaketa zuzena bultzatze aldera.

#### **BIBLIOGRAFIA**

- Amín, S. (1999): “Regionalization in Response to Polarizing Globalization”, in B. Hettne; A. Inotai; O. Sunkel, *Globalism and the New Regionalism*, UNU / WIDER, MacMillan Press Ltd, Londres.
- Bhagwati, J. (1993): “Regionalism and multilateralism: an overview”, in J. De Melo eta A. Panagariya, *New dimensions in regional integration*, Centre for Economic Policy Research, Cambridge University Press, Cambridge.
- Bhalla, A.S. eta Bhalla, P. (1997): *Regional blocks. Building blocks or Stumbling blocks?*, MacMillan Press Ltd, Londres.

- Calvo, H. (2003): *Integración económica y regionalismo. Principales acuerdos regionales*, Centro de estudios Ramón Areces S.A, Madril.
- De Melo, J. eta Panagriya, A. (1993): *New dimensions in regional integration. Centre for Economic Policy Research*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Grilli, E. (1997): “Multilateralism and regionalism: a still difficult coexistence”, in R. Faini eta E. Grilli, *Multilateralism and regionalism after the Uruguay Round*, MacMillan Press Ltd, Londres.
- Hettne, B. (1999): “Globalization and the New Regionalism: The Second Great Transformation”, in B. Hettne; A. Inotai eta O. Sunkel, *Globalism and the New Regionalism*, UNU / WIDER, MacMillan Press Ltd, Londres.
- Keet, D. (1999): *Globalisation and regionalisation, contradictory tendencies? Counteractive tactics? or strategic possibilities?*, The Foundation for Global Dialogue, FDG Occasional Paper, 18.
- Khor, M. (2000): *Globalization and the South: Some Critical Issues*, UNCTAD, Discussion Papers, 147, Geneva <www.unctad.org>.
- Krugman, P. (1993): “Regionalism versus multilateralism: analytical notes”, in J. De Melo eta A. Panagriya, *New dimensions in regional integration*, Centre for Economic Policy Research, Cambridge University Press, Cambridge.
- PNUD (1996): *Informe sobre el desarrollo humano. ¿Crecimiento Económico para Propiciar el Desarrollo Humano?*, Nazio Batuen Erakundea, New York.
- Rodrik, D. (2000): “How far will international economic integration go?”, *Journal of Economic Perspectives*, **14**, 1.
- Sutcliffe, R. (1995): “Desarrollo frente a ecología”, *Revista Ecología Política*, Icaria, Bartzelona.
- UNCTAD (2008): *Handbook of Statistics*, United Nations Conference on Trade and Development, Geneva.
- Zabalo, P. (2000): *La organización mundial de comercio, paradigma de la globalización neoliberal*, Hegoa, Lan-Koadernoak, Bilbo.

## **WEB ORRIAK**

- [http://www.wto.org/spanish/tratop\\_s/region\\_s/region\\_s.htm](http://www.wto.org/spanish/tratop_s/region_s/region_s.htm) (MME: Erregio mailako merkataritza akordioak)
- <http://www.bilaterals.org/>
- <http://www.unctad.org/>
- <http://www.eclac.org/>
- <http://www.uneca.org/>

## 9. Globalizazioaren dimentsio soziala

*Alfonso Dubois Migoya\**

Hainbestetan ahaztua edo bigarren mailan kokatu izan den globalizazioaren ondorio sozialen gaia lantzen du kapitulu honek. Azken urteetan pobrezia eta desberdintasuna gure munduko erronka nagusien artean daude, klima-aldaketa, energia- eta naturalibaliabideak, segurtasuna edo biztanleriarekin batera. Munduko Bankua edo Nazioarteko Diru Funtza erakunde multilateralek beraiek ere beren proposamenen multzoan barneratzen dituzte. Globalizazio honetatik sortuko den sozietatea birbanaketaren inguruan ezarriko dituen helburuen arabera izango da, neurri handi batez. Nolanahi ere, gaur egungo joerek errentaren banaketan dibergentzia eta pobrezia murrizteko zailtasuna erakusten dute. Gaur egun indarrean dauden pobrezia eta desberdintasunaren kontzeptuen inguruko berrikusketa egiten da eta hauek birsortzeko beharra azpimarratzen da, globalizazio ekitatiboagoa lortze aldera. Horretarako erdietsi nahi den sozietatearen inguruko ikuspegia izatea ezinbestekoa da. Justizia globala beharrezko mugarriztat hartzea premiazkoa da Milurtekoaren Garapen Helburuekin sinatutako konpromisoen betekizunak izandako porrotaren aurrean. Horretarako, egungo mugen gainetik ekiteko ahalmena duten instituzioak behar dira, baina, batez ere, sozietate global berriak lehenetsi behar dituen balioen inguruko kontsentsua da premiazkoa.

### **9.1. POBREZIA ETA DESBERDINTASUNAK, GAUR EGUNGO EZTABAIDA**

Globalizazioaren inguruko azterlan gehienek aspektu ekonomiko tradizionaletan jartzen dute arreta, hau da, nazioarteko merkataritza-, finantza-, eta inbertsio-fluxuak aztertzen dituzte. Pertsonen, familien eta gizartearen bizitzan zein lanean ematen den eraginari erreferentzia egiten dion globalizazioaren dimentsio soziala, normalki inpaktu ekonomikoaren azterketaren ondorengo, eta gehienez bigarren mailako analisisetara mugaturik geratu da. Gaur egun justifikaturiko ardura bat azaldu da globalizazioaren joerek pertsona, herrialde zein gizarte gero eta gehiago garapen prozesuetatik zokoratzean dituzten edo izan ditzaketen ondorioen gainean. Globalizazio-prozesuak soldatetan, errentetan eta pertsona behartsuenek baliabideetara duten sarbidean nola eragiten duen, nazioarteko ekonomia politikoak egin beharreko galderarik garrantzitsuena da.

---

\*. Itzultzailea: Jon Larrañaga Agirrezabal.

Globalizazioaren dimentsio soziala egun nazioarteko agendaren gaietariko bat da, nazioarteko agentzia eta erakunde pribatu zein publikoen txosten gehienek pobrezia eta desberdintasunei berriazko arreta bat eskaini izanak erakusten duenez. Pobrezia eta desberdintasunak ezabatzea edo murriztea gure gizarte globalaren funtzionamendu egokirako oinarrizko betekizun bezala ageri dira. Azken urteotan pobrezia modu zabalean aintzakotzat hartua izan den arren eta nahiz eta ardura hau harrigarria egiten ez den arren, desberdintasunaren kontzeptua duela oso gutxi barneratu da.

Munduko desberdintasun nagusiak kontuan hartzeko orduan, errentaren banaketa izan da erreferentziatzeko dimentsioa. Baina ekitateak hau bezain garrantzitsuak edo are esanguratsuagoak diren beste hainbat dimentsio aintzat hartu behar ditu, hala nola hurrengoetara sarbidea izatea: lan duina, osasun- eta hezkuntza-zerbitzuak, politikan eta gizartegintzan parte hartzeko aukerak, teknologia berriak, etab. Gainera, desberdintasunei buruzko edozein azterketak emakumezkoen eta gizonezkoen artean dauden desberdintasunak zehaztu behar ditu, hori egin ezean beronen oinarrizko dimentsioetariko bat ezkutuan geratuko bailitzateke. Hala ere, desberdintasunei buruzko estatistikek ez dute genero-desberdintasuna behar bezainbeste jasotzen.

Tradizionalki errentaren banaketaren aurrean sentikortasun gutxi erakutsi duten sektoreek orain haren esangura azpimarratzen dute. Zentzu horretan Erreserba Federaleko zuzendaria, Ben Bernanke, desberdintasun hazkorrek dituzten arriskuez mintzatu da, *Financial Times*-en gai honen inguruko eztabaidak egin dira eta Nazioarteko Diru Funtsak ere bere kezka adierazi du (Hoeven, 2008). Nazio Batuen zenbait agentzian gero eta irmoagoak eta konstanteagoak dira maila globalean banaketa hobea bultzatzeko beharri buruzko adierazpenak (LNE eta PNUDei bereziki). Gizateriak XXI. mendean aurre egin beharko dituen erronkak identifikatzen dituzten ikerlan anitzetan desberdintasunak eta pobrezia beti espresuki aipatzen dira.

Alabaina, dimentsio sozialak duen garrantziaren kontzientzia-hartzea egin den arren, emaitza baikorrak lortzeko zailtasuna da gero eta elkarrekiko mendekoagoa den mundu honek giza garapenaren helburu globalak gauzatzea ahalbidetu dezaketen kategoria arauemaile berriak behar dituela erakusten duen adibiderik argiena. Ez dago adostasunik pobrezia eta desberdintasunak definitzen dituzten irizpideen inguruan, eta nahiz eta lehenengoaren kasuan nazioarte-mailan Munduko Bankuak ematen duen definizioa erabiltzen den, berau oso zalantzan jarria izan da zorrotasun gutxi duelako eta egungo garaietara egokitzen ez delako. Gaur egun, pobrezia-aren murrizketaren gaineko ardurak garapenaren inguruko eztabaida bereganatu du eta Milurtekoko Helburuak horren erakusle dira<sup>63</sup>. Baina pobrezia erreferentzia

---

63. 2005. urtea Garapenaren Urtea izendatua izan zen eta munduko nazio aberatsenetako buruzagiek aldarrikapen bat egin zuten G-8an, Gleneaglesen, Eskozian, txiroei laguntzeko.



bilakatu izanak ez du esan nahi berau murrizteko helburuek aurkezten dituzten zailtasunak konpondu direnik, ez eta beharrezko estrategia garatzeko alderdi guztiek beharrezko adostasuna lortu dutenik. Pobreziaren kasuan egoera hau bada, desberdintasunen arazoari aurre egiteko ahultasuna askoz handiagoa da oraindik, ez baitira adierazi ere egin nazioarteko erakundeek beren gain hartu beharreko konpromiso zehatzak.

## **9.2. ERRENTA-DESBERDINTASUNAK**

### **9.2.1. Konbergentzia edo dibergentzia: eztabaidarako gaia**

Azken urteetan azterlan asko burutu dira globalizazioaren eta mundu-desberdintasunen arteko harremanari buruz. Globalizazioak herrialdeen arteko errenten konbergentzia edo dibergentzia dakarren goiburu duen eztabaida oso bizia izan da. Onartzen diren jarrera teorikoen artean, oinarritzko hiru ikuspuntu bereiz daitezke: a) hazkundearen teoria neoklasikoaren jarraitzaileak, zeintzuen iritziz ekonomia nazionalen batez besteko ekoizkortasunek konbergentziarako joera duten kapitalaren mugikortasun hazkorra baita; b) hazkunde endogenoaren aldekoak, hauen ustez herrialde garatuetan berrikuntza teknologikoei esker lorturiko irabazi hazkorrek orekatu egiten dituzte kapitalaren irabazi beharrek; hau da, teoria neoklasikoak konbergentzia aurreikusten duen bitartean, hazkunde endogenoaren teoriak konbergentzia murrizketa bat edo dibergentzia bat aurreikusten du; c) eta, mendekotasunaren ikuspegiaren aldekoak, hauen aburuz konbergentzia gertatzeko probabilitatea urria den bitartean, dibergentzia gertatzeko aukerak handiagoak dira. Hau azaltzeko ekonomia-integrazioak eta merkataritzak emandako onura ezberdinak aipatu izan dituzte, beraien ustez garapen-bideko herrialdeak merkatu askearen harremanetan mugatuta daudelako eta produktu mugatu batzuen ekoizpenean harapatuta.

Globalizazioaren ondorio baikorren babesleek argudiatzen dutenez, globalizazioaren lehen formek (prozesu berriekiko ezberdintasun garrantzitsuak onartzen dituzten arren) industrializazioaren hedapen azkarra eta mundu-ekonomiaren konbergentzia ekonomikoa erraztu zuten XIX. mendearen amaiera inguruan. Ateratzen duten ondorioa da, globalizazioak orain, lehenago egin izan duen bezala, sistemarekin bat egiten duten herrialdeentzat oparotasun ekonomikoa dakarrela eta bat egiten ez dutenentzat, aldiz, estutasun ekonomikoak.

Baina datuek ez dute baieztapen horri eusteko aukerarik ematen. Ez da zuzena XIX. mendearen amaiera hazkunde azkarreko eta herrialdeen arteko konbergentzia-garai bat bezala irudikatzea. Izatez, garapen ekonomiko desberdindua eskaini zuen garaia izan zen. Herrialde industrializatuek aurrera egin zuten eta industrializatu berriak ziren herrialdeen talde txiki bat bere barne-ahaleginak indartzeko gai izan zen eta nazioarteko ekonomiarekin loturak ezarri zituen. Baina

garapen-bideko munduko herrialdeentzat, mundu-ekonomiarekin izandako integrazioak, aldiz, desindustrializazioa eta azpigarapena izan zituen emaitzat. Ondorioz, garai honetan dibergentzia hazkorra suertatu zen zentroko eta periferiako errenta per capiten eta batez besteko bizi-estandarren artean. Adibidez, aberatsenen eta behartsuenen arteko tarte ekonomikoa 1820ko 3/1etik 1870eko 7/1era eta 1913ko 11/1era pasatu zen.

Aurreko datuek erakusten dutenez, munduko errentaren banaketak ez du beti izan orain ezagutzen dugun egitura. Ez dago besteengandik banatzera kondenturiko herririk edo gizarterik; izatez prozesu historiko zehatzak izan dira bereizte progresibo hau eragin dutenak. XVIII. mendean, Europa, Txina eta India ziren munduko zonarrik populatuena eta gutxi gorabehera per capita errenta berdina zuten, nahiz eta bakoitzaren baitan desberdintasunak sekulakoak ziren. Azken hamarkadetan, herrialde bakoitzeko biztanleen per capita errenten arteko desberdintasunek berebiziko hazkundera jasan dute, herrialdeen baitako barne-desberdintasunek bezalaxe.

Azken urteotan eztabaida zabal bat egon da eskuragarri dauden datuek egungo globalizazio-prozesuak desberdintasunen hazkundera dakarren ala ez adierazten duten argitu nahian. Talde zabal baten ustez, azken urteotan desberdintasunak handitu egin dira eta gure mundua inoiz baino disparekoagoa da. Ikuspegi global batek, desberdintasun horiek bizkortu egin dira azken hamarkadetan, hain justu globalizazioa sakondu egin denean herrialdeen arteko produkzioaren eta merkataritzaren hazkunde asimetrikoarekin. Beste batzuen iritziz, desberdintasun globalak murriztu egin dira edo, berdina dena, hobekuntza bat izan da mundu-mailako errentaren banaketan. Nazioarteko erakundeek, Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtsak, globalizazioaren eraginei buruzko diskurtso baikorra elikatu dute, formularik egokiena liberalizazioaren arauak betetzea eta kudeaketa makro-ekonomiko egoki bat gauzatzea dela adierazi baitute, horri esker hazkunde ekonomikoa lortzeaz gain, herrialdeen arteko hurbilketa progresiboa suertatuko bailitzateke. Bigarren hori izan zen XX. mendeko azken bi hamarkadetan nagusi izan zen joera eta Washington-eko Ituna izenez ezagutu zena, alegia.

### ***9.2.2. Desberdintasun globalaren kontzeptuak***

Jarrera ezberdinak ulertu ahal izateko beharrezkoa da errentaren zein kontzeptutatik abiatzen garen zehaztea, eboluzioaren emaitzak oso ezberdinak baitira kontzeptu baten edo bestearen arabera. Milanovic-ek (2005) desberdintasunak neurtzeko balizko hiru abiapuntu aurkezten ditu, bakoitzak informazio-oinarri ezberdinak dituenak: a) herrialde bakoitzeko per capita errentaren batez bestekoak; b) herrialde bakoitzeko biztanleriarekin haztatuak dauden per capita errentak; c) herrialdeen baitako errenta-desberdintasunak. Bakoitzak pertzepzio ezberdin bat eskaintzen du eta hirurek desberdintasunen errealitateari buruzko ikuspegi bat aurkezten dute. Baina, zein da esanguratsuen?

Azpitarragarria da desberdintasunen hirugarren kontzeptuak duen indarra, izaera globala barneratzen baitu errenta-desberdintasunak aztertzerakoan. Muga-banaketen ikuspegia alboratzen du desberdintasunen ikuspegi berri bat plazaratuz, orain arteko begirada zatikatua izan baita. Horrek benetako desberdintasun globalak bere baitan herrialdeen barne-desberdintasunak barneratu behar dituela pentsatzea dakar. Hau da, desberdintasun globalak murrizteko estrategiak herrialde bakoitzaren barne-egituren eraldaketak suspertu behar ditu.

	<b>1. kontzeptua Nazioarteko desberdintasun ez haztatuak</b>	<b>2. kontzeptua Nazioarteko desberdintasun haztatuak</b>	<b>3. kontzeptua “Benetako” munduko desberdintasunak</b>
<b>Oinarrizko informazio-iturria</b>	Kontabilitate nazionala	Kontabilitate nazionala	Etkez etxeko inkestak
<b>Behaketa-unitatea</b>	Herrialdea	Herrialdea (biztanleriaz haztatu)	Gizabanakoak
<b>Ongizatearen kontzeptua</b>	BPG edo NPG per capita	BPG edo NPG per capita	Errenta erabilgarria edo per capitano neurturiko gastuak
<b>Moneta-bihurketa</b>	Kanbio-tasa merkatuan edo EAPn	Kanbio-tasa merkatuan edo EAPn	Kanbio-tasa merkatuan edo EAPn
<b>Barne-desberdintasunak</b>	Ez dira kontuan hartzen	Ez dira kontuan hartzen	Kontuan hartzen dira

Iturria: Milanovic (2005: 27).

Abiapuntutzat hartzen den desberdintasunaren kontzeptua edozein izanda ere, desiragarria den berdintasuna zein den zehaztea emaitza zeinen artean lortu behar den adieraztea bezain garrantzitsua da: herrialde bakoitzaren baitan edo maila globallean. Espazio galdagarria mugatzea erabakigarria da bi arrazoiengatik: a) berdintasun desiragarriaren eta galdagarriaren irizpideak duen justifikazioa aldatu egingo da kontuan hartzen den testuinguruaren arabera; adibidez, justifikazioa aldatu daiteke Mendebaldeko ongizatea baldin bada bere ondorioz munduko beste zona batzuetako beste pertsona batzuen ongizatea zailtzen duen ingurumenaren narriadura bat sortzen ari bada edo baliabideen arpilaketan oinarritzen bada?; b) ongizate-helburuen zehaztapena izaera unibertsal batekin egin behar da, giza komunitate baten existentzia abiapuntutzat hartzen bada. Hori dela-eta, kontuan hartu behar den lurralde-espazioaren zehaztapena ebaluatzen diren edukien zehaztapena bera bezain garrantzitsua da.

### 9.2.3. *Errenta-desberdintasunei buruz dauden datuen berrikusketa*

Ikus ditzagun lehenago errenta-desberdintasunei buruz zehazturiko kontzeptu ezberdinen arabera eskuragarri dauden datuak. Puntu honetan oinarritzko aipamen bat egin behar zaio desberdintasunak neurtzeko metodologiari, derrigorrezkoa baita International Comparison Program delakoak herrialdeen per capita errentaren datuei buruz egindako azken berrikusketaren (World Bank, 2008) aurreko eta ondorengo informazioa ezberdintzea.

Duela urte batzuk arte hainbat herrialdetako per capita errenten arteko alderaketa kanbio-tasen bitartez egiten zen. Metodo horrek ezberdintasun erreala puzteagatik jaso zituen kritikek moneta ezberdinak parekatzeko metodo berri bat hartzea bultzatu zuten, Erosahalmenaren Parekotasunaren (EAP) metodoa. Duela urte gutxiz geroztik Munduko Bankuaren eta Nazioarteko Diru Funtsaren estatistikak, baita beste erakunde batzuenek ere, metodo biak jasotzen dituzte. Eta konkretuki, errenta-desberdintasunak estimatzeari begira, EAParen arabera parekatutako per capita errentak erabiltzen dira.

EAPren metodologia konplexua da eta zalantza handiak sortu izan ditu. Oraindik eraikitze-prozesuan dagoela esan daiteke, ez bakarrik herrialde guztietan egokiak diren ikerlanak burutu ez direlako, baizik eta kalkulu-prozeduretan barneratzen diren aldaketengatik batez ere. Izan ere, prozedura horien berrikusketa batek ondorio zuzenak ditu errenta-desberdintasunei buruzko emaitzetan.


Lehenago aipatu den orain gutxi egindako berrikusketan, bi izan ziren berritasunik nabarmenenak. Batetik, ikerketan Txina eta beste 48 herrialde afrikar barneratu izana, Indiako datuen eguneraketaz gain, orduarte 1985eko emaitzak estrapolatzen baitziren. Berrikusketa hori azken hamabi urteetako lehen erronda globala izan da. Bestetik, moneta ezberdinen erosahalmenen parekotasunen kalkulurako metodologia berri baten aplikazioa gauzatu zen, alderatzen diren ondasun eta zerbitzuen prezio-sorta zabalduz.

Horrek berritasun nabarmenak sortu ditu emaitzetan, batez ere Txina eta Indiaren prezio-mailak lehen baino askoz altuago estimatzen direlako orain, eta horrek EAPn neurturiko haren per capita errenten % 40ko beheranzko berrikuspena ekarri du. Berdina gertatu da Indonesia, Filipinak, Ghana, Argentina eta Hegoafrika herrialdeetan. Askoz urriagoak izan dira, aldiz, goranzko berrikuspenak: Errusia, Mexiko eta Nigeria.

Errenta-desberdintasunen neurketetan emandako berrikuntza hauen ondorioak honela labur daitezke: a) biztanleria haztatzen ez duen 1. kontzeptuari dagokionez, Gini indizeak neurturiko desberdintasuna lehen baino 2,6 puntu altuagoa da; b) errenta biztanleriaz haztatzen duen 2. kontzeptuak hazkunde are handiagoa du, 51,1 puntuetatik 57,8 puntuetara pasatzen baita, hau da 6,3 puntu igo da; Txina alde batera utziz gero iagoera 3,6 puntukoa izan da eta Txina eta India alde batera utziz

gero, 0,8 puntuko; c) 3. kontzeptua estimatzea zailagoa da, etxez etxeko inkestarik berrienak 2002. urtekoak baitira; dena den oinarri hau hartuz Giniren araberrako desberdintasuna 6,3 puntu igo da.

Benetako desberdintasun globalak hobeto jasotzen dira 3. kontzeptuaren bitartez. Horregatik da horren garrantzitsua barne-desberdintasunekin zer gertatu den ezagutzea. Sutcliffe-k (2002) eginiko hurrengo grafikoa, 3. kontzeptuari jarraituz, egun munduko errentak duen banaketa-egituraren irudikapen oso argia da. Berau burutzeko errentaren barne-banaketari buruzko datuak eskuragarri daude, hogeiren (biztanleriaren % 20) bakoitzari dagokion diru-sarreraren ehunekoaren arabera neurturik. Ardatz bertikalean sektore eta herrialde bakoitzaren errenta-mailak neurtzen dira. Eskuineko ardatz horizontalean, herrialde bakoitzaren egiturak aurkezten dira, txiroenetatik diru-sarrera handienak dituztenetara. Ezkerreko ardatz horizontalean, herrialde bakoitzeko egitura erakusten da, sektorerik aberatsena ezkerrean kokatuz eta txiroena, berriz, eskuinaldean. Goi-ekzerreko angeluan PNUDek eginiko antolaketa bat txertatu dugu. Horrek gure mundua hiri bakar batean irudikatuko bagenu, beronek modu errealista batean izan lezakeen itxura adierazten du. Dena den aipatzekoa da irudi honek desberdintasunak direnak baino txikiagoak islatzen dituela, zeren, grafikoa ikus daitekeenez, munduan diru-sarrera apalena dituzten sektoreak are zabalagoak dira eta haien errentak diru-sarrera altuenak dituztenen errentetatik askoz urrunago aurkitzen dira.



Desberdintasun hauek jasotzeko beste modu bat Sachs-ek proposatzen duena da (2007: 28 eta besteak), herrialde bakoitzean hiru biztanleria-geruza ezberdindu duten errenta-mailaren arabera: % 20 aberatsena, erdibidean aurkitzen den % 40 eta % 40 txiroena. Hauetariko bakoitzari dagokion errentaren ehunekoa kalkulatu egiten da. Emaitzek herrialdeak hiru taldetan sailkatzea ahalbidetzen dute: a) polarizaturiko herrialdeak 60:30:10 egitura batekin, hauen artean aurkitzen dira Afrikako herrialde asko eta Latinoamerikako herrialde gehienak; b) gutxi polarizaturiko herrialdeak 40:40:20 egitura batekin, hauen artean daudelarik herrialde industrializatu gehienak; eta, c) polarizazio moderatu bat duten herrialdeak 50:35:15 egitura batekin, hauen artean Estatu Batuak eta Hegoaldeko herrialde gehienak daudelarik. Azken hamarkadetan errenten artean egon den harremanari erreparatu gero, deigarria dena garapenaren, hazkunde ekonomikoaren eta globalizazioaren aurrean, desberdintasunak bere horretan mantendu izana da. Errenten arteko konbergentzia salbuespena izan da eta aldaketaren bat izan den kasuetan, hauek desberdintasunak larriagotzeko norabidean gertatu izan dira<sup>64</sup>.

Desberdintasunei buruz atera daitezkeen ondorioak, neurketarako erabiltzen diren adierazleen eta datuen arabera dira. Konbergentziari eutsi nahi izan zaionean, Txinaren aurrerakada ekonomikoa, eta maila txikiago batean Indiarena, izan dira itxurazko konbergentzia-prozesu horren arrazoirik aipatuenak. Baina EAPko datuen berrikusketaz geroztik, begien bistako nahikoa informazio dago gaur egun munduko errentaren banaketan ematen ari den bilakaera desberdintze-prozesua dela baieztatzeko.

#### **9.2.4. Genero-desberdintasunak**


Desberdintasun sozialak eta ekonomikoak sakontzeko joera duen eredu bat indarrean duen mundu honek, aberastasunaren birbanaketarako helbururik ez duen heinean, seguru aski ez du gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna bermatzeko ardura askorik izango. Izan ere, errenta-desberdintasunek dimentsio askoz larriagoak hartzen dituzte genero-ikuspegitik aztertzen badira. Arazoa honakoa da, interes eta konpromiso falta horrek desberdintasunen sakontasuna eta bilakaera aztertzeke beharrezkoak diren datuen gabezia dakarrela.

Ikus dezagun desberdintasun hauek jasotzen dituen datu bat: gizonezkoen eta emakumezkoen mundu-mailako langabezia-tasak. Hauek hurrengo grafikoan islatzen dira.

---

64. Cornia-ren ikerlanean (2004): 1980tik 2000ra doan epealdian, 73 herrialderen artean desberdintasunak igo egin ziren 48tan eta murriztu 9tan. Hegoaldeko ezein herrialdetan, Taiwanen salbu, ez da desberdintasunen murrizketarik erregistratu azken bi hamarkadetan.

Tasa de desempleo mundial, 1998-2009 (Porcentaje)



Iturria: Nazio Batuak (2009).

Azken hiru hamarkadetan emakumezkoen jarduera-tasak joera hazkorra izan du eskualde gehienetan, salbuespen batzuekin: Ekialdeko eta Erdialdeko Europan (1989az geroztik), Ekialde Ertainean eta Ipar Afrikan, non emakumezkoen jarduera-tasak apal mantentzen diren nazioarteko batez bestekoekin alderatuta. Aitzitik, lan-merkatuek zatikatuak jarraitzen dute genero-gaiei dagokienez, hau azken hamar urteetako langabezia-tasen jokabide ia paraleloetan ikusten da eta konbergentzia oso mugatua islatzen du.

Emakume kopuru handiagoak nekazaritza-sektoretik kanpoko soldatapeko enpleguetara sarbidea izan duen arren, guztientzako lanpostu duin bat eskuratzeko jomuga erdiestetik urrun dago. Enplegatutik dauden emakumezkoen bi heren inguruk enplegu ahulak edo zaurgarriak dituzte, bai familia-negozioetan (hau da, lanpostu ordaindu batean) bai norberaren konturako lanetan. Ordaindu gabeko lanak duen ehuneko altuari, eskualde guztietan emakumeek burutzen duten, eta berez pisutsua den, etxeko-lanen zama erantsi behar zaio; baina, datu hori ez da erregistratzen lan-indarrari buruzko estatistika ofizialetan (Nazio Batuak, 2009).

2008ko finantza-krisiak eta premia-premiazkoak diren artikuluen prezio altuek ahuldu egin dituzte mundu guztiko lan-merkatuak. Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LNE) proiektatu duenez, mundu-mailako langabezia-tasa % 6,3 eta 7,1 arteko mailara iritsi daiteke, emakume langabetuei dagokien tasa % 6,5 eta 7,4 artean legokeelarik (gizonezkoen % 6,1 eta 7,0 arteko tasaren aldean).

### **9.2.5. Aberastasunaren desberdintasunak**


Desberdintasun ekonomikoak ulertzeko edo deskribatzeko beste modu bat, aberastasunen portaeraren azterketan zentratzen da, hau stock adierazle bezala ulertzen denean, fluxu-aldagai bezala errenta kontsideratu ordez. Aberastasuna oso garrantzitsua da segurtasun eta aukera-hornitzaile bezala, bereziki herrialde txiroenetan non segurtasun-sareen gabeziak eta maileguak eskuratzeko zailtasunak nabariak diren.

WIDER institutuak egindako ikerlanak (Davies eta beste batzuk (2008)), etxeetako aberastasunak mundu-mailan duen banaketari buruzko lehen estimazio bat eskaintzen du. Emaitzarik argienak honen kontzentrazio indartsua erakusten du, izatez mundu-errentarena baino askoz handiagoa da eta herrialde gehienek errentaren barne-banaketa baino askoz kontzentratuago agertzen da. Herrialde baten barnean aberastasun-jabetzan % 10 altuenak xurgatzen duen errenta-kuota % 50 inguruan dagoen bitartean (eta Giniren batez bestekoa 0,7 inguruan dagoen bitartean), 2000. urterako datuek iradokitzen dutenez, mundua bere osotasunean hartuz, % 10 altuena aberastasun globalaren % 85aren jabe zen (eta Giniren koefizientea 0,892ra iristen zen). Ohartarazi beharra dago aurreko kalkuluak kanbio-tasak baliatuz egin direla eta hauek EAPn oinarrituriko datuek baino desberdintasun handiagoak erakusten dituztela. Hala ere, aberastasuna aztertzen denean kanbio-tasen erabilera komenigarria da arrazoi asko direla medio, bidaiatu dezaketen eta globalki inbertitu dezakeen jendearen esku dagoen aberastasunaren proportzioa bereziki altua baita.

### **Aberastasunaren banaketa eta biztanleria eskualdeka**

Ikerlan honen alderdi interesgarrietariko bat munduko aberastasunaren banaketa geografikoa ezagutzea da: munduko aberastasunaren % 34 Estatu Batuetan eta Kanadan zegoen 2000. urtean, % 30 European, eta % 24 Asia eta Pazifikoko herrialde aberatsetan. Afrika, Erdialdeko eta Hego Amerika, Txina, India eta Asia eta Pazifikoko beste herrialde batzuek gainerako % 12 partekatzen zuten. Aberastasunaren jabe handienek kokapena are kontzentratuago dago: Ipar Amerika mundu-mailako % 1 aberatsenaren % 39aren jabe da, eta European eta Asia Pazifikokoaren esku dago bere beste % 26 eta % 32 hurrenez hurren. Ipar Amerikak duen kuota altua bereziki neurritz kanpokoa da, zeren munduko biztanleriaren % 6 bakarrik ordezkatzeko baitu.






Iturria: Davies eta beste batzuk (2008: 12).

Hurrengo grafikoak aberastasunak duen banaketa globalaren panoramika bat eskaintzen du informazioa hamarrenetan banatuz (multzo bakoitzak ehuneko hamarra adierazten du), berau biztanleriaren sektore ezberdinetan nola banatzen den kontuan izanik. Sektorerik apalenak aztertuz, Indian hiru hamarrenen baxue-  
nen heren bat inguru aurkitzen da, Txinak laugarren eta zazpigarren hamarrenen artean aurkitzen den jendearen heren bat jasotzen duen bitartean. Latinoamerika nahikoa berdintsu banatua ageri da hamarren guztien artean, eta horrek iradokitzen du eskualde horretako aberastasunaren banaketa munduak bere osotasunean duen banaketaren berdintsua dela. Afrika, Asia eta Pazifikoko diru-sarrera apaleko herrialdeak bereziki beheko aldean daude.

Egungo joerak mantentzen badira, mundu-aberastasunaren banaketaren hamarren baxuenetan gero eta pisu handiagoa izango dute Afrikak, Latinoamerikak eta diru-sarrera apaleko Asia Pazifikoko herrialdeek. Ikuspegi global batetik, zona horietako aberastasun-maila erlatiboki beren errenta-maila baino apalagoa da. Horrek arazo larri bat erakusten du, hain zuzen herrialde horietan jendeak pairatzen dituen danbatekoak eta ziurgabetasunak, gizarte-segurantzarako sarerik ezak eta kreditua arrazoizko baldintzetan lortzeko dituzten zailtasunak direla-eta, erabakigarria baita etxe bakoitzean nahikoa aberastasun izatea.



Iturria: Davies eta beste batzuk (2008:14).

### 9.2.6. Miseriaren kluba

Desberdintasunen seinaleetarik bat munduko zenbait herrialde gainerako herrialdeek duten jokabidetik baztertuta egotean datza. Collier-ek (2008) gehien-goaren jokabidetik aldentzen den herrialde talde baten sorrera aztertu du. Prozesu hau, berria ez izanagatik, ahaztua egon da, baina UNCTADek gutxien garaturiko herrialdeei buruz eginiko sailkapena gaurkotzean<sup>65</sup> berriz ere lehen planora ekarri du. Interesgarria da ikuspegi hau nabarmentzea, gero eta ikertuagoa den aspektu bat azpimarratzen baitu eta desberdintasunetik berezitasun bat eskaintzen baitu: polarizazioa. Kontua ez da soilik desberdintasunak goratuz doazela adieraztea, berau modu zehatz batean eta izaera zital batekin gauzatzen ari dela ikusaraztea baizik, herrialde batzuk trabatuak eta gainerakoen bilakaeratik aldenturik aurkitzen baitira. Desberdintasunak ez dira euren aurrerapausoak besteenak baino geldoagoak izatearen ondorio bat, aurrerakadarik ez izatearen emaitza baizik, edo are gehiago, atzerapausoak bizi izanaren adierazle dira. Beraz, antzetzoki globalak ez du hauen barneratzerako aukerarik eskaintzen.

Collier-ek (2008) pobrezian *harrapaturiko herrialde* talde honen ezaugarriak azpimarratzen ditu: 2006an 980 milioi pertsona bizi ziren herrialde hauetan eta egun zifra hori 1.000 milioi pertsona ingurura iritsi da. 58 herrialde identifikatzen dira egoera honetan, eta gizabanako horien % 70 Afrikan dago. Haien bizi-

65. UNCTADek hiru urtetik behin egiten du herrialdeen artean gutxien garaturikoen sailkapena, hurrengo irizpideei jarraituz: a) diru-sarreraren apaltasuna; b) giza aktiboaren ahultasuna (elikadura, osasuna eta hezkuntza); c) urrakortasun ekonomikoa. Gutxien garaturiko herrialdeen azken zerrenda urteroko txostenean argitaratu zen, 2009an 49 herrialde barneratzen dituelarik.

itxaropena 50 urtekoa da, garapen-bideko gainerako herrialdeetan 67 urtekoa den bitartean; umeen heriotza-tasa % 14koa da, gainerakoen % 4aren aurrean. Desnutrizio-egoeran dauden umeen ehunekoa % 36koa da, gainerakoen % 20aren aurrean. Hirurogeita hamarrek hamarkadan zehar hazkundera urteko % 0,5koa izan zen eta laurogeiko hamarkadan urteko % 0,4 txikiagotu zen, hamarkada horren amaierarako 1970ean zuen maila arte jaitsi zelarik. Laurogeita hamarrek hamarkadan, gehiengoarentzako loraldi-garaian, Miseriaren klubak bere hazkunde negatiboaren abiadura % 0,5era areagotu zuen, hau da, milurtekoa bukatzean 1970ean baino txiroagoak ziren.

### **9.3. MUNDU-POBREZIA**

#### **9.3.1. *Proposamen gainartzailea edo dominantea***

Garapen-estrategiaren egungo nazioarteko agenda pobreziaren aurkako borrokan zentratzen da. Baina abiapuntutzat hartzen den pobreziaren kontzeptuaren arabera, bai bere iturburuei eta garrantziari buruzko diagnosiak bai bere murrizketa edo desagerpenerako egiten diren proposamenak oso ezberdinak dira. Kontzeptu bat edo bestea hartzea auzi nagusietariko bat da. Nazioarteko erakundeek sustatzen duten pobreziaren gaineko proposamen gainartzaileak bi funtsezko ezaugarri aurkezten ditu. Bata, garapenaren helburuak pobrezia murrizteko helburuekin parekatzea edo identifikatzea, pobrezia ulertzeko modu estu edo mugatu bat oinarritzat hartuz. Horren erakusle da pobrezia-mugatzat pertsonako eta eguneko 1,25 dolarreko langa ezarri izana. Bestea, pobreziaren aurkako borrokarako estrategia funtzionaltasunetik ulertzea da, hau da, pobrezia ez da berez erreferentzia bat izango, baizik eta soilik aztergarria izango da ezarritako ordena sozialean dituen efektuak edo ondorioak kezkarriak diren neurrian, bereziki segurtasunaren alorrean.

Bigarren puntu horri dagokionez, orain azalpenetan askorik luzatzeko asmorik izan gabe, komenigarria da pobreziaren eta segurtasunaren harremanei buruzko zenbait aipamen egitea. Orain gutxi arte, pobrezia ez zen segurtasunerako gai kezkarriaren artean sailkatzen. Batzuetan pobreziak nazioarteko egonkortasunean izan ditzakeen arriskuei buruz ohartarazi nahi izan duten ahotsak entzun izan diren arren, inoiz ez zen segurtasun-estrategien atalen baitan barneratu. XX. mendeko azken hamarkadan gertatu da segurtasun-agendaren eta garapen-agendaren fusio hau, gobernantza globalaren kontzeptuaren ikuspegi globalaren haritik.

Segurtasuna ulertzeko modu berri honek mundu-mailan agertzen diren krisi sozialei arreta berezia eta hazkorra eskaintzen die. Aurreko mendeko 80ko eta 90eko hamarkadak desberdintasunen polarizazioaren eta pobrezia globalaren sakontzearen lekuko izan ziren, ondorioz hauek arazo politiko eta sozial larri gisa kontsideratzera pasatu dira. Estatuaren segurtasunak duen zentzua eta mehatxuak ulertzeko modua berrikusiak izan dira, pobrezia globalak krisi sozial larriak sor-

tzen zituela ohartzean: hondamendi naturalak, goseteak, langabezia masiboa, migrazioak, gaixotasunen ugalketa, etab. haren erakusbide dira.

Segurtasunarekiko ardura honetatik abiatuta, potentziek herrialde txiroetako estatuei beren jokabideak gobernantza globalaren printzipioen arabera berrikustea eskatzen diete. Horren arabera helburua ez da egoera ahuleneke sektoreentzat gizarte justuago eta inklusiboago bat eratzea, inbertitzaile kapitalistentzako testu-inguru faboragarria bat eraikitzea eta balizko ezegonkortasun-iturriak ezabatzea baizik. Hau da, interes geostrategikoez alboraturik agertzen zaigun segurtasun nazionalaren kontzeptuak honakoa proposatzen du: euspen-neurriak garatzea aholkatzen du, baina ez du pobrezia eta desberdintasunak ezabatzeko beharrezkoak diren soluzio sakonik eskaintzen. Horren aurrez aurre giza segurtasunaren kontzeptua aurkitzen dugu, zeinek, geroago azaltzen den arren, elkarbizitza baketsu bat bermatzeko nahitaezkoak diren ongizate-helburuak jasotzen baititu.

Pobrezia kontzeptuak funtsezko garrantzia du, bere eskakizunen arabera eta horren ondorioz ordena sozial jakin bat agertuko baita. Hortaz, pobrezia definitzeak eraikiko den gizartearen etorkizuna gidatzen du, onartezina kontsideratzen dena mugatuz eta, ondorioz, egoera bidegabe hori gainditzeko baliabideak eta tresnak abian jartzeko erantzukizunak zehaztuz. Nazioarteko gizarteari egokituriko pobrezia kontzeptua definitzea, eraiki nahi den etorkizuneko garapenaren oinarritzko ataletariko bat da. Izan ere, pobrezia ez da garapenaren kontzeptuarekiko independentea edo arrotza. Hain zuzen, hauen arteko deskonexioa izan da paradoxa bat sortu duena, garapenean emaitza baikorrak lortzen ziren bitartean, pobrezia egonkor mantendu (edo batzuetan areagotu) egin baita.

### **Pobrezia genero-ikuspegi batetik (Arraigada, 2006)**

Pobrezia genero-ikuspegi batetik begiraturaz, emakumeen pobrezia genero-diskriminazioaren ondorioz gertatzen dela baieztatu daiteke. Emakumeek gizartearen duten partaidetza duen menpeko izaerak aukerak mugatzen ditu jabegora eta baliabide ekonomiko, sozial eta politikoetara sarbidea izateko. Haien funtsezko baliabide ekonomikoa lan ordaindua da, hauetara desberdintasun handiko baldintzetan barneratzen direlarik. Hau egungo generoaren araberrako lanaren banaketaren emaitza da, eta emakumezkoek etxeko lanak eta seme-alaben zaintza modu ia-esklusiboan bere gain hartzea eta lan-merkatuan barneratzeko zein bertan mantentzeko diskriminazio modu tradizionalak (zein berriak) bere horretan mantentzea dakar. Latinoamerikako egoera bertako emakume guztientzat antzekoa izan ez arren, ezin herrialdetan lortzen da lan berdinagatik soldata bera emakumezkoen eta gizonezkoen artean: izaera bertikal zein horizontaleko segmentazio okupazional baten existentziak emakumezkoek lanpostu berdinak ez izatea eta okupazio-maila altuagoetara gizonezkoen maila berean sarbiderik ez izatea dakar. Horren aldamenean kokatzen dira emakumezkoek gutxiagotasun-posizio baten ezaugarriak leporatzen dizkieten ikuspegi esentzialistak, emakumezkoen erreproduktibiorako gaitasunari loturik etxeko jarduera erreproduktiboan ardura ere emakumeei esleitzen...

Emakumeak txiroak dira, beren beharrianak asetzeko modurik aproposenak bilatzeko denborarik ez izateagatik, eta emakumeen proportzio garrantzitsu batek diru-sarrera propiorik ez duelako.

Horrela, emakumezkoen kasuan, pobrezia errenta-terminoetan neurtzeaz gain, esanguratsua da berau denbora-terminoetan aztertzea. Pobreziaren dinamika ezagutzeko, beharrezkoa da denboraren kontzeptua aztertzea, batez ere emakumeen lanaren zati handi bat —etxeko lanak— ez dagoelako diruz zenbatetsia, baina denbora-terminoetan neurtu daitekeelako. Hainbat ikerlanek (bereziki denboraren erabilerari buruzko inkestek) emakumeen lan-jardunaldia gizonena baino luzeagoa dela erakutsi dute, emakumeek beren etxebizitzetan egiten dituzten ordainsaririk gabeko etxeko lanak barneratuz gero. Era berean, emakumeak berriki lan-merkatuan barneratu izanak ez du ekarri paraleloki gizonak etxeko lanetan eta seme-alaben zaintzan barneratu izana: seme-alaben, adinekoen, beste familiarteko batzuen eta gaixoen zaintzan besteak beste.

Lan-merkatuko lanari dagokionez, bereziki emakumeei gogor erasaten dieten lau esklusio modu existitzen dira: i) langabezia; ii) lan-merkatuan barneratzeko modu prekarioak edo ezegonkorak; iii) ordainsaririk gabeko lanak, eta iv) haien potentzialitateak garatzeko aukera-gabezia. Esklusio modu horiei gehitzen zaizkie emakumeek burutzen dituzten lanbideen genero-desberdintasunak (segmentazio okupazional horientala eta bertikala) eta lan-merkatuko soldata-diskriminazioak.

Laburtuz, pobrezia genero-ikuspegi batetik aztertzeke hainbat indar-harreman bistaratu behar dira, hala nola lan-merkatuko genero-esklusioei, desberdintasunei eta diskriminazioei loturikoak, ordainsaririk gabeko lanaren banaketa desorekatua, emakumeen aurkako indarkeria fisikoaren eta sinbolikoaren erabilera eta gizonezkoen eta emakumezkoen denboraren erabilera ezberdina.

Hortaz, pobreziaren inguruko eztabaida ez da txiroak nortzuk diren eta hauen neurketa burutzeko moduari loturiko kontu teknikoetara mugatzen. Pobrezia aztertzean, gakoa onargarriak diren mugei buruz hausnartzea eta giza egoerarentzat jasanezinak izateagatik bizimodu onartezinak zein diren pentsatzea da. Kontu hauei erantzunak eman ostean bakarrik barneratu behar da politikak diseinatzeko eta adierazle egokiak diseinatzeko tekniken inguruko eztabaida.

### **Pobrezia eta Milurtekoko Helburuak**

2005eko irailean Nazio Batuen Munduko Goi-bilera egin zen; haren helburuetariko bat bost urte lehenago, 2000. urtean, Milurtekoko Goi-bileran harturiko konpromisoak zein neurritan betetzen ari ziren ikuskatzea izan zen. Arreta pobreziaren murrizketan lorturiko emaitzetan fokatzen zen, 2005. urtea, ez alferrik, Pobreziaren aurkako Nazioarteko Urtea izendatu baitzen. Duela urte batzuetatik aurrera, pobreziaren aurkako borroka protagonismoa irabaziz joan da nazioarteko erakundeen kezken artean, egun lankidetz-estrategien puntu nagusia bilakatu delarik.

Milurtekoko Goi-bilerak pobrezia errealtate global gisa ulertzen hasteko mugarri garrantzitsua izan zen, haren ezabapena modu bateratuan eta denen laguntzarekin bultzatu behar dela proposatzean. Nazio Batuen Batzar Nagusian adostu zen Milurtekoko Adierazpenaren onarpen zabalak, 189 estatuburu bildu zituen ekitaldiak —ordu arte inoiz erdietsi gabeko kopurua— gertakizunari eman zitzaion garrantzia islatzen du. Horrela, XXI. mendea garapen globalari buruzko Nazio Batuen proposamen batekin esnatu zen, ahulezia ugari izanagatik nazioarte-mailan ordezkagarritasun handiena duen erakundetik alegia. Proposamenaren berezitasuna, zehaztasunik gabeko aurreko proposamenekin alderatuz, bere printzipioak konpromiso zehatzekin lotuak agertzea da, konpromiso horiei Milurtekoko Garapen Helburuak deritzelarik (MGH); horien baitan pobrezia murrizketa da helburuen artean behinena eta adierazgarriena.


Nazio Batuek goi-bileretan adosturiko akordioen aldarrikapenetik bost urtera jarraipena egiteko duten ohiturari jarraituz, 2005. urtean Milurtekoko Goi-bileraren lehen balantzea egiteko abagunea agertu zen. Ez dago esan beharrik azterketa hau erabakigarria izan zela. Izatez, helburuak gauzatzeko eragileen sinesgarritasuna jokoan zegoen, batez ere helburuak erdiesteko baliabideak eskaintzeko erantzukizuna beren gain hartu zuten kasuan. Aurretiaz ere agertuz joan ziren alde anitzeko erakundeen hainbat txosten aurrezarritako xedeetan aurrerapauso oso apalak ematen ari zirela azpimarratuz. PNUD/GNBPren *Giza Garapenari buruzko Txostena 2005*, diagnosi orokor bat egiteko eskuragarri dagoen informazio-iturririk objektiboena kontsidera liteke.

Txostenaren ondorioa zera da, aurrerapauso batzuk eman diren arren, ez dagoela ospakizunerako arrazoi handirik. Are gehiago, adierazten duenez balantze orokorra etsigarria da, herrialde gehienek daramaten norabidea ez baita MGHak erdiesteko egokia, batez ere Saharaz hegoaldeko Afrika eta Erdialdeko zein Ekialdeko Europaren kasuan, azken urteotan zona horietako giza garapena murriztu egin baita handitu beharrean. Txostenak dio giza garapenari dagokionez mundua hondamendi batera bideraturik dagoela eta, larriagoa dena, hondamendi hori eragozteko berau aurreikustea bezain erraza dela. Testuinguru honen aurrean berrikusketa sakona beharrezkoa egiten da, hutsune honen arrazoiak eta giza garapenaren gainbehera gaur egun indiferentziaz ulertua izateko faktoreak zein diren aurkitu ahal izateko, besteak beste. Datuek erakusten duten larritasunak mahai gainean jartzen du honako galdera: zein mailatan islatzen dute aitortpenak eta helburuek pobreziarik gabeko mundu bat eraikitzeke benetako borondate eta asmo bat? Eta modu zehatzagoan hurrengo galdera dakar gogora: zein da hondamendi honetan herrialde aberatsek duten erantzukizuna?

### 9.3.2. *Pobrezia bilakaera*

Milurtekoko Helburuen artean lehena eta adierazgarriena, muturreko pobrezia eta gosea errotik ezabatzea da. Hori bi jomugatan zehazten da: a) erdira murriztea, 1990. eta 2015. urteen artean, eguneko dolar bat baino diru-sarrera baxuago duten pertsonen ehunekoa; b) erdira murriztea, 1990. eta 2015. urteen artean, gosea pairatzen duten pertsonen ehunekoa.

1990az geroztik, garapen-bideko munduaren muturreko pobrezia eguneko dolar batean (1985eko prezioetan) finkaturiko nazioarteko pobrezia-lerroaren bitartez neurtu zen, geroago langa hori eguneko 1,08 dolarretan finkatu zelarik, betiere 1993ko Erosahalmenaren Parekotasunean (EAP) neurturik. Gaur egun, desberdintasunen neurketarekin gertatu zen bezala, aurreko prezio-mailen estimazioen Nazioarteko Alderaketa Programaren berrikusketak eta, ondorioz, garapen-bideko zenbait eskualdetako ekonomien tamaina errearen estimazioen berrikusketak, pobrezia globalaren dimentsioen eta kokapenaren ebaluazio berri bat egitea behar-tu du.



Iturria: Finanzas y Desarrollo, 2008ko abendua, 58. orrialdea.

Munduko Bankuak jarraian azaltzen den moduan laburtzen zituen 2008. urtearen erdialdean egindako berrikusketaren emaitzak<sup>66</sup>. Lehendabizi, nazioarteko pobrezia-lerroa berrikusi zen, hau eguneko 1,25 AEB\$-etan finkatu zen —2005eko prezioak—; langa horrek munduko 10 edo 20 herrialde txiroenen batez besteko pobrezia-lerroa adierazten du. Bigarrenik, garapen-bideko herrialdeetan bizitzearen kostua garestiagoa dela aditzera eman izanak aurreko pobrezia-estimazioak zuzendu beharra ekarri du. Datu berriek pobrezian bizi den pertsona kopurua handiagoa dela adierazten dute: berrikusketaren aurretik txiroen zenbatekoa 1.000 milioi pertsonatik behera jaitsi zela baieztatzen zen, doikuntzen ondoren herrialde txiroenen mailaren arabera, oraindik orain txirotasun-egoeran bizi den pertsona kopurua 1.400 milioietan kokatzen dela estimatzen da. Eguneko 2 AEB\$-eko pobrezia-lerro

66. Chen eta Ravallion-ek (2008) prestatutako dokumentua oinarritzat hartuz, *PovcalNet* webguneak lehen mailako datuak erabiliz estimazioak erreproduzitzeko aukera ematen du, pobrezia-lerro, adierazle eta herrialde talde ezberdinekin probak egiteko eta herrialde ezberdinen estimazioak egiteko besteak beste. Ikusi: <http://econ.worldbank.org/povcalnet>

bat erabiliz, 2.600 milioi pertsona txiro existitzen direla estimatzen da, hau datu absolutuei dagokienez. Ehunekoak aztertzen badira, betiere langa berria aplikatuz, pobrezia murrizketa mantentzen da eta une honetan % 26an kokatzen da, beti aurreko estimazioen gainetik. Hirugarrenik, egungo aurrerapauso-tasak mantenduz gero, 2015ean oraindik 1.000 milioi pertsona biziko dira eguneko 1,25 AEB\$-en azpitik.

Baina eguneko 1,25 dolarreko adierazlea ez da nahikoa pobrezia-langa gisa, ezin baitaiteke baieztatu maila hori gainditzen dutenek bizitza duintzat hartzen dena erdietsi dutenik. Munduko Bankuak berak onartzen du 1981. eta 2005. urteen artean 1,25 AEB\$-eko maila gainditu eta pobrezia absolututik ihes egitea lortu zuten 600 milioi pertsonak txiroak izaten jarraitzen dutela diru-sarrerara ertainak dituzten garapen-bideko herrialdeen mailarekin alderatuta eta zalantzarik gabe herrialde aberatsetan pobrezia duen esanahiak zedarrizten duen mailarekin konparatuta. Izan ere, Munduko Bankuaren ustez, eguneko 2 dolarreko langa egokiagoa litzateke gaur egunerako<sup>67</sup>. Erreferentzia horretatik abiatuz gero, pobrezia jokatzen ez du murrizketarako joera argirik erakusten, egonkortasunerako joera bat baizik. Aspektu kuantitatiboan gainetik, pobrezia agerraldi berriak azpimarratu behar dira eta hauek halaber desberdintasun modu berriak dakartzate. Horrela, pertsonak txiroen taldean sartzeko eta ateratzeko joera hazkorrak, murrizketa iraunkorra lortzeko ezintasuna ekartzen du, baita hirigunetako pobrezia duen hazkunde eta landaguneetako pobrezia duen egonkortasunerako joera zein txiroen baitan sektore informalean lan egiten duten langileen hazkunde ere; azken horrek lan-baldintza txarrak eta ordainsari apalak dakartza neurri berean. Azkenik, aipagarria da zein azkar hedatu den pobrezia Europako ekialdeko herrialdeetan eta antzinako SESBn, merkatu-ekonomiarako trantsizio-prozesuak martxan jartzean.

Muturreko pobrezia buruzko mundu-mailako datuak ez dira generoaren arabera bereizten eta, ondorioz, zaila da pobrezia duen eta gosearen murrizketan emandako aurrerapausoek, ematen diren lekuetan, emakumeei eta beren alabei zein mailatan mesede egiten dieten jakitea. Nazio-eremuko datuek adierazten dutenez, emakumeek gizonekiko nagusitasuna mantentzen dute pobrezia duen eta goseari dagokienez eta arrazoen artean bai hezkuntza- zein osasun-zerbitzuen sarbidean bai ondasunen gaineko kontrolean jasaten duten diskriminazio sistematikoa ageri dira. Adibidez, Hegoafrikan etxe-nagusitzat emakume bat duten familien bi heren pobrezia duen dira, oster, etxe-nagusia gizona bat duten familien artean ehuneko hau herenera jaisten da (UNIFEM, 2009).

---

67. Gainera, Bankuaren estimazioek eguneko 2 AEB\$-eko langa gainditzeko aurrerapauso txikiagoak egin direla diote. Ez da aldaketarik sumatzen eguneko 2 AEB\$-ekin bizi den pertsona kopuruan (2.500 milioi pertsona 1981. eta 2005. urteen artean), 90eko hamarkadaz geroztik zifra hori murriztuz joan den arren, hamarkada horren aurretik hazkundeak izan ondoren. Eguneko 1,25 AEB\$ eta 2 AEB\$ arteko diru-sarrerekin bizi den pertsona kopurua bikoiztu egin zen, 600 milioi pertsonatik 1.200 milioi pertsonara igaroz, 1981. eta 2005. urteen artean.





Iturria: UNIFEM (2009); Emakumezkoen aurrerakada munduan, 2009. NLE/OIT-tik hartua.

### Pobrezia eskualdeka

Eskualdeen arabera testuinguru eta egoera oso ezberdinak ageri dira. Pobreziaren zifrak murriztu egin dira Asian, baina areagotu egin dira beste hainbat zonatan. 1980ko hamarkadaren hasierako datuak aztertzen badira, ikus daiteke Ekialdeko Asia zela munduan pobrezia gehien pairatzen zuen eskualdea: 1981ean biztanleriaren ia % 80 eguneko 1,25 AEB\$ baino gutxiagorekin bizi zen. 2005ean, ehuneko hori % 18ra jaitsi zen. Neurri horren arabera, Txina bakarrik kontuan hartuz, bertan pobreziatik irten diren 600 milioi pertsona bizi dira, herrialde horretan denboran zehar eman diren aurre-rapausoak gorabeheratsuak izan diren arren. Aldiz, Txina garapen-bideko munduko datuetatik kanpo utziz gero, pobrezia-tasa 1,25 AEB\$-etan neurtuta % 40tik % 29ra murriztu zen 1981etik 2005era doan epealdian, baina hori ez da nahikoa izan txiroen guztizko kopurua murrizteko, berau 1.200 milioi pertsonen inguruan mantendu baita. Hegoaldeko Asian, pobrezia-tasa % 60tik % 40ra jaitsi zen 1981. eta 2005. artean. Halere, berau ez da pertsona txiroen zenbatekoa murrizteko nahikoa izan.


1981. eta 2005. urteen arteko epealdian, pobrezia-tasa murriztu egin zen Latinoamerikan, Kariben, Ekialde Ertainean eta Iparraldeko Afrikan, baina murrizketa ez da pertsona txiroen guztizko kopuruaren jaitsierarekin bat etorri.


Ekialdeko Europan eta Erdialdeko Asian pobreziaren eragina eta txirotasunean bizi diren pertsonen kopurua areagotu egin da, nahiz eta 1990eko hamarkadaz geroztik baikortasunerako aztarnak ere egon badauden.

Afrikan, pobrezia-tasa egonkortu egin da epealdi horretan, % 50ean mantentzen delarik. Honek esan nahi du txirotasunean bizi diren pertsonen kopurua ia bikoiztu egin zela, 200 milioietatik 380 milioietara. Afrikako pobrezia-tasak gora egin zuen 1990eko hamarkadaren erdialde arte, baina ondoren murriztu egin zen. Dena den, pobreziaren larritasuna handiagoa da Afrikan beste eskualde batzuetan baino.

Lehen Milurtekoko Helburuak, aurretik aipatu den moduan, pobreziaren murrizketari begira bi jomuga aurkezten ditu. Lehenengoak, aurreko paragrafoetan aztertuenez, pertsonako gutxieneko diru-sarrerei egiten die erreferentzia. Bigarrenak munduan desnutrizio-baldintzetan bizi diren pertsonen ehunekoak erdira murriztea proposatzen du. Errentaren arabera neurturiko pobrezia-tasarekin alderatuz (zeinak pobreziaren langa egokitasunez finkatzeko zailtasun handiagoak aurkezten dituen), desnutrizio-mailen ezarpenak objektibotasun-gradu handiagoa eskaintzen du (eztabaidak onargarriak diren arren).

Diru-sarreren pobreziarekin gertatzen den bezala, desnutrizioan oinarrituriko pobrezia-indizeek erakusten duten joerek ere aurrezarriz jomugak erdiesteko itxaropen gutxi eskaintzen dute. Hurrengo bi grafikoek munduko gosea ezabatzeko dauden zailtasun handiak erakusten dituzte. Desnutrizio-egoeran daudenen zenbaterako absolutuari begiratzen badiogu, harrigarria da azken bi hamarkadetan zifra konstante mantendu dela ikustea, 2003az geroztik gora egin duela jakinda. Datu horren esangura neurtzeko, gogoratu beharra dago azken bi hamarkadetako munduko ekonomiaren ibilbidea bereziki oparoa izan dela. 2007/08ko finantza- eta ekonomia-krisiaren ondorioz, zifra hori areagotu egin da. 2009. urtearen amaieran gosea pairatzen duten pertsonen kopurua 1.000 milioien gainetik kokatu da, Nazio Batuen Elikagaien Mundu-Programak emandako datuen arabera. Desnutrizio-egoeran bizi diren pertsonen ehunekoak erakusten duen ibilbidea aztertzen bada, beherako joera txiki bat ikus daiteke 1990eko hamarkadan zehar, joera hori 2003tik aurrera irauli egiten den arren. Harrezkero, ordu arteko lorpenak ezabatzeko arrisku larria dakarren desnutrizio-tasaren hazkunde nabarmen bat kausitu da.





Iturria: FAO; Elikadura-segurtasunik ezaren egoera munduan, 2008.

#### 9.4. GIZA SEGURTASUNA

Egungo globalizazio-prozesuaren adierazpen edo agerraldi nagusietariko bat, gero eta ugariagoak diren eta indarrean dagoen eredu ekonomikoaren ia derrigorrezko bidaia-lagun diren hegakortasun- eta ziurgabetasun-prozesuetan aurkitzen da. Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Gaietarako Sailak (EGGS, 2008) kezka hau jasotzen du bere 2008ko Munduko Ekonomiaren eta Gizartearen Ikerlanean, «Ekonomiaren segurtasun eza nola gainditu» izenburupean. Txostenaren amaiera oso adierazgarria da arduratzen duen arrazoiarengatik. Batetik Keynes aipatzen du «indar ekonomikoaren funtzionamendua kontrolatzeko eta egokitzeko politika eta tresna berriak» eskatzerakoan, «ez zezaten modu onartezinean eragin, egonkortasun eta justizia sozialaren mesedetan, gaur egun bidezkoa edo egokia uste denaren inguruan». Bestetik, globalizazioaren dimentsio sozialari begira oso garrantzitsua den gogoeta bat egiten du: «Oparotasuna bermatzeko beharrezko politiken aukeraketak eta konbinaketak, egonkortasunak eta justiziak, instituzioen eta boto-emaile nazionalen erantzukizuna izaten jarraitzen dute, baina gero eta elkarrekiko mende-koagoa eta hauskorragoa den mundu honetan gero eta etxe seguruagoa eraikitzea benetako nazioarteko zeregin bat da».

Globalizazioaren dimentsio sozialak segurtasuna (edo egonkortasuna) aztertzekoan, berau ongizatea erdiesteko prozesu bat bezala ulertu behar du. Bera gabe, pertsonak beren bizitzan kalte larriak izatera bideratuta daude. Segurtasunarekiko kezka hain zuzen ere, hegakortasuna eta ziurgabetasuna garapen-bideko herrial-

deen ezaugarri bereizgarriak zirela ohartzean jaio zen, eguneroko ongizatearen bilaketari eragiten ziola baieztatu zenean. Giza segurtasunari eginiko aipamen honek ez du zerikusirik segurtasuna tradizionalki ulertzeko moduarekin (azken hau gatazkarekin lotzen baita), segurtasuna ongizatearen aurreikusgarritasunaren ikuspegitik ulertuta baizik.

Giza segurtasunaren kontzeptuaren barneraketa, gaur egun duen adierarekin, lehenegoz 1994ko Giza Garapenaren Txostenean eman zen (PNUD, 1994), bertan ulertzen denez ezinbestekoa da prozesuaren jarraitutasuna bermatzea, bera gabe giza garapenaren zentzua erabat indargabetzen baita. Beste modu batera esanda, garapenak oinarritzat giza gaitasunen zabalkundea duela baieztatzeak esan nahi du prozesu hori bere jarraitutasuna bermatuko duen modu batean burutu behar dela.

Txosten honen egile eta bultzatzaile nagusia den UI Haq-en iritziz, Gerra Hartzaren ondorengo testuinguru berriak segurtasunaren kontzeptu berri bat onartzea ahalbidetu eta aldi berean behartu zuen eta horren ardura nagusia pertsonak izan behar zuten. Irakurketa berri honen arabera, segurtasunaren gakoa pertsonak beren eguneroko bizitzan zuten segurtasuna zen —haien etxebizitzetan, lanpostuetan, kaleetan, elkartean baitan eta beren inguruan—. Giza Garapenaren Txostenean adierazten denez: «Giza segurtasunaren kontzeptu berri bat diseinatzeko garaia da, eta herrialdeentzako arma hobetan islatu beharrean, pertsonentzako bizitza hobean gorpuztu behar da. Biztanleen segurtasuna ahaztua duten herrialdeek ezin izan dute beren nazioaren segurtasuna bera ere babestu». Interesgarria da hemen ere berriz tokikoaren eta globalaren artean dagoen harremana azaleratzen dela ikustea.

### Giza segurtasuna PNUD/NBGPN

Giza segurtasunaren ideia jasotzen duten PNUDen zenbait testu:

«Jende askorentzat eguneroko bizitzaren ardurei loturiko segurtasun-gabeziaren sentipena mundu-mailako hondamendi bat pairatzeari zaion izua baino handiagoa da. Nahikoa baliabide ote dute beraiek eta beren familiak elikatzeko? Lana galduko ote dute? Haien auzuneak eta kaleak delinkuentzia dela-eta seguruak ote dira? Estatu zapaltzaile batek torturatuko ote ditu? Sexu-arrazoiengatik indarkeriaren biktima izango ote dira? Jazarpena jasango ote dute euren erlijioa edo jatorri etnikoa direla-eta? Azken finean, giza segurtasuna hiltzen ez den ume batengan islatzen da, edo zabaltzen ez den gaixotasun batean, edo deuseztatzen ez den enplegu batean, indarkeriaz eztanda egiten ez duen arazo etniko batean, edo isilarazten ez den disidente baten ahotsean gorpuzten da. Giza segurtasuna ez da armekiko ardura bat: gizakion bizitzarekiko eta duintasunarekiko ardura bat da» (GGI, 1994: 25).

«Batetik, gosea, gaixotasunak eta errepresioa bezalako mehatxu kronikoen aurkako segurtasun bat adierazten du. Bestetik, eguneroko bizitzaren bat-batekoak eta mingarriak diren aldaketen aurrean babes bat izan nahi du, bai etxebizitzan, bai enpleguan baita komunitatean ere. Mehatxu hauek herrialde baten diru-sarrera eta garapen-maila guztietan ager daitezke» (GGI, 1994: 26).

Azken boladan mundu-ekonomiak erakutsitako ezegonkortasunaren aurrean (bereziki finantza-sektorean) eta indarrean dagoen eredu liberalizatzailearen ondorioz, giza segurtasunaren kontzeptua dimentsio sozialaren elementu bat bezala ulertzeko aukera areagotu egin da. Ekonomia globalak 1990eko hamarkadan zehar bizi izan zituen krisi anitzek kolokan jarri zuten berrogeita hamar urte lehenago Bretton Woods-en nazioarteko sisteman ezarritako egonkortasuna. 1994ko abendu-ko krisi mexikarraren ostean, 1997-98 artean Indonesia, Korea eta Tailandiako krisiak izan ziren eta, ondoren, krisi hori oraindik ia amaitu gabe zegoela, finantza-ezegonkortasuna Errusiara iritsi zen 1998an, Brasilera 1998-2002 artean, Turkiara 1999-2002 artean eta Argentinara 2000-01ean. Herrialde garatuetan, batik bat Estatu Batuetan, «puntu.com burbuilaren» eztandak ordu arteko espekulazioari amaiera jarri zion eta nazioarteko burtsak kolapsora bideratu zituen 2001eko udazkenean.

Giza segurtasunak azpimarratu egiten ditu pertsonen eta gizarte-segurtasunaren arteko harremanak batez ere aldarrikapen-eskubidea eta beste hainbat eskubideren onarpena oinarritzat hartuz, beharrianak asetzeko goitik beherako interbenzionismoan oinarritu ordez. Giza segurtasuna helburu gisa onartzeak funtsezko aldaketa bat dakar ikuspegi liberalarekin alderatuz, azken honek hautabide eta aukera pertsonalen esku uzten baititu balizko zorigaiztoen aurrean eman daitezkeen erantzunak. Giza segurtasunak, aldiz, ikuspuntu arrazionalago bat eskaintzen du, zeinaren arabera Estatua eta gizartea baitira beharrian horiek asetzeko bermea<sup>68</sup>.

Azpimarratu behar da ez garela segurtasun pasibo batez edo emaitzetan oinarrituriko segurtasun batez mintzo, eta hortaz ezin da pertsona mendeko bihurtzen duen segurtasun gisa ulertu, proposatzen dena giza garapenaren gaitasunen kontzeptutik elikatzen den segurtasun kontzeptu bezala agertzen da, aldiz. Horrela, giza segurtasuna ongizatea erdiesteko prozesua kontrolpean izateko gaitasun bezala definitzen da. «Askatasuna»ren adiera zabal bat da, beraz, ongizatearentzako mehatxu potentzialak bereganatzen dituen; egungo eta etorkizuneko arriskuetatik aske egotea da eta segurtasun-gabezia objektibo batzuk (zoriaren araberakoak) egon badaudela onartzetik abiatzen da. Beste gauza bat dira hondamendiak, zeren estrategia leungarriak eskaini arren, inoiz ezingo baitira ez aurreikusi ez eragotzi. Aldiz, ustekabeak edo halabeharrak bizi-zikloaren parte dira.

Azken ohar bat giza segurtasunaren errealismorik ezari eta bere proposamenen gehiegizko gurariei egin dakizkiekeen balizko kritikei buruz. Egia da segurtasunari buruzko antsietate eta izu-sentipenak gizaki guztietan komunak direla, gizatasunaren parte baitira eta ondoezaren (ongizate-ezaren) arrazoietariko batzuk kontsideratzen baititu. Baina kontua ez da gizakiak ziurgabetasunarekiko immunizatzea,

---

68. Duela urte batzuek geroztik Bath-eko Unibertsitatean ikerkuntza-talde bat garapen-bideko herrialdeetako ongizatea neurtzeko metodologia bat lantzen aritu da, giza segurtasunari buruzko aspaldiko ardura berreskuratuz.

baizik eta ulertzea biztanleria-geruza batzuentzat sentipen horiek (eta euren erreallitateak eskaintzen dizkien erronkak) neurritz kanpokoak direla, beren inguruaz duten kontrol pertsonala oso ahula delako eta gizarte-babesaren erakundetzea ezdeusa delako.

## **9.5. JUSTIZIA GLOBALA**

### **9.5.1. Gailentzen ari den gizarte globala**

Globalizazioaz hitz egiteak berak nolabait ere mundua, astiro eta desberdintasun ugariarekin bada ere, gizarte-izaera bat hartzen ari dela onartzea dakar (Sachs eta Sartorius, 2007). Gailentzen doan mundu-mailako gizarte gure aroaren ezaugarri bereizgarria da. Gizarte honek zein itxura hartuko duen jakin ezin den arren, haren egungo egoera duela zenbait mende izan ziren gizarte nazionalen eraketa-prozesuekin aldera daiteke (salbuespen askorekin bada ere). Honekin ez da esan nahi gizarte globalaren eraikuntza gizarte nazionalen parametroetara egokitu behar denik, ez eta haien pausoei jarraitu behar dienik ere, baina bai antzekoa den zerbait nolabait ere gailentzen ari dela, plazaratzen ari den komunitate honek modu kolektiboan jarduteko tresnak, politikak, balioak, etab. eskatzen baititu. Izan ere, gizarte berri bat eraikitzen ari bada, gizarte globala alegia, honek ez du modu egokian funtzionatzerik izango, ez badu justizia minimo bat, edo hobe esanda, ez badu bere zilegitasuna justiziaren bitartez eskuratzeko asmorik. Gizarteek neurriren batean bidezkoak eta justuak izan behar dute, tokiko esparruan zein esparru globalean.

Egungo tokiko gizarteak eraiki ziren garaian gizakion gogo-oinarriak ez zituen barneratzen giza duintasuna eta demokrazia (edonolako forma dutela ere) elkarbizitzarako beharrezko eredu bezala, orain duten indarrarekin eta uste osoarekin. Gaur egun kontzientzia orokorrak garrantzi nabarmena ematen die oinarri hauei eta gizarteak behar duen legitimitatea eskuratzeko funtseko tresna bilakatu ditu. Kontua zera da, tokiko esparruan helburu horiek finkatzea ezinbestekoa den bitartean, nola definitu daiteke globalizazioa giza duintasunaren edo demokraziaren ikuspuntutik? Globalizazioaren bultzatzaileek —azpimarratu behar da globalizazio hau zerbait kontzientea, bilatua, izan dela— justizia lortzea helburu gisa ezarri ez izana da, ezbairik gabe, prozesu honen paradoxarik nagusietarikoa.

Hori dela-eta, loturak gero eta nabariagoak egiten diren munduan bizi arren, justiziazko helburuei aurre egiteko (desberdintasunei eta pobrezia irtenbide bat emateko, edo erronka globalei —ingurumen, osasun edo beste edozein arazori— erantzuteko), beharrezkoak diren kategoria globalen gabezia dago. Errenta- desberdintasunei dagokienez, egungo kezka haren eboluzioa ezagutzera eta ahalik eta modu zehatzenean neurtzera mugatzen da. Emaitzei begiratuz, esaten den gauza bakarra da desberdintasunak hain handiak izatea ez dela desiragarria, horrek inplizituki hauek murrizteko zenbait ekintza abian jartzea dakarrela kontuan hartzeke.

Baina ez da ezartzen onertezinak diren mugak seinalatuko dituen helburu arau-mailerik (muturreko pobreziarekin egiten den bezala adibidez) eta, noski, desiragarriak diren mugei buruz ez da deus esaten. Egia da gizarte garatueta ekitate-helburuak adierazten dituen definizio zehatzik ere ez dela existitzen, baina hala ere hauek finkatuta daude gizarte-mobilizazioari esker eta, oro har, gizarteak egiten dituen aldarrikapenen bitartez. Kontua da, tokiko esparruan birbanaketa ahalbidetzen duen mekanismo hau, esparru globalean ez dela existitzen.

### **9.5.2. Arazoaren egoera**

Justizia globalerako proposamen oso gutxi daudela onartzea abiapuntutzat hartuz, azpimarratu behar da justiziaren inguruko teoria hauen arteko gehienak nazio-estatuaren baitan kokaturiko gizarteentzako diseinatuak izan direla. Nagel-ek (2005) modu adierazgarrian honakoa dio: «Ez gara mundu justu edo bidezko batean bizi... agian hau izan daiteke teoria politikoaren baitan eztabaidarik gutxien sortuko lukeen baieztapena». Aldiz, ez dago horren argi justiziak mundu-mailan duen esanahia, edo justiziagatiko itxaropenak nazioarteko instituzioen esparruan eta nazioarteko ordenan eragiteko gaitasuna duten estatuen politiketan izan lezakeen eragina. Esparru globalean kontu honek duen azpigarapena eta sortzen duen harri-durarekin alderatuz, tokiko teoria politikoa askoz hobeto ulertzen da. Aitzitik, justizia globalaren kontzeptuak eta teoriak bere lehen urratsetan aurkitzen dira eta ez dago argi funtsezko faktoreak zein diren, gainera, faktore horiei eman beharreko erantzunak are landugabeago daude. Nagel-ek bere ezkortasuna adierazten du egunen batean nazio-estatu ezberdinek justiziaren kontzeptu global bakar bat erabiltzearen inguruan gaitasunik izango ote duten aztertzerakoan.

Nahikoa orokorturik aurkitzen den ezkortasun hori ulertzeko, gogoratu behar da nazioarteko erakundeek mundu-mailako birbanaketa-helburuak bertan behera utzi zituztela 80ko eta 90eko hamarkadetan zehar; aurretik, 60ko eta 70eko hamarkadetan, Ipar-Hego arrailaren murrizketa garapenaren agendaren<sup>69</sup> puntu nagusietariko bat izan zen arren.

Azken hamarkadetan ekitatearen helburuak ahuldu dituzten zenbait prozesu gertatu dira, eta are gehiago, asmo hauek alde batera utzi behar direla esan izan da, herrialde sozialistek eta, batzuen ustez, aurreratuegiak diren ongizate-estatuaren ereduak jasandako porrotak gogoan hartuz. Beraz, esan daiteke ezen desberdintasunen diskurtso legitimatzaile bat dagoela, hau lehiakortasuna bermatzeko eta hobetzeko grina pizteko ezinbesteko baldintza bezala aurkezten da eta, aldi berean, berdintasun-nahiak lo-eragile kontsideratzen dira. 80ko hamarkadaz geroztik indarrean den egitarau neoliberalak kostu sozialen murrizketan zentratu da indar handiz, prezioak lehiakorrak izan daitezen nazioarteko merkatuetan.

---

69. Munduko Bankuaren 2006ko Txostena izan zen pobrezia murrizketarako estrategiaren baitan birbanaketa-helburuak proposatzen dituen txosten batek nazioarteko alde anitzeko erakunde baten onespene ofiziala jaso zuen lehen ikerlana.

Pentsamendu aurrerakoiak, oro har, beti ulertu izan du berdintasuna bere ezaugarrietariko bat dela, bera ulertzeko moduak oso ezberdinak izan daitezkeen arren. Bestetik, bistakoa dirudi kapitalismoaren logikak, merkatuaren ulermen neoliberal zehatz bat oinarritzat hartuz, desberdintasunak sorrarazten dituela eta, edozelan ere, ekitatearen helburuak erdiestea ez dela egungo gizartearen lehentasunetariko bat. Duela urte gutxi, berdintasunarekiko kezka aintzat hartuz Callinicos-ek zioen (2003: 159-160) sozialismoaren gainbeheraren ondoren gutxi direla kapitalismoaren alternatiba bideragarriren bat edo sozioekonomikoki erakargarria izan daitekeen ereduren bat existitzen dela sinesten dutenak. Testuinguru hau aldatzeak irudimen utopikoaren berpizkunde bat eskatzen du, alegia ekonomikoki eraginkorra, demokratikoa eta merkatutik at egongo litzatekeen koordinazio ereduren bat (lausoturiko ideia bezala bada ere) aurreikusteko gaitasuna berreskuratu behar da. Egungo gaitasunik eza, zapuzturiko itxaropenen eta kapitalismo mota zehatz batek lorturiko irudimen-nagusitasunaren emaitza da. Baina hau ez da gertakizun aldaezin bat, zerbait iragankorra baizik. Kritikatik abiatuz, mundua kudeatzeko begirada berriak garatuko dira. Hau da modernitateak bere berdintasun-eta askatasun-promesak betetzeko itxaropenik handiena.

Gaur egun justizia global sozialaz hitz egiterakoan, Maxwell-ek (2008) kontuan izan beharreko edukiak zein diren galdetu izan du. Milurtekoko Adierazpenak bai jasotzen dituela justizia globalaz ulertu daitekeenari buruzko osagai propioak, baina hauek alor programatikoan geratzen dira; artean, kontzeptu honek oinarrituz hartzen diren konpromisoek zein milurtekoko helburuek mugatuegiak eta eskasak dirudite justiziaren erreferentzia gisa proposatzeko. Zein lirateke justizia hori bermatuko luketen edukiak? Maxwell-ek hurrengoak zehazten ditu: a) Baztertuei ahotsa ematea eta instituzioekiko kezka; b) giza eskubideen aitortpenari erabakigarri deritzo; c) minimo sozial bat bermatzea; d) birbanaketa justizia sozial globalaren puntu nagusien artean kokatzea; e) herrialde aberatsek eta txiroek elkarri kontuak ematea. Baina berak nabarmentzen duen bezala, justizia global sozialari buruz pentsatzeak pentsamendu zailak eta arriskutsuak ekar diezazkiguke.

### ***9.5.3. Ekitate-helburuak proposatzeko erresistentziak***

Pobreziak zein desberdintasunak, bereziki azkenak, interes-zama handi bat dute eta ez da erraza hurbilketa «garbi» bat egitea. Kontu eztabaidagarriak dira, jokoan dagoena aberastasuna (ekonomiaz mintzo bagara: baliabideen eta jarduera ekonomikoaren emaitzen edo mozkinen banaketa), boterea (politikaz mintzo bagara) eta estatus soziala (gizarte-kontuetan sartzen bagara) dira. Proposamen-eremua edozein izanik ere, pribilegio-posizioak galtzeko erresistentziak agertzen dira eta berdintasunaren aldeko diskurtsoak aurkeztean posiziorik onenetan kokaturik daudenei aurre egin beharko diete, botere-galera dakarren edozein aldaketa gauzatu nahi baldin bada.



Berdintasunari buruzko diskurtso objektiborik ez dagoela baieztatzen denean, desberdintasuna funtsean bera bizi duen gizartearen balioen arabera egokitzen den kontzeptu bat dela esan nahi da. Desberdintasunekiko sentikortasuna aldakorra da kultura bakoitzean, bai errenta-desberdintasunei dagokienez bai genero- zein gizarte-desberdintasunen alorrean. Berdintasun desiratuaren edo desberdintasun onartezinaren ideia zer den ez dator edozein kanpo-arauk ezarria, testuinguru historiko bakoitzean gizarte bakoitzak hartzen duen erabakiaren menpe baitago. Aldi berean, erabaki hau, hainbat prozesu historikoren, partekaturiko balioen, egoera ekonomikoaren eta instituzio zein harreman sozialen emaitza da. Desberdintasunen aurrean tolerantzia handiagoa edo txikiago erakusten duten gizarteak existitzen dira eta gizarte bateko berdintasunaren idealek eboluzionatu egiten dute eta zorrotzagoak izan daitezke une batean, beste une batean ahuldu egin daitezkeen arren. Berdintasunaren idealak ez dira beraz betiko bereganatzen edo eskuratzen, baizik eta egunero irabazi eta mantendu behar dira.

Deigarriena dena axolagabekeria da, alegia, mundu-mailako iritzi publikoak zein nazioarteko erakundeek gizarte globala eraikitzerakoan ekitateaz agertzen duten kezkarik eza. Are gehiago, nazioarte-mailan globalizazioaren ondorioei buruzko baikortasun-diskurtso bat sustatu izan da. Gaur egun, 60ko hamarkadan gertatu bezala, hazkundearen onurak gorai patzen dituen diskurtso bat existitzen da eta horrek birbanaketa-neurriak hartzeko beharrik eza justifikatu nahi du. Gero eta desberdintasun handiagoak dituen mundu honen errealitatearen aurrean, Mendebaldeko herrialdeen ahaleginak merkatuaren funtzionamendua erraztu eta laguntza ofizialaren bitartez gauzak bere onera ekartzera mugatu dira. Baina errealitateak erakusten duenez, aukeren eta mozkinen banaketa hobea sortzeko beharrezkoak diren egiturak eta instituzioak ezarri ezean, merkatuak desberdintasunak sortzen ditu eta ekitatea bilatzeko helburu arau-emaileak zenbat eta urriagoak izan, orduan eta larriagoak dira efektu hauek. «Liberalizazioa bilatu eta gainerako guztia berez jasoko duzue» diskurtsoa ez da desiraturiko ondorio bat besterik, errealitatean justizia bilatu ezean, lortzen den ohiko emaitza desberdintasunen larriagoak izaten baita.

### **Ekitatea globalizatorako beharrezko erreferentzia gisa**

Distantziak murrizteko eta mugak lausotzeko esparru egokitzat globalizazioa aurkezten duen ikuspegiaren aurrean eta merkatu globalen aurrean makurtu beharra dagoela errepikatzen duen diskurtsoari erantzun nahirik, posizio kritikoak plazaratzen dira, ekitatea aurkeztuz gizarte global bat eraikitzeko beharrezko erreferentzia gisa. Izan ere, batetik merkatuek ez dute beti modu berean jokatzeko eta jokabide aldakorra dute ezarritako esparru instituzionalaren arabera. Erregulazio ezberdinek emaitza ezberdinak sortzen dituzte eta nazioarteko merkatuen egungo erregulazioa, herrialde industrializatuek ezarria izanik, aberatsenen interesentzat mesedegarria da. Bestetik, ezin da baieztatu globalizazioaren jardura ekonomikoaren hedapena eskualde eta

herrialde guztietan eman denik. Haren ezarpenak desberdintasun asko izan ditu eta, zentzu askotan, mundua globala izatetik urrun dago eta mugek erabakigarriak izaten jarraitzen dute pertsonak beren bizitzan espero dezaketen etorkizuna ezagutzeko<sup>70</sup>. Etorkizun horrek aukera erabat ezberdinak izaten ditu pertsonaren jaiolekua edo bizilekuaren arabera. Gizarteek ez dute legitimazioa eraginkortasunaren bitartez soilik lortzen (eraginkortasuna beharrezkoa izan daitekeen baldintza bat izan arren), baizik eta batez ere bidezkoak edo justuak izateak ematen die ezaugarri hori. Hau da, gakoa hazkunde horrek benetan pertsonen garapenean eragingo duela bermatzean dago.

Globalizazioa ez da zerbait lehenetsia eta ezin daiteke babestu aukera posible bakarra gaur egun indarrean dagoen eredia denik. LNE/OITek *Globalizazio justu baten alde* txostenean dioen moduan: «Globalizazioa guk berarekin egiten dugun hori bera izango da. Bere emaitzak bere ibilbidea gidatzen duten politiken, arauen eta instituzioen menpe egongo dira; baita bere eragileek arnasten dituzten balioen menpe eta hauek prozesuan eragiteko duten gaitasunaren esku ere» (OIT, 2004). Ondorioz, gaur egun maila globalean funtzionatzen duten justizia-irizpideak zein diren jakitea, mundu berdina bat bilatzen duen edonork erantzun beharreko funtsezko galdera bilakatu da.

Horrek esan nahi du beharrezkoa dela jakitea gizarte globalarentzat desio diren helburuak zein diren, eta ezagutzea xede horiek errealitate nola bihurtu daitezkeen. Horrek instituzioen eta arauen eraldaketa bat dakar, behar den moduan funtziona dezaten. Hemen zeregin erabakigarria dute balioek, sinesmenek eta ideiek. Gure mundua gobernatzen duten instituzioak, bilatzen dugun etorkizunaren emaitzak baino ez dira, hau da, gaur egun arazoak ikusteko modua eta, ondorioz, arazo horien konponbideak bistaratzeko era besterik ez dira.

#### **9.5.4. Birbanaketa globalerako egungo zutabeak**

Maila globalean proposamen birbanatzaileak babesten dituzten ideien artean, nolakoak dira gaur egun gure gizartean dihardutenak? Ikuspegi hau aurkezteko Munduko Bankuaren ekonomialari aipagarri baten lana azalduko dugu, Milanovic-ena (2006) alegia. Ekonomialari horrek bere jardura profesionala desberdintasun globalaren ikerketan zentratu du eta bere posizioa irmoa eta lan egiten duen erakundearen iritziaz kanpokoa da, modu irekian proposatzen baitu transferentzia globalen beharra arrazoi ekonomikoak eta etikoak oinarritzat hartuz. Horrela,

---

70. CEPAL (2002): Globalizazioak elkarrekiko mendekotasun hazkor bat sortzeaz gain, nazioartean desberdintasun nabariak ere ekarri ditu. Gaur egungo eztabaidetan asko erabili izan den kontzeptu batekin alderatzeko, mundu-ekonomia erabat desorekatutako «joko-eremu» bat dela esan daiteke, bere ezaugarri berezigarriak hurrengoak direlarik: batetik herrialde garatuetan dagoen kapitalaren kontzentrazioa eta teknologia-eraketa eta, bestetik, hauek ondasunen eta zerbitzuen merkataritzan duten grabitazio handia. Ordena globalaren asimetria bereizgarri hauek dira nazioarteko errenta-banaketa dauden desberdintasun sakonen iturburu nagusia.

transferentzia hauek izaera erabat birbanatzailea izan behar dutela dio, eta ondorioz, pertsonen eta gizartearen beharrezko arabera eman beharko lirakeela azpimarratzen du, beste edozein kontsiderazio kontuan izan gabe. Abiapuntu honetatik, transferentzia hauek egia bihurtzeko lagungarriak diren faktoreak zein izan daitezkeen galdetzen du eta horrek gaur existitzen diren posizio ezberdinak berrikustea aholkatzen du.

Birbanaketa globalaren aurreko jarrera hurrengo faktoreei buruzko ikuspegiak baldintzatzen du: instituzio globalen egingarritasunak edo desiragarritasunak; nazio-estatuari ematen zaion zereginak edo zuzenki harremanik ez dugun pertsonetikiko daukagun kidesunak. Milanovic-ek politika birbanatzaileak gauzatzeko kidesun kulturalak duen garrantzia azpimarratzen du. Beste era batean esanda, komunitate kontzeptua da jokoan dagoena. Komunitate globalari buruzko ideia berbera izan ezean, modu hurbilagoan edo urrunagoan, ezinezkoa izango da beharrezko arabera transferentziak proposatzea. Aitzitik, tokiko gizarteek mintzo garenean, transferentzia horrek legitimitatea du komunitatearen partaide garen artean, elkarri zerbait zor diogula ulertzen baita<sup>71</sup>. Laburbilduz, galdera hurrengoa da: zein dira birbanaketa globala gauzatzeko eta haren hedapena neurtzeko oinarritzat hartu beharreko argudioak?

#### 9.5.4.1. Rawls eta justizia globala

Rawls justiziari buruzko teoriaren erreferentzia izan da XX. mendeko azken laurdenean. Hori dela-eta, derrigorrezkoa da justiziaren printzipioek gizarte globalean duten aplikazioa ulertzeko duen modua aztertzea. Haren justiziaren teoria doktrina kontraktualisten esparruaren baitan kokatzen da, bereizgarritasun gisa kontratuari erreferentziatzeko elementu objektibo baten errekonozimendua erantsi izana onartu behar zaion arren: lehen mailako ondasun zehatz batzuekiko errespetua eztabaida ezina da, edozein negoziatiazioetatik kanpo geratzen direlarik. Ikuspegi kontraktualista horrek justiziari buruzko eztabaidak ebaluaziorako esparru baten ezarpenean zentratzea ekarri du, bere eduki etikoak jorratu beharrean.

Aipaturiko diskurtso etikoaren esangurarik eza, eta horren ondorioz prozedura-esparruek lorturiko nagusitasuna, nabariak dira Rawls-ek herrialdeen arteko transferentziek zein ezaugarri izan behar duten proposatzen duenean. Haren iritziz, herrialdeen arteko transferentziek hurrengoa bete behar dute: i) estaturiko edo oztopaturiko (*burdened*) gizarteetara mugatu behar dira, alegia, gizarte liberal edo duin baten berezko ezaugarriak izatea eragozten duen pobrezia-maila jasaten ari diren haietara; ii) denboran mugatuak izan behar dute, gizarte hauek liberalak edo

---

71. Transferentzien aplikazioan zehertasunak suposatzen duenaren kalkuluak erakusten duenez, Erresuma Batuan pertsona behartsu bakoitzeko egiten den gastua, mundu-mailan behartsu batengatik egiten den gastua baino 97.000 aldiz handiagoa da; Suedian 103.000ra handitzen da proportzio hori eta Frantzia, Alemanian eta AEBetan harreman hori 30.000ra murrizten da.

duinak izatea lortzen dutenean ezabatu behar dira; iii) gainera, transferentziek ez dituzte biziraupenerako gutxieneko beharrianak gainditu behar. Gizarte autoritarioak alboratzen ditu. Planteamendu honek birbanaketa globalerako gutxieneko eskakizun batzuk ezartzea dakar.

Egia esan, Rawls-ek ez zuen inoiz orokorki justizia globalean pentsatu, bere helburua kanpo-politika egoki batek nolakoa izan behar zuen deskribatzea izan baitzen. Horrek adierazten du gizarte globalari buruz eta honek bere gain hartzen dituen birbanaketa-helburuei buruz zuen ideia ez zela oso zorrotza. Dena den, zehaztu egin beharko litzateke Rawls-ek bere bi lanetan (*Justiziaren Teoria* eta *Jendeen Zuzenbidea*) agertzen duen jarrera, nahiz eta nolahi ere adierazgarriena izan bere abiapuntuak (elkarren onurari zuzenduriko kontratu baten existentzia) ekonomikoki horren ezberdinak diren mundu honetako hainbat herrialde berdintasunez ezin barneratu izana. Herrialde guztiak benetan barneratuak egon zitezten lankidetzaren xedeak ulertzeko ikusmolde ezberdin bat beharrezkoa litzateke, edo azken finean komunitate-proposamen bat.

#### 9.5.4.2. *Konpentsazio historikoa*

Birbanaketaren beharra babesteko beste argudio bat, gertatu berriak edo duela askokoak izan daitezkeen prozesu historikoetan oinarritzen da. Prozesu horiei esker, herrialde batzuek, egun aberatsak direnek, euren pribilegiozko posizioa eskuratzea edo indartzea lortu zuten, gainerako herriak menderatuz eta esplotatuz. Lehendabizi, esplotazio koloniala aurkitzen da, batik bat europar herrialdeek Ameriketako, Afrikako eta Asiako beren kolonietan egindakoa. Argi dago esplotazioak gaur egun duen zenbatekoa zehaztea ez dela erraza, baina ez da ezinezkoa ere. Eta nolahi ere, erantzukizun historiko bati buruz hitz egitea ahalbidetzen du eta zor hori nolabait konpentsatu egin beharko da. Berriki emandako kolonizazio prozesuetan inpartzialtasun dezenterekin estima daiteke kolonia-abenturen mozkinak metropolientzat suposatu zutena.

Bigarrenik, eta esplotazio zuzenak baino esangura handiagoarekin, historia hurbilenak inposaturiko traba instituzionalen eta politiken bilduma bat topatzen dugu, oztopo horiek ezarri zituztenak herrialde independizatu berrien eta beste herri batzuen hazkundera eragotzi zuten herrialde berdinek direlarik. Galarazpen hau, batez ere, ezaguerak eta teknologia berriak zabaltzeko eta barreiatzeko ezintasunaren emaitza da. Mekanismo hauen bitartez sorturiko kalteak esplotazio zuzenaren ondorioz eraturikoak baino handiagoak izan dira.

Hirugarrenik, konpentsazioaren aldeko argudioen artean koka daiteke gaur egungo baliabide naturalen eta ongizatearen inguruko auzia. Herrialde aberatsek duten industria-kultura, maila handi batean beraien garapena burutzeko behar izan zituzten baliabideak eskuratzeko arazorik eduki ez izanak azaltzen du: lurrazaleko erregai fosilak eta aspaldiko kolonien baliabide biotikoak. Baina Europak bere

hazkunde-fasean egin zuen baliabideen kontsumo izugarria errepikaezina da. Hau da, gaur egun ez daude eskuragarri Europari oparotasunaren ateak ireki zizkioten baliabide-hornidurak. Izatez, XIX. mendeko lorpen materialen utopiak ezin daitezke gauzatu XXI. mendean. Egundoko gorakada ekonomikok kontuan izan behar du baliabideen urritasuna, nahiz eta hau igorritako ekoizpen- eta kontsumo-ereduarekiko kontraesankorra den. Hemendik sortzen da gutxiengoaren mesederako diharduen eta gainerakoei beren garapena erdiesteko aukerak eragozten dizkien errealitate eraiki baten erantzukizunaren ideia.

Ez dago ingurumen-eremu globalaren gain lehentasunezko edo pribilegiozko eskubiderik duen herrialderik, baina zer egin daiteke batzuen jokabideak printzipio hau puzkatu duenean eta gainerakoak antzeko baldintzetan espazio horretara sarbidea izateko aukerarik gabe uzten dituztenean? Zentzu horretan, herrialde bakoitzaren energia- eta material-kontsumoak bateragarria izan behar du gainerako herrialdeei dagokienarekin, eta biosferaren zama-gaitasunaren neurrietara mugaturik egon behar du. Ez dago justifikazio onargarririk oinarritzko baliabideen maila globaleko birbanaketan: naturaren mugek mugarrizten dute justizia. Etorriz bidaragarriko eredu bat ez letorke bat egungo ibilbide ekonomikoarekin, eta gainera konpentsazio bat eskatuko luke duela asko eginiko xauketaren ondorioz, herrialde askori oinarritzko baliabideetara sarbidea izateko aukera galarazi izanaren truke. Mundu finitu batean justizia-eskakizunek beti beste ongizate modu batzuen bilaketari baturik joan behar dute (Sachs eta Santorius, 2007).

#### 9.5.4.3. *Kosmopolitismoa*

Milanovic-ek ez du globalizazioarentzat erreferentzia etikorik proposatzen, baizik eta instituzio globalen eraikuntzari egiten dio aurre, hauek behetik egin behar direla proposatzen duelarik. Modu horretan erreakzioak tokikotasunetik eraikitzen doaz, esparru globaleko sektore zehatzei erantzuteko beharrak agertzen doazen heinean. Egile honek Ongizate Globalerako Agentzia bat proposatzen du eta estatuez kanpoko erakunde globalen sorrera bereziki garrantzitsua dela adierazten du. Nabaria denez, erakunde edo instituzio global hauek birbanaketa-kanalak izango direla suposatzen da. Baina, zein dira justizia globalaren edukiak berau ikuspegi kosmopolita batetik aztertuz gero?

Egungo globalizazioari egiten zaion kritikarik esanguratsuenetariko bat herritartasunaren ahultzean duen eraginean zentratzen da, batik bat gizarte-eskubideen alorrean. Gakoa hurrengoa da: nondik definitu behar da gaur egun ongizatea? Elkarrekiko mendekotasuna eta duintasuna ongizatearen definiziorako derri- gorrezko erreferentziak dira, testuingurua edozein dela ere. Duintasuna, erreferentzia arauemailea barneratzen duelako, eta elkarrekiko mendekotasuna, berriz, gizartekoitasuna eta unibertsaltasuna eskatzen dituelako. Honek ez dakar ongizatea adimen etikoaren hiru oinarritzko gertakizunen arabera kontsideratzea besterik:

gizakiaren duintasuna izaki etikoa den heinean, ulertuz duintasun honek gizabanakoen artean berdina eta gizakiaren kokapenarekiko erabat independentea izan behar duela; gizakiaren gizartekoitasuna; eta beharrianen aniztasuna, honek onartu egiten du komunean daramagun bizitzak zerbait egin behar duela duintasun hori gabeziek urratua izan ez dadin, (Nussbaum, 2007:274-5). Hau da, komunean bizi diren gizabanako duinen gizarte-ongizate hori nondik eta nola eraiki behar den galdetu behar da.

Ongizateari buruzko gogoeta hori ez da hutsaren gainean egiten, baizik eta egungo errealitateak aurkezten dituen gabezia edo eskakizun berrietatik abiatzen da eta Nussbaum-ek justiziaren mugak ezartzearen gainean duen kezka (2007) berrartzen du, gaur egun justizia sozialak konpontzen ez dituen arazoak antzemateko ardura plazaratuz. «Justizia sozialaren teoriak munduarekiko eta haren arazo larrienekiko sentikorrak behar dute izan eta formulazioa zein egitura eraldatzeko prest egon behar dute, arazo berriei edo errudunki ahazturiko arazo zaharrei erantzun ahal izateko» (Nussbaum, 2007: 21). Beste modu batean esanda, egungo beharrianak politika berriak edo ikuspuntu sozial berriak proposatzetik harago doaz (horiek beharrezkoak izaten jarraitzen duten arren). Horrez gain, beharrezkoa da justizia eta ongizate kontzeptuetan sakontzea, giza duintasuna bermatuko duten praxiek oinarri teoriko sendoa eduki dezaten.

### **Giza garapena eta komunitarismoa**

Idea komunitarioak ahultzen doazen eta indar dibergenteak (bai herrialdeen baitan zein globalki) gailentzen ari diren unean gaude. Kosmopolitismo berrian, irabazleek ez dute komunitatearen beharrik. Aldiz, komunitateak bere baitako elementutzat du mozkinak bere partaideen artean banatzea, hauek duten talentua edo bakoitzaren adimena kontuan izan gabe. Egun, birbanaketa modaz pasaturiko zerbait da, komunitatearen moda pasatu zen bezala, hau batera lorturiko ongizate batean berdintasunez parte hartzen den toki bezala ulertuz; elkarbizitza moduko bat da, bertan aberatsen erantzukizuna zerbait jakina den mailan, beharretan erantzukizun hauek laguntzan islatzeko duten itxaropenak zentzua hartzen duelarik. Baina giza garapenaren ikuspegitik desberdintasunak ez dira ekidin beharrekiko zerbait bakarrik. Horren arabera komunitatea eraikitzea ekitatea eraikitzean datza. Hortaz desberdintasunak esanguratsuak dira garapenerako eta, ziurtasun honetatik abiatuz, garapenerako lankidetzaren ikuspegi estrategiko batek bere helburuen artean jaso beharko du desberdintasunen murrizketa.

Giza garapenaren ikuspegi estrategikoak tokiko komunitateak aldaketarako agente berri bezala aurkezten dituen eszenatoki bat proposatzen du; elementu nagusitzat eragileek (pertsonalek zein kolektiboek) garapen-prozesuetan eta prozesu politikoetan parte hartzeko duten gaitasunaren zabalkunde bat proposatzen du; abiapuntua lotura global berrien sorrerarako tokiko gizarte integralak eta kohesionatuak ezinbestekoak direla kontsideratzea dela uste du. Globalizazio hazkorrak harreman berriak sortzeko aukera izan beharko luke, harremanak finkaturiko bere ezaugarrietara moldatzea eskatzen duen eredu bat izan behar. Elkarrekiko mendekotasuna nazioarteko giza

elkarbizitza ekitatiboagoa bilakatuko duen esparru berri baten eraikuntzara zuzendurik egon daiteke eta izatez hala egon beharko luke. Ez da egia globalizazioak aurrezarritako eredu bat eduki behar duenik, ez eta teknologiek jokamolde zehatz bat inposatzen dutenik ere.

Gizarte globala benetan elkarrekiko mendekoa izango da, behetik gora eraikitzen bada. Gainerako gizartea potentzien botereen mendekoa eta hauen agindupekoa izango da. Horrela, parte-hartzea egungo une historikoaren funtsezko elementuetariko bat bilakatu da. Prozesu honen emaitzak ezaugarri bereizgarritzat lankidetzeta eta topaketa izan ditzan, herrialde eta gizarte guztien parte-hartze aktiboa beharrezkoa izango da, gainerakoan emaitza hau eskuratzeko bermea oso txikia izango da.

### **9.5.5. *Justizia globala***

Hiru ziurtasunek mugatzen dute kosmopolitismoaren eremua: a) errekonozimendu moralak batez ere pertsonen dagokie; b) gizaki guztiei berdintasunez aplikatzen zaie; c) pertsona bakoitzak bere errekonozimendu moralak erakusten die gainerako gizabanako guztiei (Sachs eta Sartorius, 2007:160). Kosmopolitismo moralaren ideia nagusiaren arabera, edozein pertsona esanahi moralaren azken eramailea dela ulertuz, garaiera global baten jabe da. Kosmopolitismoak ez du mundua estatuen multzo bat bezala ulertzen, pertsonen komunitate bat bezala baizik, bertan guztiak justizia eskubidearen jabe direla eta, era berean, justuak izan behar dutela gainerakoekiko. Giza duintasunaren unibertsaltasuna ongizateari buruzko gogoetarako gai nagusien artean aukeratu izana, justizia herritar guztiengana hedatzeko beharri erantzuteko ahalegin bezala uler daiteke, egungo testuinguruak nazioarteko erakundeak gutxienez pobrezia eta desberdintasunaren gertakariak planeta-eremuan proposatzera eraman dituelarik.

Zein jarrera arauemaile hartu behar da pobrezia eta desberdintasunak gailentzen ari diren mundu batean? Pogge-k (2005) beharrezkotzat jotzen du bi galdera nagusi egitea: a) nola da posible aurrerapen teknologikoak izan arren eta gure Mendebaldeko ilustrazioaren balioak izan arren, muturreko pobrezia bere horretan mantentzea, honek berau pairatzen dutenei giza duintasuna ukatzen diela jakinik?; eta, b) oparotasunean gauden herritarrok zergatik ez dugu moralki kezkarria ikusten gure balioak dituen mundu honek horrenbeste pertsonentzat abiapuntu eta aukera horren urriak eskaintzea?

Lehen erantzun batek pobrezia bere horretan irauteko arrazoia hurrengoak dela dio: gure gizarteek (ulertuz gizartea berau osatzen duten gizabanako indibidualei aplikatzen zaiela) pobrezia ezabapena ez dutela lehentasun moralizat hartzen. Izatez, pobrezia arazo bat da, baina ez da konkretuki haien arazo, baizik eta beste egokituriko zorigaitza bat bezala ulertzen da. Elkarrekiko mendekotasunaren erreferentzia hartuz, ezinbestekoa da giza duintasunaren unibertsaltasuna aurkeztea, honen arabera onartu egin behar da justizia sozialak herrialdeen artean dauden

desberdintasunak ezin dituela albo batera utzi, zeren desberdintasun horiek pertsonen ongizatea erdiesteko dauzkaten aukerei eragiten baitiete.

Indarrean dauden joko-arauekin zaila da pentsatzea herrialde behartsuenek beren helburuak erdietsiko dituztenik, herrialde aberatsen politikek (garapenaren bilaketa helburu nagusizat hartuz) eraldaketa garrantzitsuak jasan gabe. Herrialde behartsuek ezin diete, beren kabuz, aurre egin pobreziaren sareetan tranpaturik mantentzen dituzten egiturazko mugei. Muga garrantzitsuenen artean herrialde aberatsen borondatearekin eraldatu litezkeen hainbat oztopo daude, hala nola muga-sariak, garapen-bideko herrialdeen esportazioek nazioarteko merkatuetara duten sarbidea murrizten duten diru-laguntzak edo bizitzak salba ditzaketen teknologietara duten sarbidea mugatzen duten patenteak, herrialde aberatsetako gobernuekin eta alde anitzeko erakundeekin duten zorraren jasanezintasuna, etab.

Eta, aitzitik, pobreziaren aurkako borrokarako estrategien ezaugarri nabarmenena arrazoiak aurkezterakoan nazioarteko dimentsioak duen esangurarik eza, edo kasurik onenetan, duen esangura apala da, bizi dugun munduaren elkarrekiko mende-kotasuna horren nabarmena izan arren. Mantendu egiten da garapena eta pobrezia herrialde bakoitzaren arazo bezala ulertzen dituen munduaren ikuspegia. Baina berdintasunetik egindako proposamen batek onartu behar du mundua, batez ere, biztanleria globalaren baitan zertzen diren harreman sozialen bitartez egituratua dagoela. Harremanok ez dira nazio-estatuaren barnekoak, baizik eta ekoizpen kapitalistaren sistema globalaren baitan aurkitzen dira. Ezin da jendea harreman sozial global hauetatik aldentu.

Justizia global bezala ezaguturiko adierazpena ohikoa bilakatu da mende-hasiera honetan. Izenburu honen pean jorraturiko hainbat gai aurreko mendeetan eztabaidatuak izan diren arren, ikuspegi ezberdin batekin aztertuak izan ziren, («nazioarteko» deritzon ikuspegi bat aplikatuz gaur egungo ikuspegi «globala»ren ordez (Pogge, 2003)). Adierazpen berri honen funtsa gizateriak elkarbizitzarako eta lankidetzarako eredu berriak bilatzeko betebeharr kolektibo bat duela pentsatzean dago, horri esker gizaki guztiek gizalegezko bizitzak bizi ahal izan ditzaten (Nussbaum, 2007: 279)<sup>72</sup>. Hori dela-eta, beharrezkoa da justizia-irizpide bat izatea, honen arabera gure munduan diharduten instituzioek pertsonak eta taldeak moralki onargarria den moduan tratatzen dituzten ala ez ebaluatu dadin, hau da, pertsonen bizitza duin bat izateko beharrezko baldintzak eskaintzen dituzten jakin ahal izateko neurri bat edukitzea beharrezkoa da.

Justizia globalaren eraikuntzari buruzko gogoetan beharrezkoa da aurrerapausoak aldi bereko bi norabideetan ematea: arazo kolektibo berrien kudeaketa

---

72. Pogge-ren (2005) nazioarteko instituzioen eta eragileen erantzukizuna babesteko argudioak xehetasunez aztertzen dira, besteen bizitzan eta pertsonen ongizatea erdiestean eragina dutela kontuan izanik.



helburu duten instituzio berrien sorreran, arazo hauek irizpide birbanatzaileekin aztertuz; eta erreferentzia etikoan berau arau-proposamen bezala ulerturik. Azken horrek aldi berean egokiak diren instituzioen arteko elkarrizketaren emaitza izan behar du.

Proposamen instituzional hau berria da, ez baita egitura sozialaren ekintzetara soilik zuzentzen, baizik eta bera bere osotasunean kontsideratzen baitu. Baina are berritzaileagoa da azterketa moralerako estatua erreferentzia unitate edo oinarritzat gainditzera, orain arte estatuak beren baitan egindako ekintzak aztertzerakoan edo, gehienez, estatu batek hirugarren bati eginiko ekintzen egokitasun moralala balioesterakoan muga hau eztabaida ezina izan baita. Orain baina, proposamen honek instituzioen azterketa moralaren esparrua mundu osora hedatzen du. Hau da, ordena instituzional globala bidegabekoa dela ebaluatzea posible da, baldin eta egungo ereduak sortzen dituen giza duintasunaren aurkako erasoak (muturreko pobrezia ondoan islaturik) ordena instituzional alternatibo batekin egongo liratekeenak baino askoz handiagoak direla babestu baldin badaiteke.

## **BIBLIOGRAFIA**

- Arraigada, I. (2006): “Dimensiones de la pobreza y políticas desde una perspectiva de género”, *Revista Futuros*, **14**, IV, <<http://www.revistafuturos.info>>.
- CEPAL (2002): *Globalización y desarrollo*. CEPAL, LC/G.2157(SES.29/3) 2002ko apirila, <<http://www.eclac.org/cgi-bin/getProd.asp?xml=/publicaciones/xml/6/10026/P10026.xml&xsl=/tpl/p9f.xsl&base=/tpl/top-bottom.xsl>>.
- Chen, S. eta Ravallion, M. (2008): “The Developing World Is Poorer Than We Thought, But No Less Successful in the Fight against Poverty”, World Bank, Policy Research Working Paper 4703, <<http://econ.worldbank.org/docsearch>>.
- Collier, P. (2008): *El club de la miseria. Qué falla en los países más pobres del mundo*, Turner, Madril.
- Davies, J. B.; Sandström, S.; Shorrocks, A. eta Wolf, E. N. (2008): “The World Distribution of Household Wealth”, UNU-WIDER Discussion Paper.
- DESA (2009): *Cómo superar la inseguridad económica*, Estudio Económico y Social Mundial 2008, Departamento de Asuntos Económicos y Sociales, Nazio Batuen Erakundea, New York.
- FAO (2008): *El estado de la inseguridad alimentaria en el mundo*, FAO, Geneva.
- Hoeven, Ralph van der (2008): “Income Inequality Revisited: Can one bring sense back into economic policy?”, ISS Public Lecture Series 2008, 2, Institute of Social Studies, Herbehereak.
- Maxwell, S. (2008): “Global social justice as a new focus for development policy?”, Overseas Development Institute, <[www.odi.org.uk](http://www.odi.org.uk)>.
- Milanovic, B. (2005): *La era de las desigualdades. Dimensiones de la desigualdad internacional y global*, Sistema, Bartzelona.

- Naciones Unidas (2009): *Objetivos de Desarrollo del Milenio*, 2009ko txostena, Nazio Batuen Erakundea, New York.
- Nussbaum, M. (2007): *Las fronteras de la justicia*, Paidós, Bartzelona.
- OIT (2004): *Por una globalización justa: crear oportunidades para todos*, Comisión Mundial sobre la Dimensión Social de la Globalización, LNE, Geneva, <<http://www.ilo.org/public/spanish/wcsdgd/docs/report.pdf>>.
- PNUD (1999 eta 2005): *Informe de Desarrollo Humano*, PNUD, New York.
- Pogge, T. (2005): *La pobreza en el mundo y los derechos humanos*, Paidós Editorial, Bartzelona.
- Sachs, W. eta Santorius, T. (2007): *Un futuro justo. Recursos limitados y justicia global*, Icaria, Intermón Oxfam.
- Sutcliffe, B. (2009): “Nuevos números. ¿Un nuevo mundo a la vista?”, *Revista de Economía Crítica*, 7, 3-26.
- UNIFEM (2009): *El progreso de las mujeres en el mundo 2008-2009*, UNIFEM, New York.
- World Bank (2008): *Global Purchasing Power. Parities and Real Expenditures*, <<http://siteresources.worldbank.org/ICPINT/Resources/icp-final.pdf>>.
- , (2009): *Global Monitoring Report, 2009. A Development Emergency*, World Bank, New York.

### **WEB ORRIAK**

- OXFAM: <http://www.oxfam.org/es/>
- UNRISD: <http://www.unrisd.org>
- Global Policy Forum: <http://www.globalpolicy.org/>
- Munduko Bankua:
- Pobrezia: <http://go.worldbank.org/3YZZS5T5V0>;
  - Elikadura-krisia: <http://www.bancomundial.org/temas/preciosalimentos/>
- Sustainable Economics to End Global Poverty: [www.stwr.org](http://www.stwr.org)
- ALT 3: <http://www.alt3.co.uk/HOME.htm>
- PNUD: <http://www.undp.org/spanish/>
- Nazio Batuak: <http://www.un.org/es/development/>
- Ekonomia eta Gizarte Gaietarako Saila (EGGS):  
<http://www.un.org/spanish/esa/desa/>
- UNIFEM: <http://www.unifem.org/>

## 10. Akronimoak

AEB: Ameriketako Estatu Batuak  
AIZ: Atzerriko inbertsio zuzena  
AKOB: Afrikako, Karibeko eta Ozeano Bareko herrialdeak  
ALBA: Ameriketarako Alternatiba Bolivartarra  
ALCA: Ameriketako Merkataritza Libreko Eremua  
ALALC: Latinoamerikako Merkataritza Libreko Elkarte  
ALADI: Latinoamerikako Integrazio Elkarte  
ANZCERTA: Australiaren eta Zeelanda Berriaren arteko Harreman Ekonomiko Hurbilagoetarako Merkataritza Akordioa  
APEC: Asia eta Ozeano Bareko Elkarlaguntzarako Foroa  
ASEAN: Asiako Hego-ekialdeko Nazioen Elkarte  
ATTAC: Tobin Tasa ezartzearen aldeko elkarte (*Association pour la taxation des transactions financières et pour l'action citoyenne*)  
BIS: Nazioarteko Ordainketa Bankua (*Bank for International Settlements*)  
BWI: Bretton Woods-eko Instituzioak  
CAFTA: Erdialdeko Amerikako Merkataritza Libreko Akordioa  
CARIFTA: Karibeko Merkataritza Libreko Eremua  
CAN: Andeatako Elkarte  
CARICOM: Karibeko Merkatu Bateratua  
CECA: Ikatzen eta Altzairuaren Europako Elkarte  
CEI: Estatu Burujabeen Batasuna  
CEMAC: Erdialdeko Afrikako Ekonomia eta Diru Elkarte  
CEPAL: Latinoamerikako eta Kariberako Batzorde Ekonomikoa  
CDS: Kredituen gaineko eratorria (*Credit Default Swap*)  
COMESA: Hegoaldeko eta Ekialdeko Afrikako Merkatu Bateratua  
EAC: Ekialdeko Afrikako Elkarte (CAO)  
EAEC: Ekialdeko Afrikako Ekonomia Elkarte  
EB: Europar Batasuna  
ECCAS-CEEAC: Erdialdeko Afrikako Estatu Ekonomia Elkarte  
ECOWAS-CEDEAO: Mendebaldeko Afrikako Ekonomia Elkarte  
EFTA: Europako Merkataritza Libreko Elkarte  
EDS: Europako Diru Sistema  
EOI: Esportazioak Ordezteko Industrializazioa  
EPA: Ekonomia Elkarkidetzarako Akordioak

ETN: Enpresa transnazionalak  
EURATOM: Energia Atomikoaren Europako Erkidegoa (SEEA)  
FOCEM: MERCOSUREko Egiturazko Bateratzerako Funtsa  
GATS: Zerbitzuen Merkataritzari buruzko Akordio Nagusia  
GATT: Merkataritzari eta Aduanako Tarifei buruzko Akordio Nagusia  
GCC: Golkoko Lankidetzarako Kontseilua  
GLO: Garapenerako Laguntza Ofiziala  
GBE: Garapen-bideko ekonomiak  
GBH: Garapen-bideko herrialdeak  
GRAN: Andeetako Taldea  
JIME: Jabego Intelektualaren Munduko Erakundea  
IBH: Industrializazio Berriko Herrialdea  
IBRD: Nazioarteko Berreraikuntza eta Garapenen Bankua (*International Bank For Reconstruction and Development*)  
ICSID: Inbertsioei buruzko Desadostasunak Konpontzeko Nazioarteko Zentroa (*International Centre for the Settlement of Investment Disputes*)  
IDA: Nazioarteko Sustapenen Agentzia (*International Development Association*)  
IFC: Nazioarteko Finantza Korporazioa (*International Finance Corporation*)  
I+G+b: Ikerketa, garapena eta berrikuntza  
IOI: Inportazioak Ordezteko Industrializazioa  
KTE: Kanbio-tasa erreala  
KTN: Kanbio-tasa nominala  
LANE: Lanaren Nazioarteko Erakundea  
LPEE (OPEP): Lurralde Petrolio-espportatzaileen Erakundea  
MB: Munduko Bankua  
MBT: Munduko Bankuaren Txostena  
MCCA: Erdialdeko Amerikako Merkatu Bateratua  
MERCOSUR: Hego Konoko Merkatu Bateratua  
MFA-AMF: Multifibra Akordioa  
MIGA: Inbertsioak Bermatzeko Alde Anitzeko Erakundea (*Multilateral Investment Guarantee Agency*)  
MME: Munduko Merkataritza Erakundea  
NAFTA-TLCAN: Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Akordioa  
NASDAQ: AEBetako balore teknologikoen burtsa (*National Association of Securities Dealers Automated Quotation*)  
NBE: Nazio Batuen Erakundea  
NBGP (PNUD): Nazio Batuen Garapen Programa  
NDF: Nazioarteko Diru Funtsa  
NDS: Nazioarteko Diru Sistema  
NIFA: Nazioarteko Arkitektura Finantzario Berria (*New International Financial Architecture*)

NFI: Nazioarteko Finantza Instituzioak  
NYSE: New Yorkeko burtsa (*New York Stock Exchange*)  
NOEB: Nazioarteko Ordena Ekonomiko Berria  
NPB: Nekazaritza Politika Bateratua  
OECD: Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea (ELGE)  
(*Organisation for economic cooperation and development*)  
OTC: Merkatu ez-ofizialak (*over the counter*)  
OUA: Afrikar Batasunaren Erakundea  
PAL: Lagoseko Ekintza Plana  
SAARC: Hego Asiako Eskualdeen Lankidetzarako Elkartea  
SADC: Hegoaldeko Afrikako Garapen Elkartea  
TRIPS: Merkataritzarekin lotutako Jabego Intelektuala  
UDEAC: Erdialdeko Afrikako Ekonomia eta Aduana Batasuna  
UDEAO: Mendebaldeko Afrikako Ekonomia eta Aduana Batasuna  
UEMOA: Mendebaldeko Afrikako Ekonomia eta Diru Batasuna  
UMA: Arabiar Magrebeko Batasuna  
UNASUR: Hego Amerikako Nazioen Batasuna  
UNCTAD: Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia  
UNICEF: Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtza  
WK: Washingtongo Kontsentsua



## Sailean argitaratu diren beste liburu batzuk

### *Moneta-teoria berrirantz*

Joseba Felix Tobar Arbulu  
1999an argitaratua  
ISBN: 84-8438-001-7

### *Kanpo-zorraren patologia*

Joseba Felix Tobar Arbulu  
2001ean argitaratua  
ISBN: 84-8438015-7

### *Euskal Herriko ekonomia*

Mariluz

Jubeto Ruiz, Yolanda,, Mikel Zurbano Irizar, Solange  
2002an argitaratua  
ISBN: 84-8438-025-4

### *Inbertsio-proiektuen azterketa eta balorazioa herri-erakundeetan*

Alaitz Mendizabal Zubeldia, Amaia Urkiola Fernandez,  
Juan Felix Jauregi-Arraburu Zenitagoia, Imanol Basterretxea  
Markaida, Maider Aldaz Odriozola  
2003an argitaratua  
ISBN: 84-8438-036-X

### *Inflazioaren aurka: Bankugintza berriaren jarduerak*

Joseba Felix Tobar Arbulu  
2004an argitaratua  
ISBN: 84-8438-054-8

### *Ekonomia sozialaren erronkak kapitalismo globalean*

Antxon Mendizabal Etxabe, Anjel Mari Errasti Amozarrain  
2004an argitaratua  
ISBN: 84-8438-049-1

### *Enpresaren ekonomia eta zuzendaritza: Teoria eta praktika*

Iñaki Heras Saizarbitoria  
2004an argitaratua  
ISBN: 84-8438-047-5

*Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituna eta  
Nafarroako Ekonomia Hitzarmena*

Baleren Bakaikoa Azurmendi  
2007an argitaratua  
ISBN: 978-84-8438-097-9

*Politika ekonomikoaz*

Adrian Zelaia Ulibarri  
2009an argitaratua  
ISBN: 978-84-8438-234-8



## **Ekonomia Sailean Uztaro aldizkarian argitaratu diren artikuluak**

### **Lan-taldeak enpresa txiki eta ertainetan (ETEetan)**

Albizu Gallastegi, Eneka; Jauregi-Arraburu Zenitagoia, Juan Felix; Basterretxea Markaida, Imanol; Barrutia Guenaga, Jon; Landeta Rodriguez, Jon; Mitxeo Grajirena, Jone, *Uztaro 18*, 3-15.

### **Euskal enpresa eta lankidetzak-akordioak**

Albizu Gallastegi, Eneka; Jauregi-Arraburu Zenitagoia, Juan Felix; Basterretxea Markaida, Imanol; Barrutia Guenaga, Jon; Landeta Rodriguez, Jon; Mitxeo Grajirena, Jone, *Uztaro 21*, 35-43.

### **Balantzeen eguneratzea eta bere eragina urteko kontuetan**

Aldazabal Etxebarria, M. Edurne; Saitua Iribar, Ainhoa, *Uztaro 25*, 3-12.

### **Bilboko Burtsa 1992. urtean**

Alonso Lopez, Ibon, *Uztaro 7*, 3-16.

### **Telelana: lan-eredu baten testuingurua**

Alonso Lopez, Ibon, *Uztaro 13*, 23-34.

### **Kontabilitate Plan Orokorren egokitzapena mozkin helburu ez duten erakundeentzat**

Amiano Bonaetxea, Iratxe; Zubiaur Amiano, Gaizka; Aldazabal Etxebarria, M. Edurne, *Uztaro 41*, 3-14.

### **Bioaniztasunaren galera eta jabego eskubideak**

Ansuategi Cobo, Alberto, *Uztaro 15*, 3-15.

### **Industria kulturalaren garapena**

Azpillaga Goenaga, Patxi, *Uztaro 9*, 7-19.

### **Betiko bankaren presentzia interneten: bezeroentzako laguntzaren aspektu ezberdinen azterketa konparatiboa**

Barrenetxea Ayesta, Miren; Celestino Gutierrez, Agurtzane; Etxegarai Legarreta, Olatz; Flores Garcia, Pedro, *Uztaro 39*, 11-25.

### **Zientzia eta herria. Euskal ekonomilari baten ikuspuntua**

Barrutia Etxebarria, Xabier, *Uztaro 6*, 3-12.

### **Altos Hornos de Vizcaya-ren berregituraketa**

Barrutia Etxebarria, Xabier, *Uztaro 32*, 3-16.

### **Transnazionalak eta garapena**

Barrutia Etxebarria, Xabier, *Uztaro 39*, 27-38.

### **Txina nazioarteko testuinguruan: oihalgintza eta jantzigintza**

Barrutia Etxebarria, Xabier; Areskurrinaga Mirandona, Eflen; Martinez Tola, Elena, *Uztaro 58*, 11-26.

### **Globalizazioaren inguruko zenbait gogoeta**

Bidaurrazaga Aurre, Eduardo, *Uztaro 28*, 3-35.

### **Eskualde-mailako integrazio ekonomikoa eta egitura aldeanitzaren barrukoa, garapenerako estrategia modura**

Bidaurrazaga Aurre, Eduardo, *Uztaro 43*, 3-16.

### **Finantza-aukeren analisisa**

Bilbao Garzon, Alberto, *Uztaro 22*, 13-39.

Toledoko Hitzarmenaren ondoren, ongizate-maila esku pribatuetan  
De la Peña Esteban, J. Iñaki, *Uztaro* **40**, 19-36.

Euroa oso gertu daukagu  
Erauskin lurrita, Iñaki, *Uztaro* **38**, 3-18.

Multifuntzionaltasuna eta baso-eredu produktibistaren krisia. Funtzio ekologikoak  
Bizkaiko baso-politikan  
Esparta Soloeta, Iñaki, *Uztaro* **68**, 5-30.

Landa-garapen politika eta ingurumenarekiko harremana Euskal Autonomia Erkide-  
goan (1992-2008)  
Etxano Gandariasbeitia, Iker, *Uztaro* **70**, 27-47

Natura-eremu babestuen balorazio ekonomikoa Euskal Herrian: berrikusketa  
bibliografiko bat  
Etxano Gandariasbeitia, Iker, *Uztaro* **74**, 5-19

Ekonomia erregionalari buruzko zenbait ohar: Euskal Herriko kasua  
Etxebarria Kerexeta, Goio, *Uztaro* **2**, 3-18.

Langileen ezagueren erabilera eta berrikuntzara zuzendutako industri politikaren  
gaurkotasuna Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren kasuan  
Etxebarria Kerexeta, Goio; Gomez Uranga, Mikel, *Uztaro* **1**, 15-33.

Energiak eta erregaiak (Itzulpena)  
Etxebarria Otadui, Ander, *Uztaro* **41**, 101-114.

EAEko etxebizitza-politika garapen iraunkorraren argitan  
Etxezarreta Etxarri, Aitziber, *Uztaro* **67**, 5-19.

Sailkapen-analisia aldagai hertsia eta irekia batera tratatuz. "EHUdenda" inkesta  
euskaraz erantzun zutenen kasua  
Fernandez Agirre, Karmele, *Uztaro* **62**, 33-45.

Negozio-ekintzen globalizazioa eta kontabilitatea bateratu beharra  
Garayar Erro, Ainhoa, *Uztaro* **47**, 3-15.

Ikuskaritza-arauegia aldaketak: bide onetik gabilta?  
García Delgado, Sonia M.; Ipiñazar Petralanda, Izaskun, *Uztaro* **49**, 7-20.

Ikuskaritza-jardueran kalitate-kontrolak Europako eremuaren ikuspegitik  
García Delgado, Sonia M.; Ipiñazar Petralanda, Izaskun, *Uztaro* **55**, 9-28.

Kopenhageko Klima Aldaketari buruzko Konferentzia: helburua Mexikon lortu behar da  
García Lupiola, Asier, *Uztaro* **73**, 23-37.

Boterea eta lidergoa antolakuntzetan: kontzeptuak, taktikak, emaitzak  
Gonzalez Simón, Miguel; Guenaga Garai, Galder, *Uztaro* **54**, 9-26.

Lidergoa eta enpresa: lidergorako potentziala, jatorria eta enpresako rol nagusiak  
Gonzalez Simón, Miguel; Guenaga Garai, Galder, *Uztaro* **60**, 13-34.

Lidergoa, aktibo ukiezinak eta ezagutzaren kudeaketa antolakuntzetan  
Gonzalez Simón, Miguel; Guenaga Garai, Galder, *Uztaro* **66**, 21-40.

Euskal Armak Asian. Armagintzaren historiaren istorio bat  
Goñi Mendizabal, Igor, *Uztaro* **55**, 9-29.

Jokabide kodeak, label sozialak eta enpresaren gizarte erantzukizuna nazioartean.  
Heras Saizarbitoria, Iñaki, Errasti Amozarrain, Anjel Mari, *Uztaro* **37**, 19-46.

Kalitate-kudeaketaren paradigma: enpresen kudeaketarakobeste moda bat?  
Heras Saizarbitoria, Iñaki, *Uztaro* **67**, 21-31.

Emakumeok, zientzia eta teknologia  
Jubeto Ruiz, Yolanda, *Uztaro* **33**, 3-19.

Aurrekontu publikoek sexurik ote dute? Genero-aurrekontuen osagai eta erronka nagusiak  
Jubeto Ruiz, Yolanda, *Uztaro* **61**, 25-44.

Lurretiko elikatura-sektorea. Egoera eta perspektibak  
Lan Kide Aurrezkoa, *Uztaro* **2**, 47-61.

Emakumearen arazo ekonomikoen analisi teoriko orokorra  
Larrañaga Sarriegi, Mertxe, *Uztaro* **17**, 73-84.

Emakumeen aldeko ekintza positiboaren analisia  
Larrañaga Sarriegi, Mertxe, *Uztaro* **34**, 3-13.

Kooperatibismo usufruktuario kubatarrean oinarritutako hainbat iradokizun  
Lertxundi Barañano, Jabier, *Uztaro* **57**, 39-47.

Euskal gizaki autoalternatiboa sozioekonomian (I. atala)  
Lertxundi Barañano, Jabier, *Uztaro* **59**, 9-22

Praktikak Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Espazioaren barnean  
Lertxundi Lertxundi, Aitziber; Mendizabal Zubeldia, Alaitz; Olasolo Sogorb, Aitziber, *Uztaro* **50**, 9-21.

Euskal gizaki autoalternatiboa sozioekonomian (II. atala)  
Lertxundi Barañano, Jabier, *Uztaro* **61**, 47-61.

Euskal gizaki autoalternatiboa sozioekonomian (III. atala)  
Lertxundi Barañano, Jabier, *Uztaro* **65**, 7-18.

Euskal sektore aeronautikoa. Eraketa, egoera eta berrikuntza-sistema sektorialeko eragileak  
Lopez Odriozola, Urko, *Uztaro* **72**, 23-56.

Teknologiaren ekaitzak  
Mendizabal Etxabe, Antxon, *Uztaro* **5**, 3-7.

Lekualdatzeak eta enplegu kooperatiboa Fagor Elektrotresnak E. Koop.-ren ataka  
Mendizabal Etxabe, Antxon; Errasti Amozarrain, Anjel Mari; Etxezarreta Etxarri, Enekoitz, *Uztaro* **57**, 11-37.

Europako elkartean sartzeak Euskal Autonomi Elkartean izandako eragin ekonomikoa  
Navarro Arantzegi, Mikel, *Uztaro* **2**, 19-35.

Inflazioaren teoria integral baterantz  
Renteria Uriarte, Xabier, *Uztaro* **20**, 37-59.

Iraupeneko nekazaritza-ekonomia eta lurzoruaren narriadura  
Pascual Garcia de Azilu, Unai, *Uztaro* **35**, 19-31.

Sarrera endogeno gauzatua  
Rubio Peña, Jesus, *Uztaro* **42**, 3-16.

Sistema ekonomikoaren bikoiztasuna eta prezio-kontrolerako teoria bat  
Tobar Arbulu, Joseba Felix, *Uztaro* **1**, 35-51

Plangintza eta merkatua: Kalecki eta Kornai-ren ikuspegia  
Tobar Arbulu, Joseba Felix, *Uztaro* **5**, 9-16.

Zaborkeriak ari bira, dugun egina  
Tobar Arbulu, Joseba Felix, *Uztaro* **7**, 17-29.

Alokairutik langile-subjetibotasunera  
Tobar Arbulu, Joseba Felix, *Uztaro* **8**, 3-17.

Enpresa-berrikuntza eta transferentzia teknologikoa Euskal Autonomi Elkartearen  
Tobar Arbulu, Joseba Felix, *Uztaro* **10**, 3-15.

Ecuaren jaulkitzea: analisi ekonomikoaren aplikazio berezia  
Tobar Arbulu, Joseba Felix, *Uztaro* **12**, 3-11.

Nazioaren subirotasun monetarioa  
Tobar Arbulu, Joseba Felix, *Uztaro* **16**, 13-20.

Produkzioaren teoria monetario berrirantz  
Tobar Arbulu, Joseba Felix, *Uztaro* **21**, 21-33.

Kapital finkoa eta inflazioa  
Tobar Arbulu, Joseba Felix, *Uztaro* **30**, 13-41.

Interesak eta amortizazioak  
Tobar Arbulu, Joseba Felix, *Uztaro* **44**, 3-17.

Zertan zetzan Iraken aurkako gerra hura?  
Tobar Arbulu, Joseba Felix, *Uztaro* **47**, 17-39.

Euskal Herriko Konfederaziorantz  
Tobar Arbulu, Joseba Felix, *Uztaro* **62**, 47-78.

Garapen-proiektu eta -programetan parte hartzeko eredu eraldatzaileak eztabaidatze-  
tzeko ildoak  
Villalba Egiluz, Unai, *Uztaro* **64**, 37-49.

Ekonomi historiaren historia: sarrera bat  
Zaldua Gonzalez, Iban, *Uztaro* **6**, 59-75.

Ekonomia versus ekologia: historialaritzarentzako zenbait irakaspen  
Zaldua Gonzalez, Iban, *Uztaro* **25**, 13-45.

Hizkuntza-faktorea analisi ekonomikoan  
Zendoia Sainz, Jose M., *Uztaro* **36**, 3-24.

Administrazio publikoaren kontabilitate-eredu berria  
Zubiaur Amiano, Gaizka; Amiano Bonaetxea, Iratxe, *Uztaro* **29**, 3-24.

Zerbitzuen sektorea: Euskal Ekonomi krisiaren irtenbide?  
Zurbano Irizar, Mikel, *Uztaro 2*, 63-82.